


# ERIZAINZAKO HIZTEGIA

Irakurtzeko  
7/1/10

EHUko Euskara Zerbitzua  
Donostiako Erizaintzako Unibertsitate Eskola



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

ARGITALPEN  
ZERBITZUA  
SERVICIO EDITORIAL





# ERIZAINZAKO HIZTEGIA

Wakurzakro  
SOLIK



# ERIZAINZAKO HIZTEGIA

EHUko Euskara Zerbitzua  
Donostiako Erizaintza Eskola

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco    Euskal Herriko Unibertsitatea

ARGITALPEN  
ZERBITZUA  
SERVICIO EDITORIAL

**Hiztegiaren zuzendariak:**

—Terminologia-arduraduna: Iñaki Ugarteburu

—Hizkuntza-arduraduna: Juan Kruz Igerabide

**Proiektuaren kudeatzailea:** Asier Garro

**Hiztegiaren gainbegiralea:** Ibon Sarasola

**Bekadunak:** Nahikari Gabilondo (arduraldi osoa), Saioa Bolibar (arduraldi erdia)

**Bekadun zuzentzailea:** Amaia Apalauza

**Aholkulariak:** Jabier Agirre (UZEI, Medikuntza), Carmen Asurabarrena (Anatomia, Mikrobiologia), M.<sup>a</sup> Isabel Elorza (Erizaintza), Karmele Etxabe (Euskara), Julio Garcia (Biologia, Fisika), Asier Garro (Biokimika), Xabier Huici (Erizaintza), Jazinto Iturbe (Kimika), Mertxe Martinez (Biokimika), M.<sup>a</sup> Jose Uranga (Erizaintza), Felix Zubia (Medikuntza), Xabier Zupiria (Psikologia-Psikiatría), EHUko Euskara Zerbitzuko kideak.

**Babesle eta laguntzailea:** Donostiako Udala, Euskara Patronatua

© 2005, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua

I.S.B.N.: 84-8373-814-7

Lege gordailua: BI - 2879-05

Fotokonposizioa: Ipar, S. Coop. - Bilbao  
Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao

Inprimatzea: Itxaropena, S.A.  
Araba Kalea, 45 - 20800 Zarautz (Gipuzkoa)

## Aurkibidea

Erizaintzako hiztegia .....	9
Espainiera-euskara .....	223
Ingelesa-euskara .....	269
Frantsesa-euskara .....	309

Wakurzakro  
SOLIK



## Erizaintzako hiztegia

# A

.....

**Abaildu:** ad. Ikus ‘nekatu’.

**Abaildura:** iz. Ikus ‘neke’.

**Abaskular:** izond. (Ehunei buruz) Odol-hodirik ez duena. *ES:* Avascular *EN:* Avascular

**Abdomen:** iz. Gorputzeko barrunbe bentralaren beheko zatia. Diafragmaz azpiko erraiak dauzka bere baitan. *ES:* Abdomen *FR:* Abdomen *EN:* Abdomen *Arloa:* Anat.

**Abdominal:** izond. Sabelekkoa, edo sabelaldeari dagokiona. *ES:* Abdominal *FR:* Abdominal *EN:* Abdominal *Oharrak:* Izen gisa erabiltzen da zenbait testuingurutan: ‘abdominalak egin’. *Arloa:* Anat.

**Abduktore:** izond. (Giharrei buruz) Abdukzio-mugimenduak egiten dituen. *ES:* Abductor *FR:* Ravisseur *EN:* Abductor *Adibideak:* Besoa gorputzetik urrunarazten duen giharra. *Arloa:* Anat.

**Abdukzio:** iz. Gorputz atal baten mugimendua; dagokion giharra uzkuztean, gorputzaren ardatzetik urruntzen du atal hori. *ES:* Abducción *FR:* Rapt *EN:* Abduction *Arloa:* Anat.

**Aberrante:** izond. (Ehun edo organoei buruz) Gorputzean lekuz kanpo dagoena. *ES:* Aberrante *FR:* Aberrant *EN:* Aberrant *Oharrak:* Zenbait odol-hodi eta nerbioekin gertatzen da, batez ere. *Arloa:* Biol.

**Aberrazio:** iz. Funtzioen anormaltasun biologikoa; meiosis edo mitosian, kromosomen kopuruan edo egituran akatsen bat izatearen ondorioz agertzen da. *ES:* Aberración *FR:* Aberration *EN:* Aberration *Adibideak:* Aberrazio kromosomikoa:

zelularen zatiketean, kromosomen banaketa irregularra. *Arloa:* Biol.

**Abiarazle:** 1. izond. (Gai bati buruz) Erreakzio kimiko bat abiarazten duena. 2. izond. (Faktore bati buruz) Zelula arrunt batean mutazio genetikoko itzulezina eragiten duena; hazkuntza kontrolgaberako prestatzen du zelula. *ES:* Iniciador *FR:* Initiateur *EN:* Initiator *Adibideak:* Abiarazleak dira, besteak beste: aflatoxinak, nitrosaminak, erradiazioa eta uretanoa. *Arloa:* Kim.

**Abiotiko:** izond. (Ingurune bati buruz) Bizitza ezinezkoa dena. *ES:* Abiótico *FR:* Abiotique *EN:* Abiotic *Arloa:* Biol.

**Abitaminosi:** iz. Gabezia-gaixotasuna; oinarritzko bitamina baten edo gehiagoren gabeziak, xurgapen-ezak nahiz erabilera-ezak eragina izan daiteke. *ES:* Avitaminosis *FR:* Avitaminose *EN:* Avitaminosis *Arloa:* Med.

**Ablazio:** iz. Gorputzaren zati bat kirurgiaz eraztea. *ES:* Ablación *FR:* Ablastie *EN:* Ablast *Oharrak:* Arritmiaren tratamendu endokabitarioran erabiltzen da gaur egun. *Arloa:* Med.

**Abortatu:** ad. Haurdunaldia eten. Berezkoa —fetua hilik dagoelako edo beste arazoren batengatik— edo nahita egindakoa —bitarteko mekanikoak edo kimikoak erabiliz— izan daiteke. *ES:* Abortar *FR:* Avorter *EN:* To abort *Oharrak:* Hilaurreko terapeutikoa fetuak malformazioak dituelako egiten da. *Arloa:* Med.

**Abortatze:** iz. Ikus ‘abortu’.

- Abortibo:** izond. (Gai edo teknika bati buruz) Abortu-eragilea. *ES:* Abortivo *FR:* Abortif *EN:* Abortive *Arloa:* Med.
- Abortu:** 1. iz. Abortatzea, hilaetzea, haurra galtzea. 2. iz. Ikus 'hilaure'. *ES:* Aborto *FR:* Foetus avorté *EN:* Abortus *Arloa:* Med.
- Absizio:** iz. Gorputzeko zati txiki bat tresna zorrotz baten bidez erauztea. *ES:* Abscisión *FR:* Abcission *EN:* Abcission *Arloa:* Med.
- Abulia:** iz. Nahimenaren galera edo murriztasuna. *ES:* Abulia *FR:* Aboulie *EN:* Abulia *Oharrak:* Zerbait egin nahi, baina hartarako kemenik ez izatea. *Arloa:* Psikiat.
- Abuliko:** 1. izond. Abuliari dagokiona. 2. izond. Abuliak jotakoa. *ES:* Abúlico *Arloa:* Psikiat.
- Abzesu:** iz. Gaizkoadura batek gorputzeko gune batean sorrarazten duen zornea, kapsula batez inguratua. *ES:* Absceso *FR:* Abscès *EN:* Abscess *Arloa:* Med.
- ACTH:** iz. Adenohipofisiak (aurrehipofisi ere deitzen zaio) jariatzen duen hormona adrenokortikotropikoa. *ES:* ACTH *FR:* Corticotrophine (ATCH) *EN:* Corticotrophin (ACTH) *Arloa:* Fisiol.
- Adarkadura:** iz. Hainbat norabidetan banaturiko egitura bat. *ES:* Ramificación *FR:* Ramification *EN:* Ramification *Arloa:* Anat.
- Adarkatu:** ad. Adarretan banatu. *ES:* Ramificarse *FR:* Se ramifier *EN:* To ramify
- Adarkatze:** iz. Bi adarretan banatzea. *ES:* Bifurcación *FR:* Bifurcation *EN:* Bifurcation *Adibideak:* Zintzur-hestea bi bronkiotan adarkatzea, bosgarren bizkar-ornoaren parean gutxi gorabehera.
- Adbentzia:** iz. Arteria baten edo beste edozein egituraren kanpoko azken geruza, zuntz elastikoak eta kolageno-zuntzak dituen ehun konektiboz osatua. *ES:* Adventicia *FR:* Adventice *EN:* Adventitia
- Adenektomia:** iz. Guruin edo gongoilen bat erauztea. *ES:* Adenectomía *FR:* Adénectomie *EN:* Adenectomy *Arloa:* Med.
- Adenitis:** iz. Gongoil baten hantura; linfa-gongoilena, maizenik. *ES:* Adenitis *FR:* Adénite *EN:* Adenitis *Arloa:* Med.
- Adenokartzinoma:** iz. Epitelio-ehuneko minbizia; gongoiletan sortzen da. *ES:* Adenocarcinoma *FR:* Adénocarcinome *EN:* Adenocarcinoma *Adibideak:* Urdaileko minbizia. *Arloa:* Med.
- Adenoma:** iz. Guruinen antzeko egitura duen epitelio-ehuneko tumorra; ez-kaltegarria, gehienetan. Epitelio-ehuneko espazioak ditu ezaugarri. *ES:* Adenoma *FR:* Adénome *EN:* Adenoma *Arloa:* Med.
- Adenopatia:** iz. Guruinetako hantura; linfa-guruinetakoa, batik bat. Gaizkoaduren edo minbizia-
- ren ondorioz gertatzen da. *ES:* Adenopatía *FR:* Adénopathie *EN:* Adenopathy *Arloa:* Med.
- ADH:** iz. Hormona antidiuretikoak. Atzehipofisiak jariatzen du, eta gernua kontzentrarazten du giltzurrunetan. *ES:* ADH *EN:* Antidiuretic hormone (ADH) *Arloa:* Fisiol.
- Adierazle:** iz. Ikus 'indize'.
- Adimen urriko:** izlag. Adimen-urritasuna duena; adimen-adina adin biologikoari legokiokeenaren azpitik daukan pertsona. *ES:* Subnormal *FR:* Sous-normal *EN:* Subnormal
- Adimen-koizente:** iz. Pertsona batek duen adimenaren eta bere adinari dagokion adimenaren batez bestekoaren zatidura. *ES:* Coeficiente intelectual *FR:* Quotient intellectuel *EN:* Intelligence quotient *Arloa:* Psikol.
- Adimen-urritasun:** iz. Normala baino adimen maila txikiagoa izateak dakarren egoera; sortzetikoa edo oso goiztiarra izan daiteke. Arazoaren sakontasunaren arabera, adimen-moteltasuna, adimen-elbarritasuna eta idiozia bereiz daitezke. *ES:* Subnormalidad *FR:* Subnormalité, débilité mentale *EN:* Subnormality, mental retardation
- Adin:** iz. Norbait jaiotzen denetik igarotako denbora; laualdi bereizten dira: haurtzaroa, nerabezarora edo gaztarora, helduarora eta zahartzarora. *ES:* Edad *FR:* Âge *EN:* Age
- Adinamia:** iz. Indarraren galera; giharrak ahuldu egiten dira gaixotasun kutsagarri baten ondorioz. *ES:* Adinamia *FR:* Adynamie *EN:* Adynamia *Arloa:* Med.
- Adiposi:** iz. Bilgor-guruinetako gaixotasuna; gehiegizko gantz-metaketatagaitz gertatzen da. *ES:* Adiposis *FR:* Adipose *EN:* Adiposis *Arloa:* Med.
- Adipositate:** iz. Gorputz osoan edo atal batzuetan gantz gehiegi edukitzeak sortzen duen ehun-egitura. *ES:* Adiposidad *FR:* Adiposité *EN:* Adiposity
- Adiposo:** izond. Gantzatsua, gantzez bete da. *ES:* Adiposo *FR:* Adipeux *EN:* Adipose *Adibideak:* Ehun adiposoa.
- ADN:** iz. Ikus 'azido desoxirribonukleiko'.
- Adoleszentzia:** iz. Pubertaroaren hasieratik heldutasunera doan adin tartea; aldaketa fisiko, psikologiko eta emozionalak gertatzen dira aro horretan. 11-13 urtetan hasten da, bigarren mailako sexu-ezaugarriak agertzen direnean, eta 18-20 urte arte irauten du, hots, erabateko heldutasun-itxura lortzen den arte. *ES:* Adolescencia *FR:* Adolescence *EN:* Adolescence
- Adrenalina:** iz. Giltzurrun gaineko guruinekin eta neurona adrenergikoei jariatzen duten hormona. Odol-hodiak estutu eta bihotz-taupadak bizkortzen ditu, besteak beste. *ES:* Adrenalina *FR:* Adrénaline *EN:* Epinephrine *Arloa:* Biokim.
- Adrenergiko:** izond. Adrenalina aktibatzen edo transmititzen duena; nerbio-zuntz sinpatikoak

- adrenergikoak dira. *ES:* Adrenérgico *FR:* Adrénergique *EN:* Adrenergic
- Adsorbataile:** izond. Gasak edo disolbaturiko gaiak erakartzen dituena; solidoa izaten da, eta xafla bat egiten zaio gainazalean. *ES:* Adsorbente *FR:* Adsorbant *EN:* Adsorbent
- Adsortzio:** iz. Likido baten edo gas baten molekularik solido baten gainazalean itsatsirik geratzea. *ES:* Adsorción *FR:* Adsorption *EN:* Adsorption
- Aduktore:** iz. Aduktzio-mugimenduak egiten dituen giharra. *ES:* Aductor *FR:* Adducteur *EN:* Adductor *Arloa:* Anat.
- Adukzio:** iz. Gorputz atal baten mugimendua; dagokion giharra uzkurtzean, gorputzaren ardatzera hurbiltzen du atal hori. *ES:* Aducción *FR:* Adduction *EN:* Adduction *Adibideak:* Besoa gorputz aldera hurbiltzea. *Arloa:* Anat.
- Adukitu:** ad. Gorputzaren ardatzera hurbildu. *ES:* Aducir
- Aerobiko:** izond. Ikus 'aerobio'.
- Aerobio:** izond. Oxigenoa behar duena, bizirik irauteko. *ES:* Aerobio *FR:* Aérobie *EN:* Aerobic *Arloa:* Biol.
- Aerofagia:** iz. Aire-irensketa espasmodikoa, gehienetan korrokadak egiteko beharra eta ondoez gastrikoa sortzen dituena. *ES:* Aerofagia *FR:* Aérophagie *EN:* Aerophagia *Arloa:* Med.
- Aerogastria:** iz. Urdailaren dilatazioa, aire gehiegi pilatzearen ondoriozkoa. *ES:* Aerogastria *FR:* Aérogastrie *EN:* Aerogastria *Arloa:* Med.
- Aerogeno:** iz. Gasa sortzen duen bakterioa. *ES:* Aerógeno *FR:* Aéroène *EN:* Aerogenic *Arloa:* Biol.
- Aerosol:** 1. iz. Gas batean barreiatuak dauden solido edo isurkari baten partikula multzoa. 2. iz. Ontzi batean presiopean sartzen diren partikula atomizatuak. *ES:* Aerosol *FR:* Aérosol *EN:* Aerosol
- Afagia:** iz. Irentsi ezina, kausa organiko edo psikologikoen ondoriozkoa. *ES:* Afaia *FR:* Aphagie *EN:* Aphagia
- Afasia:** iz. Asaldu neurologikoa. Hizkuntza-akatsa edo -galera ditu ezaugarri. Garun-azalaren gune jakin batzuetako lesioren batek eragiten du. *ES:* Afasia *FR:* Aphasie *EN:* Aphasia *Obarrak:* Zentzumenei edo higidurari eragin dakiokete lesioak. Zentzumen-urritasuna duenari ez zaio jarduna ulertzen; mugimendu-urritasuna duenak, berriz, ezin du hitzik egin.
- Afasiko:** 1. izond. Afasiari dagokiona. 2. iz. Asaldu neurologiko baten ondorioz, hitz egiteko edo ulertzeko zailtasuna duen pertsona. *ES:* Afásico *FR:* Aphasique *EN:* Aphasic *Arloa:* Psikiat.
- Afektibitate:** iz. Emoziozko prozesu osoa; emozioei, sentimenduei, nahiari eta aldarteari dagoie. *ES:* Afectividad *FR:* Affectivité *EN:* Affectivity *Arloa:* Psikol.
- Afektu:** iz. Emozioak, sentimenduak, nahia eta gogo-aldartea. *ES:* Afecto *FR:* Affect *EN:* Affect *Arloa:* Psikol.
- Aferente:** iz. Hodi, zain edo nerbio mota; odola, jarioak edo bulkadak sartzen dituzte organo nahiz nerbiogune batetik beste batera. *ES:* Aferente *FR:* Afférent *EN:* Afferent *Obarrak:* 'Sartzen dena' esan nahi du *aferente* hitzak; *eferente* hitza erabiltzen da, aldez, 'irteten dena' adierazteko. *Arloa:* Anat.
- Afiliazio:** iz. Aitaorde bati berea ez den haur baten aitatasuna ematea. *ES:* Afilación *FR:* Affiliation *EN:* Affiliation
- Afinitate:** 1. iz. Bi gaik elkarrekin kontaktuan jartzeko duten joera. 2. iz. Neurria; antigeno bat antigorputz batekin lotzen denean gertatzen den erreakzioaren intentsitatea zehazten du. *ES:* Afinidad *FR:* Affinité *EN:* Affinity *Arloa:* Kim.
- Afluxu:** iz. Gorputzeko gune batera bat-batean joaten den odola nahiz beste edozein isurkari. *ES:* Aflujo *FR:* Afflux *EN:* Afflux
- Afonia:** iz. Ahotsaren ohiko soinuaren galera. *ES:* Afonía *FR:* Aphonie *EN:* Aponia *Obarrak:* Afoniaren eragile izan daitezke: ahots-kordak behartzea, gaixotasun organikoak, edo histeria eta haren antzeko arazo psikologikoak.
- Afrodisiako:** izond. (Gai bati buruz) Sexu-grina pizteko edo areagotzeko ahalmena duena. *ES:* Afrodisíaco *FR:* Aphrodisiaque *EN:* Aphrodisiac *Adibideak:* Janari afrodisiakoak dira ostrak. *Arloa:* Kim.
- Afta:** iz. Batez ere ahoko mukosan agertzen den ultzera edo zauria. *ES:* Afta *FR:* Aphte *EN:* Aphtha
- Aftosi:** iz. Ohiz kanpoko gaixotasun larria; afta askoren agerpena eta sukarra ditu ezaugarri nagusi. *ES:* Aftosis *FR:* Aphtose *EN:* Aphthosis
- Agalaktia:** iz. Amak jaioberria elikatzeko behar bezainbat esne jariatu ezina. *ES:* Agalactia *FR:* Agalactie *EN:* Galactia
- Agar-agar:** iz. Itsasoko zenbait algatik lortzen den gai lingirdatsua, hazkuntzarako oso erabilia bakteriologian. *ES:* Agar-agar *FR:* Agar-agar *EN:* Agar
- Agnesia:** 1. iz. Gorputz atal baten garapen akastuna edo garapen-eza. 2. iz. Organo edo organo zati baten jaiotzetiko gabezia; funtsezko ehuna falta delako eta enbrioia ondo garatu ez delako gertatu ohi da. *ES:* Agnesia *FR:* Agénésie *EN:* Agnesis *Arloa:* Biol., Med.
- Agente:** izond. (Gai bati buruz) Organismoan eragiteko ahalmena duena. *ES:* Agente *FR:* Agent *EN:* Agent
- Agerian jarri:** ad. Ikusgai bihurtu; begi-bistan jarri. *ES:* Manifestar

- Agerraldi:** iz. Lehenengo aldiz agertu den eta osanarentzat kaltegarritzat jotzen den egoera. *ES:* Brote *Arloa:* Med.
- Agertu:** ad. Ikus 'agerian jarri'.
- Agindu:** ad. Ikus 'errezetatu'.
- Aglutinat:** ad. Berez bananduta dauden gaiak bildu eta elkarri itsatsi. *ES:* Aglutinar *FR:* Rapprocher
- Aglutinatzailer:** 1. iz. Atxikidura bideratzen duen konposatu edo gaia. 2. izond. Aglutinazioa eragiten duena. *ES:* Aglutinante *FR:* Agglutinant *EN:* Thickener
- Aglutinazio:** 1. iz. Organismoak mikroorganismo eta parasitoei aurre egiteko duen defentsa-mekanismoa. 2. iz. Zelulak biltzea, aglutininekin izandako harremanaren ondorioz; serum batean zenbat immunoglobulina dagoen jakiteko egiten da, besteak beste. *ES:* Aglutinación *FR:* Agglutination *EN:* Clumping
- Aglutinina:** iz. Antigenoak aglutinatzea eragiten duen antigorputza. *ES:* Aglutinina *FR:* Agglutinine *EN:* Agglutinin
- Aglutinogeno:** iz. Aglutinazioari bide ematen dion gai antigenikoa. *ES:* Aglutinógeno *FR:* Agglutinogène *EN:* Agglutigen
- Agnosia:** iz. Inguruko objektu edo pertsonak eza-gutzeko gaitasunaren galera, osorik edo neurri batean, garuneko lesio organikoren baten ondorioz. *ES:* Agnosia *FR:* Agnosie *EN:* Agnosia
- Agonia:** 1. iz. Oinaze larria edo neurritz kanpoko sufrimendua. 2. iz. Hil aurreko unea, bizitza pixkanaka bukatzen den gaixotasunetan. *ES:* Agonía *FR:* Agonie *EN:* Agony *Arloa:* Psikol.
- Agonista:** 1. iz. Ekintza bat egiteko elkarrekin uz-kurtzen diren giharretariko bakoitza. 2. izond. (Gai bati buruz) Afinitate zelular jakina duen eta emaitza alde aurretik ezagutzeko aukera ematen duena. *ES:* Agonista *FR:* Agoniste *EN:* Agonist *Adibideak:* Farmako agonistak.
- Agorafobia:** iz. Leku irekietan eta jende askoren artean egoteari gehiegizko beldur irrazionala. *ES:* Agorafobia *FR:* Agoraphobie *EN:* Agoraphobia
- Agrafia:** iz. Idazteko gaitasuna galtzea ezaugarri duen asaldu neurologikoa. Garun-azalean dagoen hizkuntzagunean gertatutako arazoren baten ondorioz agertzen da. *ES:* Agrafia *FR:* Agraphie *EN:* Agraphia
- Agrafo:** izond. Idazten ez dakiena, edo idatzi ezin duena. *ES:* Ágrafo
- Agresibitate:** iz. Norberarenganako edo besteenganako etsaitasun- eta eraso-jokabide baten bidez —erreal, sinbolikoa nahiz amestua— adierazten den joera. *ES:* Agresividad *FR:* Agressivité *EN:* Aggressivity *Arloa:* Psikol.
- Agresibo:** izond. Erasorako joera duena. *ES:* Agresivo *FR:* Agressif *EN:* Aggressive
- Agresio:** 1. iz. Oreka organikoaren aurkako edozein ekintza. 2. iz. Norbaiten edo zerbaiten aurkako indarkeriazko ekintza; modu fisikoan, sinbolikoa nahiz hitzez egin daiteke. *ES:* Agresión *FR:* Agression *EN:* Aggression *Arloa:* Med., Psikol.
- Ahantzi:** ad. Lehenago gogoan izandakoa gogoramenetik joan; zerbaiten oroitzapena galdu. *ES:* Olvidar *FR:* Oublier *EN:* To forget
- Ahankor:** izond. Gauzak ahazteko joera duena. *ES:* Olvidadizo *FR:* Oublieux *EN:* Forgetful
- Ahazkor:** izond. Ikus 'ahankor'.
- Ahaztu:** ad. Ikus 'ahantzi'.
- Aheri:** iz. Ikus 'sukar aftoso'.
- Ahidura:** iz. Neke- edo ahulezia-egoera, elikagaiak eta ura falta izatearen nahiz haien asimilazioakats baten ondoriozkoa. *ES:* Inanición *FR:* Inanition *EN:* Inanition
- Ahitu:** izond. Oso nekatua, indarririk gabe. *ES:* Exhausto *FR:* Épuisé *EN:* Exhausted
- Aho:** iz. Aurpegiaren behealdeko barrunbea; digestio-hodiaren lehenengo zatia da. Mihiak, ezpainak, masailek, faringear, aho-gangak eta ahosabai bigunak mugatzen dute. Ahoan daude murtzikadurarako hortzak eta haginak. *ES:* Boca *FR:* Bouche *EN:* Mouth *Arloa:* Anat.
- Ahoa garbitu:** ad. Aho-barrunbea eta hortz-haginak garbitu, ura edo beste isurkariren bat erabiliz. *ES:* Enjuagar *FR:* Rincer *EN:* To rinse
- Aho-garbitzeko:** iz. Ikus 'kolutorio'.
- Aho-gingil:** iz. Ikus 'ubula'.
- Aho-gingileko:** izlag. Ikus 'ubular'.
- Ahoko:** izlag. Ahoari dagokiona. *ES:* Bucal *FR:* Jugal *EN:* Buccal
- Aholegar:** iz. Ikus 'afta'.
- Ahora sartu:** ad. Zerbait aho barruan ipini. *ES:* Embocar
- Ahosabai-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'ahosabaiko'.
- Ahosabai:** iz. Ahoaren ganga edo sabai osatzen duen egitura, mukosa lodia batek estalia. Ahosabai bigunak eta ahosabai gogorrak osatzen dute. *ES:* Paladar *FR:* Palais *EN:* Palate *Arloa:* Anat.
- Ahosabai bigun:** iz. Mukosa batek, gihar-zuntzek eta muki-guruinek osatutako egitura; ahosabai gogorraren atzeko ertzetik zintzilik dago, eta aho-barrunbea eta faringea banatzen ditu zati batean. *ES:* Paladar blando *FR:* Palais mou *EN:* Soft palate *Arloa:* Anat.
- Ahosabai gogor:** iz. Ahosabaiaren hezurrezko zatia; goiko masailezurak eta hezur palatinoak eratzen dute. *ES:* Paladar duro *FR:* Palais dur *EN:* Hard palate, bony palate *Arloa:* Anat.
- Ahosabai-errezel:** iz. Gihar-mintzezko trenkada lauki mugikorra. Goialdea aho-gangaren atzeko ertzean finkatua dago; behealdea, berriz, aske. Erdialdean, aho-gingila dauka. *ES:* Velo del pala-

- dar *FR*: Palais mou, voile du palais *EN*: Velum palatinum, soft palate *Arloa*: Anat.
- Ahosabaiko**: izlag. Ahosabaiari dagokiona, edo ahosabaian dagoena. *ES*: Palatal, palatino *FR*: Palatal *EN*: Palatal *Arloa*: Anat.
- Ahotik ahorako**: izlag. Ahotik ahora ematen dena; itotzeko zorian dagoenari arnasa emateko egiten da, batik bat. *ES*: Boca a boca
- Ahotik ahorako arnasketa**: iz. Ikus 'ahoz ahoko arnasketa'.
- Ahots-korda**: iz. Laringeko ehun elastiko horiz osaturiko bi tolestura indartsuetako bakoitza. Dardara egiten dute biriketarik datorren airearen eraginez, eta ahotsa sortu. *ES*: Cuerda vocal *FR*: Corde vocale *EN*: Vocal cord *Arloa*: Anat.
- Ahoz ahoko arnasketa**: iz. Arnasketa artifiziala; arnasa eteten denean, soroslearen ahoa kaltetuaren ahoaren kontra jarri egiten da. Kaltetuari airea botatzen zaio indarrez, biririkak zabal dakizkion. *ES*: Respiración boca a boca *FR*: Bouche-à-bouche *EN*: Mouth-to-mouth resuscitation *Arloa*: Med.
- Ahoz beheko etzanera**: iz. Jarrera horizontala, beheara begirakoa. *ES*: Decúbito prono *FR*: En décubitus ventral, en pronation *EN*: Prone
- Ahoz gorako etzanera**: iz. Jarrera horizontala, gora begirakoa. *ES*: Decúbito supino *FR*: Décubitus dorsal *EN*: Decubitus supine position
- Ahul**: izond. Indar, kemen, bizkortasun urrikoa. *ES*: Débil, enclenque, endeble *FR*: Faible *EN*: Weak
- Ahulaldi**: iz. Norbait makal edo ahul dabilen aldia. *ES*: Debilidad *FR*: Débilité *EN*: Debility
- Ahuldade**: iz. Makal- edo ahul-egoera. *ES*: Debilidad
- Ahuldu**: ad. Indarra, kemena, bizkortasuna urritu. *ES*: Debilitar, depauperar, desfallecer
- Ahuleria**: iz. Ikus 'ahulezia'.
- Ahulezia**: iz. Indar fisikoaren eta psikikoaren bat-bateko gainbehera. *ES*: Desfallecimiento
- Ahulgarri**: izond. Pertsona bat ahultzen, argaltzen edo ezgaitzen duena; gaixotasuna, lesioa edota gaia izan daiteke. *ES*: Debilitante *FR*: Débilitant *EN*: Debilitating
- Ahultasun**: iz. Ikus 'ahuldade'.
- Ahultze**: 1. iz. Bizi-energia galtzearen ondorioa. *ES*: Debilitación, debilitamiento 2. iz. Ikus 'indargabetze'. *ES*: Atenuación
- Ahur**: izond. Kurbatua; zirkulu baten arkuaren barnealdearen ezaugarria. *ES*: Cóncavo *FR*: Concave *EN*: Concave
- Ahur-gihar**: iz. Esku-ahurreko bi giharretariko bakoitza. *ES*: Músculo palmar *FR*: Muscle palmaire *EN*: Palmar muscle *Arloa*: Anat.
- Ahurtasun**: iz. Organo baten nahiz gorputzeko egitura baten barneranzko sakonunea edo azalera kurbatua. *ES*: Concavidad *FR*: Concavité *EN*: Concavity
- Ahuspez**: adlag. Ikus 'ahoz beheko etzanera'.
- Ahutza**: iz. Ahotik faringerako pasabidea. Ahutzen aurrealdeko zutabeek arku glosopalatinoa eratzten dute; atzealdeko zutabeek, berriz, arku faringo-palatinoa. *ES*: Fauces *FR*: Gosier *EN*: Fauces
- Aire**: iz. Atmosfera eratzten duen gas-nahastura, batez ere oxigenoz eta nitrogenoz osatua. *ES*: Aire *FR*: Air *EN*: Air
- Aireberritze**: iz. Ikus 'aireztapen'.
- Aireztapen**: 1. iz. Biriketan zainetako odola arterIALIZATzea. *ES*: Aeración *FR*: Aération *EN*: Aeration 2. iz. Gasak biriketara sartzean eta handik irritean gertatzen den prozesua. *ES*: Aireación, ventilación *FR*: Ventilation *EN*: Ventilation *Arloa*: Med.
- Aireztatu**: 1. ad. Aire garbia eman. 2. ad. Birikei atmosferatik datorren airea eman, eta biriketako kapilarretako odola oxigenatu. *ES*: Ventilador *FR*: Ventilator *EN*: To ventilate
- Aitatasun**: iz. Aita denak bere seme-alabekiko duen erlazioa. *ES*: Paternidad *FR*: Paternité *EN*: Fatherhood
- Aiurri**: iz. Psikologian eta psikiatrian, pertsona baten ezaugarri psikologikoak eta jarrera. *ES*: Carácter *FR*: Caractère *EN*: Character
- Aiuta**: iz. Ikus 'enema'.
- Aizuntze**: iz. Gai bat iruzur bidez aldatzea. *ES*: Adulteración *FR*: Adultération *EN*: Adulteration
- Akantosi**: iz. Larruazala ohi ez bezala loditzeko prozesua; psoriasisian edo ekzeman gerta daiteke. *ES*: Acanthosis *FR*: Acanthose *EN*: Acanthosis *Arloa*: Med.
- Akidura**: iz. Ikus 'neke'.
- Akilesen orpo-zurda**: iz. Ikus 'Akilesen tendoi'.
- Akilesen tendoi**: iz. Orpoko tendoia; gihar soleoaren eta bikien tendoi sendoa da. *ES*: Tendón de Aquiles *FR*: Tendon d'Achille *EN*: Achilles' heel *Arloa*: Anat.
- Akitu**: ad. Ikus 'nekatu'.
- Akitu**: izond. Ikus 'ahitu'.
- Akne**: iz. Larruazaleko gaixotasuna; bilgor-guruienen hantura du bereizgarri, eta aurpegian, lepoan, bizkarrean eta sorbaldetan izaten da, batez ere. Etiologia ezezaguna du, baina bakterioen laguntzaz gantzaren deskonposizioan parte hartzen du behintzat; gantz-azidoak sortzen ditu eta inguruko larruazalpeko ehunetan narridadura eragiten du. *ES*: Acné *FR*: Acné *EN*: Acne *Arloa*: Med.
- Akolia**: iz. Behazun-jario urria edo jariorik eza. *ES*: Acolia *FR*: Acholie *EN*: Acholia
- Akoluria**: iz. Gernuan, behazun-pigmenturik eza. *ES*: Acoluria *FR*: Acholurie *EN*: Acholuria



- Akondroplasia:** iz. Hezur luzeetako epifisian kartilagoa garatzea galarazten duen arazoa; ondoretasunez etortzen da, eta nanotasun mota bat eragiten du. *ES:* Acondroplasia *FR:* Achondroplasie *EN:* Achondroplasia
- Akrofobia:** iz. Erreakzio psikikoa; goierak bertigoa edo ikara ematean datza. *ES:* Acrofobia *FR:* Acrophobie *EN:* Acrophobia
- Akromatiko:** 1. izond. Kolorerik ez duena. 2. izond. Kolorearekiko itsua dena. 3. izond. (Organulu zelularrei edo gaiet buruz) Ohiko kolortzaileekin tindatzen ez dena. *ES:* Acromático *FR:* Achromatique *EN:* Achromatic *Arloa:* Biol.
- Akromegalia:** iz. Gorputz atalen (eskuak, hankak eta aurpegia, batez ere) neurritz gaineko hazkuntza; hipofisi-guruinak hazkunde-hormona gehiegi jariatzearen ondorioz gertatu ohi da. *ES:* Acromegalia *FR:* Acromégalie *EN:* Acromegaly *Arloa:* Med.
- Akromia:** iz. Azalean, pigmentaziorik eza. *ES:* Acromía *FR:* Achromie *EN:* Achromia *Arloa:* Med.
- Akromioi:** iz. Arantza eskapularraren mutur libre; besahezurraren burua gainditzen du, eta klabikularen buruarekin giltzitzen da. Akromioian txertatzen dira deltoidea eta trapezioa. *ES:* Acromión *FR:* Acromion *EN:* Acromion *Arloa:* Anat.
- Akrozefalia:** iz. Garezurraren deformazio patologikoa; jaioberritan josturak behar baino lehenago ixteagatik gertatzen da. *ES:* Acrocefalia *FR:* Acrocéphalie *EN:* Acrocephaly *Arloa:* Med.
- Akrozefalo:** izond. Garezurraren gualdea puntan duena. *ES:* Acrocéfalo *Arloa:* Med.
- Aktibatu:** 1. ad. Jarduera bat eragin edo luzatu. 2. ad. Gai bat erradioaktibo bihurtu, partikulekin edo erradiazioarekin bonbardatu. *ES:* Activar *FR:* Activer *EN:* To activate *Arloa:* Kim.
- Aktibatzaile:** 1. izond. (Gaiet edo indarrei buruz) Beste gai nahiz egitura baten jarduna eragiten edo bizkortzen duena; entzimak aktibatzen dituen, batez ere. 2. izond. Enbrioiaren egitura anatomikoen garapena eragiten duena. *ES:* Activador *FR:* Accélérateur *EN:* Accelerator *Arloa:* Kim.
- Aktibazio:** iz. Gai baten erreaktibotasuna areagotzea. *ES:* Activación *FR:* Activation *EN:* Activation *Arloa:* Kim.
- Aktibitate ez:** iz. Gai edo egitura baten gelditasun-egoera. *ES:* Inactividad *FR:* Inactivité *EN:* Inactivity
- Akupuntura:** iz. Txinan antzinatek erabiltzen den sendabidea; gorputzeko hainbat gunetan orratz meheak sartuz tratatzen ditu eritasunak. *ES:* Acupuntura *FR:* Acupuncture *EN:* Acupuncture *Arloa:* Med.
- Akutu:** 1. izond. (Eritasunei buruz) Hasiera azkarra, iraupen laburra eta sintoma nabarmenak dituen. 2. izond. (Minari buruz) Zorrotza. *ES:* Agudo *FR:* Aigu *EN:* Acute
- Alantoide:** iz. Zaku-formako organoa; enbrioiaren kanpoaldean dago, eta maskuri-funtzioa du. *ES:* Alantoídes *FR:* Allantoíde *EN:* Allantois *Arloa:* Biol.
- Albaitari:** iz. Osasun-profesionala; animalien gaixotasunetan eta tratamenduan aditua da. *ES:* Veterinario *FR:* Vétérinaire *EN:* Veterinarian
- Albaitaritz:** iz. Zientzia eta lanbidea; animalien gaixotasunak aztertzeaz eta sendatzeaz arduratzen da. *ES:* Veterinaria *FR:* Vétérinaire *EN:* Veterinary
- Albeolar:** izond. Albeoloari dagokiona. *ES:* Alveolar *Adibideak:* Arteria albeolar. *Arloa:* Anat.
- Albeolo-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'albeolar'.
- Albeolo:** 1. iz. Birika-albeolo: biriketan, bronkiadarkaduraren azkeneko zakutto bakoitza. 2. iz. Hortz-albeolo: hortza txertaturik dagoen barrunbea. *ES:* Alvéolo *FR:* Alvéole *EN:* Alveole *Arloa:* Anat.
- Albinismo:** iz. Gorputzean melanina falta izateak dakarren jaiotzetiko gaixotasuna. Haren ezaugarri dira: larruazal zuria, ile zuri edo horia eta iris arrosa. *ES:* Albinismo *FR:* Albinisme *EN:* Albinism
- Albino:** izond. Jaiotzetik pigmentazio falta duena. *ES:* Albino *FR:* Albinos *EN:* Albino *Oharrak:* Erabateko albinoen ezaugarriak dira: belztu ezin den azal zuria, ile zuria, arrosa koloreko begiak, astigmatismoa, fotofobia eta nistagmaoa.
- Albo:** iz. Giza gorputzean enbrioren eskuineko edo ezkerreko alde; bularraren, bizkarraren eta besapearen artean dago. *ES:* Costado *FR:* Côte *EN:* Side
- Albo-etzanera:** iz. Jarrera horizontala, albo batera begirakoa. *ES:* Decúbito lateral
- Albo-ondorio:** iz. Sendakuntza-prozesuak berekin ekar ditzakeen ondorio kaltegarrien multzoa. *Oharrak:* Gaixotasun iatrogenikoak ere deitzen zaie; esate baterako, ebakuntza-gelan hartutako gaixotasunak. *ES:* Efecto secundario *Arloa:* Med.
- Alboko:** izlag. Erdiko planotik urruntzen dena. *ES:* Lateral *FR:* Latéral *EN:* Lateral
- Alborengo:** iz. Ikus 'pneumonia'.
- Albuginea:** iz. Barrabilaren inguruko ehuna biltzen duen zuntzeko mintz zuri eta distiratsua. Milimetro bateko lodiera izaten du, batez beste. *ES:* Albugínea *FR:* Albuginée *EN:* Albuginea *Arloa:* Anat.
- Albugineo:** izond. Guztiz zuria. Begiko irisaren zuriaren antzekoa. *ES:* Albugíneo
- Albugo:** 1. iz. Kornea gardenaren ehunean agertzen den orbain zuria. 2. iz. Azazkaletan agertzen

- diren zeharkako orbain zuriak. *ES:* Albugo *FR:* Albugo *EN:* Albugo
- Albumen:** 1. iz. Hainbat landareren hazietan edo enbrioiaren inguruan dagoen ehuna, elikagai-erreserbaz osatua. 2. iz. Zuringoa, oboalbumina eta beste zenbait proteina dauzkan arrautza zatia. *ES:* Albumen *FR:* Albumen *EN:* Albumen *Arloa:* Biokim.
- Albumendun:** izond. Albuminaz osatua dagoena. *ES:* Albuminoso *FR:* Albuminé *EN:* Endospermic
- Albumina:** iz. Uretan disolbatzen eta beroarekin gatzatzen den proteina bakuna; landare eta animalietan aurki daiteke. *ES:* Albúmina *FR:* Albumine *EN:* Albumin *Adibideak:* Oboalbumina, arrautza-zuringoan; laktalbumina, esnean. *Arloa:* Biokim.
- Albuminuria:** iz. Gernuan albumina agertzen deneko adierazlea. Seroalbumina deitzen zaio albuminari odoletik gernura pasatzen denean. *ES:* Albuminuria *FR:* Albuminuria *EN:* Albuminurie *Oharrak:* Gaur egun, *proteinuria* hitza erabiltzera jotzen da.
- Aldaka:** iz. Pelbisaren alboko zatia. Giltzadura osatzen du izterrezurraren buruaren eta hezur koxalaren azetabuluaren artean. *ES:* Cadera *FR:* Hanche *EN:* Hip *Arloa:* Anat.
- Aldameneko:** izlag. Ikus 'alboko'.
- Alde:** iz. Ikus 'albo'.
- Alde bakarreko:** izlag. Ikus 'aldebakar'.
- Alde bateko:** izlag. Ikus 'aldebakar'.
- Aldebakar:** 1. izond. Alde bakar batean dagoena. 2. izond. Alde bakar batean eragiten duena. 3. izond. Alde bakarra duena. *ES:* Unilateral *FR:* Unilatéral *EN:* Unilateral
- Aldebakartasun:** iz. Alde bakarrekoa denaren ezauzgarria. *ES:* Unilateralidad
- Aldebiko:** izlag. Ikus 'bi aldeko'.
- Aldeko:** 1. izlag. Ikus 'alboko'. *ES:* Lateral 2. izlag. Ikus 'mesedegarri'. *ES:* Favorable 3. izlag. Ikus 'saihetseko'. *ES:* Costal
- Aldi:** iz. Gaixotasun edo gertaera baten garapenean zehazturiko denbora-tartea. *ES:* Estadio, estadio *FR:* Stade *EN:* Stage
- Alditxar:** iz. Ikus 'ondoez'.
- Alditxartu:** ad. Ikus 'ondoeztu'.
- Aldizkako:** izlag. Aldizka gertatzen dena. *ES:* Ocasional *FR:* Occasionnel *EN:* Occasional
- Aldosterona:** iz. Giltzurrun gaineko guruinaren azalean jariatzen den hormona esteroidea; sodioa atxiki eta potasioa kanporatzen du, eta elektrolitoen metabolismoa kontrolatzen du. *ES:* Aldosterona *FR:* Aldostérone *EN:* Aldosterone *Arloa:* Biokim.
- Ale:** 1. iz. Espezie, genero, arraza edo, oro har, mota bereko banako bakoitza. 2. iz. Azterketa miko edo mikroskopikorako behar den ehun, lagin, gai zati, eta abarretako bakoitza. *ES:* Especimen *FR:* Spécimen *EN:* Specimen
- Allelo:** 1. iz. Kromosoma pare batean, bietan leku berean kokatzen diren geneetako bakoitza. 2. iz. Kromosoma-karaktere batek izan ditzakeen ondoretasun-aukeretako bakoitza. *ES:* Allelo *FR:* Alléle *EN:* Allele *Arloa:* Biol.
- Allelomorfo:** iz. Alelo. *ES:* Allelomorfo *FR:* Allelomorphe *EN:* Allelomorph *Oharrak:* Termino zaharkitua da. *Arloa:* Biol.
- Alergeno:** iz. Erreakzio alergikoa eragiten duen edozein gai. *ES:* Alérgeno *FR:* Allergène *EN:* Allergen *Adibideak:* Lore-hautsa, akaroak, eta abar. *Arloa:* Med.
- Alergia:** iz. Organismoaren erantzun bortitza, sentiberatasun handiagoa eragiten dion gai baten aurrean gertatzen dena. I-etik IV-ra izendatzen dira alergia motak. *ES:* Alergia *FR:* Allergie *EN:* Allergy *Adibideak:* Lore-hautsari alergia. *Arloa:* Med.
- Alergiaren kontrako:** izlag. (Gai bati buruz) Alergiak prebenitzeko edo horiei aurre egiteko balio duena. *ES:* Antialérgico *Arloa:* Med.
- Alergologia:** iz. Medikuntzaren adarra; gaixotasun alergikoak aztertzen ditu. *ES:* Alergología *FR:* Allergologie *EN:* Allergology *Arloa:* Med.
- Alergologo:** iz. Gaixotasun alergikoez arduratzen den espezialista. *ES:* Alergólogo *FR:* Allergologue *EN:* Allergist *Arloa:* Med.
- Alexia:** iz. Irakurtzeko ezintasuna, garuneko lesio batek —Gertsman-en infartuak— eragina. *ES:* Alexia *FR:* Alexie *EN:* Alexia *Oharrak:* Gertsman-en infartuak eragiten ditu, era berean, agrafla eta alkalkulia. *Arloa:* Med.
- Algia:** iz. Gorputzeko gune bateko mina, aldaketa anatomikorik gabea. *ES:* Algia *FR:* Algie *EN:* Algia *Adibideak:* Lunbalgia, neuralgia, gastralgia. *Arloa:* Med.
- Alkali:** 1. iz. Metal alkalinoen nahiz amonioaren hidroxidoa edo karbonatoa. 2. iz. Erreakzio basikoa duten hainbat gai kimikoren genero-izena; azidoak neutralizatzeke gai dira, eta gatza eta ura ematen dituzte. 3. iz. Baseen ezaugarri kimikoak dituen konposatua. Alkaliak gantz-azidoekin konbinatzen dira xaboiak osatzeko, eta parte hartzen dute, orobat, karbonato hidrosolubleak osatzen dituzten erreakzioetan. *ES:* Alcali *FR:* Alcali *EN:* Alkali *Oharrak:* Tintaroi-paper gorria urdin bihurtzen dute. *Arloa:* Kim.
- Alkalimetria:** iz. Basikotasunaren neurketa. *ES:* Alcalimetría *FR:* Alcalimétrie *EN:* Alkalimetry *Arloa:* Kim.
- Alkalimetro:** iz. Gaien basikotasuna neurtzeko tresna; sosaren eta potasaren alkali kopurua zehazteko erabiltzen da, batez ere. *ES:* Alcalímetro *FR:* Alcalimètre *EN:* Alkalimeter *Arloa:* Kim.

- Alkalinizatu:** ad. Gai bati ezaugarri alkalinoak areagotu. *ES:* Alcalinizar *FR:* Alcaliniser *EN:* To alkalinize *Arloa:* Kim.
- Alkalino:** izond. (Disoluzioei edo gaien buruz) Alkali baten ezaugarriak dituena; hidrogeno baino hidroxilo ioi gehiago izaten ditu. Taula periodikoko 1a taldeko elementuetako bakoitza. *ES:* Alcalino *FR:* Alcalin *EN:* Alkaline *Adibideak:* Litia, sodioa, potasioa, rubidioa, zesia eta frantzia. *Arloa:* Kim.
- Alkaloid:** iz. Landare-jatorriko gai organiko nitrogenodun eta alkalinoa; alkaloid askok, dosi txikitara erabilita, eragin fisiologiko nabarmenak izaten dituzte gizakiarengan, eskuarki. *ES:* Alcaloide *FR:* Alcaloïde *EN:* Alkaloid *Adibideak:* Atropina, heroina, kafeina, kinina, morfina, kokaina, nikotina, eta abar. *Arloa:* Kim.
- Alkalosi:** iz. Gorputzeko isurkariaren asaldia; azido gutxiegi edo base gehiegi edukitzeak dator. *ES:* Alcalosis *FR:* Alcalémie *EN:* Alkalemia *Arloa:* Kim.
- Alkohol:** 1. iz. Pisuaren % 92,5 alkohol etiliko gutxienez eta % 93,8 gehienez duen prestakina; antiseptiko topiko gisa eta disolbatzaile gisa erabiltzen da. 2. iz. Isurkari garden, kolore eta lurrunkorra; legamia duten karbohidratoen hartiduraren bidez lortzen da. 3. iz. Karbohidrato batetik eratorritako osagaia; hidrogeno atomo bat edo gehiago hidroxilo talde (OH) kopuru berdinez ordezkatuz lortzen da. Hidroxilo erradikalen arabera, monohidroxiliko, dihidroxiliko eta trihidroxiliko gisa sailkatzen dira alkoholak. *ES:* Alcohol *FR:* Alcool *EN:* Alcohol *Adibideak:* Alkohol motak dira: azukre-alkohola, igurtzeko alkohola eta alkohol asegabea. *Arloa:* Kim.
- Alkohol absolutu:** iz. Alkohol hutsa; ura % 1 edo gutxiago besterik ez duena. *ES:* Alcohol absoluto *FR:* Alcool absolu *EN:* Absolute alcohol *Arloa:* Kim.
- Alkoholarekiko iraunkor:** izond. (Mikroorganismo tindatuei buruz) Alkoholak koloregabatu ezin duena. *ES:* Alcoholresistente
- Alkoholodun:** izond. Alkohola duena, edo hari dagokiona. *ES:* Alcohólico
- Alkoholemia:** iz. Odoleko alkohol maila. *ES:* Alcoholemia *FR:* Alcoolémie *EN:* Alcoholemia *Arloa:* Med.
- Alkohol-hartzidura:** iz. Karbohidratoak alkohol etiliko bihurtzeko prozesua. *ES:* Fermentación alcohólica *FR:* Fermentation alcoolique *EN:* Alcoholic fermentation
- Alkoholiko:** izond. Alkoholaren mende erori dena. *ES:* Alcohólico *FR:* Alcoolique *EN:* Alcoholic *Oharrak:* Pertsona alkoholikoak gibekeko zirroisia edo pankreatitis kronikoa, besteak beste, izateko arrisku handia du. *Arloa:* Med.
- Alkoholiko bihurtu:** ad. Alkoholaren mende erori. *ES:* Alcoolizar *EN:* To alcoholize *Arloa:* Med.
- Alkoholimetria:** iz. Isurkari batean dagoen alkohol-edukia neurtzeko erabiltzen den prozedura multzoa. *ES:* Alcoholimetría *FR:* Alcoométrie *EN:* Alcoholometry *Arloa:* Kim.
- Alkoholismo:** iz. Alkoholaren mende erori denaren gaixotasuna. *ES:* Alcoholismo *FR:* Alcoolisme *EN:* Alcoholism *Oharrak:* Edari alkoholikoak denbora luzean neurritz gain hartzearen ondorioz gertatzen da. *Arloa:* Med.
- Alkoholizatu:** 1. ad. Gai bat alkoholez ase edo tratatu. 2. ad. Pertsona bat alkoholaren mende erori. *ES:* Alcoolizar
- Alkoholmetro:** iz. Isurkari batean zenbat alkohol dagoen neurtzen duen dentsimetroa. *ES:* Alcoholímetro *FR:* Alcoolmètre *EN:* Alcoholometer *Arloa:* Kim.
- Almidoi:** iz. Gai organiko glukidiko. Landareen erreserba-organoetan pilatzen da, ale txikien itxuran. *ES:* Almidón *FR:* Amidon *EN:* Starch *Oharrak:* Argiak klorofilan duen eraginari esker sortzen da. *Arloa:* Kim.
- Aloe:** iz. Zitoriaren familiako landarea, hosto luze arantzadun mamitsukoa. Medikuntzan erabiltzen da haren zuku erretxinaduna, zapora garraizkoa. *ES:* Aloe *FR:* Aloès *EN:* Aloe *Oharrak:* Dosi txikitara, digestioaren lagungarria da, eta, erretinetan, libragarri modura jokatzen du. Azaleko gaixotasunetan ere erabiltzen da. *Arloa:* Med.
- Alopata:** iz. Alopation oinarritzen den sendagilea. *ES:* Alópata *FR:* Allopathe *EN:* Allopath *Arloa:* Med.
- Alopatia:** iz. Medikuntza-doktrina: *contraria contrariis curantur*, 'kontrakoak kontrakoekin sendatzen dira'; gaixotasuna sendatzeko, sintomen kontrako eragina duten sendagaiak erabiltzen dira. *ES:* Alopatía *FR:* Allopathie *EN:* Allopathy *Oharrak:* Anemia ferropenikoan, burdin gehigarriak ematen dira hemoglobinareneko sintesia areagotzeko. *Arloa:* Med.
- Alopatiko:** izond. Alopatiari dagokiona. *ES:* Alopático *FR:* Allopathique *EN:* Allopathic *Adibideak:* Tratamendu alopatiko. *Arloa:* Med.
- Alopezia:** iz. Buruko ilearen galera, buru osoan zein buruko zati batean. *ES:* Alopecia *FR:* Alopécie *EN:* Alopecia *Arloa:* Med.
- Alu:** iz. Ikus 'bulba'.
- Alzheimer-en gaixotasun:** iz. Zahartzaro aurreko dementzia mota; adimenaren ahalmena murrizten da. *ES:* Alzheimer, Enfermedad de *FR:* Maladie d'Alzheimer *EN:* Alzheimer's disease *Oharrak:* Garuneko gune batzuk endurtzearen ondorioz gertatzen da, kalteak eragiten direlako neuronetan eta zuntzetan. *Arloa:* Med.
- Ama:** 1. iz. Zelula zein egitura bat, ondorengoen jatorri dena. 2. iz. Erditu den emakumea. *ES:* Madre *FR:* Mère *EN:* Mother



- Amaberri:** 1. izond. Erditu berri den edo erditzen ari den emakumea. *ES:* Puérpera *FR:* Accouchée *EN:* Puerpera 2. izond. Lehen aldiz erditu den emakumea. *ES:* Primeriza, primípara *EN:* First-time mother
- Amaberrien atal:** iz. Erditzera doazen edo erditu diren emakumeentzat eta haur jaioberrientzat prestatutako ospitalea. *ES:* Maternidad *FR:* Maternité *EN:* Maternity
- Amaiera:** iz. Ikus 'bukaera'.
- Amatasun:** iz. Ama denak bere seme-alabekiko duen erlazioa. *ES:* Maternidad
- Amaurosi:** iz. Itsutasuna; iragankorra edo behin betikoa izan daiteke. *ES:* Amaurosis *FR:* Amaurose *EN:* Amaurosis *Oharrak:* Ikusmenaren nerbioguneetako edo begietako gaixotasunek eragiten dute. *Arloa:* Med.
- Ameba:** iz. Uretan bizi den izaki bizidun zelulabakarra; protozoo erriropodoa. *ES:* Ameba *FR:* Amibe *EN:* Amoeba *Oharrak:* Forma aldakorak hartzen ditu, eta mugimendu ameboidea du. *Arloa:* Biol.
- Amebiasi:** iz. Amebek eragindako gaitza. Hainbat guneri erasan diezaieke; hesteetako gaixotasuna denean, disenteria deritzo (*Entamoeba histolitika* protozoiarioak heste lodian eragiten duen gaizkoadura); gibelegoa denean, berriz, ameba-abzesua. *ES:* Amebiasis *FR:* Amibiase *EN:* Amebiasis *Oharrak:* Giltzurrunetara eta garunera ere jotzen du batzuetan. *Arloa:* Med.
- Amenorrea:** iz. Emakumearengan, hilekorik eza. *ES:* Amenorrea *FR:* Aménorrhée *EN:* Amenorrhea *Oharrak:* Haurtzaroen, haurdunaldian, bularra ematerakoan, menopausiaren ondoren eta hilekoaren disfunzioengatik gertatzen da. *Arloa:* Med.
- Amesgaizto:** iz. Amets txarra; larritasuna edo beldurra eragiten du. Loaldian begien mugimendu azkarrari dagokion fasean egiten den amets mota da. Lo dagoena esnarazten du, gehienetan. *ES:* Pesadilla *FR:* Cauchemar *EN:* Nightmare
- Amestu:** ad. Ikus 'amets egin'.
- Ametabolo:** izond. Formaz aldatzen ez dena. *ES:* Ametábolo *FR:* Amétabole *EN:* Ametabol *Oharrak:* Batez ere intsektuetan, metamorfosi nabaririk izaten ez duena. *Arloa:* Biol.
- Ametropia:** iz. Begi-errefrakzioaren akatsa. *ES:* Ametrópia *FR:* Amétropie *EN:* Ametropia *Oharrak:* Erretinan, irudiak ez dira behar bezala eratzten. *Adibideak:* Miopia, hipermetropia eta astigmatismoa. *Arloa:* Med.
- Amets:** iz. Loaldian, irudimenak sortzen dituen gertaeren edo irudien multzoa. *ES:* Sueño
- Amets egin:** 1. ad. Loaldian, fantasiako egoerak edo gertaerak bizi. 2. ad. Egiazkotzat eta ziurtzat jo hala ez dena. *ES:* Soñar *FR:* Rêver, songer *EN:* To dream
- Ametsa izan:** ad. Ikus 'amets egin'.
- Amida:** 1. iz. Amoniakotik eratorritako konposatu mota. 2. iz. Gai nitrogenatua, azido organiko baten hidroxilo taldea (-OH) amino talde batez (-NH<sub>2</sub>) edo amino ordezkatu batez ordezkatzean eratua. *ES:* Amida *FR:* Amide *EN:* Amide *Arloa:* Kim.
- Amigdala:** 1. iz. Gai grisezko masa, almendra-itxura duena; garuneko lobulu tenporalaren aurrealdean dago. 2. iz. Ehunezko —bereziki linfa-ehunezko— masa biribildu txikia. *ES:* Amígdala *FR:* Amygdale *EN:* Amygdala *Adibideak:* Ahosabaiko amigdala, mingainekoa, faringekoa, eta abar. *Arloa:* Anat.
- Amigdalitis:** iz. Amigdalaren hantura, bereziki aho-sabaikoena. *ES:* Amigdalitis *FR:* Amygdalite *EN:* Tonsillitis *Arloa:* Med.
- Amilasa:** 1. iz. Almidoi eta glukogeno polisakaridoetan dauden lutura glukosidikoen hidrolisia katalizatzen duen entzima. 2. iz. Almidoia azukre bihurtzen duen edozein entzima. *ES:* Amilasa *FR:* Amylase *EN:* Amylase *Adibideak:* Listuan, ptialina; pankrean eta pankreako urinean, amilopsina. *Arloa:* Biokim.
- Amina:** iz. Amoniakotik eratorritako konposatu kimikoa, amoniakoaren hidrogeno atomoak erradikal organikoz ordezkatzean eratua. *ES:* Amina *FR:* Amine *EN:* Amine *Arloa:* Kim.
- Amino:** iz. Erradikal monobalentea (-NH<sub>2</sub>); amina eta bestelako konposatu organiko batzuen funtsezko taldea eratzen du. *ES:* Amino *FR:* Amino *EN:* Amino *Oharrak:* Aurritzki gisa erabiltzen da. *Arloa:* Kim.
- Aminoazido:** iz. Azido organikoa; karbono atomo bat edo gehiago amina talde batez ordezkatzeko denean sortzen da. *ES:* Aminoácido *FR:* Aminoacide *EN:* Amino acid *Oharrak:* Proteinen oinarritzko osagaiak dira mota horretako hogeita konposatu. *Arloa:* Biokim.
- Amitosi:** iz. Zelula bat bitan banatzeko prozesua; mitosirik gabe gertatzen da. *ES:* Amitosis *EN:* Amitosis *Oharrak:* Nukleoa eta zitoplasma bi zati berdinetan banatzen dira, egitura aldatu gabe. *Arloa:* Biol.
- Amnesia:** iz. Oroimenaren galera; erabatekoa edo neurri batekoa izan daiteke. *ES:* Amnesia *FR:* Amnésie *EN:* Amnesia *Arloa:* Psikol.
- Amniografia:** iz. Zorro amniotikoaren erradiograma; fetua, zilbor-hestea eta karena aztertzeko egiten da. *ES:* Amniografía *FR:* Amniographie *EN:* Amniography *Oharrak:* Likido opakua (estrontzio ioduroa) injektatu eta gero egiten da, eta fetuaren sexua jakiteko aukera ematen du. *Arloa:* Med.
- Amnios:** iz. Umekia eta likido amniotikoa inguratzen dituen mintzik barnekoena. Zilbor-hestea

- ingurutzen du, eta horren bidez lotzen zaio fetuari. *ES: Amnios FR: Amnios EN: Amnion Arloa: Biol.*
- Amnioskopia:** iz. Likido amniotikoaren azterketa endoskopikoa; endoskopia bat umetokiko lepotik barneratuz egiten da. *ES: Amnioscopia FR: Amnioscopie EN: Amnioscopy Oharrak: Mintzak ebaki gabe, aurrealdeko likidoak ikusten dira. Likido amniotikoa horia edo berdea izateak mekonioa dagoela adierazten du. Arloa: Med.*
- Amniozentesi:** iz. Likido amniotikoa lortzeko, amniosaren puntzioa; xiringa baten bidez xurgatzen da. *ES: Amniocentesis FR: Amniocentèse EN: Amniocentesis Oharrak: Haurra jaio aurretik gaitzak diagnostikatu ahal izateko egiten da. Arloa: Med.*
- Amoniak:** iz. (NH<sub>3</sub>) Nitrogenoz eta hidrogenoz osatutako gasa, koloregabea eta usain sarkorrekoa; hainbat gai organiko (gernua, edo beste) hondatzean sortzen da. *ES: Amoníaco FR: Ammoniac EN: Ammonia Oharrak: Azidoen kontra edo arnas eragile moduan edota gernu-probeta-rako erabiltzen dira amoniakoaren hainbat pres-takin. Arloa: Kim.*
- Amoniko:** izond. Amonioari dagokiona. *ES: Amónico FR: Ammonique EN: Ammonic Arloa: Kim.*
- Amonio-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'amoniko'.
- Amonio:** iz. Erradikal monobalente positiboa, nitrogeno atomo batez eta lau hidrogeno atomoz osatua, eta gatzetan metal alkalinoen antzeko funtzioa betetzen duena. *ES: Amonio FR: Ammonium EN: Ammonium Oharrak: Amonioaren gatzek arnas eta bihotz-funtzioak suspertzen dituzte. Arloa: Kim.*
- Amorfo:** 1. iz. Eragin entzimatikorik ez duen aleo mutantea. 2. izond. Itxura zehatzik ez duena. *ES: Amorfo FR: Amorphe EN: Amorphous*
- Amorratu:** izond. Amorruari edo errabiari dagokiona. *ES: Rabioso FR: Enragé EN: Rabid Arloa: Med.*
- Amorru:** iz. Gaixotasun biriko larria, animalien nerbio-sistema zentralari erasaten diona. *Lyssavirus* generoko birus batek eragina da. Hamar egunetik urtebetera bitarteko inkubazioaldiaren ondoren agertzen da gaixotasuna. Animalietatik gizakietara igarotzen da, kutsatutako odolaren, ehunen, eta batez ere listuaren bidez. Hasieran agertzen diren sintomak dira: sukarra, ondoeza, buruko mina, parestesia eta giharretako mina. Ondoren agertzen dira: entzefalitis akutua, eldar-nioa, giharretako espasmo oso mingarriak, konbultsioak, paralisia, koma eta, azkenik, heriotza. *ES: Rabia FR: Rage EN: Rabies Arloa: Med.*
- Amorruaren kontrako:** izlag. (Agente bati buruz) Amorrua sendatzen edo eragozten duena. *ES:*
- Antirrábico *FR: Agent antirabique EN: Antirabic agent Arloa: Med.*
- Amoxizilina:** iz. Penizilina-antibiotiko erdi sintetikoa, anpizilinarekin antzekoa. Anpizilina baino bizkorrago sartzen da likido bronkialean. *ES: Amoxicilina FR: Amoxicilline EN: Amoxicillin Oharrak: Mikroorganismo sentikor gramnegatibo eta grampositiboek eraginiko gaizkoadura akutuen —pneumonia, bronkitisa eta otitis— aurkako tratamenduan erabiltzen da.*
- Anaboliko:** izond. Anabolismoari dagokiona. *ES: Anabólico Arloa: Biol.*
- Anabolismo:** iz. Osagai sinpleak konposatu konplexu bihurtzen dituen metabolismoaren atala. *ES: Anabolismo FR: Anabolisme EN: Anabolism Arloa: Biol.*
- Anabolizatzaile:** iz. Androgeno naturalez edo sintetikoaz osatutako gai multzoa; anabolismoa errazten dute. *ES: Anabolizante FR: Anabolisant EN: Anabolic Oharrak: Gaixotasunen ondoren erabil daiteke batez ere. Oharrak: Bitaminak anabolizatzaile naturalak dira; sintesiz lorturiko hainbat esteroide, aldiz, artifizialak. Arloa: Med.*
- Anaerobiko:** 1. izond. Oxigeno askearen beharrik gabe gertatu edo bizi ohi dena. 2. izond. Oxigeno faltari edo izaki anaerobioei dagokiena. *ES: Anaeróbico FR: Anaérobie EN: Anaerobic Arloa: Biol.*
- Anaerobio:** 1. izond. (Mikroorganismoei buruz) Oxigenorik ez dagoen ingurunean bizi daitekeena. 2. izond. (Erreakzioei buruz) Oxigenorik gabe gertatzen dena. *ES: Anaerobio FR: Anaérobie EN: Anaerobe Oharrak: Guztiz anaerobio diren organismoentzat, pozoia da oxigenoa. Arloa: Biol.*
- Anaerobiosi:** iz. Oxigeno askerik gabe gertatzen den bizia. *ES: Anaerobiosis FR: Anaérobiose EN: Anaerobiosis Arloa: Biol.*
- Anafase:** iz. Mitosia osatzen duten lau aldietatik hirugarrena; metafasearen ondoren eta telofasearen aurretik gertatzen da. *ES: Anafase FR: Anaphase EN: Anaphase Arloa: Biol.*
- Anafilaktiko:** izond. Anafilaxiari dagokiona. *ES: Anafiláctico FR: Anaphylactique EN: Anaphylactic Oharrak: Shock anafilaktikoa eragin dezakete erleen ziztadek, antibiotikoei alergia izateak, eta abar. Arloa: Med.*
- Anafilaxi:** iz. Sentiberatasuna ez-ohiko eran gehitze-ko erreakzioa, organismoan sarturiko gairen batek eragina. Organismoan sartzen den lehenengo aldian, erreakzio ahula eragiten du gai horrek. *ES: Anafilaxis FR: Anaphylaxie EN: Anaphylaxis Oharrak: Anafilaxiaren ondorioak izan daitezke: gorputzeko zati baten ubelunea, gorputz osoko azkura, hiperemia, eta abar; kasurik larrienetan, shock egoera gerta daiteke. Arloa: Med.*

- Anaforesi:** 1. iz. Izerdi-guruinen jardueraren murrizketa. 2. iz. Anodoranzko migrazio-fenomenoa; partikula koloidalei gertatzen zaie, likido batean esekiduran eta eremu elektriko baten eraginpean daudenean. *ES:* Anaforesis *FR:* Anaphorèse *EN:* Anaphoresis *Arloa:* Med., Kim.
- Analeptiko:** 1. izond. (Gai bati buruz) Zelulen eta organoen ekintza funtzionalak bizkortzeko gaitasuna duena, nerbio-sistema zentrolean eraginez. 2. izond. (Gai bati buruz) Indarberitzeko balio duena. *ES:* Analéptico *FR:* Analeptique *EN:* Analeptic *Arloa:* Med.
- Analgesia:** iz. Mina kentzeko era, gainerako sentiberatasun moduak galdu gabe. *ES:* Analgesia *FR:* Analgésie *EN:* Analgesia *Arloa:* Med.
- Analgesiko:** iz. Minarekiko sentikortasunik eza eragiten duen sendagai; nerbioguneetan eraginez, oinazea kendu edo gutxitu egiten du. *ES:* Analgésico *FR:* Analgésique *EN:* Analgesic *Adibideak:* Parazetamola, AAS, morfina, eta abar. *Arloa:* Med.
- Analisi:** iz. Gai baten konposizio kimikoa ezagutzeko erabiltzen den prozedura. Hartara, osagaia identifikatu edota bakoitzak zein ehuneko duen kalkula daiteke. *ES:* Análisis *FR:* Analyse *EN:* Analysis
- Analista:** iz. Analisi kimikoak edo medikoak eginez, gai baten propietate kimikoak, fisikoak eta bestelakoak aztertzen dituen pertsona. *ES:* Analista *FR:* Analyste *EN:* Analyst
- Anaplasia:** iz. Zelularen ugaltze-jardueran ezaugarri bereizgarriak galtzeko prozesua; ezaugarri morfologiko eta funtzionalak galtzen ditu. *ES:* Anaplasia *FR:* Anaplasie *EN:* Anaplasia *Oharrak:* Mínbizian bakarrik ikusi da, eta tumor gaiztoaren adierazgarri da. *Arloa:* Med.
- Anasarka:** iz. Ikus 'hidropesia'.
- Anastomosi:** iz. Bi hodiren kirurgia-elkarketa; bien arteko fluxua ahalbidetzen du. Aneurisma bat edo buxadura baskular bat konpontzeko egin daiteke, desbideratze bat irekiz. *ES:* Anastomosis *FR:* Anastomose *EN:* Anastomosis *Arloa:* Anat.
- Anatomia:** iz. Izaki bizidunen egitura, forma eta organoen antolamendua aztertzen duen zientzia. *ES:* Anatomía *FR:* Anatomie *EN:* Anatomy
- Anatomiko:** izond. Anatomiar dagokiona. *ES:* Anatómico *FR:* Anatomique *EN:* Anatomic
- Anbulantzia:** 1. iz. Gaixoak ospitalera eramateko prestatutako ibilgailua. 2. iz. Aldi baterako ospitale-estabzimendua, zauritu eta gaixoei laguntza emateko prestatua. *ES:* Ambulancia *FR:* Ambulance *EN:* Ambulance
- Ambulatorio:** 1. iz. (Gizarte-segurantzako sorostegiei buruz) Gaixoa bertaratu gabe, osasun-zerbitzua eskaintzen diona. 2. izond. (Gaixotasun edo tratamenduei buruz) Gaixoa ohean egotera behar
- tzen ez duena. *ES:* Ambulatorio *FR:* Ambulatoire *EN:* Ambulatory *Arloa:* Med.
- Anda(k):** iz. Gaixoak edo zaurituak garraiatzeko erabiltzen den ohea; gurpilduna izan daiteke. *ES:* Camilla *FR:* Civière *EN:* Stretcher
- Andari:** iz. Gaixoak edo zaurituak andatan garraiatzen dituen langilea. *ES:* Camillero
- Anderrai:** iz. Ikus 'pleura'.
- Andeza:** iz. Ikus 'edema'.
- Androgeno:** iz. Gizonezkoen hormona, barrabilek, giltzurrun gaineko geruzak edo gai sintetikoek jariatzen dutena; proteinen eraketa eta gizonezkoen bigarren mailako ezaugarri sexualak kontrolatzen ditu. *ES:* Andrógeno *FR:* Androgène *EN:* Androgen *Adibideak:* Testosterona. *Arloa:* Med.
- Andrologia:** iz. Gizonezkoaren aparatu genitalaren morfologiaren eta patologiaren azterketa. *ES:* Andrología *FR:* Andrologie *EN:* Andrology *Arloa:* Med.
- Andropausia:** iz. Gizonezkoen gonaden funtzioan gertatzen den inboluzio fisiologikoa. *ES:* Andropausia *EN:* Andropause *Arloa:* Med.
- Androsterona:** iz. Sexu-hormona maskulinoa, gurutik isolatua, eta zikiratzearen efektuak arintzeko eraginkorra dena. *ES:* Androsterona *FR:* Androstérone *EN:* Androsterone *Oharrak:* Testosteronak baino eraginkortasun txikiagoa du. *Arloa:* Med.
- Anemia:** iz. Odoleko globulu gorrien kantitatea edo kalitatea urritzearen ondorioa. *ES:* Anemia *FR:* Anémie *EN:* Anemia *Adibideak:* Anemia motak dira: anemia ferropenikoa, anemia megaloblastikoa, eta abar. *Arloa:* Med.
- Anestesia:** iz. Sentimena kentzeko teknika, mina saihesteko bereziki. *ES:* Anestesia *FR:* Anesthésie *EN:* Anesthesia *Oharrak:* Botika anestesikoak erabiltzen dira mina eragin dezaketen prozeduretan, anestesia eragiteko. *Adibideak:* Anestesia orokorra (erabatekoa), erregionala (eskualde batekoa) edo lokala (eremu jakin batekoa). *Arloa:* Med.
- Anestesia epidural:** iz. Anestesia erregionala; bizkarrezurreko gune epiduralean ziztatzen da anestesia, alde pelbiko, abdominal eta genitalaren anestesia lortzeko. *ES:* Anestesia epidural, anestesia peridural *FR:* Anesthésie péridurale *EN:* Epidural anesthesia *Oharrak:* Erditze-unean erabiltzen da batzuetan. *Arloa:* Med.
- Anestesia peridural:** iz. Ikus 'anestesia epidural'.
- Anestesiatu:** ad. Anestesia bidez sentiberatasun partziala edo osoa kendu. *ES:* Anestesiari *EN:* To anesthetize *Arloa:* Med.
- Anestesiko:** iz. Anestesia eragiten duen farmakoa; likido edo gas eran ematen da. *ES:* Anestésico *FR:* Anesthésique *EN:* Anesthetic *Oharrak:* Gas

- eran arnasbidetik, likido eran zain barnetik, eta abar erabil daitezke anestesikoak. *Arloa:* Med.
- Anestesista:** iz. Anestesiko bat emateko medikugaitasuna duen pertsona. *ES:* Anestesista *FR:* Anesthésiologiste *EN:* Anesthesiologist, anesthetist *Arloa:* Med.
- Aneurisma:** iz. Odol-hodi baten zabalkuntza lokala, arteria batena bereziki. Zirkulazioko odolez betetzen da sorturiko poltsa. *ES:* Aneurisma *FR:* Anévrisme *EN:* Aneurysm *Oharrak:* Asalduek, lesioek eta gaixotasunek eragina izan ohi da. *Adibideak:* Aortako aneurisma, garun-arteriako aneurisma. *Arloa:* Med.
- Anfetamina:** iz. Psikofarmakoa; agente sinpatikomimetikoa da, nerbio-sistema zentralaren eragile indartsua. Adrenalinarekin egiturarekin zerikusia du. *ES:* Anfetamina *FR:* Amphétamine *EN:* Amphetamine *Oharrak:* Gehiegi hartzeak mendekotasuna eragin dezake. *Arloa:* Kim.
- Anfoterizina:** iz. Agente antimikotikoa; infekzio sistemiko akutuetan erabiltzen da. A eta B motako antibiotikoak dira. *ES:* Anfotericina *FR:* Amphotéricine B *EN:* Amphotericin B *Oharrak:* Sendagaietan, B anfoterizina agertzen da batez ere, eta, zainetik sartuz, histoplasmek, kriptokoek, kokzidioideek, eta abarrek eragindako barne-mikosien aurkako tratamenduetan erabiltzen da.
- Anfotero:** izond. (Gai kimiko bati buruz) Batzuetan azido gisa eta besteetan base gisa erreazio-natzeko ahalmena duena. *ES:* Anfótero *FR:* Anphotère *EN:* Anphoteric *Arloa:* Kim.
- Angina:** 1. iz. Amigdalen eta inguruko egituren hantura. 2. iz. Itzid-entsazioa. *ES:* Angina *FR:* Angine *EN:* Sore throat *Arloa:* Med.
- Angiografia:** iz. Odol-hodien erradiografia; odolean gai erradiopako bat sartu ondoren egiten da. *ES:* Angiografía *FR:* Angiographie *EN:* Angiography *Arloa:* Med.
- Angiologia:** iz. Medikuntzaren adarra; odol-hodiak eta linfa-hodiak aztertzeaz arduratzen da. *ES:* Angiología *FR:* Angiologie *EN:* Angiology *Arloa:* Med.
- Angiologo:** iz. Angiologian aditua dena. *ES:* Angiólogo *Arloa:* Med.
- Angioma:** iz. Tumor onbera, elkarren artean ehun konektiboz loturiko odol-hodi txiki edo sare kapilar zabaldu batek osatua. *ES:* Angioma *FR:* Angiome *EN:* Angioma *Arloa:* Med.
- Angustia:** iz. Ikus 'larrimin'.
- Anhidrido:** iz. Konposatu mota bat, azido bat deshidratatuz lortzen dena; kimika ez-organikoan, oxigenoz eta ez-metal batez osatua izan ohi da, eta, kimika organikoan, oxigeno atomo batek lotutako bi azilo taldez osatua. *ES:* Anhidrido *FR:* Anhydride *EN:* Anhydride *Arloa:* Kim.
- Anhidro:** izond. (Gai bati buruz) Urik ez duena. *ES:* Anhidro *FR:* Anhydre *EN:* Anhydrous *Arloa:* Kim.
- Anhidrosia:** iz. Izerdirik eza. *ES:* Anhidrosis *Arloa:* Med.
- Anikteriko:** izond. Ikteriazirik ez duena. *ES:* Anictérico *FR:* Anictérique *EN:* Anicteric *Arloa:* Med.
- Anilina:** iz. Amina primarioa; bentzenotik eratorria, usain txarrekoa, eta guztiz pozoitsua da. *ES:* Anilina *FR:* Aniline *EN:* Aniline *Oharrak:* Oinarri gisa erabiltzen da kolore-emaileak, plastikoak eta sendagaiak egiteko. *Arloa:* Kim.
- Anisotropia:** iz. Gai batzuen ezaugarria; horren arabera, balio desberdinak hartzen dituzte propietate batzuek norabidearen arabera. *ES:* Anisotropía *FR:* Anisotropie *EN:* Anisotropy *Arloa:* Fis.-Kim.
- Anisotropo:** iz. Gai mota bat; zenbait propietateren norabidea aldatu ahala, haren balioa ere aldatu egiten da. *ES:* Anisótropo *FR:* Anisotrope *EN:* Anisotropic *Oharrak:* Anisotropoak dira kristal-egitura duten gai gehienak. *Arloa:* Fis.-Kim.
- Ankilosia:** iz. Artikulazio baten mugimendurik eza edo gogortasuna. *ES:* Anquilosis *FR:* Ankylose *EN:* Ankylosis *Arloa:* Med.
- Ankilostoma:** iz. Giza hesteetako bizkarroia, anemia eragiten duena. *ES:* Anquilostoma *FR:* Ankylostome *EN:* Hookworm
- Anobulatorio:** 1. izond. Obulaziorik ezari dagokiona. 2. izond. (Gai bati buruz) Obulazioa galazten duena. *ES:* Anovulatorio *FR:* Agent anovulatoire *EN:* Anovulatory agent *Arloa:* Med.
- Anobulazio:** iz. Obulutegien ezintasuna obulua sortzeko, helarazteko edo askatzeko. *ES:* Anovulación *FR:* Anovulation *EN:* Anovulation *Oharrak:* Obulutegien funtzioaren asaldugatik gertatzen da, haurdunaldian eta edoskitzaroen. *Arloa:* Med.
- Anodizatu:** ad. Anodizazioa egin. *ES:* Anodizar *FR:* Anodiser *EN:* To anodize *Arloa:* Kim.
- Anodizazio:** iz. Elektrolisian, gai metaliko bat anodo gisa jardutea, gai hori geruza-babesle edo -apaintzaile batez estaltzeko. *ES:* Anodización *FR:* Anodisation *EN:* Anodization *Arloa:* Kim.
- Anodo:** iz. Oxidazioa gertatzen den elektrodoa. Elektrolitikoan, gas-hodien eta abarren elektrodo positibo da; hortik sartzen da korrontea zirkuituan. *ES:* Anodo *FR:* Anode *EN:* Anode *Arloa:* Kim.
- Anomalia:** 1. iz. Gizabanako batek duen bereizgarritasun organikoa, bere espezieko gehienekin alderatuz gero. 2. iz. Egoera naturalarekiko desberdina; edo normala ez dena. *ES:* Anomalía *FR:* Anomalie *EN:* Abnormality
- Anomalo:** 1. izond. Egoera normaletik urrun dagoena. 2. izond. Garapen fisiko eta intelektuala

- adinez dagozkionak baino urriagoak dituena. *ES: Anómalo FR: Anormal EN: Abnormal*
- Anoretiko:** izond. (Gai bati buruz) Jateko gogoaz murrizten duena; anfetaminatik eratorria, gehienetan. *ES: Anorético FR: Anorexigène EN: Anorectic*
- Anorexia:** iz. Jateko gogoaz gutxitzea edo desagertzea ezaugarri funtsezkoena duen gaixotasuna. *ES: Anorexia FR: Anorexie EN: Anorexia Oharrak:* Prozesu psikologiko eta fisiologiko askotan agertzen da. Emakume gazteei eragiten die batez ere, eta oso eritasun larria izan daiteke. *Arloa: Med.*
- Anorexiadun:** izond. Anorexiar gaixorik dagoena. *ES: Anoréxico*
- Anorexiko:** izond. Anorexiari dagokiona. *ES: Anoréxico FR: Anorétique EN: Anoretic*
- Anorgasmia:** iz. Orgasmo-gutxiagatasuna edo orgasmorik eza. *ES: Anorgasmia FR: Anorgasmie EN: Anorgasmmy Arloa: Psicol.*
- Anormaltasun:** iz. Norbaiti edo zerbaiti berez legezkiokkeen ezaugarriak ez agertzearen ondoriozko egoera. *ES: Anormalidad FR: Anormalité EN: Abnormality*
- Anosmia:** iz. Usaimenaren galera edo asaldua. *ES: Anosmia FR: Anosmie EN: Anosmia Oharrak:* Zerbaitek (hotzeriak, arnas infekzio batek, edo hantura edo bestelako sudur-barreneko buxadura batek) usaimen-gunerako sarbidea oztopatuz gero, igarokorra da; neuroepitelioa edo usaimen-nerbioaren beste edozein gune suntsituz gero, al-diz, iraunkorra. *Arloa: Med.*
- Anoxemia:** iz. Odolean, oxigenorik eza. *ES: Anoxemia FR: Anoxémie EN: Anoxemia Arloa: Med.*
- Anoxia:** iz. Ehunetara oxigenorik iritsi ezina; hipoxia adierazteko erabiltzen da. *ES: Anoxia FR: Anoxie EN: Anoxia Arloa: Med.*
- Anpizilina:** iz. Mikroorganismo askoren aurkako penizilina. Aho bidez zein injekzioz ematen da. *ES: Ampicilina FR: Ampicilline EN: Ampicillin*
- Anpulu:** 1. iz. Gorputz zabala eta lepo estua dituen beirazko ontzi txikia, esterilizatua; gehienetan, sendagairen bat du barruan. *ES: Ampolla FR: Ampoule EN: Ampoule Oharrak:* Kristalezko anpuluaz gain, badira plastikozkoak ere. *Arloa: Med. 2. iz. Ikus 'baba'.*
- Anputatu:** 1. izond. Gorputzeko atalen baten anputazioa jasan duena. 2. izond. (Gorputz atalei buruz) Gorputzetik bananduta geratu dena. *ES: Amputado FR: Amputé EN: Amputee Arloa: Med.*
- Anputazio:** iz. Gorputz atal baten erazketa, bai kirurgia bidez, bai istripu baten ondorioz. *ES: Amputación FR: Amputation EN: Amputation Oharrak:* Pasmoaren tratamenduan egin ohi da. *Arloa: Med.*
- Antialergiko:** izlag. Ikus 'alergiaren kontrako'.
- Antiasmatiko:** izlag. Ikus 'asmaren kontrako'.
- Antibiotiko:** izond. (Gai bati buruz) Mikroorganismo patogenoak suntsitzeko edo horien garapena galarazteko ahalmena duena. *ES: Antibiótico FR: Antibiotique EN: Antibiotic Oharrak:* Sintesi bidez lortua edo izaki bizidunek sortua izan daiteke. *Adibideak:* Penizilina, zefalosporinak, makrolidoak, eta abar. *Arloa: Med.*
- Antibiral:** izond. Ikus 'birusen kontrako'.
- Antibiriko:** izond. Ikus 'birusen kontrako'.
- Antibirus:** iz. Ikus 'birusen kontrako'.
- Antidiuretiko:** izond. Ikus 'diuresiaren kontrako'.
- Antidoto:** iz. Toxiko baten aurkako gaia. *ES: Antídoto FR: Antidote EN: Antidote Oharrak:* Naloxona erabiltzen da morfina-antidoto gisa; paracetamolaren antidoto gisa, berriz, N-azetil zisteina. *Arloa: Med.*
- Antielektroi:** iz. Oinarrizko partikula, positiboki kargatua; elektroienaren berdina du masa; karga, berriz, magnitude berekoa, baina kontrako zeinukoa. *ES: Antielectrón, electrón positivo FR: Antiélectron EN: Antielectron Arloa: Kim.*
- Antiespasmodiko:** izond. Ikus 'espasmoen kontrako'.
- Antifungiko:** izond. (Gai bati buruz) Onddoen garapena eragozten duen nahiz suntsitzen duena. *ES: Antifúngico, antifungoso FR: Antifongique EN: Antifungal Adibideak:* Azolak, anfoterizina. *Arloa: Med.*
- Antifungoso:** izond. Ikus 'antifungiko'.
- Antígeno:** iz. Erantzun immunea; esate baterako, antigorputzak eratzea edota hipersentiberatasuna eragiten duen edozein gai. *ES: Antígeno FR: Antigène EN: Antigen Arloa: Med.*
- Antigorputz:** iz. Organismoak ekoiztutako glukoproteina; zelula plasmatikoez eta B linfozitoez ekoizten dute, antigeno edo haptenoen sarrerari erantzun gisa. *ES: Anticuerpo FR: Anticorps EN: Antibody Arloa: Med.*
- Antihelmintiko:** izond. (Gai bati buruz) Hesteetako zizareak deuseztatzen edo kanporatzen dituen gaia. *ES: Antihelmíntico FR: Anti-helminthique EN: Anthelminthic agent Adibideak:* Albendazola, mebendazola. *Arloa: Med.*
- Antihemorragiko:** izond. Ikus 'odoljarioraren aurkako'.
- Antihemorroidal:** izond. Ikus 'hemorroideen kontrako'.
- Antihigieniko:** izond. Ikus 'higienearen kontrako'.
- Antihipertentsibo:** izond. Ikus 'hipertentsioaren aurkako'.
- Antihistamina:** iz. Farmakoa, histaminak askatzean sortzen diren eraginak ezabatzen dituena. *ES: Antihistamina*
- Antihistaminiko:** izond. (Gai bati buruz) Alergiaren kontra erabiltzen dena; histaminaren eragi-



- nen aurkakoa. *ES:* Antihistamínico *FR:* Antihistaminique *EN:* Antihistamine *Oharrak:* Logura eragin eta nerbioak lasaitzen dituzte antihistaminikoek. *Arloa:* Med.
- Antiinflamatorio:** izond. Ikus 'hanturaren kontrako'.
- Antikantzeroso:** izond. Ikus 'minbiziaren kontrako'.
- Antikoagulante:** izond. Ikus 'koagulazioaren kontrako'.
- Antimikotiko:** izond. Ikus 'onddoen kontrako'.
- Antimikrobiano:** izond. Ikus 'mikrobioen aurkako'.
- Antimonio:** iz. Sb. Metalaren ezaugarriak dituen elementu kimikoa. Gai solido zuri eta hauskorra da. Huts-hutsik ez da erabiltzen, baina bai beste metalekin, aleazioetan. Hainbat gatz sendagarri edo toxiko sortzen ditu; gatz horiek eragina dute bihotzean eta odol-hodietan. Era berean, emetikoak eta izerdiarazleak dira, besteak beste. *ES:* Antimonio *FR:* Antimoine *EN:* Antimony *Oharrak:* Koloratzaileak, botikak, kosmetika-gaiak, eta abar egiteko erabiltzen da. *Arloa:* Kim.
- Antioxidante:** izond. (Gai bati buruz) Oxidazio-edo herdoiltze-prozesua atzeratzen duena. *ES:* Antioxidante *FR:* Antioxydant *EN:* Antioxidant *Oharrak:* Elikagaietan, polimeroetan eta zenbait materialetan iraupen luzeagoa lortzeko erabiltzen dira gai antioxidanteak. Bestalde, gorputzean erradikal askeek duten eragin oxidatzailearen kontrako gaiak dira antioxidanteak (zenbait bitamina, entzima, eta abar).
- Antioxidatzaile:** izond. Ikus 'antioxidante'.
- Antiparasitario:** izond. (Gai bati buruz) Bizkarroiak suntsitzen dituena, edo haiek haztea eta ugaltzea eragozten duena. *ES:* Antiparasitario *FR:* Agent antiparasitaire *EN:* Antiparasitic agent *Arloa:* Biol.
- Antipartikula:** iz. Oinarrizko partikula baten aurkako karga elektriko eta momentu magnetikoa dituen partikula. *ES:* Antipartícula *FR:* Antiparticule *EN:* Antiparticle *Oharrak:* Elektroiak karga negatiboa du; protoia da haren antipartikula, eta karga positiboa du. *Arloa:* Kim.
- Antipiretiko:** izond. Ikus 'sukarraren kontrako'.
- Antiprotoi:** iz. Protoiaren antipartikula, karga negatiboduna. *ES:* Antiprotón *FR:* Antiproton *EN:* Antiproton *Arloa:* Kim.
- Antipruriginoso:** izond. Ikus 'azkuraren kontrako'.
- Antipsikiatria:** iz. Psikiatria tradizionala eta burueritasunaren kontzeptua zalantzan jartzen dituen mugimendua. *ES:* Antipsiquiatría *Arloa:* Psikiat.
- Antirrabiko:** izond. Ikus 'amorraren kontrako'.
- Antirreumatiko:** izond. Sistema muskulueskeletikoaren edozein gaixotasun mingarri edo immobilizatzaileen sintomak arintzen dituena; farmakoak izaten dira antirreumatikoak, eskuarki. *ES:* Antirreumático *FR:* Agent antirrhumatique *EN:* Antirheumatic agent *Arloa:* Med.
- Antisepsia:** iz. Mikroorganismoak suntsitzeko praktika multzoa. Germen patogenoak suntsitzeko edota kolonizazioa eragozteko erabiltzen da, agente kimikoen bidez. *ES:* Antisepsia *FR:* Antisepsie *EN:* Antisepsis *Arloa:* Med.
- Antiseptiko:** izond. (Gai bati buruz) Mikroorganismoak deuseztatzen dituen edo haiek haztea galarazten duena. *ES:* Antiséptico *FR:* Agent antiseptique *EN:* Germicide *Adibideak:* Gai antiseptiko arrunten artean daude: alkohola, iodo-tintura, merkurokromoa, eta abar. *Arloa:* Med.
- Antisifilitiko:** izond. (Gai bati buruz) Sifilia saihesten edo sendatzen duena. *ES:* Antisifilitico *FR:* Agent antisiphilitique *EN:* Antisiphilitic agent *Arloa:* Med.
- Antisorgailu:** iz. Ernalketa galarazten duen gai, aparatu edo metodoa. *ES:* Anticonceptivo *FR:* Anti-génésique *EN:* Contraceptive *Adibideak:* Preserbatiboak, espermizidak, umetoki barneko gailua, eta abar.
- Antisozial:** izond. Gizartearen eta ordena sozialaren aurkakoa; gizarte-harremank ezartzen dituzten portaera-arauen kontra doan jokamoldea. *ES:* Antisocial *FR:* Comportement antisocial *EN:* Antisocial action
- Antitermiko:** izond. Ikus 'sukarraren kontrako'.
- Antitetaniko:** izond. Ikus 'tetanosaren kontrako'.
- Antitoxina:** iz. Toxinek eragindako antigorputza. Zenbait kasutan, babesteko gaitasun handia dute antigorputz horiek; horregatik, ekoiztari ez egiten dira, toxina-dosi txikiak gorputzean txertatuz. *ES:* Antitoxina *FR:* Antitoxine *EN:* Antitoxin *Oharrak:* Bakterioen erasoaren bidez edo toxina baten dosi txikia emanez sartzen da toxina organismoan. *Arloa:* Med.
- Antitronbina:** iz. Odolean dagoen gaia; jatorri naturala du, eta tronboak eragozten ditu tronbinaren ekintza oztogatuz. *ES:* Antitrombina *FR:* Antithrombine *EN:* Antithrombin *Oharrak:* I, II eta III antitronbinak ezagutzen dira, eta IIIa da fisiologian garrantzi gehien duena.
- Antituberkuloso:** izond. Ikus 'tuberkulosiaren kontrako'.
- Antitusibo:** izond. Ikus 'eztularen kontrako'.
- Antiultzeroso:** izond. Ikus 'ultzeraren kontrako'.
- Antrakosi:** iz. Pigmentu beltza, ikatz partikulak arnastearren ondorioz biriketan agertu eta hantura kronikoa eragiten duena; pneumokoniosi mota bat da. *ES:* Antracosis *FR:* Anthracose *EN:* Anthracosis *Oharrak:* Biriketako gaixotasun kronikoa da, batez ere ikazkin-eta nozitzen dutena. Biriketan ikatz-hautsa pilatu eta bronkioloetan nodulu beltzak sortzen dira, eta foku-enfisea bat garatzen da hortik. *Arloa:* Med.

- Antrax:** iz. Estafilokokokoek sorturiko infekzio garrantzitsua. Larruazpiko ehunaren hantura gogor eta mingarria eragiten du. Forunkuluak pilatu egiten dira, eta, azkenean, zornea eta pasmoa jariatzen dira hainbat pitzaduratatik; bien bitartean, beste hainbat sintoma ere izaten ditu gaixoak. *ES:* Antrax *FR:* Charbon *EN:* Anthrax *Oharrak:* Lepoan eta ipurmasailetan agertzen da lesioa, gehienetan. *Arloa:* Med.
- Antropologia:** iz. Gizakia eta giza taldeak ikertzen dituen zientzia. Gizakien portaeren zergatia eta garapena aztertzen ditu. *ES:* Antropología *FR:* Anthropologie *EN:* Anthropology
- Antsietate:** iz. Ikus 'herstura'.
- Antsiolitiko:** izond. (Gai bati buruz) Antsietatea murrizten edo baretzen duena. *ES:* Ansiolítico *FR:* Anxiolytique *EN:* Anxiolytic *Oharrak:* Antsiolitiko berezietz gain, eragin antsiolitikoa dute nerbio-sistema zentralaren depresore diren farmakoek. *Arloa:* Med.
- Antz:** iz. Ikus 'itxura'.
- Antzu:** izond. Haurrik izan ezin duena, anomalia fisikoren baten ondorioz. Gizonezkoetan, espermatozoiden ezaren ondorioz izaten da gehienetan; emakumezkoetan, berriz, Fallopioren tronpak blokeatzearen ondorioz. *ES:* Estéril *FR:* Stérile *EN:* Sterile
- Antzutasun:** iz. Ugaltzeko gaitasunik eza. *ES:* Esterilidad *FR:* Stérilité *EN:* Sterility *Arloa:* Med.
- Antzutze:** iz. Ugaltzeko gaitasuna kentzeko xedez egiten den ebakuntza. *ES:* Esterilización *FR:* Stérilisation *EN:* Sterilization
- Anuria:** iz. Pixa egiteko ezintasuna; gernu-jarioa eten egiten da. Giltzurrun-gutxiegitasunaren, odol-presioa jaistearen edo gernu-bideetako buxaduraren ondorioa izan daiteke. *ES:* Anuria *FR:* Anurie *EN:* Anuria *Oharrak:* Anuria-egoeran bi astez bizirik irautea posible den arren, heriotza gerta daiteke gernu-funtzioaren erabateko galeraren ondorengo 24 orduetan. *Arloa:* Med.
- Aorta:** iz. Gorputzeko arteria nagusia, bihotzeko ezker-bentrikulutik irteten dena. Odol oxigenatua eramaten du organo guztietara. *ES:* Aorta *FR:* Aorte *EN:* Aorta *Oharrak:* IV. gerri-ornoan bukatzen da, eta bertan adarkatzen da, arteria iliako primitibo bilakatzeko. *Arloa:* Anat.
- Aortiko:** izond. Aorta arteriari edo bihotzeko ezker-bentrikuluko zulo aortikoari dagokiona. *ES:* Aórtico *FR:* Aortique *EN:* Aortic *Arloa:* Med.
- Aortitis:** iz. Aortaren hantura. *ES:* Aortitis *FR:* Aortite *EN:* Aortitis *Arloa:* Med.
- Aortografia:** iz. Aortaren azterketa erradiologikoa. Odolean kontraste erradiopako bat injektatuz egiten da. *ES:* Aortografía *FR:* Aortographie *EN:* Aortography *Arloa:* Med.
- Aparatu:** iz. Ikus 'sistema'. *ES:* Aparato *FR:* Appareil *EN:* Apparat *Arloa:* Anat.
- Apatia:** iz. Emozio, sentimendu, kezka edota pasio falta; edo deuseztatu egiten dira, edo ez da ardurarik erakusten eskuarki zirrargarriak diren egoera edo gertaeren aurrean. *ES:* Apatía *FR:* Apathie *EN:* Apathy *Arloa:* Psikol.
- Apendikostomia:** iz. Apendizea sabel-hormara ahokatzeko ebakuntza. Heste lodia irrigatzea da ebakuntza horren helburua. *ES:* Apéndice *FR:* Appendicostomie *EN:* Appendicostomy *Arloa:* Med.
- Apendize:** iz. Enbor bati lotutako organoa edo organo zatia; gorputz-adar bat, adibidez. *ES:* Apéndice *FR:* Appendice *EN:* Appendix *Arloa:* Anat.
- Apendize bermiforme:** iz. Ikus 'heste-sobre'.
- Apendize ileozekal:** iz. Ikus 'heste-sobre'.
- Apendize zekal:** iz. Ikus 'heste-sobre'.
- Apendizektomia:** iz. Apendize zekalaren erauzketa. *ES:* Apéndice *FR:* Appendicectomie *EN:* Appendectomy *Arloa:* Med.
- Apendizitis:** iz. Apendize bermiformearen hantura akutua. Nerabeetan eta gazteetan gertatzen da gehienbat, eta ohikoagoa da gizonezkoengan emakumezkoengan baino. *ES:* Apéndice *FR:* Appendicite *EN:* Appendicitis *Oharrak:* Apendizitisaren ezaugarri nagusiak dira: goragalea, eskuineko hobi iliakoa oinazea, sukar baxua eta leukozitosisa. Diagnostika garaziz egin ezean, zulatu egin daiteke, eta peritonitisa eragin. *Arloa:* Med.
- Apgar-en zenbatespen:** iz. Jaioberriaren egoera balioesteko metodoa. *ES:* Apgar, Valoración de *FR:* Indice d'Apgar *EN:* Apgar score *Oharrak:* Itxura, kolorea, pulstua, erreflexuak, tonua, arnasa, eta abar neurtzen dira. Normaltasunetik kanpo daude 7tik beherako balioak.
- Apikal:** izond. Organo edo egitura baten erpinari dagokiona, edo erpin horretan dagoena. *ES:* Apical *FR:* Apical *EN:* Apical *Arloa:* Biol.
- Apirexia:** iz. Sukarrik eza. *ES:* Apirexia *FR:* Apyrexie *EN:* Apyrexia *Arloa:* Med.
- Apirogeno:** 1. izond. Sukarrik sortzen ez duena. 2. iz. Hermetikoki itxirik eta ur destilatu esterilez beterik dagoen anplua. Hauts eran dauden drogak injekzio bidez eman behar direnean erabiltzen da. *ES:* Apirógeno *FR:* Apyrogène *EN:* Apyrogenic
- Aplasia:** iz. Organo edo chun baten garapen ez-osoia edo akastuna. *ES:* Aplasia *FR:* Aplasie *EN:* Aplasia *Adibideak:* Hezur-muineko aplasia, kimioterapiaren ondorioz sortzen dena. *Arloa:* Med.
- Aplasiko:** 1. izond. Aplasiari dagokiona. 2. izond. Ehun berria sortzeko gai ez dena. *ES:* Aplásico *FR:* Aplasique *EN:* Aplastic *Arloa:* Med.

- Apnea:** iz. Arnasaren behin-behineko etena. *ES:* Apnea *FR:* Apnée *EN:* Apnea *Arloa:* Med.
- Apodia:** iz. Oinen jatorrizko gabezia. *ES:* Apodia *FR:* Apodie *EN:* Apodia *Arloa:* Med.
- Apofisi pterigoide:** iz. Esfenoide hezuraren apofisietariko bat. *ES:* Apófisis pterigoide *FR:* Apophyse ptérygoïde *EN:* Pterygoid process
- Apofisi:** iz. Hezuraren berezko goragunea; artikulaziorako eta giharren txertaketarako balio du. *ES:* Apófisis *FR:* Apophyse *EN:* Apophysis *Arloa:* Anat.
- Apokrino:** iz. Jariakin mota; jariatutako produktak zelularen alde batean pilatzen dira, eta kanporatzean, protoplasma zelulararekin batera irriten dira. *ES:* Apocrino *FR:* Apocrine *EN:* Apocrine *Adibideak:* Izerdi-guruinen jariakina eta emakumearen ugatz-guruinena dira apokrino ezagunenak. *Arloa:* Med.
- Aponeurosi:** iz. Ehun konektibo zuntzuzko leka mardula; giharrak hezurretan txertatzeko tendoi gisa lan egiten du, edo giharrak batuta mantentzen dituen faszia gisa. *ES:* Aponeurosis *FR:* Aponevrose *EN:* Aponeurosis *Arloa:* Anat.
- Aponeurosis:** iz. Aponeurosi baten hantura. *ES:* Aponeurosis
- Apoplegia:** iz. Ikus 'apoplexia'.
- Apopletiko:** izond. Apoplexiari dagokiona, apoplexia duena, edo apoplexiarako joera duena. *ES:* Apoplético *FR:* Apoplectique *EN:* Apoplectic *Arloa:* Med.
- Apoplexia-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'apopletiko'.
- Apoplexia:** 1. iz. Organo baten barruneko odol-jarioa. 2. iz. Garunaren funtzioetan, etena; asaldatu egiten dira mugimendua, sentikortasuna eta kontzientzia. Enboliaren eta garuneko odol-jarioaren ondorioz gertatzen da, batez ere. *ES:* Apoplejía *FR:* Apoplexie *EN:* Apoplexy *Oharrak:* Konortea galtzen du eriak bat-batean, arnasketa eta odolaren zirkulazioa gelditu gabe; lurrera erortzen da, eta aurpegiaren alde bateko elbarritasuna eta hemiplegia agertzen zaizkio. *Arloa:* Med.
- Apositu:** iz. Zauri baten gainean zuzenean jartzen den benda garbi eta esterila; zauria garbi mantentzeko edo odoljarioa geldiarazteko erabiltzen da. *ES:* Apósito *FR:* Pansement *EN:* Dressing *Arloa:* Med.
- Apraxia:** iz. Mugimendu koordinatuak egiteko gaitasunik eza, nahiz eta paralisirik ez egon. Arazo neurologikoa izaten da, gehienetan. *ES:* Apraxia *FR:* Apraxie *EN:* Apraxia *Arloa:* Med.
- Aprensibo:** izond. Edozein egoera arrisksutzat hartzen duena, edo zauririk arinenak ere larriak direla uste duena. *ES:* Aprensivo *Arloa:* Psicol.
- Apurketa:** iz. Ikus 'haustura'.
- Apurtu:** ad. Ikus 'haustu'.
- Ar:** izond. (Izaki bizidunei buruz) Espezie bereko emea ernaltzeko ahalmena duena. *ES:* Macho *FR:* Mâle *EN:* Male
- Araknodaktilia:** iz. Armiarma-itxurako hatzak izatea ezaugarri duen gaixotasuna. Hatzen eta behatzen luzera neurritz kanpokoa izaten da, eta hezurrak meheagoak. *ES:* Aracnodactilia *FR:* Arachnodactylie *EN:* Arachnodactyly *Arloa:* Med.
- Araknoide:** iz. Piamaterraren eta duramaterraren artean dagoen mintz fina. *ES:* Aracnoides *FR:* Arachnoïde *EN:* Arachnoidea *Arloa:* Anat.
- Arazgarri:** izond. Garbitzen duena; odola garbitzen duena, bereziki.
- Arazketa:** iz. Organismoa alferrikako gaiez eta gai kaltegarriez aske geratzeko prozesua. *ES:* Depuración *FR:* Dépuration *EN:* Depuration
- Arazo:** iz. Asmo bat erdiestea nahiz funtzionamendu normala eragozten duten gertaeren edo egoeren multzoa. *ES:* Problema *FR:* Problème *EN:* Problem *Adibideak:* Arazo psikologikoak, osasun-arazoak, eta abar.
- Araztu:** ad. Berez ez dagokiona edo oztopo gertatzen zaiona kendu. *ES:* Depurar
- Araztu:** izond. Garbitua, urberritua, edota findua. *ES:* Depurado *Arloa:* Kim.
- Arbobirus:** iz. Artropodo baten, bereziki intsektu baten, ziztada edo hozkadaren bidez transmititzen den birusa. *ES:* Arbovirus *Oharrak:* Honako zeinu hauetako bi edo gehiago agertzea da arbobirusaren ezaugarri nagusia: sukarra, exantema, entzefalitis, eta erraietako edo larruazaleko odoljarioa. *Oharrak:* Arbobirusak eragina da sukarrak horia, beste hainbat gaixotasunekin batera.
- Arborizazio:** iz. Adarkaturiko edozein sistema edo egitura. *ES:* Arborización *FR:* Arborisation *EN:* Arborization *Adibideak:* Nerbio-zelulen hainbat hedapenen bukaerako adarkatzea.
- Ardatz antzeko:** izlag. Ikus 'fusiforme'.
- Ardazkide:** iz. Ardatz berari dagokion zati bakoitza. *ES:* Coaxial *FR:* Coaxial *EN:* Coaxial
- Areola:** 1. iz. Ehun baten barruko tarte edo barrunbe txikia. 2. iz. Erdigune bat inguratzen duen guinea, kolore ezberdinekoa eta biribil-itxurakoa. 3. iz. Bularreko titiburuaren inguruan dagoen azalera pigmentarioa. *ES:* Areola *FR:* Aréole *EN:* Areola
- Argal:** izond. Lodiera txikia duena, edo ohi dena nahiz behar duena baino txikiagoa duena. *ES:* Delgado *FR:* Maigre *EN:* Thin
- Argaldu:** ad. Gorputz batek lodiera eta pisua galdu, elikadura etetearen edo gaixotasun baten ondorioz. *ES:* Adelgazar *Oharrak:* Diabetes Mellitus goiztiarraren, neoplasien, hipertiroidismoaren, iraupen luzeko gaizkoalduren, eta abarren ondorio izan daiteke agertzea.
- Argaltasun:** iz. Gorputzeko pisu- eta gantz-urritasuna. *ES:* Delgadez *FR:* Maigreur *EN:* Leanness



- Argaltze:** iz. Gorputzaren loditasuna murriztea; pi-sua ere galdu ohi da, gehienetan. Gantza eta beste zenbait ehun galtzearen ondoriozkoa da. *ES:* Adelgazamiento *FR:* Amaigrissement *EN:* Weight loss
- Argi:** izond. Buru-funtzioak arretaz mantentzen dituen; ezer egin aurretik, ekintzak eta ekintza horien ondorioak zentzuz eta neurriz aztertzen dituena. *ES:* Lúcido *FR:* Lucide *EN:* Lucid
- Arginasa:** iz. Gibelean, giltzurrunetan eta barean dagoen entzima. Argininaren hidrolisia katalizatzen du, eta urea eta ornitina eman. *ES:* Arginasa *FR:* Arginase *EN:* Arginase *Arloa:* Biokim.
- Arginina:** iz. Oinarrizko aminoazidoa. Proteinen digestioan sorturiko azido aminoguanidinobalerianikoa da. *ES:* Arginina *FR:* Arginine *EN:* Arginine *Oharrak:* Gibelean gutxiegitasun larria tratatzeko erabili ohi da, amoniakoz intoxikatutako gaixoetan. *Arloa:* Biokim.
- Argitasun:** iz. Gogamenaren argitasuna, bai pertzepzioari eta bai ulermenari dagokionez. *ES:* Lucidez *FR:* Lucidité *EN:* Lucidity
- Argizari:** iz. Ikus 'ezko'.
- Ariketa:** 1. iz. Giharren mugimenduarekin egiten den lana, gorputza edo haren atalen bat indartzeko; organismoaren gaitasunak mantentzeko edo osasun-egoera jakin bat berreskuratzeko egiten da. 2. iz. Jarduera fisiko zein intelektuala; gai batean trebatzeko egiten da. *ES:* Ejercicio *FR:* Exercice *EN:* Exercise
- Ariketa egin:** ad. Zerbaitetan trebatzeko ekintza bat errepikatu eta landu. *ES:* Ejercitar
- Arin:** izond. Larritasun gutxikoa. *ES:* Leve *EN:* Mild
- Arindu:** ad. Ondoez-egoera baretu. *ES:* Paliar *FR:* Pallier *EN:* To palliate
- Aringarri:** izond. (Gai bati buruz) Mina edo egozina baretzen nahiz kentzen duena. *ES:* Calmante, paliativo *FR:* Calmant *EN:* Calmative *Arloa:* Med.
- Arintasun:** iz. Zailtasunik gabe mugitzeko ahalmena. *ES:* Agilidad *FR:* Souplesse *EN:* Flexibility
- Arku:** iz. Zenbait organo edo organo zati kurbaturen izen generikoa. *ES:* Cayado *FR:* Crosse *EN:* Arch
- Arnas:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'arnasketako'.
- Arnas hartze:** iz. Ikus 'arnasgora'.
- Arnas sistema:** iz. Arnasketan parte hartzen duten organoen multzoa. Oxigeno eta karbono dioxidoaren trukea egiten dute inguruko airearen eta biriketako odolaren artean. *ES:* Sistema respiratorio *FR:* Appareil respiratoire *EN:* Respiratory system *Oharrak:* Bi zati bereizten dira: goiko arnasbidea (ahoa, sudur-hobiak, faringea, laringea eta trakea) eta beheko arnasbidea (bronkioak eta biririkak); beheko arnasbideko azken zatietan gertatzen da gasen trukea. *Arloa:* Anat.
- Arnasa bota:** ad. Arnasbideetatik airea kanporatu. *ES:* Espirar *FR:* Expirer *EN:* To expire
- Arnasa hartu:** ad. Ikus 'arnastu'.
- Arnasaldi:** iz. Arnasa hartzen eta botatzen den aldi bakoitza. *ES:* Respiro *FR:* Respiration *EN:* Breathing
- Arnasbehera:** iz. Arnasketaren bigarren aldia; airea kanporatzen da biriketatik. Prozesu pasiboa izaten da oro har, eta toraxaren eta birika-ehunen malgutasun-ezaugarrien mende dago. *ES:* Espiración *FR:* Expiration *EN:* Expiration
- Arnasbotatze:** iz. Ikus 'arnasbehera'.
- Arnasdun:** izond. Ikus 'bizidun'.
- Arnasestu:** iz. Ikus 'disnea'.
- Arnasestua izan:** 1. ad. Arnasa zailtasunez hartu. 2. ad. Arnasaldi laburrak eta sarriak hartuz arnastu. *ES:* Anhelar *Oharrak:* Haren eragile izan daitezke: asma, bronkitis kronikoa eta bihotz-gutxiegitasuna. *Arloa:* Med.
- Arnasgailu:** iz. Birika-aireztapen artifiziala ahalbide-tzen duen tresna; arnasbeheran airea aldarazteko nahiz biriketako arnasketa hobetzeko erabiltzen da. *ES:* Respirador *FR:* Respirateur *EN:* Respirator *Oharrak:* Anestesiologian eta medikuntza intentsiboan erabiltzen da, gaixoaren aireztapen mekanikoa eragiteko, eta, gaixo kritikoetan, birikien lana modu mekanikoan ordeztuko. *Arloa:* Med.
- Arnasgora:** iz. Arnasketa-ekintza; airea biriketan sartzen da. Arnasgoran, oxigenoak ordezkatzeko duen ehunen metabolismoaren emaitza gisa eratu den karbono dioxidoa. Arnasketan parte hartzen duen gihar nagusia diafragma da; haren uzkurdurak presio negatiboa eragiten du toraxean, eta, horren ondorioz, biririkak ireki eta airea sartzen da. *ES:* Inspiración *FR:* Inspiration *EN:* Inspiration
- Arnasketa:** iz. Oxigeno eta anhidrido karboniko molekulen arteko trukea; gorputzeko ehunetan egiten da, eta ezinbestekoa da bizitzeko. Bi mugimendu ditu: arnasgora eta arnasbehera. Horiei esker, arterializatu egiten da zainetako odola. *ES:* Respiración *FR:* Respiration *EN:* Breathing, respiration *Oharrak:* Minutuko 14-20 artekoa izan ohi da arnas maiztasuna gizaki osasuntsuetan. *Arloa:* Med.
- Arnasketa aerobio:** iz. Arnasketa mota arrunta; elikagaiak (gluzidoak, gehienetan) gutziz oxidatzen dira, eta karbono (IV) oxidoa eta ura ematen dute. Ezinbestekoa da oxigenoa egotea, eta, ondorioz, nahitaezkoa da izaki horien ehunetara eta zeluletara oxigenoa garraiatuko duten hainbat prozesu fisiko eta kimiko ere gertatzea. *ES:* Respiración aerobia *FR:* Respiration aérobie *EN:* Aerobic respiration
- Arnasketa zaildu:** ad. Ikus 'itolarrria eragin'.

- Arnasketako:** izlag. Arnasketari dagokiona. *ES:* Respiratorio *FR:* Respiratoire *EN:* Respiratory
- Arnastu:** ad. Izaki bizidunek airea xurgatu; aireak dituen gaiak barneratu egiten dira, eta aldatuta kanporatu. *ES:* Respirar *FR:* Respirer *EN:* To breathe
- Arol:** izond. Egitura porotsua edo sare-itxurakoa duena. Ehun arola hezurren barnealdean egon ohi da eskuarki, hezur-muinak nagusi diren eremuan, hain zuzen. *ES:* Esponjoso *FR:* Spongieux *EN:* Spongy
- Aroltasun:** iz. Trinkotasunik gabea edota harroa denaren ezaugarria. *ES:* Esponjosidad
- Aromatiko:** 1. iz. Bentzenoaren egituraren eraztuna duen konposatu kimikoa. Gai sendagarriak eta usaintsuak dira horietako asko. 2. izond. Usain sendo samarra baina atsegina duena, espezia-usainaren antzekoa. *ES:* Aromático *FR:* Aromatique *EN:* Aromatic *Adibideak:* Kanela, jengibre, esentziak, eta abar. *Arloa:* Kim.
- Aromatizatu:** ad. Zerbaiti lurrina edo usain gozosa eman. *ES:* Aromatizar *FR:* Former des dérivés aromatiques *EN:* To aromatize *Arloa:* Kim.
- Aromatizazio:** iz. Konposatu alifatiko bat aromatiko bilakatzen duen prozesua. *ES:* Aromatización *FR:* Aromatisation *EN:* Aromatization *Oharrak:* Interes berezia du petrolioaren kimikan. *Arloa:* Kim.
- Arraila:** iz. Ikus 'ebaki'.
- Arraildu:** ad. Ikus 'pitzatu'.
- Arraildura:** 1. iz. Ikus 'pitzadura'. *ES:* Agrietamiento 2. Ikus 'zisura'. *ES:* Cisura, hendidura
- Arraro:** 1. izond. Ohikoa ez dena. 2. izond. Exogenoa; organismoaren kanpoaldean sortzen dena, edo kanpoaldetik sartzen dena. *ES:* Extraño *FR:* Étranger *EN:* Extraneous
- Arraspitze:** iz. Gaixorik dagoen gune bat koilaratxo zorrotz batekin karrakatzea. Umetokiko mukosari egiten da bereziki, endometritis- eta abortu-kasuetan; eta, orobat, hezurretan, hezurretako txantxarra dagoenean. *ES:* Raspado *FR:* Curetage, curettage *EN:* Curettage *Arloa:* Med.
- Arrasto:** 1. iz. Gaixotasun, tratamendu edota lesio baten ondoriozko edozein anomalia. *ES:* Secuela *FR:* Séquelle *EN:* Sequela *Adibideak:* Poliomielitisaren arrastoa da, zenbait kasutan, paralisia. 2. iz. Zerbait adierazten, ezagutarazten edota nabarmentzen duen zeinua. *ES:* Marca
- Arreta:** iz. Elkarren arteko ekintza-prozesua; giza-banakoa edo haren sendia harremanetan jartzen dira zerbitzua eskaintzen dieneekin. Bere baitan hartzen ditu bigarren edo hirugarren mailako prebentzioa, osasunari egindako kalteak marniatzeko. *ES:* Atención
- Arreta intentsiboko unitate (AIU):** iz. Ikus 'zaintzeta intentsiboko unitate'. *ES:* Unidad de Vigilancia Intensiva
- Arritmia:** 1. iz. Erritmo normalaren edozein aldaketa. 2. iz. Bihotz-taupaden patroia normalaren aldaketa. *ES:* Arritmia *FR:* Arythmie *EN:* Arrhythmia *Oharrak:* Arritmia mota batzuk dira: arritmia sinusala, blokeo kardiakoa, fibrilazio autikularra eta flutter aurikularra. *Arloa:* Med.
- Arritmiko:** izond. Erritmo erregularrik gabea. *ES:* Arritmico *FR:* Arrhythmique *EN:* Arrhythmic *Arloa:* Med.
- Artatu:** ad. Ikus 'zaindu'.
- Artatzaile:** iz. Ikus 'zaintzaile'.
- Artegasun:** iz. Ikus 'urduritasun'.
- Arteka:** iz. Ikus 'fisura'.
- Arteria:** iz. Odola bihotzetik beste gorputz ataletara eramaten duten hodietako bakoitza. Hiru geruza ditu: barnekoa (endoteliala), erdikoa (giharrezkoa) eta kanpokoa (konjuntiboa). *ES:* Arteria *FR:* Artère *EN:* Artery *Arloa:* Anat.
- Arteria aurikular:** iz. Kanpoko karotida arteriatik ateratzen den enbor txikieta bat, belarrialdea odolberritzen duena. *ES:* Arteria auricular *Arloa:* Anat.
- Arteria koliko:** iz. Ikus 'kolon-arteria'.
- Arterial:** izond. Arteria bati edo odola bihotzetik gorputzera daraman hodi-sistemari dagokiona. *ES:* Arterial *FR:* Artériel *EN:* Arterial
- Arterialgia:** iz. Arteria bateko oinazea. *ES:* Arterialgia
- Arteria-zainetako:** izlag. Arteriei eta zainei dagokiena. *ES:* Arteriovenoso *FR:* Artério-veineux *EN:* Arteriovenous
- Arteria-zainetako anastomosi:** iz. Arteria baten eta zain baten elkarketa; sortzetikoa edo kirurgia bidez egina izan daiteke. *ES:* Anastomosis arteriovenosa *FR:* Anastomose artério-veineuse *EN:* Arteriovenous anastomosis
- Arteriektoimia:** iz. Arteria zati baten erauzketa, kirurgia bidezkoa. *ES:* Arteriectomia *FR:* Artériectomie *EN:* Arterectomy *Arloa:* Med.
- Arteriografia:** iz. Arteriak ikusteko erabiltzen den metodo erradiologikoa; odolean kontraste opaku bat sartu ondoren egiten da. *ES:* Arteriografía *FR:* Artériographie *EN:* Arteriography *Arloa:* Med.
- Arteriograma:** iz. Arteria baten edo arteriagune baten irudi erradiografikoa. Odolean kontraste opaku bat sartu ondoren egiten da. *ES:* Arteriograma *FR:* Artériogramme *EN:* Arteriogram
- Arteriola:** iz. Arterietako zirkulazioko adar txikienetariko bakoitza. Arterietatik, arterioletatik eta kapilarretatik igarotzen da bihotzetik abiatutako odola, ondoren zainetara pasatu eta bihotzera itzultzeko. *ES:* Arteriola *FR:* Artériole *EN:* Arteriole
- Arteriopatia:** iz. Arterietako edozein gaixotasun. *ES:* Arteropatia *FR:* Artériopathie *EN:* Arteriopathy *Arloa:* Med.

- Arterioplastia:** iz. Arterietako kirurgia plastikoa; aneurisma-arazoak konpontzeko egiten da sarritan. *ES:* Arterioplastia *FR:* Artérioplastie *EN:* Arterioplasty *Arloa:* Med.
- Arteriosklerosi:** iz. Odol-hodietako eritasun kronikoa; beste lesio batzuk biltzen ditu bere baitan. Hantura gertatzen da arteriaren barneko geruzan, eta han pilatuz doaz hainbat gai. Loditu eta gogortu egiten dira arteriak prozesu horren ondorioz, eta hodiaren argia ixtera irits daiteke luzarora. *ES:* Arterioesclerosis, arteriosclerosis *FR:* Artériosclérose *EN:* Arteriosclerosis *Oharrak:* Hipertentsioa, diabetesa, tabakoa, gizentasuna eta kolesterola dira arteriosklerosiaren eragile nagusiak, baina zerikusia dute gizonezkoa izateak eta adinak ere. *Arloa:* Med.
- Arteriotomia:** iz. Arteria batean egindako ebaki kirurgikoa; arteriako odola edo eboloren bat ateratzeko egiten da. *ES:* Arteriotomía *FR:* Artériotomie *EN:* Arteriotomy *Arloa:* Med.
- Arteritis:** iz. Arteria baten edo gehiagoren kanpoko geruzen hantura. *ES:* Arteritis *FR:* Artérite *EN:* Arteritis *Oharrak:* Infekzio batek sortua, traumatikoa, kimikoa edota metabolikoa izan daiteke arteritisa. *Arloa:* Med.
- Artikular:** izond. Artikulazioari dagokiona, edo artikulazioan dagoena; kartilagoari, azalerari edo kapsulari egotzen zaio. *ES:* Articular *FR:* Articulaire *EN:* Articular *Arloa:* Anat.
- Artikulazio:** iz. Bi hezur edo gehiago lotzen diren gunea. Hiru mota daude: finkoa edo *sinartrrosia*, erdi mugikorra edo *anfartrosia*, eta mugikorra edo *diartrosia*. *ES:* Articulacion *FR:* Articulation *EN:* Articulation *Arloa:* Anat.
- Artikulazioko:** izlag. Ikus 'artikular'.
- Artirin:** iz. Artotik ateratako irin fina. *ES:* Maicena *Oharrak:* Ahia egiteko erabiltzen da, zenbait gaixorentzat edota haurrentzat.
- Arto:** iz. Gramineoen familiako landare belarkara, aleduna eta urterokoa. Oso gomendagarria da gaixondokoentzat haren aleetatik ateratzen den elikagai-fekula. Ale horiek hartzituz, edari alkoholiko bat lortzen da. Diuresia errazteko erabiltzen dira artoaren estigmak eta estiloak, infusio eran. *ES:* Maíz *FR:* Maïs *EN:* Maize
- Artralgia:** iz. Giltzaduretako mina, hanturarik ez dagoenean izaten dena, batik bat. *ES:* Artralgia *FR:* Arthralgie *EN:* Arthralgia *Arloa:* Med.
- Artrektomia:** iz. Artikulazio baten erresekzioa, haren atal bigunena, bereziki. *ES:* Artrectomía *FR:* Arthrectomie *EN:* Arthrectomia *Arloa:* Med.
- Artritiko:** 1. izond. Artritisari dagokiona. 2. izond. Artritis duena. *ES:* Artrítico *FR:* Arthritique *EN:* Arthritic *Arloa:* Med.
- Artritis:** iz. Hezur-giltzaduretako edo hezurren arteko loturetako gaixotasuna. *ES:* Artritis *FR:* Arthrite *EN:* Arthritis *Oharrak:* Hantura eta mina eragiten ditu, eta hezurren itxura aldatu egiten da. Hormonak, antibiotikoak, urre-gatzak, eta abar erabiltzen dira sendagai gisa. *Adibideak:* Erreuma-artritis, espondilitisa... *Arloa:* Med.
- Artritis erreumatoide:** iz. Giltzaduren hantura eta deformaziozko gaixotasun kronikoa. Emakumeek jasaten dute batez ere, hogeitai eta berrogeitai hamar urte bitartean. *ES:* Artritis reumatoide *FR:* Polyarthrite rhumatoïde *EN:* Rheumatoid arthritis *Arloa:* Med.
- Artrodesia:** iz. Giltzadura bat kirurgia bidez finkatzea; ankilosi artifiziala. Mina arintzeko edo giltzadura sendotzeko egiten da. *ES:* Artrodesia, artrodesis *FR:* Arthrodèse *EN:* Arthrodesia *Arloa:* Med.
- Artroendoskopia:** iz. Artikulazioaren barnealdeko behaketa, endoskopia bidez eginikoa. *ES:* Artroendoscopia *Arloa:* Med.
- Artrografia:** iz. Giltzadura baten barruko alde erradiografiatuz ikusteko metodoa; airea edo kontraste bat sartuz egiten da. *ES:* Artrografia *FR:* Arthrographie *EN:* Arthrography *Arloa:* Med.
- Artrograma:** iz. Artikulazio baten erradiografia, kontrastea injektatu ondoren lortzen dena; artrografiarekin lortzen den erradiografia da. *ES:* Artrograma *FR:* Arthrogramme *EN:* Arthrogram *Arloa:* Med.
- Artroklasia:** iz. Ankilosi bat haustea, giltzaduraren mugimendu askea errazteko helburuarekin. *ES:* Artroclasia *FR:* Fracture d'une ankylose *EN:* Arthroclasia *Arloa:* Med.
- Artrologia:** iz. Medikuntzaren alorra; artikulazioak aztertzen ditu. *ES:* Artrologia *FR:* Arthrologie *EN:* Arthrology *Arloa:* Med.
- Artropatia:** iz. Artikulazio batean eragina duen edozein eritasun edo asaldu. *ES:* Artropatía *FR:* Arthropathie *EN:* Arthropathy *Arloa:* Med.
- Artroplastia:** iz. Mindutako edo endekaturiko giltzadura bat berreraikitzea edo kirurgikoki ordezkatzeta; giltzadura horrek mugikortasuna lortzea da helburua. Ehun bigun bat edo disko metaliko bat ezarri, birmoldatu egiten da giltzadurako edozein hezur. Plastikozko edo metalezko proteziek ere ordeka daitezke giltzadura edo haren zati bat. *ES:* Artroplastia *FR:* Arthroplastie *EN:* Arthroplasty *Oharrak:* Osteoartritis, artritis erreumatoidea eta jatorrizko malformazioak zuzentzeko erabiltzen da. *Arloa:* Med.
- Artrosi:** iz. Giltzaduretako gaixotasun kronikoa, hanturazkoa ez dena. Kartilago artikularrari erasaten dio. *ES:* Artrosis *FR:* Arthrose *EN:* Osteoarthritis *Oharrak:* Begi-bistako deformazioak sortzen ditu hark eragiten dion giltzaduran; artrosi deformatzaile deritza orduan. Zenbait kasutan, larriagotu egiten da artrosia, odol-ekarpina hon-

- datzearen, aurretiko lesioen eta gainkargaren ondorioz; halakoetan, pisuari eusten dioten giltzadurei erasaten die, eta mina eragiten du. Idio-patikoa ere izan daiteke; eskuetan deformazioak eragiten ditu horrek. *Arloa*: Med.
- Artroskopia**: iz. Giltzadura baten barneko azterketa; bereziki diseinatutako endoskopia bat ebakidura txiki batetik barneratuz egiten da. Belauneko arazoetan erabiltzen da, batez ere; kartilagoaren edo likido sinobialaren biopsia egitea ahalbidetzen du, eta baita meniskoaren hausturaren diagnostikoa egitea eta gune artikularretik gorputz arrotzak eraztea ere. *ES*: Artroskopia *FR*: Arthroscopie *EN*: Arthroscopy *Arloa*: Med.
- Artroskopia**: iz. Giltzaduren barnealdea behatzeko endoskopia. *ES*: Artroscopio *FR*: Arthroscope *EN*: Arthroscope *Arloa*: Med.
- Artrotomia**: iz. Artikulazio batean eginiko ebakidura kirurgikoa. *ES*: Artrotomia *FR*: Arthrotomie *EN*: Arthrotomy *Arloa*: Med.
- Artseniko**: iz. As. Elementu kimikoa; metaloide solidoa da, hauskorra, altzairuaren kolorekoa. Sulfuro eta oxido gisa ageri da lurrazalean. Urteetan erabili izan da agente terapeutiko edo pozoiz gisa. Tripanosomiasiaretan tratamenduan erabiltzen da gaur egun. Horrez gain, toniko gisa ere erabil daiteke burdinarekin batera. *ES*: Arsénico *FR*: Arsenic *EN*: Arsenic *Oharrak*: Pestizidetan, herbizidetan eta abere eta hegaztien elikaduran erabiltzen dira artsenikodun konposatu asko. Fruitu, barazki, arrain eta itsaskiek artseniko-konzentrazio handiak izaten dituzte. *Arloa*: Kim.
- Asaldu**: iz. Zelula, organo, aparatu zein sistemek dituzten berezko ezaugarrien, egoeren nahiz funtzio normalen aldaketa edo etena; ezaugarri morbosok ditu asalduak. *ES*: Trastorno, perturbación *FR*: Trouble *EN*: Disorder *Arloa*: Med.
- Asbestosi**: iz. Biriketako gaixotasun kronikoa. Amianto-zuntzak arnasteak sortzen du, eta fibrosi alveolarra, interstiziala edo pleurala eragin dezake. *ES*: Asbestosis *FR*: Amiantose *EN*: Asbestosis *Oharrak*: Meatzariei eta amiantoarekin lan egiten dutenei erasaten die gehienbat, baina, batzuetan, eraikuntzako materialekin lanean aritu direnengan ere agertzen da gaixotasuna. *Arloa*: Med.
- Ase**: 1. izond. Gai jakin baten gehienezko kantitatea disolbatu edo xurgatu duena. 2. iz. Hidrogeno atomoen gehienezko kopurua duen konposatu organikoa; balentzia bakarreko loturak daude haren karbono-kateetan. *ES*: Saturado *FR*: Saturé *EN*: Saturated *Arloa*: Fis.-Kim.
- Ase**: ad. Asetasun-egoerara eramán. *ES*: Saturar *FR*: Saturer *EN*: To saturate *Arloa*: Fis.-Kim.
- Asegabe**: 1. izond. (Disoluzioei buruz) Solutu bat baino gehiago disolbatzeko gai dena. 2. izond. Konposatu organikoaren lotura bikoitz edo hiru-koitza duena; horrelako loturaren bat duen konposatua. *ES*: Insaturado *FR*: Non saturé *EN*: Unsaturated *Arloa*: Fis.-Kim.
- Asegabetasun**: iz. Asegabea denaren ezaugarria edo egoera. *ES*: Insaturación *FR*: Insaturation *EN*: Unsaturation
- Asepsia**: 1. iz. Mikroorganismorik eza. 2. iz. Gaizko adurak eragozteko metodoa; agente infekzio-eragileak saihestuz edo suntsituz egiten da, bereziki ingurune fisikoan. *ES*: Asepsia *FR*: Stérilité *EN*: Asepsis *Oharrak*: Kirurgiarako erabiltzen da. *Arloa*: Med.
- Aseptiko**: izond. Mikroorganismo patogenorik gabea. *ES*: Aséptico *FR*: Technique aseptique *EN*: Aseptic technique *Oharrak*: Gaixo batek mikroorganismoak bereganatzeko arriskua duenean erabiltzen da; bitarteko eta tresna guztiak esterilizaturik egon behar dute. *Arloa*: Med.
- Asetasun**: 1. iz. Disoluzio baten egoera; halakoetan, ezin da solutu gehiago disolbatu disoluzio horretan. 2. iz. Konposatu organiko baten egoera; balentzia guztiak bakunak dira, hots, karbono atomoen artean ez dago ez lotura bikoitzik ez hirukoitzik. 3. iz. Oxigenoa hemoglobinari lotzen zaion mailaren neurria. *ES*: Saturación *FR*: Saturation *EN*: Saturation *Arloa*: Fis.-Kim.
- Asetze**: iz. Ikus 'asetasun'.
- Asexual**: 1. izond. (Ernalkuntzari buruz) Gametorik gabe gertatzen dena. Zelula somatikoen zatiketaren bidez gertatzen da ugalketa. 2. izond. Organo sexualik ez duena. *ES*: Asexual *FR*: Asexué *EN*: Asexual
- Asfixia**: 1. iz. Odol edo ehunetako oxigeno-gabezia. 2. iz. Ito-sentipena. *ES*: Asfixia, ahogo *FR*: Asphyxie *EN*: Asphyxia *Arloa*: Biol., Med.
- Asfixiatu**: ad. Arnasa hartzeko gaitasuna falta izan. Bat baino gehiago izan daitezke eragileak: produktu kimikoek eragindako intoxikazioa, deskarga elektrikoak, eta abar. *ES*: Asfixiar *FR*: Asphyxier *EN*: To suffocate
- Asimetria**: iz. Simetriarik eza; alde bakoitzeko organo edo zatien antzekotasunik eza. *ES*: Asimetría *FR*: Asymétrie *EN*: Asymmetry
- Asimilazio**: 1. iz. Gai elikagarriak ehun organiko bilakatzen dituen prozesua. 2. iz. Norberaren jakintzan ezagutza bat txertatzeko prozesua. *ES*: Asimilación *FR*: Assimilation *EN*: Assimilation
- Asintomatiko**: izond. Sintomarik ez duena. *ES*: Asintomático *FR*: Asymptomatique *EN*: Asymptomatic *Arloa*: Med.
- Asistolia**: iz. Bihotzaren jarduera elektrikoa eta mekanikoa galtzea ezaugarri duen sindromea. *ES*: Asistolia *FR*: Asystole *EN*: Asystole *Arloa*: Med.
- Askariasi**: iz. *Ascaris lumbricoides* parasitoak eragindako infekzioa. Arrautzak gorozkien bidez kan-

- poratzen dira; lurra kutsatu, eta parasitua beste pertsona batzuetara igarotzen da. Eskuetatik, uretatik eta elikagaietatik heltzen dira ahora. Heste meharrean igarotako inkubazio-epareen ondoren, larbak hesteetako paretan zehar igarotzen dira, odolaren eta zirkulazio linfatikoaren bidez biriketara iritsi arte. *ES: Ascariasis, ascari-diasis, ascari-diosis FR: Ascariase EN: Ascariasis Arloa: Med.*
- Askaride:** iz. *Ascaris* generoko zizarea. Berrehun zizare-espezie inguru ditu *Ascaris* generoak. Ornodunen hesteetan bizi dira gehienak, bizkarroi gisa; gizakiaren heste meharrean bizi da horien artean ezagunena: *Ascaris lumbricoide*. *ES: Ascárides FR: Ver rond EN: Roundworm Arloa: Zool.*
- Askaridiassi:** iz. Ikus 'askariasi'.
- Askarizida:** izond. (Gai bati buruz) Askarideak suntsitzen dituen. *ES: Ascaricida FR: Ascaricide EN: Ascaricide*
- Asma:** iz. Bronkioetako gaixotasuna; bronkioetako hodien buxadurak eragiten du. Arnasestu eta hots ozenak ditu ezaugarri asma-krisiak. *ES: Asma FR: Asthme EN: Asthmatic breathing Oharrak:* Jatorri anitz izan ditzake: infekzioa, alergia, estresa, airearen kutsadura, eta abar. *Arloa: Med.*
- Asmaren kontrako:** izlag. (Gai bati buruz) Asmaren aurka egiten duena. *ES: Antiasmático FR: Antiasthmatic EN: Antiasthmatic Adibideak:* Asmaren kontrakoak dira, besteak beste, teofilina eta kortikoideak. *Arloa: Med.*
- Asmatiko:** izond. Asma duena. *ES: Asmático FR: Asthmatic EN: Asmatic Arloa: Med.*
- Asparagina:** iz. Asparaginaren hidrolisia katalizatzen duen entzima; azido aspartiko eta amoniako bihurtzen da asparagina. *ES: Asparagina FR: Asparaginase EN: Asparaginase*
- Aspergillus:** iz. Onddo askomizetoen generoa; desegiten ari den materia organikoari esker garatzen dira. Infekzio nosokomial askoren eragile izan ohi da. *ES: Aspergillus FR: Aspergillus EN: Aspergillus*
- Aspergilo:** iz. Aspergillus generoko onddoa. Janaria lizunarazi edo ustelazati egiten du, eta aspergilosi izeneko gaixotasunaren eragile da gizakietan. Ugalketa asexuala du. *ES: Aspergilo*
- Aspermia:** iz. Esperma-gabezia edo -jario urria. *ES: Aspermia FR: Aspermatisme EN: Aspermia*
- Aspirazio:** iz. Gas bat edo likido bat xurgatzeko prozesua; azalera batekiko presioa jaisten duen xurgagailu bat erabiliz egiten da. *ES: Aspiración FR: Aspiration EN: Aspiration*
- Aspirina:** iz. Ikus 'azido acetilsaliziliko'. *ES: Aspirina FR: Aspirine EN: Aspirin*
- Astanafarreri:** iz. Ikus 'barizela'.
- Astaperrexil:** iz. Landare ginbaildun pozoitsua. Hainbat mota bereizten dira: Astaperrexil handia: Oso alkaloida toxikoak ditu, medikuntzan edo pozoiz modura erabiltzen direnak. Astaperrexil handia (zenbaitetan perrexilarekin nahastu izan dena) da medikuntzan erabili izan den bakarra, lasaigarri eta narkotiko gisa. Astaperrexil txikia: Oso pozoitsua da. Astaperrexil zuria: Toxikoa da. Uretako astaperrexila: Bizikorra eta oso toxikoa da. *ES: Cicutá FR: Ciguë EN: Hemlock*
- Astenia:** iz. Indarra edo energia gutxitzea edo horien gabezia ezaugarri duen egoera patologikoa. *ES: Astenia FR: Asthénie EN: Asthenia Arloa: Med.*
- Asteniko:** izond. Gorpuzkera edo izaera jakin baten nolakotasuna: erraz nekatzen dena, energia gutxi eta gogo falta duena, dibertitzeko gai ez dena, eta gehiegizko sensibilitatea erakusten duena estres emozionalaren eta fisikoaren aurrean. *ES: Asténico FR: Constitution asthénique EN: Asthenic type Arloa: Psicol.*
- Astereognosia:** iz. Asaldu neurologikoa, ukimenaren bidez objektuak ezagutzeko ahalmenik eza ezaugarri duena. *ES: Astereognosia, astereognosis FR: Astéréognosie EN: Astereognosis Arloa: Med.*
- Astigmatiko:** izond. Astigmatismoa duena, edo hari dagokiona. *ES: Astigmático FR: Astigmaté EN: Astigmatic*
- Astigmatismo:** iz. Ikusmen-akatsa; kornearen esferaren kurba meridiano guztietan berdina ez denez, ezin dira argi izpiak erretinaren puntu batean argitasunez fokatu. Ikusmena lainotsua izaten da, eta betaurrekoekin edo ukipen-leiarrekin zuzen daiteke, gehienetan. *ES: Astigmatismo FR: Astigmatisme EN: Astigmatism Arloa: Oftalm.*
- Astragalo:** iz. Oineko hezurra; tamainari dagokionez, tartoko bigarrena da. Tibiaren oinarri izanik, kalkaneoren gainean hartzen du atseden. *ES: Astrágalo FR: Astragale EN: Talus Oharrak:* Tibiarekin, peronearekin, kalkanearekin eta eskafoidearekin giltzatzen da. *Arloa: Anat.*
- Astrozitoma:** iz. Nerbio-sistema zentralako tumor primarioa, astrozitoz osatua; hazkuntza motela du ezaugarri, eta inguruko egiturei erasotzen dieten kisteak eratzen ditu. *ES: Astrocitoma FR: Astrocytome EN: Astrocytoma Oharrak:* Gaiztotasun mailaren arabera sailkatzen dira astrozitomak. *Arloa: Med.*
- Astun:** izond. (Elementuei buruz) Pisu molekular handia duena. *ES: Pesado FR: Lourd EN: Heavy*
- Astuntasun:** iz. Ikus 'pisutasun'.
- Aszitis:** iz. Peritoneo barneko likidoaren pilaketa anormala; proteina eta elektrolito kantitate handiak ditu. Distentsio abdominal orokorrekin,



- hemodiluzioarekin, edemarekin edo gernu-produkzioa gutxitzearekin batera ager daiteke. *ES: Ascitis FR: Ascite EN: Ascites Oharrak:* Zirrosiaren, gutxiegitasun kardiako-kongestiboaren, nefrosiaren, neoplasia gaiztoen, peritonitisaren eta hainbat gaixotasun mikotiko eta parasitarioren konplikazioa da aszitisa. *Arloa:* Med.
- Atabismo:** iz. Izaki bizidun batean arbasoen bereizgarri genetiko batzuk agertzean datzan ezaugarria; bereizgarri horiek ez dira tarteko belaunaldietan ageri. *ES: Atavismo FR: Atavisme EN: Atavism Oharrak:* Erabilgarriak izan daitezke datu atabikoak sendagileentzat, izaera genetiko edo familiako osasun-faktoreei buruzko informazioa lortzeko. *Arloa:* Biol.
- Atake:** iz. Gaixotasun baten krisi akutua, bat-batean eta era nabarmenean agertzen dena. Sintoma akutua eta mingarriak ditu ezaugarri. *ES: Ataque FR: Attaque EN: Access Arloa:* Med.
- Atal-gabetu:** izond. Ikus 'anputatu'.
- Atal-gabetze:** iz. Ikus 'anputazio'.
- Atari:** iz. Ikus 'bestibulu'.
- Ataxia:** iz. Mugimenduak koordinatzeko gaitasuna asaldatzen duen gaixotasuna. Zerebeloko eta orno-muineko atzeko adarretako lesioengatik gertatu ohi da, eskuarki. *ES: Ataxia FR: Ataxie EN: Ataxia Arloa:* Med.
- Atelektasia:** iz. Birika-ehunaren kolapsoa ezaugarri nagusi duen anomalia. Bronkioen buxadura izaten da hura agertzearen arrazoi nagusia. Ondorioz, ezinezkoa izaten da oxigenoa eta karbono dioxidoa elkarrekin trukatzea. *ES: Atelectasia FR: Atélectasie EN: Atelectasis Arloa:* Med.
- Atera:** 1. ad. Dagoen tokitik kanpora joan edo eram zerbait edo norbait. *ES: Sustraer EN: To remove* 2. ad. Dagokion lekutik kanpora mugitu zerbait. *ES: Desencajar*
- Aterakin:** iz. Eskuarki landare- edo animalia-jatorria duen droga batetik lortzen den gaia. Disolbatzaileen edo lurrunketaren bidez prestatzen da. *ES: Extracto FR: Extrait EN: Extract Arloa:* Kim.
- Ateroma:** iz. Lipidoz osaturiko ohiz kanpoko masa; arterien hormetan aurki daiteke, batez ere. Kolesterolina eta kaltzio-gatzak pilatzean eratzen da. *ES: Ateroma FR: Athérome EN: Atheroma Arloa:* Med.
- Atetosi:** iz. Asaldu neuromuskularra; tortsio-mugimenduak ditu ezaugarri nagusi, poliki, etenik gabe eta ohikabean egiten baitira mugimendu horiek. Zenbait garun-paralisan ikus daitezkeen, eragina dute gorputz-adarretan. *ES: Atetosis FR: Mouvements athétosiques EN: Athetosis Oharrak:* Garuneko sistema bentrrikularreko kalteen ondorioz gertatzen da. *Arloa:* Med.
- Atipiko:** izond. (Gaixotasunei buruz) Ohiko motakoa edo estandarra ez dena. Sarrienak dira: organismoan analogiarik gabeko forma edo dispostzioa agertzen duten zelulaz osaturik dauden tumorrak, aldizkako sukarra —era irregularrean izaten dira krisiak—, eta ez-ohiko mikrobio-anduiek eragindako gaixotasunak. *ES: Atípico FR: Atypique EN: Atypical*
- Atlas:** iz. Lepoko lehen ornoa; hezur okzipitalarekin eta axisarekin (bigarren lepo-ornoa) giltzatzen da. *ES: Atlas FR: Atlas EN: Atlas Arloa:* Anat.
- Atomizazio:** iz. Likido bat partikula txikitari bantatzea. *ES: Atomización FR: Atomisation EN: Atomization*
- Atomo:** iz. Materiaren oinarritzko osagaia; protoiak eta neutroiak dauzka nukleoan, eta elektroiak orbitan. Elementu baten zatirik txikiena da. *ES: Átomo FR: Atome EN: Atom Arloa:* Fis.-Kim.
- Atonia:** iz. Giharren tentsioaren edo tonuaren ohiz kanpoko gabezia. *ES: Atonía FR: Atonie EN: Atony Arloa:* Med.
- Atoniko:** izond. (Giharrei buruz) Ohiko tonua falta zaiona. *ES: Atónico FR: Atone EN: Atonic*
- Atopia:** iz. Ondoretasun-fenomenoa, bat-bateko erreakzio alergikoak izatea bideratzen duena. *ES: Atopia FR: Atopie EN: Atopy Oharrak:* Asma, dermatitis atopikoa, eta abar ager daitezke antigorputz baten ondorioz; eskuarki azalean eta, zenbaitetan, odolean aurki daitezke antigorputz hori.
- Atrabiliario:** izond. Behazun beltzari dagokiona. Malenkonia eta hipokondria ditu ezaugarri. *ES: Atrabiliario FR: Atrabillaire EN: Atrabiliary, atrabiliary Arloa:* Med.
- Atresia:** iz. Gorputzean berezkoa den irekigune, hodi edo kanal baten gabezia; esaterako, uzkia, bagina edo kanpoko entzunbidea. *ES: Atresia FR: Atrésie EN: Atresia*
- Atrio:** 1. iz. Tinpanoaren barrunbearen zati nagusia; mailu-buruaren azpian kokatua dago. 2. iz. Gorputzeko ganbera edo barrunbea; bihotzeko eskuin- eta ezker-aurikulak, esate baterako. *ES: Atrio FR: Atrium EN: Atrium Arloa:* Anat.
- Atrofia:** iz. Zelula, ehun edo organo baten tamaina txikitzea eta funtzionaltasuna galtzea ezaugarri duen gaixotasuna. *ES: Atrofia FR: Atrophie EN: Atrophy Arloa:* Med.
- Atrofiatu:** ad. Atrofia nozitu edo eragin. *ES: Atrofiar EN: To atrophy Arloa:* Med.
- Atropina:** iz. Landareetatik lortzen den alkaloidea. Sistema parasinpatikoaren antagonista da. *ES: Atropina FR: Atropine EN: Atropine Oharrak:* Askotarako erabiltzen da medikuntzan: begi-azterketetan begi-ninia zabaltzeko, urdail-giharrek baretzeko, bihotz-taupadak bizkortzeko, morfinaen antidoto gisa, eta abar.
- Atsedeen:** iz. Jardueraren etenaldia, geldialdia; ezinbesteko neurria da zenbait asaldu mediko-kirur-

- gikoren tratamenduan. *ES:* Descanso, reposo *FR:* Repos *EN:* Rest
- Atsedean hartu:** ad. Jarduera eten eta indarberritu. *ES:* Descansar
- Atsedernaldi:** iz. Ikus 'atseden'.
- ATT (antitoxina tetanikoa):** iz. Infekzio tetanikoaren exotoxinak neutralizatzen dituen serum immunea. *ES:* ATT *FR:* Antitoxine tétanique *EN:* Tetanus antitoxin *Oharrak:* Tetanosaren tratamenduan erabiltzen da.
- Atxikidura:** iz. Orbain-ehunetako zerrenda, berez bananduta dauden bi gainazal anatomiko lotzen dituena. Sabelaldean agertzen da batik bat, sabelaldeko kirurgia, lesio edo hantura-prozesuren baten ondorioz. *ES:* Adherencia *FR:* Adhérence *EN:* Adherence
- Atxikipen:** iz. Kanporatu beharreko gaiek behar baino denbora gehiago igarotzea sortu diren lekuan; gernua edo gorozkiak kanporatzeko ezintasuna. *ES:* Retención *FR:* Rétention *EN:* Retention *Arloa:* Med.
- Atzeko hagin:** iz. Hortz-arkuaren atzealdean kokatutako hagin-pieza bakoitza. *ES:* Molar *FR:* Molaire *EN:* Molar *Arloa:* Anat.
- Atzera egin:** ad. Laburtu, motzagoa egin edo atzerantz tiratu. *ES:* Retraer *FR:* Rétracter *EN:* To retract
- Atzera egite:** 1. iz. Atal baten uzkurdura. 2. iz. Ehunaren atzerantzko mugimendua, gorputzeko gune edo egitura bat agerian uzten duena. *ES:* Retracción *FR:* Rétraction *EN:* Retraction
- Atzeraeragin:** iz. Prozesu automatikoa; sistema batean aldaketa bat gertatu ondoren, lehengo egoerara itzularazten duen erreakzioa eragitea du helburu. Oinarritzakoa da prozesu naturalen zein artifizialen erregulaziorako eta kontrolerako. *ES:* Retroalimentación *FR:* Rétrocontrôle *EN:* Feedback
- Atzeraezin:** izond. Ikus 'itzulezin'.
- Atzerakari:** 1. izond. Atzerantz edo bere jatorrirantz itzultzen dena. 2. izond. (Zeinuez edo sintomez) Aldizka berriz agertu ohi dena. *ES:* Recurrente *FR:* Récurrent *EN:* Recurrent *Arloa:* Anat., Med.
- Atzeratu:** ad. Ikus 'atzera egin'.
- Atzeratu:** izond. Ikus 'adimen urriko'.
- Atzeratze:** iz. Ikus 'atzera egite'.
- Audifono:** iz. Hotsak amplifikatzen dituen tresna elektronikoa; entzumen-arazoak dituzten pertsonen erabiltzen dute, batez ere. *ES:* Audífono *FR:* Audiphone *EN:* Audiphone *Oharrak:* Mikrofono bat, bateria, amplifikadorea eta hargailua dira haren osagaiak.
- Audimetro:** iz. Entzumenaren sentikortasuna neurtzeko tresna. *ES:* Audímetro
- Audiofrequentzia:** iz. Giza belarriak entzun dezakeen frequentzia, 15 Hz eta 20 kHz artekoa. *ES:* Audiofrecuencia *FR:* Audiofréquence *EN:* Audio frequency
- Audiograma:** iz. Pertsona baten entzumenaren zorroztasuna adierazten duen grafika. Hotsak entzuteko eta hizkuntzaren soinuak bereizteko gaitasunean oinarritzen da. *ES:* Audiograma *FR:* Audiogramme *EN:* Audiogram
- Audiologia:** iz. Entzumenaren ikerketan oinarritzen den zientziaren alorra; medikuntza-metodoen bidez zuzendu ezin daitezkeen entzumen-asalduek aztertzen ditu batik bat. *ES:* Audiología *FR:* Audiologie *EN:* Audiology
- Audiometria:** iz. Entzumen-zolitasuna neurtzeko teknika. Soinuen frekuentzien edo maiztasunen arabera egiten da. *ES:* Audiometría *FR:* Audiométrie *EN:* Audiometry
- Aulki turkiar:** iz. Hobi pituitario edo hipofisiarioa; esfenoide hezuraren goiko aldean dago. *ES:* Silla turca *FR:* Selle turcique *EN:* Sella turcica *Arloa:* Anat.
- Aura:** iz. Gaixotasun edo paroxismo-krisi baten aurreko zantzua (argia edo beroa, esate baterako); epilepsian agertzen da, bereziki. *ES:* Aura *FR:* Aura *EN:* Aura *Oharrak:* Higidurazkoa, zentzumenezkoa, basomotorra, jariakorra edo psikikoa izan daiteke. *Arloa:* Med.
- Aurikula:** 1. iz. Belarri-hegala edo -pabilioia. *ES:* Aurícula *FR:* Pavillon de l'oreille *EN:* Pinna 2. iz. Bihotzeko goiko bi barrunbeatariko bakoitza; zainetatik datorren odola jasotzen dute. *ES:* Aurícula *FR:* Auricule *EN:* Auricula *Arloa:* Anat.
- Aurikular:** 1. izond. Belarriari edo entzumenari dagokiona. 2. izond. Bihotzeko aurikulari dagokiona. 3. iz. Soinuak birsortzeko aparatu elektrikoakustikoa; belarriari edo belarriei atxikirik erabiltzen da. *ES:* Auricular *FR:* Auriculaire *EN:* Atrial *Arloa:* Anat.
- Aurikulu-bentrikular:** izond. Bihotzeko aurikulei eta bentrikulei dagokiena. *ES:* Auriculo-ventricular *FR:* Auriculoventriculaire *EN:* Auriculo-ventricular *Oharrak:* Hainbat balbula daude gune horretan. *Arloa:* Anat.
- Aurrikuntza:** iz. Ezkutuan zegoena edo ezagutzen ez zena topatzea. *ES:* Descubrimiento
- Aurkitu:** ad. Ezkutuan zegoena edo ezezaguna zena agerrarazi. *ES:* Descubrir
- Aurpegi:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'aurpegi'.
- Aurpegi:** iz. Buruaren aurreko aldea, kopetatik kokotseraino doana. Larruazalak, giharrek eta kopetaren, begien, sudurraren, ahoaren, barailaren eta hezur malarren egiturek osatzen dute. *ES:* Cara *FR:* Visage *EN:* Face *Arloa:* Anat.
- Aurpegi:** izlag. Aurpegian dagoena, edo aurpegiari dagokiona. *ES:* Facial *FR:* Facial *EN:* Facial
- Aurpegi azal:** iz. Ikus 'larmintz'.
- Aurrea hartu:** ad. Ikus 'prebenitu'.

**Aurreko hagin:** iz. Letaginen hurrengo bi haginak; zortzi dira denetara. *ES:* Premolar *FR:* Prémolaire *EN:* Premolar *Oharrak:* Letaginak baino motzagoak eta txikiagoak dira. *Arloa:* Anat.

**Aurrez zaindu:** ad. Ikus 'prebenitu'.

**Ausiki:** ad. Ikus 'hozka egin'.

**Ausiki:** iz. Ikus 'hozkada'.

**Auskultatu:** ad. Belarria edo estetoskopioa ipini horma torazikoan edo abdominalean; sabel edo bularraldeko organoek egiten dituzten hots ohi-koak edo patologikoak miatzea du helburu. *ES:* Auscultar *Arloa:* Med.

**Auskultazio:** iz. Azterketa fisikoa egiteko metodoa; gorputz barneko hotsak entzutean datza. Bihoztzaren, biriken, pleuraren, edo fetuaren hots kardialkoaren, hesteen eta beste organo batzuen ebaluazioa egiteko balio du. Esteteskopio bidez egiten da gehienetan, frekuentzia, intentsitatea, iraupena eta hotsen nolakotasuna zehazteko. *ES:* Auscultación *FR:* Auscultation *EN:* Auscultation *Arloa:* Med.

**Auskultazioa egin:** ad. Ikus 'auskultatu'.

**Autismo:** iz. Fenomeno psikopatologikoa; kanpoko munduarekiko interesa galdu eta nor bere baitan bakartzen da. *ES:* Autismo *FR:* Autisme *EN:* Autism *Oharrak:* Honako ezaugarri hauek ditu: bakartzea, ameskeriak, haluzinazioak, jendearekin hitz egiteko edo harremanetan jartzeko gaitasunik eza, eta abar. *Arloa:* Psikiat.

**Autista:** izond. Autismoa nozitzen duena. *ES:* Autista *FR:* Autiste *EN:* Autistic *Arloa:* Psikiat.

**Autoantigeno:** iz. Gorputzaren osagai endogenoa; antigorputzen ekoizpena indartzen du, eta organismo ehunei zuzenduriko autoimmunitate-erreakzioa sortu. *ES:* Autoantígeno *FR:* Autoantigène *EN:* Autoantigen *Arloa:* Med.

**Autoantigorputz:** iz. Gorputzeko ohiko osagai baten aurka erreakzionatzen duen immunoglobulina. Gaixotasun autoimmunek eragiten dituzte autoantigorputzek. *ES:* Autoanticuerpo *FR:* Autoanticorps *EN:* Autoantibody *Oharrak:* Lupus eritematoso sistemikoa duten gaixoetan, material nuklearean gertatzen da; anemia perniziosoan, berriz, zelula parietaletan; tronbozitopenia autoimmunen, aldiz, plaketetan, eta anemia hemolitiko autoimmuneetan, hematien azaleran. *Arloa:* Med.

**Autoerotiko:** izond. Norberaren gorputzaz baliatuz atsegina lortzeko jokabide sexualari dagokiona. *ES:* Autoerótico *Arloa:* Psikol.

**Autoestimu:** iz. Norberak bere buruari dion estimua eta begirunea. *ES:* Autoestima *FR:* Estime de soi *EN:* Self-esteem *Arloa:* Psikol.

**Autofagia:** iz. Nork bere ehunak jatean datzan elikadura mota. Organismoa denbora luzez barraudaldian egon denean gertatzen da. *ES:* Autofagia *FR:* Autophagia *Arloa:* Med.

**Autogamia:** iz. Gizabanako beraren gameto arraren eta emearen elkarketa. *ES:* Autogamia *FR:* Autogamie *EN:* Autogamy *Arloa:* Biol.

**Autogeno:** izond. Organismoaren barnean sortua dena, kanpoko laguntzarik gabe. *ES:* Autógeno *FR:* Autogène *EN:* Autogenous

**Autoimmune:** izond. Norberaren ehunen aurrean, immunitate-erantzun baten garapenean eragiten duena. *ES:* Autoimmune *FR:* Auto-immun *EN:* Autoimmune *Arloa:* Biol.

**Autoimmunitario:** izond. Autoimmunitateari dagokiona. *ES:* Autoimmunitario

**Autoimmunitate:** iz. Organismoak bere ehunen aurka erreakzionatzen sortzen den ez-ohiko egoera. Hipersentiberatasuna eta gaixotasun autoimmunek eragin ditzake autoimmunitateak. *ES:* Autoinmunidad *FR:* Auto-immunité *EN:* Autoimmunity *Arloa:* Biol.

**Autoimmunizazio:** iz. Organismo barneko prozesu naturalek eragindako immunitatea. Prozesu horren bitartez, gorputzeko ehun baten edo gehiagoren aurkako antigorputzak garatzen ditu norbanakoaren immunitate-sistemak. *ES:* Autoimmunización *FR:* Autoimmunisation *EN:* Autoimmunization *Arloa:* Biol.

**Autoinjerto:** iz. Gorputzaren zati batetik norbanako beraren beste guneren batera edozein ehun lekualdatzeko ekintza eta ondorio kirurgikoa. Maiz erabiltzen dira erredura larrietan galdutako azala ordezkatzeko. *ES:* Autoinjerto *FR:* Autogreffon *EN:* Autograft *Arloa:* Med.

**Autoionizazio:** iz. Kanpo-eragilerik gabe, atomo kitzikatu batek bere elektroio bat kanporatzea. *ES:* Autoionización *FR:* Auto-ionisation *EN:* Auger effect *Arloa:* Fis.-Kim.

**Autokatalisi:** iz. Erreakzio baten emaitzek eragindako katalisi mota. *ES:* Autocatalisis *FR:* Autocatalyse *EN:* Autocatalysis *Oharrak:* Aktibitatea handitzen dieten gaiak ekoizten dituzte entzimak. *Arloa:* Kim.

**Autokatalitiko:** 1. izond. Autokatalisari dagokiona. 2. izond. (Erreakzio kimikoei buruz) Bere katalizatzailea sortzeko gai dena. *ES:* Autocatalítico *FR:* Autocatalytique *EN:* Autocatalytic *Arloa:* Kim.

**Autoklabe:** iz. Tresna hermetikoki itxia; presioaren edo lurrunaren bidez kirurgia- eta laborategi-tresnak esterilizatzeko erabiltzen da. *ES:* Autoclave *FR:* Autoclave *EN:* Autoclave

**Autokontrol:** iz. Nork bere burua kontrolatzeko ahalmena. *ES:* Autodominio *FR:* Auto-contrôle *EN:* Self-control *Arloa:* Psikol.

**Autokontzientzia:** iz. Nork bere buruaz duen kontzientzia. *ES:* Autoconciencia *FR:* Conscience de soi *EN:* Self-consciousness *Arloa:* Psikol.



- Autokritika:** iz. Nork bere buruari egindako kritika. *ES:* Autocrítica *FR:* Autocritique *EN:* Self-criticism *Arloa:* Psikol.
- Autolisi:** iz. Ehunak berez suntsitzeko prozesua, zelula barneko entzimek eraginik. Heriotzaren ondoren gertatzen da, oro har. *ES:* Autolisis *FR:* Autolyse *EN:* Autolysis *Arloa:* Biokim.
- Autolitiko:** izond. Ehun biziak suntsitzen dituena. *ES:* Autolítico *FR:* Autolytique *EN:* Autolytic *Arloa:* Biokim.
- Automatiko:** izond. Baldintza jakinetan, gizakiak parte hartu gabe gerta daitekeena. *ES:* Automático *FR:* Automatique *EN:* Automatic *Adibideak:* Telefono automatikoa, keinu automatikoa.
- Automatismo:** iz. Sistema organiko batean, nahi gabe eta kanpoko eraginetatik aske izaten den funtzioa. *ES:* Automatismo *FR:* Automatism *EN:* Automatism *Adibideak:* Bihotzaren taupadak, begi-niniak zabaltzea, eta abar.
- Automedikazio:** iz. Sendagaiak hartzea, medikuaren agindurik gabe. *ES:* Automedicación *FR:* Automédication *EN:* Self-medication *Arloa:* Med.
- Autonomo:** izond. Kanpoko eraginik gabe, aske funtzionatzeko gaitasuna duena. *ES:* Autónomo *FR:* Autonome *EN:* Autonomic
- Autoplastia:** iz. Kirurgia mota; gaixoaren beraren ehunak hartuz, hark kalteturik dauzkan atalak konpontzen edo ordezkatzen ditu. *ES:* Autoplastia *FR:* Auto-greffon *EN:* Autograft *Arloa:* Med.
- Autopsia:** iz. Gorputzaren azterketa; hil ondoren egiten da, heriotzaren arrazoiak jakiteko eta zehazteko. *ES:* Autopsia *FR:* Autopsie *EN:* Necropsy *Oharrak:* Bi mota bereizten dira: autopsia klinikoa —heriotzaren arrazoiak ezagutzeko— eta auzitegi-autopsia —legeari dagokiona—. *Arloa:* Med.
- Autorregulatuak:** izond. Autorregulazioa eragiten duena; sistema natural edo artifiziala izan daiteke. *ES:* Autorregulador
- Autorregulazio:** iz. Ehunek beren odol-fluxua egokitzeko duten gaitasuna. Gihar lisoaren uzkuartze-prozesuari esker lortzen dute, odol-hodiak ireki eta itxi egiten baititu hark. Sistema organikoek odol-fluxu etengabea izatea bideratzen du. *ES:* Autorregulación *FR:* Autorégulation *EN:* Self-regulation
- Autoskopia:** 1. iz. Organoen azterketa. 2. iz. Larin-gearren barnealdearen azterketa, ispilurik erabili gabe eginga. *ES:* Autoscopia *FR:* Autoscopie *EN:* Autoscopy *Arloa:* Med.
- Autosoma:** iz. Sexuala ez den edozein kromosoma, zelula somatikoetan pare homologo gisa agertzen dena. Gizakiek 22 autosoma pare dituzte; ezau-garri genetiko guztien transmisioan parte hartzen dute horiek, sexuarekin zerikusia dutenetan izan ezik. *ES:* Autosoma *FR:* Autosome *EN:* Autosome *Arloa:* Biol.
- Autosomiko:** izond. Autosoma batean dagoena; gene, alelo edota ezau-garri bati buruzkoa. *ES:* Autosómico *FR:* Autosomique *EN:* Autosomal *Adibideak:* Autosomikoak dira gizakien 22 kromosoma pareak. *Arloa:* Biol.
- Autotransfusio:** iz. Gaixo bati aurrez ateratako odola edota galdutakoa berriz sartzeko prozesua; ebakuntza-garaian edo ondoren egin daiteke. *ES:* Autotransfusión *FR:* Autotransfusion *EN:* Autotransfusion
- Autotrofo:** izond. (Organismoei buruz) Gai ez-organikoetatik materia organikoa ekoizteko gai dena. Bakterioak eta landareak izan ohi dira gehienak. *ES:* Autótrofo *FR:* Autotrophe *EN:* Autotroph *Adibideak:* Izaki autotrofoak dira klorofila-landareak. *Arloa:* Biol.
- Autotxerto:** iz. Txerto autogenoa. Gaixoaren beraren ehunak edo haren jariakinetatik isolatzen diren germen-hazkuntzak erabiliz egiten da. *ES:* Autovacuna *FR:* Autovaccin *EN:* Autogenous vaccine *Arloa:* Med.
- Auzitegi-:** (Hitz elkartuetan) Justizia-auzitegiari edo -legelari-tzari dagokiona. *ES:* Forense
- Auzitegiko:** izlag. Ikus 'auzitegi-'.  
**Auzitegi-mediku:** iz. Justizia-administrazioari laguntzeko ardura duen osasun-profesionala. *ES:* Médico forense *FR:* Medical examiner *EN:* Médecin légiste
- Axis:** iz. Bigarren lepo-ornoa; haren gainean mugitzen da atlasa, eta buruaren errotazio-, hedadura- eta flexio-mugimenduak ahalbidetzen ditu. *ES:* Axis *FR:* Axis *EN:* Axis *Arloa:* Anat.
- Axoi:** iz. Ikus 'neurita'. *ES:* Axón
- Azal-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'gainazaleko'.  
**Azal:** iz. Ikus 'kortex'.  
**Azaldu:** ad. Ikus 'agerian jarri'.  
**Azaleko:** 1. izlag. Ikus 'dermiko'. *ES:* Dérmico 2. izlag. Ikus 'gainazaleko'. *ES:* Superficial 3. izlag. Ikus 'kortikal'. *ES:* Cortical  
**Azalpeko:** izlag. Ikus 'dermis barneko'.  
**Azal-tiratu:** iz. Ikus 'lifting'.  
**Azazkal:** iz. Hatzen eta behatzen azken falangeetako egitura lau, elastiko, gogor eta kornea-testurakoa. Erroa, gorputza eta mutur askea ditu azazkal bakoitzak. Epitelio-etzata lauez osatua dago. *ES:* Uña *FR:* Ongle *EN:* Nail
- Azetabulu:** iz. Kopa-itxurako barrunbe handia; iskion, iliona eta pubisa elkartzen diren gunea da. *ES:* Acetábulo *FR:* Acétabulum *EN:* Acetabulum *Arloa:* Anat.
- Azetato:** iz. Azido azetikoaren forma ionizatua. *ES:* Acetato *FR:* Acétate *EN:* Acetate *Arloa:* Kim.
- Azetilkolina:** iz. Nerbio-sistema parasinpatikoan neurona kolinergikoek jariatzen duten neurotransmisorea; giharrei, guruinei eta nerbio-zelulei

- eragiten die. *ES:* Acetilcolina *FR:* Acétylcholine *EN:* Acetylcholine *Arloa:* Fisiol.
- Azetilzisteina:** iz. Sendagai muki-aringarria; biriketako muki sendoa arintzeko erabiltzen da. *ES:* Acetilcisteína *FR:* Acétylcystéine *EN:* Acetylcysteine *Arloa:* Kim.
- Azetonemia:** iz. Odolean azetona neurritz gain edukitzea ezaugarri duen asaldua. *ES:* Acetonemia *FR:* Acétose *EN:* Acetonaemy *Obarrak:* Diabetsaren konplikazioetariko bat da. *Arloa:* Med.
- Azetonuria:** iz. Gernuan azetona neurritz gain edukitzea ezaugarri duen asaldua. *ES:* Acetonuria *FR:* Cétonurie *EN:* Ketonuria *Arloa:* Med.
- Azidimetro:** iz. Azidotasuna neurtzeko tresna. *ES:* Acidímetro *FR:* Pèse-acide *EN:* Acidimeter *Arloa:* Kim.
- Azido:** 1. iz. Soluzio batean hidrogeno ioiak sorrazten dituen edozein gai; zapore garratza du, eta 7tik beherako pHa du. *ES:* Ácido *FR:* Acide *EN:* Acid *Arloa:* Kim. 2. izond. Ikus 'garratz'.
- Azido askorbiko:** iz. C<sub>6</sub>H<sub>8</sub>O<sub>6</sub>, edo C bitamina. Uretan disolba daitekeen gai kristalinoa, kolore zurikoa; zitrikoetan, tomateetan, marrubietan, patatetan eta orri berdeko barazki freskoetan agertzen da. Ezinbestekoa da kolageno- eta zuntz-ehunaren eraketan; era berean, beharrezkoa da haginetan, hezurretan, kartilagoetan, ehun konektiboan eta larruazalean agertzen den zelula barneko matrizearen sintesian, eta baita kapilarren hormen egituraren osotasuna mantentzeko ere. *ES:* Ácido ascórbico *FR:* Acide ascorbique *EN:* Ascorbic acid *Obarrak:* Azido askorbikoaren gabezia handia denean, eskorbutoa sortzen da. *Arloa:* Kim.
- Azido azetiko:** iz. CH<sub>3</sub>-COOH. Isurkari kologea, usain sarkorrekoa, uretan eta alkoholetan nahasgarria, eta ozpinaren osagai nagusia. *ES:* Ácido acético *FR:* Acide acétique *EN:* Acetic acid *Arloa:* Kim.
- Azido azetilsaliziliko (AAS):** iz. Landare-jatorria duen sendagaia. Hainbat gaixotasunen kontra erabiltzen da. *ES:* Acido acetilsalicílico (AAS) *FR:* Acide 2-(acétyloxy)benzoïque *EN:* 2-(acetyloxy)benzoic acid *Arloa:* Kim.
- Azido boriko:** iz. H<sub>3</sub>BO<sub>3</sub>. Gai zuri kristalinoa. Larruazaleko eta mukosetako zaurietan erabiltzen da, antiseptiko gisa. Lozioak eta ukenduak egiteko erabiltzen da, batez ere. *ES:* Ácido bórico *FR:* Acide borique *EN:* Boric acid *Arloa:* Kim.
- Azido desoxirribonukleiko:** iz. ADN. Zelularen nukleoko kromosomen osagai garrantzitsuena; transmisio genetikoaren eta ondoretasun biologikoaren oinarria da. Informazio genetiko gorde-tzen du, eta, horren bidez, zeluletako proteinen egitura antolatatu. *ES:* Acido desoxirribonucleico *FR:* Acide désoxyribonucléique (ADN) *EN:* De-
- oxyribonucleic acid (ADN) *Obarrak:* ADN-ren osagaiak: desoxirribosa, fosfato taldea eta lau base nitrogenatu (adenina, guanina, zitosina eta timina). *Arloa:* Biokim.
- Azido erribonukleiko:** iz. RNA. Proteinen sintesian parte hartzen duen azido nukleiko; nukleotido-kate luze batez osatua dago, eta nukleotiko horiek fosfodiester loturez elkarturik daude beren artean. Hidrolisiaren ondorioz, erribosa ematen du. *ES:* Acido ribonucleico *FR:* Acide ribonucléique *EN:* Ribonucleic acid *Arloa:* Biokim.
- Azido fluorhidriko:** iz. Hidrogeno fluoruroaren ur-disoluzioa. Kaltzio fluoruroa azido sulfurikoarekin erreakzionaraziz lortzen da; oso toxikoa da, eta narritagarria mukosentzat. *ES:* Ácido fluorhídrico *FR:* Fluorhydrique *EN:* Hydrofluoric *Arloa:* Kim.
- Azido foliko:** iz. B taldeko bitamina; zelulen hazkuntzan eta ugalketan du eragina. *ES:* Ácido fólico *FR:* Acide folique *EN:* Folic acid
- Azido formiko:** iz. HCOOH. Likido kologea, usain sarkorrekoa eta pozoitsua; azala eta begiak erresumintzen ditu, eta alergia-eragile ere izan daiteke. Inurriek eta erleek isurtzen dute, baina azido oxalikotik eta glizerinatik ere lortzen da. Metanolaren metabolismoaren emaitza da. *ES:* Ácido fórmico *FR:* Formique *EN:* Formic *Arloa:* Kim.
- Azido fosforoso:** iz. H<sub>3</sub>PO<sub>3</sub>. Likido kristalkorra eta urbera; fosfito-gatzak eratzen ditu. *ES:* Ácido fosforoso *FR:* Phosphoreux *EN:* Phosphorous *Arloa:* Kim.
- Azido klorhidriko:** HCl. 1. iz. Kloroz eta hidrogenoz osatutako gai azidoa. Hidrogeno kloruroa uretan disolbatzean lortzen da. 2. iz. Hidrogenoz eta kloroz osatutako konposatua; urdailean jariatzen da, eta urin gastrikoaren osagairik garrantzitsuena da. *ES:* Ácido clorhídrico *FR:* Chlorhydrique *EN:* Hydrochloric *Arloa:* Kim.
- Azido nukleiko:** iz. Molekula multzo jakin bat; zelula eukariotoen nukleoa eta mitokondrioetan ekoizten dira molekula horiek, eta proteinen ekoizpenean parte hartzen dute. *ES:* Acido nucleico *FR:* Acide nucléique *EN:* Nucleic acid
- Azido oleiko:** iz. Azido koipetsu ase; animalien eta landareen koipeetan egon ohi da. *ES:* Ácido oleico *FR:* Acide oléique *EN:* Oleic acid *Arloa:* Kim.
- Azido tartariko:** iz. HOOC-CHOH-CHOH-COOH. Gai solido organikoa, tartarotik eratortria. *ES:* Acido tartárico *FR:* Acide tartrique *EN:* Tartaric acid *Arloa:* Kim.
- Azido uriko:** iz. Azido nukleikoen metabolismoaren azken produktua; gernuaren osagaia da. Azido urikoa odolean pilatzeak aziduria eragiten du, eta giltzurruneko kalkulu mota baten eragile iza-

- ten da. *ES*: Acido úrico *FR*: Acide urique *EN*: Uric acid *Oharrak*: Egoera patologikoan, giltzadurretan agertzen da, eta hezueria ekar dezake. *Arloa*: Biokim.
- Azido zianhidriko**: iz. HCN. Hidrogeno zianuroaren ur-disoluzioa. Likido kolorega da, alkoholean edozein proportziotan nahas daitekeena. Oso pozoï indartsua da; organismoan bizkor xurgatzen da, bihotza eta birrikak geldiarazten ditu, eta heriotza eragin. Hala ere, medikuntzan badu erabilerarik, antiseptiko baliotsua baita % 2ko disoluzioan. *ES*: Ácido cianhídrico *FR*: Acide cyanhydrique *EN*: Hydrocyanic acid *Arloa*: Kim.
- Azido-basiko oreka**: iz. Odolean eta gorputzeko likidoetan dauden base eta azidoen arteko oreka iraunkorra. *ES*: Equilibrio ácido-básico *FR*: Equilibre Acidoe-base *EN*: Acid-base equilibrium
- Azidosi**: iz. Azidoen edo baseen desoreka, gorputzeko isurkarietan —odolean, batez ere— osagai azido gehiegi edo base urri edukitzeagatik. Azidosiaren eragile izan daitezke diabetesa, intoxikazioak, eta abar. *ES*: Acidosis *FR*: Acidose *EN*: Acidosis *Arloa*: Med.
- Azidotasun**: iz. Azidoaren eta, oro har, azidoa dagoen ingurune baten ezaugarri neurgarria, basikotasunaren aurkakoa. *ES*: Acidez *FR*: Acidité *EN*: Acidity *Arloa*: Kim.
- Azidotu**: ad. Ingurune bat azidoago bihurtu. *ES*: Acidificar *FR*: Acidifier *EN*: To acidify *Oharrak*: Odola azidotzea eragin dezakete diabetesak, erre-dura zabalak, nefritis kronikoak eta barau luzeak. *Arloa*: Kim.
- Azidotzaille**: izond. (Gai bati buruz) Gai bat azidoago bihurtzen duena. *ES*: Acidulante *FR*: Acidulant *EN*: Acidulant *Oharrak*: Elikagaiak kontserbatzeko erabiltzen dira gai azidotzailleak. *Arloa*: Kim.
- Aziklobir**: iz. Birusen aurkako sendagaia; herpesa sendatzeko edo arintzeko erabiltzen da, ukendu eran, pilula eran, eta abar. *ES*: Aciclovir *FR*: Acyclovir *EN*: Acyclovir *Arloa*: Med.
- Azino**: 1. iz. Guruetako egitura esferiko txikia; jario-zelulek eta horiez inguratutako barrunbeek osatzen dute. 2. iz. Biriketean, zenbait albeolok elkarturik osatzen duten multzo txikia. *ES*: Acino *FR*: Acinus *EN*: Acinus *Arloa*: Anat.
- Azinodun**: 1. izond. Azino multzo osatua dagoena. 2. izond. Albeolo multzo osatua dagoena. *ES*: Acinoso *Arloa*: Anat.
- Azken arnasa eman**: ad. Ikus 'hil'.
- Azkenetan egon**: ad. Gaixoa bizitzako azken uneetan egon. *ES*: Agonizar
- Azkura**: iz. Erresumin-sentsazioa larruazalean; hazka eginarazten du. *ES*: Picazón, picor *FR*: Démangeaison, picotement *EN*: Itch
- Azkura izan**: ad. Gorputzeko atalen batean erremina sentitu. *ES*: Picar
- Azkuraren kontrako**: izlag. (Sendagaiei buruz) Azkura sendatzen edo baretzen duena. *ES*: Antipruriginoso *FR*: Agent antiprurigineux *EN*: Antipruriginous agent *Arloa*: Med.
- Azpiespezie**: iz. Ikus 'subespezie'.
- Azpigenero**: iz. Ikus 'subgenero'.
- Azpigeruza**: iz. Geruza baten azpian bereiz daitezkeen geruza txikiagoetako bakoitza. *ES*: Subcapa *FR*: Sous-couche *EN*: Subshell
- Azpiklase**: iz. Ikus 'subklase'.
- Azpiko**: izlag. Zerbaiten azpian dagoena. *ES*: Subyacente *FR*: Sous-jacente *EN*: Underlying
- Azpiordena**: iz. Ikus 'subordena'.
- Aztal**: iz. Ikus 'zango-sagar'.
- Aztarna**: iz. Ikus 'arrasto' . *ES*: Secuela
- Azterketa**: 1. iz. Zerbait behar bezala ote dagoen edo ote dabilen ikusteko nahiz egiaztatzeko egiten den ikerraldia. 2. iz. Zerbait aztertzea, aldatzeko edo zuzentzeko, nahiz hartaz hobeki jabetzeko. *ES*: Revisión *FR*: Révision *EN*: Review 3. iz. Helburu diagnostikoetarako eta ikerketarako egiten den miaketa, organo-barrunbeena bereziki. *ES*: Exploración *FR*: Exploration *EN*: Exploration
- Aztertu**: ad. Zerbaiti edo norbaiti arretaz begiratu, haren jatorria eta ezaugarriak ezagutzeko. *ES*: Reconocer, explorar, examinar *FR*: Reconnaître, examiner *EN*: To recognize, to examine
- Aztertzaile**: iz. Zerbait edo norbait aztertzen duen pertsona. *ES*: Examinador *FR*: Examineur *EN*: Examiner
- Aztoramen**: iz. Ezinegona; tentsio emozionalaren adierazpen psikomotor gisa agertzen da gehienetan. *ES*: Agitación *FR*: Agitation *EN*: Agitation *Arloa*: Psikol.
- Aztoramenezko depresio**: iz. Etengabeko ezinegon fisikoa eta antsietate larria ezaugarri dituen depresioa. *ES*: Depresión agitada *FR*: Dépression agitante *EN*: Agitated depression *Arloa*: Psikol.
- Aztura**: iz. Ikus 'ohitura'.

# B

.....

- Baba:** iz. Handitu urtsua; larruazalean sortzen da, oinetan eta eskuetan batez ere. *ES:* Ampolla *Oharrak:* Ezinbesteko ezaugarria da bigarren mailako erreduren diagnostikoa egiteko. *Arloa:* Med.
- Babes:** iz. Eragozpen eta erasoen aurkako zaintza. *ES:* Protección *FR:* Protection *EN:* Protection
- Babestu:** ad. Ikus 'estali'.
- Babinskiren erreflexu edo zeinu:** iz. Oineko behatz lodieren erreflexuzko mugimendua. Oin-azpiaren kanpoko ertza minik eman gabe tresnaren batez estimulatzean, oineko behatzak zabaldu eta atzerantz flexionatzen dira. Sistema piramidaleko gaixotasunen adierazle da. *ES:* Babinski, Reflejo o signo de *FR:* Signe de Babinski *EN:* Babinski's sign *Arloa:* Med.
- Bagina-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'baginako'.
- Bagina:** iz. Emakumeen ugal-aparatuaren zatia, bulbatik umetokiraino doana. Uretraren atzean eta ondostean aurrean dago. Ehun tentekorrezko eta giharrezko geruza bat du baginak, mukosaz estalia. *ES:* Vagina *FR:* Vagin *EN:* Vagina *Arloa:* Anat.
- Baginako:** izlag. Baginari dagokiona, edo baginan dagoena. *ES:* Vaginal *FR:* Vaginal *EN:* Vaginal
- Baginal:** izond. Ikus 'baginako'.
- Bainu:** iz. Gorputza edo haren zati bat ingurune solido, likido edo gaseoso batean sartzeko ekin-tza, osasuna hobetzeko edo mantentzeko, nahiz garbitasunerako. *ES:* Baño *FR:* Bain *EN:* Bath
- Baja:** iz. Medikuak sinatzen duen agiria; norbaitek gaixotasun, istripu, edo halakoren bat izan badu, lanera ez joateko baimena ematen zaio aldi baterako. *ES:* Baja *FR:* Perte *EN:* Casualty
- Baja eman:** ad. Medikuak agiri bat izenpetu, gaxorik edo lan egin ezinik dagoen pertsonari aitortzen zaion egoera adierazteko. *ES:* Dar de baja
- Bakailao-gibelaren olio:** iz. Olio lodi horixka; bakailaoaren eta antzeko beste zenbait espeziaren gibeletik ateratzen da. Oso aberatsa da A eta D bitaminez. *ES:* Aceite de hígado de bacalao *FR:* Huile de foie de morue *EN:* Cod liver oil
- Bakan:** izond. Ikus 'arraro'.
- Bakartu:** izond. Ikus 'isolatu'.
- Bakteriemia:** iz. Odolean bakterio patogenoak izatea ezaugarri duen asaldua; sukarra eta hotzikarak dira haren sintoma nagusiak. *ES:* Bacteriemia *FR:* Bactériémie *EN:* Bacteriemia *Arloa:* Med.
- Bakterio-:** (Hitz elkartuetan) Bakterioena, edo haiei dagokiena. *ES:* Bacteriano *FR:* Bactérien *EN:* Bacterial *Arloa:* Biol.
- Bakterio:** iz. Mikroorganismo zelulabakar prokariotoa. Hainbat morfologia izan ditzake: esferikoa (kokoak), bastoi-itxurakoa (baziloak), espirakoa (espiroketak) edo koma-itxurakoa (bibrioak). Nukleo berezirik gabea da. Batzuk kaltegarriak dira gizakiarentzat; beste batzuk, aldiz, kalterik egiten ez dutenak; badira onuragarriak direnak ere. Bakterio kaltegarriak eritasun kutsagarri gehienek sortzaile dira: tuberkulosia, tifusa, kole-ra, eta abar. *ES:* Bacteria *FR:* Bactérie *EN:* Bacterium *Arloa:* Biol.
- Bakteriofago:** iz. Bakterioen lisia eragiten duen birusa; bakterioak ostalari gisa hartu, eta haietan ugaltzeko gaitasuna du. *ES:* Bacteriófago *FR:* Bactériophage *EN:* Bacteriophage *Arloa:* Biol.
- Bakterioflora:** iz. Organismo batean bizi den bakterio multzoa. *ES:* Flora bacteriana *FR:* Flore bactérienne *EN:* Bacterial flora
- Bakteriolisi:** iz. Bakterioen suntsiketa; organismo biziaren barnean edo kanpoan gerta daiteke. *ES:* Bacteriólisis *FR:* Bactériolyse *EN:* Bacteriolysis *Arloa:* Biol.
- Bakteriologia:** iz. Bakterioen azterketaz arduratzen den zientzia. *ES:* Bacteriología *FR:* Bactériologie *EN:* Bacteriology *Arloa:* Biol.
- Bakteriologiko:** izond. Bakteriologiari dagokiona. *ES:* Bacteriológico *FR:* Bactériologique *EN:* Bacteriologic *Arloa:* Biol.
- Bakteriologo:** iz. Bakteriologian aditua. *ES:* Bacteriólogo *FR:* Bactériologiste *EN:* Bacteriologist *Arloa:* Biol.
- Bakterio-plaka:** iz. Mikroorganismo osatutako geruza; hortzetan finkatzen dira mikroorganismo horiek, eta txantxarra eta oietako infekzioak eragin, sarritan. Listu-guruinekin jarraitutako muzina ere plakaren osagai izan ohi da. *ES:* Placa bacteriana *FR:* Plaque dentaire *EN:* Bacterial plaque
- Bakteriostasi:** iz. Bakterioen hazkuntza, ugalketa, edo biak gerarazten dituen fenomeno. *ES:* Bacteriostasis *FR:* Bactériostase *EN:* Bacteriostasis
- Bakteriostatiko:** izond. (Gai bati buruz) Bakterioen hazkuntza galarazten duena. *ES:* Bacteriostático *Oharrak:* Ukendu bakteriostatikoak tul batez estali behar dira, gasak itsatsi egiten dira eta. *Arloa:* Med.

- Bakterioterapia:** iz. Gaixotasun infekziosoen tratamendua; organismoan bakterio biziak edo hilak sartuz egiten da. *ES:* Bacterioterapia *FR:* Bactériothérapie *EN:* Bacteriotherapy *Arloa:* Med.
- Bakteriozidina:** iz. Bakterio-espezie berezi bat suntsitzeko gai den antigorputza. *ES:* Bactericidina *FR:* Bactériolysine *EN:* Bacteriolysin *Arloa:* Biol.
- Bakteriuria:** iz. Gernuan bakterioak izatea ezaugarri duen asaldua. *ES:* Bacteriuria *FR:* Bactériurie *EN:* Bacteriuria *Arloa:* Med.
- Bakterizida:** izond. Bakterioak hiltzen dituen. *ES:* Bactericida *FR:* Bactéricide *EN:* Bactericide *Adibideak:* Eragile fisiko bakterizidak: beroa, izpi ultramorea. Eragile biologiko bakterizidak: lisinak, lisozima, eta abar. *Arloa:* Med.
- Bakuolo:** iz. Zelula baten barrunbea, gardena nahiz likidoz betea; oro har gantzak, jariakinak edo zelula-hondarrak izaten ditu. *ES:* Vacuola *FR:* Vacuole *EN:* Vacuole *Arloa:* Biol.
- Bala:** iz. Ikus 'faszikulu'.
- Balanitis:** iz. Glandearen hantura; prepuzioaren hanturarekin batera agertzen da, gehienetan. Akutua denean, gaizkoadura, zauria, zornea, eta abar izaten dira. Balanitis sendatzeko, ezinbestekoa da garbitasuna. *ES:* Balanitis *FR:* Balanite *EN:* Balanitis *Oharrak:* Balanitisaren eragile dira garbitasun-eza, diabetesa, sexu-eritasunak, eta abar. *Arloa:* Med.
- Balanopostitis:** iz. Glandearen eta prepuzioaren hantura. Mina, narritadura eta zorne-jarioa dira haren ezaugarri nagusiak. *ES:* Balanopostitis *FR:* Balano-posthite *EN:* Balanoposthitis *Arloa:* Med.
- Balantza:** iz. Neurketan, pisatzeko erabiltzen den tresna; gorputz bat pisu jakineko objektuekin orekatzen da. *ES:* Peso *FR:* Balance *EN:* Scales, balance, weighing
- Balbula-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'balbular'.
- Balbula:** iz. Hodi bateko egitura; handik igarotzen den likidoa atzera itzultzea eragozten du. Bihotzean daude gorputzeko bi balbula garrantzitsuenak: balbula trikuspidia, bihotzeko eskuin-aurikula eta -bentrikulua bereizten dituen, eta balbula mitrala, ezkerreko aurikula eta bentrikulua bereizten dituen. *ES:* Válvula *FR:* Valvule *EN:* Valve *Arloa:* Anat.
- Balbula bikuspidia:** iz. Bihotzeko balbuletako bat; ezkerreko aurikularen eta bentrikuluaren artean dago. Bi erpin dituen balbula bakarra da. Odol-fluxuari aurikulatik bentrikulura igarotzen uzten dio, baina kontrako bidea oztopatu, eta odola aurikulara itzultzea eragozten du. *ES:* Válvula bicúspide *FR:* Valvule bicuspid *EN:* Bicuspid valve *Arloa:* Anat.
- Balbula mitral:** iz. Ikus 'balbula bikuspidia'. *ES:* Válvula mitral *FR:* Valvule mitrale *EN:* Mitral valve
- Balbula trikuspidia:** iz. Bihotzeko eskuineko aurikularen eta bentrikuluaren arteko balbula; hiru erpin ditu. *ES:* Válvula tricúspide *FR:* Valvule tricuspide *EN:* Tricuspid valve *Arloa:* Anat.
- Balbular:** izond. Balbularena, edo hari dagokiona. *ES:* Valvular *FR:* Valvulaire *EN:* Valvular
- Baldintzatu:** ad. Animalia edo pertsona bati elkar-tze-ikasketa ezarri, berez erantzunik eragingo ez lukeen estimulu zehatz batek erantzun jakin bat eragin dezan beti. *ES:* Condicionar *FR:* Conditionner *EN:* To condition *Arloa:* Psikol.
- Baliaezin:** izond. (Pertsona buruz) Gaixotasun nahiz lesio baten ondorioz ezindua dagoena. *ES:* Inválido *FR:* Invalide *EN:* Disabled, handicapped
- Balioeste:** 1. iz. Análisi kimiko kuantitatiboaren metodo bolümetrikoa; haren bidez, disoluzio batean dagoen gai baten kontzentrazioa neur daiteke. 2. iz. Gaixotasun edo egoera jakin baten azterketa; egoera horrek izan duen garapenean oinarritzen da. Balioeste zuzen egiteko, ezinbestekoa da informazioa biltzea. *ES:* Valoración *FR:* Évaluation *EN:* Assessment *Arloa:* Kim., Med.
- Balioetsi:** ad. Disoluzio baten kontzentrazioa zehaztu. *ES:* Valorar *FR:* Évaluer *EN:* To value *Arloa:* Kim.
- Balneoterapia:** iz. Tratamendu mota; gaixotasunak ur mineralen edo bainuen bidez tratatzen dira. *ES:* Balneoterapia *FR:* Balnéothérapie *EN:* Balneotherapy *Arloa:* Med.
- Balo:** iz. Gomazko zein bestelako materialez egindako poltsa puzgarria. Zenbait teknika terapeutiko edo klinikotan erabiltzen da. *ES:* Balón *FR:* Ballon *EN:* Balloon *Arloa:* Med.
- Baltsamatu:** ad. Hilotzen barrunbeak baltsamogaiez bete; hodieta zenbait likido injektatu edo hilotzak ez usteltzeko beste metodo batzuk erabiltzen egiten da, antzina egiten zen moduan. *ES:* Embalsamar
- Baltsamiko:** izond. Baltsamoa duena, edo haren ezaugarriak dituen. *ES:* Balsámico *FR:* Balsamique *EN:* Balsamic
- Baltsamo:** iz. Zauriak sendatzen edo arintzen dituen gaia. Jatorri ugari izan ditzake: alkohola, olio, erretxina, eta abar. *ES:* Bálsamo *FR:* Baume *EN:* Balsam
- Baraila-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'matrailezur'.
- Baraila:** iz. Ikus 'beheko matrailezur'.
- Barailezur:** iz. Ikus 'beheko matrailezur'.
- Barakuilu:** iz. Barne-belarriko hezur-egitura, barraskilo-itxurakoa; entzumen-nerbioaren zuntzak igarotzeko zuloak ditu. *ES:* Caracol *FR:* Cochlée *EN:* Cochlea *Arloa:* Anat.
- Barau:** iz. Jateari edo edateari egiten zaion ukoa; helburu terapeutikoak nahiz erlijiosoak izaten



- ditu, gehienetan. *ES:* Ayuno *FR:* Jeûne *EN:* Fast *Arloa:* Med.
- Barau egin:** ad. Elikagaiak hartzeari uko egin. *ES:* Ayunar
- Baraurik:** adlag. Elikagaririk hartu gabe. *ES:* En ayunas
- Barautan:** adlag. Ikus 'baraurik'.
- Barazkijale:** izond. Ikus 'begetariano'.
- Barbituriko:** iz. Hipnotikoen taldeko gai sintetikoa. Azido barbiturikoaren eratorria da. Nerbio-sistema zentralaren lasaigarri- eta hipnotikofuntzioa du. Erabilera gehiago ere baditu; besteak beste: konbultsioen aurka epilepsian, anestesiko gisa kirurgian, eta abar. *ES:* Barbitúrico *FR:* Barbiturique *EN:* Barbiturate *Arloa:* Med.
- Bare:** iz. Organo biguna, odol-hodi ugariz hornitua. Urdailaren eta diafragmaren artean dago, gorputzeko ezker-hipokondrioren. Sistema linfatikoen osagaitzat hartzen da, folikulu linfoideak baititu. Barearen sinuak estaltzen dituzten makrofagoek mikroorganismoak suntsitzen dituzte fagozitosi bidez. Leukozitoak, monozitoak, linfozitoak eta zelula plasmaticoak ere ekoizten ditu bareak. Organismoan odoljarlo handiren bat gertatzen baldin bada, barea gai da odol-bolumena 350-550 ml handitzeko, minutu bat baino gutxiagoan. *ES:* Bazo *FR:* Rate *EN:* Spleen
- Baregarri:** izond. Ikus 'lasaigarri'.
- Barestesia:** iz. Organoen eta ehunen sentiberatasuna, presio-aldaketen aurrean. *ES:* Barestesia *FR:* Baresthésie *EN:* Baresthesia *Arloa:* Med.
- Baretu:** ad. Ikus 'lasaitu'.
- Bario:** iz. Ba. Elementu kimiko metalikoa, lurralkalinoa, kolore zuri-horixkakoa. Izadian, sulfatoegoeran azaltzen da, batik bat. Bario-sulfatoa erradiologian erabiltzen da, X izpici ez baitie igarotzen uzten. Digestio-aparatuko erradiografiak egiteko, bario-esnea (bario-ahia) erabiltzen da, kontraste gisa. Bario-gatzak, berriz, pozoitsuak dira, eta kalteak eragin ditzakete, giharretan bereziki; pozoidura larria denean, odoljarloak, dardarak, arnas aparatuko paralisiak, eta abar ager daitezke. *ES:* Bario *FR:* Baryum *EN:* Barium *Arloa:* Kim.
- Barize:** iz. Zain zabaldua eta bihurtzua; iraukorra izaten da zabaltze hori. Zainaren barnean odola pilatzen delako sortzen dira barizeak. Batez ere hanketan azaltzen dira. *ES:* Varice *FR:* Varice *EN:* Varix *Arloa:* Med.
- Barizela:** iz. Eritasun kutsagarria; 5-6 urteko haurrei erasaten die, batez ere. Larruazaleko gorriuneak eta pikorrak ditu ezaugarri. Astebeteko iraupena izaten du gaixotasunak, gutxi gorabehera, eta ez du baztangarekin zerikusirik, itxuran izan ezik. Herpes familiako birus batek, *Varicela zoster* birusak, eragina da. Arnasbideetako tanta txikien bidez kutsatzen da batez ere, baina larruazaleko lesioen kontaktu zuzenaren bidez ere kutsa daiteke. Besikuletako likidoa eta orbainak kutsagarriak dira, erabat lehortzen diren arte. Barizela behin izanez gero, ez da berriz harrapatzen. *ES:* Varicela *FR:* Varicelle *EN:* Chickenpox *Oharrak:* Urteetara, herpes zosterra eragin dezake. *Arloa:* Med.
- Barne-behaketa:** iz. Ikus 'introspektzio'.
- Barne-belarri:** iz. Belarriaren barne-egitura konplexua; lotura zuzena du nerbio akustikoarekin, eta soinu-bibrazioak igortzen ditu erdiko belarririk. Bi atal ditu: hezurrezko labirintoa eta mintzezko labirintoa. Bere baitan hartzen ditu: oreka-organoa —utrrikulua, zakutoa eta kanal erdi zirkularrak— eta entzumen-aparatuak —Corti-ren organoko entzumen-zelula ziliiodunak—. *ES:* Oído interno *FR:* Oreille interne *EN:* Internal ear
- Barne-herstura:** iz. Ikus 'antsietate'.
- Barneko mediku:** iz. Graduatu berria den edo programa klinikoko batean barneratu berria den edozein sendagile. Ospitale batean eskaintzen ditu bere zerbitzuak, medikuburu baten agindutara. *ES:* Interno *FR:* Interne *EN:* Intern
- Barne-medikuntza:** iz. Medikuntzaren adarra; barne-organoen fisiologiak eta patologiak, eta organo horiei erasaten dieten prozesu patologikoen diagnostikoak eta tratamenduak arduratzen da. *ES:* Medicina interna *FR:* Médecine interne *EN:* Internal medicine
- Barnerakoi:** izond. Barnerakoitasunerako joera duena. *ES:* Introvertido *FR:* Introverti *EN:* Introvert *Arloa:* Psikol.
- Barnerakoitasun:** iz. Nortasun-ezaugarria; norberaren interesak, pentsamenduak eta indarrak barnera bideratzeko joera. *ES:* Introversión *FR:* Introversión *EN:* Introversión *Arloa:* Psikol.
- Barneratu:** 1. ad. Gorputz bat beste baten barrura eraman edo joan. *ES:* Penetrar *FR:* Pénétrer *EN:* To penetrate 2. ad. Pertsonak iritziak, arauak, eta abar bere egin, bereganatuak izan direla ahazteraino. *ES:* Internalizar *FR:* Intérioriser *EN:* To internalize *Arloa:* Psikol.
- Barneratze:** iz. Gorputz bat beste batean sartzeko ekintza. *ES:* Penetración *FR:* Pénétration *EN:* Penetration
- Barrabil:** iz. Semena ekoizten duten bi gonada arretariko bakoitza. Arrautza-itxurako guruinak dira, eta eskrotoaren barnean daude. Espermatozoideak sortzeaz gain, funtzio endokrinoa dute (sexu-hormona maskulinoak jariatzea), eta bigarren mailako ezaugarri sexualak mugatzen, gartzatzen eta mantentzen dituzte. *ES:* Testículo *FR:* Testicule *EN:* Testis, testicle *Arloa:* Anat.
- Barrabil-zorro:** iz. Ikus 'eskroto'.

- Barre-gihar:** iz. Ikus 'gihar erisorio'.
- Barreiadura:** iz. Prozesu zein germen patologikoen hedapena. *ES:* Diseminación *FR:* Dissémination *EN:* Dissemination *Arloa:* Med.
- Barreiatu:** ad. Ikus 'hedatu'.
- Barreiatze:** iz. Ikus 'hedatze'.
- Barruan sartu:** ad. Ikus 'barneratu'. *ES:* Penetrar *FR:* Pénétrer *EN:* To penetrate
- Barruki:** iz. Ikus 'errai'.
- Barrunbe:** 1. iz. Gorputzaren edo organoren baten gune hutsa. *ES:* Cavidad *FR:* Cavité *EN:* Cavity *Arloa:* Biol. 2. iz. Ikus 'hobi'.
- Barrunbe toraziko:** iz. Saihetsek, bizkarrezurraren alde dortsalak, bularrezurrak, diafragmak eta inguruko giharrek inguratzen duten barrunbea. *ES:* Cavidad torácica *FR:* Cavité thoracique *EN:* Thoracic cavity *Arloa:* Anat.
- Bartholin-en guruinak:** iz. Baginaren bestibulua- ren atzealdean eta alboaldean dauden guruin txiki muki-jariatzaileetako bakoitza. Guruin horiei esker, labain jartzen da ematutua. *ES:* Bartholin, Glándulas de *FR:* Glande de Bartholin *EN:* Bartholin gland, greater vestibular gland *Arloa:* Biol.
- Bartholinitis:** iz. Bartholin-en guruinetariko baten hantura; bakterio-infekzio batek eragina izan ohi da. *ES:* Bartolinitis *EN:* Bartholinitis *Arloa:* Med.
- Base:** 1. iz. Sendagai baten osagai nagusia. 2. iz. Azidoekin erreakzionatzean, protoiak onartzeko eta gatzak eratzeko ahalmena duen gaia. *ES:* Base *FR:* Base *EN:* Base
- Base pirimidiko:** iz. Egitura ziklikoa duen base organiko nitrogenatua. Nukleosidoen, azido nukleikoen eta entzima askoren osagaia da. *ES:* Base pirimídica *FR:* Base pyrimidique *EN:* Pyrimidine base *Arloa:* Kim.
- Basektomia:** iz. Ebakuntza kirurgikoa; gizonaren ugai-ahalmena eteten da, hodi deferentea moztuz. *ES:* Vasectomía *FR:* Vasectomie *EN:* Vasectomy *Arloa:* Med.
- Basiko:** 1. izond. Basearen ezaugarriak dituena. 2. izond. Azidoak neutralizatzeko gai dena. *ES:* Básico *FR:* Basique *EN:* Basic *Arloa:* Kim.
- Basikotasun:** iz. Prozesu kimiko batean base gisa jokatzeko duen gai baten ezaugarria. Azido batek konbinatzeko duen gaitasuna adierazten du; ordezka daitezkeen hidrogeno atomoak zenbatuz neurtzen da. *ES:* Basicidad *FR:* Alcalinité *EN:* Alkalinity *Arloa:* Km.
- Baskular:** izond. Odol-hodiei dagokiena. *ES:* Vascular *FR:* Vasculaire *EN:* Vascular *Arloa:* Biol., Med.
- Baso:** iz. Ikus 'hodi'. *ES:* Vaso
- Basodilatadore:** izond. Ikus 'hodi-zabaltzaile'.
- Basodilatazio:** iz. Ikus 'hodi-zabaltze'.
- Basofilia:** 1. iz. Odoleko gaixotasuna; odolean leukozito basofiloak neurritz kanpo agertzea du ezaugarri. 2. iz. Globulu gorriak endekatzearen asaldua; pikor basofiloak garatzen dira. *ES:* Basofilia *FR:* Basophilie *EN:* Basophilia
- Basofilo:** iz. Granulozitoen taldeko leukozitua. Haren nukleo zatituak hainbat granulatu dituzte, kolortzaile basikoekin urdinez tindatzen direnak. *ES:* Basófilo *FR:* Basophile *EN:* Basophilic *Arloa:* Biol.
- Basokonstriktore:** izond. Ikus 'hodi-uzkurtzaile'.
- Basokonstriktzio:** iz. Ikus 'hodi-uzkurdura'.
- Bat-bateko:** izlag. Ikus 'fulminante'.
- Bateraezin:** izond. Beste batekin bateratzeko gai ez dena. *ES:* Incompatible *FR:* Incompatible *EN:* Incompatible *Oharrak:* Gerta daiteke transplantatutako ehun bat ez onartzea, emalearen antigorputz-faktoreak eta hartzailearenak bateraezina direlako.
- Bateraezintasun:** iz. Bi gairen edo gehiagoren arteko aurkakotasuna. Esate baterako, bi odol mota-rena, batera hartutako bi sendagairena, eta abar. Sendagai-bateraezintasuna; bi sendagai edo gehiago batera hartu ezina, organismoan kalteak gerta daitezkeelako. Odol-bateraezintasuna: bi pertsonen odolaren arteko erreakzioa; baten odol-ak ez du bestearentzat balio. *ES:* Incompatibilidad *FR:* Incompatibilité *EN:* Incompatibility
- Bateragaitz:** izond. Ikus 'bateraezin'.
- Bateragarritasun:** iz. Immunologian, organismoaren defentsa-sistemak kanpoko materien aurrean duen jasankortasuna. Esate baterako, transfusio-ko odola, ehun-txertaketak edo transplantatutako organoak hartzea, erreakzio immunerik gertatu gabe. Erabateko bateragarritasuna, eskuarki, berdin-berdinak diren bikietan gertatzen da. *ES:* Compatibilidad *FR:* Compatibilité *EN:* Compatibility
- Batez besteko:** izlag. Zenbakizko balioa; serie baten batura serie horren unitate kopuruaz zatituz lortzen da. *ES:* Promedio *FR:* Moyenne *EN:* Average
- Bazilar:** izond. Baziloei dagokiena. *ES:* Bacilar *FR:* Bacillaire *EN:* Bacillary *Arloa:* Med.
- Bazilemia:** iz. Odolean, baziloak —batez ere tuberkulosi-baziloak— agertzen direneko asaldua. *ES:* Bacilemia *FR:* Bacillémie *EN:* Bacillemia *Arloa:* Med.
- Bazilo:** iz. *Bacillaceae* familiako mikroorganismoa; grampositiboa da, aerobioa edo aukerazko anaerobioa, eta esporak sortzen ditu. Patogenoa izan ohi da, gehienetan. *ES:* Bacilo *FR:* Bacille *EN:* Bacillus *Arloa:* Mikrobiol.
- Baziluria:** iz. Gernuan baziloak agertzen direneko asaldua. *ES:* Baciluria *FR:* Bacillurie *EN:* Bacilluria *Arloa:* Med.

- Bazitrazina:** iz. *B. lincheniformis* edo *subtilis*-etik ateratako antibiotikoa. Polipeptido-nahaste batez egina dago. Penizilinarean antzeko eragina du. Nefrotoxikoa denez, erabilera topikoa du. *ES:* Bacitracina *FR:* Bacitracine *EN:* Bacitracin *Arloa:* Med.
- Baztanga:** iz. Birus-jatorria duen gaixotasuna; oso kutsagarria da. Haren ezaugarri dira: sukarra, ahulezia, eta besikula-negela. Pronostikoa larria da, hilgarriak baitira ehunetik 15 kasu inguru. Hala ere, desagertutzat jotzen da eritasuna gaur egun, txertaketari esker. *ES:* Viruela *FR:* Petite vérole, variole *EN:* Smallpox, variola *Arloa:* Med.
- Baztanga ero:** iz. Ikus 'barizela'.
- BCG:** iz. Immunizazio aktiborako gaia; Calmette-Guérin baziloa erabiliz prestatzen da. Tuberkulosiaren aurka immunizatzeke erabiltzen da. *ES:* BCG *FR:* BCG *EN:* BCG
- Begetarianismo:** iz. Elikatze-sistema; mota guztietako haragiak baztertzen ditu. Ez da erabat zorrotza, zenbait kasutan, animalia-jatorria duten hainbat gai onartzen baitira: esnea, arrautzak, ez-tia, eta abar. *ES:* Vegetarianismo *FR:* Végétarisme *EN:* Vegetarianism
- Begetariano:** izond. Landare-jatorriko elikagaietara —fruta, laboreak, intxaurrak, eta abar— mugatzen den dieta egiten duena. Begetariano askok arrautzak eta esnekiak hartzen dituzte, baina animalia-jatorriko haragi oro ekiditen dute. *ES:* Vegetariano *FR:* Végétarien *EN:* Vegetarian
- Begetatibo:** izond. (Funtzio biologikoei buruz) Nerbio-sistema begetatiboaren bidez egiten dena: arnasketa, zirkulazioa, digestioa eta gurui-jariakinak. *ES:* Vegetativo *FR:* Végétatif *EN:* Vegetative *Arloa:* Biol.
- Begetazio:** 1. iz. Zenbait ehunen nahiz zauriren gainean eratzen den gune haragitsua. 2. iz. Balbula baten inguruko ehunaren ez-ohiko hazkuntza, fibrinaz, plaketaz eta bakterioz osatua. Endokarditisaren oinarritzko lesioa da. *ES:* Vegetación *FR:* Végétation *EN:* Vegetation *Arloa:* Med.
- Begi:** iz. Ikusmen-organoa. Begi-orbitaren barruan dago, gazezuraren aurreko aldean. Esfera-itxura du. Hiru geruza ditu: esklerokornea, ubea eta erretina. Kristalinoak banatzen du, bi barrunbetan. *ES:* Ojo *FR:* Oeil *EN:* Eye *Arloa:* Anat.
- Begi lausotu:** ad. Ikusmena lainotu. *ES:* Nublarse los ojos
- Begibakar:** izond. Begi batean ikusmenik ez duena. *ES:* Tuerto *FR:* Borgne *EN:* One-eyed
- Begi-globo:** iz. Ikusmen-organoa; betzuloan dago. Bi barrunbetan banatzen du kristalinoak: aurrekoa eta atzekoa. Aurrekoa bi kamaratan banatzen du irisak; humore urtsuz beterik daude biak. Aurreko kamara baino handiagoa da atzekoa, eta humore beirakara du bere baitan. *ES:* Globo ocular *FR:* Globe oculaire *EN:* Eyeball
- Begi-karunkula:** iz. Goragune gorrixka, begiaren erdialdeko angelukoa. *ES:* Carúncula ocular *FR:* Caroncule oculaire *EN:* Eye-caruncle *Arloa:* Anat.
- Begi-lauso:** iz. Ikus 'katarata'.
- Begi-nini:** iz. Irisaren erdiguneko irekigune uzkurgarri eta zabalgarri biribildua. Argia kristalinora eta erretinara igaroarazten duen leihoa da, eta diametro aldakorra du argiaren edo beste zenbait kinadaren arabera. *ES:* Pupila *FR:* Pupille *EN:* Pupil *Oharrak:* Diametroa aldatuz, erretinara sartzen diren izpiak erregulatzen ditu. *Arloa:* Anat.
- Begi-okor:** izond. Estrabismoa duena; begiak okertzen ditu begiratzean. *ES:* Bizco *FR:* Louche *EN:* Cross-eyed *Arloa:* Med.
- Begi-orbita:** iz. Ikus 'begizulo'.
- Begirale:** iz. Ikus 'zaintzaile'.
- Begitarte:** iz. Bi bekainen arteko gunea. *ES:* Entrecejo *FR:* Glabelle
- Begizeihar:** izond. Ikus 'begi-okor'.
- Begiztatu:** ad. Beste izaera bateko fenomenoak irudikatu, irudi optikoen bidez. *ES:* Visualizar *FR:* Visualiser *EN:* To visualize
- Begizulo:** iz. Bekokiaren azpiko hezurrezko barrunbea; begia hartzen du bere baitan. *ES:* Cuenca de los ojos *Arloa:* Anat.
- Behagarri:** izond. Beha daitekeena; behatzea merezi duena. *ES:* Observable *FR:* Observable *EN:* Observable
- Behaketa:** iz. Fenomeno baten azterketa arretatsua, fenomeno hori aldatu gabe egiten dena. *ES:* Observación *FR:* Observation *EN:* Observation *Arloa:* Med.
- Behar:** iz. Barne-sentsazioa; ezinbesteko funtzio baten —elikadura, arnasketa, irazketa, sexu-harremanak, eta abar— akatsari dagokio, eta, orobat, organismoaren mantenturako ezinbestekoak diren gaien gabeziari. *ES:* Necesidad *FR:* Besoin *EN:* Need
- Behar baino lehenagoko:** izlag. Ikus 'garaiz aurreko'.
- Behatu:** ad. Ikusiz zein entzunez, arreta jarri. *ES:* Observar *FR:* Observer *EN:* To observe
- Behatz:** iz. Oinaren muturreko bost luzakineteriko bakoitza. Hiru falangez osatuak daude guztiak, bat izan ezik; izan ere, bi falange ditu lehenengo hatzak, hatz lodiak. *ES:* Dedo
- Behaviorismo:** iz. Psikologia natura-zientziaztat hartzen duen eskola. Jokabidea iragartzea eta sistematikoki kontrolatzea du helburu. Sentimeneen edo tresna teknikoaren bidez hauteman daitekeen jokabidea du ikergai behaviorismoak. *ES:* Beha-



- viarismo, conductismo *FR: Béhaviorisme EN: Behaviorism Arloa: Psikol.*
- Behazun-:** (Hitz elkartuetan) Behazunari dagokiona. *ES: Biliar FR: Biliaire EN: Biliary Arloa: Biol.*
- Behazun:** iz. Isurkari berde-horixka alkalinoa; gibelak jariatzan du, eta behazun-xixkuak gorde. Heste meharrera iristen da, hodi koledokotik igaroz. Han, gantzak emulsionatzen ditu, heste meharran bertan digeritu eta xurga daitezten. *ES: Bilis FR: Bile EN: Bile Arloa: Biol.*
- Behazun-azido:** iz. Behazunaren azido esteroidea, kolesterolaren metabolismoan sortzen da. Glizina eta azido kolikoa ateratzen dira behazun azidoaren hidrolisitik. *ES: Ácido biliar FR: Acide biliaire EN: Bile acid*
- Behazuneko:** izlag. Ikus 'behazun-'.  
**Behazun-harri:** iz. Behazun-hodietan edo behazun-xixkuan sortzen den kalkulua. Behazun-pigmentuz eta gatz mineralekin nahasturiko zenbait materia organikoz osatua dago. Ikterizia, eskuin-hipokondrioko mina, buxadura eta behazun-xixkuaren hantura eragin ditzake. *ES: Cálculo biliar FR: Calcul biliaire EN: Biliary calculus Arloa: Med.*
- Behazun-hodi:** iz. Gibelaren barnetik edo kanpotik behazuna daraman hodietariko edozein. *ES: Conducto biliar FR: Canal biliaire, conduit biliaire EN: Bile duct, biliary duct Arloa: Anat.*
- Behazun-koliko:** iz. Eskuin-hipokondrioko mina; sarritan hedatzen da epigastriorantz eta eskuineko eskapularantz, eta gorakoa ere eragiten du. Kalkuluek hodi zistikoan buxadura sortzearen ondorioz gertatzen da kolikoa. *ES: Cólico biliar FR: Colique hépatique EN: Biliary colic*
- Behazun-xixku:** iz. Zaku jariatzailea, udare-itxurakoa. Gibelaren eskuin-lobuluko errai-azaleko hobi batean dago. Behazunaren gordailu da. 8 cm-ko luzera eta 2,5 cm-ko zabalera du, eta 32 cc behazun gorde ditzake. Uzkurту egiten da gantzen digestioa egitean, eta behazuna jariatzen du koledokotik duodenoraino. *ES: Vesícula biliar FR: Vésicule biliaire EN: Gallbladder*
- Behoko masailezur:** iz. Ikus 'behoko matrailezur'.  
**Behoko matrailezur:** iz. Matrailezuraren behoko aldean osatzen duen hezur luzea; han daude behoko hortzak. Zati horizontala, gorputza eta bi adar elkarzut ditu; bi adar horiek ia angelu zuzena osatuz elkartzen zaizkio gorputzari. Kurbatua du gorputza, ferra-itxurakoa, bi aurpegi eta bi ertzekin. *ES: Hueso maxilar inferior, mandíbula FR: Maxillaire inférieur, mandibule EN: Inferior maxillary bone, mandible*
- Beheragune:** iz. Ingurukoak baino beherago dagoen gunea. *ES: Depresión*
- Beherako:** iz. Digestio-aparatuaren asaldua; gorotz bigun edo likidoa oso maiz egitea du ezaugarri nagusia, baina gorotzean mukia, zornea, odola edota gehiegizko gantz kantitatea ere ager daitezke. Beherakoaren eragile izan daitezke: gaizkoak, intoxikazioak, eta abar. *ES: Diarrea, descomposición FR: Diarrhée EN: Diarrhea Oharra: Honako ezaugarriak biltzen ditu NANDAK onartutako erizaintza-diagnostikoak: sabeleko mina, kolikoa, sabel-hustearen maiztasuna areagotzea, gorotz bigun eta likidoa, heste-orroak, sabelusteko bat-bateko larritasuna eta gorotzen kolore-aldaketa.*
- Bekain:** iz. Begi gaineko hezurrezko ertza, eta hura estaltzen duten azala eta ile multzoa. *ES: Ceja FR: Sourcil EN: Eyebrow*
- Bekar:** iz. Ikus 'makar'.  
**Bekartsu:** izond. Ikus 'makartsu'.  
**Bekoki:** iz. Ikus 'kopeta'.  
**Bekoki-hezur:** iz. Ikus 'hezur frontal'.  
**Bektore-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'bektorial'.  
**Bektore:** iz. Animalia ostalaria; gaixotasun baten germen eragilea darama berekin. Artropodoak izan ohi dira bektore biologikoak; organismo kutsatzaileek artropodo horietan osatzen dute beren bizi-zikloaren zati bat. Bektore mekanikoek ostalari batetik bestera eramaten dute organismo kutsatzailea, baina ez dira ezinbestekoak bizkarroia bizi-zikloan. *ES: Vector FR: Vecteur EN: Vector Oharra: Malariaren kasuan, Anopheles eltxoa da bektorea. Arloa: Med.*
- Bektorial:** izond. Bektore bati dagokiona. *ES: Vectorial FR: Vectoriel EN: Vectorial*
- Belaiki:** iz. Ikus 'belladona'. *ES: Belladona*
- Belarmintz:** iz. Ikus 'aloe'.  
**Belarri:** 1. iz. Entzumen-organoa; barneko, erdiko eta kanpoko belarria ditu osagai. *ES: Oído FR: Oreille EN: Ear Arloa: Anat.* 2. iz. Entzumen-pabiloia. Kartilago-zuntzeko organoa da, larruazalez estalia eta buruaren alde banatarua dagoena. Kanpoko belarria eratzen du, kanpoko entzumen-hodiarekin batera. *ES: Oreja FR: Oreille EN: Ear Arloa: Anat.*
- Belarri-mintz:** iz. Ikus 'tinpano'.  
**Belaun:** iz. Giltzadura konplexua, izterra zangoarekin lotzen duena. *ES: Rodilla FR: Genou EN: Knee Arloa: Anat.*
- Belaun-hezur:** iz. Ikus 'errotula'.  
**Belaunpe:** iz. Belaunaren atzeko zatia; gune horretan tolestean da zangoa. *ES: Corva FR: Jarret EN: Popliteal fossa Arloa: Anat.*
- Belladona:** iz. Solanazeoen familiako landare pozoitsuak. Zenbait alkaloide ditu barruan: hioszamina, atropina, apotropina, eskopolamina, eta abar. Pozoitsuak dira haren hostoak eta sus-traiak. Medikuntzan erabiltzen da, ezaugarri terapeutiko asko baititu: narkotikoa, antiespasmódikoa, lasaigarria eta estimulatzailea, kardiakoa,

- eta abar. Atropina eta belladonna dira belladonaren osagai aktiboak. *ES:* Belladonna *FR:* Belladone *EN:* Belladonna *Arloa:* Biol.
- Beltzune:** iz. Ikus 'ubeldu'.
- Benda:** iz. Ikus 'lotura'.
- Bendaje:** iz. Ikus 'lotura'.
- Bendatu:** ad. Ikus 'lotu'.
- Benereo:** izond. Sexu-harremani dagokiena, edo haiek eragina. *ES:* Venéreo *FR:* Vénéérienne *EN:* Venereal
- Benoso:** izond. Ikus 'zainetako'.
- Bentiko:** izond. Itsas hondotik urrun daitekeen arren itsas hondoa bizi dena; animalia edo landarea izan daiteke. *ES:* Béntico, bentónico *FR:* Benthique *EN:* Benthic *Arloa:* Biol
- Bentoniko:** izond. Ikus 'bentiko'.
- Bentrikular:** izond. Bentrikulu bati dagokiona. *ES:* Ventricular *FR:* Ventriculaire *EN:* Ventricular *Arloa:* Anat.
- Bentrikulu-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'bentrikular'.
- Bentrikulu:** iz. Organismoaren zenbait egituratako barrunbe txikia. *ES:* Ventrículo *FR:* Ventricule *EN:* Ventricle *Arloa:* Anat.
- Bentzeno:** iz. Hidrokarburo likidoa, pozoitsua, sukoia eta kolorgea. Petroliotik eta harrikatzaren mundrunetik ateratzen da. Disolbatzaile gisa erabiltzen da, gehienbat. Garrantzitsua da medikuntzan eta industria-toxikologian. Leukopenia, anemia eta purpura eragiten ditu luzaroan haren aritzeak. *ES:* Benceno *FR:* Benzène *EN:* Benzene *Arloa:* Kim.
- Bere kordean:** adlag. Ikus 'kontziente'.
- Bere lekutik irten:** ad. Ikus 'atera'. *ES:* Desencajar
- Berehalako:** izlag. Ikus 'fulminante'.
- Berezko:** izlag. Ikus 'espontaneo'.
- Beriberi:** iz. Nerbio-asaldu larria; polineuritis mota bat da. B1 bitaminaren gabeziak eragiten du. Ondoeza, takikardia, hipotentsioa, edemak, eta abar ditu ezaugarri. *ES:* Beriberi *FR:* Béribéri *EN:* Beriberi *Arloa:* Med.
- Bermiforme:** izond. Zizarearen itxura duena. *ES:* Vermiforme *FR:* Vermiforme *EN:* Vermiform
- Bermifugo:** izond. Zizare parasitarioak kanporatze-ko eta hiltzeko gai dena. *ES:* Vermífugo *FR:* Vermífuge *EN:* Vermifuge *Arloa:* Med.
- Bermizida:** izond. (Gai bati buruz) Hesteetako zizareak deuseztatzen dituena. *ES:* Vermicida *FR:* Vermicide *EN:* Vermicide *Arloa:* Med.
- Berna:** iz. Ikus 'zango'.
- Berna-gandor:** iz. Ikus 'bernazaki'.
- Bernazaki:** iz. Tibia hezuraren gangarra edo aurreko aldea. *ES:* Espinilla *FR:* Crête du tibia *EN:* Shir *Arloa:* Anat.
- Bero:** iz. Ezaugarri fisikoa; gorputz baten tenperaturaren igoera adierazten du. Gorputzeko prozesu metaboliko arruntetan nahiz ehunen hantura-  
ren ondorioz gertatzen da. *ES:* Calor *FR:* Chaleur *EN:* Heat
- Beroaldi:** iz. Aurpegira igotzen den bat-bateko bero-sentsazio iragankorra; gorritzearekin batera etortzen da, gehienetan. Nerbio-sistema autonomoak erregulatzen dituen asaldu basomotorren-gatik gertatzen dira beroaldiak. Obulutegien, hipotalamoaren eta hipofisiaren jarduera neurohormonala aldatzearen ondorioz gertatzen dira asaldu basomotor horiek. *ES:* Sofoco *FR:* Bouffée *EN:* Flush *Obarrak:* Menopausian edo haren ondoren jasaten dute emakume batzuek.
- Berotu:** ad. Bat-bateko berotasuna sentitu. *ES:* Sofocar
- Berpiztu:** izond. Hilik egon ondoren, berriz bizirik dagoena. *ES:* Redivivo *EN:* Revived, resuscitated
- Berraktibatze:** iz. Endekatutako jarduera biologiko bat osatzea; erreazio kimiko batez, beroa jarriz, edo birkonbinazio genetikorekin nahiz elementu laguntzaileen bidez egiten da. *ES:* Reactivación *FR:* Réactivation *EN:* Reactivation
- Berraktibazio:** iz. Ikus 'berraktibatze'.
- Berrezarpen:** iz. Dagokion lekutik kendua dagoen atal bat berriz ere bere lekuan ipintzea. *ES:* Reimplatación *FR:* Réimplantation *EN:* Reimplantation *Arloa:* Med.
- Berrezarri:** ad. Dagokion lekuan berriz ipini. *ES:* Reimplantar *FR:* Réimplanter *EN:* To implant again *Arloa:* Med.
- Berrezki:** ad. Ikus 'errehabilitatu'.
- Berrezte:** iz. Ikus 'errehabilitazio'.
- Berrikuste:** iz. Ikus 'azterketa'. *ES:* Revisión
- Berriz eritze:** iz. Ikus 'berriz gaixotze'.
- Berriz gaixotze:** iz. Erabat sendatu aurretik, gaixotasuna —bereziki infekziosoa— berriz itzultzea. *ES:* Recaída *FR:* Rechute *EN:* Relapse *Arloa:* Med.
- Berrogeialdi:** iz. Infekzio jakinak dituzten edo izan ditzaketen pertsonen ezartzen zaen bakartze-aldia. Gaixotasunaren hedapena ekiditeko egiten da. *ES:* Cuarentena *FR:* Quarantine *EN:* Quarantine
- Bertigo:** iz. Oreak-zentzumenaaren asaldua; haren ezaugarri dira egonkortasunik eza eta inguruko biraka dabilen sentsazioa. *ES:* Vértigo *FR:* Vertige *EN:* Vertigo, diziness
- Bertikal:** izond. Plano horizontalarekiko elkarzuta dena. *ES:* Vertical *FR:* Vertical *EN:* Vertical
- Berun:** iz. Pb. Elementu kimiko metalikoa. Astuna da, harikorra eta xaflakorra. Kolore gris-urdinxka du, eta oso biguna da. Toxikoak dira berunaren gatzak. Metal eran, X izpietatik babesteko erabiltzen da. *ES:* Plomo *FR:* Plomb *EN:* Lead *Arloa:* Kim.
- Besaburu:** iz. Ikus 'sorbalda'.
- Besagain:** iz. Ikus 'sorbalda'.
- Besahezur:** iz. Ikus 'humero'.

- Besape:** iz. Besoaren azpiko zokogunea; besoa eta sorbalda elkartzen diren gunearen azpian dagoen hobia da. *ES:* Axila *FR:* Aisselle *EN:* Axilla *Arloa:* Anat.
- Besapeko:** izlag. Besapeari dagokiona, edo besapean dagoena. *ES:* Axilar
- Besaurre:** iz. Ukondoaren eta eskumuturraren artean dagoen gorputz atala. *ES:* Antebrazo *FR:* Avant-bras *EN:* Forearm *Obarrak:* Bi hezur luze ditu; kubitoa eta erradioa. *Arloa:* Anat.
- Besikula:** 1. iz. Ikus 'baba'. 2. iz. Ikus 'xixku'.
- Besikular:** izond. Besikulei dagokiena. *ES:* Vesicular *FR:* Vésiculaire *EN:* Vesicular *Arloa:* Anat.
- Beso:** iz. Goiko gorputz-adar bakoitzaren zatia; sorbaldatik ukondoraino doa. *ES:* Brazo *FR:* Bras *EN:* Arm *Arloa:* Anat.
- Besobakar:** izond. Ikus 'besomotz'.
- Beso-euskarri:** iz. Mindutako gorputz atal bati eusteko balio duen benda edo zapia. *ES:* Cabestrillo *FR:* Écharpe *EN:* Sling
- Beso-uhala:** iz. Ikus 'beso-euskarri'.
- Besoko:** izlag. Besoari dagokiona, edo besoan dagoena. *ES:* Braquial *FR:* Brachial *EN:* Brachial
- Besomotz:** izond. Beso bat edo esku bat falta edo galdu duena. *ES:* Manco *FR:* Manchot *EN:* One-armed
- Bestibulu:** iz. Hodi baterako sarrera den barrunbea; baginako edo belarriko bestibulua, esate baterako. *ES:* Vestíbulo *FR:* Vestibule *EN:* Vestibule *Arloa:* Anat.
- Betadina:** iz. Ikus 'betadine'.
- Betadine:** iz. Pobidona iodatuz egindako prestakinen izen komertziala. Antiseptiko gisa erabiltzen da. Aerosol eran, garbiketa kirurgikorako disoluzio eran edo ukendu eran aurki daiteke. *ES:* Betadine *FR:* Betadine *EN:* Betadine
- Betazal:** iz. Begi-globoaren aurreko aldea estal dezaketen bi egituretako bakoitza; goikoa eta behekoa. Azalez, giharrez eta kartilagoz eratuak daude, eta mugikorak dira. Goikoa eta behekoa elkarrengana hurbiltzean, erabat estaltzen dute begi-globoa. *ES:* Párpado *FR:* Paupière *EN:* Eyelid
- Betazal-ertz:** iz. Betazalen alboko edo erdialdeko angelua. *ES:* Comisura de los párpados *FR:* Canthus *EN:* Canthus
- Betazpi:** iz. Begi-zuloa; begiaren azpian agertzen den ubeldua. *ES:* Ojera
- Betazpitsu:** izond. Betazpiak dituena. *ES:* Ojeroso *EN:* Haggard
- Bete:** ad. Janariz edo edariz aseta geratu. *ES:* Empachar
- Betekada:** iz. Janari- edo edari-asealdia. *ES:* Empacho *FR:* Indigestion *EN:* Indigestion
- Betekada arindu:** ad. Urdaileko betekada kendu. *ES:* Desempachar
- Betekada izan:** ad. Ikus 'bete'.
- Betikara:** iz. Ikus 'kliska'.
- Betile:** iz. Betazalen ertzetan lerro bikoitz edo hirukoitzetan dauden zilioetariko bakoitza. *ES:* Pestaña *FR:* Cil *EN:* Eyelash
- Betoker:** izond. Ikus 'begi-ok'er'.
- Betondo:** iz. Ikus 'bekain'. *ES:* Sobreceja
- Betortz:** iz. Ebakortzen eta aurreko haginaren arteko hortza. Lau izan ohi dira, matraileuz-albo bakoitzeko bana. Besteak baino kanporago egon ohi dira. *ES:* Canino, colmillo *FR:* Canine *EN:* Canine tooth
- Betsare:** iz. Ikus 'erretina'.
- Bi aldeko:** 1. izlag. Bi alde dituena. 2. izlag. Bi aldetan agertzen edo gertatzen dena. *ES:* Bilateral *FR:* Bilatéral *EN:* Bilateral
- Bi gingileko:** izlag. Ikus 'bilobulatu'.
- Bi polodun:** izond. Ikus 'bipolar'.
- Bibalente:** iz. Elementu edo konposatu kimikoa; balentzia 2 du. *ES:* Bivalente *FR:* Binaire *EN:* Binary *Arloa:* Kim.
- Bibiparo:** iz. Amaren barnean garatu eta karenean elikatzen den embrioa duen animalia. *ES:* Vivíparo *FR:* Vivipare *EN:* Viviparous *Adibideak:* Bibiparoak dira ugaztunak eta zenbait narrasti eta arrain. *Arloa:* Biol.
- Bibisekzio:** iz. Animalia bizietan egiten den praktika fisiologiko edo kirurgikoa; anestesiarekin zein anestesiarik gabe egin daiteke. Oro har, ikerketarako egiten da. *ES:* Vivisección *FR:* Vivisection *EN:* Vivisection *Arloa:* Biol.
- Bibitelino:** 1. izond. (Arrautza mota bati buruz) Bi nukleo dituena. 2. izond. Obulu banatik sortutako bikietako bakoitzari dagokiona; ondare genetikoa desberdina izango dute. *ES:* Bivitellino *FR:* Bivitellin *EN:* Bivitelline *Arloa:* Biol.
- Bide:** 1. iz. Gune, barrunbe edo hodi batera iristeko bitartekoa. 2. iz. Edozein igarobide; zintzurhestea, hestegorria, eta beste. *ES:* Vía *FR:* Voie *EN:* Path *Arloa:* Anat.
- Bideraezin:** 1. izond. Aurrera irteteko aukerarik ez duena; garatzeko eta bizitzeko gai ez dena. 2. izond. Jaio ondoren, bizirik irauteko ezintasuna duen fetuari dagokiona. *ES:* Invariable *EN:* Nonviable
- Bideragarri:** izond. Garatzeko, hazteko edota bizirik irauteko gai dena; haurdunaldiaren 28. astera iritsi den umekia, esate baterako. *ES:* Viable *FR:* Viable *EN:* Viable *Arloa:* Biol.
- Bidet:** iz. Bainuontzi berezia; itxura obalatu du. Uzki ingurua eta sexu-organoak garbitzeko erabiltzen da. *ES:* Bidet, bidé *FR:* Bidet *EN:* Bidet
- Bifido:** izond. Bi zatitan arraildua. *ES:* Bífido *FR:* Bifid *EN:* Bifide *Arloa:* Biol.
- Bigun:** izond. Ahula, beratza eta trinkotasun gutxikoa; tonu normala galdu duen giharra. *ES:* Flácido *FR:* Flaque *EN:* Flaccid

**Biguntasun:** 1. iz. Biguna denaren ezaugarria. 2. iz. Laxotasuna, gihar-ahultasuna, ahulezia. *ES:* Flacidez *FR:* Flaccidité *EN:* Flaccidity

**Bihotz-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'kardiako'.

**Bihotz:** iz. Kono-itxura duen giharra, ukabil itxiaren neurrikoa; odola gorputz osora ponpatzen du taupada bidez. Perikardioaz inguratutik, diafragmaren gainean eta biriken beheko ertzen artean dago bihotza, eta mediastinoaren erdigunea hartzen du. Hiru geruza ditu: perikardioa, miokardioa eta endokardioa. Lau barrunbe ditu: goian, ezker- eta eskuin-aurikulak, eta, behean, ezker-eta eskuin-bentrikuluak. Bihotzaren ezkerreko aldeak aorta arteriarantz ponpatzen du birikazainetatik datorren odol oxigenatua, gorputz guztira hedatzeko. Bihotzaren eskuineko aldeak, berriz, kaba zainetik jasotako odol ez-oxigenatua ponpatzen du birika-arteriarantz. *ES:* Corazón *FR:* Coeur *EN:* Heart *Arloa:* Anat.

**Bihotzaldi:** iz. Ikus 'bihozkada'.

**Bihotz-arnasetako:** izlag. Bihotzari eta arnas sistemari dagokiona. *ES:* Cardiorrespiratorio *FR:* Cardiorespiratoire *EN:* Cardiorespiratory

**Bihotz-biriketako:** izlag. Bihotzari eta birikei dagokiena. *ES:* Cardiopulmonar *FR:* Cardiopulmonaire *EN:* Cardiopulmonary

**Bihotz-bularretako:** izlag. Bihotzari eta bular-barrunbeari dagokiena. *ES:* Cardiorácico

**Bihotzeko:** izlag. Ikus 'kardiako'.

**Bihotzeko balbula:** iz. Irekiz eta itxiz odol-fluxua kontrolatzen duten bihotzeko egituretako bakoitza. Bi dira: balbula mitrala eta balbula trikuspidea. Balbulek norabide bakarrean uzten diote igarotzen odol-fluxuari. *ES:* Válvula del corazón *FR:* Valvule cardiaque *EN:* Heart valve

**Bihotzeko bentrikulu:** iz. Bihotzaren beheko bi barrunbeetako bakoitza. Odola jasotzen dute aurikuletatik. Biriketara bidaltzen du odola eskuineko bentrikuluak; ezkerrekoak, berriz, aorta arterian zehar, gorputz osora. *ES:* Ventrículo del corazón *FR:* Ventricule cardiaque *EN:* Ventricle of heart *Arloa:* Anat.

**Bihotzerre:** iz. Ikus 'pírosi'.

**Bihotz-gelditze:** iz. Gastu kardiakoaren eta zirkulazio eraginkorraren bat-bateko etena. Fibrilazio bentrikularren ondorioz gertatzen da eskuarki, baina asistolia bentrikularren edo disoziazio elektromekanikoaren ondoriozkoa ere izan daiteke. Bihotz-gelditzea gertatzen denean, gelditu egiten dira oxigenoaren sarrera eta karbono dioxidoaren kanporatzea, metabolismo zelularra anaerobio bihurtzen da, eta metabolismo- eta arnas azidosia gertatzen dira; konpondu ezean, heriotza eragiten dute. *ES:* Paro cardíaco *FR:* Arrêt cardiaque *EN:* Cardiac arrest *Arloa:* Med.

**Bihotz-giltzurrunetako:** izlag. Bihotzari eta giltzurrunei dagokiena. *ES:* Cardiorrenal *FR:* Cardio-rénale *EN:* Cardiorenal

**Bihotz-hodietako:** izlag. Ikus 'kardiobaskular'.

**Bihotz-taupada:** iz. Bihotzaren (eta arterien) uz-kurtze- eta zabaltze-higidurako indar txandakaturia. *ES:* Palpitación, latido *FR:* Battement *EN:* Beat

**Bihozkada:** iz. Bihotzak (metaforikoki) eragindako susmo, intuizio edota ekintza. *ES:* Pálpito, corazónada *EN:* Hunch, feeling

**Bihurdura:** iz. Zaintiraturia; lotailu, tendoi edota gihar batek berezkoa ez duen higiduraren bat egiten du, bere ardatzarekiko biratzean, bereziki. Lesioa gertatzen da, ondorioz. *ES:* Distorsión, torcedura *FR:* Torsion *EN:* Torsion *Arloa:* Med.

**Bihurgune:** iz. Zerbait okertu, tolestu edo bihurtzen den gunea. *ES:* Curvadura *FR:* Courbure *EN:* Curvature

**Bihurritu:** iz. Giltzadura bat inguratzen duten tendoi-tako, lotailuetako edo giharretako lesio traumatikoa; mina, hantura eta giltzaduraren gaineko azalaren zurbiltasuna ditu ezaugarri. Lotailuren baten edo inguruko gihar-zuntzen baten haustura eragin dezake. *ES:* Esguine *FR:* Foulure *EN:* Strain *Arloa:* Med.

**Bikarbonato:** iz. Azido karbonikotik datorren anioia. Azido karbonikoaren hidrogeno atomo bat base batez ordezkatzean lortzen da. *ES:* Bicarbonato *FR:* Bicarbonate *EN:* Bicarbonate *Arloa:* Kim.

**Biki:** iz. Haurdunaldi beretik jaioetako bi ondorengoetariko bakoitza. Obulu bakarretik edo obulutegiak aldi berean askatutako bi obulutatik (biak aldi berean ernalduak izanik) garatuak izan daitezke bi izakiak. *ES:* Gemelo *FR:* Jumeaux *EN:* Twins

**Biki bibitelino:** iz. Ikus 'biki dizigotiko'.

**Biki dizigotiko:** iz. Haurdunaldi bereko emaitza bikoitza; obulutegitik aldi berean askatutako bi obulu aldi berean ernaltzearen ondorioa da. Sexu berekoak edo sexu desberdinekoak izan daitezke bi izakiak, eta egitura fisiko eta genetiko bereziak dituzte. Berezita dituzte karenak eta mintzak (amniosa eta koriona). *ES:* Gemelo dicigótico, gemelo dizigótico *FR:* Jumeaux dizygotes *EN:* Dizygotic twins

**Biki monozigotiko:** iz. Haurdunaldi bereko bi ondorengo; obulu ernaldu bakarra garatzearen ondorio dira. Bi zati berdinetan banatzen da obulu ernaldua, eta bi fetu ematen ditu. Sexu berekoak dira beti biki horiek, eta egitura genetiko berbera, odol-talde bera eta antz izugarria dute elkarren artean, ezaugarri fisiko, psikologiko eta mentaletik dagokienez. Berdinak edo bereziak izan daitezke karenta eta mintzak, obulua bitan

- zaitu den garapen-unearen arabera. *ES*: Gemelo monocigótico *FR*: Jumeaux monozygotes *EN*: Monozygotic twins
- Biki siamdar**: iz. Fetu biki elkartuak, era berdintsuan garatuak eta obulu bakarraren emaitza direnak. Elkartuta dauden atalen arabera da asalduren larritasun maila: azalekoa (zilbor-hes-teko odol-hodiena) edo sakonagoa (buruarena edo bularrarena). *ES*: Gemelo siamés *FR*: Jumeaux siamois *EN*: Siamese twins
- Biki unibitelino**: iz. Ikus 'biki monozigotiko'.
- Bikoiztu**: ad. Bikoitz bihurtu. *ES*: Geminar *FR*: Germer *EN*: To germinate
- Biktima**: iz. Kalteren bat jasan duen pertsona; beste norbaiten erruz, edo zoriz. *ES*: Víctima *FR*: Victime *EN*: Victim
- Bikuspide**: izond. Bi gailur, tontor edota hortz dituen. Balbula bikuspidea da, adibidez, bihotzeko ezkerreko aurikularen eta bentrikularen arteko balbula mitrala. *ES*: Bicúspide *FR*: Bicuspide *EN*: Bicuspid *Arloa*: Anat.
- Bilgor-**: (Hitz elkartuetan) Ganztsua edo koipe-tsua; larruazaleko bilgor-guruinei edo haien jariakinei dagokie, gehienetan. *ES*: Sebáceo *FR*: Sébacé *EN*: Sebaceous *Arloa*: Biol.
- Bilgor**: iz. Bilgor-guruinek jariatzen duten materia horixka; guruinaren analogoak diren zelulaz, epitelio-zelulaz eta koipe tantaz eratua dago. *ES*: Sebo *FR*: Sébum *EN*: Sebum *Arloa*: Biol.
- Bilgor-guruin**: iz. Dermisean dauden egiturak, zaku-itxurakoak. Gorputz osoko larruazalean daude, baina ugariagoak dira buruko ile-larruan, aurpegian, ipurdian, sudurrean, eta kanpoko bellarrian. Guruin bakoitza hodi bakarrez osatua dago, eta albeolo obalatu talde batetik sortzen da hodia. *ES*: Glándula sebácea *FR*: Glande sébacée *EN*: Sebaceous gland
- Bilirrubina**: iz. Behazuneko pigmentu hori-laranja kolorekoa; hemoglobinarek degradazioaren ondorioz sortzen da. Eguneko 250 mg ekoizten dute pertsona osasuntsuek, eta gorozkiekin kanporatzen da gehiena. *ES*: Bilirrubina *FR*: Bilirubine *EN*: Bilirubin *Oharrak*: Odolean eta larruazaleko ehunetan bilirrubina pilatzean agertzen da ikteriziari dagokion zurbiltasun horixka. *Arloa*: Biol.
- Biliuria**: iz. Gernuan behazuna edo behazun-pigmentuak izatea ezaugarri duen asaldua. *ES*: Biliuria *FR*: Biliurie *EN*: Biliuria *Arloa*: Med.
- Bilo**: 1. iz. Bizarra edo bibotea hasi aurretik, gazteei goiko ezpainaren gainaldean sortzen zaien ilea. *ES*: Bozo 2. iz. Ikus 'ile'.
- Bilobulatu**: izond. Bi lobulu dituena. *ES*: Bilobulado, bilobular *FR*: Bilobulé *EN*: Bilobular *Arloa*: Biol.
- Bilotsu**: izond. Ikus 'iletsu'.
- Biluzgorritu**: ad. Arropa erabat kendu. *ES*: Desnudar
- Biluzi**: izond. Arroparik gabe dagoena. *ES*: Desnudo
- Binomial**: 1. izond. Bi izen edo termino dituena 2. izond. Nomenklatura binomiala: izaki bizidunak izendatzeko erabiltzen den nomenklatura-sistema. Latinezko edo talatinizaturiko bi hitz erabiltzen dira espezieak izendatzeko; bata generoari dagokio, eta, bestea, espeziari berari. *ES*: Binomial *FR*: Binomial *EN*: Binomial *Arloa*: Biol.
- Biodinamika**: iz. Fisiologiaren adarra; prozesu dinamikoek izaki bizidunengan duten eragina aztertzea du helburu. Adibidez, erradiazioek duten eragina. *ES*: Biodinámica *FR*: Biodynamique *EN*: Biodynamics *Arloa*: Biol.
- Bioelektrizitate**: iz. Ehun biziek —nerbioek eta giharrek, adibidez— sortzen duten korrante elektrikoa. *ES*: Bioelectricidad *EN*: Bioelectricity *Arloa*: Biol.
- Bioelementu**: iz. Elementu kimikoa, materia biziazen —animalia- edo landare-jatorrikoa— osaran parte hartzen dutenatariko edozein; ezinbestekoa da garapenerako. *ES*: Bioelemento *FR*: Bioélément *EN*: Bioelement *Arloa*: Biol.
- Bioenergetiko**: izond. Bioenergiari dagokiona. *ES*: Bioenergético *FR*: Bioénergétique *EN*: Bioenergetic *Arloa*: Biol.
- Bioenergia**: iz. Bizi-indarra edo energia. *ES*: Bioenergía *FR*: Bioénergie *EN*: Bioenergy *Arloa*: Biol.
- Biogenesi**: iz. Teoria biologikoa; haren arabera, organismo bizi orok beste organismo batean du jatorria. *ES*: Biogénesis *FR*: Biogenèse *EN*: Biogenesis *Arloa*: Biol.
- Biogenesiko**: izond. Biogenesiari dagokiona. *ES*: Biogénésico *Arloa*: Biol.
- Biogeografia**: iz. Faktore-azterketa; animalien, landareen eta gizakien alderdi geografikoaren banaketa eta haien espazio-banaketa azaltzen dute faktore horiek. *ES*: Biogeografía *FR*: Biogéographie *EN*: Biogeography *Arloa*: Biol.
- Bioingeniaritza**: iz. Ingenieritza-teknologia; medikuntzako arazoetarako erabiltzen da. *ES*: Bioingeniería *FR*: Bio-ingénierie *EN*: Bio-engineering
- Biokimika**: iz. Izaki bizidunen eta bizi-prozesuen kimika; kimika biologikoa. Izaki bizidunen osagai kimikoen sintesiaz, aldaketaz eta metabolismoaz arduratzen da. *ES*: Bioquímica *FR*: Biochimie *EN*: Biochemistry
- Biokimikari**: iz. Biokimikan aditua dena. *ES*: Bioquímico *FR*: Biochimiste *EN*: Biochemist
- Biokimiko**: izond. Biokimikari dagokiona. *ES*: Bioquímico



**Bioklima:** iz. Klima mota; biziaren garapenerako eskaintzen dituen baldintzak dira haren bereizgarri nagusia. *ES:* Bioclima *Arloa:* Biol.

**Bioklimatiko:** izond. Bioklimatologiari dagokiona. *ES:* Bioclimático *FR:* Bioclimatique *EN:* Bioclimatic *Arloa:* Biol.

**Bioklimatologia:** iz. Biologiaren adarra; klimaren eta izaki bizidunen arteko harremanak eta ekin-tzak aztertzen ditu. *ES:* Bioclimatología *FR:* Bioclimatologie *EN:* Bioclimatology *Arloa:* Biol.

**Biologia:** iz. Bizia, oro har, aztertzen duen zientzia; izaki bizidunek elkarrekin eta ingurumenarekin dituzten harremanak, eta izaki horien egitura, funtzioak eta sailkapenak aztertzen ditu. *ES:* Biología *FR:* Biologie *EN:* Biology

**Biologiko:** izond. Biologiari dagokiona. *ES:* Biológico *FR:* Biologique *EN:* Biological *Oharrak:* Gai biologikoak: organismo biziak nahiz haien eratorriekin egindako edozein prestakin; gai diagnostiko, prebentibo edo terapeutiko gisa erabiltzen dira; prestakin horietariko batzuk dira: antigenoak, antitoxinak, seruma eta txertoak.

**Biologo:** iz. Biologian aditua; bizitzaren zientzia aztertzen duen pertsona. *ES:* Biólogo *FR:* Biologiste *EN:* Biologist

**Biolumineszentzia:** iz. Zelula bizi batzuen ezaugarria. Gorputz-tenperatura igo gabe argia ekoiztean datza; zenbait bizidunetan gertatzen diren erreakzio entzimatikoen ondoriozkoa izaten da hori. *ES:* Bioluminiscencia *FR:* Bioluminescence *EN:* Bioluminescence *Arloa:* Biol.

**Biomagnetismo:** iz. Izaki bizidunek eremu magnetikoekin duten erreaktibotasuna eta sentikortasuna. *ES:* Biomagnetismo *FR:* Biomagnétisme *EN:* Biomagnetism *Arloa:* Biol.

**Biometria:** iz. Biologiaren adarra; metodo estatistikoak erabiltzen ditu izaki bizidunen eta prozesu organikoek azterketarako. *ES:* Biometría *FR:* Biométrie *EN:* Biometrics *Arloa:* Biol.

**Biomolekula:** iz. Ehun bizien eraketan parte hartzen duen molekula. *ES:* Biomolécula *FR:* Biomolécule *EN:* Biomolecule

**Bionika:** iz. Arazo teknikoak konpontzeko biologia-ezagutzak erabiltzen dituen jakintza. *ES:* Biónica *FR:* Bionique *EN:* Bionics *Arloa:* Biol.

**Biopsia:** 1. iz. Organo bateko nahiz gorputzeko beste edozein ataletako ehun zati baten erauzketak. Hainbat helburu ditu: mikroskopioz aztertzea, diagnostiko bat zehaztea, gaixotasun baten garapena jarraitzea, eta abar. 2. iz. Aztertzeko erazuten den ehun zatia. *ES:* Biopsia *FR:* Biopsie *EN:* Biopsy *Arloa:* Med.

**Biorritmo:** iz. Animalietan zein landareetan aldizka gertatzen den fenomenoa. Bi biorritmo mota bereizi daitezke: endogenoak (bihotzarena, hilekoa, loa, eta abar) eta exogenoak (jatorria ingu-

rumenean dutenak). *ES:* Biorritmo *FR:* Biorythme *EN:* Biorythme *Arloa:* Biol.

**Biosintesi:** iz. Molekula organikoek sorrera, izaki bizidun baten barnean; organismoen zelulak eratzen dituzte molekula horiek. Energiari eta hainbat entzimari eta koentzimari esker izaten du izakiak biosintesirako gaitasuna. Metabolismoaren oinarritzko prozesuetako bat da. *ES:* Biosíntesis *FR:* Biosynthèse *EN:* Biosynthesis *Arloa:* Biokim.

**Biota:** iz. Gune jakin batean bizi diren izaki bizidunen multzoa. *ES:* Biota *FR:* Biote *EN:* Biota *Arloa:* Biol.

**Bioteknologia:** iz. Biologia-ikerketetako emaitzen erabilera industrialak. *ES:* Biotecnología *FR:* Biotechnologie *EN:* Biotechnology

**Bioteknologiko:** izond. Bioteknologiari dagokiona. *ES:* Biotecnológico

**Bioterapia:** iz. Metodo terapeutikoa; gai organikoak eta hazkuntza biziak sendagai modura erabiltzean datza. *ES:* Bioterapia *EN:* Biotherapy *Arloa:* Med.

**Biotina:** iz. B taldeko bitamina kologe, kristalino eta hidrosolublea. Koentzima gisa jokatzeko gantz-azidoen sintesian, eta karbohidratoen eta gantz-azidoen oxidazioan. *ES:* Biotina *FR:* Biotine *EN:* Biotin *Arloa:* Biokim.

**Biotipo:** iz. Espezie bereko banakoen multzoa; ondare genetiko bera dute. *ES:* Biotipo *FR:* Biotype *EN:* Biotype *Arloa:* Biol.

**Biotopo:** iz. Ekosistemako zati bizigabea; biozenosiaren kokalekua da, eta ingurumen-baldintza uniformeak ditu. *ES:* Biotopo *FR:* Biotope *EN:* Biotope *Arloa:* Biol.

**Biparietal:** izond. Buruko bi hezur parietalei dagokiena. *ES:* Biparietal *FR:* Bipariétal *EN:* Biparietal

**Biparo:** izond. (Ugaztun emeei buruz) Erditze berean bi ume izan dituenak. *ES:* Bíparo *Arloa:* Biol.

**Bipolar:** izond. (Nerbio-zelulei buruz) Bi luzakin dituenak; ondorioz, sistema aferente eta eferente bana ditu. *ES:* Bipolar *FR:* Bipolaire *EN:* Bipolar

**Biral:** 1. izond. Birusari dagokiona. 2. izond. Birusak eragindakoa. *ES:* Viral, vírico *FR:* Viral *EN:* Viral

**Birika:** iz. Toraxeko bi organo arin eta hanpatueta-riko bakoitza; arnas sistemako organo nagusia da. Oxigenoa hartzen du arnastutako airetik, odol arterialaren sistemara igaro, eta zain-sistematik hartutako karbono dioxidoa kanporatzen du. Ezkerrekoa baino handiagoa da eskuineko birika, eta hiru lobulutan banatua dago; ezkerrekoak, aldiz, bi lobulu ditu. *ES:* Pulmón *FR:* Poumon *EN:* Lung *Arloa:* Anat.

**Biriketako:** izlag. Arnas sistemari edo birikei dagokiena, edo haietan dagoena. *ES:* Pulmonar *FR:* Pulmonaire *EN:* Pulmonary, pulmonic



- Biriko:** izond. Ikus 'biral'.
- Birjarpen:** iz. Ikus 'berrezarpen'.
- Birjarri:** ad. Ikus 'berrezarri'.
- Birologia:** iz. Mikrobiologiaren adarra; birusak eta haiek eragindako gaixotasunak aztertzen ditu. *ES:* Virología *FR:* Virologie *EN:* Virology *Arloa:* Biol.
- Birologo:** iz. Birologian aditua den pertsona; birusak eta haiek eragindako gaixotasunak aztertzen ditu. *ES:* Virólogo *FR:* Virologiste *EN:* Virologist *Arloa:* Biol.
- Birosi:** iz. Birusek eragindako gaixotasun oro. *ES:* Virosis *FR:* Virose *EN:* Virosis *Arloa:* Med.
- Birrintu:** 1. ad. Gai solido bat eho edo txikitu, gutziz hauts bihurtu gabe. 2. ad. Ikus 'haustu'.
- Birrintze:** iz. Ikus 'xehatze'.
- Birsortze:** iz. Zelula, ehun edota organo galduek nahiz lesionatuak ordezkatzeko, berriz sortzeko edo konpontzeko prozesua. *ES:* Regeneración *FR:* Régénération *EN:* Regeneration *Arloa:* Biol.
- Birulento:** izond. (Gaixotasunei buruz) Oso patogenoa, edota azkar garatzen dena. *ES:* Virulento *FR:* Virulent *EN:* Virulent *Arloa:* Med.
- Birulentzia:** iz. Mikroorganismo batek gaixotasun bat eragiteko duen ahalmena. *ES:* Virulencia *FR:* Virulence *EN:* Virulence *Arloa:* Med.
- Birus-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'biral'.
- Birus:** iz. Organismo mikroskopikoa, zelularra ez dena. Gaixotasun-iturri dira birusak animalientzat eta landareentzat. Zelula barneko bizkarroiak dira; infektatzen duten zelularen metabolismitik lortzen dute behar duten energia. Beren kabuz ugaltu ezin direnez, kode genetikoa ematen dute birusek, eta zelula ostalariari hartzen dizkiote ugaltzeko behar duten energia eta oinarritzko materialak. ADN zein RNA azido nukleikoa izan ditzakete. *ES:* Virus *FR:* Virus *EN:* Virus
- Birusen kontrako:** izlag. (Gai bati buruz) Birusei aurre egiten diena. *ES:* Antiviral, antivírus, antivírico *FR:* Antiviral, antivirus *EN:* Antiviral, antiviral *Arloa:* Med.
- Bisexual:** 1. izond. Bi sexuen ezaugarri fisiko edo psikologikoak dituena. 2. izond. Bi sexuek erakartzen dutena. *ES:* Bisexual *FR:* Bisexuel, bisexual *EN:* Bisexual
- Bisexualitate:** 1. iz. Izaki berarengan bi sexuen ezaugarriak izatearen fenomenoa. 2. iz. Bi sexuekiko sexu-zaletasuna. *ES:* Bisexualidad *FR:* Bisexualité *EN:* Bisexuality
- Bisexualtu:** izond. Hermafrodita; ugal-organo arrak eta emeak batera dituena. *ES:* Bisexualdo *Arloa:* Biol.
- Bismuto:** iz. Bi. Elementu kimikoa; metal distiratsua, zuri-gorrixka, oso hauskorra. Egoera metalikoan, hainbat aleaziotan erabiltzen da. Asko erabili izan dira haren gatzak medikuntzan; urdaileko eta hesteetako hantura-arazotetan, batez ere. Antibiotikoak erabiltzearen ondorioz, asko urritu da bismutoaren erabilera terapeutikoa. *ES:* Bismuto *FR:* Bismuth *EN:* Bismuth *Arloa:* Kim.
- Bisturi:** iz. Kirurgia-tresna; luzea, estua eta zorrotza izan ohi da. Gorputzeko ehunak ebakitzeko erabiltzen da. *ES:* Bisturí *FR:* Bistouri *EN:* Bistoury *Arloa:* Med.
- Bitamina-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'bitaminiko'.
- Bitamina:** iz. Konposatu organikoa; ezinbestekoa da organismoaren funtzio metabolikoetarako eta fisiologikoetarako. Ez dago bitamina guztiak dituen elikagairik. *ES:* Vitamina *FR:* Vitamine *EN:* Vitamin *Arloa:* Biokim.
- Bitaminadun:** izond. Bitaminak dituena. *ES:* Vitaminado *FR:* Vitaminé *EN:* Vitamin-enriched, vitaminized
- Bitamina-konplexu:** iz. Bitamina hidrosolubleen multzoa; hainbat egitura eta eragin biologiko dituzte. Ugariak dira B bitamina guztiak gibelean eta legamietan, eta bakarka edo konbinaturik agertzen dira hainbat elikagaitan. *ES:* Complejo vitamínico (B) *EN:* Vitamin B complex
- Bitaminiko:** izond. Bitamini dagokiena. *ES:* Vitamínico *EN:* Vitamin
- Bitiligo:** iz. Larruazaleko gaixotasuna; hartutakoa eta onbera da, eta jatorri ezezaguna du. Haren ezaugarri dira hainbat neurritako gunerregularrak, pigmenturik gabeak. Sarritan, hiperpigmentatuak izaten dira guner horien ertzak. Gaixotasunak gehien erasaten dien gunerak agerian egon ohi dira. *ES:* Vitiligo *FR:* Vitiligo *EN:* Vitiligo *Arloa:* Med.
- Bitxi:** izond. Ikus 'arraro'.
- Bixika:** iz. Epidermiseko eta, kasu bakanetan, dermiseko irtengune txiki eta ongi mugatua, barruan zornez bete. *ES:* Buba *FR:* Pustule *EN:* Pustule *Arloa:* Med.
- Bizelular:** izond. Bi zelulaz osatua dagoena. *ES:* Bicelular
- Bizeps:** iz. Gihar luze fusiformea; besoan eta izterrean dago. Bi buru eta bi zurda aske ditu bakoitzak. Besahezurraren aurreko aldean dago besoko bizepsa, eta eskapulan du sorrera. Besoa eta besaurrea tolestean ditu. Izterreko bizepsa, berriz, izterrearen atzeko aldean dago. Haren bi buruetatik datozen zuntzek bat egiten dute zurda batean; zurda peronearen alboaldean xertatzen da, eta hortik, zenbait zuntzen bidez, tibiaren alboaldeko irtengunean. Zangoa tolestu eta kanporantz birarazten du gihar horrek; gauza bera egiten du izterrean. *ES:* Bíceps *FR:* Biceps *EN:* Biceps
- Bizi-:** (Hitz elkartuetan) Biziri dagokiona. *ES:* Vital *FR:* Vital *EN:* Vital

**Bizi:** 1. iz. Jaiotzatik heriotzara doan denbora-tartea. 2. iz. Energia; organismoak haztea, ugaltzea, elikagaiak xurgatzea eta erabiltzea, eta zenbait organismo mugitzea eta borondatezko kontrola izatea ahalbidetzen du. *ES:* Vida *FR:* Vie *EN:* Life 3. izond. Bizia duena. *ES:* Vivo *FR:* Vivant *EN:* Living

**Bizi:** ad. Bizirik iraun. *ES:* Vivir *FR:* Vivre *EN:* To live

**Bizialdi:** iz. Ikus 'bizi'. *ES:* Vida

**Bizidun:** izond. Bizirik dagoena. *ES:* Viviente, vivo *FR:* Vivant *EN:* Living

**Bizigabe:** izond. Ikus 'inerte'.

**Bizigai:** iz. Bizia mantentzeko ezinbesteko gaia. *ES:* Sustento *FR:* Sustentation *EN:* Sustenance

**Bizigarri:** 1. izond. Gorputz-sistema baten jardue-  
ra-eritmoa handitzen duena. *ES:* Estimulante  
*FR:* Stimulant *EN:* Stimulant *Adibideak:* Kafea da bizigarri erabilienetakoa. 2. izond. Ikus 'sus-  
pergarri'. *ES:* Reconstituyente

**Biziirauen:** iz. Bizirik jarraitzea, beste baten edo batzuen heriotzaren nahiz gertaera jakin baten ondoren. *ES:* Supervivencia *FR:* Survie *EN:* Survival

**Bizi-zeagarriak:** iz. Ikus 'bizi-konstanteak'.

**Bizi-konstanteak:** iz. Organismoaren egoerari buruzko datu multzoa. Muga jakin batzuen barruan mantendu behar dira, baldintza normalean bizitzen jarraitu ahal izateko. *ES:* Constantes vitales *FR:* Constantes vitales *EN:* Vital signs *Arloa:* Med.

**Bizio:** iz. Ikus 'heste-zizare'.

**Bizirik atera:** ad. Ikus 'salbatu'.

**Bizirik iraute:** iz. Ikus 'biziirauen'.

**Bizitasun:** iz. Ikus 'arintasun'.

**Bizitu:** ad. Zerbaitek bizitasuna hartu edo eman. *ES:* Estimular *FR:* Doper *EN:* To stimulate

**Bizitza:** iz. Ikus 'bizi'. *ES:* Vida

**Bizitza begetatibo:** iz. Fenomeno automatikoen multzoa; beharrezkoak dira biziari eusteko eta espezieen iraupena ziurtatzeko. *ES:* Vida vegetativa *FR:* Vie végétative *EN:* Vegetative life

**Bizkar:** iz. Gorputz-enborraren atzeko aldea, lepoaren eta gerriaren artean dagoena. *ES:* Espalda *FR:* Dos *EN:* Back *Arloa:* Anat.

**Bizkarralde:** iz. Gorputz-enborraren atzeko aldea, azken lepo-ornotik azken gerri-ornorainokoa. *ES:* Dorso *FR:* Dos *EN:* Dorsum *Arloa:* Anat.

**Bizkarraldeko:** izlag. Ikus 'dortsal'.

**Bizkarrezur:** iz. Egitura malgua, hezurduraren luzera-ardatza eratzen duena. 33 edo 34 ornoz osatuta dago: lepoaldekoak, 7; bizkarraldekoak, 12; gerrialdekoak, 5; eta pelbisekoak, 9 edo 10. Ornoarteko diskoz elkartuak daude ornoak. Hainbat gihar txertatzen dira bizkarrezurrean; indarra eta malgutasuna ematen dio horrek bizkarrezu-

rrari. Bizkarrezur-hodia igarotzen da bizkarrezurretik, eta bizkarrezur-muina bildu eta babes-  
ten du. *ES:* Columna vertebral *FR:* Colonne ver-  
tébrale *EN:* Vertebral column *Arloa:* Anat.

**Bizkarrezur-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'bizkarrezu-  
rreko'.

**Bizkarrezur-errabola:** iz. Entzefaloaren zatia; biz-  
karrezur-muinaren dilatazio-itxuran ageri da, zulo okzipitalaren gainean. Arnasketa eta bihotz-  
taupadak kontrolatzen ditu. Hilgarriak gertatzen  
dira gunehorretako lesioak edo gaixotasunak.  
*ES:* Bulbo raquídeo

**Bizkarrezur-muin:** iz. Nerbio-sistemaren osagaia; orno-  
hodian dago, eta zulo okzipitaleatik bigarren  
gerri-ornoraino iristen da. Zilindrikoa da, eta  
meningeek inguratzen dute. Gai zurizko kordoi-  
seriez osatuta dago; horiek inguratzen dute erdi-  
guneko gai grisa. *ES:* Médula espinal *FR:* Moelle  
épineière *EN:* Spinal cord

**Bizkarrezurreko:** izlag. Bizkarrezurrari dagokiona,  
edo bizkarrezurrean dagoena. *ES:* Raquídeo, espinal  
*FR:* Rachidien *EN:* Rachidian, radidian *Ar-  
loa:* Anat.

**Bizkarroi-:** 1. (Hitz elkartuetan) Bizkarroiei dago-  
kiena. 2. (Hitz elkartuetan) Bizkarroiek eragin-  
dako gaixotasuna. *ES:* Parasitario *FR:* Parasitaire  
*EN:* Parasitic *Arloa:* Biol.

**Bizkarroi:** iz. Beste organismo baten barruan edo  
gainean bizi den organismoa, eta haren kontura  
elikatzen dena. *ES:* Parásito *FR:* Parasite *EN:* Pa-  
rasite *Arloa:* Biol.

**Bizkarroien kontrako:** izlag. Ikus 'antiparasitario'.

**Bizkorgarri:** 1. izond. Ikus 'bizigarri'. *ES:* Estimula-  
nte 2. izond. Ikus 'suspergarri'. *ES:* Reconstitu-  
yente

**Bizkortasun:** 1. iz. Ikus 'arintasun'.

**Bizkortu:** 1. ad. Ikus 'bizitu'. *ES:* Estimular 2. ad.  
Ikus 'indarberritu'. *ES:* Reconfortar, reconstituir,  
recuperar

**Bizkortzaile:** izond. Ikus 'bizigarri'. *ES:* Estimula-  
dor

**Bizkortze:** iz. Ikus 'indarberritze'.

**Blastodermo:** iz. Umekia biltzen duen mintza; ze-  
lulak eta blastomeroak geruzetan pilatzean sor-  
tzen da. Hiru geruza osatzen dira: ektodermoa,  
endodermoa eta mesodermoa. *ES:* Blastodermo  
*FR:* Blastoderme *EN:* Blastoderm *Arloa:* Biol.

**Blastomero:** iz. Obulu ernalduren nukleoa zati-  
tzean banaketa mitotikoa gertatzen delarik, han  
garatzen diren bi zeluletariko bakoitza. Bi blasto-  
meroek zatitzen jarraitzen dute, haurdunaldiko  
lehen egunetan morula osatzeko. *ES:* Blastómero  
*FR:* Blastomère *EN:* Blastomere *Arloa:* Biol.

**Blastomize:** iz. Ikus 'blastomyces'.

**Blastomyces:** iz. Onddo mikroskopikoen generoa;  
blastomikosia eragiten duten zenbait espezie bil-

- tzen ditu genero horrek. *ES: Blastomyces Arloa: Biol.*
- Blastula:** iz. Enbrioi-garapenaren aldia, segmentazioaren bukaerakoa; barrunbe bat eratzen duten zelulaz osatua dago enbrioia aldi horretan. *ES: Blástula FR: Blastula EN: Blastula Arloa: Biol.*
- Blefaritis:** iz. Betazaletako Meibomioren guruinen eta betileen folikuluen hantura; hantura, gorritasuna eta muki lehorrezko zoldak ditu ezaugarri. *ES: Blefaritis FR: Blépharite EN: Blepharitis Arloa: Med.*
- Blenofalmia:** iz. Konjuntibitis zornetsua, katarroaren ondorioz sortzen dena. *ES: Blenofalmía Arloa: Med.*
- Blenorragia:** iz. Mukosa genitalaren hantura kutsagarria; koitoaren ondorioz kutsatzen da, gehienbat. *Neisseria gonorrhoeae* bakterioa da blenorragiaren eragile nagusia, eta mina, erretasun-sentsazioa eta muki-jario zornetsua dira haren ezaugarri nagusiak. Erabat senda daiteke, edo kroniko bihurtu. *ES: Blenorragia FR: Blennorrhagie EN: Blennorrhagia Arloa: Med.*
- Blenorrea:** iz. Uretrari edo baginari darion fluxu blenorragiko kronikoa; gonorrea kronikoa. *ES: Blenorrea FR: Blennorrhée EN: Blennorrhoea Arloa: Med.*
- Bolo:** 1. iz. Ore bigun eta mamitsua; elikagaiak txikitu eta xehetu ondoren sortzen da. 2. iz. Farmakologian, ohikoa baino handiagoa den pilula. 3. iz. Zirkulazio-sisteman kolpetik xiringaturiko sendagai edo kontrastea. *ES: Bolo FR: Bol EN: Bolus*
- Boluetria:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'boluetriko'.
- Boluetria:** iz. Analisi kimiko kuantitatiboan erabilitako teknika. Harekin erreakzionatu duen beste disoluzio baten kontzentrazioa eza-gutzeko aukera ematen du, kontzentrazio jakina duen disoluzio baten bolumenta neurtuz. *ES: Volumetría FR: Volumétrie EN: Volumetry Arloa: Kim.*
- Boluetriko:** izond. Bolumenak neurtzeari eta zehazteari dagokiona. *ES: Volumétrico FR: Volumétrique EN: Volumetric Arloa: Kim.*
- Bomer hezur:** iz. Hezur bakoitia; sudur-trenkadaren atze-behealdea osatzen du, eta sudurreko bi zuloak bereizten ditu. Bi aurpegi eta lau ertz ditu. *ES: Hueso vómer FR: Vomer EN: Vomer Arloa: Anat.*
- Boro:** iz. B. Elementu ez-metalikoa, aluminioaren antzekoa. Boro elementala kristal horixka-marroi gisa edo hauts amorfo berdexka-marroi gisa agertzen da. Boroaren zenbait kontzentrazio toxikoak dira landareentzat eta animalientzat, baina landareek ezinbestekoa dute boro kantitate bat hazkuntzarako. Azido borikoaren osagai be-reizgarria da, eta hauts eta ukendu eran erabil-tzen da nagusiki, larruzaleko asaldu arinen tra-tamenduan. *ES: Boro FR: Bore EN: Boron Ar-loa: Kim.*
- Bortizela:** iz. Protozoo ziliodunen generoa. Ur gazi edo gezatan bizi dira. *ES: Vorticela FR: Vorticelle EN: Vorticella Arloa: Biol.*
- Bota:** ad. Ikus 'kanporatu'.
- Botagale:** iz. Ikus 'goragale'.
- Botagura:** iz. Ikus 'goragale'.
- Botaka egin:** ad. Ikus 'oka egin'.
- Botika:** 1. (Hitz elkartuetan) Botikari dagokiona.
- Botika:** 1. iz. Ikus 'farmazia'. 2. iz. Ikus 'sendagai'.
- Botikak eman:** ad. Ikus 'medikatu'.
- Botikak hartu:** ad. Ikus 'medikatu'.
- Botika-ontzi:** 1. iz. Oinarrizko sendagaiak gorde-tzeko eta beharrezko lekuetara eramateko erabil-tzen den kutxa. *ES: Botiquín FR: Pharmacie de secours EN: First-aid kit*
- Botikari:** iz. Ikus 'farmazeutiko'.
- Botulismo:** iz. Elikadura-intoxikazioa, *Clostridium botulinum* baziloaren endotoxina batek eragina. Hilgarria izaten da, sarritan. *C. botulinum*-ek kutsaturiko elikagaien bidez barneratzen da toxi-na organismoan. Zenbaitetan, mikroorganismoak kutsaturiko zauri baten bidez barnera daiteke. Urdaileko ondoezik gabe garatzen da botulis-moa, eta kutsaturiko elikagaia hartu eta astebete-ra ager daiteke. Haren ezaugarri dira nekea eta ikusmen-asalduak. Giharretako ahulezia ere ager daiteke, disfagiarekin batera. Arnas gutxiegitasu-na eragiten du ahulezia horrek, eta, ondorioz, heriotza gerta daiteke. *ES: Botulismo FR: Botu-lisme EN: Botulism Arloa: Med.*
- Bozio:** iz. Tiroide-guruinaren hipertrofia; lepoko hantura du ezaugarri, gehienetan. Kistikoa zein haritsua izan daiteke bozioa, eta noduluak nahiz folikulu ugari izan ditzake bere baitan. Gaixota-sun endemikoa da zenbait lurralde menditsutan, eta kretinismoa deritzon hipotiroidismo-egoerare-kin batera azaltzen da sarritan. *ES: Bocio FR: Goitre EN: Goiter Arloa: Med.*
- Bradikardia:** iz. Zirkulazio-asaldua; miokardioa era erregularrean ukurtzen da, baina minutuko 60 taupadaz azpiko maiztasunarekin. Gastu kar-diakoa jaitzaraz dezake bradikardiak. Sintomati-koa edo asintomatikoa izan daiteke. *ES: Bradicardia FR: Bradycardie EN: Bradycardia Arloa: Med.*
- Brakial:** izond. Ikus 'besoko'.
- Brankial:** izond. Giza enbrioiaren lepo-alboetan dauden arraildurei dagokiena; sudurraren, bela-rrien eta ahoaren garapenean parte hartzen du. *ES: Branquial Arloa: Anat.*
- Braun-en ferula:** iz. Metalezko tresna; traxiorako erabiltzen da. Polea bat edo gehiago izaten ditu

- muturrean, tibian edo femurrean eragin zuzena izateko. *ES:* Férula de Braun (Böhler-Braun)
- Broca-ren gune:** iz. Hizkuntzaren gunea; burmuinaren ezker-hemisferioan dago. *ES:* Broca, área de *FR:* Aire de Broca *EN:* Broca's center
- Bromo:** iz. Br. Elementu kimiko ez-metalikoa, halogenoen taldekoa, likidoa, eta kolore gorrikoa. Lasaigarri, analgesiko eta hipnotiko gisa erabiltzen dira haren konposaturik gehienak. Bromoz asetutako ur-disoluzioa desinfektagarri gisa erabili izan da. Kalteak eragiten ditu ehun organikoetan. *ES:* Bromo *FR:* Brome *EN:* Bromine *Arloa:* Kim.
- Bromuro:** iz. Azido bromhidrikoaren gatzen izen orokorra; bromoa da haietan elementu negatiboa. Garai batean lasaigarri gisa erabiltzen zen arren, gaur egun ez da horretarako erabiltzen. *ES:* Bromuro *FR:* Bromure *EN:* Bromide *Arloa:* Kim.
- Bronkial:** izond. Bronkiei dagokiena. *ES:* Bronquial *FR:* Bronchique *EN:* Bronchial
- Bronkiektasia:** iz. Bronkio bat edo gehiago zatika zabaltzea ezaugarri duen asaldua; sortzetikoa zein bronkiearen beraren hantura kronikoaren ondorioz hartutakoa izan daiteke. *ES:* Bronquiectasia *FR:* Bronchectasie *EN:* Bronchiectasis *Arloa:* Med.
- Bronkio eta zintzur-hesteko:** izlag. Bronkiei eta zintzur-hesteari dagokiena. *ES:* Broncotraqueal *FR:* Trachéale et bronchique *EN:* Bronchotracheal *Arloa:* Anat.
- Bronkio:** iz. Biriketara iristen den hodi luzeetarikoa bakoitza. Bronkioetatik igarotzen dira arnastutako airea eta hondakin-gasak. Hiru geruzaz osaturiko horma bana dute bronkio guztiek: ehun zuntztsu lodiz eratua eta kartilagoz indartua dago kanpoko geruza; gihar lisozko sare bat da erdiko geruza; eta muki-mintz ziliodunak osatzen du barnekoa. *ES:* Bronquio *FR:* Bronche *EN:* Bronchus *Arloa:* Anat.
- Bronkio eta biriketako:** izlag. Ikus 'bronkio-biriketako'.
- Bronkio-biriketako:** izlag. Bronkiei eta birikei dagokiena. *ES:* Broncopulmonar *FR:* Bronchopulmonaire *EN:* Bronchopulmonary
- Bronkiolitis:** iz. Beheko arnabideetako infekzio larria; 18 hilabete baino gutxiagoko haurrengan gertatzen da, batez ere. Arnasa hartzeko arazoak, eta bronkioloen hantura eta buxadura ditu ezaugarri nagusiak. *ES:* Bronquiolitis *FR:* Bronchiolite *EN:* Bronchiolitis *Arloa:* Med.
- Bronkiolo:** iz. Arnas sistemako arnas hodi txikia; bronkioetatik biriketako lobuluaren barnealderaino doaz bronkioloak. Bi bronkiolo mota daude: arnas bronkioloak eta bukaerako bronkioloak. *ES:* Bronquiolo *FR:* Bronchiole *EN:* Bronchiole *Arloa:* Anat.
- Bronkio-zabaltzaile:** izond. (Gai bati buruz) Bronkioloetako gihar lisoa erlaxatzen duena. Gihar lisoa erlaxatuz, hobetu egiten du biriketako aireztapena. oso erabiliak dira asmaren, bronkitisaren, bronkiektasiaren eta enfisemaren tratamenduan, aireztapena hobetzeko. *ES:* Broncodilatador *FR:* Bronchodilatateur *EN:* Bronchodilator *Arloa:* Med.
- Bronkitis:** iz. Bronkieen hantura. Lehen mailakoa, bigarren mailakoa, akutua edota kronikoa izan daiteke. *ES:* Bronquitis *FR:* Bronchite *EN:* Bronchitis *Arloa:* Med.
- Bronkoadenitis:** iz. Bronkio-gongoilen hantura. *ES:* Broncoadenitis *Arloa:* Med.
- Bronkoespirometro:** iz. Birika baten ahalmena neurtzen duen tresna. *ES:* Broncoespirómetro *FR:* Bronchospirómetro *EN:* Bronchospirometer *Arloa:* Med.
- Bronkoestenosi:** iz. Bronkio baten estugunea. *ES:* Broncoestenosis *FR:* Bronchosténose *EN:* Bronchostenosis *Arloa:* Med.
- Bronkofonia:** iz. Bronkioetako ahotsaren oihartzuna; auskultazioz entzuten da. Birika-ehunaren dentsitatea gehitzearen ondorio izan daiteke. *ES:* Broncofonía *FR:* Bronchophonie *EN:* Bronchophony *Arloa:* Med.
- Bronkogeno:** izond. Bronkio batetik datorrena, edo bronkio batean sortua dena. *ES:* Broncogéno *FR:* Bronchogène *EN:* Bronchogenic
- Bronkografia:** iz. Bronkieen azterketa erradiologikoa; X izpiekiko opakua den gai bat sartuz egiten da. *ES:* Broncografía *FR:* Bronchographie *EN:* Bronchography *Arloa:* Med.
- Bronkomikosi:** iz. Bronkioetako infekzioa; onddoek eragiten dute, batez ere *Candida albicans*-ek. *ES:* Broncomicosis *FR:* Bronchomycose *EN:* Bronchomycosis *Arloa:* Med.
- Bronkopneumonia:** iz. Biriketako hantura lausoa; bronkioetan hasi eta biriketara hedatzen da gehienetan, eta kondentsazio barreiatuzko gueneak sortzen ditu. Zeinu ugari ditu: sukarra, ez-tula, disnea, biriketako enfisema, eta abar. *ES:* Bronconeumonía *FR:* Bronchopneumonie *EN:* Bronchopneumonia *Arloa:* Med.
- Bronkorrea:** iz. Gehiegizko muki- edo zorne-jarioa, bronkioetan. *ES:* Broncorrea *FR:* Bronchorrhée *EN:* Bronchorrhea *Arloa:* Med.
- Bronkoskopia:** iz. Hodi kurbatua, malgua edota zurruna; bronkieak barnetik aztertzeko, haien biopsia egiteko, gorputz arrotz bat kanporatzeko, eta abarretarako erabiltzen da. *ES:* Broncoscopio *FR:* Bronchoscope *EN:* Bronchoscope *Arloa:* Med.
- Bronkospasmo:** iz. Bronkioetako gihar lisoaren ez-ohiko uzkurdura; arnabideak estutu eta buxadura larria eragiten du. *ES:* Broncospasmo *FR:* Bronchospasme *EN:* Bronchospasm *Arloa:* Med.

- Brucella:** iz. Bakterio-generoa; zehaztu gabe sailkatzen da baziloen eta koko gramnegatibo aerobioen artean. Bruzelosia eragiten du. *ES:* Brucella *FR:* Brucella *EN:* Brucella
- Brudzinski-ren zeinu:** iz. Lepoa mugitzea, eta besoa, aldaka eta belautua nahi gabe tolestea ezaugarri duen zeinua. Meningitisa duten gaixoetan agertzen da. *ES:* Brudzinski, Signo de *FR:* Signe de Brudzinski *EN:* Brudzinski's sign *Arloa:* Med.
- Bruzelosi:** iz. *Brucella* generoko kokobazilo gramnegatiboek eragindako gaixotasuna; animaliei (ganadua, txerriak eta ahuntzak barne) erasaten die, batez ere. Gizakia, berriz, esne edo esneki kutsatuak hartzearen ondorioz gaixotzen da, nagusiki. Bruzelosiaren ezaugarri dira: sukarra, hotzikarak, izerditzea, ondoeza eta ahulezia. *ES:* Brucelosis *FR:* Brucellose *EN:* Brucellosis *Oharrak:* Bruzelosia ondo tratatu ezean, ondorio larriak ekar ditzake: pneumonia, meningitisa, entzefalitisa, eta abar. *Arloa:* Med.
- Buboi:** iz. Gongoil linfatikoen hantura. Izaian edo besapean agertzen da, batez ere. *ES:* Bubón *FR:* Bubon *EN:* Bubo *Arloa:* Med.
- Buboniko:** izond. Buboiari dagokiona; buboiak agertzea ezaugarri duena. *ES:* Bubónico *FR:* Bubonique *EN:* Bubonic *Arloa:* Med.
- Buchner-en inbutu:** iz. Portzelanazko inbutu zilindrikoa; oin biribila, laua eta zulatua du, eta hutsean iragazteko erabiltzen da. *ES:* Embudo de Buchner *FR:* Entonnoir de Buchner *EN:* Buchner funnel
- Bukaera:** iz. Fenomeno edota gaixotasun baten amaia. *ES:* Terminación *FR:* Terminaison *EN:* Ending
- Bular-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'toraziko'.
- Bular:** iz. Esnea jariatzen duen guruina. Giza espeziean, bi dira; alde banatara daude enborraren aurrealdean, eta kono-itxurakoak dira. Ugatzen osagaiak dira, kanpotik barrura: larruzalaz —bertan, titiburua dago, areolaz inguratua— eta larruzalpeko gantz-ehuna —erabat inguratzen du ugatz-guruina—. *ES:* Mama, seno *FR:* Sein *EN:* Mamma *Oharrak:* Erabat garatu gabeak izaten dira bularrak gizezkoetan; emakumezkoetan, berriz, edoskitzaroan lortzen dute erabateko garapena.
- Bular-punta:** iz. Ikus 'titiburua'.
- Bularra hartu:** ad. Ugatzetatik esnea xurgatu. *ES:* Mamar, lactar
- Bularra kendu:** ad. Umeari bular-esnea emateari utzi, beste elikagai batzuk har ditzan haren orde. *ES:* Desmamar, destetar *FR:* Sevrer *EN:* To wean *Oharrak:* Bularra kentzeko prest egoten dira haur asko seigarren hilabetetik aurrera.
- Bularralde:** iz. Ikus 'torax'.
- Bularreko angina:** iz. Gutxiegitasun koronarioa; mina eta larrimina eragiten ditu bularraren ezker aldean. *ES:* Angina de pecho *FR:* Angine de poitrine *EN:* Angina pectoris *Oharrak:* Bularreko anginaren eragile izan daitezke: ateromatosis, anemia eta arritmiak. *Arloa:* Med.
- Bularreko gihar:** iz. Ikus 'gihar pektoral'.
- Bularreko gihar handi:** iz. Toraxaren goialdeko gihar handia; sorbaldako giltzadurari eragiten dio. Besoa tolestu, gorputzera hurbilarazi eta barnerantz birarazten du. *ES:* Músculo pectoral mayor *FR:* Muscle grand pectoral *EN:* Pectoralis major, greater pectoral muscle *Arloa:* Anat.
- Bularreko gihar txiki:** iz. Triangelu-itxurako gihar mehea; toraxaren goialdean dago, bularreko gihar handiaren azpian. Eskapula birarazten du, eta hirugarren, laugarren eta bosgarren saihetshezurrak igotzen ditu arnasmora behartuan. *ES:* Músculo pectoral menor *FR:* Muscle petit pectoral *EN:* Pectoralis minor, smaller pectoral muscle *Arloa:* Anat.
- Bularreko haur:** iz. Umetokiz kanpoko bizitzaren lehen aroan dagoen haurra; jaiotzatik 12. hilabetera arte iristen da gutxi gorabehera aro hori. *ES:* Lactante *FR:* Nourrisson *EN:* Lactating
- Bularrezur:** iz. Hezur luzexka eta zapala. Lepautaien euskarria da, eta lehen zazpi saihets parekin artikulatua dago. Hiru zati ditu: manubrioa, gorputza eta apendiz xifoidea. *ES:* Esternón *FR:* Sternum *EN:* Sternum *Arloa:* Anat.
- Bulba:** iz. Emakumearen kanpoko sexu-organoa. Han daude Venus mendia, ezpain handiak, ezpain txikiak, klitoria, baginaren bestibulua eta bestibuluko guruinak. *ES:* Vulva *FR:* Vulve *EN:* Vulva *Arloa:* Anat.
- Bulbako:** izlag. Ikus 'erraboileko'.
- Bulimia:** iz. Elikagaiak barneratzeko neurritz kanpoko irrika. Era jarraituan janari mordoia irentsi ondoren, depresioak eta barnealdia izaten ditu gaixoak, sarritan. *ES:* Bulimia *FR:* Boulimie *EN:* Boulimia *Arloa:* Med.
- Bulkada:** 1. iz. Psikologian, zerbait egiteko joera, beharra, nahia edo bat-bateko ekintza; eutsezina izaten da, eta irrazionala sarritan, sentimenduetan egoera jakin batek eragina. 2. iz. Fisiologian, nerbio-transmisioan parte hartzen duen prozesu elektromekanikoa. *ES:* Impulso *FR:* Impulsion *EN:* Impulse *Arloa:* Psicol., Biol.
- Bulkatzaile:** izond. Bulkada eragiten duena. *ES:* Impulsor *EN:* Driving, promoter
- Burbuilatzaile:** izond. Ikus 'eferbeszente'.
- Burdina:** iz. Fe. Elementu kimiko metalikoa, grisa, harikorra, xaflakorra eta gogortasun handikoa. Oso ugaria da naturan, nahiz eta egoera puruan ez agertu; mineral ferrikoak, aldis, asko dira. Odolean badago —hemoglobinan bereziki—,



- eta terapeutikan erabiltzen da zenbait anemia-egoeratan. Ugari dira terapeutikan erabiltzen diren burdinaren gatzak eta konposatuak: sulfatoa, fumaratoa, glukonatoa, sukzinatoa, glutamatoa eta laktatoa. Burdina-gatzak gutxiago xurgatzen dira, eta narritagariagoak dira. Ezinbesteko elementua da burdina hemoglobinaren sintesirako. *ES: Hierro FR: Fer EN: Iron Arloa: Kim.*
- Burezur:** iz. Buruko hezur-egitura, neurokraneoak eta aurpegiko hezurrek osatua. Neurokraneoak entzefaloo babesten du, eta 8 hezurrez osatua dago. Aurpegiko multzo trinkoa, berriz, 14 hezurrez osatua dago. *ES: Cráneo, calavera FR: Crâne EN: Skull Arloa: Anat.*
- Burezurreko:** izlag. Ikus 'garezurreko'.
- Burmuin:** 1. iz. Entzefaloaren zatia, zerebeloaren aurre-gainaldean dagoena. 2. iz. Nerbio-ehuneko masa; garezur barnean dago. *ES: Seso FR: Cerveau, cervelle EN: Brain*
- Burrunbatsu:** izond. Ikus 'gorgarri'.
- Burtsitis:** iz. Giltzadura bat inguratzen duen ehun konektibozko egituraren edo poltsaren hantura. Eragile asko izan ditzake: artritis, gaizko adurak, traumatismoak, gehiegizko ariketa fisikoa, eta abar. Giltzadura horretako min zorrotza da burtsitisaren zeinu nagusia; mugitzerakoan ematen du, batez ere, mina. Bi dira burtsitisaren tratamenduaren helburu nagusiak: mina gutxitzea eta mugitzeko gaitasuna mantentzea. *ES: Bursitis FR: Bursite EN: Bursitis Arloa: Med.*
- Buru-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'mental'.
- Buru:** iz. Organismoaren goiko atala; burezurak eta aurpegiak osatzen dute. Entzefaloo eta zentzumen-organo nagusiak biltzen ditu. *ES: Cabeza FR: Tête EN: Head*
- Burua joan:** ad. Ikus 'zorabiatu'.
- Buru-argi:** izond. Ikus 'argi'.
- Buru-argitasun:** iz. Ikus 'argitasun'.
- Buruestimu:** iz. Ikus 'autoestimim'.
- Buruko ile:** iz. Buruko luzakin epidermikoa, hari-itxurakoa. *ES: Cabello FR: Cheveu EN: Hair*
- Buruko larruazal:** iz. Gizakiaren garezurra —aurpegia eta belarriak izan ezik— estaltzen duen azal lodia. Buruko larruazalean hazten da ilea. *ES: Cuero cabelludo EN: Scalp*
- Burusoildu:** ad. Burusoil geratu, ilea galdu. *ES: Encalvecer*
- Burusoiltasun:** iz. Ikus 'alopezia'.
- Burutik egin:** ad. Ikus 'erotu'.
- Burutik egin:** izond. Ikus 'ero'.
- Burutsu:** izond. Ikus 'zuhur'.
- Buxadura:** 1. iz. Gorputzeko organo edo gunee baten odol-fluxuaren etena; gunee horretan likidoa pilatzaren ondoriozko presioaren eraginez gertatzen da. *ES: Taponamiento FR: Taponnade EN: Taponade 2. iz. Zulo edo hodi bat ixteko ekintza eta ondorioa; zulo edo hodi horretan gairen bat sartzean gertatzen da. ES: Obstrucción FR: Obturation EN: Obturation*
- Buxatu:** 1. ad. Bide nahiz hodi batean oztopo bat gertatu edo jarri, eta gai orori handik igarotzea oztopatu. *ES: Taponar FR: Boucher EN: To tampon, to plug 2. ad. Irekigune edo hodi bat itxi, irekigune edo hodi horretan zerbait sartuz. ES: Obstruir FR: Obturer EN: To block up, to plug up*
- Buxatzaile:** iz. Irekigune bat ixten duen xafla, edo disko natural zein artifiziala. *ES: Obturador FR: Obturateur EN: Plugger*
- By-pass:** iz. Ebakuntza kirurgikoa; buxatutako hodi bateko fluxua berreskuratzeko egiten da, buxatutako hodia beste hodi batez ordezkatur. Plastikozko hodi bat edo mentu bat txertatzen da. Oso erabilia da kirurgia kardiakoan. *ES: By-pass FR: Dérivation EN: By-pass Arloa: Med.*



# C

.....

**Cannabis indica:** iz. *Cannabis* generoko landarea; *cannabina* erretxina darama, eta nerbio-sistema zentralean du eragina, lasaigarri gisa. Era berean, taupadak bizkortzen ditu. Dosi altuetan, oroi-men-arazoak eragiten ditu; eta altuagoetan, haluzinazioak eta paranoia. ‘Haxix’ eta ‘marihuana’

gisa ere ezaguna da. Hainbat erabilera eman zaizkio medikuntzan: glaukomaren tratamenduan erabili izan da, eta baita minbiziak jotako zenbait gaixorekin ere, kimioterapiaren ondoriozko goragaleei eta okadei aurre egiteko. *ES:* Cannabis indica *FR:* Chanvre *EN:* Hemp

# D

- Daktiloskopia:** iz. Hatz-marken azterketa. Pertsonak identifikatzeko egiten da. *ES:* Dactiloscopia *FR:* Dactyloscopie *EN:* Dactyloscopy
- Daltoniko:** 1. izond. Daltonismoari dagokiona. 2. izond. Daltonismoa duena. *ES:* Daltoniano, daltonico *FR:* Daltonien *EN:* Colour blind *Arloa:* Med.
- Daltonismo:** iz. Ikusmen-akatsa; zenbait kolore —gorria eta berdea, bereziki— bereizteko ezintasunean datza. Maizago agertzen da gizonezkoengan. Genetikoki transmititzen da, sexuari lotutako ezaugarri autosomiko gisa. *ES:* Daltonismo *FR:* Daltonisme *EN:* Daltonism
- Dardara:** iz. Aldizkako mugimenduak, nahi gabe-koak eta erritmo iraunkorrekoak. Gorputzeko edozein guneri erasan diezaiekete, baina eskuei eragiten diete, bereziki. Desagertu egiten dira loaldian eta erabateko atsedenean, eta okerrera jotzen dute hotzarekin, emozioarekin eta nekearekin. *ES:* Temblor *FR:* Tremblements *EN:* Tremor *Adibideak:* Dardara esentziala edo Parkinson-en gaitza.
- Dardara egin:** ad. Dardaraz egon. *ES:* Temblar *FR:* Trembler *EN:* To tremble, to shiver, to shake
- Dardarakor:** izond. Dardara izateko joera duena. *ES:* Tembloroso *FR:* Tremblant *EN:* Tremulous
- Dardarati:** izond. Ikus 'dardarakor'.
- Dardaratsu:** izond. Ikus 'dardarakor'.
- Dardarizo:** iz. Ikus 'konbulsio'.
- Darwinismo:** iz. Eboluzio organikoaren teoria; landareak eta animaliak ingurumenaren egoerara moldatzean jasandako egitura-asalduen emaitza da garapen organikoa, eta ondorengoei igortzen zaizkie hartutako ezaugarriak. *ES:* Darwinismo *FR:* Darwinisme *EN:* Darwinism
- Darwinista:** 1. izond. Darwinismoari dagokiona. 2. iz. Darwinismoaren jarraitzailea. *ES:* Darwinista *FR:* Darwinienne *EN:* Darwinian
- Dastamen-papila:** iz. Mihiaren epitelioan, ahosabai bigunean, epiglotisean eta faringean dauden goragune txiki azalekoetako bakoitza. Zaporeak hautematen dituzten sentimen-organoak dituzte. *ES:* Papila gustativa *FR:* Papille gustative *EN:* Taste papilla *Arloa:* Anat.
- De Graaf-en folikulu:** iz. Obulutegiaren gainazaleko xixku heldua; 10-12 mm-ko diametroa du. Garapen-bidean dagoen obulua eta likidoa dauka bere baitan, eta hautsi egiten da obulazioan, obulua askatzeko. *ES:* Folículo de De Graaf *EN:* Graafian follicle *Oharrak:* FSH hormonaren eraginez, obulutegiko folikulu bat heltzen da hilekoaren ugaltze-aldian, De Graaf-en folikulu bat eratu arte.
- Deferente:** izond. (Hodi bati buruz) Espermatozoidak barrabiletatik semen-xixkuetaraino eramaten dituen. *ES:* Deferente *FR:* Déférent *EN:* Deferens *Arloa:* Anat.
- Deformatu:** izond. Deformazioa jasan duena; forma irregularra duena. *ES:* Deforme *FR:* Déformé
- Deformazio:** iz. Gorputz baten forma-aldaketa. *ES:* Deformación *FR:* Déformation *EN:* Deformation
- Degenerazio:** iz. Ikus 'endekapen'.
- Degradatu:** ad. Balioa galdu; hondatu. *ES:* Degradar *FR:* Dégrader *EN:* To degrade
- Degradazio:** iz. Konposatu kimiko bat beste bat bihurtzea, ez hasierakoa bezain konplexua. Eskuarki, atomo talde bat edo gehiago bereiztean gertatzen da. *ES:* Degradación *FR:* Dégradation *EN:* Degradation *Arloa:* Kim.
- Dehiszente:** izond. (Organo edo atal bati buruz) Dehiszentzia duena. *ES:* Dehiscente *FR:* Déhiscent *EN:* Dehiscent
- Dehiszentzia:** 1. iz. Organo edo atal bat bat-batean irekitzea ezaugarri duen fenomeno. 2. iz. Jositako zauri bat haustea edo irekitzea ezaugarri duen fenomeno. *ES:* Dehiscencia *FR:* Déhiscence *EN:* Dehiscence
- Dei:** iz. Ikus 'zitazio'.
- Delirio:** 1. iz. Buruko prozesu organiko akutua. Haren ezaugarri dira: nahastea, desorientazioa, egonezina, kontzientzia itsutzea, koherentziarik eza, beldurra, antsietatea, eta abar. Sarritan, irudipenak eta haluzinazioak ere agertzen dira; ikusmenezkoak, gehienetan. Garuneko funtzioen asalduen ondorioz gertatzen da. Elikagai-eskasiagatik, desoreka endokrinoengatik, erditze nahiz ebakuntza osteko estresarengatik, gai toxikoak hartzeagatik, shock fisiko edo mentolarengatik, eta abarrengatik gerta daitezke asaldu horiek. 2. iz. Sinesmen edo ideia zentzugabe, iraunkor eta menderaezina; mantendu egiten da, nahiz eta logikarik gabekoa, ohiz kanpokoa —eta okerra, agian— izan. Ideiaren arabera, hainbat motatakoa izan daiteke delirioa: pertsekuziozkoa eta

- autorreferentziala (eskizofrenian), nihilista (depresioan), zahartzarokoa (dementzian), eta abar. *ES: Delirio FR: Délire EN: Delirium Arloa: Med., Psikiat.*
- Delirium tremens:** iz. Erreakzio psikotiko akutua; zenbait kasutan, heriotza dakar. Hainbat egoeraren ondorio izan daiteke: denbora luzez elikagai gutxiegi hartu eta alkohol gehiegi edatea, alkohol-abstinentzian egotea, garuneko lesio edo infekzioaren bat izatea, eta abar. *ES: Delirium tremens FR: Delirium tremens EN: Delirium tremens Oharrak: Delirium tremens-aren ezaugarri dira: haluzinazioak, dardarak, izerdia, konorte maila gutxitzea eta sukarra. Arloa: Med.*
- Deltoide:** iz. Triangelu-itxurako giharra; klabikulatik eskapulara doa, eta eskapularen eta besahezurraren arteko giltzadura estaltzen du. *ES: Deltoides FR: Muscle deltoïde EN: Deltoid muscle Arloa: Anat.*
- Dementzia:** iz. Buruko prozesu organiko kroniko progresiboa. Funtzio psikikoak galtzen dira, eragin biologikoen edo patologikoen ondorioz. Dementziaren ezaugarri dira: epe laburreko eta luzeko oroimenaren narriadura, izaeraren desintegrazio kronikoa, nahastea, desorientazioa, laborrria, funtzio fisiko eta psikikoen galera, eta abar. Dementzia-eragile izan daitezke: Alzheimer-en gaixotasuna, infartu ugari izatearen ondoriozko dementzia, sendagai bidezko intoxikazioa, hipertiroidismoa, anemia galgarria, paresia, garuneko tumor onbera, hidrozefalia, eta abar. *ES: Demencia FR: Démence EN: Dementia Arloa: Psikiat.*
- Demografia-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'demografiko'.
- Demografia:** iz. Giza taldeak aztertzea helburu duen zientzia; haien neurria, banaketa eta giza-banakoen ezaugarriak aztertzen ditu. *ES: Demografía FR: Démographie EN: Demography Oharrak: Talde etnikoen, lurralde jakinetako biztanleen edota elikadura-ohitura jakinak dituzten talde erlijiosoen osasun-arazoak aztertzeko erabiltzen da demografia medikuntzan.*
- Demografiko:** izond. Demografiari dagokiona. *ES: Demográfico FR: Démographique EN: Demographic*
- Dendrita:** iz. Neurona baten gorputz zelularretik irteten den luzakin zitoplasmikoa. Neuronak handitu egiten du zelularen azalera, eta, sinapsian, nerbio-bulkada transmititu. Dendrita ugari izaten ditu, gehienetan, neurona bakoitzak. *ES: Dendrita FR: Dendrite EN: Dendrite*
- Denge:** iz. Sukar-gaixotasun epidemiko kutsagarria. Birus-jatorria du. Bi alditan banatzen da dengearen sintomatologia: lehenengo aldian agertzen dira sukarra, erabateko ahultasuna, buruko mina, ezarriaren hantura, giharretako mina, eta eskuetako eta oinetako edema. Bigarren aldian, igo egiten da sukarra, eta kolore gorri biziko exantema eskarlatiformea agertzen da. Klima beroko lurraldeetan gertatzen da. *ES: Dengue FR: Dengue EN: Dengue*
- Dentikulatu:** izond. Hortz edo irtengune puntadun txikiak dituena. *ES: Denticulado FR: Denticulé EN: Denticulate Arloa: Biol.*
- Dentikulu:** 1. iz. Hortz antzeko egitura txikia. 2. iz. Hortz-mamian dagoen gai kaltzifikatu txikia. *ES: Denticulo FR: Denticule EN: Denticle Arloa: Biol.*
- Dentina:** iz. Hortzen gai nagusia; horixka, oso malgua eta gogorra da. Hortz-mamia inguratzen du. Koroan, esmalteak inguratzen du; sustraian, berriz, zementuak. *ES: Dentina FR: Dentine EN: Dentin*
- Dentsitate:** 1. iz. Gai baten masaren eta masa horrek temperatura jakin batean betetzen duen bolumenaren arteko erlazioa. 2. iz. Erradiologian, X izpien xafla baten iluntasun maila. *ES: Densidad FR: Densité EN: Density Oharrak: g/cm<sup>3</sup> da unitaterik ohikoena likidoei eta gasi dagokienez.*
- Dentso:** izond. Dentsitate altua duena. *ES: Denso FR: Dense EN: Dense*
- Denudazio:** iz. Organo edo organismo batean, ohiko estalkiaren galera. Gaixotasun baten edo kirurgiaren ondoriozkoa izan daiteke. *ES: Denuación FR: Dénudation EN: Denudation Arloa: Med.*
- Deontologia:** iz. Eginbeharrak eta arau etikoak lantzen dituen zientzia. *ES: Deontología FR: Déontologie EN: Deontology*
- Deontologiko:** izond. Deontologiari dagokiona. *ES: Deontológico*
- Depresibo:** 1. izond. Depresioari dagokiona. 2. izond. Deprimitzen duena. 3. izond. Deprimitzen dena. *ES: Depresivo FR: Dépressive EN: Depressive Arloa: Psikiat.*
- Depresio:** 1. iz. Bizi-jardueraren murrizketa, nahiz organismo osoan, nahiz haren zati batean. 2. iz. Ohiz kanpoko emozio-egoera; neurriz gaineko tristura, adorerik eza, hustasun-sentimendua eta itxaropenik eza ditu ezaugarri. *ES: Depresión*
- Deprimitu:** 1. ad. Depresio-egoerak harrapatu norbait. *ES: Deprimir FR: Déprimer EN: To depress Arloa: Psikiat.* 2. izond. Gorputz-jarduera orokorra gutxitzarekin zerikusia duena. Egoera hori emozio-abaildurearekin, ekimen-galerarekin, axolagabekeriarekin, jateko gogo galtzarekin eta arreta jartzeko zailtasunarekin batera agertzen da, sarritan. *ES: Deprimido FR: Déprimé EN: Depressed*

- Deribazio:** iz. Ebakuntza mota; odolaren edo beste edozein isurkari naturalen fluxua ibilbide anatomikotik desbideratzeko egiten da. Iragankorra edo iraunkorra izan daiteke. Bihotz-eritasunetan egiten da, batez ere. *ES:* Derivación, shunt *FR:* Shunt *EN:* Shunt *Arloa:* Med.
- Dermatitis:** iz. Larruazaleko hantura; eritema, mina eta azkura ditu ezaugarri. *ES:* Dermatitis *FR:* Dermatite *EN:* Dermatitis *Arloa:* Med.
- Dermatologia:** iz. Larruazalari eta haren gaixotasunei buruzko ezagutza multzoa. Zenbait arlo biltzen ditu: larruazalaren anatomia, fisiologia eta patologia, eta larruazaleko asalduen diagnostikoa eta tratamendua. *ES:* Dermatología *FR:* Dermatologie *EN:* Dermatology *Arloa:* Med.
- Dermatologo:** iz. Larruazaleko gaixotasunetan aditua den medikua. *ES:* Dermatólogo, -a *FR:* Dermatologue *EN:* Dermatologist
- Dermatosi:** iz. Larruazalari erasaten dion edozein asaldurazkoak ez diren asaldurak, bereziki. *ES:* Dermatosis *FR:* Dermatose *EN:* Dermatosis *Arloa:* Med.
- Dermiko:** izond. Dermisekoa, edo hari dagokiona. *ES:* Dérmico *FR:* Dermique *EN:* Dermal
- Dermis barneko:** izlag. Larruazala eratzen duen ehunean dagoena. *ES:* Intradérmico *FR:* Intradermique *EN:* Intra-dermal
- Dermis:** iz. Larruazalaren geruza sakon konjuntiboa, nerbioz eta odol-hodixkaz hornitua. Epidermisaren eta hipodermisaren artean dago. *ES:* Dermis *FR:* Derme *EN:* Dermis *Arloa:* Anat.
- Desaktibazio:** iz. Zerbitu ez-aktibo bihurtzea. *ES:* Desactivación *FR:* Désactivation *EN:* Deactivation *Arloa:* Med.
- Desartikulatu:** ad. Gorputz atal bat giltzaduralerrotik atera. *ES:* Desarticular *Arloa:* Med.
- Desartikulazio:** iz. Gorputz atal bat edo haren zati bat giltzaduratik bereizi, hezurra moztu gabe. *ES:* Desarticulación *FR:* Désarticulation *EN:* Disarticulation
- Desbitalizatu:** ad. Nerbioa hil; hortz edo hagin batekoa, bereziki. *ES:* Desvitalizar *Arloa:* Med.
- Deshidratatu:** ad. Organismo bati ura kendu, edo hark ura galdu. *ES:* Deshidratar *FR:* Déshydrater *EN:* To dehydrate *Arloa:* Biol., Kim.
- Deshidratazio:** 1. iz. Gai edo konposatu bati ura kentzea. 2. iz. Gorputzeko ehunek ur gehiegi galtzea. Oinarrizko elektroitoak ere galtzen dira deshidratazioan, urarekin batera; sodioa, potasioa eta kloroa, batez ere. Deshidratazioaren ezaugarri dira: larruazalaren eta mukosen lehortasuna, egarria, oliguria, eta, kasu aurreratuetan, garun-disfuntzioa eta zirkulazio-kolapsoa. *ES:* Deshidratación *FR:* Déshydratation *EN:* Dehydration *Oharrak:* Hipotonikoak, hipertonikoak eta isotonikoak izan daitezke deshidratazioak.
- Desinfektatu:** ad. Gaizkoadura eragin dezaketen mikroorganismo patogenoak desagerrarazi. *ES:* Desinfectar *FR:* Désinfecter *EN:* To disinfect *Arloa:* Med.
- Desinfektatzaile:** izond. (Gai fisiko, kimiko edota mekaniko bati buruz) Mikroorganismoak suntsitzen edo neutralizatzen dituen. Beroa da gehien erabiltzen den eragile fisikoa. *ES:* Desinfectante *FR:* Désinfectant *EN:* Disinfectant
- Desinfekzio:** iz. Organismo patogenoak deuseztatzeko edo bizigabe bihurtzeko prozesua. Gai mekanikoak, fisikoak eta kimikoak erabili ohi dira desinfekzioarako. *ES:* Desinfección *FR:* Désinfection *EN:* Disinfection
- Desintoxikatu:** ad. Gai toxiko baten ondorioak gainditu edo hura kanporatu. *ES:* Desintoxicar *FR:* Détoxifier *EN:* To detoxify
- Desintoxikazio:** iz. Gai toxikoen deuseztapena; prozesu naturala edo terapeutikoa da, gai toxikoek gaitzik eragin ez dezaten edo organismoan sar ez daitezen. *ES:* Desintoxicación *FR:* Désintoxication *EN:* Disintoxication
- Deskaltzifikatu:** ad. Hezurretako nahiz beste ehun organikoetako kaltzioa murriztu edo desagerrarazi. *ES:* Descalcificar
- Deskaltzifikazio:** iz. Hezurretako eta hortzetako kaltzio-gatzen galera. Hainbat faktore izan daitezke deskaltzifikazioaren eragile: dietan kaltzio gutxiegi hartzea, malabsortzioa (D bitamina falta delako, hesteetan kaltzioa xurgatzeko beharrezkoa baita), elikaduran gantz gehiegi hartzea, azido oxalikoa izatea, digestio-hodian azidoak galtzea, eta abar. *ES:* Descalcificación *FR:* Décalcification *EN:* Decalcification *Arloa:* Med.
- Deskarga:** iz. Jarduera uzkurkorra duen uhin bizia; heste meharrean zehar igarotzen da, narritaduraren edo distentsioaren eraginez. *ES:* Descarga *Arloa:* Med.
- Deskonposatu:** ad. Molekula sinpleagotan banatu. *ES:* Descomponer *Arloa:* Biol.
- Deskonposizio:** iz. Ikus 'beherako'.
- Desmineralizazio:** iz. Ehunetako gatz mineral edo organiko gehiegi galtzean datzan prozesua. Hainbat gaixotasun edo egoera kakektikotan gertatzen da, besteak beste. *ES:* Desmineralización *FR:* Déminéralisation *EN:* Demineralization *Arloa:* Med.
- Desnaturalizatu:** ad. Proteinek berezkoak dituzten ezaugarri kimikoak eta fisikoak galdu. *ES:* Desnaturalizar
- Desnaturalizazio:** iz. Proteinek berezkoak dituzten ezaugarri kimiko eta fisikoak galtzea, agente desnaturalizatzaileen eraginez. *ES:* Desnaturalización, desnaturación *FR:* Dénaturation *EN:* Denaturation *Oharrak:* Metilenoa eta antzeko gaiak

- gehitzen zaizkio industriarako alkoholari, edari gisa erabiltzeko sal ez dadin.
- Desnaturatu:** ad. Ikus 'desnaturalizatu'.
- Desnutrizio:** iz. Elikadura-asaldua; asimilaziorik ezak, gehiegizko desasimilazioak edota elikagarrik ez hartzeak eragiten du. *ES:* Desnutrición *FR:* Dénutrition *EN:* Undernutrition *Arloa:* Med.
- Desoreka psikiko:** iz. Oreka psikikoaren galera. *ES:* Desequilibrio psíquico *FR:* Déséquilibre *EN:* Imbalance *Arloa:* Psikiat.
- Desorekatu:** ad. Oreka galarazi. *ES:* Desequibrar *Arloa:* Psikiat.
- Desorekatu:** izond. Eromenera iritsi gabe, adimenedo afektibitate-asalduak dituena. *ES:* Desequilibrado *FR:* Déséquilibrée *EN:* Imbalanced *Arloa:* Psikiat.
- Desoxirribosa:** iz. Monosakaridoa; azido desoxirribonukleikoaren osagaietako bat da. Bost karbono atomo ditu; haïetatik bigarrena H atomo bati (ez OHri) lotua dago. *ES:* Desoxirribosa *FR:* Désoxyribose *EN:* Deoxyribose *Arloa:* Biokim.
- Desplazamendu:** iz. Ikus 'ektopia'.
- Destrina:** iz. Glukosaren polimeroa; almidoiaren hidrolisiz sortzen da. Disolbagarria da uretan. Zenbait prestakin farmazeutikotan erabiltzen da. *ES:* Dextrina *FR:* Dextrine *EN:* Dextrin *Arloa:* Kim.
- Destrogiro:** izond. (Gai bati buruz) Argiaren polarizazio-planoa eskuinalderantz desbideratzen duena. *ES:* Dextrógiro *FR:* Dextrogyre *EN:* Dextrogyre *Arloa:* Fis.-Kim.
- Destrosa:** iz. Glukosa destrogiroa; hainbat disoluziotan aurki daiteke. Zain barnetik erabiltzen da, besteak beste. *ES:* Dextrosa *FR:* Dextrose *EN:* Dextrose *Oharrak:* Kaloririk eta likidoak emateko, eta hipogluzemiak gainditzeko erabiltzen da. *Arloa:* Kim.
- Deszerebrazio:** iz. Garuna erauztea, edo garunaren funtzioa deuseztatzea; entzefalo-enborrak nukleo gorriaren mailaz goitik erreazionatzean gertatzen da. *ES:* Descerebración *FR:* Décérébration *EN:* Decerebration *Oharrak:* Mugimendu patologikoa du ezaugarri: besoak luzatu eta kanporantz birarazten dira, eta zangoak ere luzatu egiten dira. *Arloa:* Med.
- Detergente:** 1. iz. Konposatu organikoa; interfasean pilatuz, murriztu egiten du uraren edo disoluzio baten gainazal-tentsioa. 2. iz. Gai garbitzailea. 3. iz. Gai hezetzalea; arnas terapiaren erabiltzen da, arnasbideetan itsatsitako jarioak kanporatzea errazteko. *ES:* Detergente *FR:* Détergent *EN:* Detergent *Arloa:* Kim.
- Dezidua:** iz. Mintzeko ehun erretikulatua. Haurdunaldian hipertrofiatutako umetoki-mukosak osatzen du, eta erditzean kanporatzen da. *ES:* Decidua, caduca *FR:* Decidua, caduque *EN:* Decidua *Arloa:* Biol.
- Diabetes:** iz. Guruinen asaldua; gehiegizko gernerarioa eta egarria ditu ezaugarri. Gehiegizko jario horren eragile izan daitezke: hormona antiidiuretikoaren (ADH) urritasuna, edo poliuria —*diabetes mellitus*-ean agertzen den hipergluzemiaren ondoriozkoa—. *ES:* Diabetes *FR:* Diabète *EN:* Diabetes *Oharrak:* Hiru dira diabetes mota eza-gunenak: *diabetes insipidus*, *diabetes mellitus* eta giltzurrunekoa. *Arloa:* Med.
- Diabetesaren kontrako:** izlag. (Gai bati buruz) Diabetesaren sintomak eragozten edo arintzen dituena. *ES:* Antidiabético *FR:* Agent antidiabétique *EN:* Antidiabetic agent *Adibideak:* Biguanidak, sulfonilureak. *Arloa:* Med.
- Diabetiko:** 1. izond. Diabetesari dagokiona. 2. izond. Diabetesa nozitzen duena. *ES:* Diabético *FR:* Diabétique *EN:* Diabetic *Arloa:* Med.
- Diafisi:** iz. Hezur luze baten ardatza. Hezur trinkozko hodi batek eratzen du, eta muin-barrunbea dauka hodian. *ES:* Diáfisis *FR:* Diaphyse *EN:* Diaphysis *Arloa:* Med.
- Diafragma gihar:** iz. Zeharkako gihar luze zapala. Torax-barrunbea eta sabelalde-barrunbea bereizten ditu. Torax-barrunbearen oinarria osatzen du diafragmaren goiko alde ganbilak, eta sabelalde-barrunbearen goiko muga, aldiz, beheko alde ahurrak. Diafragma giharretik igarotzen dira aorta arteria eta kaba zaina. Garrantzi handia du diafragmak arnasketarako: arnasaren mugimenduen eragilea da, arnasgoran batez ere. *ES:* Músculo diafragma *FR:* Diaphragme *EN:* Diaphragm *Arloa:* Anat.
- Diagnosi:** iz. Ikus 'diagnostiko'.
- Diagnostikatu:** ad. Gaixotasun-prozesu baten mota eta arazoia zehaztu; gaixoaren zeinuetan eta sintometan, laborategiko analisietan, ingurutik jasotako informazioan eta irudi-tekniketan oinarrituz egiten da. *ES:* Diagnosticar *FR:* Diagnostiquer *EN:* To diagnose *Arloa:* Med.
- Diagnostiko:** iz. Medikuntzaren adarra; gaixotasun bat zehaztea eta sailkatzea du helburu. Gaixotasun horren zeinuetan eta sintometan oinarrituz egiten da. *ES:* Diagnóstico, diagnóstico *FR:* Diagnostic *EN:* Diagnosis *Arloa:* Med.
- Diagnostikoa egin:** ad. Ikus 'diagnostikatu'.
- Dialisi:** iz. Medikuntza-teknika; odoleko edo linfako osagai jakinak kanporatzea du helburu. *ES:* Diálisis *FR:* Dialyse *EN:* Dialysis *Arloa:* Med.
- Diarrea:** iz. Ikus 'beherako'.
- Diastole:** iz. Aurikulako edo bentrikuluko bi uzkurduen arteko aldia. Zirkulazio orokorretik nahiz birika-zirkulaziotik datorren odola kame-ratan sartzen da, diastolean. Bentrikulu-diastolea bigarren taupada-hotsarekin hasten da, eta hu-

- renngo aldiaren lehen taupada-hotsarekin buka-  
tu. *ES: Diástole FR: Diastole EN: Diastole Arloa:*  
Med.
- Diatermia:** iz. Gorputzeko ehunetan beroa era-  
gitean datzan prozedura. Maiztasun handiko  
korranteak erabiliz egiten da, korrante horiek ez  
baitute ehunik suntsitzen. Ekidin egiten ditu  
sentiberatasun elektrikoa eta gihar- eta nerbio-  
kitzikapenak. *ES: Diatermia FR: Diathermie*  
*EN: Diathermy Oharrak:* Hainbat egoera patolo-  
gikoren tratamenduan erabiltzen da diatermia:  
artritis kronikoa, burtsitisa, hausturak, ginekolo-  
gia-gaixotasunak, sinusitisa, eta abar. *Arloa:*  
Med.
- Diatesi:** iz. Herentziako gorpuzkera fisikoa; hain-  
bat gaixotasun edo asaldu nozitzeko arriskua da-  
kar. Badirudi Y kromosomari lotuak daudela  
gaixotasun horietako asko, emakumezkoak baino  
gaitzikorragoak baitira gizonezkoak. *ES: Diátesis*  
*FR: Diathèse EN: Diathesis Arloa:* Med.
- Dibertikulu:** iz. Barrunbe nahiz hodi nagusi ba-  
ten luzakin hutsa, poltsa- edo zaku-itxurakoa.  
*ES: Divertículo FR: Diverticule EN: Diverticulum*  
*Oharrak:* Urdailean, heste meharrean eta  
heste lodian egon daitezke dibertikuluak. *Arloa:*  
Anat.
- Dieresi:** iz. Lotuta dauden bi zati banatzeko proze-  
sua, kirurgia bidez edo istripuz. *ES: Diéresis FR:*  
*Diérèse EN: Dieresis Arloa:* Med.
- Dieta:** 1. iz. Hartzten diren janari-edariak; kontuan  
izaten dira haien elikadura-zeaugarriak, osagaiak,  
eta osasunean duten eragina. 2. iz. Agindutako  
elikadura; kantitatearen edo motaren arabera  
aukeratzen da, eta helburu terapeutikoetarako  
jarri. *ES: Dieta FR: Diète EN: Diet*
- Difteria:** iz. Gaixotasun toxiko infekzio-eragilea,  
epidemikoa eta kutsagarria. Klebs-Löffler-en ba-  
ziloak eragiten du. Difteriaren zeaugarri dira:  
zornea, eta eztarrian, ahoan, faringean, laringean,  
sudurrean eta belarrietan agertzen diren mintz  
faltsuak, eztarriari erasaten diotenak batez ere.  
Oso gaixotasun kutsagarria da, eta gaixoak ba-  
kartua egon behar du, mikrobioak desagertu  
arte. Tratatu ezean, hilgarria da, bihotz- edo gil-  
tzurrin-gutxiegitasuna eragiten baititu. *ES: Dif-  
teria FR: Diphtérie EN: Diphtheria Oharrak:*  
Honako sintoma nagusi hauek agertzen dira dif-  
teriaren toxinak organismoa kutsatzean: sukarra,  
bihotz-astenia, anemia, ahulezia handia eta, az-  
kenik, paralisia. *Arloa:* Med.
- Difteriko:** izond. Difteriari dagokiona, edo difteria  
duena. *ES: Diftérico Arloa:* Med.
- Digerigaitz:** izond. Digeritzeko zaila dena. *ES: In-  
digesto FR: Indigeste EN: Difficult to digest Ar-  
loa:* Med.
- Digerigarri:** izond. Ikus 'digestibo'.
- Digestibo:** izond. Dietari gehitzen zaiona, elika-  
gaien digestioan laguntzeko. Kamamila da diges-  
tibo ezagunenetako bat. *ES: Digestivo FR: Dig-  
estive EN: Digestive*
- Digestio:** iz. Irentsitako elikagaiak gai asimilagarri  
bihurtzen dituzten prozesuen multzoa. Digestio-  
hodian egiten da digestio orokorra, eta, ondoren,  
organo guztietako zelulek beren digestioa egiten  
dute, haien beharrian eta funtzioen arabera. *ES:*  
*Digestión FR: Digestion EN: Digestion*
- Digestio-sistema:** iz. Elikagaien digestioan parte  
hartzten duten egitura eta organoen multzoa. *ES:*  
*Sistema digestivo FR: Appareil digestif EN: Ali-  
mentary system Oharrak:* Gizakiarena, digestio-  
barrunbea osatzen duten organoetz gain, diges-  
tio-hodira digestio-urinak jariatzen dituzten or-  
gano eta guruinek osatzen dute: listu-guruinak,  
urdail-guruinak, gibela, pankrea eta heste-guruin-  
ak. *Arloa:* Anat.
- Digitopuntura:** iz. Akupuntura mota; hatzen bidez  
egiten da. *ES: Digitopuntura FR: Digitopunctu-  
re EN: Acupressure Arloa:* Med.
- Dilatatu:** ad. Gorputzeko irekidura bat edo odol-  
hodi baten diametroa handitu. Bi eratakia izan  
daiteke: normala (fisiologikoa) edo artifiziala  
(botikak nahiz tresnak erabiliz egiten dena). *ES:*  
*Dilatar Arloa:* Med.
- Dilatazio:** iz. Gorputzeko irekidura baten edo  
odol-hodi baten diametroa handitzea. Hiru era-  
takia izan daiteke: normala (fisiologikoa), artifi-  
ziala (botikak nahiz tresnak erabiliz egiten dena),  
eta patologikoa (bihotzean, adibidez). *ES: Dila-  
tación FR: Dilatation EN: Dilatation Arloa:* Fis.,  
Med.
- Dioptria:** iz. Neurri metrikoa; leiar baten errefrac-  
zio-ahalmena adierazten du. *ES: Dioptría FR:*  
*Dioptrie EN: Diopter Oharrak:* Dioptriatan  
neurtzen dira miopia eta hipermetropia. *Arloa:*  
Fis.
- Dioptrika:** iz. Optikaren adarra; argiaren errefrac-  
zioa aztertzen du. *ES: Dióptrica FR: Dioptrique*  
*EN: Dioptric Arloa:* Fis.
- Diploidia:** iz. Zelula somatikoetako kromosomen  
eraketa bikoitza. *ES: Diploidía FR: Diploïdie*  
*EN: Diploidy Arloa:* Med.
- Dipsomania:** iz. Edari alkoholiko gogorrek edatera  
bultzatzen duen beharra. Obsesiorik gabeko den-  
bora-tarteak izatea du zeaugarri. Horrek bereiz-  
ten ditu dipsomaniakoak ohiko alkoholikoen-  
gandik. *ES: Dipsomanía FR: Dipsomanie EN:*  
*Dipsomania Arloa:* Med.
- Dipsomaniako:** izond. Dipsomaniak jotakoa; dip-  
somania duena. *ES: Dipsomaniáco FR: Dippo-  
mane EN: Dipsomaniac Arloa:* Med.
- Disartria:** iz. Hitzak ahoskatzeko edo artikulatzeko  
zailtasuna, nerbio-sistema zentralako bide edo



- nukleoetako lesio organikoek eragina. *ES*: Disartria *FR*: Dysarthrie *EN*: Dysarthria *Arloa*: Med.
- Disekzioa egin**: ad. Landare edo animalia baten gorpua zaitu, haren azterketa anatomikoa egin ahal izateko. *ES*: Diseccionar *Arloa*: Med.
- Disenteria**: iz. Hestearen hantura, kolonarena batez ere. Narritagarri kimikoek, bakterioek zein parasitoek eragin dezakete. Haren ezaugarri dira gorotz odoltsuak eta sabeleko mina. Gaixotasun kutsagarria izan daiteke. *ES*: Disentería *FR*: Dysenterie *EN*: Dysentery *Arloa*: Med.
- Disenteriko**: 1. izond. Disenteriarri dagokiona. 2. izond. Disenteria duena. *ES*: Disentérico *Arloa*: Med.
- Disfonia**: iz. Fonazioaren asaldua; gorabeherak eragiten ditu ahotsaren tinbrean edo ozentasunean. *ES*: Disfonía *FR*: Dysphonie *EN*: Dysphonia *Arloa*: Med.
- Disgenesia**: 1. iz. Ugaltze-gaitasunaren asaldua edo galera. 2. iz. Organo baten edo haren atal baten osaera akastun edo ez-ohikoa; enbrioi-garapenean gertatzen da, batez ere. *ES*: Disgenesia *FR*: Dysgénésie *EN*: Dysgenesis *Arloa*: Med.
- Diskal**: izond. Ornoarteko diskoet dagokiena. *ES*: Discal *FR*: Discal *EN*: Discal *Arloa*: Med.
- Disko (ornoartekoa)**: iz. Kartilago zuntzuzko egitura, orno-gorputzen artekoa. *ES*: Disco *FR*: Disque *EN*: Disk *Arloa*: Anat.
- Diskografia**: iz. Ornoarteko diskoen banakako azterketa erradiologikoa. Horretarako, hidrosolublea den iodozko kontrastea injektatzen da diskoaren erdigunean. *ES*: Discografía *FR*: Discographie *EN*: Discography *Arloa*: Med.
- Diskromatopsia**: iz. Ikusmen-arazoa; koloreak ikusteko zailtasuna du ezaugarri. *ES*: Discromatopsia *FR*: Dyschromatopsie *EN*: Dyschromasia *Arloa*: Med.
- Diskromia**: iz. Larruazalaren pigmentazio-aldaketa. Gune batzuek ohikoa baino pigmentazio gehiago edo gutxiago izan dezakete. *ES*: Discromía *FR*: Dyschromies *EN*: Discolorations *Arloa*: Med.
- Dislalia**: iz. Fonemak ahoskatzean akatsak egitea ezaugarri duen asaldua. *ES*: Dislalia *FR*: Dyslalie *EN*: Dyslalia *Arloa*: Med.
- Dislexia**: iz. Irakurtzeko gaitasunaren asaldua. Sarritan, hizkiak eta hitzak nahasten dituzte dislexikoek, eta ezin dituzte hizkien sekuentziak behar bezala bereizi idatzitako hitzetan. Zailtasunak izaten dituzte ezkerre eta eskuina bereizteko ere. *ES*: Dislexia *FR*: Dyslexie *EN*: Dyslexia *Arloa*: Psicol.
- Dislokatu**: ad. Ikus 'luxatu'.
- Dislokazio**: iz. Ikus 'luxazio'.
- Disnea**: iz. Arnas gabezia edo arnasteko zailtasuna; odolean behar adina oxigeno ez dagoenean gertatzen da. Bihotzeko hainbat prozesuk, antsietateak edota ariketa fisiko gogorrek eragin dezakete disnea. Haren sintomak dira: arnas maiztasun altua, erabili ohi ez diren giharrak erabiltzea, eta abar. *ES*: Disnea *FR*: Dyspnée *EN*: Dyspnea *Arloa*: Med.
- Disolbaezin**: izond. (Gai bati buruz) Disolbatzaile batean disolbatzen ez dena. *ES*: Indisoluble, insoluble *EN*: Indissoluble *Arloa*: Kim.
- Disolbagaitz**: izond. Ikus 'disolbaezin'.
- Disolbagarri**: izond. (Gai bati buruz) Disolbatzaile batean disolba daitekeena, sistema homogeen bat sortzeko. *ES*: Soluble *FR*: Soluble *EN*: Soluble
- Disolbagarritasun**: 1. iz. Gai batek disolbatzaile batekin era uniformean nahasteko edo disolbatzaile horretan disolbatzeko duen gaitasuna. 2. iz. Baldintza jakinetan, disolbatzaile jakin batean disolba daitekeen solutu kantitaterik handiena. 3. iz. Solutu baten kontzentrazioa disolbatzaile batean, hura bere asetasun-puntuari dagoenean. *ES*: Solubilidad *FR*: Solubilité *EN*: Solubility *Arloa*: Kim.
- Disolbagarritu**: ad. Disolbagarri bihurtu. *ES*: Solubilizar *Arloa*: Kim.
- Disoluzio**: iz. Nahastura, gai batean (disolbatzaile) disolbatutako beste gai baten (solutua) edo gehiagoren artekoa. Homogeneoki banatzen dira gai bakoitzaren molekulak, eta ez dute aldaketa kimikorik izaten. Solidoa, likidoa edota gaseosoa izan daiteke disoluzio bat. *ES*: Disolución *FR*: Solution *EN*: Solution *Arloa*: Kim.
- Disoluzio indargetzaile**: iz. Gaia, edo gai multzoa; ahalmena dute disoluzio bateko hidrogeno ioien kontzentrazioa mantentzeko. Disoluzioari baseak gehitzean, hidroxilo ioiak neutralizatzen dira; azidoak gehitzean, berriz, hidrogeno ioiak. Horrela, pH-aren aldaketak murrizten dituzte. *ES*: Tampón *FR*: Tampon *EN*: Tampon
- Dispepsia**: iz. Ondoez-sentsazio arina epigastriorean; digestio zail eta neketsuaren ondoriozkoa da. Betetasun-, bihotzerre-, flatulentzia- eta gorakosentsazio desatseginak ditu ezaugarri. *ES*: Dispepsia *FR*: Dyspepsie *EN*: Dyspepsia *Arloa*: Med.
- Dispeptiko**: izond. Dispepsiari dagokiona, edo dispepsia duena. *ES*: Dispéptico *Arloa*: Med.
- Displasia**: iz. Ehunen edo organoen ohiz kanpoko garapen oro; enbriogenesian izandako arazo baten ondorioz gertatzen da. *ES*: Displasia *FR*: Dysplasie *EN*: Dysplasia *Oharrak*: Hezurak astiroago gogortzen dira, organoak txikiagoak izaten dira, eta sexu-arazoak gerta daitezke. *Arloa*: Med.
- Distentsio**: iz. Giltzadura bateko chunak eta lotailuak bortizki luzatzean datzan lesioa. *ES*: Distensión *FR*: Distension *EN*: Distention, strain

- Oharrak:* Gehiegizko ariketa fisikoa egiten denean gertatzen da. *Arloa:* Med.
- Distentsioa gertatu:** ad. Egitura bat neurritz handitu. *ES:* Distender *FR:* Distend *Arloa:* Med.
- Distentsioa izan:** ad. Ikus 'distentsioa gertatu'.
- Distrofia:** iz. Elikadura-akats batek eragindako asaldu oro; ehunen eta organoen morfologia eta funtzioak kaltetzen ditu. Hala deritze, sarri, gihar-garapenaren aldaketa jakin batzuei ere, nerbio-sistema zentralari eragiten ez diotenei, hain zuzen. *ES:* Distrofia *FR:* Dystrophie *EN:* Dystrophy *Arloa:* Med.
- Diuresi:** 1. iz. Giltzurrunetik jariatzen den gernua. 2. iz. Gernu-ekoizpena eta -jarioa handitzea ezaugarri duen asaldua. *Diabetes mellitus* eta *diabetes insipida* prozesuetan gertatzen da diuresia. *ES:* Diuresis *FR:* Diurèse *EN:* Diuresis *Arloa:* Med.
- Diuresiaren kontrako:** izlag. (Sendagai bati buruz) Gernuaren eraketa saihesten duena edota hari aurka egiten diona. *ES:* Antidiurético *FR:* Agent antidiurétique *EN:* Antidiuretic agent *Oharrak:* Hipofisiaren aurreko zatiak ADH hormona jariatzen du. *Arloa:* Med.
- Diuretiko:** izond. (Gaiei buruz) Gernu-jarioa ugaritzen duena; odolean pilatutako gernua kentzen laguntzen dio giltzurrunari. *ES:* Diurético *FR:* Diurétique *EN:* Diuretic *Arloa:* Med.
- DNA:** Ikus 'azido desoxirribonukleiko'.
- Doako hartzaile:** iz. Beste baten gorputz-ehunak edo likidoak doan hartzen dituena. *ES:* Donatario
- Doktor:** 1. iz. Unibertsitateko ikasketa-sail baten maila gorena lortu duen pertsona. 2. iz. Hizkera arruntean, medikua, nahiz eta doktore-titulu akademikorik izan ez. *ES:* Doctor *FR:* Docteur *EN:* Doctor
- Doministiku:** iz. Erreflexuzko arnas botatze bortitz zaratatsua, ahotik eta sudur-zuloetatik egiten dena. *ES:* Estornudo *FR:* Eternuement *EN:* Sneeze
- Doministiku egin:** ad. Biriketako airea ahotik eta sudurretik bortizki jaurti. Goiko arnasbideetako muki-geruza narritatzean gertatzen da, hautsaren, polenaren edota birus-hanturen eraginez. *ES:* Estornudar *FR:* Eternuer *EN:* To sneeze
- Dopatu:** ad. Gai estimulatzaileak hartu edo eman, errendimendua hobetzeko. *ES:* Dopar *FR:* Doper *EN:* To dope
- Doping:** iz. Kirolarien artean, gai jakinen erabilera, errendimendu fisikoa artifizialki handitzeko; marka hobekak lortzea da helburua. *ES:* Doping *FR:* Dopage *EN:* Doping
- Dorsal:** izond. Bizkarrari edo atzeko aldeari dagokiona. *ES:* Dorsal *FR:* Dorsal *EN:* Dorsal *Arloa:* Anat.
- Dosi:** 1. iz. Botika edo gai terapeutiko baten neurri zehaztua; aldi bakoitzean ematen dena, bereziki. 2. iz. Erradiologia-saio batean, gaixoak masa unitateko xurgatzen duen energia kantitatea. *ES:* Dosis *FR:* Dose *EN:* Dose
- Dosifikagailu:** iz. Dosifikatzeko balio duen tresna. *ES:* Dosificador *FR:* Doseur *EN:* Dosimeter
- Dosifikatu:** ad. Zerbaiten kopurua edo neurria graduatu. *ES:* Dosificar *FR:* Doser *EN:* To dose
- Dosifikazio:** iz. Paziante bati eman beharreko gai terapeutikoaren neurria, maiztasuna eta dosia kontrolatzen dituen erregimena. *ES:* Dosificación *FR:* Dosage *EN:* Dosage
- Dosimetria:** 1. iz. Dosi sendagarrien mugatzea; gorputzaren neurrian, sexuan eta beste faktore batzuetan oinarritzen da. 2. iz. Erradiazio ionizatzaile iturri batetik datorren erradioaktibitatearen abiaduraren, zenbatekoaren eta banaketaren zehaztapena; xurgatutako erradiazioaren neurketa. *ES:* Dosimetría *FR:* Dosimétrie *EN:* Dosimetry *Oharrak:* X izpien dosiaren neurketa.
- Dositu:** ad. Ikus 'dosifikatu'.
- Dositze:** iz. Ikus 'dosifikazio'.
- Dotazio:** 1. iz. Zerbitzu bati esleitutako kide kopurua. 2. iz. Kromosoma multzoa; organismo baten herentziazko hornidura osatzen du. *ES:* Dotación
- Down-en sindrome:** iz. 21. kromosomaren trisomiak eragindako sindromea; burezur txikia, alde okzipital laua, falange laburrak, buru-atzerapena eta kardiopatiak ditu ezaugarri, besteak beste. *ES:* Síndrome de Down *FR:* Syndrome de Down *EN:* Down's syndrome
- Drainadura:** iz. Ikus 'drainatze'.
- Drainatu:** ad. Isurkariak kanporatu barrunbe batetik, nahiz zauri edo abzesu batetik. *ES:* Drenar *FR:* Drainer *EN:* To drain *Arloa:* Med.
- Drainatze:** 1. iz. Prozedura tekniko; likidoak atezatzen dira gorputzeko barrunbe edo zauri batetik. 2. iz. Hodi zein irekigunea, gorputzeko barrunbe edo zauri batetik airea nahiz edozein isurkari kanporatzea helburu duena. Sistema irekia edo itxia izan daiteke. *ES:* Drenaje *FR:* Drainage *EN:* Drainage *Arloa:* Med.
- Droga:** 1. iz. Hainbat gairen izen generikoa; medikuntzan, industrian, eta abarretan erabiltzen dira. 2. iz. Gai psikotropo natural edo sintetiko; nerbio-sistema zentralari eragiten dio, eta, hartzen hasiz gero, mendekotasuna sorrarazten du. 3. iz. Mendekotasun fisikoa eragiten duen gaia. *ES:* Droga *FR:* Drogue *EN:* Drug
- Drogadikto:** izond. Ikus 'drogazale'.
- Drogadikzio:** iz. Ikus 'drogazaletasun'.
- Drogaki:** iz. Ikus 'estupezafiziente'.
- Droga-mendeko:** izlag. Ikus 'drogazale'.
- Droga-mendekotasun:** iz. Ikus 'drogazaletasun'.

- Drogatu:** ad. Drogak, bizigarriak, lasaigarriak, nar-  
kotikoak edota haluzinogenoren bat hartu edo  
eman. *ES:* Drogar
- Drogazale:** izond. Drogarekiko mendekotasuna  
duena. Fisikoa edo psikikoa izan daiteke mende-  
kotasun hori. *ES:* Drogadicto, toxicómano, dro-  
godependiente *FR:* Toxicomane *EN:* Drug addict
- Drogazaletasun:** iz. Drogak hartzeko ohitura  
saihetsezina. Fisikoa edo psikikoa izan daiteke  
mendekotasuna. *ES:* Drogadicción, drogodepen-  
dencia *FR:* Dépendance de la drogue *EN:* Drug  
dependency
- Duodenal:** izond. Duodenoari dagokiona. *ES:*  
Duodenal *FR:* Duodenal *EN:* Duodenal
- Duodeno:** iz. Heste meharraren lehen atala; zatirik  
laburrena eta zabalena da. Urdailaren eta jeju-  
noaren artean dago. U, G nahiz ilargi-erdi itxura  
du, pankrearen burua inguratzen du, eta hara  
iristen dira koledokoa eta hodi pankreatikoa. *ES:*  
Duodeno *FR:* Duodénum *EN:* Duodenum *Oba-  
rrak:* Hamabi hatzeko luzera du, gutxi gorabehe-  
ra, duodenoak; horregatik ematen zaio izen hori.  
*Arloa:* Anat.
- Duodenoko:** izlag. Ikus 'duodenal'.
- Duramater:** iz. Entzefaloa eta bizkarrezur-muina  
estaltzen dituzten hiru meningeetatik kanpokoe-  
na; lodiena eta zuntzuena da. *ES:* Duramadre  
*FR:* Dure-mère *EN:* Dura mater *Arloa:* Anat.

# E

.....

**Ebaki:** ad. Gorputz bat tresna ebakitzaile batez sattu, irekigune bat egiteko, edo zati bat erauzteko. *ES:* Cortar *FR:* Couper *EN:* To cut

**Ebaki:** 1. iz. Ehunak ebakitzearen ondoriozko zauri kirurgikoa. Tresna zorrotz batez egiten da, irekigune baten bidez gorputzeko ehun edo organo jakin batera iristeko. *ES:* Incisión *FR:* Incision *EN:* Incision *Arloa:* Med. 2. iz. Zerbaiten jarraitutasunean egiten den etena. *ES:* Corte, sección *FR:* Coupe *EN:* Cut

**Ebakidura:** iz. Ikus 'ebaki'.

**Ebakortz:** iz. Hortz ebakitzailea; ahoaren aurrealdean dago. Zortzi ebakortz izaten dira; hortz-arku bakoitzeko, lau. Edoskitzaroan ateratzen dira, esne-hortz gisa. Hala ere, erori egiten dira haurtzaroan, eta behin betiko ebakortzak iritelen dira haien orde. Zorrotza da ebakortzaren ko-roaren ertzetariko bat, eta elikagaiak mozteko balio du. Behekoak baino handiagoak eta sendoagoak dira goiko ebakortzak, eta aurrerantz eta beheerantz daude. *ES:* Diente incisivo *FR:* Dens incisivi *EN:* Incisive teeth

**Ebakuntza:** iz. Ekintza terapeutikoa; eskuzko eragiketa bidez edo tresna bidez egiten da pertsonaren gorputzean, gutxi gorabehera definitutako printzipio kirurgikoei eta araututako teknikei jarraituz. *ES:* Intervención *FR:* Intervention *EN:* Intervention *Arloa:* Med.

**Ebakuntza aurreko:** izlag. Ebakuntza kirurgiko baten aurreko aldiari dagokiona. Kirurgiarako lehenengo prestakuntzekin hasten da ebakuntza aurreko aldia; debekatu egiten da programatutako ebakuntza baino hamabi ordu lehenagotik elikagaiak eta likidoak irenstea. Ebakuntza-gelan amaitzen da, anestesia ematean. *ES:* Preoperatorio *FR:* Préopératoire *EN:* Preoperative *Arloa:* Med.

**Ebakuntza egin:** ad. Gorputzean zauri bat egin, helburu terapeutikoarekin, eta printzipio kirurgikoei eta araututako teknikei jarraituz. *ES:* Operar

**Ebakuntza kirurgiko:** iz. Kirurgia-ekintza; zati hondatu bat erauzteko edo osatzeko egiten da, gorputz bizardunetan. *ES:* Intervención quirúrgica *FR:* Opération chirurgicale *EN:* Surgical operation *Arloa:* Med.

**Ebakuntza ondoko:** izlag. Kirurgia ondorengo aldiari dagokiona. Pertsona anestesiatik esnatzean

hasten da, eta anestiaren berehalako efektuak nahiz ebakuntza kirurgikoaren ondoriozkoak desagertu arte irauten du. *ES:* Postoperatorio *FR:* Postopératoire *EN:* Postoperative *Arloa:* Med.

**Ebakuntza osteko:** izlag. Ikus 'ebakuntza ondoko'.

**Ebakuntza-gela:** iz. Gela multzoa edo gunea, gai-xoak ebakuntza kirurgikorako prestatzeko, eta ebakuntza egiteko. Ebakuntza-gela egokitzerakoan, bereziki zaindu beharrekoak dira asepsia eta argi-sistemak. *ES:* Quirófano, sala de operaciones *FR:* Salle d'opération *EN:* Operating room

**Edabe:** iz. Ezaugarri bereziren bat duen edaria, sendagarria bereziki. *ES:* Bebaje *FR:* Breuvage

**Edateko ur txar:** iz. Edateko ezaugarri egokiak ez dituen ura. *ES:* Agua no potable

**Edema:** iz. Likido gehiegiren pilaketa larruazalpean eta zelulartean. Gorputz-ehunetako hantura gertatzen da, ehun konjuntiboetako bereziki. Gibe-leko, giltzurrunetako eta bihotzeko eritasunen ezaugarri da, baita plasmaren proteina-urritasunarena ere; halaber, tumor batek ehunak hautsi dituela ere adierazten du. *ES:* Edema *FR:* Oedème *EN:* Edema *Arloa:* Med.

**Eden:** iz. Ikus 'pozo'.

**Edendu:** ad. Ikus 'pozoitu'.

**Edendun:** izond. Ikus 'pozoitsu'.

**Edendura:** iz. Ikus 'pozidura'.

**Ediporen konplexu:** iz. Haurrak gurasoekiko dituen maitasun- eta etsaigo-sentimenduen multzoa. Positiboa denean, bere sexu bereko guraso-arekiko etsaigo-sentimenduak izaten ditu haurrak, eta maitasun-grina beste sexuko guraso-arekiko; negatiboa denean, berriz, maitasun-grina izaten du sexu bereko guraso-arekiko, eta etsaigo-sentimenduak beste sexuko guraso-arekiko. Funtsezkoa da nortasuna egituratzeko eta giza grina bideratzeko. *ES:* Complejo de Edipo *FR:* Complexe d'Oedipe *EN:* Oedipus complex *Arloa:* Psikol.

**Ediren:** ad. Ikus 'aurkitu'.

**Edoski:** ad. Ikus 'bularra hartu'.

**Edoskialdi:** iz. Aldi bakar batean edoskitako esne kantitatea. *ES:* Mamada

**Edoskitzaile:** iz. Ikus 'bularreko haur'.

**Edoskitze:** iz. Ikus 'edoskialdi'.

**Edulkoratu:** ad. Zapora desatseginetako edo zapora-rik gabeko edozein produktu gozatu, gai natura-

- lekin edo sintetikoekin. *ES:* Edulcorar *FR:* Dulcifier *EN:* To sweeten
- Edulkoratzaile:** izond. (Gai bati buruz) Elikagaiak edo botikak gozatzan dituen. *ES:* Edulcorante *FR:* Édulcorant *EN:* Sweetening agent *Oharrak:* Oro har, gai edulkoratzaileak azukrearen ordezkotzat sintetikotzat hartzen dira, nahiz eta, berez, 'gozagarri'-ren sinonimo izan 'edulkoratzaile' hitza. Aspartamoa da edulkoratzaile sintetiko ezagunenatariko bat.
- Eferbeszente:** izond. Eferbeszentzia-egoeran dagoena edo egon daitekeena; gas-burbuilak sortzen dituena. *ES:* Efervescente *FR:* Effervescent *EN:* Effervescent
- Eferbeszentzia:** iz. Likido batean disolbatutako gasak askatzaren ondorioz, burbuila txikiak edo aparra irteteko fenomeno. *ES:* Efervescencia *FR:* Effervescence *EN:* Effervescence
- Eferente:** izond. Irtean dena, hodi, zain edota nerbioetatik; halakoek eramaten dituzte odola, jarioak eta bulkadak organo edo nerbiogune batek periferian dauden beste atal batzuetara. *ES:* Eferente *FR:* Efférent *EN:* Efférent
- Efloreszente:** izond. Hauts bilakatzeko gai dena, kristalizazio-ura galtzeagatik nahiz erreazio baten ondorioz. *ES:* Eflorescente *FR:* Efflorescent *EN:* Efflorescent *Arloa:* Kim.
- Efloreszentzia:** 1. iz. Gai bat hauts bihurtzeko prozesua, solido kristalinoek kristalizazio-ura galtzearen ondoriozkoa. *Arloa:* Kim. 2. iz. Larruzaleko ageriko lesioa; negela. Gorputz osoan ager daitekeen arren, aurpegian izaten da bereziki. *ES:* Eflorescencia *FR:* Efflorescence *EN:* Efflorescence *Arloa:* Med.
- Eflubio:** iz. Gasa edo lurrina irtetearen ondorioz; kirastuna edo toxikoa izaten da, gehienetan. *ES:* Efluvio *EN:* Effluvium
- Egarri:** iz. Ura edo beste likidoren bat hartzeko gogo. Ahoan eta eztarrian izaten da, eskuarki, egarri-sentsazioa. *ES:* Sed *FR:* Soif *EN:* Thirst
- Egiatzapen:** iz. Ikus 'ziurtapen'.
- Egiatzatu:** ad. Ikus 'ziurtatu'.
- Egiatzatze:** iz. Ikus 'ziurtapen'.
- Eginbide:** iz. Ikus 'prozedura'.
- Eginezin:** izond. Ikus 'bideraezin'.
- Egingarri:** izond. Ikus 'bideragarri'.
- Egitura:** 1. iz. Zerbaiten banaketa eta ordena. 2. iz. Gorputzeko ehunak, organoak edo gorputza bera antolatze modua. *ES:* Estructura *FR:* Structure *EN:* Structure
- Egiturazko:** izlag. Objektu nahiz organismo bat osatzen duten zatien antolaketari dagokiona. *ES:* Estructural *FR:* Structural *EN:* Structural
- Ego:** iz. Freuden psikoanalisian, *ni* izenordainez adierazten den instantzia psikikoa. Gizabanakoaren defentsa ahalbidetzen du, errealitatearen eta pultsioen aurka. *ES:* Ego *FR:* Ego *EN:* Ego *Arloa:* Psikol.
- Egoera:** 1. iz. Zerbait edo norbait nola dagoen adierazten duen ezaugarri-bilduma. 2. iz. Gaixotasun baten aldi jakin bat; aldi horretan, sintomak intentsitate handiagoa dute. *ES:* Estado *FR:* État *EN:* Status
- Egoki:** izond. Helburu bat lortzeko mesedegarria dena. *ES:* Propicio *FR:* Propice, favorable *EN:* Suitable, propitious
- Egokiera:** iz. Ingurumenera moldatzeko gizabanakoak egiten duen prozesu edo ahalegin etengabea; beharrezkoa da homeostasia —fisiologikoa nahiz psikologikoa— mantentzeko. *ES:* Acomodación *FR:* Accommodation *EN:* Accommodation *Arloa:* Psikol.
- Egonaldi:** iz. Norbait nonbait egoten den aldia. *ES:* Estancia *FR:* Séjour *EN:* Stay *Adibideak:* Gaixotasun bat tratatzeko, ospitalean egiten den denbora.
- Egonezin:** iz. Ikus 'ondoez'.
- Egonkor:** izond. Lekuz, itxuraz edota bolumenez aldatzen ez dena. *ES:* Estable, estacionario *FR:* Stable *EN:* Stable, steady
- Egonkortu:** ad. Egonkor bihurtu, egonkortasuna eman. *ES:* Estabilizar *FR:* Stabiliser *EN:* To stabilize
- Egonkortzaile:** izond. Egonkortzen duena. *ES:* Estabilizador, estabilizante *FR:* Stabilisateur *EN:* Stabilizer *Oharrak:* Janariak iraun dezaten erabiltzen dira, besteak beste, egonkortzaileak.
- Egonkortze:** iz. Homeostasia lortzeko prozesu fisiologiko eta metabolikoa. *ES:* Estabilización *FR:* Stabilisation *EN:* Stabilization
- Egotzi:** ad. Ikus 'kanporatu'.
- Egozentriko:** izond. Bere burua esperientzia guztien helburu eta ardaztat hartzen duena, eta beste beharrak, interesak, ideiak eta jarrerak kontuan hartzen ez dituena. *ES:* Egocéntrico *FR:* Égocentrique *EN:* Egocentric *Arloa:* Psikol.
- Egozentrismo:** iz. Jarrera psikologikoa; haren ezaugarri dira: nor bere burua arretaren nahiz ekin-tza orokorren ardaztat izatea, eta norberaren errealitatea eta errealitate objektiboa ez bereiztea. Norberaren burua beste guztien gainetik ikustera eramaten du egozentrismoak. *ES:* Egocentrismo *FR:* Égocentrisme *EN:* Egocentrism *Arloa:* Psikol.
- Egozte:** iz. Ikus 'kanporatze'.
- Eguzki-ukaldi:** iz. Ikus 'intsolazio'.
- Ehun-:** (Hitz elkartuetan) Ehunari dagokiona. *ES:* Tisular *FR:* Tissulaire *EN:* Tissue *Arloa:* Biol.
- Ehun:** iz. Zelula multzoa; funtzio eta morfologia bereko zelulak elkartuz eratzen dira ehunak. *ES:* Tejido *FR:* Tissu *EN:* Tissue *Arloa:* Biol.
- Ehun adenoide:** iz. Ikus 'sare-ehun'. *ES:* Tejido adenoideo

**Ehun adiposo:** iz. Gantz-zelulaz —zelula adiposo— osaturiko ehuna. *ES:* Tejido adiposo *FR:* Tissu adipeux *EN:* Adipose tissue

**Ehun adiposo arre:** iz. Gantz-ehun berezia; enbrioidalian sortzen da, gorputzeko gune jakinetan. Pigmentu ilun bat dauka, kolorea ematen diona, eta beroa ekoiztea du eginkizun. *ES:* Tejido adiposo pardo *FR:* Graisse brune *EN:* Brown adipose tissue

**Ehun epitelial:** iz. Elkar ukitzen duten zelulez eratutako ehuna; organismoan dauden lau oinarrizko ehunetako bat da. Zapalak edo zilindrikoak izan daitezke epitelioko zelulak, tartean ez dute ia materiarik izaten, eta geruza bakarreko nahiz anitzeko mintz etengabea eratzen dute. Gorputza eta barrunbeak estaltzen dituzte, odol- eta linfahodiak izan ezik. *ES:* Tejido epitelial *FR:* Tissu épithélial *EN:* Epithelial tissue *Arloa:* Biol.

**Ehun konektibo:** iz. Gorputzeko hainbat ehun eta atalen euskarri eta elkartzaile den ehuna. Ehun konektibo motak dira: hezurra, kartilagoa eta ehun konjuntibo zuntzua. Ehun konektiboa mesodermotik eratorria da. *ES:* Tejido conectivo *FR:* Tissu conjonctif *EN:* Connective tissue *Arloa:* Biol.

**Ehun konjuntibo:** iz. Ikus 'ehun konektibo'. *ES:* Tejido conjuntivo

**Eiakulatu:** ad. Likido bat indarrez kanporatu. Barrabiletatik kanporatutako espermaz esaten da, batik bat. *ES:* Eyacular *EN:* To ejaculate

**Eiakulazio:** iz. Semenaren bat-bateko jariora, uretratik; koitoan, masturbazioan edota gaueko isurketetan gertatzen da, eskuarki. Orgasmoarekin batera izan ohi da eiakulazioa. *ES:* Eyaculación *FR:* Éjaculation *EN:* Ejaculation

**Eiakulazio azkar:** iz. Bizkorregi gertatzen den eiakulazioa; sexu-harremanean sorturiko antsietateak eragiten du sarritan. *ES:* Eyaculación precoz *FR:* Ejaculation précoce *EN:* Premature ejaculation

**Eiekzio:** iz. Zerbait indarrez kanporatu; esate baterako, odola bihotzeko bentrikulutik kanporatu. *ES:* Eyección *FR:* Éjection *EN:* Ejection

**Eite:** iz. Ikus 'itxura'.

**Ekimosi:** iz. Larruazaleko edo mukosetako gune baten kolorearen asaldua; odola zainetatik irten eta larruazalpeko ehunetara igarotzearen ondorioz gertatzen da. *ES:* Equimosis *FR:* Ecchymose *EN:* Ecchymosis *Arloa:* Med.

**Ekografia:** 1. iz. Ultrasoineuen bidez diagnosi-irudiak lortzeko teknika; ultrasoinuak organoetan islatu, eta monitore batean ikusiz egiten da. 2. iz. Egoera afasikoa; gaixoak idatziak kopia ditzake, baina ez bere ideia propioak idatzi. *ES:* Ecografía *FR:* Échographie *EN:* Echography *Arloa:* Med.

**Ekolalia:** iz. Entzuten diren soinuak errepikatzea ezaugarri duen asaldua; nahi gabekoa eta luzea

izaten da. *ES:* Ecolalia *FR:* Écholalie *EN:* Echolalia *Oharrak:* Eskizofrenian, eromen-kasuetan edo garuneko hodiren bat hondatzen denean gertatu ohi da. *Arloa:* Med.

**Ektima:** iz. Dermatosi mota; ezaugarri du oinarri gogorra duten pustula biribildu eta zabalen negela. Hanturazko gune batek inguratzen ditu pustulak. *Pseudomonas aeruginosa*, estafilokokoak eta estreptokokoak dira bakterio eragileak. Hasieran, hantura izaten da estali gabeko gorputz ataletan (eskuetan, aurpegian...), eta ezkatetz estalitako pikorrak azaltzen dira ondoren. *ES:* Ectima *FR:* Ecthyma *EN:* Ecthyma *Oharrak:* Ardiekin lan egiten dutenek izaten dute dermatosi mota hori. *Arloa:* Med.

**Ektodermo:** iz. Blastodermoaren kanpoko geruza; bertatik sortzen dira epidermisa, zentzumen-organoak eta nerbio-sistema. *ES:* Ectodermo *FR:* Ectoderme *EN:* Ectoderm *Arloa:* Zool.

**Ektomorfo:** iz. Gizakume mota bat, giza gorpuzkeraren sailkapen biologikoaren arabera; ektodermotik eratorritako egiturak dira nagusi horrelako gizakiengan. *ES:* Ectomorfo

**Ektoparasito:** iz. Ostalariaren organismoaren kanpoaldean bizi den parasitua. *ES:* Ectoparasito *FR:* Ectoparasite *EN:* Ectoparasite *Adibideak:* Zorriak. *Arloa:* Ekol.

**Ektopia:** iz. Organo nahiz gai bat dagokion lekuan ez egotea ezaugarri duen asaldua. Jaiotzetikoa edota gerora sortutakoa izan daiteke. *ES:* Ectopia *FR:* Ectopie *EN:* Ectopia *Oharrak:* Haurdunaldi ektopikoa da umetokitik kanpora gertatzen den haurdunaldia. *Arloa:* Med.

**Ektoplasma:** iz. Zitoplasmaren kanpoko geruza; trinkoa eta hialinoa da, eta organismo zelulabakarrena, bereziki. *ES:* Ectoplasma *FR:* Ectoplasme *EN:* Ectoplasm *Oharrak:* Ektoplasmaz baliatzen dira, higitzeko, zelula bakarreko zenbait animalia (higidura ameboidea duten zelulak, adibidez). *Arloa:* Biol.

**Ekzema:** iz. Larruazaleko lesio akutua eta kronikoa. Hainbat eragile ditu, eta era askotako lesioak eragin ditzake: eritema, besikulazioa, exudazioa, edema, sukarra, eta abar. Larruazalaren erreakzio bat da, gai sumingarrien edo zenbait alergiaren aurrean. *ES:* Eccema, eczema *FR:* Eczéma *EN:* Eczema *Arloa:* Med.

**Elastiko:** izond. Kanpoko eragile mekanikoen ondorioz jatorrizko itxura galdu eta, ondoren, itxura hori berriz berreskuratzeko gai dena. *ES:* Elástico *FR:* Élastique *EN:* Elastic

**Elastikotasun:** iz. Ehunek duten gaitasuna beren jatorrizko itxura eta neurria berreskuratzeko; luzatu, estutu edota beste edozein eratan desitxuratu ondoren gertatzen da hori. *ES:* Elasticidad *FR:* Élasticité *EN:* Elasticity



- Elastomero:** iz. Material natural edo sintetikoa, elastikotasun, kohesio eta harikortasun handikoa. Esate baterako, kautxua, poliuretanoa, silikona, eta abar. *ES:* Elastómero *FR:* Élastomère *EN:* Elastomer *Arloa:* Kim.
- Elbarri:** izond. Ikus 'ezindu'.
- Elbarritasun:** iz. Ikus 'paralisi'.
- Elbarritu:** ad. Elbarri gelditu. *ES:* Lisiar
- Eldarnio:** iz. Ikus 'delirio'.
- Eldarnioak izan:** ad. Burua nahasia izan, gaixotasun edo grina bortitz baten ondorioz. *ES:* Delirar
- Elefantiasi:** iz. Gorputz-adarren hazkuntza patologikoa. Linfa-hodietako gaixotasunen —batik bat— nahiz filariosi-lesioen ondorioz gertatzen da. *ES:* Elefantiasis *FR:* Éléphantiasis *EN:* Elephantiasis *Arloa:* Med.
- Elektrobalentzia:** iz. Ioi baten balentzia; ioiak bere kargaren balio osoaren berdina du balentzia. Elektrobalentziak adierazten du zenbat karga positibo eta zenbat negatibo dituen ioi batek disoluzio batean. *ES:* Electrovalencia *FR:* Électrovalence *EN:* Electrovalence
- Elektrodo:** 1. iz. Elektrizitate-eroalea. Elektrodoan zehar, ingurune batean sartzen da korrante elektrikoa; ingurune hori solidoa, masa urtua, gasa, hutsa edo soluzio elektrolitikoa izan daiteke. *Arloa:* Fis. 2. iz. Korrante elektrikoaren eroale den elementua; nerbio-sistema, giharrak, larruazala edota erriak kitzikatzeke erabiltzen da. *ES:* Electrodo *Arloa:* Med.
- Elektroentzefalografia:** iz. Garuneko uhinen jarduera erregistratzeko prozesua. Buruko larruazalean zenbat elektrodo jarri egiten da. Baliagarria da garuneko hainbat eritasunen eta asalduren diagnostikoa egin ahal izateko. *ES:* Electroencefalografía *FR:* Électroencéphalographie *EN:* Electroencephalography *Arloa:* Med.
- Elektroentzefalografo:** iz. Garuneko zelulek sorturiko potentzial elektrikoa jaso eta erregistratzen duen tresna elektrikoa. *ES:* Electroencefalógrafo *FR:* Électroencéphalographe *EN:* Electroencephalograph *Arloa:* Med.
- Elektroentzefalograma:** iz. Entzefalografiaren erregistro grafikoa; garezurrean elektrodo egokiak ipiniz lortzen da. *ES:* Electroencefalograma *FR:* Électroencéphalogramme *EN:* Electroencephalogram *Oharrak:* Hainbat prozesuren diagnostikoan erabiltzen da: epilepsia, traumatismoak, tumorrak eta garuneko endekapenak. *Arloa:* Med.
- Elektroforesi:** iz. Disoluzio bateko partikulen higadura; eremu elektrikoaren eraginez gertatzen da. Aurkako aldeetarantz mugitzen dira karga positibodun eta negatibodun partikulak, partikula horiek duten kargaren eta neurriaren araberako abiaduran. *ES:* Electroforesis *FR:* Electrophorèse *EN:* Electrophoresis *Arloa:* Kim.
- Elektrogeno:** izond. Elektrizitatea sortzen duena. *ES:* Electrógeno *FR:* Électrogène *EN:* Electricity generator
- Elektroi:** iz. Elektrizitate negatibodun unitate edo partikularik txikiena. *ES:* Electrón *FR:* Électron *EN:* Electron *Arloa:* Kim.
- Elektroizale:** izond. Talde nahiz konposatua, erreakzio batean elektrooi bikote bat hartzeko joera duena. *ES:* Electrófilo *FR:* Électrophile *EN:* Electrophilic *Arloa:* Kim.
- Elektroizaletasun:** iz. Talde nahiz konposatu batek elektrooi bikote bat hartzeko duen joera. *ES:* Electrófilia *FR:* Électrophilie *EN:* Electrophilicity *Arloa:* Kim.
- Elektrokardiografia:** iz. Bihotzaren jarduerak eragindako korrante elektrikoaren erregistro grafikoa egiteko metodoa. Elektrokardiogramak erregistratzen eta interpretatzen ditu. *ES:* Electrocardiografía *FR:* Électrocardiographie *EN:* Electrocardiography *Arloa:* Med.
- Elektrokardiografo:** iz. Bihotzaren jarduera elektrikoa erregistratzeko erabiltzen den tresna; ez-ohiko kinadak atzemateko erabiltzen da. Bihotzeko zenbait asalduren diagnostikoa egiten laguntzen du elektrokardiografoak. *ES:* Electrocardiografo *FR:* Électrocardiographe *EN:* Electrocardiograph *Arloa:* Med.
- Elektrokardiograma:** iz. Bihotzaren jarduerak sortutako korrante elektrikoaren erregistro grafikoa. *ES:* Electrocardiograma *FR:* Électrocardiogramme *EN:* Electrocardiogram *Arloa:* Med.
- Elektrokutatu:** ad. Korrante edo deskarga elektriko baten ondorioz hil. *ES:* Electrocutar *FR:* Électrocuter *EN:* To electrocute
- Elektrokuzio:** iz. Korrante elektrikoak eragindako heriotza, hura gorputzean zehar igarotzearen ondoriozkoa. *ES:* Electrocción *FR:* Électrocution *EN:* Electrocutation
- Elektrolisi:** iz. Elektrolito batean zehar korrante elektrikoa igarotzeko prozesua. Aldaketa kimikoak gertatzen dira, ondorioz, elektrodoetan. Katodoetatik sartu eta anodoetatik irteten dira elektrooiak. *ES:* Electrólisis *FR:* Électrolyse *EN:* Electrolysis *Arloa:* Kim.
- Elektrolitiko:** izond. Elektrolisari dagokiona. *ES:* Electrolítico *FR:* Électrolytique *EN:* Electrolytic *Arloa:* Kim.
- Elektrolito:** iz. Gai urtu bat edo ur-disoluzio batean disolbatutako gai bat, korrante elektrikoa igarotzea ahalbidetzen duena. Elektrolito deritza, bereziki, ingurune urtsu batean elektrikoki kargaturiko partikuletan ionizatzen nahiz disoziatzen den konposatuari. Era horretan, handitu egiten du disoluzioaren eroankortasun elektrikoa. Metabolismo normala izateko, ezinbestekoak dira elektrolito nagusien kopuru egokia eta

- haien arteko oreka. *ES*: Electrolito *FR*: Électrolyte *EN*: Electrolyte *Arloa*: Kim.
- Elektroshock**: iz. Korronte elektrikoarekin kontaktuan egoteak eragindako shocka. Erredurek, traumatismoek edota tronbosi koronarioek eragindako shockaren antzekoak dira elektroshockaren sintomak. Korronte etenezko deskarga txikiak garunetik igaroaraziz egiten da, denbora laburrez (2-3 segundo hamarren). Hainbat psikosiren tratamenduan erabiltzen da. *ES*: Electrochoque, electroshock *FR*: Électrochoc *EN*: Electroshock *Arloa*: Med.
- Elektroterapia**: iz. Fisioterapiaren adarra; elektrizitatea erabiliz egin daitezkeen tratamenduak aztertzen ditu. *ES*: Electroterapia *FR*: Électrothérapie *EN*: Electrotherapy *Arloa*: Med.
- Elementu**: iz. Gorputz sinplea, kimikak deskonposatu ezin duena. 103 elementu ezagutzen dira, orain arte. Zenbaki atomiko bera duten atomoen osatutako gaia da. *ES*: Elemento *FR*: Élément *EN*: Element *Arloa*: Kim.
- Elgorri**: iz. Gaixotasun biriko akutua; oso kutsagarria da, eta arnasbideei erasaten die. Larruazaleko exantema du ezaugarri, txertoa hartu gabeko haur txikietan, batez ere. *Paramyxovirus* batek eragiten du elgorria, eta kontaktu zuzenez kutsatzen da gaixoaren ahoko, sudurreko edota ez-tarriko tantatxoen bidez. 1-2 aste irauten du inkubazioaldiak. Inbasioaldian, aldi kutsagarrian, hainbat sintoma agertzen hasten dira: sukarra, koriza, konjuntibitisa, bronkitisa —sarritan— eta, ondoren, Koplik-en orbanak masailen barneko aldean. Handik 3-4 egunera azaltzen da negela; aurpegiaren lehenik, eta lepoan, toraxean eta gorputz-adarretan ondoren. 3-5 egunetan joaten da sukarra, lesioak zapalago bihurtzen dira, eta kolore arreagoa hartzen dute. *ES*: Sarampión *FR*: Rougeole *EN*: Measles *Arloa*: Med.
- Elikadura**: iz. Bizitza mantentzeko oinarritzakoak diren elikagaiak ematea edo hartzea. *ES*: Alimentación *FR*: Alimentation *EN*: Alimentation
- Elikagabe**: izond. Gaizki elikatua. *ES*: Desnutrido *FR*: Dénutri *EN*: Undernourished
- Elikagai**: iz. Gai elikagarria; eragina du gorputzeko metabolismo-prozesuetan. *ES*: Nutriente *FR*: Nutriment, nutritif *EN*: Nutrient *Arloa*: Biol.
- Elikagarri**: izond. Elikatzen duena. *ES*: Nutritivo *FR*: Nutritif *EN*: Nutritive
- Elikatu**: ad. Bizitza mantentzeko oinarritzakoak diren elikagaiak eman edo hartu. *ES*: Nutrir *FR*: Nourrir *EN*: To nourish
- Elixir**: iz. Isurkari argia; ura, alkohola, zaporea, gozagarriak, eta abar ditu. Ahotik sendagaiak emateko erabiltzen da, batez ere. *ES*: Elixir *FR*: Élixir *EN*: Elixir
- Elkartu**: ad. Ikus 'aglutinatu'.
- Emagin**: iz. Osasun-profesionala; haurdunaldiaz, erditzeaz eta erditze osteko zainketez arduratzen da. *ES*: Comadrona, matrona *FR*: Matrone *EN*: Midwife
- Emaille**: izond. Organoren bat, odola eta abar doan ematen duena. *ES*: Donante *FR*: Donateur *EN*: Donor
- Eman**: ad. Gorputzaren zati bat eskaini, ordain-trukerik gabe. Adibidez, bizkarrezur-muina. *ES*: Donar
- Emankor**: 1. izond. Ondorengoak sortzeko gai dena. 2. izond. (Gametoi buruz) Ernalketa eragiteko nahiz ernaldia izateko gai dena. *ES*: Fétil *FR*: Fertile *EN*: Fertile
- Emankortasun**: iz. Ugaltzeko gaitasuna. *ES*: Fertilidad *FR*: Fertilité *EN*: Fertility
- Emankortu**: ad. Emankor bihurtu. *ES*: Fecundizar *EN*: To make fertile
- Ematu**: ad. Ikus 'arindu'.
- Ematutu**: iz. Ikus 'bagina'.
- Eme**: izond. (Izaki bizidunei buruz) Ugal-aparatu femeninoak dituena, eta obuluak ekoizten dituen. *ES*: Hembra *FR*: Femelle *EN*: Female
- Emetiko**: izond. Gorakoa eragiten duena. *ES*: Emético *FR*: Émétique *EN*: Emetic *Arloa*: Med.
- Emoliente**: izond. (Gai bati buruz) Ehunak biguntzen dituena; batik bat larruazala eta mukosak biguntzen ditu. *ES*: Emoliente *FR*: Émollient *EN*: Emollient *Arloa*: Med.
- Emozio-**: (Hitz elkartuetan) Ikus 'emoziozko'.
- Emozio**: iz. Sentimendu bizi eta laburra, jarrera zein keinu bereizgarriak ezaugarri dituena. Eragin handia du organo askotan, haien funtzioa gehitu, asaldatu edota murriztu egiten baitu. *ES*: Emoción *FR*: Émotion *EN*: Emotion *Arloa*: Psikol.
- Emoziozko**: 1. izlag. Emozioa eragiten duena. 2. izlag. Emozioari dagokiona. *ES*: Emotivo, emocional *FR*: Émotif *EN*: Emotive
- Emultsio**: iz. Nahasten ez diren bi likido dituen sistema; bata tanta txikitan barreiatzen da beste. *ES*: Emulsión *FR*: Émulsion *EN*: Emulsion *Arloa*: Kim.
- Emultsionagailu**: iz. Gantzak beste gai batzuekin nahasten dituen tresna. *ES*: Emulsor *FR*: Émulsionneur *EN*: Emulsifier
- Emultsionatu**: ad. Likido bat beste batean barreiatu, eta esekidura koloidal bat sortu. Behazuna, esate baterako, agente emultsionatzailea da digestibidean; irentsitako gantzak lobulu txiki bilakatzen ditu. *ES*: Emulsionar *FR*: Émulsionner *EN*: To emulsify *Arloa*: Kim.
- Emultsionatzaile**: 1. izond. (Gai bati buruz) Gantzen emultsioa ahalbidetzen duena. *ES*: Emulsificante, emulsionante *FR*: Émulsifiant *EN*: Emulsifier *Arloa*: Kim.

- Enantiomero:** iz. Isomero optiko baten bi formetako edozein. *ES:* Enantiómero *FR:* Énantiomère *EN:* Enantiomer *Arloa:* Kim.
- Enbolia:** iz. Hodi baten bat-bateko buxadura —arteria batena, batez ere —, odol-korronteak ekarritako gairen batek eragina. *ES:* Embolia *FR:* Embolie *EN:* Embolism *Arloa:* Med.
- Enbolo:** iz. Gorputz arrotza; hainbat izaera izan ditzake: gas- edo aire-bolumena, ehun edo tumor partikula, tumor zatia, eta abar. Odol-korrontean zehar joan, eta odol-hodiren bat buxatzen du. *ES:* Émbolo *FR:* Embole *EN:* Embolus *Arloa:* Med.
- Enbor:** 1. iz. Nerbio baten edo odol-hodi baten zati nagusia. 2. iz. Gune anatomiko bateko zati nagusia. 3. iz. Gorputzaren zatirik handiena; buroa eta gorputz-adarrak txertatzen dira hor. *ES:* Tronco *FR:* Tronc *EN:* Trunk *Arloa:* Anat.
- Enbriogenesi:** iz. Enbrioi-ehunen eta -organoen garapena. *ES:* Embriogénesis *FR:* Embryogénèse *EN:* Embryogenesis *Arloa:* Biol.
- Enbrioi-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'enbrionario'.
- Enbrioi:** iz. Garapenaren aldi goiztiarretan dagoen edozein organismo. *ES:* Embrión *FR:* Embryon *EN:* Embryo
- Enbrioi-zaku:** iz. Enbrioiaren garapenean eratzen den lehenengo zakua. *ES:* Saco embrionario *FR:* Sac embryonnaire *EN:* Embryo sac *Arloa:* Anat.
- Enbriozko:** izlag. Ikus 'enbrionario'.
- Enbriologia:** iz. Biologiaren adarra; organismoaren garapena aztertzen du, ernalketa gertatu den unetik jaino arte. *ES:* Embriología *FR:* Embryologie *EN:* Embryology *Arloa:* Biol.
- Enbrionario:** izond. Enbrioiari dagokiona. *ES:* Embrionario *FR:* Embryonnaire *EN:* Embryonic *Arloa:* Biol.
- Enbriopatia:** iz. Enbrioiaren gertatzen den asaldua, haren garapeneko lehen bi hilabeteetan, batez ere. Jaiotzean edo beranduago atzematen da, ageriko malformazioekin. *ES:* Embriopatía *FR:* Embryopathie *EN:* Embryopathy *Arloa:* Med.
- Endekapen:** iz. Zelulak eta gorputzaren funtzio normalak pixkanaka hondatuz joateko prozesua. *ES:* Degeneración *FR:* Dégénérescence *EN:* Degeneration *Arloa:* Med.
- Endekapenezko:** izlag. Degenerazioari edo egoera normalarekiko gutxiezigakoa nahiz disfuntzionala denari dagokiona. *ES:* Degenerativo *FR:* Dégénératif *EN:* Degenerative
- Endekatu:** ad. Nork bere espezie, arraza edo motaren berezko ezaugarriak galdu; ezaugarri onak galduz, okerragoa bihurtu. *ES:* Degenerar
- Endekatu:** izond. Endekapena jasan duena. *ES:* Degenerado *FR:* Dégénéré *EN:* Degenerate
- Endemia:** iz. Gehienetan infekziosoa den gaixotasuna; zenbait lurraldetan, urteko garai zehaztutan agertzen da, arrazoi jakinen ondorioz. Epidemia izatera hel daiteke. *ES:* Endemia *FR:* Endémie *EN:* Endemia *Adibideak:* Gaixotasun endemikoak dira, besteak beste, kolera eta paludismoa. *Arloa:* Med.
- Endemiko:** izond. (Gaixotasunei edo mikroorganismoiei buruz) Gune geografiko bati edo lurralde bati dagokiona. *ES:* Endémico *FR:* Endémique *EN:* Endemic *Arloa:* Ekol., Med.
- Endemikotasun:** iz. Ikus 'endemismo'.
- Endemismo:** iz. Endemikoa denaren ezaugarria. *ES:* Endemismo *FR:* Endémique *EN:* Endemic
- Endodermo:** iz. Enbrioi-diskoan garatzen diren zelula-geruzetatik barnekoena. Gorputzeko barrunbeen eta barne-organo gehienen estaldura osatzen du. *ES:* Endodermo *FR:* Endoderme *EN:* Endoderm
- Endoeskeleto:** iz. Nerbio-sistema babesten duten eskeleto zatiak; garezurra eta ornoak, bereziki. *ES:* Neuroesqueleto *EN:* Neuroskeleton *Arloa:* Biol.
- Endogeno:** izond. Organismoaren barruan sortzen dena, kanpoko faktoreen eraginik gabe. *ES:* Endógeno *FR:* Endogène *EN:* Endogenous
- Endokardio:** iz. Mintz endoteliala; bihotz-barrunbeak eta -balbulak estaltzen ditu barnetik. Odol-hodi txikiak eta gihar lisoaren zuntz gutxi batzuk ditu. *ES:* Endocardio *FR:* Endocarde *EN:* Endocardium
- Endokrino:** 1. izond. Odol- nahiz linfa-zirkulaziora gai jakin bat jariatzen duten zelulen multzoari dagokiona. Eragin zehatza izaten du gai horrek gorputzeko beste ataletako ehunetan. 2. izond. Hormonei edo zirkulaziora jariatutako gaiak dagokiena. *ES:* Endocrino *FR:* Endocrine *EN:* Endocrine
- Endokrinologia:** iz. Medikuntzaren adarra; barnejarioko guruinak aztertzen ditu. Sistema endokrinoaren anatomia, patologia eta fisiologia, eta asaldu endokrinoen tratamendua lantzen ditu. *ES:* Endocrinología *FR:* Endocrinologie *EN:* Endocrinology *Arloa:* Med.
- Endokrinologo:** iz. Endokrinologian aditua den biologo zein medikua. *ES:* Endocrinólogo *FR:* Endocrinologue *EN:* Endocrinologist *Arloa:* Med.
- Endolinfa:** iz. Barne-belarran, mintzezko labirintean dagoen likido argi eta albuminatsua. *ES:* Endolinfa *FR:* Endolymph *EN:* Endolymph *Arloa:* Zool.
- Endometrio:** iz. Umetoki-barrunbea estaltzen duen mukosa-mintza. Ehun bigun lodia da, odol-zain txikiz betea. Hilekoaren zikloak aldatketak eragiten ditu endometrioaren egituran eta lodieran. *ES:* Endometrio *FR:* Endomètre *EN:* Endometrium

- Endomorfo:** iz. Gizakume mota bat, giza gorpuzkeraren sailkapen biologikoaren arabera; endodermotik eratorritako egiturak dira nagusi horrelako gizakiengan, hala nola, gantz-chunak. W. Sheldon-ek deskribatutako tipo morfologikoa da; bereziki garatua du digestio-aparatua, eta itxura lodia eta biribila. *ES:* Endomorfo *FR:* Endomorphe *EN:* Endomorph
- Endoparasito:** iz. Bere ostalariaren barnean bizi den parasitoa. *ES:* Endoparásito *FR:* Endoparasite *EN:* Endoparasite *Adibideak:* Endoparasitoetan sailkatzen da, besteak beste, tenia. *Arloa:* Biol.
- Endoskopia:** iz. Gorputzeko barrunbe edo hodi baten azterketa zuzena; endoskopia bidez egiten da. *ES:* Endoscopia *FR:* Endoscopie *EN:* Endoscopy *Arloa:* Med.
- Endoskopia:** iz. Tresna optiko argiduna; gorputzeko barrunbe edo organo baten barneko aldea ikusteko balio du. Eskuarki gorputzeko zulo natural batetik sartzen den arren, gorputzeko guneren batean ebaki bat eginez ere sar daiteke. *ES:* Endoscopia *FR:* Endoscope *EN:* Endoscope *Arloa:* Med.
- Endosmosi:** iz. Difusio osmotikoz egiten den prozesua; isurkari bat barrunbe itxi batean sartzen da, mintz erdi iragazkor batean zehar, barrunbe horretan dagoen isurkariaren kontzentrazioa kanpokoarena baino handiagoa denean. *ES:* Endósmosis *FR:* Endosmose *EN:* Endosmosis *Arloa:* Biol.
- Endotelial:** izond. Endoteliokoa, edo hari dagokiona; endotelioren itxura duena. *ES:* Endotelial *FR:* Endothélial *EN:* Endothelial
- Endotelio:** iz. Epitelio-zelulaz osatutako geruza; bihotza, odol- eta linfa-hodiak, eta organismo baten serosoak estaltzen ditu. *ES:* Endotelio *FR:* Endothélium *EN:* Endothelium
- Endotermiko:** izond. (Prozesu fisiko edo kimikoei buruz) Inguruntetik beroa xurgatu, eta sistemaren barne-energia handitzen duena. *ES:* Endotérmico *FR:* Endothermique *EN:* Endothermic *Arloa:* Fis.-Kim.
- Endurtu:** ad. Ikus 'atrofiatu'.
- Endurtze:** iz. Ikus 'atrofia'.
- Enema:** 1. iz. Sendagai likidoa; uzkitik zehar gorputzean barneratzen da. Helburu terapeutikoa nahiz diagnostikoa du. 2. iz. Isurkari hori barneratzeko balio duen eskuzko tresna. *ES:* Enema, lavativa *FR:* Lavement *EN:* Enema *Arloa:* Med.
- Enerbazio:** 1. iz. Nerbio-energiaren murriztapena edo galera. 2. iz. Nerbio baten edo haren zati baten erauzketa. *ES:* Enerbación *FR:* Énerbation *EN:* Enerbation *Arloa:* Med.
- Energetiko:** 1. izond. Energiari dagokiona. 2. izond. Energia sortzen duena. *ES:* Energético *FR:* Énérgétique *EN:* Energy
- Energia:** iz. Sistema batek lan egiteko edo eraldatzeko duen ahalmenaren neurria. Hainbat forma har ditzake energiak: beroa, argia, soinua eta erradiazioa. *ES:* Energía *FR:* Énergie *EN:* Energy *Arloa:* Fis.
- Energia atomiko:** iz. Ikus 'energia nuklear'. *ES:* Energía atómica *FR:* Énergie atomique *EN:* Atomic energy
- Energia nuklear:** iz. Atomo-nukleoen fusioz edo fisioz lortzen den energia. *ES:* Energía nuclear *FR:* Energie nucléaire *EN:* Nuclear energy *Adibideak:* Zentral nuklearretatik industria-helburuetarako ateratzen den energia.
- Energia potentzial:** iz. Gorputz batek bere kokaguneagatik edo osaeragatik duen energia mekanikoa. *ES:* Energía potencial *FR:* Energie potentielle *EN:* Potential energy
- Enfisema:** iz. Biriketako asaldua; haren ezaugarri dira: hantura —gehiegizko aire edo gas kantitatearen ondoriozkoa— eta albeolo-hormen aldaketa suntsikorra. Biriken malgutasuna galdu eta gasak gutxitzen dira, ondorioz. *ES:* Enfisema *FR:* Emphysème *EN:* Emphysema *Arloa:* Med.
- Enkistamendu:** iz. Gorputz arrotzen, kalkuluen, eta abarren bakartze-egoera, gorputz hori inguratzen duen ehun konjuntibozko geruza batek eragina. Defentsa-mekanismo gisa gertatzen da, sarritan. *ES:* Enquistamiento *FR:* Enkystement *EN:* Encystment *Arloa:* Biol., Med.
- Enkistatu:** ad. Kiste edo kapsula bat eratu. *ES:* Enquistar *EN:* To encyst *Arloa:* Biol., Med.
- Enkistatu:** izond. Ehun konektibozko mintz batez inguraturik dagoena. Inguruntetik mintzak bakartzean geratzen da gai bat enkistatua. *ES:* Enquistado *FR:* Enkystée *EN:* Encysted *Arloa:* Biol., Med.
- Enpastatu:** ad. Txantxarrak hortz zein hagin batean eragindako zuloa orez bete, gaixotasunak erasandako gunea arraspatu ondoren. *ES:* Empastar *FR:* Plomber *EN:* To fill *Arloa:* Med.
- Enpaste:** iz. Ore mota; hortz txantxarduna betetzeko erabiltzen da. *ES:* Empaste *FR:* Plombage *EN:* Filling *Arloa:* Med.
- Empatia:** iz. Inguruko emozioak eta haien gogamen-egoera atzemateko gaitasuna. Beste pertsonaren jokabidearen esanahia ulertzen laguntzen du horrek. *ES:* Empatía *FR:* Empathie *EN:* Empathy *Oharrak:* Ezinbestekoa da empatia, erizainaren eta pazientearen arteko harremana terapeutikoa izan dadin. *Arloa:* Psikol.
- Enteritis:** iz. Heste meharreko mukosaren hantura; hainbat eragile izan ditzake: bakterioak, birusak, funtzio-asalduak eta hantura-prozesuak. *ES:* Enteritis *FR:* Entérite *EN:* Enteritis *Arloa:* Med.

- Enterokolitis:** iz. Heste meharreko eta koloneko hantura, biak aldi berean. *ES:* Enterocolitis *FR:* Entéro-colite *EN:* Enterocolitis *Arloa:* Med.
- Entzefaliko:** izond. Entzefalokoa, edo hari dago-kiona. *ES:* Encéfálico
- Entzefalitis:** iz. Entzefaloaren hantura-prozesua, gaizkoaduren ondoriozkoa. Dena den, odoljarioen, intoxikazioen —berunarena, adibidez— nahiz zenbait mikroorganismoren —herpes familiakoak— ondorio ere izan daiteke. *ES:* Encefalitis *FR:* Encéphalite *EN:* Encephalitis *Obarrak:* Herpes familiako mikroorganismoak dira, gaur egun, entzefalitisaren eragile nagusiak. *Arloa:* Med.
- Entzefalo-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'entzefaliko'.
- Entzefalo:** iz. Nerbio-sistema zentralaren atala; garzuraren barnean dago. Ornodunen nerbio-sistemaren funtsezko osagaia da, bizkarrezur-muinarekin batera. *ES:* Encéfalo *FR:* Encéphale *EN:* Encephalon
- Entzefalografia:** iz. Likidoa daukaten entzefaloko egituren erradiografia; likido zefalorakidea atera eta haren ordeaz airea sartuz egiten da. *ES:* Encéfalografía *FR:* Encéphalographie *EN:* Encephalography *Arloa:* Med.
- Entzefalograma:** iz. Entzefalografian ateratzen den plaka erradiografikoa. *ES:* Encéfalograma *FR:* Encéphalogramme *EN:* Encephalogram *Arloa:* Med.
- Entzefalopatia:** iz. Garuneko ehunetako edozein egituraren nahiz funtzioaren asaldia. *ES:* Encefalopatía *FR:* Encéphalopathie *EN:* Encephalopathy *Arloa:* Med.
- Entzima:** iz. Zelulak sortzen duen katalizatzaile organikoa. Prozesu kimiko jakin batzuk eragiteko edo bizkortzeko gai da, inolako aldaketarik jasan gabe. Kopuru txikian ekoizten dira entzima gehienak, eta zelula barneko erreakzioak katalizatzen dituzte. *ES:* Enzima *FR:* Enzyme *EN:* Enzyme *Arloa:* Kim.
- Entzumeneko:** izlag. Entzumenari eta entzumenean parte hartzen duten organoei dagokiena. *ES:* Auditivo *FR:* Auditif *EN:* Auditory
- Entzun:** ad. Soinua hauteman. *ES:* Oir *FR:* Écouter *EN:* To listen
- Entzunbide:** iz. Belarrian zehar igarotzen diren bi hodi-dietako bakoitza; soinu-bulkadak garraiatzen ditu. Entzumen-nerbioa igarotzen da barneko entzunbidetik, eta bulkadak garraiatzen ditu barneko entzunbidetik garunera. *ES:* Conducto auditivo *FR:* Conduit auditif *EN:* Auditory canal *Arloa:* Anat.
- Entzunezin:** izond. Ia entzun ezin dena. *ES:* Inaudible *FR:* Inaudible *EN:* Inaudible
- Entzungaitz:** izond. Ikus 'entzunezin'.
- Epaiondo:** iz. Ikus 'muinoi'
- Ependimo:** 1. iz. Ependimo-zelula: garuneko bentríkuluak eta bizkarrezurreko muinaren hodi zentrala estaltzen dituen mintza. 2. iz. Ependimo-hodia: bizkarrezur-muinaren hodi zentrala, likido zefalorakideoz betea. *ES:* Ependímo *FR:* Épendyme *EN:* Ependyma *Arloa:* Anat.
- Epidemia:** iz. Ustekabeko gaixotasun aldi batekoa, kutsagarria gehienetan; pertsona kopuru handiari erasotzen dio eskualde batean une berean. *ES:* Epidemia *FR:* Épidémie *EN:* Epidemic *Arloa:* Med.
- Epidemiologia:** iz. Medikuntzaren adarra; giza gaixotasunen agerpena, banaketa eta zergatiak ikeritzen ditu. *ES:* Epidemiología *FR:* Épidémiologie *EN:* Epidemiology *Arloa:* Med.
- Epidermiko:** izond. Epidermisari dagokiona, epidermisan dagoena, edo epidermisaz eratua dagoena. *ES:* Epidérmico *FR:* Épidermique *EN:* Epidermic
- Epidermis:** iz. Larruazaleko geruza ez-baskularra. Bi geruzaz osatua dago: azaleko geruzak ez du bizirik; sakonekoak, aldiz, bai. *ES:* Epidermis *FR:* Épiderme *EN:* Epidermis *Arloa:* Biol.
- Epididimo:** iz. Bi hodi luze biribilkatuetariko bakoitza, gizezkoen sexuan; esperma garraiatzen dute barrabiletako hodi seminiferoetatik hodi deferenteraino. *ES:* Epidídimo *FR:* Épídídyme *EN:* Epididymis *Arloa:* Anat.
- Epidural:** izond. Duramateraren eta orno-kanalaren arteko espazioari dagokiona. *ES:* Epidural *FR:* Épidural *EN:* Epidural *Arloa:* Anat.
- Epigastrio:** iz. Sabelaldearen goiko eta erdialdeko zatia; bi hipokondrioren artean dago. *ES:* Epigastrio *FR:* Épigastre *EN:* Epigastrium *Arloa:* Anat.
- Epiglotis:** iz. Kartilagozko egitura; irenstearen, itxi egiten du laringea, elikagaiak laringera nahiz zintzur-hestera igaro ez daitezten. *ES:* Epiglotis *FR:* Épiglote *EN:* Epiglottis *Arloa:* Anat.
- Epikardio:** iz. Ehunezko geruza, bihotzaren pareta osatzen duten hiruretako bat. Perikardio serosoaren errai-geruza da. *ES:* Epicardio *FR:* Épicarde *EN:* Epicardium *Arloa:* Anat.
- Epilepsia:** iz. Prozesu neurologikoen multzoa; hainbat ezaugarri ditu: konbulsioak, sentimen-asalduek, ez-ohiko jarrerak, kordea galtzea, edo horiek guztiak batera. Garun-azaleko neuronen deskarga elektriko ez-kontrolatuak dira epilepsia guztien ezaugarria. *ES:* Epilepsia *FR:* Épilepsie *EN:* Epilepsy *Arloa:* Med.
- Epitelial:** izond. Epiteliokoa, edo hari dagokiona. *ES:* Epitelial *FR:* Épithélial *EN:* Epithelial
- Epitelio:** iz. Organismoko geruza. Gorputzeko barne- eta kanpo-organok estaltzen ditu, baita odol-hodiak ere. Ehun konektiboz elkaturiko zelulaz osatua dago; aldakorrek dira zelulen mota eta kopurua. *ES:* Epitelio *FR:* Épithélium *EN:* Epithelium *Arloa:* Zool.



**Epitelio-ehun:** iz. Ikus 'ehun epitelial'.

**Epitelioma:** iz. Epiteliotik eratorritako tumor gaiztoa. Metastasia gerta daiteke tumorraren garapeneko uneren batean, eta inguruko organoetara zabaldu. *ES:* Epitelioma *FR:* Épithélioma *EN:* Epithelioma *Arloa:* Med.

**Eragile:** izond. Ondorio jakin bat gertarazten duena. *ES:* Causante *FR:* Causant *EN:* Causer

**Eragin:** ad. Zerbaitek edo norbaitek beste zerbaitengan edo norbaitengan ondorio bat gertarazi. *ES:* Ocasionar, provocar *FR:* Occasionner, causer *EN:* To cause, to bring about

**Eragin:** iz. Funtzio bat betearaztea edo ondorio bat dakarren jarduera. *ES:* Acción *Oharrak:* Bitaminen eragina ez da nabarmena dosi txikian.

**Eraginkor:** izond. Nahi edo espero den ondorioa edo helburua lortzen duena. *ES:* Eficaz *FR:* Efficace *EN:* Effective

**Eraginkortasun:** iz. Sendagai edo tratamendu batak ondorio bat lortzeko duen gaitasun gorena. *ES:* Eficacia *FR:* Efficacité *EN:* Efficacy

**Eragin-truke:** iz. Sistema bateko bi elementuren arteko harremana; harreman horren ondorioz, bi elementu horietako bakoitzaren jarduera beste elementuaren jarduerak baldintzatzen du. *ES:* Interacción *FR:* Interaction *EN:* Interaction

**Eraldatu:** ad. Ikus 'transformatu'.

**Eraldatze:** iz. Ikus 'transformazio'.

**Eraman:** ad. Ikus 'garraiatu'.

**Eranskin:** iz. Zati bati gertutasunagatik loturik agertzen den atala. *ES:* Anexo *FR:* Annexe *EN:* Appendix

**Erantzi:** ad. Arropa kendu. *ES:* Desvestir

**Erantzun:** iz. Kinada baten aurrean izandako erreakzioa edo mugimendua. *ES:* Respuesta *FR:* Réponse *EN:* Response *Arloa:* Psikol.

**Erasan:** ad. Organo batean asaldu fisikoak eragin. *ES:* Afectar *FR:* Atteindre *EN:* To damage

**Eraso-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'agresibo'.

**Eraso:** ad. Ikus 'erasan'.

**Eraso:** iz. Ikus 'agresio'.

**Erasotzaile:** 1. izond. Erasotzen duena. 2. izond. Ikus 'agresibo'.

**Erauzi:** ad. Gorpuzaren zati bat ebaki bat eginez kanporatu, kirurgia bidez. *ES:* Extirpar *FR:* Extirper *EN:* To extirpate *Arloa:* Med.

**Erauzketa:** iz. Organo nahiz atal bat gorpuzetik bereiztea, neurri batean edo erabat, kirurgia egiteko edo azterketarako. *ES:* Extirpación *FR:* Extirpation *EN:* Extirpation *Arloa:* Med.

**Erauzkin:** iz. Ikus 'aterakin'.

**Erauztezin:** izond. Erauzi ezin dena. *ES:* Inextirpable *EN:* Ineradical

**Eraztun-eri:** iz. Eraztun-formako lesioa; osorik dagoen larruazal zati bat inguratzen du. *ES:* Anular *FR:* Annulaire *EN:* Annular

**Erbi-ezpain:** iz. Goiko ezpainaren deformazioa, sortzetikoa. Bi prozesu enbriologiko edo gehiago ez dira behar bezala gertatzen, eta, ondorioz, bi arraildura edo gehiago agertzen dira goiko ezpainean, masailezurraren eta barne-sudurraren apofisien arteko loturaren akatsarengatik. *ES:* Labio leporino *FR:* Bec-de-lièvre *EN:* Cleft lip, harelip *Arloa:* Med.

**Erdaindu:** ad. Zerbaiti muturra moztu; zakilaren prepuzioa zirkulu-itxuran moztu, bereziki. *ES:* Circuncidar

**Erdaindu:** izond. Erdainkuntza egin zaiona. *ES:* Circunciso *EN:* Circumcised

**Erdainkuntza:** iz. Kirurgia-prozedura; zakilaren prepuzioa —eta klitoriarena, zenbait kasutan— erauztea. Erljio-erritua da zenbait arraza eta taldetan; juduen eta musulmanen artean, esate baterako; umea jaio eta egun batzuetara haren zakilaren prepuzioa moztuz egiten da. *ES:* Circuncisión *FR:* Circoncision *EN:* Circumcision

**Erdi iragazkor:** izond. (Mintzei buruz) Zenbait molekulari iragaten utzi arren, beste zenbaiti oztopoa jartzen diena. *ES:* Semipermeable *FR:* Semi-perméable *EN:* Semipermeable

**Erdi mintzezko gihar:** iz. Izterrezurraren atzealdeko hiru giharretako bat. Haren funtzioak dira: zangoaren flexioa eta errotazioa, eta izterra luzatzea. *ES:* Músculo semimembranoso *FR:* Semimembranoux *EN:* Semimembranosus *Arloa:* Anat.

**Erdiberri:** izond. Haurra izan berri duena, edo erditzen ari dena. *ES:* Parturienta *FR:* Parturiente *EN:* Parturient

**Erdibitu:** izond. Ikus 'bifido'.

**Erdibitze:** iz. Zenbait organuluren (zilioak eta beste) nahiz behe mailako organismoen ugaltze mota; bi zati berdinetan banatzen da gorputza, eta banako oso bat sortzen da zati bakoitzetik. *ES:* Bipartición *Arloa:* Biol.

**Erdigabe:** izond. Inoiz erditu ez dena. *ES:* Nulipara *FR:* Nullipare *EN:* Nullipara *Arloa:* Biol.

**Erdiko belarri:** iz. Barne- eta kanpo-belarrien arteko atala. Haren osagai dira hezur tenporalaren barrunbean dauden tinpano-barrunbea eta hezurtxoak —mailua, ingudea eta estribua—. Mintz tinpanikoak bereizten du kanpoko belarritik; eta leiho obalak, barnekotik. *ES:* Oído medio *FR:* Oreille moyenne *EN:* Middle ear

**Erdiminak:** iz. Umetokiaren uzkurduren ondoriozko oinazea, erditzean. *ES:* Dolores de parto *EN:* Labor pains

**Erditu:** ad. Haurra izan. *ES:* Parir *FR:* Parturition *EN:* To give birth (to)

**Erditze:** iz. Fenomeno fisiologikoen multzoa. Amaren sabeletik haurra irtetea eragiten du. *ES:* Parto *FR:* Accouchement *EN:* Delivery, labor



- Erditze ondoko:** izlag. Jaiotza ondoren gertatzen denari dagokiona. *ES:* Posparto *FR:* Post-partum *EN:* Postpartum *Arloa:* Med.
- Erditze osteko:** izlag. Ikus 'erditze ondoko'.
- Erdi-urren dagoen:** izond. Ikus 'erdiberri'.
- Eredu:** iz. Genetikan, ADN katea; moldetzat balio du RNA mezulariaren sintesirako. *ES:* Plantilla
- Erekzio:** iz. Tentetzea; zenbait chun organiko odol- ez bete eta puztea ezaugarri duen fenomenoa. Erekzioaren bidez, gizonaren zakilak emakumearen baginan sartzeko adinako zurruntasuna hartzen du. Sexu-kitzikapenaren ondorioz gertatzen da gehienetan, baina lo-egoeran edo kitzikapen fisikoaren eraginez ere gerta daiteke. *ES:* Erección *FR:* Érection *EN:* Erection *Arloa:* Biol.
- Ergoterapia:** iz. Jardueraren eta ariketa fisikoaren erabilera, gaixotasunak tratatzeko. *ES:* Ergoterapia *FR:* Ergothérapie *EN:* Ergotherapy *Arloa:* Psikol.
- Eri:** izond. Ikus 'paziente'.
- Erigarri:** izond. Ikus 'morbido'.
- Erikor:** izond. Ikus 'gaixobera'.
- Erikortasun:** iz. Ikus 'morbilitate'.
- Eriondo:** iz. Ikus 'susperraldi'.
- Eritasun:** iz. Ikus 'gaixotasun'.
- Eritegi:** iz. Ikus 'ospitale'.
- Eritema:** iz. Larruazaleko gorritasun orbandua edo lausotua; kapilarren kongestioagatik sortzen da, eta, presioa eginenez gero, desagertu egiten da une batez. *ES:* Eritema *FR:* Érythème *EN:* Erythema *Arloa:* Med.
- Eritetxe:** iz. Ikus 'ospitale'.
- Eritroblasto:** iz. Hemati heldugabea. Eritrozitoen zelula ama da, oraindik nukleoa duena. Hezurmuinean aurki daiteke eskuarki. Ez-ohikoa da odolean agertzea, eta, hori gertatzean, muinaren gehiegizko ekoizpena adierazten du, nahiz muinaz kanpoko foku hematopoietikoa. *ES:* Eritroblasto *FR:* Erythroblaste *EN:* Erythroblast *Arloa:* Biol.
- Eritrozito:** iz. Odolaren osagai zelular garrantzitsua. Bi aldeetatik ahur den disko gorrixka da, 7 mikra inguruko diametrokoa. Hemoglobina du bere baitan, lipido-mintzez inguratutik. Oxigenoa garraiatzea du funtzio nagusia; arnas aparatutik gorputzeko zelula guztietara banatzen du, eta, alderantziz, karbono (IV) oxidoa itzultzen du gorputzeko zeluletatik arnas aparatua. Hezur luzeen muinean eratzten dira eritrozitoak. *ES:* Eritrocito *FR:* Érythrocyte *EN:* Erythrocyte
- Eritu:** ad. Ikus 'gaixotu'.
- Erizain:** iz. Erizaintzarako trebatua eta baimendua dagoen pertsona. Haren eginbeharra da osasun-arazo agerikoen edo potentzialen aurrean giza-kiak dituen erantzunen erizain-diagnostikoa eta tratamendua egitea, eta zainketak eskaintzea. *ES:* Enfermero/a *FR:* Infirmière *EN:* Nurse
- Erizaindegi:** iz. Gaixoei arreta eskaintzeko prestatutako gela. *ES:* Enfermería
- Erizaintza:** 1. iz. Ikus 'erizaindegi'. 2. iz. Erizainen praktika profesionala. Osasuna sustatzeko eta hobetzeko zainketak eskaintzen ditu. *ES:* Enfermería *FR:* Infirmierie *EN:* Infirmary
- Erlakizten:** iz. Ikus 'furunkulu'.
- Erlastu:** ad. Ahotsa laztu edo zakartu, ezarriko ondorearen ondorioz. *ES:* Enronquecer *FR:* Enrouer *EN:* To make hoarse
- Erlats:** iz. Ahots latza edo zakarra ezaugarri duen asaldua. Faringearen nahiz laringearen hantura adierazten du. *ES:* Ronquera *FR:* Enrouement *EN:* Hoarseness
- Erlaxatu:** ad. Ikus 'lasaitu'.
- Erlaxatu:** izond. Ikus 'lasai'.
- Erlaxazio:** iz. Tentsioa murriztea; uzurtzearen aurkako egoera da. *ES:* Relajación *FR:* Relaxation *EN:* Relaxation
- Ermami:** iz. Ikus 'hatz-mami'.
- Ernalarazi:** ad. Espezie bereko izaki berri bat gorputzu. *ES:* Engendrar *FR:* Engender *EN:* To generate
- Ernaldi:** iz. Ikus 'haurdunaldi'.
- Ernaldu:** ad. Ugal-zelula arra eta emea elkartu, izaki berri bat sortzeko. *ES:* Fecundar *FR:* Féconder *EN:* To fertilize *Arloa:* Biol.
- Ernalezintasun:** iz. Ondorengoak izateko ezintasuna. *ES:* Infertilidad *EN:* Infertility
- Ernalgarri:** izond. Ernaldua izan daitekeena. *ES:* Fecundable *EN:* Fertilizable
- Ernalketa:** iz. Ikus 'ernalkuntza'.
- Ernalkuntza:** iz. Gameto arraren —espermatozoidea— eta emearen —obulua— elkarketa. Ugalketa sexualean gertatzen da. *ES:* Fecundación *FR:* Fécondation *EN:* Fertilization *Arloa:* Med.
- Ernamuin-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'germinal'.
- Ernamuin:** iz. Ikus 'enbrioi'.
- Ero:** 1. izond. Buruko eritasuna duena; zentzua edo zuhurtzia galdu duena. *ES:* Loco, perturbado *FR:* Fou *EN:* Mad 2. izond. Buruko gaixotasunen bat duena, bere burua zaindu ezin eta babetesa behar duena bereziki. *ES:* Demente *FR:* Dément *EN:* Insane
- Eroan:** ad. Gai batek karga elektrikoak edo bero-energia eramane toki batetik beste batera. *ES:* Conducir *FR:* Conduire, porter *EN:* To conduct
- Eroate:** iz. Mugimendu- edo sentimen-bulkaden transmisioa. *ES:* Conducción *FR:* Conduction *EN:* Conduction *Arloa:* Biol.
- Eroetxe:** iz. Ikus 'zoroetxe'.
- Eromen:** iz. Pertsona zoroaren ezaugarrien ageraldi nabarmena; buru-galtze iragankorra. *ES:* Enloquecimiento *FR:* Aliénation mentale *EN:* Insanity, madness

**Eros:** iz. Greziarrentzat, maitasunaren jainkoa. Bizi-pultsioak adierazten ditu psikoanalisian, heriotza-pultsioei (Thanatos) kontrajarrita. Bizirau-pen-sena edo -jarrera adierazten du. Ezaugarri ditu nork bere burua babestea eta ugalketa bidezko biziraupena. *ES:* Eros *FR:* Eros *EN:* Eros *Arloa:* Psikol.

**Erotasun:** iz. Buru-gaitasunak kalteturik izatea ezaugarri duten asaldu heterogeneoen multzoa. *ES:* Locura

**Erotu:** ad. Ero bihurtu; zentzua galdu. *ES:* Enloquecer, perturbar *FR:* Affoler *EN:* To go mad/crazy

**Erpuru:** iz. Ikus 'hatz lodí'.

**Errabia:** iz. Ikus 'amorrú'.

**Erraboila:** iz. Zabalduriko edozein egitura; ilearen sustraia edo zenbait nerbio-bukaera, esate baterako. *ES:* Bulbo *FR:* Bulbe *EN:* Bulb

**Erraboileko:** 1. izlag. Erraboiari dagokiona. 2. izlag. Entzefalo-enborraren bizkarrezur-erraboiari dagokiona. *ES:* Bulbar *FR:* Bulbaire *EN:* Bulbar *Arloa:* Anat.

**Erradikal:** iz. Espezie kimikoa (atomoa, molekula, eta abar); parekatu gabeko elektroí bat du, gutxienez. Erreaktibitate handia dute gehienek, eta erreakzio kimiko ugaritan parte hartzen dute. Horregatik, gehienak ez daude aske naturan. *ES:* Radical *FR:* Radical *EN:* Radical *Arloa:* Kim.

**Erradikular:** izond. Erro edo sustrai bati dagokiona. *ES:* Radicular *FR:* Radiculaire *EN:* Radicular *Arloa:* Med.

**Erradio hezur:** iz. Besaurreko hezurretariko bat; kubituairekiko paraleloa da. Txikia du alde proximala, eta ukondoarekin giltzatzen da; handiagoa du, aldiz, alde distala, eta eskumuturreko giltzadura eratzen du. *ES:* Hueso radio *FR:* Radius *EN:* Radius *Arloa:* Anat.

**Erradiobiologia:** iz. Natura-zientzien adarra; erradiazioek sistema biologikoan duten eragina aztertzen du. *ES:* Radiobiología *FR:* Radiobiologie *EN:* Radiobiologie *Arloa:* Med.

**Erradioelementu:** iz. Elementu kimiko erradioaktiboa. *ES:* Radioelemento *FR:* Radioélément *EN:* Radioelement *Arloa:* Kim.

**Erradiografia:** iz. X izpien —erradiazio ionizatzaileen— bidez ateratako argazkia; diagnostikorako erabiltzen da medikuntzan, eta, materialen kalitate-kontrolerako, industrian. *ES:* Radiografía *FR:* Radiographie *EN:* Radiography *Arloa:* Med.

**Erradioisotopo:** iz. Elementu kimiko baten isotopo erradioaktiboa; helburu terapeutikoetarako eta diagnostikoetarako erabiltzen da. *ES:* Radioisótopo *FR:* Radio-isotope *EN:* Radioisotope *Arloa:* Kim.

**Erradiokimika:** iz. Kimikaren adarra; erradioaktibitatearekin zerikusia duten fenomenoak aztertzen

ditu; esate baterako, material erradioaktiboaren ezaugarriak eta propietateak, eta erradioisotopoen erabilera arazo kimikoen edo biologikoen ikerketan. *ES:* Radioquímica *FR:* Radiochimie *EN:* Radiochemistry *Arloa:* Kim.

**Erradiolario:** iz. Zenbait protozoori dagokien ordena. Neurri aldakorra dute erradiolarioek, erdiko zitoplasma bi zatitan banatua dute kapsula batez, eta silizeko orratz ugariz osatutako exoskeletoa. Nukleo bat edo gehiago izaten dituzte. *ES:* Radiolario *FR:* Radiolaires *EN:* Radiolarians *Arloa:* Biol.

**Erradiologia:** iz. Medikuntzaren adarra; gaixotasunen diagnostikoaz eta tratamenduaz arduratzen da, eta gai erradioaktiboak edo energia erradiatzailea erabiltzen ditu. *ES:* Radiología *FR:* Radiologie *EN:* Radiology *Arloa:* Med.

**Erradiologo:** iz. Erradiologian aditua den espezialista. *ES:* Radiólogo *FR:* Radiologue *EN:* Radiologist *Arloa:* Med.

**Erradioskopia:** iz. Gorputz baten azterketa, X izpien bidez. Erradioskopía egiteko, pantaila baten eta X izpiak igortzen dituen hodi baten artean kokatzen da gorputza, eta pantaila fluoreszentean ikusten da irudia. Diagnostikoak egiteko erabiltzen da. *ES:* Radioscopia *FR:* Radioscopie *EN:* Radioscopy *Arloa:* Med.

**Erradioskopiko:** izond. Erradioskopiarri dagokiona. *ES:* Radioscópico *Arloa:* Med.

**Erradioterapia:** iz. Gaixotasun neoplasikoen tratamendua; X edo Gamma izpien bidez egiten da. Zelula gaiztoen hazkuntza ekiditen da teknika horren bidez, mitosi-tasa nahiz ADNaren sintesia eragozten baitira. *ES:* Radioterapia *FR:* Radiothérapie *EN:* Radiotherapy *Arloa:* Med.

**Errai-** (Hitz elkartuetan) Ikus 'erraietako'.

**Errai:** iz. Organismoaren barrunbe esplanknikoan —sabelalde-barrunbean, bereziki— dauden organoetako bakoitza. *ES:* Entraña, viscera *FR:* Viscères *EN:* Viscera

**Erraietako:** izlag. Sabelalde-barrunbean dauden organoei dagokiena. *ES:* Visceral *FR:* Viscéral *EN:* Visceral

**Errain-hezur:** iz. Ikus 'hezur sakro'.

**Errakitiko:** 1. izond. Errakitismoa duena. 2. izond. Errakitismoari dagokiona. *ES:* Raquíptico *FR:* Rachitique *EN:* Rachitic *Arloa:* Med.

**Errakitismo:** iz. Hazkuntza-garaiko gaixotasuna, D bitaminaren gabeziak eragina, gehienetan. Kaltzioaren eta fosforoaren metabolismoaren asaldaren ondoriozkoa ere izan daiteke. Sintomak hezurretan atzematzen dira batez ere: garezurraren itxuragabetasuna, fontanela handitua, maleolotako irtenguneak, eta abar. Hezurretako sintomez gain, ikus daitezke: giltzaduren gehiegizko malgutasuna, giharretako hipotonia, infekzioeta-

- rako joera, eta abar. *ES: Raquitismo FR: Rachitisme EN: Rickets Arloa: Med.*
- Erraldoitasun:** iz. Gehiegizko altuera izatea ezaugarri duen asaldua. Hazkuntza-hormonaren (GH) jario handiegiatik gertatzen da gehienetan, baina gerta daiteke hipergonadismoaren eta asaldu genetiko jakin batzuen ondorioz ere. *ES: Gigantismo FR: Gigantisme EN: Gigantism Arloa: Med.*
- Erre:** ad. Zerbaitek erredura antzeko sentsazioa eragin; zauri edo lesio batek, bereziki. *ES: Escocer FR: Cuire, brûler EN: To smart, to sting*
- Erreaktibitate:** 1. iz. Izaki bizidunen ahalmena; iraupenerako edo garapenerako lagungarri zaien erreakzio bat eragiten da, edozein kinada fisiko zein kimikoren aurrean. 2. iz. Kimikan, gai batek kimikoki erreakzionatzeko duen ahalmena. *ES: Reactividad FR: Réactivité EN: Reactivity Arloa: Biol., Kim.*
- Erreaktibo:** izond. (Gai kimikoei buruz) Modu jakin batean erreakzionatzen duena. Erreakzio kimikoetan beste gai bat hautemateko edo sintetizatzeke erabiltzen dira erreaktiboak. *ES: Reactivo FR: Réactif EN: Reagent Arloa: Kim.*
- Erreaktibotasun:** iz. Ikus 'erreaktibitate'.
- Erreaktore:** 1. iz. Isotopo erradioaktiboak artifizialki sortzeko erabiltzen den ontzia edo tresna. 2. iz. Kimikan, erreakzio kimiko industrialak egiteko ontzia. *ES: Reactor FR: Réacteur EN: Reactor Arloa: Kim.*
- Erreakzio:** iz. Gai bati, tratamendu bati edota beste edozein kinadari emandako erantzuna. *ES: Reacción FR: Réaction EN: Reaction Arloa: Med.*
- Erreakzionatu:** ad. Erreakzio bat izan, kinada batek eraginda. *ES: Reaccionar FR: Réagir EN: To react Arloa: Med., Kim.*
- Erreanimazio:** iz. Ikus 'suspertze'.
- Errebultsibo:** izond. (Gai bati buruz) Errebultsiogaitasuna duena. *ES: Revulsivo FR: Révulsif EN: Revulsive Oharrak:* Gai errebultsiboek eragin morbosoa dute organismoan, erreakzio bat sortu eta gaitz sakonago bat saihesteko. *Arloa: Med.*
- Errebultsio:** iz. Azaleko hantura bat eragitea, sakonagoa eta arrisksuagoa den beste hantura bat ordezkatzeko asmoz. *ES: Revulsión FR: Révulsion EN: Revulsion Arloa: Med.*
- Erredox:** iz. Erredukzio-oxidazio erreakzioa adierazteko erabiltzen den laburdura. *ES: Redox FR: Redox EN: Redox Arloa: Kim.*
- Erreduktore:** izond. (Gai kimikoei buruz) Beste gai bat erreduzitzeko ahalmena duena, hari elektroiak emanez. *ES: Reductor FR: Réducteur EN: Reducing Arloa: Kim.*
- Erredukzio:** iz. Konposatu bati oxigenoa kentzeko edo galarazteko prozesua; oxigenoa kenduz nahiz hidrogenoa gehituz egiten da. *ES: Reducción FR: Réduction EN: Reduction Arloa: Kim.*
- Erredura:** iz. Ehunetako lesio edo zauria, suak nahiz bestelako eragile fisikoei (beroa, elektrizitatea, gai kimikoak, erradiazioa eta gasak) eragindakoa. Zelulek eragilearen aurrean izandako esposizioaren eta eragile horren jatorriaren araberakoa da lesioaren larritasuna. Hiru maila bereizten dira hedaduraren, sakontasunaren eta intentsitatearen arabera: lehen maila (eritema soila), bigarren maila (pusla) eta hirugarren maila (nekrosia). Erreduren tratamenduaren oinarria da: mina baretzea, asepsia mantentzea, gaizkoadurei aurre egitea, gorputzaren oreka hidroelektrolitikoari eustea, eta elikadura egokia izatea. *ES: Quemadura FR: Brûlure EN: Burn*
- Erreduzitu:** ad. Erredukzioa egin. *ES: Reducir FR: Réduire EN: To reduce Arloa: Kim.*
- Erreflexu baldintzatu:** iz. Era mailakatu sortzen eta garatzen den erreflexua; kanpo-eragile bat behin eta berriz errepikatzearen ondorioz agertzen da. Denbora baten ondoren, kanpo-kinada hori gertatzen den bakoitzean, abiarazi egiten da, bat-batean, dagokion funtzio fisiologikoa. *ES: Reflejo condicionado FR: Réflexe conditionné EN: Conditioned reflex*
- Errefluxu:** iz. Fluxu edo likido bat berriz atzera itzultzeko prozesua. *ES: Reflujo FR: Reflux EN: Reflux Arloa: Med.*
- Errefortzu:** iz. Psikologian, zigor/sari prozesu bat; erantzun jakin bat indartzen dute zigorra jasotzeko beldurrak edo saria jasotzeko itxaropenak. *ES: Refuerzo FR: Renforcement EN: Reinforcement Arloa: Psicol.*
- Errefraktometro:** iz. Begiaren errefrakzio-egoera neurtzeko erabiltzen den tresna. *ES: Refractómetro FR: Réfractomètre EN: Refractometer Arloa: Med.*
- Errefusatzte:** iz. Organismoaren erreakzio immunologikoa, arrotz zaizkion gaien eta organismoen aurrean. Batez ere transplanteetan gertatzen da prozesu biologiko hori, denbora bat igaro ostean, txertatutako organoa edo ehuna kanporatzean. *ES: Rechazo FR: Rejet EN: Rejection Arloa: Med.*
- Erregarri:** izond. Asunek eragiten duten sentsazioaren antzekoa ematen duena. *ES: Urticante FR: Urticant EN: Urticating*
- Erregina-jele:** iz. Erlauntzetan aurkitutako produktua, 1938an. Erleek erreginaren larbei jaten emateko balio du. Indarberritzeko erabiltzen da, kantidad txikitari ahotik hartuz. *ES: Jalea real FR: Gelée royale EN: Royal jelly*
- Erregogor:** izond. Suarekin kontaktuan egonik ere, aldaketarik jasaten ez duena, edo berdin zenbait pozoirekin nahiz mikroorganismorekin kontaktuan. *ES: Refractario FR: Réfractaire EN: Refractory Arloa: Kim.*

- Erregresio:** 1. iz. Lehenagoko garapen-fase baterako itzulera. 2. iz. Lehenagoko jokaera baterako itzulera. *ES:* Regresión *FR:* Régression *EN:* Regression *Arloa:* Biol., Psikol.
- Errehabilitatu:** ad. Errehabilitazioa egin. *ES:* Rehabilitar *FR:* Réhabiliter *EN:* To rehabilitate
- Errehabilitazio:** iz. Metodo multzoa; gizabanako baten funtzio osoa —edo haren atal bat— bere onera itzultzea du helburu, gaixotasun, lesio nahiz mendekotasun bat jasan ondoren. *ES:* Rehabilitación *FR:* Réhabilitation *EN:* Rehabilitation *Arloa:* Med.
- Erreinu:** iz. Bizidunak sailkatzen diren talde handietariko bakoitza: animalia-erreinua, landare-erreinua, eta abar. *ES:* Reino *FR:* Règne *EN:* Kingdom, reign *Arloa:* Biol.
- Errektifikatu:** ad. Likido bat purifikatu, errektifikazioaren bidez. *ES:* Rectificar *FR:* Rectifier *EN:* To rectify *Arloa:* Kim.
- Errektifikazio:** iz. Likido baten purifikazioa; destilazio zatikatuaren edo errepikatuaren bidez egiten da. *ES:* Rectificación *FR:* Rectification *EN:* Rectification *Arloa:* Kim.
- Erremediaezin:** izond. Ikus 'konponezin'.
- Erremin:** iz. Ikus 'sumin'.
- Errenina:** iz. Entzima proteolitikoa; glomeruluaren ondoan ekoizten eta metatzen da. Eragina du tentsio arterialean, angiotentsinogenoa angiotentsina bihurtzen den prozesua katalizatzen baitu. *ES:* Renina
- Errepikatu:** izond. (Zeinuei edo sintomei buruz) Aldizka berri agertu ohi dena. *ES:* Recurrente, recidivante
- Erreplikatu:** ad. Erreplikazioa egin edo gertatu. *ES:* Replicar *FR:* Répliquer *EN:* To replicate *Arloa:* Biol.
- Erreplikazio:** iz. ADN molekula batetik haren berdin-berdina den beste molekula bat sintetizatze-ko prozesua. Ezinbestekoa da ugalketarako. *ES:* Replicación *FR:* Réplication *EN:* Replication *Arloa:* Biol.
- Erresekzio:** iz. Organo edo egitura bateko zati handi samar bat erauztea. Erabatekoa izan daiteke. *ES:* Resección *FR:* Résection *EN:* Resection *Oharrak:* Heste lodieren erresekzioa egiten da heste lodiko minbiziaren tratamendurako.
- Erreserba:** iz. Erabili behar denerako prest dagoen gaia. *ES:* Reserva *FR:* Réserve *EN:* Reserve
- Erresistentzia:** 1. iz. Organismoaren ezaugarri multzoa, bizkarroien nahiz eritasunen kalteak saihesteko edo murrizteko. 2. iz. Jarduera batean jarraitzeko gaitasuna, gainkarga fisikoaren eta psikologikoaren gaitetik dagoena. 3. iz. Indar bati kontrajarria den euste-indarra; esate baterako, zirkulazio-sistemako odol-hodi periferikoeta-ko odol-fluxuak jasaten duen erresistentzia. 4. iz. Mikroorganismo batek antibiotikoen eragina saihesteko duen gaitasuna. Berezkoa edo hartutakoa izan daiteke. *ES:* Resistencia *FR:* Résistance *EN:* Resistance, endurance
- Erresonantzia-:** (Hitz elkartuetan) Soinu-uhinen iturri batekiko sinkronikoak diren dardarei edo pultsazioei dagokiena. *ES:* Resonante *FR:* Résonateur *EN:* Resonating
- Erresonantzia:** 1. iz. Soinuaren luzapena, oihartzuna; organo edo barrunbe baten perkusioaren ondorioz sortzen da. 2. iz. Energiaren xurgapen-prozesua; objektu jakin batek egiten du xurgapen hori, maiztasun jakin bateko energia xurgatzeko prestaturik egon ohi da eta. Gainerako maiztasunek ez dute eraginik objektu horretan. Sistemari energia gutxi aplikatuz anplitude handiko bibrazioak sortzea du ezaugarri nagusi. *ES:* Resonancia *FR:* Résonance *EN:* Resonance *Oharrak:* Erresonantzia magnetikoa erabiltzen da diagnostikoak egiteko.
- Erresumin:** iz. Gorputzeko gune batean sumatzen den sentsazio ez-atsegina. Erresuminaren eragile izan daitezke: kolpeak, ebakiak, zauriak, organismoaren funtzionamenduan oreka galtzea, eta abar. *ES:* Resentimiento *FR:* Ressentiment *EN:* Resentment
- Erresumingarri:** izond. Ikus 'erregarri'.
- Erretentzio:** iz. Ikus 'atxikipen'.
- Erretikulatu:** izond. (Ehun edo gainazal bati buruz) Sare-itxura duena, edo zain-sare baten antzeko egitura duena. *ES:* Reticulado, reticular *FR:* Réticulé, réticulaire *EN:* Reticulate, reticular
- Erretikulu:** iz. Harii-piz, odol-hodiz edota nerbioz osatutako sare txikia. *ES:* Reticulo *FR:* Réticule *EN:* Reticulum *Arloa:* Anat.
- Erretikulu endoplasmiko:** iz. Mintzez eratutako hoditxo osatutako sarea; zelularen zitoplasman dago. Proteinen eta lipidoen sintesia parte hartzen du erretikulu endoplasmikoak, eta zelulara garraiatzen ditu metabolito horiek. *ES:* Reticulo endoplásmico, retículo endoplasmático *FR:* Réticulum endoplasmique *EN:* Endoplasmic reticulum
- Erretikulu sarkoplasmiko:** iz. Erretikulu endoplasmiko mota, gihar eskeletikoaren zelulen barnean dagoena. Garrantzitsua da giharren uzkuradura eta erlaxazioa gerta dadin. Kaltzio ioiak metatzen ditu. *ES:* Reticulo sarcoplásmico *EN:* Sarcoplasmic reticulum
- Erretina:** iz. Begiaren nerbio-ehuneko mintz hauskor bigun eta erdi gardenen, argiarekiko sentikorra. Ikusmen-nerbioak kanpo-irudien irudiak hartu eta garunera eramaten ditu. *ES:* Retina *FR:* Rétine *EN:* Retina *Arloa:* Anat.

- Erretrobertsio:** iz. Organo bat —umetokia, bereziki— atzerantz desbideratzen datzan fenomenoa. Baginarekin osatzen duen angeluaren araberakoa da umetokiaren erretrobertsioa. *ES:* Retroversión *FR:* Rétroversion *EN:* Retroversion *Arloa:* Med.
- Erretrobirus:** iz. RNA material genetikoaren birusa. Minbizia eragiten duete mota horretako birus askok, eta mota berekoa da hiesa eragiten duen birusa ere. *ES:* Retrovirus *FR:* Rétrovirus *EN:* Retrovirus *Arloa:* Biol.
- Erreuma:** iz. Jariakin urtsu edo mukitsua; larruazaletik nahiz muki-mintzetatik kanporatzen da. *ES:* Reuma, reúma *FR:* Rhumatisme *EN:* Rheum, rheumatism *Arloa:* Med.
- Erreuma-artritis:** iz. Ikus 'artritis erreumatoide'.
- Erreumadun:** izond. Erreuma duena. *ES:* Reumático *FR:* Rhumatisme *EN:* Rheumatic
- Erreumatismo:** iz. Ehun konektiboko gaixotasuna; poltsa, hezur, giltzadura, lotailu nahiz giharretako hanturazko prozesua da. Mina, mugimenduetarako zailtasuna eta hainbat gunetako egituren endekapena ditu ezaugarri. *ES:* Reumatismo *FR:* Rhumatisme *EN:* Rheumatism *Adibideak:* Hainbat erreumatismo mota ezagutzen dira: endekapenezkoak, infekziosoak, metabolikoak, hanturazkoak, artropatiak, osteopatiak, periartritisak, eta abar. *Arloa:* Med.
- Erreumatologia:** iz. Medikuntzaren adarra; ehun konektiboaren eta harekin erlazioatutako beste hainbat egituraren hanturazko, endekapenezko edota asaldu metabolikoen ondoriozko eritasunak aztertzen ditu. *ES:* Reumatología *FR:* Rhumatologie *EN:* Rheumatology *Arloa:* Med.
- Erreumatologiko:** izond. Erreumatologiari dagokiona. *ES:* Reumatológico *Arloa:* Med.
- Erreumatologo:** iz. Erreumatologian aditua den sendagilea. *ES:* Reumatólogo *FR:* Rhumatologue *EN:* Rheumatologist *Arloa:* Med.
- Errezeptore:** 1. iz. Aparatu edo organo periferikoa; sentimen-organoetan egoten da eskuarki, eta kinadak jasotzen ditu. 2. iz. Zelula baten egitura kimiko azalekoa; antigeno batekin konbinatzen da, elementu immunologiko jakin bat eratzeko. *ES:* Receptor *FR:* Récepteur *EN:* Receptor *Arloa:* Biol.
- Errezesibo:** izond. (Geneen ezaugarri buruz) Gene gainartzaile baten aurrean ezkutuan geratzen dena. *ES:* Recesivo *FR:* Récessif *EN:* Recessive *Arloa:* Biol.
- Errezeta:** iz. Ohar idatzia; zerbaiten osaera eta prestatzeko modua adierazten dira bertan. *ES:* Receta *FR:* Ordonnance *EN:* Prescription
- Errezetategi:** iz. Errezeta multzoa; errezeta guztiak jasotzeko erabiltzen den koaderno. *ES:* Recetario *EN:* Prescription pad *Arloa:* Med.
- Errezetatu:** ad. Medikiak gaixoari sendagai bat agindu, eta sendagai horren dosia, prestaera eta erabilera adierazi. *ES:* Recetar *FR:* Ordonner, prescrire *EN:* To prescribe *Arloa:* Med.
- Erribosa:** iz. 5 karbonozko pentosa-azukrea; azido erribonukleikoaren osagaia da. Zelulen RNA taldeen osagai garrantzitsua da. *ES:* Ribosa *FR:* Ribose *EN:* Ribose *Arloa:* Biokim.
- Erribosoma:** iz. Zelulen zitoplasman (erretikulu endoplasmatikokoan eta mitokondrietan) dagoen organela; proteinen sintesian ere parte hartzen du. RNAs eta proteina osatua dago, eta zelulako proteinen sintesian parte hartzen du, RNAk dakarren mezua jasoz. *ES:* Ribosoma *FR:* Ribosome *EN:* Ribosome *Arloa:* Biokim.
- Erribosomiko:** izond. Erribosomari dagokiona. *ES:* Ribosómico *FR:* Ribosomique *EN:* Ribosomal *Arloa:* Biokim.
- Erninitis:** iz. Sudur-barrunbeetako mukosaren hantura; muki-jarioarekin batera agertzen da. Akutua, alergikoa, atrofikoa edota basomotorra izan daiteke erninitisa. *ES:* Rinitis *FR:* Rhinite *EN:* Rhinitis *Arloa:* Med.
- Erriofaringe:** iz. Sudur-barrunbearen atzealdeko faringe zatia. *ES:* Rinofaringe *FR:* Nasopharynx *EN:* Rhinopharynx *Arloa:* Med.
- Erriologia:** iz. Medikuntzaren adarra, sudurrari erasaten dioten asalduen diagnostikoa eta tratamenduan espezializatua. *ES:* Rinología *FR:* Rhinologie *EN:* Rhinology *Arloa:* Med.
- Errioplastia:** iz. Sudurraren egitura berregiteko edo itxuraldatzeko egiten den kirurgia plastikoa. Hainbat prozedura daude forma-aldaketa lortzeko: hezurra zein kartilagoa erazteza, gorputzeko beste guneren bateko ehunak transplantatzea, nahiz material sintetikoa jartzea. *ES:* Rinoplastia *FR:* Rhinoplastie *EN:* Rhinoplasty *Arloa:* Med.
- Erriopodo:** iz. Protozooen taldeko izaki zelulabakarra; pseudopodoak ditu, eta haiei esker lortzen ditu mugimendua eta elikadurarako beharrezkoak dituen partikula organikoak. *ES:* Rizópodo *FR:* Rhizopodes *EN:* Rhizopods *Arloa:* Mikrob.
- Erroiboide:** izond. Erroibo-itxurakoa. *ES:* Romboidal, romboideo, romboide *FR:* Rhomboïde, rhomboïdal *EN:* Rhomboid, rhomboidal *Arloa:* Biol.
- Erroiboide (gihar):** iz. Trapezioaren azpiko bi giharretariko bakoitza; sorbalda-hezuraren erdiko ertzarekin lotzen ditu zenbait ornoren apofisi zorrotzak. *ES:* Romboides *FR:* Rhomboïde *EN:* Rhomboid *Arloa:* Anat.
- Erroseola:** iz. Larruazaleko gaixotasuna; arrosa koloreko orbanak ditu ezaugarri. *ES:* Roséola *FR:* Roséole *EN:* Roseolar rash, roseola *Oharrak:* Haren eragile da, adibidez, sifilia. *Arloa:* Med.



- Errotik kendu:** 1. ad. Zerbait errotik atera. 2. ad. Kirurgia bidez gorputzaren zati bat kendu. 3. ad. Gai bat nahaste batetik bereizi, prozedura fisi-koak erabiliz. *ES:* Erradicar *FR:* Éradiquer *EN:* To eradicate
- Errotik kentze:** iz. Zerbait zeharo suntsitzeko edo ezabatzeko prozesua. *ES:* Erradicación *FR:* Éradication *EN:* Eradication
- Errotula:** iz. Triangelu-itxurako hezur zapala; be-launeko giltzaduraren aurreko aldean dago. An-gelu zorrotz bat du, errotularen lotailuarekin el-kartzen dena. *ES:* Rótula *FR:* Rotule *EN:* Patella *Arloa:* Anat.
- Errubeola:** iz. Gaixotasun kutsagarri akutua, biru-sek eragina. Haren ezaugarri dira: exantema, gongoil linfatikoen hantura eta odoleko plasmoti-zosia. Tantanxoen bidez zabaltzen da birusa, eta 12-23 eguneko inkubazioaldia du. Konplikazio larriak ekar ditzake ama batek haurdunaldiaren lehen hiruhilekoko gaixotasun hori hartzeak, eta enbrioian malformazioak eragin. Bada txerto bat errubeolaren aurkakoa, haurtzaroan jartzen dena; ez zaie, ordea, jartzen jada haurdun dauden emakumei. Horrez gain, txertoa jarri eta lehenengo hiru hilabeteetan haurdun ez geratzea gomenda-tzen da. Immunitate iraunkorra uzten du erru-beolak. *ES:* Rubéola *FR:* Rubéole *EN:* Rubella *Arloa:* Med.
- Errudimentario:** izond. Garapen burutu gabea duena; hasikin bati dagokiona, edo haren jatorria duena. *ES:* Rudimental, rudimentario *FR:* Rudi-mentaire *EN:* Rudimentary *Arloa:* Biol.
- Errudimentu:** iz. Lehenengo garapen fasean dagoen organo edo atala; ez dago erabat garatua oraindik, edo ez da funtzionala. Beste organo edo egitura bat sortuko da errudimentutik. *ES:* Rudimento *FR:* Rudiment *EN:* Rudiment *Arloa:* Biol.
- Errukarri:** izond. Errukia eragiten duena; tamalga-rria, eragin tristea dakarrena. *ES:* Lastimoso
- Erupzio:** 1. iz. Larruazaleko lesioa; gorritasuna edo irtenguneak agertzen dira, eta sukarrarekin nahiz sukarririk gabe gertatzen da. 2. iz. Larruazaleko zauri baten garapen azkarra. *ES:* Erupción *FR:* Eruption *EN:* Eruption *Oharrak:* Elgorriaren, errubeolaren eta barren ondorioz agertzen da. *Arloa:* Med.
- Esekidura:** iz. Isurkari batean igeri dauden partiku-la solidoek osatzen duten sistema. Likidoan zehar barreiaritrik daude partikulak —ez disolbatu-rik—, eta, nahastea mugitu arren, mantendu egi-ten da barreiadura. *ES:* Suspensión *FR:* Suspen-sion *EN:* Suspension *Arloa:* Fis.-Kim.
- Esentzial:** 1. izond. Zerbaiteak, izateko, ezinbeste-koa duena. 2. izond. (Gaixotasunei buruz) Kausa ezezaguna duena. *ES:* Esencial *FR:* Essentiel *EN:* Essential *Arloa:* Med., Biol.
- Eseste-mania:** iz. Ikus 'pertsekuzio-mania'.
- Esfenoidal:** izond. Esfenoidean dagoena, edo hari dagokiona. *ES:* Esfenoidal *FR:* Spénoïdal *EN:* Sphenoidal *Arloa:* Anat.
- Esfenoide-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'esfenoidal'.
- Esfenoide:** iz. Garezurraren oinaldean dagoen he-zurra; hezur bakoitza da, irregularra. Hezur okzi-pitalaren aurrean eta etmoidearen atzean dago. *ES:* Esfenoides *FR:* Sphénoïde *EN:* Sphenoid *Ar-loa:* Anat.
- Esfinter:** iz. Eratzun-formako giharra. Itxiarazi egi-ten du irekigune natural bat. *ES:* Esfinter *FR:* Sphincter *EN:* Sphincter *Arloa:* Anat.
- Esfoliazio:** iz. Larruazaleko edo barne-organoetako zelula-ehunak ezkatatzea ezaugarri duen proze-sua. Prozesu arrunta den arren, neurritz kanpo-koa izan daiteke zenbait gaixotasunetan eta eguz-kiak eragindako erredura larrietan. *ES:* Exfolia-ción *FR:* Exfoliation *EN:* Exfoliation *Arloa:* Med.
- Eskafoide:** iz. Bi hezurren izena: bata, karporean lehen ilarako handiena da, alboaldera dagoena; bestea, tartsoaren aurreko ilarakoa, astragaloare-kin eta hiru hezur kuneiformeekin giltzatua. *ES:* Escafoïdes *FR:* Scaphoïde *EN:* Scaphoid *Arloa:* Anat.
- Eskaleno:** iz. Giharra, lepo-ornoetan eratu eta le-henengo edo bigarren saihetsetan txertatzen di-ren lauretako bakoitza. Triangelu-itxurakoa eta bikoitza da eskalenoa, eta lepoaren alboaldean eta sakonaldean dago. *ES:* Escaleno *FR:* Scalène *EN:* Scalenus *Arloa:* Anat.
- Eskalpelo:** iz. Laban txiki zorrotza, alde ganbil bat duena. Disekatzeko eta ebakuntzak egiteko era-biltzen da. *ES:* Escalpelo *FR:* Scalpel *EN:* Scalpel *Arloa:* Med.
- Eskaner:** iz. Azterketa erradiografikorako erabil-zen den tresna. Aztertutako aldearen zeharkako eta ondoz ondoko irudi ugari lortzen dira haren bidez; grafikoki ikus daitezke irudi horiek. *ES:* Escáner *FR:* Scanner *EN:* Scanner
- Eskapula:** iz. Ikus 'omoplato'.
- Eskarifikagailu:** iz. Eskarifikazioa egiteko erabil-zen den tresna; mota askotakoa izan daiteke. *ES:* Escarificador *FR:* Scarificateur *EN:* Scarifica-tor *Arloa:* Med.
- Eskarifikatu:** ad. Sakonera txikiko ebakia egin lar-ruazalean, handik odola edo linfa irten dadin. *ES:* Escarificar *EN:* To scarify *Arloa:* Med.
- Eskarifikazio:** 1. iz. Eskara baten sorrera, istripu baten edo kirurgiaren ondorioz. 2. iz. Larruaza-lean eginiko ebaki txiki eta azalekoa, eskarifikagai-lua nahiz bisturia edo bestelako tresna zorrotzen bat erabiliz. *ES:* Escarificación *FR:* Scarification *EN:* Scarification *Oharrak:* Txerto bat jartzean egiten dena. *Arloa:* Med.



- Eskarlatina:** iz. Gaixotasun kutsagarri akutua; A taldeko estreptokoko hemolitiko batek eragiten du, eta umei erasaten die bereziki. Hotzikarak, sukarra, lepoko gongoil linfatikoen hantura eta larruazaleko negel gorriak dira eskarlatinaren ezaugarri nagusiak. *ES:* Eskarlatina *FR:* Scarlatine *EN:* Scarlet fever *Arloa:* Med.
- Eskasia:** iz. Gutxiegitasuna, maila normalarekiko. *ES:* Déficit *FR:* Déficit *EN:* Insufficiency *Oharrak:* Oxigeno-eskasiak hipoxia eragiten du.
- Eskeletiko:** 1. izond. Eskeletoari dagokiona. 2. izond. Oso argala dena. 3. iz. Odontologian erabiltzen den tresna; falta diren hortzak jartzeko balio du. *ES:* Esquelético *FR:* Squelettique *EN:* Skeletal
- Eskeleto:** iz. Ikus 'hezurdura'.
- Eskizofrenia:** iz. Buruko gaixotasun nagusietako bat; 'eromen' deritza arrunki. Psikosien barnean sailkatzen da, eta errealitatearen desitxuratzeko nabarmena du ezaugarri. *ES:* Esquizofrenia *FR:* Schizophrénie *EN:* Schizophrenia *Oharrak:* Eskizofreniaren sintoma nagusiak dira: disoziazio psikikoa, despersonalizazioa, autismoa, pentsamenduaren asaldurak (eldarnioa eta pentsamenduaren jarioaren nahasteak), hautemate-asaldurak (haluzinazioak), afektibitate-asaldurak (anibalentzia, labilitatea) eta asaldurak psikomotorrak (katatonía). *Adibideak:* Eskizofrenia motak dira: eskizofrenia sinplea, eskizofrenia paranoidea, eskizofrenia katatonikoa eta eskizofrenia hebefrenikoa. *Arloa:* Psikiat.
- Eskizofrenia hebefreniko:** iz. Ikus 'hebefrenia'. *ES:* Esquizofrenia hebefrénica
- Eskizofreniko:** 1. izond. Eskizofreniari dagokiona. 2. iz. Eskizofreniak jotako pertsona. *ES:* Esquizofrénico *FR:* Schizophrène *EN:* Schizophrenic *Arloa:* Psikiat.
- Eskizoide:** izond. Nortasun-nahaste mota bati dagokiona. *ES:* Esquizoide *FR:* Schizoïde *EN:* Schizoïd *Arloa:* Psikiat.
- Esklerosatu:** 1. ad. Ehun bat asaldatu, esklerosiaren eraginez. 2. ad. Esklerosia eragin. *ES:* Esclerosar *EN:* To sclerose *Arloa:* Med.
- Esklerosatu:** izond. Esklerosi-prozesua izan duena. *ES:* Esclerosado *FR:* Sclérosé *EN:* Sclerosed *Arloa:* Med.
- Esklerosi:** iz. Ehun bat zurruntzea ezaugarri duen asaldurak. Esklerosiaren eragile izan daitezke: hantura, gatz mineralen metaketa, edota ehun konektiboan zuntzak sartzea. *ES:* Esclerosis *FR:* Sclérose *EN:* Sclerosis *Arloa:* Med.
- Eskoliosi:** iz. Bizkarrezurra albo batera desbideratzea ezaugarri duen asaldurak. Eragileen artean daude: bizkarrezurraren jaiotzetiko malformazioak, poliomielitisa, displasia eskeletikoak, paralisi espastikoa eta bi hantkek luzera desberdina izatea. *ES:* Escoliosis *FR:* Scoliose *EN:* Scoliosis *Arloa:* Med.
- Eskorbutoiko:** izond. Eskorbutoari dagokiona; eskorbutoa duena. *ES:* Escorbuto
- Eskorbuto:** iz. Elikaduran azido askorbiko gutxiegi hartzeak eragindako gaixotasuna. Eskorbutoaren ezaugarri dira: ahulezia, anemia, edema, sukarra, hortz-oien harrotasuna, hortzen ultzerazioa, zangoen gogortasuna, odoljarioak eta, kasurik larrietan, kakexia. *ES:* Escorbuto *FR:* Scorbut *EN:* Scurvy *Arloa:* Med.
- Eskorbutoaren kontrako:** izlag. (Gai bati buruz) Eskorbutoaren aurka eraginkorra dena. *ES:* Antiescorbútico *FR:* Agent antiscorbutique *EN:* Antiscorbutic agent *Adibideak:* C bitamina. *Arloa:* Med.
- Eskrofula:** iz. Tuberkulosi kronikoa; gongoil linfatikoei, hezurrei eta giltzadurei erasaten die. Sendagai egokiak dira: antituberkulostatikoak, itsasoko klima, eguzkia eta bitaminak. *ES:* Escrófula *EN:* Scrofula *Arloa:* Med.
- Eskroto:** iz. Barrabilen larruazal-poltsa; bere baitan ditu barrabilak eta esperma-kordioaren zati bat. Bi geruza ditu: larruazala eta dartos tunika. Oso fina da larruazala, kolore arrekoa, eta zimurra. *ES:* Escroto *FR:* Scrotum *EN:* Scrotum *Arloa:* Med.
- Esku:** iz. Gorputzeko atala, besaurrearen muturrean dagoena. Eskeletoko atalik malguena da. Hiru zati ditu: karpoa, metakarpoa eta hatzak. 27 hezur ditu guztira: 8 hezur karpoan, 5 metakarpooan, eta 15 hatzetako falangeetan. *ES:* Mano *FR:* Main *EN:* Hand
- Esku-ahur:** iz. Eskuaren aurreko alde, eskumuturretik hatzen oinarriaraino hedatzen dena. *ES:* Palma *FR:* Paume *EN:* Palm
- Eskualde:** iz. Gorputzeko gune zehatza, muga naturalak edo hautazkoak dituena. *ES:* Región *FR:* Région *EN:* Region *Arloa:* Anat.
- Eskuin:** iz. Bihotza dagoen kontrako alde. *ES:* Derecha *FR:* Droit *EN:* Right
- Eskuin-birakari:** izond. Ikus 'destrogiro'.
- Eskumutur:** iz. Goiko gorputz-adarreko atala, besaurrearen eta eskuaren artean dagoena; karpooaren eremua hartzen du. *ES:* Muñeca *FR:* Poignet *EN:* Wrist
- Eskumuturreko:** iz. Eskumuturrean jartzen den bilgarria, hari eusteko; larruzkoa edo beste materialen batez egina izan daiteke. *ES:* Muñequera *FR:* Serre-poignet, bracelet *EN:* Wristband
- Esmalte:** iz. Gai zuri gogorra, hortzen koroaren dentina estaltzen duena. *ES:* Esmalte *FR:* Émail *EN:* Enamel
- Esmalteztatu:** ad. Zerbaiti esmalte-geruza eman. *ES:* Esmaltar *FR:* Émailler *EN:* To enamel
- Esneki:** iz. Esnetik eratorritako gaia, edo esnea oinarri harturik prestatutako elikagaia. *ES:* Materia láctea *Adibideak:* gazta, gurina eta abar.

- Esnifatu:** ad. Sudurretik kokaina edo hauts eran dagoen beste edozein droga sartu. *ES:* Esnifar *EN:* To sniff, to snort
- Esnifatze:** iz. Kokaina edo hauts eran dagoen beste edozein droga sudurretik sartzea. *ES:* Esnifada *EN:* Sniff, snort
- Esofagiko:** izond. Ikus 'hestegorriko'.
- Esofago:** iz. Ikus 'hestegorri'.
- Esparatrapu:** iz. Ehun- edo zelulosa-mintza; lotu-  
rei eta aposituei eusteko, gune bat geldirik edu-  
kitzeko nahiz presioa egiteko erabil daiteke,  
besteak beste. Hidrofoboa izaten da zenbait kasu-  
tan. *ES:* Esparadrapo *FR:* Sparadrap *EN:*  
Tape
- Espasmo-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'espasmodiko'.
- Espasmo:** iz. Gihar baten edo gihar talde baten uz-  
kurdura ez-borondatezkoa; zotina, esate batera-  
ko. *ES:* Espasmo *FR:* Spasme *EN:* Spasm *Arloa:*  
Med.
- Espasmodiko:** izond. Espasmoari dagokiona, edo  
espasmoarekin batera gertatzen dena. *ES:* Espas-  
módico *FR:* Spasmodique *EN:* Spasmodic
- Espasmoen kontrako:** izlag. (Gai bati buruz)  
Gihar-espasmoak saihesteko edo arintzeko era-  
biltzen dena. *ES:* Antiespasmódico, antiespástico  
*FR:* Agent antispasmodique *EN:* Antispasmodic  
agent *Arloa:* Med.
- Espektoratu:** ad. Arnasbideetan metatutako jaria-  
kinak ezularen bidez ahotik kanporatu. *ES:* Ex-  
pectorar *FR:* Expectorer *EN:* To expectorate *Ar-  
loa:* Med.
- Espektorazio:** iz. Muki, karkaxa eta likidoak kan-  
poratzea. Zintzur-hestetik edo biriketarik egiten  
da, ezutla eginez edo eztarria garbituz. *ES:* Ex-  
pectación *FR:* Expectoration *EN:* Expectora-  
tion *Arloa:* Med.
- Espektrofotometria:** iz. Disoluzio bateko materia  
kolore-emaile neurtzeko prozesua; espektro ul-  
tramorean, infragorrian edo agerikoan xurgatuta-  
ko argiaren arabera zehazten da. Oso erabilia da  
kimika klinikokoan, disoluzio bateko gaien kon-  
zentrazioa neurtzeko. *ES:* Espectrofotometría  
*FR:* Spectrophotométrie *EN:* Spectrophotometry  
*Arloa:* Kim.
- Espektrofotometro:** iz. Uhin-luzera jakin batzuei  
dagokien argi-intentsitatea neurtzeko tresna. *ES:*  
Espectrofotómetro *FR:* Spectrophotomètre *EN:*  
Spectrophotometer *Arloa:* Kim.
- Espektrometria:** iz. Argi-uhinen eta beste zenbait  
uhin elektromagnetikoren intentsitatea neurtze-  
ko prozedura, uhin-luzeraren bidez. *ES:* Espec-  
trometría *FR:* Spectrométrie *EN:* Spectrometry  
*Arloa:* Kim.
- Espektrometro:** iz. Erradiazio elektromagnetikoa  
igortzearen nahiz haren absortzioaren intentsita-  
tea neurtzeko edozein tresna; uhin-luzeraren edo  
maiztasunaren funtzioz egiten da neurketa. *ES:*  
Espectrómetro *FR:* Spectromètre *EN:* Spectro-  
meter *Arloa:* Kim.
- Espektroskopia:** iz. Erradiazio elektromagnetiko  
baten espektroa zuzenean ikusteko tresna. *ES:*  
Espectroscopio *FR:* Spectroscope *EN:* Spectros-  
cope *Arloa:* Kim.
- Espekulu:** iz. Barrunbe baten paretak banatzeko  
erabiltzen den tresna, barrunbe hori aztertu ahal  
izateko; belarriko espekulua, begietakoa, eta ba-  
ginakoa, esate baterako. *ES:* Espéculo *FR:* Spécu-  
lum *EN:* Speculum *Arloa:* Med.
- Esperimental:** izond. Esperimentazioari dago-  
kiona, edo esperimentuz eratua dena. *ES:* Ex-  
perimental *FR:* Expérimental *EN:* Experimen-  
tal
- Esperimentatu:** ad. Zerbaiten bertute eta ezauga-  
rriak praktikan probatu eta aztertu. *ES:* Experi-  
mentar *FR:* Expérimenter *EN:* To experiment  
*Adibideak:* Zenbait fenomeno edo hastapen  
zientifiko aurkitu, probatu edo egiaztatzeko era-  
giketarako egin, zientzia fisiko-kimiko eta naturale-  
tan.
- Esperimentazio:** iz. Zientzia-ikerketarako meto-  
doa, esperimentuen erabileran oinarritua. *ES:*  
Experimentación *FR:* Expérimentation *EN:* Ex-  
perimentation
- Esperimentu:** iz. Zerbaiten ezaugarriak eta arra-  
zoiak baldintza jakinetan aztertzeko egiten den  
behaketa. *ES:* Experimento *FR:* Experiment *EN:*  
Expérience
- Esperma:** iz. Ikus 'semen'.
- Espermatiko:** izond. Ikus 'seminal'.
- Espermatizida:** iz. Ikus 'espermizida'. *ES:* Esper-  
mática
- Espermatozoide:** iz. Ugal-zelula ar heldua, mug-  
korra. Barrabiletako gai bereizgarria da, eta se-  
menaren oinarritzko osagaia. Obuluan sartzen  
denean, hura ernaldutik egiten du. *ES:* Espermato-  
zoide *FR:* Spermatozoïde *EN:* Spermatozoon  
*Arloa:* Biol.
- Espermizida:** iz. Espermatozoak deuseztatzen di-  
tuen gai kimikoa. Hainbat modutan eragiten du:  
espermatozooen gainazalaren tentsioa murriztuz,  
eragin bakterizidaren bidez zelularen paretak  
hautsiz, edota oso ingurune azidoa sortuz. *ES:*  
Espermicida *FR:* Spermatoicide *EN:* Spermato-  
cide *Arloa:* Med.
- Espezialista:** izond. Medikuntzaren adar batean  
aditua. *ES:* Especialista *FR:* Spécialiste *EN:* Spe-  
cialist *Arloa:* Med.
- Espezialitate:** iz. Medikuntzaren nahiz erizaintza-  
ren adarra; profesionala bereziki prestatua dago  
hartan, ikasketa-programa bat jarraitu eta dagoz-  
kion azterketak gainditu ondoren. *ES:* Especiali-  
dad *FR:* Spécialité *EN:* Specialty

- Espezie:** iz. Ezaugarri fisiko eta biologiko berberak dituzten norbanakoez osatutako taldea; beren artean gurutzatzen dira edo gurutza daitezke soilik. Generoak osatuz elkartzen dira espezieak. *ES:* Especie *FR:* Espèce *EN:* Species *Arloa:* Biol.
- Espezifikiko:** izond. Espezie baten bereizgarri dena. *ES:* Específico *FR:* Spécifique *EN:* Specific *Arloa:* Biol.
- Espezifikotasun:** 1. iz. Gaixotasun edo lesio jakinetan eragiteko zenbait sendagaik duten gaitasunaren ezaugarria. 2. iz. Immunologian, antigorputzak bere antigenoarekin duen afinitate berezia. *ES:* Especificidad *FR:* Spécificité *EN:* Specificity
- Espinal:** izond. Ikus 'bizkarrezurreko'.
- Espirazio:** iz. Ikus 'arnasbehera'.
- Espirilo:** iz. Mikroorganismo espirala; *Spirillum* generoko bakterioa da. *ES:* Espirilo
- Espiroketa:** iz. *Spirochaeta* generoko bakterio mugikorra, espiral-itxurakoa; hariizpi malguak ditu. Gaixotasun larriak —sifilia, espiroketosia, eta abar— eragiten dituzte bakterio horietako batzuek. *ES:* Espiroqueta *FR:* Spirochète *EN:* Spirochete
- Espleniko:** izond. Barekoa, edo hari dagokiona. *ES:* Esplénico *FR:* Splénique *EN:* Splenic *Arloa:* Anat.
- Esplenio:** iz. Gihar bikoiti zabal eta mehea, buruaren eta lepoaren atzealdean dagoena; burua jasotzea, alboetara makurtzea eta biratzea ahalbidetzen du. *ES:* Esplenio *FR:* Splénius *EN:* Splenius *Arloa:* Anat.
- Espontaneo:** izond. Modu naturalean —arrazoirik gabe, itxuraz— gertatzen dena. *ES:* Espontáneo *FR:* Spontané *EN:* Spontaneous
- Espora:** iz. Hainbat bakterioek hartzen duten itxura, beroa, lehorketa eta produktu kimikoak jasateko. *ES:* Espora *FR:* Spore *EN:* Spore *Oharrak:* Espora-sortzaile diren bakterioek eragindako gaixotasunen artean daude: antraxa, tetanosa, botulismoa eta gas-gangrena. *Arloa:* Mikrob.
- Esporozoo:** iz. Protozoo endoparasiota; esporulazioz ugaltzen da. Ez du mugitzeko organorik, eta sexu bidezko nahiz sexu gabeko ugalketa du. *ES:* Esporozoo, esporozoario *FR:* Sporozoaire *EN:* Sporozoan *Arloa:* Mikrob.
- Estafilokoko:** iz. Bakterio ez-mugikorren, esferikoak eta grampositiboak generoa. Larruazalean eta eztarrian agertzen dira zenbait espezie. Zorrea sortzen dute, eta gorabeherak eragin ditzakete larruazalean eta hezurretan. Tratamendu gisa, penizilina erabiltzen da. *ES:* Estafilococo *FR:* Staphilocoque *EN:* Staphylococcus *Arloa:* Mikrob.
- Estali:** ad. Azal batean beste azal edo geruza bat zabaldu. *ES:* Cubrir *FR:* Couvrir *EN:* To cover
- Estandar:** iz. Antzeko fenomenoak edo gaiak alderatzeko oinarritzat erabiltzen den balioespena; farmazia-gai baten prestakuntzarako estandarra, esate baterako. *ES:* Estándar *FR:* Standard *EN:* Standard
- Estandarizatu:** ad. Estandar bihurtu; antolatu. *ES:* Estandarizar *FR:* Standardiser *EN:* To standardize
- Estasi:** iz. Odola nahiz beste edozein isurkari gorputzaren gune batean geratzea ezaugarri duen asaldua. *ES:* Estasis *FR:* Stase *EN:* Stasis *Arloa:* Med.
- Esteka:** iz. Ikus 'lotura'. *ES:* Ligadura
- Estekiometria:** iz. Kimikaren adarra; erreakzio kimikoetako erreaktiboak eta produktuen arteko erlazio kuantitatiboak aztertzen ditu. *ES:* Estequiometría *FR:* Stoechiométrie *EN:* Stoichiometry *Arloa:* Kim.
- Ester:** iz. Konposatu kimikoa; alkohol baten eta azido organiko baten arteko erreakzioaren bidez eratzen da. *ES:* Éster *FR:* Ester *EN:* Ester *Oharrak:* Gantz-azidoen eta glizerol alkoholaren arteko loturak eratutako esterrak dira gantzak. *Arloa:* Kim.
- Estereoisomeria:** iz. Isomeria optikoa; konposizio berekoak diren baina espazioan duten kokapenak bereizten dituen gorputzen isomeria da. Argi polarizatuaren aurrean duten jarreraren arabera bereizten dira, batez ere. *ES:* Estereoisomería *FR:* Stéréo-isométrie *EN:* Stereoisomerism *Arloa:* Kim.
- Estereoskopio:** iz. Tresna optikoa; objektu baten bi irudi konbinatuz, erliebean ikusten da objektu hori. *ES:* Estereoscopio *FR:* Stéréoscope *EN:* Stereoscope *Arloa:* Fis.
- Esteril:** izond. Aseptikoa; mikroorganismorik ez duena. *ES:* Estéril *FR:* Stérile *EN:* Sterile *Arloa:* Med.
- Esterilet:** iz. Umetoki-barrunbean ipintzen den antistisogailua, plastikozkoa zein kobrezkoa. *ES:* Esterilet
- Esterilitate:** iz. Mikroorganismorik eza. *ES:* Esterilidad *FR:* Stérilité *EN:* Sterility *Arloa:* Med.
- Esterilizagailu:** iz. Esterilizatzeko erabiltzen den tresna. *ES:* Esterilizador *FR:* Stérilisateur *EN:* Sterilizer
- Esterilizatu:** ad. Mikroorganismoak suntsitu, hala kirurgia-tresnetan daudenak edo egon litezkeenak, nola uretan nahiz organismoan nahiz beste edonon. *ES:* Esterilizar *FR:* Stériliser *EN:* To sterilize
- Esterilizazio:** iz. Mikroorganismoak suntsitzeko erabiltzen den teknika; beroa, ura, produktu kimikoak edo gasak erabiliz egiten da. *ES:* Esterilización *FR:* Stérilisation *EN:* Sterilization
- Esterno:** iz. Ikus 'bularrezur'.

- Esternokleidomastoideo:** iz. Lepoko giharra. Goiko aldean, afofisi mastoidean eta garondo parean txertatzen da; behekoan, berriz, bularrezurrean eta lepuaztaian. *ES:* Esternocleidomastoideo *FR:* Muscle sterno-cléido-mastoïdien *EN:* Sternocleidomastoid muscle *Arloa:* Anat.
- Esteroide:** iz. Esteroletatik eratorritako gai askori ematen zaien izena. Giltzurrun gaineko kor-texean eta gonadetan sortzen dira, batez ere. Garrantzi fisiologiko handia dute. *ES:* Esteroi-de *FR:* Stéroïde *EN:* Steroid *Arloa:* Kim., Bio-kim.
- Esteroisomero:** iz. Konposatu mota; beste konpo-satu baten pisu molekular eta osaera ehundar bera izan arren, harekiko desberdina da hainbat ezaugarritan. Atomoek espazioan duten kokape-naren araberakoa da desberdintasun hori. *ES:* Es-tereoisómero *FR:* Stéréoisomère *EN:* Stereoisomer
- Esterol:** iz. Esteroideen azpimultzoa. Kolesterola da organismoko garrantzitsuen. *ES:* Esterol *FR:* Stérol *EN:* Sterol *Arloa:* Biokim.
- Estertore:** iz. Arnasketaren ez-ohiko hotsa; larin-gean sorrarazten du arnasak, zintzur-hestean eta bronkioetan pilaturiko jariakinetatik igarotzean. Hilzorian daudenek egiten dute, batez ere. *ES:* Estertor *FR:* Râle *EN:* Rale *Arloa:* Med.
- Estesia:** iz. Nerbio-sistemako edozein aldu; per-zepzioari edo sentikortasunari erasaten dio. *ES:* Estesia *FR:* Esthésie *EN:* Esthesia *Arloa:* Biol.
- Estetoskopia:** iz. Tresna zilindrikoa; hainbat for-ma, neurri eta materialetakoa izan daiteke. Aus-kultatzeo erabiltzen da, gorputz barneko hotsak —bihotzekoak eta biriketakoak, bereziki— en-tzuteko. *ES:* Estetoscopia *FR:* Stéthoscope *EN:* Stethoscope *Arloa:* Med.
- Estimulatuzaile:** izond. Ikus 'bizigarri'. *ES:* Estimulante
- Estimulu:** iz. Gorputzean edo psikean erantzun bat eragiteko funtzioa duen agentea. *ES:* Estimulo *FR:* Stimulus *EN:* Stimulus
- Estomatitis:** iz. Hantura-prozesua; aho-mukosari erasaten dio. Ahoko mintza gorritzea, odol-gal-tzeak (barailetan batez ere) eta ahoko usain txarra ditu ezaugarri. Hainbat eragile izan ditzake: bak-terioek, birusek edo onddoek eragindako gaizkoa-durak, hainbat produktu kimiko, bitamina-gu-txiagetasuna, eta abar. Antiseptikoak eta penizilina erabiltzen dira estomatitisaren tratamendurako. *ES:* Estomatitis *FR:* Stomatite *EN:* Stomatitis *Ar-loa:* Med.
- Estomatologia:** iz. Medikuntzaren adarra; aho-barrunbearen morfologia, egitura, funtzioak eta gaixotasunak aztertzen ditu. *ES:* Estomato-logía *FR:* Stomatologie *EN:* Stomatology *Arloa:* Med.
- Estomatologo:** iz. Ahoko gaixotasunetan aditua den espezialista. *ES:* Estomatólogo *FR:* Stomato-logue *EN:* Stomatologist *Arloa:* Med.
- Estrabiko:** izond. Estrabismoari dagokiona; estra-bismoa duena. *ES:* Estrábico *FR:* Strabique *EN:* Cross-eyed *Arloa:* Med.
- Estrabismo:** iz. Begietako prozesu anomaloa; ikus-ardatzak ezin dira gune bererantz aldi berean zu-zendu. Paraleloan begiratzeko ezintasuna dute bi begiek. *ES:* Estrabismo *FR:* Strabisme *EN:* Stra-bismus *Arloa:* Med.
- Estratifikatu:** ad. Elkarren gaineko geruzatan ipini. *ES:* Estratificar *FR:* Stratifier *EN:* To stratify
- Estratifikazio:** iz. Zerbait geruzatan antolatzea. *ES:* Estratificación *FR:* Stratification *EN:* Stratifica-tion
- Estratu:** iz. Uniformeki ezarritik dauden eta osota-sun bat eratzen duten xaflak. *ES:* Estrato *FR:* Strate *EN:* Stratum *Adibideak:* Epidermisaren oinaldeko estratua.
- Estreptokoko:** iz. Kate bat osatuz elkartzen diren hainbat koko bakterio esferiko. Uretan, airean eta lurtean bizi daitezke. Gizakiaren eritasun kutsagarri gehienak eragiten dituzte: meningiti-sa, septizemia, eskarlatina, eta abar. *ES:* Estrepto-coco *FR:* Streptocoque *EN:* Streptococcus
- Estreptomizina:** iz. Antibiotiko aminoglukosidoa, *Streptomyces griseus* onddoaren hazkuntzatik bak-kartutakoa; eraginkorra da hainbat germenen aurka. Kaltegarria izan daiteke dosi handitan. Tuberkulosia, tifusa, bronkoneumonia eta abar sendatzeko erabiltzen da; bakterizida da. *ES:* Es-treptomicina *FR:* Streptomycine *EN:* Streptomy-cin *Oharrak:* Ahotik ematen da hesteetarako an-tiseptiko gisa erabiltzen denean, eta gihar barne-tik tuberkulosiaren, bakterioek eragindako endokarditisaren, bruzelosiaren, eta beste hain-baten aurkako tratamenduan. *Arloa:* Med.
- Estres:** 1. iz. Prozesu psikologikoa; kinada baten aurrean, kinada hori ongizatea edo oreka mantentzeko mehatxugarria ote den eta aurre egin ote diezaiokeen balioesten du subjektuak, eta erantzun bat (estres-erantzuna) ematen dio. 2. iz. Organismoak jasaten duen erreakzio multzoa, gai kaltegarri batekin bortizki topo egitean. Hainbat eragile izan ditzake: hotza, emozioak, gaixotasunak, ebakuntza kirurgikoak, kolpe traumatikoak, eta abar. *ES:* Estrés *FR:* Stress *EN:* Stress
- Estresagarri:** izond. Estresa eragiten duena. *ES:* Es-tresante *EN:* Stressful
- Estresatu:** ad. Estresa eragin. *ES:* Estresar
- Estribo:** iz. Erdialdeko belarriko hiru hezurtxoeta-tik barnekoena; soinuaren uhinak garraiatzen ditu ingudetik barneko belarriraino. *ES:* Estribo *FR:* Étrier *EN:* Stapes *Arloa:* Anat.

- Estrogeno:** iz. Emakumearen sexu-ezaugarriak gararazten dituen hormona. Obulutegiek, karenak, giltzurrun gaineko guruinek eta barrabilek jariatzen dituzten esterolak dira. *ES:* Estrógeno *FR:* Oestrogènes *EN:* Estrogen *Arloa:* Kim.
- Estroma:** iz. Organo, guruin edota beste egitura baten euskaria, ehun konektibozko sarea gehi-  
netan; gai zelularrei eusten die ehun-sare horie-  
tan. *ES:* Estroma *FR:* Stroma *EN:* Stroma *Arloa:* Med.
- Estrontzio:** iz. Sr. Elementu kimiko metalikoa, lu-  
rralkalinoen taldekoa. Biguna da, kolorez zuria,  
eta zilar-distira du ebaki berritan. Erabilera tera-  
peutikoa dute haren hainbat gaztek: artsenikoa,  
bromuroa, laktatoa eta ioduroa. *ES:* Estroncio  
*FR:* Strontium *EN:* Strontium *Arloa:* Kim.
- Estu:** izond. Ikus 'kritiko'.
- Estugune:** iz. Gorputzeko tutu-itxurako egitura  
baten hertsadura; ondorioz, haren funtzioa ozto-  
patzen du. *ES:* Estrangulación *FR:* Strangulation  
*EN:* Strangulation
- Estupefaziante:** iz. Gai narkotiko eta analgesikoa.  
Gai estupefazianteek asaldatu egiten dituzte  
gaixoaren egoera fisiologikoa eta psikikoa, eta  
euforia-egoera berezia eragiten diote. Mendeko-  
tasuna ekar dezake. *ES:* Estupefaciente *FR:* Stu-  
péfiant *EN:* Stupeficient
- Estutu:** ad. Ikus 'hertsatu'. *ES:* Constreñir
- Estutze:** iz. Ikus 'hertsadura'.
- Ezzipiente:** iz. Gai geldoa eta terapeutikoki ez-er-  
ginkorra; prestakin farmazeutikoen forma, bolu-  
mena eta trinkotasuna zehazten ditu. Sendagaie-  
kin nahasten da, errazago neurtu eta eman ahal  
izateko. *ES:* Excipiente *FR:* Excipient *EN:* Exci-  
pient *Arloa:* Med.
- Eszizio:** 1. iz. Organo edo ehun bat erauztea. 2. iz.  
Genetika molekularrean, elementu genetiko bat  
ADN hariizpi batetik ateratzeko prozesua. *ES:*  
Excisión, escisión *FR:* Excision *EN:* Excision *Ar-  
loa:* Med.
- Eszitatu:** ad. Norbait tentsio-egoeran jarri, estimu-  
luren baten bidez; bizitasuna eman. *ES:* Excitar  
*FR:* Exciter *EN:* To excite
- Eszitazio:** 1. iz. Estimulu batek eragindako efek-  
tua. 2. iz. Funtzio baten edo gehiagoren izate  
normala bizkortuta egotearen ondoriozko egoe-  
ra. *ES:* Excitación *FR:* Excitation *EN:* Excita-  
tion
- Etanol:** iz. CH<sub>3</sub>-CH<sub>2</sub>OH. Alkohol etilikoa; likido  
kolorgea da, eta edari alkoholikoen osagaia. Azu-  
krea duten fruta- edo landare-zukuen hartzidu-  
raz lortzen da. *ES:* Etanol *FR:* Éthanol *EN:* Etha-  
nol *Arloa:* Kim.
- Eten:** iz. Ikus 'hernia'.
- Eter:** iz. Molekulan -O- taldea duten konposatu  
organikoen izen generikoa (R-O-R'). Gai lurrun-  
korrak dira, eta erraz su hartzen dute. Etano-  
oxietanoa da eter arrunta (erabiliena); alkohol  
arrunta azido sulfurikoaren eraginean deshidra-  
tatuz lortzen da. Anestesiko orokor gisa erabili  
izan da medikuntzan; analgesia ezin hobea eta  
giharren erlaxazio sakona eragiten dituzenez, ez  
du beste medikamentu batzuen beharrik izaten  
anestesiarako. *ES:* Éter *FR:* Éther *EN:* Ether *Ar-  
loa:* Kim.
- Etileno:** iz. CH<sub>2</sub>=CH<sub>2</sub>. Hidrokarbuero asegabea;  
gas toxiko errekorra da, kolorgea eta usain bere-  
zikoa. Airean baino arinagoa da, petroliotik atera-  
tzen da, eta fruituak umotzeko eta polietilenoa  
egiteko erabiltzen da, besteak beste. *ES:* Etileno  
*FR:* Éthylène *EN:* Ethylene *Arloa:* Kim.
- Etiliko:** 1. izond. (Alkoholei buruz) Karbohidra-  
toen hartziduraz eratzen dena. 2. izond. Etilis-  
moari dagokiona. 3. izond. (Pertsonari buruz)  
Alkoholikoa. *ES:* Etilico *FR:* Éthylique *EN:*  
Ethylic
- Etilismo:** 1. iz. Alkoholismoa. 2. iz. Alkohol etili-  
koak eragindako intoxikazioa. *ES:* Etilismo *FR:*  
Éthylisme *EN:* Ethylism *Arloa:* Med.
- Etiologiko:** izond. Etiologiari dagokiona. *ES:* Etio-  
lógico *FR:* Étiologique *EN:* Etiologic *Arloa:*  
Med.
- Etmoidal:** izond. Etmoide hezurari dagokiona,  
edo harekin zerikusia duena. *ES:* Etmoidal *FR:*  
Ethmoïdale *EN:* Ethmoidal *Arloa:* Anat.
- Etmoide:** iz. Garezurraren oinarriko hezur arin eta  
arola; sudur-barrunbearen goialdeko pareta  
gehienetan ageri da. Kopeta-hezurari, malko-he-  
zurari, esenoideari eta hezur palatinoari lotuta  
dago. *ES:* Etmoïdes *FR:* Ethmoïde *EN:* Ethmoid  
bone *Arloa:* Anat.
- Etologia:** iz. Animalien jarrera aztertzen duen  
zientzia. Beste zenbait biologia-diziplinetara jo-  
tzen du ikusten diren portaera-ereduak ulertu  
ahal izateko. *ES:* Etología *FR:* Éthologie *EN:*  
Ethology *Arloa:* Biol.
- Etorki:** iz. Ikus 'jatorri'.
- Etxe-mediku:** iz. Ikus 'familia-mediku'.
- Etzan:** ad. Jarrera horizontala hartu; atsedean har-  
tzeko edo lo egiteko, batez ere. *ES:* Yacer *FR:*  
Gésir *EN:* To lie
- Etzanda:** adlag. Gorputzaren atsedean-jarrera, gutxi  
gorabehera horizontala den plano batean. *ES:* En  
decúbito *FR:* Décubitus *EN:* Decubitus
- Etzanera:** iz. Horizontalalki etzanda dagoen gorpu-  
tzaren egoera. *ES:* Decúbito *FR:* Décubitus *EN:*  
Decubitus position
- Etzanik:** adlag. Ikus 'etzanda'.
- Euglena:** iz. Protozoo flagelodunen generoa; ez  
dute zelulosazko hormarik, eta flageloa erabiltzen  
dute igeri egiteko. Ur zikinetan bizi dira. *ES:*  
Euglena *FR:* Euglène *EN:* Euglena



- Eukarioto:** iz. Egiatzko nukleoa duen zelula. Nukleoa material genetiko gordetzen da; mintz batek inguratzen du, eta zitoplasmatik bereizi. Mota horretakoak dira izaki guztiak, arkeobakterioak, eubakterioak eta zianofizeoak izan ezik. *ES:* Eucariota *FR:* Eucaryote *EN:* Eukaryotic *Arloa:* Biol.
- Eupeptiko:** izond. (Gai bati buruz) Digestioa errazten duena. *ES:* Eupéptico *Adibideak:* Azafraia da gai eupeptiko preziatuenerarikoa. *Arloa:* Med.
- Eustakioren hodi:** iz. Ikus 'Eustakioren tronpa'.
- Eustakioren tronpa:** iz. Barrunbe tinpanikoa faringearrekin lotzen duen hodia; muki-mintz batek estaltzen du. Eustakioren tronparen funtzio nagusiak dira erdiko belarria aireztatzea eta presio orekatua mantentzea tinpano-mintzaren bi aldeetan. Itxita egoten da hodia gehienetan, eta zabaldu egiten da irensterakoan. *ES:* Trompa de Eustaquio *FR:* Trompe d'Eustache *EN:* Eustachian tube *Arloa:* Anat.
- Eutanasia:** iz. Gaixotasun edo prozesu sendaezin bat duen pertsonari eragindako heriotza, oinazea ekiditeko. Bi eratakoa izan daiteke: aktiboa eta pasiboa. Botika hilgarriak emanez egiten da eutanasia aktiboa; pasiboa, berriz, tratamendua kendu eta pertsona hiltzen utziz. *ES:* Eutanasia *FR:* Euthanasie *EN:* Euthanasia *Arloa:* Med.
- Eutsi:** ad. Helduta eduki; mugitu, erori, galdu edo suntsitu gabe, bere egoeran iraunarazi. *ES:* Contener *FR:* Contenir *EN:* To restrain, to hold back
- Exantema:** iz. Erupzio gisa agertzen den eritema; larruazalaren gune zabalei erasaten die. Hatzaren presioaz desagertzen ez den negela da, eta bereziki elgorriak eta eskarlatinak agerrarazten dute. *ES:* Exantema *FR:* Exanthème *EN:* Exanthema *Arloa:* Med.
- Exantematiko:** izond. Exantemari dagokiona. *ES:* Exantemático *FR:* Exanthématique *EN:* Exanthematous *Arloa:* Med.
- Exogeno:** izond. Organismotik kanpo sortzen edo garatzen dena. *ES:* Exógeno *FR:* Exogène *EN:* Exogenous
- Exokrino:** 1. izond. (Guruinei buruz) Hodi irairizlea duena; bertatik kanporatzen dira organismoak iraitzitako produktuak. 2. izond. Kanporako jario-prozesuari dagokiona. *ES:* Exocrino *FR:* Exocrine *EN:* Exocrine *Arloa:* Biol.
- Exotermiko:** izond. (Erreakzio edo prozesu kimikoei buruz) Beroa askatzen duena; exotermikoa da, adibidez, erretze-erreakzioa. *ES:* Exotérmico *FR:* Exothermique *EN:* Exothermic *Arloa:* Kim.
- Exudatu:** iz. Likido, zelula, zein beste edozein gai; zeluletatik edo odol-hodietatik mantso-mantso kanporatzen da, zelula-mintzen poro edo zulo txikietatik igarota. Hantura-prozesuetan gertatzen da, batez ere. *ES:* Exudado *FR:* Exsudat *EN:* Exudate *Arloa:* Med.
- Ez-aratz:** izond. Ikus 'ez-puru'.
- Ezarpen:** iz. Ernaldutako obulua umetokiko mukosaren finkatzeko prozesua. Enbrioiaren garapeneraren lehenengo faseetan gertatzen da. *ES:* Implantación *FR:* Implantation *EN:* Implantation *Arloa:* Biol.
- Ezarri:** ad. Egitura bat dagokion lekuan ipini. *ES:* Implantar *FR:* Implanter *EN:* To implant *Arloa:* Biol.
- Ezgai:** izond. Zerbaitetarako gauza ez dena. *ES:* Incapaz *FR:* Incapable *EN:* Incapable
- Ezgai-agiri:** iz. Ikus 'baja'.
- Ezgaitasun:** iz. Gaitasun fisikoa nahiz mentala galtzearen, murriztearen, edo ez izatearen ondorioa. *ES:* Discapacidad *FR:* Incapacité *EN:* Disability
- Ezgaitu:** ad. Norbait ezgai bihurtu edo bihurrazti. *ES:* Incapacitar *FR:* Rendre incapable *EN:* To incapacitate
- Ezgaitu:** izond. Ezintasun fisiko edo mentalen bat duena. *ES:* Discapacitado *FR:* Handicapé *EN:* Handicapped
- Ezin konponduzko:** izlag. Ikus 'konponezin'.
- Ezindu:** izond. Mugitzeko gauza ez dena edo zailtasunez mugi daitekeena, gaixotasun nahiz ezberharren baten ondorioz. *ES:* Imposibilitado, incapacitado, parálítico *EN:* Disabled
- Ezinegon:** iz. Ikus 'ondoez'.
- Ezintasun:** 1. iz. Gaitasunik eza. 2. iz. Kontrola galtzearen sentazioa; behin eta berriz akats bera egitearen ondoriozkoa izaten da, eskuarki. Erabakiak hartzeko ahalmenik eza dakar, askotan. *ES:* Incapacidad *FR:* Incapacité *EN:* Incapacity
- Ezkabia:** iz. Larruazaleko gaixotasun mikotikoa; buruko larruazalari erasaten dio, bereziki. Kutsagarria da, eta azkura du ezugarri nagusi. Aurpegian, eskuetan, ukondoetan eta ugal-organoetan azaltzen da batez ere, eta sexu-harremanen edo arroparen bidez kutsa daiteke. Azolak erabiltzen dira eritasuna sendatzeko. *ES:* Tiña *FR:* Teigne *EN:* Tinea *Arloa:* Med.
- Ezkabiadun:** izond. Ezkabia duena. *ES:* Tiñoso *EN:* Scabby, mangy *Arloa:* Med.
- Ez-kaltegarri:** izond. Kalterik edo gaitzik eragiten ez duena. *ES:* Inocuo, inocuo *FR:* Inoffensif *EN:* Inocuous
- Ez-kaltegarritasun:** iz. Kalterik ez egitearen ezugarria. *ES:* Inocuidad *FR:* Innocuité *EN:* Harmlessness, innocuousness *Oharrak:* Zenbait erremedio kaltegarriak dira, neurritz gain hartuta.
- Ezkata:** 1. iz. Larruazaletik berez askatzen den xafla, atxikitako epidermis-zelulez osatua. 2. iz. Hezur baten atal mehe eta hedatua, xafla-itxura



- koa. *ES*: Escama *FR*: Ecaille *EN*: Scale *Arloa*: Med.
- Ezkatadun**: izond. Ikus 'ezkatatsu'.
- Ezkatatsu**: izond. Ezkatak dituena, edo ezkatatzen dagoena. *ES*: Escamado *FR*: Squameux *EN*: Squamose
- Ezkatatu**: ad. Azala ezkata txiki itxuran erori. *ES*: Descamar
- Ezkatatze**: iz. Larruazaleko prozesu arrunta; epidermisaren geruza korneoa ezkata finetan erortzean datza. *ES*: Descamación *FR*: Desquamation *EN*: Desquamation *Arloa*: Med.
- Ezkel**: izond. Ikus 'begi-oket'.
- Ezker**: izond. Ezkerreko gorputz-adarrak erabiltzen trebeagoa dena, eskuinekoak erabiltzen baino. *ES*: Zurdo *FR*: Gaucher *EN*: Left-handed
- Ezkerreko esku**: iz. Gizabanakoaren bi eskuetatik ezkerrekoa. *ES*: Sinistra *FR*: Sénestre *EN*: Sinister
- Ezkerti**: izond. Ikus 'ezker'.
- Ezko**: 1. iz. Belarriek jariatzen duten argizari antzeko gaia. 2. iz. Gai plastikoa; zenbait intsektu-ekoizten dute, eta landareetatik ere lortzen da. *ES*: Cerumen *FR*: Cirage *EN*: Wax *Arloa*: Biol.
- Ezkutu**: izond. Ikus 'sor'.
- Ez-ohiko**: izond. Ikus 'atipiko'.
- Ezpain**: iz. Barrunbe edo arraildura bat inguratzen duten bi zati haragitsuetariko bakoitza. Ahoaren aurreko zatia inguratzen dutenak eta emakumezkoen kanpoko ugal-organoetan daudenak dira ezpain nagusiak. *ES*: Labio *FR*: Lèvre *EN*: Lip
- Ezpainertatu**: ad. Ezpainean ipini. *ES*: Enlabiar
- Ezpain-ertz**: iz. Ahoko angelua. *ES*: Comisura de los labios *FR*: Commissure de la bouche *EN*: Angle of the mouth
- Ez-puru**: izond. Purua ez dena; berezkoak ez zaizkion kanpo-elementuz nahastua agertzen dena. *ES*: Impuro *FR*: Impur *EN*: Impure
- Ez-purutasun**: iz. Gai batekin nahasita ageri diren beste gai batzuek sortutako egoera; gai haren berezko egoera puruan ez dauden gaiak izan ohi dira. *ES*: Impureza *FR*: Impureté *EN*: Impurity *Arloa*: Fis.-Kim.
- Eztarri**: iz. Tutu erako egitura, garezurraren beheko aldetik hestegorriaraino doana. Lepo-ornoen aurrealdean dago. Arnas eta digestio-sistemen igarobidea da, eta itxura aldatzen du hotsak sortu ahal izateko. Giharrez eratua dago, eta muki-geruza batek estaltzen du. *ES*: Garganta *FR*: Gorge *EN*: Throat *Arloa*: Anat.
- Eztarria garbitu**: ad. Ikus 'garrazpera izan'.
- Eztarria itxi**: ad. Ikus 'erlastu'.
- Eztarrian gelditu**: ad. Ikus 'kontrako eztarrira joan'.
- Eztarrian kokatu**: ad. Ikus 'kontrako eztarrira joan'.
- Eztarri-zulo**: iz. Ikus 'ahutza'.
- Ez-toxiko**: izond. Pozoitsua ez dena, edo gai toxiko batek eragindakoa ez dena. *ES*: Atóxico *FR*: Atoxique *EN*: Atoxic
- Eztul**: iz. Biriketako airea bat-batean kanporatzeko ekintza; zaratsua eta errepikakorra izan ohi da. Oinarrizko erantzuna da babeserako; biriketako, bronkioetako edota zintzur-hesteko gai narritagarriak eta jariakinak kanporatzen laguntzen du. Era berean, hainbat gai biriketara joatea ekiditen du. Toraxeko eta laringeko gaixotasunetan maiz agertzen den sintoma da. Eztularen aurkako sendagaiak arnasbideetan mukirik ez dagoenean erabiltzen dira. *ES*: Tos *FR*: Toux *EN*: Cough
- Eztulaldi**: iz. Ikus 'eztul-krisi'.
- Eztularen kontrako**: izlag. (Gai bati buruz) Eztula sendatu edo saihesten duena. Nerbio-sistema zentralen eragiten du, eta eztul-erreflexua ekiditea du xede nagusia. *ES*: Antitusígeno, antitusivo *FR*: Agent antitussif *EN*: Antitussive agent *Obarrak*: Goiko arnasbideak oztopa ditzaketen muki-jariakinak kanporatzeko, behar-beharrezkoa da eztul-erreflexua. Beraz, eztul emankorra duten gaixoetan, gomendagarria da eztularen kontrako gaiak saihestea. *Adibideak*: Kodeina. *Arloa*: Med.
- Eztul-krisi**: iz. Eztul-egoera bortitza, denboratarte jakinetan errepikatua. *ES*: Acceso de tos *FR*: Accès de toux *EN*: Fit of coughing *Arloa*: Med.

# F

.....

- Fagositatu:** ad. Zenbait protozook eta zelulak bakterioak nahiz beste zenbait material bildu eta suntsitu. *ES:* Fagocitar *FR:* Phagocyter *EN:* To phagocytize *Arloa:* Biol.
- Fagozito:** iz. Fagozitosis egiteko gai den zelula. Esate baterako, ornogabe askoren zelometan aurki daitezkeen zelulak. Zelula anitzeko bizidun gehienetan daude fagozitoak, eta leukozitoak dira garrantzitsuenak. *ES:* Fagocito *FR:* Phagocyte *EN:* Phagocyte *Arloa:* Biol.
- Fagozitosi:** iz. Zelula batek, pseudopodoen bidez, partikulak zein mikroorganismoak barneratzeko prozesua; barneratu ondoren, zitoplasmara igaroarazten ditu, digestioa gertatzen da hor, eta suntsitu egiten dira mikroorganismo horiek. *ES:* Fagocitosis *FR:* Phagocytose *EN:* Phagocytosis *Arloa:* Biol.
- Faktore:** iz. Zerbait ekoizten laguntzen duen gaia. *ES:* Factor *FR:* Facteur *EN:* Factor
- Falange:** iz. Eskuko edo oineko hatzak osatzen dituzten 14 hezur luzexketako bakoitza. Bi falange ditu hatz lodiak; gainerakoek, hiru. *ES:* Falange *FR:* Phalange *EN:* Phalanx *Arloa:* Anat.
- Falangeta:** iz. Hirugarren falangea. Eskuko hatzetan baino zapalagoak eta txikiagoak dira falangetak oinetan. *ES:* Falangeta *FR:* Phalangette, phalange distale *EN:* Phalangette, distal phalanx *Arloa:* Anat.
- Falangina:** iz. Bigarren falangea, lehenengo falangearen eta falangetaren artean dagoena. *ES:* Falangina *FR:* Phalange *EN:* Medial phalanx *Arloa:* Anat.
- Familia-mediku:** iz. Familia-medikuntzan jarduten duen eta espezialitate horretan erresidentzia-programa bete duen medikua. *ES:* Médico de familia *FR:* Médecin de famille *EN:* Family practice physician, family doctor
- Faringe:** iz. Tutu erako egitura, garezurraren beheko aldetik hestegorriraino doana. Lepo-ornoen aurrealdean dago. Arnas eta digestio-sistemen igarobidea da, eta itxura aldatzen du hotsak sortu ahal izateko. Giharrez eratua dago, eta muki-geruza batek estaltzen du. *ES:* Faringe *FR:* Pharynx *EN:* Pharynx *Arloa:* Anat.
- Faringeko:** izlag. Faringean dagoena, edo hari dagokiona. *ES:* Faringeo *FR:* Pharyngien *EN:* Pharyngeal *Arloa:* Anat.
- Faringeko:** izond. Ikus 'faringeko'.
- Faringitis:** iz. Faringearen hantura; eztarriko mina eragiten du, besteak beste. Sudur-zuloen mukimintza ere handitzen da eritasuna larria denean. *ES:* Faringitis *FR:* Pharyngite *EN:* Pharyngitis *Oharrak:* Faringitisaren eragile izan daitezke: difteria, herpes soilaren birusa, mononukleosi infekzio-eragilea, estreptokoko hemolitikoa, eta abar. *Arloa:* Med.
- Farmako:** iz. Ikus 'sendagai'.
- Farmakologia-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'farmakologiko'.
- Farmakologia:** iz. Ezagutza multzoa; sendagaien prestaera, ezaugarriak, erabilera eta eraginak aztertzen ditu. *ES:* Farmacología *FR:* Pharmacologie *EN:* Pharmacology *Arloa:* Med.
- Farmakologiko:** izond. Farmakologiari dagokiona. *ES:* Farmacológico *FR:* Pharmacologique *EN:* Pharmacological *Arloa:* Med.
- Farmakologo:** iz. Farmakologian aditua; farmakologian diharduena. *ES:* Farmacólogo *FR:* Pharmacologue *EN:* Pharmacologist
- Farmakopea:** iz. Sendagai jakinen laburpena edo sintesia; haien deskribapenak, errezetak, kontzentrazioak, purutasun-arauak eta emate-bideak biltzen ditu. *ES:* Farmacopea *FR:* Pharmacopée *EN:* Pharmacopoeia *Arloa:* Med.
- Farmazeutiko:** iz. Farmazian aditua; sendagaiak prestatu edo saldu egiten ditu. *ES:* Farmacéutico *FR:* Pharmacien *EN:* Pharmacist
- Farmazia:** 1. iz. Sendagaiak prestatzea eta haien osagaiak ezagutzeko helburu duen zientzia. 2. iz. Sendagaiak saltzen diren denda; eta, orobat, denda horren barnean, sendagaiak prestatzeko bereziki antolatutako gunea. *ES:* Farmacia *FR:* Pharmacie *EN:* Pharmacy *Arloa:* Med.
- Fase:** iz. Gaixotasun baten edo funtzio fisiologiko edo kimiko baten aroa, une jakin batekoa. *ES:* Fase *FR:* Phase *EN:* Phase
- Fasearte:** iz. Bi eremuren arteko muga edo ukitze-gunea; ezaugarri desberdinak dituzte eremu horiek, eta elkarrekiko eragina. *ES:* Interfase *Arloa:* Fis.-Kim.
- Faszikulatu:** izond. Sorta txikitik antolatua dagoena. *ES:* Fasciculado *FR:* Fasciculé *EN:* Fasciculate *Arloa:* Biol.
- Faszikulu:** iz. Nerbio-zuntzez, odol-hodiz nahiz beste dozein motatako egitura luze eta paraleloz osaturiko multzoa; lokarri eran bildurik, norabi-

- de berean doaz egitura horiek. *ES:* Haz, fascículo *FR:* Faisceau *EN:* Bundle
- Fazial:** izond. Ikus 'aurpegiko'.
- Febrifugo:** izond. Ikus 'sukarraren kontrako'.
- Feedback:** iz. Ikus 'atzereragin'.
- Fekal:** izond. Gorozkiari dagokiona. *ES:* Fecal *FR:* Fécale *EN:* Faecal *Arloa:* Biol.
- Femoral:** izond. Izterrezurrari edo izterrari dagokiona. *ES:* Femoral *FR:* Fémorale *EN:* Femoral *Arloa:* Anat.
- Femur:** iz. Izterreko hezurra; pelbisetik belauneraino doa. *ES:* Fémur *FR:* Fémur *EN:* Femur, thigh bone
- Fenol:** iz. C6H5OH. Bentzenotik eratorritako gai solido, kristalino eta kolgea; hidrogeno bat hidroxilo batez ordezkatur lortzen da. Antiseptiko gisa erabiltzen da; desinfektagarria, germizida eta oso toxikoa da. Zauriak eta ultzerak sendatzeko, % 2,5 disoluzioan erabiltzen da. Tresna kirurgikoak, eskuak, ebakuntza-eremua eta abar desinfektatzeko, % 5ean. Ukendu gisa, % 10eko dosian. Kaustikoa da, eta gune bateko anestesikoa, egoera puruan. *ES:* Fenol *FR:* Phénol *EN:* Phenol *Arloa:* Kim.
- Fenolftaleina:** iz. Bentzenotik eratorritako gaia. Azido-base orekaren adierazle gisa erabiltzen da, (azidotasan maila —pH— adierazteko), kolorega baita ingurune azidoan, eta arrosa-gorri more kolorekoa, aldiz, ingurune alkalinoan. Libragarria da, hesteen behaldekoko mugimenduak suspertzen ditu, eta gernuan eta urin gastrikoan hidrogeno ioiak dauden ala ez adierazten du *ES:* Fenolftaleína *FR:* Phénolphtaléine *EN:* Phenolphthalein *Arloa:* Kim.
- Fenotipo:** 1. iz. Antzeko itxura baina osaera genetikoa desberdina duten banakoen multzoa. 2. iz. Organismo baten ezaugarri morfologikoen eta fisiologikoen multzoa; genotipoaren eta ingurumenaren arteko harremanaren emaitza da. Bizidun bakoitzaren kanpoaldera azaltzen den gene multzoa hartzen du fenotipoak. *ES:* Fenotipo *FR:* Phénotype *EN:* Phenotype *Arloa:* Biol.
- Fermentazio:** iz. Ikus 'hartzidura'.
- Ferula:** iz. Tresna ortopedikoa; atal bati eusteko edo hari mugikortasuna kentzeko erabiltzen da. Egurrezkoa, burdinazkoa, kartoizkoa, burdin harizkoa eta abar izan daiteke. Gorputzeko atal mugikorrei dagokien lekuan eusteko erabiltzen da; hautsitako edo lokatutako hezurra geldirik mantentzeko, batez ere. *ES:* Férula *FR:* Férule *EN:* Ferule *Oharrak:* Bi motatakoak izan daitezke: zurrunak (metalezkoak, igeltsuzkoak eta egurrezkoak) edo malguak (feltrozkoak eta larruzkoak). *Arloa:* Med.
- Fetu:** iz. Animalia biparoen enbrioia hartzen duen izena, enbrio-aroa iragan eta espeziearen ezaugarriak hartzen dituenetik erditze-unera arte. *ES:* Feto *FR:* Foetus *EN:* Fetus *Oharrak:* Giza espeziean, haurdunaldiko hirugarren hilaren ondoren bihurtzen da enbrioia fetu. *Arloa:* Biol.
- Fetu bideragarri:** iz. Haurdunaldiko seigarren hila-betetik aurrerako fetua. *ES:* Feto viable *FR:* Foetus viable *EN:* Viable fetus
- Fibrilazio:** 1. iz. Miokardio-uzkuradura azkarren segida; koordinaziorik eta eraginkortasunik gabeko uzkurdurak dira. Bi motatakoa izan daiteke: aurikularra eta bentrrikularra —bihotzaren gelditze mekanikoa eragiten du azken horrek—. 2. iz. Gihar-uzkuradura ahula, gihar-zuntz multzo bat bat-batean aktibatzearen ondoriozkoa. *ES:* Fibrilación *FR:* Fibrillation *EN:* Fibrillation *Arloa:* Med.
- Fibrina:** iz. Proteina zuntz disolbaezina, hala odolarena, nola gorputzeko likido serosoena. Koagulazio-prozesuan sortzen da, tronbinak fibrinogenoan eragiten duenean. *ES:* Fibrina *FR:* Fibrine *EN:* Fibrin *Oharrak:* Odoleko koagulu erdi solidoak eratzen ditu fibrinak. *Arloa:* Med.
- Fibrinogeno:** iz. Oinarriko proteina plasmatikoa; odolaren koagulazio-prozesuan parte hartzen du. Garrantzia du koagulazioaren bigarren aldian, fibrina bihurtzen baita tronbinaren eraginez. Gibelean sintetizatzen da. *ES:* Fibrinógeno *FR:* Fibrinogène *EN:* Fibrinogen *Oharrak:* Fibrinogenoaren gabeziak odoljarriak eragiten ditu, eta berdin gehiegizko kontsumoak edo hura deusezteak. *Arloa:* Biokim.
- Fibroartilago:** iz. Kartilago mota; kolageno-zuntz zurizko matrize dentso batez osatua dago, eta sendotasuna ematen diote kolageno-zuntz horiek. *ES:* Fibrocartilago *FR:* Fibrocartilage *EN:* Fibrocartilage *Arloa:* Anat.
- Fibroma:** iz. Tumor onbera; zuntz-ehunez edo erabat garaturiko ehun konektiboz osatuta dago, nagusiki. Fibroide ere baderitza. Bizitza osoan iraun dezake inolako sintomarik azaldu gabe. *ES:* Fibroma *FR:* Fibrome *EN:* Fibroma *Arloa:* Med.
- Fibrosi:** iz. Ehun konektibo zuntzsuaren asaldua; gihar leunaren edo beste ehun organiko batzuen lekua hartzen du, edo haien gainean barreiatzen da. Hantura baten zein kolpe baten ondorioa izaten da gehienetan. *ES:* Fibrosis *FR:* Fibrose *EN:* Fibrosis *Oharrak:* Bihotzean, birikan, peritoneoan eta giltzurrunean da ohikoena fibrosia. *Arloa:* Med.
- Fibroso:** izond. Ikus 'zuntz-'.  
**Filamentu:** iz. Ikus 'hariizpi'.  
**Filariasi:** iz. Ikus 'filariosi'. *ES:* Filariasis  
**Filariosi:** iz. Filariak edo mikrofilariak gorputzeko ehunetan eragiten duten gaixotasun parasitarioa. Filariak helminto biribilduak dira, luzeak, hariiz-

- pi-formakoak. Intsektu baten zitzadaren ondorioz organismora sartzen dira larba mikroskopiko gisa, eta lina-gongoilak eta hodiak kutsatzen dituzte. Antimomialak eta intsektu zurruparien kontrako gaiak erabiltzen dira filariosia sendatzeko. *ES: Filariosis FR: Filariose EN: Filariasis Arloa: Med.*
- Filiforme:** 1. izond. Hari nahiz hariizpi-itxura edo begitura duena. 2. iz. Oso zunda mehea. *ES: Filiforme FR: Filiforme EN: Filiform Arloa: Biol.*
- Fimosi:** iz. Zakileko prepuzioaren irekigunearen estutze naturala; jaiotzetikoa edo istripuzkoa izan daiteke, eta ez du uzten zakil-mokoa ateratzen. *ES: Fimosis FR: Phimosis EN: Phimosis Arloa: Med.*
- Finkapen:** iz. Ikus 'finkatze'.
- Finkatzaile:** 1. izond. Lotzeko, itsasteko edo egonkortzeko erabiltzen dena. 2. iz. Ehun baten lagin histologiko edo patologikoei eusteko erabiltzen den erreaktibo kimikoa. 3. iz. Orratzez eta hagarxoz osaturiko tresna; gorputz atal bati egonkortasuna emateko prestatua dago. *ES: Fijador FR: Fixateur EN: Fixator*
- Finkatze:** 1. iz. Gorputz edo organo bat finko mantentzeko egiten den ekintza. 2. iz. Odontologian, hortzei eusteko tresna. *ES: Fijación FR: Fixation EN: Fixation Arloa: Biol., Biokim.*
- Finkotasun:** iz. Finkoa denaren ezaugarria. *ES: Fijeza*
- Fintze:** iz. Gai bati gorputz arrotzak kentzea. *ES: Refinado, refinación FR: Raffinage EN: Refining Arloa: Kim.*
- Fisiologia-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'fisiologiko'.
- Fisiologia:** iz. Zientzia biologikoa; egituraturiko gorputzen dinamika aztertzea du helburu. *ES: Fisiología FR: Physiologie EN: Physiology Arloa: Biol.*
- Fisiologiko:** izond. Fisiologiari dagokiona; funtzio normalei, bereziki. *ES: Fisiológico FR: Physiologique EN: Physiologic*
- Fisiologo:** iz. Fisiologian aditua den pertsona. *ES: Fisiólogo FR: Physiologue EN: Physiologist*
- Fisionomia:** 1. iz. Aurpegiaren itxura arrunta; aurpegi-egitamen araberakoa da. 2. iz. Gauzen kanpoko itxura. *ES: Fisionomía FR: Physionomie EN: Complexion, physiognomy*
- Fisionomista:** 1. iz. Fisionomiaren azterketan jarduten duen pertsona. 2. iz. Pertsonen fisionomia-ezaugarriak gogoratzeko erraztasuna duen pertsona. *ES: Fisionomista EN: Physiognomist*
- Fisiopatologia:** iz. Medikuntzaren alorra; gaixotasunak eta haiek organismoan eragindako aldatketak aztertzen ditu. *ES: Fisiopatología FR: Physiopathologie EN: Physiopathology Arloa: Med.*
- Fisioterapeuta:** iz. Fisioterapiari aditua. *ES: Fisioterapeuta FR: Physiothérapeute EN: Physiotherapist Arloa: Med.*
- Fisioterapia:** iz. Gaixotasunen tratamenduan agente fisikoak erabiltzen dituen sendabidea. Masa-jeak, manipulazioa, ariketa terapeutikoak, hotza, beroa, hidrotterapia, bizkortze elektrikoa eta argi-bizkortzea erabiltzen dira, gaixoari gorputza berriro hezten eta funtzio normalera itzultzen laguntzeko. *ES: Fisioterapia FR: Physiothérapie EN: Physiotherapy Arloa: Med.*
- Fistula:** iz. Ez-ohiko komunikazio artifizial, kirurgiko edo esperimental. Organoa bat kanpoaldearekin nahiz beste organo batekin komunikatzen du, larruazal- edo muki-zulo baten bidez. Organismoak gorputzeko zikinkeriak kanporatzen ditu fistulatik. Zaila da ixten; horretarako, ebakuntza egin behar izaten da. *ES: Fístula FR: Fistule EN: Fistula Arloa: Med.*
- Fisura:** 1. iz. Erabatekoa ez den hezur-haustura. *Arloa: Med.* 2. iz. Azaleko zisura, arraildura edo ildo; normala nahiz patologikoa izan daiteke. Organoa zatitzen du sarritan. *ES: Fisura FR: Fissure EN: Fissure Arloa: Anat.*
- Fitopatologia:** iz. Landareei erasaten dieten gaixotasunak aztertzen dituen zientzia. *ES: Fitopatología FR: Phytopathologie EN: Phytopathology Arloa: Biol.*
- Flagelatu:** izond. Ikus 'flagelodun'.
- Flagelo:** iz. Zelularen luzakin higikorra, zartailu-itxurakoa; zenbait protozook izaten dute, mugimendu-organoa gisa. *ES: Flagelo FR: Flagelle EN: Flagellum Arloa: Biol.*
- Flagelodun:** izond. Protozoen taldeko izaki zelulabakarra; flageloen bidez mugitzen da. Itsasoko uretan eta ur gezatan bizi ohi da, banaka edo taldeka. *ES: Flagelado FR: Flagellé EN: Flagellate Arloa: Biol.-Mikrobiol.*
- Flatulentzia:** iz. Urdaileko nahiz hesteetako distentsioa, gas-pilaketaren ondoriozkoa. Mina eragiten du zenbaitetan. *ES: Flatulencia FR: Flatulence EN: Flatulence Arloa: Med.*
- Flebitis:** iz. Zain baten hormaren hantura. Hainbat eragile izan ditzake: tronbosia, tumorrak, traumatismoak, infekzioak, eta abar. *ES: Flebitis FR: Phlébite EN: Phlebitis Arloa: Med.*
- Flebotomia:** iz. Ikus 'odoluste'. *ES: Sangría, flebotomía FR: Effusion de sang, saignée, phlébotomie EN: Bloodletting, phlebotomy*
- Flema:** iz. Ikus 'karkaxa'.
- Flemoi:** iz. Gaizkoaduraren lehen urratsa; flemoian, zornerik ez dago oraindik, eta leukozitoei ehunaren zelulen arteko gunea betetzen dute. Abzesu bihurtzen da kapsulak inguratzen duenean. *ES: Flemón FR: Phlegmon EN: Phlegmon Arloa: Med.*

- Flexio:** iz. Zenbait giltzadurak ahalbidetzen duen mugimendua; bata bestearen segidan dauden bi hezurren arteko angelua estutzen du. *ES:* Flexión *FR:* Flexion *EN:* Flexion *Oharrak:* Ukondoaren flexioa egitean, besahezurraren eta kubito hezuraren arteko angelua estutzen da.
- Flora:** iz. Gorputzeko mikroorganismo multzoa; gaixotasunak eragiten dituzten mikroorganismoei aurre egiten diete, eta immunitate naturala ematen dute infekzio jakinen aurrean. *ES:* Flora *FR:* Flore *EN:* Flora *Arloa:* Biol.
- Fluidifikazio:** iz. Gorputz bat jariakin bihurtzeko prozesua. *ES:* Fluidificación *FR:* Fluidification *EN:* Fluidification *Arloa:* Kim.
- Fluido:** iz. Jariatzeko ahalmena duen eta bere forma ontziaren formara moldatzen duen edozein gai likido edo gas erakoa; gaiaren masa orokoretik bereizi gabe posizio erlatiboa alda dezaketen molekulez osatua dago. *ES:* Fluido *FR:* Fluide *EN:* Fluid
- Fluktuatu:** ad. Gorputz batek isurkari baten gainean balantza egin. *ES:* Fluctuar *FR:* Fluctuer *EN:* To fluctuate
- Fluktuatzaile:** izond. Uhin-formako mugimendu bati dagokiona; barruan likidoa daukan egitura bat haztatzean atzematen da. *ES:* Fluctuante *FR:* Fluctuant *EN:* Fluctuant
- Fluktuazio:** 1. iz. Likido baten uhin-mugimendua, gorputzeko barrunbe batean. 2. iz. Balio finko batean (gorputzaren tenperatura, adibidez) edo masa batean gertatzen den aldaketa. *ES:* Fluctuación *FR:* Fluctuation *EN:* Fluctuation
- Fluor:** iz. F. Elementu kimikoa, ez-metalikoa, gasoso eta halogenoa. Elementu guztien artean elektronegatiboena da, eta erreaktibitate oso altukoa. Arnastuz gero, narridura eragiten du, eta arriskutsua da. *ES:* Flúor *FR:* Fluor *EN:* Fluorine *Oharrak:* Fluor-gatzez osaturiko pozoiak intoxikazio larria eta heriotza ekar ditzake, intsektizidak edo arratoiaren kontrakoak istripuz hartuz gero. *Oharrak:* Zenbait hiritan, sodio fluoruro kantitate txikiak botatzen zaizkio edateko urari, hortzetako esmaltea gogortzeko eta txantxarrari aurre egiteko. *Arloa:* Kim.
- Fluorazio:** 1. iz. Fluor atomo bat edo gehiago barneratzea konposatu organiko baten molekulan. 2. iz. Edateko urari fluorra gehitzea; txantxarrari aurre egiteko, bereziki. *ES:* Fluoración *FR:* Fluoración *EN:* Fluorination *Arloa:* Kim.
- Fluoruro:** iz. Azido fluorhidrikoaren anioia, eta azido horretatik eratorritako gatzaren izen orokorra. Fluorrez eta beste elementu batez osatutako konposatua da. Edateko urari gehitzen zaio, hortzetako txantxarrari aurre egiteko. *ES:* Fluoruro *FR:* Fluorure *EN:* Fluoride *Arloa:* Kim.
- Fokomelia:** iz. Garapenaren anomalia. Gorputzadar baten edo gehiagoren goiko aldearen gabezia du ezaugarri. *ES:* Focomelia *FR:* Phocomélie *EN:* Phocomelia *Arloa:* Med.
- Foku:** iz. Organismoan, prozesu patologiko batek erasotzen duen gune nagusia. *ES:* Foco *FR:* Foyer *EN:* Focus *Arloa:* Med.
- Foliazeo:** izond. Hosto bati dagokiona, edo haren itxura duena. *ES:* Foliáceo *FR:* Foliacé *EN:* Foliaceous *Arloa:* Biol.
- Folikular:** izond. Folikulari dagokiona, edo haren itxura duena. *ES:* Folicular *FR:* Folliculaire *EN:* Follicular *Arloa:* Biol.
- Folikulu:** iz. Zorro-formako egitura anatomiko txikia, mukosan edo larruazalean dagoena; jario-funtzioa du gehienetan. *ES:* Folículo *FR:* Follicule *EN:* Follicle *Arloa:* Biol.
- Folikulu-formako:** izlag. Ikus 'folikular'.
- Fonazio:** iz. Hitz-hotsak sortzea, biriketako aireak laringeko ahots-kordetan eragiten duen bibrazioaz. *ES:* Fonación *FR:* Phonation *EN:* Phonation
- Fonazio-organo:** iz. Ahotsa edo hitzak sortzen dituen organoa. *ES:* Órgano de fonación
- Fonendoskopio:** iz. Auskultazio-soinuak biziagotzen dituen tresna; erraieen kokagunea zehazteko ere balio du. Azterketa klinikoetan erabiltzen da, zenbait organoren —bereziki arnas organoen eta bihotzaren— hotsak entzuteko. *ES:* Fonendoscopio *FR:* Phonendoscope *EN:* Phonendoscope *Arloa:* Med.
- Fontanela:** iz. Haurraren garezurrean, hezurtu gabeko gunea; hezurren arteko mintz hauskaitza da. *ES:* Fontanela *FR:* Fontanelle *EN:* Fontanel *Oharrak:* Aurrekoa (bregma) eta atzekoa (lambda) dira fontanela nagusiak. *Arloa:* Anat.
- Formaldehido:** iz. HCHO. Metanalaren izen tradizionala; aldehido formikoa da. Gas toxiko koloregabea eta lurrunkorra da; usain txarra du, eta hidrosolublea da. Gelak, arropak, eta abar esterilizatzeko erabiltzen da. Eskuarki, % 40ko ur-disoluzioan erabiltzen da, antiseptiko orokor eta babesle gisa, eta *formol* eta *formalina* izenak hartzen ditu. *ES:* Formaldehído *FR:* Formaldéhyde *EN:* Formaldehyde *Arloa:* Kim.
- Formazio-bero:** iz. Gorputz baten sintesi-erreakzioetik sortzen den bero kantitatea. *ES:* Calor de formación *FR:* Chaleur de formation *EN:* Heat of formation
- Formol:** iz. Formaldehidoaren ur-disoluzioa. Metanol (alkohol metiliko) pixka bat du, eta erabileraz ugari ditu: desinfektagarria, germizida, fungizida eta intsektizida da, eta konposatu organiko askoren sintesia bideratzen du. *ES:* Formol *FR:* Formol *EN:* Formol
- Formula:** iz. Sinbolo-konbinazioa; konposatu kimiko baten osagaiak, gai baten prestaera-metodoa edo emaitza zehatz bat lortzeko prozesua



- adierazten ditu. *ES: Fórmula FR: Formule EN: Formula Arloa: Kim.*
- Formula kimiko:** iz. Sinbolo multzoa; konposatu bata osatzen duten elementuak eta haien proportzio erlatiboak adierazten ditu. *ES: Fórmula química FR: Formule chimique EN: Chemical formula*
- Forzepe:** iz. Kirurgia-tresna; bi kirtenduna da, eta erabilera ugari ditu. Batez ere, erditzean erabiltzen da, haurrak irteteko zailtasunak dituenen; koilara bana du mutur bakoitzean, umekiaren buruari heltzeko eta hura atera ahal izateko. *ES: Fórceps FR: Pince EN: Forceps Arloa: Med.*
- Fosfato:** iz. Azido fosforikoaren gazten izen orokorra. Oso garrantzitsuak dira fosfatoak zelula bizietan; energia pilatzeko eta erabiltzeko, eta informazio genetikoak igortzeko, batez ere. *ES: Fosfato FR: Phosphate EN: Phosphate Arloa: Kim.*
- Fosforiko:** izond. Fosforoari dagokiona. *ES: Fosfórico FR: Phosphorique EN: Phosphoric Arloa: Kim.*
- Fosforo-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'fosforiko'.
- Fosforo:** iz. P. Elementu kimiko ez-metalikoa. Oso toxikoa eta sukoia da. Nahikoa zabalduz dago izadian, kaltzio ortofosfato eran, batez ere. Hezurretatik, gernutik eta zenbait mineralatik aterratzen da. Terapeutikaren erabiltzen da, errakitis-moaren, osteomalaziaren, garuneko gaixotasunen, nerbio-gaixotasunen, tuberkulosiaren eta besteren aurka. Sexu-organoen kitzikagarri gisa ere erabili izan da. Funtsezkoa da fosforoa proteinen, kaltzioaren eta glukosaren metabolismoarako. Fosforo-gutxiegitasunak pisu-galera, anemía eta ez-ohiko hazkuntza eragin ditzake. *ES: Fósforo FR: Phosphore EN: Phosphorus Arloa: Kim.*
- Fosgeno:** iz. Azido karbonikoaren eratorria; karbono monoxidoaren eta kloroaren arteko konbinazioz lortzen da. Gas pozoitsua da. *ES: Fosgeno FR: Phosgène EN: Phosgene Arloa: Kim.*
- Fotofobia:** iz. Ez-ohiko jasanezintasuna argiarekiko. Begietako asalduetan (erretina sentikorrek) edo zenbait nerbio-gaixotasunetan (meningitisa, buruko mina) agertzen da. Hainbat gaixotasunen sintoma ere izan daiteke: elgorria, entzefalitis, Reiter-en sindromea, eta abar. *ES: Fotofobia FR: Photophobie EN: Photophobia Arloa: Med.*
- Fotohartzai:** izond. (Zelulei buruz) Argia xurgatuz gero, nerbio-kinada eragiten duena. *ES: Fotorreceptor, fotoceptor FR: Photorécepteur EN: Photoreceptor Arloa: Biol.*
- Fotolisi:** iz. Gai baten deskonposizio kimikoa, argi-irradatzearen ondoriozkoa. Banandu nahi den molekulararen araberakoa da erradiazioaren uhin-luzera. *ES: Fotólisis FR: Photolyse EN: Photolysis Arloa: Kim.*
- Fotosíntesi:** iz. Biomolekulak —nagusiki karbohidratoak— sintetizatze prozesua, klorofila duten landare berdeetan. Ura eta atmosferako karbono dioxidoa hartu eta, energia gisa argia baliatuz, oxigenoa askatzen da. *ES: Fotosíntesis FR: Photosynthèse EN: Photosynthesis Arloa: Biol.*
- Fototerapia:** iz. Gaixotasunen tratamendua; argia erabiliz egiten da. Naturala edo artifiziala izan daiteke argi hori. Argi ultramorea erabiltzen da, gehienbat, hartarako. *ES: Fototerapia FR: Photothérapie EN: Phototherapy Obarrak:* Hainbat gaixotasunen tratamenduan erabil daiteke argi ultramorea: aknea, etzanera-ultzerak, psoriasis, hiperbilirrubinemia, eta abar. *Arloa: Med.*
- Frenulu:** iz. Atal baten mugimenduak mugatzen dituen zati edo egitura. Motzegia denean, eten egin behar da —batez ere mihiaren edo prepuzioaren kasuan—, organoaren mugimendua erabat galaraz ez dezan. *ES: Frenillo FR: Frein EN: Frenum, frenulum Adibideak:* Mihi-haria, prepuzio-haria, klitori-haria eta abar. *Arloa: Anat.*
- Frigido:** izond. Berotasunik edo sentimendurik ez duena; pasiorik azaltzen ez duena. Sexu-harremetan atsegin hartzeko eta, batez ere, orgasmoa lortzeko ezintasuna izaten dute frigidoek. *ES: Frígido FR: Frigide, froid EN: Frigid Arloa: Med.*
- Frigidotasun:** iz. Hoztasuna; sexu-grinik eza, zehazki. *ES: Frigidez FR: Frigidité EN: Frigidity Arloa: Med.*
- Frogatu:** ad. Frogen bidez, zerbaitek nola funtzionatzen duen jakin, edo ongi funtzionatzen duela egiaztatu; argudioak eman. *ES: Probar FR: Éprouver, essayer, prouver EN: To prove, to check*
- Fruktosa:** iz. Karbohidrato monosakaridoa. Kristal-itxura du, eta uretan disolbagarria da. Sakarosa baino gozoagoa da. Sakarosaren eta beste zenbait polisakaridoren osagaia da, eta garrantzi handia du bizidunen metabolismoan. Sakarosaren eta beste polisakarido batzuen hidrolisi bidez lortzen da fruktosa era artifizialean. Ez du insulinarik behar metabolizatzeke, eta, horregatik, egokia da diabetikoentzat. *ES: Fructosa FR: Fructose EN: Fructose Arloa: Kim.*
- Frustrazio:** iz. Gehitutako tentsio emozionala, helburuak lortu nahi eta ezinaren ondoriozkoa. Barne- eta kanpo-indarrek eragiten dute, eskuarki. *ES: Frustración FR: Frustration EN: Frustration Arloa: Psicol.*
- Fulminante:** izond. (Prozesu edo gaixotasun bati buruz) Azkarra eta akutua. Esate baterako, bihotzekoa ematea, sukarra, odoljarria, eta



- abar. *ES*: Fulminante *FR*: Fulminant *EN*: Fulminating
- Fungiforme**: izond. Onddo-itxura duena. *ES*: Fungiforme *FR*: Fongiforme *EN*: Fungiform *Arloa*: Biol.
- Funtzio**: iz. Organo edo atal baten eginkizun berezia, berezkoa eta normala. *ES*: Función *FR*: Fonction *EN*: Function *Arloa*: Biol.-Kim.
- Funtzio talde**: iz. Atomo multzoa; atomook konposatu baten molekulan agertzen direnean, ezaugarri bereizgarriak ematen dizkiote konposatu horri. *ES*: Grupo funcional *FR*: Groupement fonctionnel *EN*: Functional group
- Funtzional**: izond. Organismo baten edo sistema organiko baten funtzioei eragiten diena, egituran eraginik izan gabe. *ES*: Funcional *FR*: Fonctionnel *EN*: Functional
- Furunkulu**: iz. Larruazaleko gaizkoadura; estafilokokoeak eragiten dute. Guruin batean edo ile-folikulu batean gertatzen da, eta haren ezaugarri dira mina, gorritasuna eta hantura. Larria izan daiteke zenbait kasutan; furunkulu asko batera izanez gero, antraxa eratzen da. *ES*: Forúnculo *FR*: Furoncle *EN*: Furuncle *Arloa*: Med.
- Fusiforme**: izond. Bi muturrak zorrotzak dituena. *ES*: Fusiforme *FR*: Fusiforme *EN*: Fusiform

# G

- Gabezia:** iz. Ezinbestekoa den gai baten falta; bitamina, bereziki. *ES:* Carencia *FR:* Carence *EN:* Deficiency *Arloa:* Med.
- Gai:** iz. Ikus 'substantzia'.
- Gai gris:** iz. Bizkarrezur-muinaren erdigunean, entzefalo-enborraren erdigunean, zerebeloaren azalean eta haren barneko nukleoetan, garun-azalean eta garunaren barneko nukleoetan dagoen gaia. Nerbio-zelulaz, neuroglia zelulaz eta odol-hodiz osatua dago. Bizkarrezur-muineko gai griseko nukleoak muineko erreflexu guztien gune dira. *ES:* Sustancia gris *FR:* Substance grise *EN:* Grey substance *Arloa:* Anat.
- Gai zuri:** iz. Bizkarrezur-muineko eta garuneko gai grisa inguratzen duen ehuna; nerbio-zuntz mielinizatuz eratua dago nagusiki, baina baditu mielinarik gabeko nerbio-zuntzak ere. *ES:* Sustancia blanca *FR:* Substance blanche *EN:* White substance *Arloa:* Anat.
- Gaikuntza:** iz. Ikus 'gaitze'.
- Gailur:** iz. Hezur baten goragunea; sakroaren eta ornoen arteko angeluak eratzen duena, bereziki. *ES:* Promontorio *FR:* Promontoire *EN:* Promontory
- Gain-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'goiko'.
- Gainasetasun:** iz. Gehiegizko asetasuna; asea dagoen disoluzio bati asetasuna eman dion osagai berbera gehitzearen ondorioz gertatzen da. *ES:* Sobresaturación *FR:* Sursaturation *EN:* Supersaturation *Arloa:* Fis.-Kim.
- Gainazal-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'gainazaleko'.
- Gainazaleko:** izlag. Larruazalari edo beste gainazal bati dagokiona. *ES:* Superficial *FR:* Superficiel *EN:* Superficial
- Gainbehera:** iz. Ikus 'indargabetze'. *ES:* Decaimiento
- Gainbehera abiatu:** ad. Ikus 'indargabetu'. *ES:* Decaer
- Gaindosi:** iz. Sendagaien edo beste hainbat gairen gehiegizko erabilera; kontrako ondorioak izan ditzake: maniatik edo histeriatik hasi, eta koma-egoeraraino edo heriotzaraino. *ES:* Sobredosis *FR:* Surdose *EN:* Overdose
- Gaineko:** izlag. Ikus 'goiko'.
- Gainelikatu:** ad. Behar baino elikagai gehiago hartu edo eman. *ES:* Sobrealimentar *EN:* To overfeed
- Gainelikatze:** iz. Zenbait gaixotasuni aurre egiteko tratamendua, tuberkulosiaren aurkakoa bereziki; goseak eskatzen duena baino elikagai gehiago ematean datza. *ES:* Sobrealimentación *FR:* Suralimentation *EN:* Overfeeding
- Gainkarga:** 1. iz. Normala baino gorputz-pisu handiagoa. Pertsonaren altuera, adina eta gorputzera kontuan hartuz neurtzen da. 2. iz. Psikologian, gorputzari neurritz gaindiko estresa eragiten dion edozein faktore, osasunari ere erasan diezaiokeena. *ES:* Sobrepeso, sobrecarga *FR:* Surcharge *EN:* Overloading
- Gainkargatu:** ad. Zerbaiti ohi edo komeni baino karga handiagoa ezarri. *ES:* Sobrecargar *FR:* Surcharger *EN:* To overload
- Gaintentsio:** iz. Linea edo zirkuitu elektriko bateko tentsioaren ohiz kanpoko igoera, kargaren aldaketa bortitzak eragina. *ES:* Sobretensión *FR:* Surtension *EN:* Overvoltage *Arloa:* Fis.
- Gaitasun:** iz. Ekintza edo lan batzuk egiteko erraztasuna; jaiotzatik izaten da, eta alferrik galtzen da, zaintzen eta lantzen ez bada. *ES:* Aptitud *FR:* Aptitude *EN:* Aptitude *Arloa:* Psikol.
- Gaitz:** iz. Ikus 'gaixotasun'.
- Gaitze:** 1. iz. Norbait zerbaitetarako gaitzeko ekintza. 2. iz. Espermatozoideak obulua ernaltzeko ahalmena lortzeko prozesua; Fallopioren tronpako zabalgunera iristean jasandako aldaketei esker lortzen du ahalmen hori espermatozoideak. *ES:* Capacitación
- Gaitzikor:** 1. izond. Gaixotasunak edo gaixotasunen aldaketak izateko erraztasuna duena. 2. izond. Aldaketa bat jasateko gai dena; gai kimiko baten kasuan, esate baterako. *ES:* Susceptible
- Gaixo:** iz. Ikus 'paziente'. *ES:* Paciente
- Gaixobera:** izond. Gaixotzeko joera duena. *ES:* Enfermizo *EN:* Sickly, unhealthy
- Gaixondo:** iz. Ikus 'susperraldi'.
- Gaixotasun:** iz. Egoera fisiologikoaren asaldua; gorputzaren zati batean edo gehiagotan gertatzen da. Etiologia ezaguna izaten du gehienetan, eta zeinu eta sintoma jakinak ditu ezaugarri. *ES:* Enfermedad, afección *FR:* Maladie *EN:* Disease
- Gaixotasun baskular:** iz. Odol-hodiei erasaten dien asaldua. *ES:* Enfermedad vascular *FR:* Affection vasculaire *EN:* Vascular disease *Arloa:* Med.
- Gaixotasun benereo:** iz. Gaixotasun kutsagarria; sexu-harremanen bidez kutsatzen da. *ES:* Enfermedad venérea *FR:* Maladie transmissible sexue-

- llement *EN*: Sexually transmitted disease *Arloa*: Med.
- Gaixotasun biriko**: iz. Gizakiarentzat patogenoak diren birusetako edozeinek eragindako gaixotasuna. Ezagutzen diren gaixotasunik larrienen eta kutsagarrienen artean daude haietariko batzuk. *ES*: Enfermedad vírica *FR*: Infection virale *EN*: Viral infection *Arloa*: Med.
- Gaixotasun funtzional**: iz. Organismoaren asaldua; zeinuak eta sintomak izan arren, ez da egituraren edo fisiologiaren anormaltasunik agertzen azterketetan. *ES*: Enfermedad funcional *Adibideak*: Gaixotasun funtzionalak dira, batzuetan, buruko mina, inpotentzia, idorria, eta abar. *Arloa*: Med.
- Gaixotasun koronario**: iz. Bihotzeko arterien odolfluxua murriztearen ondoriozko eritasuna. Bularreko mina du ezaugarri, eta bihotz-gutxiegitasuna, anginak nahiz infartua eragin ditzake. *ES*: Enfermedad coronaria *FR*: Maladie coronarienne *EN*: Coronary heart disease *Arloa*: Med.
- Gaixotasun profesional**: iz. Ikus 'lanbide gaixotasun'.
- Gaixotasun zeliako**: iz. Sabeleko organoetako gaixotasuna; haurrei gertatzen zaie, gehienbat. Malabsortzio-arazo bat izaten da. *ES*: Enfermedad celiaca *FR*: Coeliacue *EN*: Celiac *Arloa*: Anat.
- Gaixoti**: izond. Ikus 'gaixobera'.
- Gaixotu**: ad. Gaixotasunak jo. *ES*: Enfermar *EN*: To fall ill, to become ill
- Gaizkiagotu**: ad. Ikus 'larriagotu'.
- Gaizkoadura**: iz. Germen patogenoen inbasioa organismoan. Ugaldu eta bikoiztu egiten dira germen horiek, eta gaixotasunak eragiten dituzte. Horretarako, gune bateko zelula-lesioak, toxinari edo antigeno-antigorputz erreakzioak gertatzen dira ostalarian. Sukarra da gaizkoadura guztien ezaugarririk bereizgarriena. Antibiotikoak dira tratamendu egokia, birusek eragindako gaizkoaduren kasuan izan ezik. *ES*: Infección *FR*: Infection *EN*: Infection *Arloa*: Med.
- Gaizkoatu**: ad. Gaizkoadura gertatu; mikroorganismoek zerbait kutsatu. *ES*: Endeñarse, infectar *Adibideak*: Zauri nahiz zaldar batek zornea eratu edo jariatu. *Arloa*: Med.
- Gaizto**: 1. izond. Gaiztotzeko edo heriotza eragiteko joera duena; azkar garatzen da, eta gero eta larriagoa da. 2. izond. (Minbiziari buruz) Zelula atipikoz osatua dagoena eta, pixkanaka, metastasien bidez, ondoko ehunak inbaditu eta urrunera barreiatzen dena. *ES*: Maligno *FR*: Malin *EN*: Malignant *Arloa*: Med.
- Gako**: izond. Ikus 'oker'.
- rraiatzen duena. 2. Hodi galaktoforo: iz. Esnea guruinetatik titiburuetera eramaten duen hodia. *ES*: Galactóforo, lactifero *FR*: Galactophore *EN*: Lactiferous. *Arloa*: Biol.
- Galaktosa**: iz. Azukre sinplea; laktosa osatzen du glukosarekin batera. Nerbio-zelulen mintzetan, azukre-erremolatxan eta itsasoko gometan eta algetan egoten da. *ES*: Galactosa *FR*: Galactose *EN*: Galactose *Arloa*: Kim.
- Galbanismo**: iz. Korronte jarraituak organo bizien gan duen eragina. *ES*: Galvanismo *FR*: Galvanisme *EN*: Galvanism *Arloa*: Med.
- Galdeketa**: iz. Helburu jakinetarako egiten den galdera-zerrenda. *ES*: Cuestionario *FR*: Questionnaire *EN*: Questionnaire
- Galdera sorta**: iz. Ikus 'galdeketa'.
- Galkor**: izond. Irauten ez duena. *ES*: Caduco
- Galtzarbe**: iz. Ikus 'besape'.
- GaltzARBeko**: izlag. Ikus 'besapeko'.
- Gameto**: iz. Ugal-zelula arra edo emea. Arra eta emea elkartzean, zigotoa sortzen da. Ugaltzeko ahalmena du, eta zelula somatikoaren kromosoma kopuru haploidea dauka. *ES*: Gameto *FR*: Gamète *EN*: Gamete *Arloa*: Biol.
- Gamma izpiak**: iz. Uhin-luzera txikiko erradiazio elektromagnetikoa. Atomo baten nukleoak jaurtitzen du erreazio nuklearretan. Energia altuko fotoiek eratzen dituztenez, izpi horiek ez dute ez masarik ezta karga elektrikorik ere, eta argiaren abiadura berean higitzen dira. Erradioterapian, dosi txikitan erabiltzen dira, kaltegarriak izan baitaitezke ehun bizientzat. *ES*: Rayos gamma *FR*: Rayon gamma *EN*: Gamma ray
- Gammaglobulina**: iz. Globulina plasmatikoa. Agente immunizatzaile pasiboa da, eta antigorputz-jarduera du; terapeutikan eta profilaxian asko erabiltzen da. Hainbat gaixotasunen aurrean immunizatze erabiltzen da: elgorria, poliomielitisa, astanafarria, A hepatitis, transfusioen ondoriozko hepatitis serikoak, agammaglobulinemiak eta hipogammaglobulinemiak. *ES*: Gammaglobulina *FR*: Gammaglobuline *EN*: Gamma globulin *Arloa*: Kim.
- Gammagrafia**: iz. Erradiodiagnosiaren alorreko teknika. Gamma izpien bidez egoera patologikoen diagnostikoa egitea ahalbidetzen du. Gai erradioaktiboak zainetan sartuz egiten da. *ES*: Gammagrafia *FR*: Gammagraphie *EN*: Gamma-graphy *Arloa*: Med.
- Ganbil**: izond. Kanporantz kurbaturiko azala duena, erdialdean ezertan baino irtenagoa, hots, konkortua. *ES*: Convexo *FR*: Convexe *EN*: Convex
- Ganbiltasun**: iz. Ganbila denaren ezaugarria. *ES*: Convexidad *FR*: Convexité *EN*: Convexity

- Gandor:** iz. Irtengune edo ertza; hezur-eminentzia estu eta luzexka, bereziki. *ES:* Cresta *FR:* Crête *EN:* Crest *Arloa:* Anat.
- Gangar:** iz. Ikus 'gandor'.
- Ganglionar:** izond. Gongoilei dagokiena, edo gongoilez osatua dagoena. *ES:* Ganglionar *FR:* Ganglionnaire *EN:* Ganglionic, ganglionated *Arloa:* Anat.
- Gangrena:** iz. Ehunen nekrosia, tokiko odol-zirkulazioa etetearen ondoriozkoa; iskemiarren, bakterio-inbasioaren eta usteltzearen ondoriozkoa izaten da gehienetan. Gorputz-adarretan gertatzen da gehienetan, eta traumatismo batek, izozteak, erreketak, gaizko adurak nahiz hodian gaixotasunak eragin dezakete. *ES:* Gangrena *FR:* Gangrène *EN:* Gangrene *Arloa:* Med.
- Gangrenatu:** ad. Gangrena izan. *ES:* Gangrenar *Arloa:* Med.
- Gangrenoso:** izond. Gangrena duena. *ES:* Gangrenoso, -a *EN:* Gangrenous *Arloa:* Med.
- Gantz:** iz. Gai koipetsua; animalien gorputzeko hainbat ehunetan eratzen da. *ES:* Sain *EN:* Animal fat
- Gantzatsu:** izond. Ikus 'koipetsu'.
- Gantz-azido:** iz. Konposatu organikoa, hidrokarburo-kate batez eta karboxilo-talde terminal batez osatua. *ES:* Acido graso *FR:* Acide gras *EN:* Fatty acid
- Gantz-ehun:** iz. Ikus 'ehun adiposo'.
- Gantz-ehun arre:** iz. Ikus 'ehun adiposo arre'.
- Gantz-panikulu:** iz. Larruazalpeko gantz-geruza. *ES:* Panniculo adiposo *FR:* Pannicule adipeux *EN:* Panniculus adiposus *Arloa:* Anat.
- Gantzuki:** iz. Ikus 'pomada'.
- Gantzutu:** ad. Ikus 'baltamatu'.
- Garaiz aurreko:** 1. izlag. Haurdunaldiaren 38. astea bete aurretik jaiotakoa, garapen edo heldutasun osoa ez duena. 2. izlag. Ohiko garaia edo momentu egokia baino lehen azaltzen dena. *ES:* Prematuro *FR:* Premature *EN:* Prématuré
- Garaiz aurreko erditze:** iz. Behar baino lehenago erditzea; hau da, fetuak 2000-2500 g hartu aurretik, edo haurdunaldiko 37-38. astea baino lehen. *ES:* Parto prematuro *FR:* Accouchement prématuré *EN:* Premature labor
- Garapen:** iz. Aldaketa- eta desberdintze-prozesua; era mailakatuan gertatzen da, konplexutasun maila baxuetatik altuagoetara. *ES:* Desarrollo *FR:* Développement *EN:* Development
- Garatu:** ad. Gero eta konplexutasun maila handiago erdietsi nahiz erdietsarazi. *ES:* Desarrollar *FR:* Développer *EN:* To develop
- Garatxo:** iz. Larruazaleko lesio onbera, birus-jatorrikoa. Eskuetan, oinetan eta aurpegian agertzen dira, batez ere, garatxoak. Kutsagarriak dira, eta hedatu egiten dira beste gorputz atal batzuetara. Era askotara senda daitezke: azidokin errez, ebakuntzen bidez erauziz, eta abar. *Papovavirus* kutsagarri arrunta da garatxoaren eragilea. *ES:* Verruga *FR:* Verruca, verrue *EN:* Verruca, wart
- Garatze:** iz. Ikus 'garapen'.
- Garatzatu:** ad. Ikus 'irrigatu'.
- Garatzatze:** iz. Ikus 'irrigazio'.
- Garbigarri:** izond. Ikus 'arazgarri'. *ES:* Depurativo
- Garbitu:** ad. Ikus 'araztu'. *ES:* Depurar
- Garezurreko:** izlag. Garezurrari dagokiona, edo garezurrean dagoena. *ES:* Cranceal *FR:* Crânién *EN:* Cranial *Arloa:* Anat.
- Garondo:** iz. Lepoaren atzeko aldea, kokotea. *ES:* Nuca *FR:* Nuque *EN:* Nape *Arloa:* Anat.
- Garondo-orno:** iz. Ikus 'lepo-orno'.
- Garondoa hautsi:** ad. Garondoko hezurra hautsi, kolpe baten ondorioz. Heriotza eragin dezake. *ES:* Desnucar
- Garraiatu:** ad. Zerbait edo norbait leku batetik beste batera eraman, batez ere tresna, ibilgailu edo era bereziren batez baliatuz. *ES:* Transportar *FR:* Transporter *EN:* To transport
- Garratz:** izond. Lau zapore nagusietako bat. *ES:* Agrio
- Garrazpera:** iz. Hasbeherapen hertsatu eta zaratasua; irenstea zailtzen du, eta ahotsa gorritzen. Ez-tul eginez eztarria garbitzera behartzen du. *ES:* Carraspeo, carraspera *FR:* Graillement *EN:* Clearing of the throat
- Garrazpera izan:** ad. Behin eta berriz ez-tul txikiak egin, eztarria garbitzeko eta ahotsa argitzeko. *ES:* Carraspear
- Garraztu:** izond. Zapore mina hartu duena. *ES:* Agriado *FR:* Aigri *EN:* Sour
- Garun-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'zerebral'.
- Garun:** iz. Entzefaloaren zati nagusia; garezurraren goiko aldean dago. Ildo zentral batek eskuin- eta ezker-hemisferioetan banatzen du; gorputz kailukarak elkartzan ditu hemisferio horiek. Hainbat funtzio ditu garunak; besteak beste, zentzumun-funtzioak eta mugimendu-funtzioak. *ES:* Cerebro *FR:* Cerveau *EN:* Cerebrum *Oharrak:* Garunak zuzentzen dituen prozesuen artean daude: oroimena, hizkuntza, idazkera eta erantzun emozionala. *Arloa:* Anat.
- Garun-azal:** iz. Ikus 'garun-kortex'.
- Garun-bentrikulu:** iz. Garunean dauden lau barrunbeetako bakoitza; likido zefalorakideoz beteak daude. *ES:* Ventrículo cerebral *FR:* Ventricule cérébral *EN:* Cerebral ventricle *Arloa:* Anat.
- Garuneko:** izlag. Ikus 'zerebral'.
- Garuneko bentrikulu:** iz. Ikus 'garun-bentrikulu'.
- Garuneko kommozio:** iz. Buruan hartutako kolpe baten ondoriozko egoera; bertigoa, konortea galtzea, goragalea, pultsu ahula eta arnasketa mo-

- tela ditu ezaugarri. *ES:* Conmoción cerebral *FR:* Commotion cérébrale *EN:* Cerebral concussion  
*Arloa:* Med.
- Garun-enbor:** iz. Nerbio-sistema zentralaren zatia, garun-barrunbean kokatua; bizkarrezur-erraboi-lak, erdiko garunak eta irtenguneeak osatzen dute. *ES:* Tronco cerebral *FR:* Tronc cérébral *EN:* Brainstem *Arloa:* Anat.
- Garun-kortex:** iz. Garun-hemisferioen gainazalean dagoen gai grisezko xafla mehea. Goi mailako nerbio-jarduera koordinatzen du. *ES:* Córtex cerebral, corteza cerebral *FR:* Cortex cérébral *EN:* Cerebral cortex *Arloa:* Anat.
- Garuntxo:** iz. Ikus 'zerebelo'.
- Gas-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'gaseoso'.
- Gas:** iz. Fluido mota; gasean, erabatekoa da molekulen mugikortasuna, eta mugarik gabe hedatzeko gaitasuna du. Ez du forma finkorik, eta tenperaturak eta presioak baldintzatzen dute haren bolumena. *ES:* Gas *FR:* Gaz *EN:* Gas
- Gas geldo:** iz. Egoera jakinetan kimikoki ez-aktiboa den gasa. Esate baterako, nitrogenoa (egoera arruntean) eta gas nobleak (helioa, neona, argona, kriptona, xenona) geldoak dira gairik gehienen aurrean. *ES:* Gas inerte *FR:* Gaz inerte *EN:* Inert gas
- Gaseoso:** izond. Gasari dagokiona; gas-egoeran dagoena, edo gasaren ezaugarriak dituena edota gasa jariatzen duena. *ES:* Gaseoso *FR:* Gazeux *EN:* Gaseous
- Gasifikatu:** ad. Solido bat edo likido bat gas bilakatu. *ES:* Gasificar *FR:* Gazéifier *EN:* To gasify *Arloa:* Kim.
- Gastrektomia:** iz. Urdaila kirurgia bidez eraztea; erabatekoa edo neurri batekoa izan daiteke. Ulterza peptiko kronikoak kentzeko, edo zulatutako ultzeren odoljarria gelditzeko, edota tumor gaiztoak kentzeko egiten da. *ES:* Gastrectomía *FR:* Gastrectomie *EN:* Gastrectomy *Arloa:* Med.
- Gastro:** izond. Ikus 'urdaileko'. *ES:* Gástrico
- Gastritis:** iz. Urdaileko mukosaren hantura, akutu zein kronikoa. Gastritis akutuaren eragile izan daitezke: erredua larriak, kirurgia handia, aspirina zein hanturaren kontrako beste gai batzuk, kortikoideak, elikagaien alergenoko eta toxina birikoak, bakterioenak edo kimikoak. Bestalde, gastritis kronikoaren eragile izan daitezke: ultzera peptikoa, urdaileko minbizia, Zollinger-Ellison-en sindromea edo anemia galgarria. *ES:* Gastritis *FR:* Gastrite *EN:* Gastritis *Arloa:* Med.
- Gastrobaskular:** izond. Digestio- eta zirkulazio-funtzioei dagokiena. *ES:* Gastrovascular *FR:* Gastrovasculaire *EN:* Gastrovascular *Arloa:* Biol.
- Gastroenteritis:** iz. Heste meharraren eta urdailaren aldebereko hantura-prozesua. Gastroenteritisaren eragile dira: gai pozoitsuak hartzea, edo elikagaiak behar bezala ez murtzikatzea, edo edari alkoholduak nahiz oso hotzak edatea, edota kutsaduraren bat. Goragalea eta beherakoa eragiten ditu; gorputzak ura galtzen du, eta oso arriskutsua izan daiteke. *ES:* Gastroenteritis *FR:* Gastro-entérite *EN:* Gastroenteritis *Oharrak:* Gastroenteritisaren sintomak dira: jateko gogorik eza, goragalea, okadak, sabelaldeko mina eta beherakoa. *Arloa:* Med.
- Gastrolito:** iz. Urdailean eratzen den kareharrikonkrezioa. *ES:* Gastrolito *FR:* Gastrolithe *EN:* Gastrolith *Arloa:* Biol.
- Gastrula:** iz. Enbrioiaren garapenaren hirugarren aldi edo egoera, blastularen inbaginaziotik datorrena. Kopa-itxura du. Bi geruza ditu: kanpoko ektodermoa da, eta barnekoa mesentodermoa. Aurrerago, bi geruzatan banatzen da mesentodermoa: mesodermoa eta endodermoa. *ES:* Gástrula *FR:* Gastrula *EN:* Gastrula *Arloa:* Zool.
- Gastrulazio:** iz. Enbriota blastula-egoeratik gastrula-egoerara igarotzen den garapen-aldia. *ES:* Gastrulación *FR:* Gastrulation *EN:* Gastrulation *Arloa:* Zool.
- Gatz:** 1. iz. Sodio kloruroaren izen arrunta (NaCl). Gai kolore, kristalino, disolbagarri eta zapore minekoa da; industrian erabiltzen da, janariak ontzeko edo usteldu gabe iraunarazteko. Naturako gairik ugarienetako bat da. 2. iz. Azidoen eta baseen arteko erreakziotik sortutako konposatuen izen orokorra. Eskuarki, gatzak atal positibo batez (katioi metaliko bat) eta atal negatibo batez (anioia, batzuetan, ez-metal bat izaten da; beste batzuetan, ez-metal bat eta oxigenoa) osatuak daude. *ES:* Sal *FR:* Sel *EN:* Salt
- Gatzapen:** iz. Ikus 'koagulazio'.
- Gatzapenaren kontrako:** izlag. Ikus 'koagulazioaren kontrako'.
- Gatzatu:** ad. Ikus 'koagulatu'.
- Gatzatzaile:** izond. Ikus 'koagulatzaile'.
- Gaza:** iz. Ehun arin eta gardena, harizkoa edo kotoizkoa; elkarrengandik oso bananduak dauden hariz osatua dago. Zauriak sendatzeko erabili ohi da, esterilizatu ondoren. Sendagai batez blaitua egon daiteke gaza, antiseptikoz batik bat. Sendaketetan eta hesgailuetan erabiltzen da. *ES:* Gasa *FR:* Gaze *EN:* Gauze
- Gazaz bildu:** ad. Gazaz estali zerbait. *ES:* Engasar
- Gazitasun:** iz. Inguru bateko gatz-kontzentrazioa. *ES:* Salinidad *FR:* Salinité *EN:* Salinity
- Gazitu:** ad. Jakiak gatzetan eta gatzunetan jarri, gal ez daitezten. *ES:* Salinizar
- Gaztaro:** iz. Nerabazarotik helduarora doan denbora. *ES:* Juventud *FR:* Jeunesse *EN:* Youth
- Gazte-:** (Hitz elkartuetan) Oraindik helduarora iritsi ez denari dagokiona, haren ezaugarriak dituen, edo harentzat egokia dena. *ES:* Juvenil *FR:* Juvénile *EN:* Juvenile

**Gazte:** izond. Hautzaroaren eta adin nagusiaren artean dagoena, edo gaztaroko hainbat ezaugarri dituena. *ES:* Joven *FR:* Jaune *EN:* Young

**Gazur:** 1. iz. Likido organiko bat (odola, esnea edo linfa, batez ere) gatzatu ondoren geratzen den likidoa. 2. iz. Edozein likido seroso; mintz serosoan azala hezeten duena, bereziki. *ES:* Serum

**Gehiegi kargatu:** ad. Ikus 'gainkargatu'.

**Geldiarazi:** ad. Zerbaiten jarraitutasuna moztu. *ES:* Interrumpir *FR:* Interrompre *EN:* To interrupt

**Gelditasun:** iz. Geldi dagoenaren egoera edo ezaugarria. *ES:* Inacción *FR:* Inaction *EN:* Inaction

**Gemazio:** iz. Zelularen ugalketa, sexu gabekoa. Zelularen gune batean kimu bat sortu, eta, zelulatik bereziz, bizidun berri bat sortzean datza. *ES:* Gemación *FR:* Gemmation *EN:* Budding *Oharrak:* Gemazioz ugaltzen dira behe mailako animaliak eta landareak (belakiak, legamiak, lizuna...). *Arloa:* Biol.

**Geminatu:** izond. Bikoitia; binaka antolatua dagoena, edo gune beretik binaka sortzen dena. *ES:* Geminado *FR:* Géminé *EN:* Geminated *Arloa:* Biol.

**Gene:** iz. Herentziaren eta material genetikoaren unitate biologikoa. ADN molekula batean, azido nukleikoen sekuentzia zehaztua da. Leku jakina du kromosoman. *ES:* Gen *FR:* Gène *EN:* Gene *Arloa:* Biol.

**Genero:** iz. Talde taxonomikoa; ezaugarri berdin bat edo gehiago dituzten espezieez osatua dago. *ES:* Género *FR:* Genre *EN:* Genus *Arloa:* Biol.

**Genetika:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'genetiko'.

**Genetika:** 1. iz. Herentziari dagozkion printzipioak eta mekanismoak ikertzen dituen zientzia, geneak eta haien bilakaera ikertzen dituena, bereziki. 2. iz. Gizabanako, familia, talde edo asaldu jakin baten informazio genetiko osoa. *ES:* Génétique *FR:* Génétique *EN:* Genetics *Arloa:* Biol.

**Genetiko:** 1. izond. Genetikari edo herentziari dagokiona. 2. izond. Ugalketari, sorrerari edo jatorriari dagokiona. *ES:* Génético *FR:* Génétique *EN:* Genetic *Arloa:* Biol.

**Genetista:** iz. Genetikaren ikerkuntzan edo aplikazioan aditua. *ES:* Genetista *FR:* Généticien *EN:* Geneticist *Arloa:* Biol.

**Genitourinario:** izond. Organismoko ugal- eta gerneru-aparatuei dagokiena, hala egitura organikoetara nola funtzioei. *ES:* Genitourinario *FR:* Génito-urinaire *EN:* Genitourinary *Arloa:* Anat.

**Genoma:** iz. Organismo jakin bateko zelula bakoitzaren ondare genetikoak. Prokariotoetan, kromosoma bakar batean antolatua dago, eukariotoetan ez bezala. *ES:* Genoma *FR:* Génome *EN:* Genome *Arloa:* Biol.

**Genotipo:** 1. iz. Organismo edo talde baten ondare genetiko osoa; kromosometan geneek duten lekua eta konbinazioaren arabera zehaztua dago. Kanpoko itxuraren ezaugarri multzoa (fenotipoa) baldintzatzen du. 2. iz. Material genetiko berbera duten organismo taldea edo mota. *ES:* Genotipo *FR:* Génotype *EN:* Genotype *Arloa:* Biol.

**Geoda:** iz. Hezur baten barnean barrunbe patologikoa eratzea ezaugarri duen eritasuna. *ES:* Geoda *FR:* Géode *EN:* Geoda *Arloa:* Med.

**Geriatría:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'geriatriko'.

**Geriatría:** iz. Medikuntzaren adarra; zahartzaroaren fisiologiaren eta hirugarren adinari erasaten dioten gaixotasunen diagnostikoak, tratamenduak eta zainketa berezietan arduratzen da. *ES:* Geriatria *FR:* Gériatrie *EN:* Geriatrics *Arloa:* Med.

**Geriatríko:** 1. izond. Geriatriari dagokiona. 2. iz. Adineko pertsonak bizitzeko eta zaintzeko prestaturik dagoen zentroa. *ES:* Geriátrico *FR:* Gériatrique, hôpital gériatrique, centre gériatrique *EN:* Geriatric, geriatric hospital people's home *Arloa:* Med.

**Germen:** iz. Edozein mikroorganismo; patogenoak, bereziki. *ES:* Gérmen *FR:* Germe *EN:* Germ *Arloa:* Med.

**Germinal:** izond. Hozizelula bati edo garapenaren aldi goiztiarri dagokiona. *ES:* Germinal *FR:* Germinal *EN:* Germinal *Arloa:* Biol.

**Gernu:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'urinario'.

**Gernu:** iz. Iraizkin likidoa; giltzurrunek jariatzen dute, eta, maskurian pilatu ondoren, uretratik kanporatzen da. Pertsona helduak 1300-1600 cm<sup>3</sup> kanporatzen ditu egunero, egoera normalean. Gernuaren % 90-96 ura da; uraz gain, ordea, urea, sodio kloruroa (gatz arrunta), azido fosforikoa, azido sulfurikoa, azido urikoa, amoniakoa, eta abar ditu. Urearen usaina izaten du. *ES:* Orina *FR:* Urine *EN:* Urine

**Gernu-atxikipen:** iz. Maskurian gertatzen den gerneru-pilaketa, ez-borondatezkoa eta gehiegizkoa. Hainbat eragile izan ditzake: maskuriko gihar-tonuaren galera, disfuntzio neurologikoa, maskuriko lesioen bat, uretrako buxadura, analgesiko narkotikoak, eta abar. *ES:* Retención de orina *FR:* Rétention d'urines *EN:* Retention of urine *Arloa:* Med.

**Gernu-egite:** iz. Gernua kanporatzeko ekintza. *ES:* Micción *FR:* Miction *EN:* Micturation, urination *Arloa:* Med.

**Gernu-erretentzio:** iz. Ikus 'gernu-atxikipen'.

**Gernu-maskuri:** iz. Gihar-mintzezko zakua, pelbisean dagoena. Gernua pilatzen da bertan, uretratik kanporatua izan dadin. *ES:* Vejiga urinaria *FR:* Vessie urinaire *EN:* Urinary bladder *Arloa:* Anat.



- Gernu-sistema:** iz. Gernua sortu eta hura organismotik kanporatzen duen organo multzoa; giltzurrunez, ureterrez, gernu-maskuriaz eta uretraz osatua dago. *ES:* Sistema urinario *FR:* Appareil urinaire *EN:* Urinary system *Arloa:* Anat.
- Gerri-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'lunbar'.
- Gerri:** iz. Toraxaren eta aldaken arteko gorputz zatia; enborreko zatirik estuena da. *ES:* Cintura *FR:* Ceinture *EN:* Girdle *Arloa:* Anat.
- Gerialdeko:** izlag. Ikus 'lunbar'.
- Gerruntze:** iz. Ikus 'kortse'.
- Gertu:** izond. Berehalakoa; distantzia edo denbora gutxira dagoena. *ES:* Próximo *FR:* Proche *EN:* Near
- Geruza:** iz. Ikus 'estratu'.
- Gibel-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'hepatiko'.
- Gibel:** iz. Digestio-hodiari lotutako guruina; gorputzeko organorik handiena eta konplexuenerikoa da. Bi ildok lobulutan banatzen dute. Oinarrizko organoa da bizitzarako, eta hainbat funtzio ditu: behazuna jariatu, glukogenoa eratu, gantzak finkatu, gai nitrogenatuak urea bihurtu, hematien eraketa eta suntsipenean parte hartu, eta pozoiak, toxinak nahiz bakterioak neutralizatu, finkatu edo suntsitu, besteak beste. *ES:* Hígado *FR:* Foie *EN:* Liver *Arloa:* Anat.
- Gihar perigoide:** iz. Beheko barailako giharra; barailaren aldeetarako mugimendua eta murtixkadura ahalbidetzen ditu. *ES:* Músculo pterigoideo *FR:* Ptérygoïde *EN:* Pterygoid *Arloa:* Anat.
- Gihar-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'muskular'.
- Gihar:** iz. Ikus 'muskulu'.
- Gihar erisorio:** iz. Ahoko 12 giharretariko bat; masetero-giharreko faszian du jatorria, eta larrazalean txertatzen da, ahoko angeluan; angelu horri tiratzea du funtzio, irribarre egitean, adibidez. *ES:* Músculo risorio *EN:* Risorius *Arloa:* Anat.
- Gihar pectineo:** iz. Izterraren barnealdeko giharretan aurrekoena. Haren funtzioak dira izterraren flexioa, adukzioa eta barne-errotazioa. *ES:* Músculo pectíneo *FR:* Pectiné *EN:* Pectineus *Arloa:* Anat.
- Gihar pectoral:** iz. Bularraldearen aurrealdean eta albo banatan dauden giharretako bakoitza. *ES:* Músculo pectoral *FR:* Pectoral *EN:* Pectoral *Arloa:* Anat.
- Gihar sartorio:** iz. Gorputzeko giharrik luzeena, pelbisetik zangarreraino doana. Haren funtzioak dira izterra flexionatzea eta kanporantz biraraztea, eta zangoa flexionatzea eta barnerantz biraraztea. *ES:* Músculo sartorio *FR:* Muscle couturier *EN:* Sartorius *Arloa:* Anat.
- Gihar semitendinoso:** iz. Izterraren atzealdeko hiru giharretako bat. Haren funtzioak dira zangoaren flexioa, flexio-osteko errotazioa eta izterra luzatzea. *ES:* Músculo semitendinoso *FR:* Demi-tendineux *EN:* Semitendinosus *Arloa:* Anat.
- Gihar zerradun:** iz. Ertzetariko bat zerraren antzekoa duten giharrek. Enborrean daude, toraxaren alboan eta bizkarraren goiko eta beheko aldeetan, hain zuzen. *ES:* Músculo serrato *FR:* Serratus *EN:* Serratus *Arloa:* Anat.
- Gihar barneko:** izlag. Gihar-ehunaren barnealdeari dagokiona. *ES:* Intramuscular *FR:* Intramusculaire *EN:* Intramuscular
- Gihar barneko injekzio:** iz. Giharretan jartzen den injekzioa, sendagai bat emateko helburuarekin. *ES:* Inyección intramuscular *FR:* Injection intramusculaire *EN:* Intramuscular injection *Arloa:* Med.
- Gihar-ehun:** iz. Giharraren gaia osatzen duen ehuna; uzkuertzeko gaitasun handia duten zelulez osatua dago, eta mugimendu guztien oinarri da. *ES:* Tejido muscular *FR:* Tissu musculaire *EN:* Muscular tissue
- Gihar-min:** iz. Giharretan sentitzen den min edo ziztada, batik bat gorputz-adarretan, ariketa gogorregia edo iraupen luzeak egin eta gero. *ES:* Agujeta *FR:* Courbatures *EN:* Muscle stiffness
- Giharrak bigundu:** ad. Gorputz atal gogortu edo baldartu batek askatasuna eta mugikortasuna berreskuratu. *ES:* Desentumecer
- Giharrerria:** iz. Ikus 'muskulatura'.
- Gihar-tentsio:** iz. Gihar-uzkurdurak eragindako tentsioa. *ES:* Tensión de los músculos, tensión muscular *FR:* Tension musculaire *EN:* Muscular tension
- Gihartsu:** izond. Gihar asko duena. Indartsua, kementsua. *ES:* Musculoso
- Gihar-uzkurdura:** iz. Nerbio-kinaden aurrean izaten den ohiko erreazioa; gihar-zuntzak laburtzean datza. *ES:* Contracción muscular *FR:* Contraction musculaire *EN:* Muscle twitch
- Giltzadura:** iz. Ikus 'artikulazio'.
- Giltzadurako:** izlag. Ikus 'artikular'.
- Giltzurrun-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'giltzurrun-(ta)ko'.
- Giltzurrun:** iz. Guruin-organo bikoitza; gernua jariatzen du. Babarrun-formakoak dira giltzurrunak, eta sabelalde-barrunbearen atzeko aldean daude. Nefrona da giltzurrunaren unitate histologiko eta funtzionala (milioi bat nefrona inguru daude giltzurrun bakoitzean). Nefronek odoleko gaien kontzentrazioa mantentzen laguntzen dute, ura eta hondakin-gaiak (urea, azido urikoa, eta abar) kanporatuz. Era berean, odolaren presioa erregulatzen duten gaiak ditu, eta barne-jarioko guruin gisa ere jokatzen du. 1300 litro odol igarotzen da egunero giltzurrunetatik. *ES:* Riñón *FR:* Rein *EN:* Kidney *Arloa:* Anat.

**Giltzurrun(e)ta)ko:** izlag. Giltzurrunari dagokiona, edo giltzurrunean dagoena. *ES:* Renal *FR:* Rénal *EN:* Renal

**Giltzurrun-formako:** izlag. Giltzurrunaren forma duena. *ES:* Reniforme *FR:* Réniforme *EN:* Reniform

**Giltzurrun gaineko:** 1. izlag. Giltzurrunaren gainean dagoena. 2. iz. Giltzurrunaren gainean dagoen guruina. *ES:* Suprarrenal *FR:* Surrénal *EN:* Suprarenal *Arloa:* Anat.

**Giltzurrun gainekoaren muin:** iz. Giltzurrun gaineko guruinaren atalik barnekoena. Giltzurrun gainekoaren muinaren zelulek erreakzio kromafinoa dute, epinefrina eta norepinefrina eduki eta jariatzen baitute haien pikorrek. *ES:* Médula suprarenal *FR:* Médullosurrénale *EN:* Adrenal medulla *Arloa:* Med.

**Giltzurrun-pelbis:** iz. Ureterrak giltzurrunarekin lotzen diren guneko zabalgunea, inbutu-formakoa; gernua bideratzen du giltzurrunetik ureterrera. *ES:* Pelvis renal *FR:* Bassinet rénal *EN:* Renal pelvis

**Ginekologia-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'ginekologiko'.

**Ginekologia:** iz. Medikuntzaren adarra; emakumearen osasun-laguntzaz, sexu- eta ugaltze-organuen gaixotasunez arduratzen da. *ES:* Ginecología *FR:* Gynécologie *EN:* Gynecology *Oharrak:* Umetokiko eta obulutegietako tumorrak, hilekoaren gorabeherak eta antzutasuna dira, gaur egun, ginekologiaren aztergai nagusiak. *Arloa:* Med.

**Ginekologiko:** izond. Ginekologiari dagokiona. *ES:* Ginecológico *FR:* Gynécologique *EN:* Gynecological *Arloa:* Med.

**Ginekologo:** iz. Ginekologian aditua. *ES:* Ginecólogo *FR:* Gynécologue *EN:* Gynecologist *Arloa:* Med.

**Gingil-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'lobular'.

**Gingil:** iz. Ikus 'lobulu'.

**Gizaki:** iz. Gizon-emakumeen multzoko banakoa, arra edo emea. *ES:* Ser humano *FR:* Humain *EN:* Human

**Gizaseme:** iz. Ikus 'gizon'.

**Gizen:** izond. Mardula; gantz gehiegi duena. *ES:* Craso *FR:* Gras, grasse *EN:* Gross, fat

**Gizendu:** ad. Gizen edo gizenago bihurtu. *ES:* Engordar *FR:* Engraisser *EN:* To put on weight, to get fatter

**Gizeneri:** iz. Ikus 'obesitate', 'adipositate', 'adiposi'.

**Gizentasun:** iz. Ikus 'obesitate', 'adipositate', 'adiposi'.

**Gizon:** iz. Pertsona arra; heldua, bereziki. *ES:* Hombre, varón *FR:* Homme *EN:* Man

**Gizonezko:** iz. Ikus 'gizon'.

**Glande:** iz. Zakilaren mutur distala. Uretarren zati harroaren hedapenez osatua dago, eta prepuzioak

inguratzen du. *ES:* Glande *FR:* Gland *EN:* Glans penis *Arloa:* Anat.

**Glaukoma:** iz. Begi barneko presioaren igoera ezaugarri duen asaldia. Humore urtsuko irteera-fluxuaren buxaduraren ondoriozkoa izan daiteke presio-igoera hori. Begi-globoa gogortu egiten da, nerbio optikoa atrofiatu, eta papila atzeratu. Ikus-eremuaren murrizketa eta itsutasuna dira glaukomaren ezaugarri klinikorik nabarmenak. *ES:* Glaucoma *FR:* Glaucome *EN:* Glaucoma

**Glia:** iz. Ikus 'neuroglia'.

**Glizerido:** iz. Glizerinaren eta gantz-azidoen estereiri dagokien termino orokorra; gantz neutroa. *ES:* Glicérido *FR:* Glycéride *EN:* Glyceride

**Glizerina:** iz. Koipe gozoa. Koipean eta gantzen hidrolisitik lortzen da. Ehunak kontserbatzeko eta zati histologikoen antolaketa egiteko erabiltzen da. Crema, kolutorio edo gargarismo gisa erabiltzen da medikuntzan. Eragin libragarri- eta antilitiasikoa du organismoaren barruan, eta azukreaken orde erabil daiteke diabetikoetan. *ES:* Glicerina *FR:* Glycérine *EN:* Glycerin *Arloa:* Biokim.

**Globular:** izond. Globo- edo esfera-itxura duena. *ES:* Globular *FR:* Globulaire *EN:* Globular

**Globulina:** iz. Proteina talde zabala. Disolbagarritasunaren, mugikortasun elektroforetikorearen eta neurriaren arabera sailkatzen dira. Beroak kogulatu egiten ditu globulinak. Globulina mota bat odoleko globulueta izaten da; fibrina sortzen du eta odol-gatzatzailea da. *ES:* Globulina *FR:* Globuline *EN:* Globulin

**Globulu:** iz. Esfera-formako gorputz txikia. Odolean, linfan edo gorputz barneko beste isurkari batzuetan izaten da esekiduran. Globulu gorriak eta globulu zurriak izaten dira ornodunetan. *ES:* Glóbulo *FR:* Globule *EN:* Globule

**Globulu gorri:** iz. Ikus 'eritrozito'. *ES:* Glóbulo rojo

**Globulu-formako:** izlag. Ikus 'globular'.

**Glomerulu:** 1. iz. Odol-hodiz edo nerbio-zuntzez osaturiko egitura biribildua; esate baterako, giltzurrun-glomerulua. 2. iz. Giltzurrun-glomerulu: Giltzurrunean, gernu-hodixka baten zabalgunearn barnean dagoen glomerulua, odol-kapilar bihurtuak. *ES:* GloméruLO *FR:* Glomérule *EN:* Glomerulus

**Glotis:** iz. Triangelu-itxurako irekigune edo espazioa, beheko ahots-korden tartean dagoena. Laringearen fonazio-aparatu da. *ES:* Glotis *FR:* Glotte *EN:* Glottis

**Glukogeno:** iz. Polisakaridoa; animalia-zeluletan biltzen den karbohidrato nagusia da. Glukosa molekula ugaziz osatutako gluzido konplexua da. Animalien glukosa-erreserba da, eta giharretan eta gibelean metatzen da batik batik. Glukosatik lortzen da glukogenesi bidez, eta azido laktiko

- bihurtzen da gorputzak energia asko behar duenean. *ES:* Glucógeno *FR:* Glycogène *EN:* Glycogen *Arloa:* Biokim.
- Glukolipido:** iz. Lipido batez eta karbohidrato batez —galaktosa eta glukosa, oro har— osatutako konposatua; nerbio-sistemako ehunean agertzen da nagusiki. *ES:* Glucolípido *FR:* Glycolipide *EN:* Glycolipid *Arloa:* Biokim.
- Glukolisi:** iz. Entzima-erreakzioen multzoa; glukosa eta beste zenbait azukre metabolizatzen dira, azido pirubikoa lortzeko. Prozesu horretan, energia askatzen da. *ES:* Glucólisis *FR:* Glycolyse *EN:* Glycolysis *Arloa:* Biokim.
- Glukometro:** iz. Gluzemia neurtzeko tresna. *ES:* Glucómetro *FR:* Glucomètre *EN:* Glucometer
- Glukosa:** iz. Gluzido kolorega, zapore gozokoa; ia gluzido guztien konposizioaren osagarri da. Fruitu azukretsua askotan eta organismoko hainbat gunetan aurki daiteke; esate baterako, odolean, gibelean eta beste zenbait gorputz-ehunetan. Organismoko energia-iturri nagusietako bat da, eta garrantzi handia du izaki bizidunen metabolismoan. Animalietan, glukogeno moduan metatzen da, eta, landareetan, almidoi moduan. *ES:* Glucosa *FR:* Glucose *EN:* Glucose *Arloa:* Kim.
- Gluten:** iz. Proteina disolbaezina; irinaren eta beste zenbait zerealen osagaia da. *ES:* Gluten *FR:* Gluten *EN:* Gluten
- Gluteo:** iz. Ipurmasaila osatzen duten hiru giharretako edozein. Gluteo nagusiak izterra luzatzen du, ertainak izterra abduzitu eta biratu, eta txikiak izterra abduzitu. *ES:* Glúteo *FR:* Muscle fessier, Fessier *EN:* Gluteus, Gluteal *Arloa:* Anat.
- Gluzemia:** iz. Glukosa-kontzentrazioa, odolean. Baraualdian, 0.6-1.2 g/l artean mantentzen da. Neurri hori baino baxuagokoa bada kontzentrazioa, hipogluzemia deritzo; altuagoa bada, berriz, hipergluzemia. *ES:* Glucemia *FR:* Glycémie *EN:* Glycemia
- Gluzidiko:** izond. Gluzidoei dagokiena. *ES:* Glucidico *FR:* Glucidique *EN:* Carbohydrate
- Gluzido:** iz. Karbohidratoak eta glukosidoak bitzen dituen termino orokorra. Karbonoz, hidrogenoz eta oxigenoz osatutako gaia izaten da. Organismo bizientzat garrantzi handiko energia-iturri dira gluzidoak. *ES:* Glúcido *FR:* Glucide *EN:* Glucide *Arloa:* Biokim.
- Gogamen-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'mental'.
- Gogamen:** 1. iz. Gizabanako baten prozesu kontziente eta inkontziente guztien multzoa. 2. iz. Gizabanako baten prozesu mentalen nahiz jarduera psikikoen sistema edo antolaera. Hari esker egiten da: ezagutu, ulertu, oroitu, pentsatu, sentitu eta erreakzionatu, eta nor bere buruaz eta inguruaz jabetu. *ES:* Mente *FR:* Esprit *EN:* Mind
- Gogor:** izond. Irmao, erresistentea; biguna ez dena. X izpien eradiazio sarkorra izendatzeko erabiltzen da bereziki. *ES:* Duro *FR:* Dur *EN:* Hard *Arloa:* Kim.
- Gogordura:** iz. Epidermisa loditzearen ondorioa, kailuaren itxurakoa baina sakontasun gutxiagokoa; igurzketaren, presioaren edo beste zenbait narritaduraren ondorioz sortzen da. *ES:* Dureza de la piel, callosidad *FR:* Callosité *EN:* Callosity
- Gogortu:** ad. Gorputz atal bat zurrun eta mugitu ezinik geratu, hotzaren edo beste arrazoiren baten ondorioz. *ES:* Agarrotrar, entumecer *FR:* Coincer *EN:* To jam
- Gogortze:** iz. Mugimenduen zailtasuna edo baldartzea; sentipen-nerbio zuntzen bulkaden transmisioa eteten duen edozein faktorek eragiten du. *ES:* Agarroamiento, entumecimiento *FR:* Engourdissement *EN:* Numbness
- Goi-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'goiko'.
- Goiko:** izlag. Kokapenez edo mailaz gorago dagoena. *ES:* Superior *FR:* Supérieur *EN:* Superior
- Goiko masailezur:** iz. Ikus 'goiko matrailezur'.
- Goiko matrailezur:** iz. Hezur luze pare. Gorputz piramidala batez eta lau apofisis —zigomatikoa, goranzkoa, albeolo-apofisia eta ahosabaikoa— osatua. *ES:* Hueso maxilar superior *FR:* Maxillaire supérieur *EN:* Maxilla
- Goitika:** iz. Oka egitean ahotik kanporatzen den gaia, urdailetik datorrena. Hainbat ezaugarri hartu behar izaten dira kontuan goitikak sailkatzeko: besteak beste, kolorea eta kantitatea. *ES:* Vómito *FR:* Vomissement *EN:* Vomitus
- Goitika egin:** ad. Ikus 'oka egin'.
- Goitikin:** iz. Ikus 'goitika'.
- Golo:** iz. Ikus 'bozio'.
- Gonada:** iz. Gametoak ekoizten dituen guruina; barrabilak dira arraren gonadak, eta obulutegiak emearenak. Gametoak ez ezik, sexu-hormonak ere sortzen dituzte gonadek. *ES:* Gónada *FR:* Gonade *EN:* Gonad *Arloa:* Biol.
- Gonadotropina:** iz. Hipofisiak jariatzen duen gaia. Hormona-izaera du, eta obulutegien eta barrabilen funtzioak bizkortzen ditu. Medikuntzan erabiltzen da, gonada antzuen jarduera zuzentzeko. *ES:* Gonadotropina *FR:* Gonadotrophine *EN:* Gonadotropin *Adibideak:* Gonadotropina motak dira korionikoa eta aurrepituitarioa (folikuluestimulatzaila eta luteinizatzailea). *Arloa:* Biokim.
- Gonbitalarri:** iz. Ikus 'goragale'.
- Gonbito:** iz. Ikus 'goitika'.
- Gongoil-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'ganglionar'.
- Gongoil:** iz. Nerbio-zelulen metaketa; bereziki, nerbio-sistema zentraletik kanpo taldeka pilatzen diren nerbio-zelulena. Bi gongoil mota daude organismoan: zentzumen-gongoilak (bizkarrezurreko nerbioen atzeko erroetan eta nerbio trigeminoaren

- minoaren, glosofaringeoaren eta aurpegiko nerbioaren zentzumen-erroetan daude), eta gongoil autonomoak (sistema sinpatikoari eta parasinpatikoari dagozkienak). *ES:* Ganglio *FR:* Ganglion *EN:* Ganglia *Arloa:* Anat.
- Gongoil basal:** iz. Garun-azalaren azpian dauden nerbio-nukleoak. Gai grisezko irlatxoak dira, eta garuneko bi hemisferioen barnean daude. *ES:* Ganglio basal *FR:* Noyaux gris centraux *EN:* Basal nuclei
- Gongoil linfatiko:** iz. Egitura obalak; linfa iragazi, eta gaizkoaduren aurka borrokatzen dute. Linfotitoak, monozitoak eta zelula plasmaticoak sortzen dira gongoil linfatikoetan. Hainbat neurritakoak izan daitezke gongoil horiek, eta ahoan, lepoan, besoaren behealdean, besapean eta iztairan daude pilatuta gehienak. *ES:* Ganglio linfático
- Gonokoko:** iz. Gonokozia eragiten duen bakterio patogenoa. Era askean dago zornean edo leukozitoen barruan, eta itxura oboidea du. Binaka elkartuak daude, alde ahurrean lotuta, eta gramnegatiboak dira. *ES:* Gonococo *FR:* Gonocoque *EN:* Gonococcus
- Gonokozia:** iz. Sexu bidez transmititzen den gaixotasun sarria; gehienbat gernubideari eta, batzuetan, faringeari, konjuntibari eta uzkiari erasaten die. Kutsatutako pertsona batekin edo organismo eragilea (*Neisseria gonorrhoeae*) duen jariakinen batekin kontaktua izan ondoren gertatzen da infekzioa. Gonokozia ezagugarriak dira: uretritis, disuria, baginako edo uretrako jario zornetsu berde-horixka, gernu-meatu gorria edo handitua, eta azkura, mina nahiz sumindura uretra- zein bagina-zuloan. *ES:* Gonococia, gonorea *FR:* Gonococcie *EN:* Gonococcia *Arloa:* Med.
- Gor:** izond. Entzumen-asalduren bat duena; entzuteko zailtasuna edo ezintasuna izan ohi du. *ES:* Sordo *FR:* Sourd *EN:* Deaf
- Goragale:** iz. Oka egiteko gogoia. Gorakoa berehalaxe datorrela sentitzen da eztarrian edo epigastriotan. Gehienetan, berehala etortzen da gorakoa. *ES:* Ganas de vomitar, arcada, náusea *FR:* Nausée *EN:* Nausea
- Goraka egin:** ad. Ikus 'oka egin'.
- Goralarri:** iz. Ikus 'goragale'.
- Gordekin:** iz. Ikus 'erreserba'.
- Gordetze:** iz. Gerora erabiltzeko balio dezakeena pilatzea. *ES:* Almacenamiento *FR:* Stockage *EN:* Storage *Arloa:* Kim.
- Gorgarri:** izond. Oso zaratsua dena; entzumena gortzen duena. *ES:* Ensordecedor *FR:* Assourdisant *EN:* Deafening
- Gor-mutu:** izond. Entzuterik eta hitz egiterik ez duena. Garuneko edo entzumen- eta mintzairaren organoetako asalduen ondorioz gertatzen da. *ES:* Sordomudo, -a *FR:* Sourd-muet *EN:* Deaf-mute
- Gor-mututasun:** iz. Entzumenaren eta hitzaren gabezia. Hitzaren gabezia jaiotzetikoa edo jaiotze berehalako gorrieraren ondoriozkoa izan daiteke. *ES:* Sordomudez *FR:* Surdi-mutité, surdimutité *EN:* Deaf-mutism, deaf mutism
- Gorotz:** iz. Ikus 'sabel-huskin'.
- Gorozki-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'fekal'.
- Gorozki:** iz. Ikus 'sabel-huskin'.
- Gorpu:** iz. Ikus 'hilotz'.
- Gorputz-:** (Hitz elkartuetan) Gorputzari dagokion. *ES:* Corporal *FR:* Corporel *EN:* Corporal
- Gorputz:** 1. iz. Gizabanako baten egitura osoa, organo guztiak bere baitan dituen. 2. iz. Organoen atal nagusia; organo baten parte den egitura homogeneoa. *ES:* Cuerpo *FR:* Corps *EN:* Body *Arloa:* Anat.
- Gorputz beirakara:** iz. Begi-globoaren zati handia, gai gardenez osatua. Kristalinoaren eta erretinaren artean dago, mintz hialoide batean. *ES:* Cuerpo vitreo *FR:* Corps vitré *EN:* Vitreous body *Arloa:* Anat.
- Gorputz hori:** iz. Obulutegiaren azaleko egitura anatomikoa; 1-2 cm-ko diametroa duen ehun horixka batez osaturiko esfera da, obulazioaren ondoren obulutegi-folikulu hautsiaren barnean sortua. Iraupen laburreko organo endokrino gisa funtzionatzen du, progesterona jariatuz. *ES:* Cuerpo amarillo *FR:* Corps jaune *EN:* Corpus luteum *Arloa:* Anat.
- Gorputz kailukara:** iz. Gai zurizko gunea; bi garun-hemisferioak konektatzen ditu. *ES:* Cuerpo calloso *FR:* Corps calleux *EN:* Corpus callosum *Arloa:* Anat.
- Gorputz leizetsu:** iz. Zakilaren eta klitoriairen gainaldean dagoen ehun zutikorra. Sexu-kitzikapenean, ehuna odolez puutzen da. *ES:* Cuerpo cavernoso *FR:* Corps cavernoux *EN:* Corpus cavernosum *Arloa:* Anat.
- Gorputz luteo:** iz. Ikus 'gorputz hori'. *ES:* Cuerpo lúteo
- Gorputz pineal:** iz. Epifisia; barne-jarioko guruin txikia da. Garunaren barruan dago. *ES:* Cuerpo pineal *FR:* Corpus pineale *EN:* Corpus pineale *Arloa:* Anat.
- Gorputz pituitario:** iz. Hipofisia; hipotalamoari loturiko guruin txikia da. Esfenoide hezuraren gainean dago, eta zenbait bizi-funtzio zuzentzen dituzten hormonak ekoizten ditu. Bi zati ditu: adenohipofisia edo aurreko hipofisia, eta neurohipofisia edo atzeko hipofisia. Adenohipofisia baino txikiagoa da neurohipofisia. Adenohipofisiak jariatzen dituen hormonak dira: hazkuntzaren hormona (somatotropina), hormona tirotropikoa, adrenokortikotropa hormona, hormona

- folikulu-estimulatzailea, hormona luteinizatzailea eta prolaktina. Neurohipofisian, bi hormona pilatzen dira: oxitoxina eta basopresina. *ES:* Cuerpo pituitario *FR:* Glande pituitaire *EN:* Pituitary body *Arloa:* Anat.
- Gorputz-adar:** iz. Gorputzaren luzakina. Adibidez, besoa da goiko gorputz-adarra; zangoa, berriz, beheko gorputz-adarra. *ES:* Extremidad *FR:* Extrémité *EN:* Extremity *Arloa:* Anat.
- Gorpuzkera-:** (Hitz elkartuetan) Gizabanako baten gorputzaren itxurari dagokiona. *ES:* Constitucional *FR:* Constitutionnel *EN:* Constitutional
- Gorpuzkera:** iz. Gorputzaren itxura. *ES:* Compleción *FR:* Complexion *EN:* Complexion
- Gorreri:** iz. Entzumena ahultzea edo hura erabat galtzea ezaugarri dituen prozesua. Gorreria balioestean, gaixoaren belarriak aztertzen dira, exudaziorik, zoldarik, argizariarik edo ohiz kanpoko egiturarik ba ote dagoen ikusteko. Ebakuntza bidez sendatzen dira zenbait gorreria mota; beste zenbaitetan, entzumena hobetu daiteke audifonoen eta antzeko tresnen laguntzaz. *ES:* Sordera, sordez *FR:* Surdité *EN:* Deafness
- Gorritasun:** iz. Urtikaria-lesio baten inguruko larruzalaren kolore gorria. *ES:* Enrojecimiento *FR:* Cercle érythémateux *EN:* Flare
- Gorritu:** ad. Kolore gorria nahiz gorri antzekoa hartu edo eman. *ES:* Enrojecer *FR:* Rougir *EN:* To redden, to turn red *Adibideak:* Aurpegia gorritu, beroagatik, emozio batengatik, itolarriagatik, eta abar.
- Gorriune:** iz. Larruzaleko orban edo gune gorria, masailetakoa bereziki. *ES:* Roseta *FR:* Bouffées vasomotrices, flush *EN:* Flush
- Gorrasun:** iz. Ikus 'gorreri'.
- Gortu:** ad. Gor bihurtu; entzumena galdu. *ES:* Ensordecer *FR:* Abassourdir, assourdir *EN:* To deafen
- Gose:** iz. Elikagai-beharra edo -nahia adierazten dituen barne-sentsazio fisikoa. *ES:* Hambre *FR:* Faim *EN:* Hunger
- Gosete:** iz. Gose handi eta orokortua; gose-garaia. *ES:* Hambruna *FR:* Famine *EN:* Famine
- Goseti:** izond. Gose handia duena, edo jateko beharrean dagoena. *ES:* Hambriento *FR:* Affamé *EN:* Hungry, starving
- Gozagarri:** izond. Ikus 'edulkoratzaile'.
- Gozatu:** ad. Ikus 'edulkoratu'.
- Gradu:** 1. iz. Neurri-eskala bat banatzen den zatietako bakoitza. 2. iz. Temperatura neurtzeko unitatea. *ES:* Grado *FR:* Degré *EN:* Degree
- Graduazio:** iz. Alkoholdun edari batek duen alkohol kantitatea. *ES:* Graduación *FR:* Graduation *EN:* Graduation
- Gragea:** iz. Sendagai-prestakina; gai azukretsuzko geruza duen pilula da. *ES:* Gragea *FR:* Dragée *EN:* Sugar-coated
- Gripe-:** (Hitz elkartuetan) Gripearri dagokiona. *ES:* Gripal *EN:* Related to flu
- Gripe:** iz. Arnasbideetako gaixotasun kutsagarri akutua. *Myxovirus* batek eragiten du, eta airez transmititzen da, kutsatutako tanten bidez. Gripearren ezaugarri dira: buruko mina, sukarra eta gorputz guztiko ondoeza. Ondo sendatzen ez bada, bronkitisa eta belarriko gaizkoadura ager daitezke. Gaur egun oso zabaldua dagoen eritasuna da, eta, zenbait tokitan, gripearren aurkako neurri bereziak hartzen dira (txertoak, eta beste). Tratamendua sintomatikoa da: ohean atsedena, aspirina eta likidoak hartzen dira, gehienetan. 3 eta 10 egunen artean sendatzen da. *ES:* Gripe *FR:* Grippe *EN:* Influenza *Arloa:* Med.
- Gripearren kontrako:** izlag. (Gai bati buruz) Gripearri aurre egiteko balio duena. *ES:* Antigripal *FR:* Agent anti-grippal *EN:* Anti-influenzal agent *Arloa:* Med.
- Guanina:** iz. Base purikoa; nukleotidoen eta azido nukleikoen (ADN eta RNA) osagai diren base nitrogenatuetako bat da. Ugaria da izadian. Zelula gehienetan dago, aske eta kantitate minimotan; oro har, azido nukleikoen eta nukleotidoen hidrolisi entzimatiakoaren emaitza da. *ES:* Guanine *FR:* Guanine *EN:* Guanine *Arloa:* Biokim.
- Gune:** iz. Ikus 'foku'.
- Gune popliteo:** iz. Ikus 'belaunpe'.
- Gurasotasun:** iz. Guraso izateak dakarren egoera. *ES:* Paternidad *FR:* Paternité *EN:* Fatherhood
- Gurin:** iz. Gai solido biguna; behi-esnearen gantza da. Esne-gaina joz edo irabiatuz egiten den gai koipetsua da, kolore hori argikoa; sukaldaritzan erabiltzen da, edo zuzenean elikagai gisa. *ES:* Mantequilla *FR:* Beurre *EN:* Butter
- Gurintxo:** iz. Besapeko izerdi-guruinen hantura. *ES:* Golondrino *EN:* Boil in the armpit *Arloa:* Med.
- Guruin-:** (Hitz elkartuetan) Guruinei dagokiena. *ES:* Glandular *FR:* Glandulaire *EN:* Glandular
- Guruin:** iz. Odoleko materialak erabiliz gai bereziak ekoiztea helburu duen organoa. Gaiak kanpora jariatzeko gaitasuna du. Organismoak behar-beharrezkoak dituen gaiak sortu eta odolera jariatzen ditu, edota hondakinak kanporatu organismotik. Guruin batzuek lubrifikatu egiten dute, beste batzuek hormonak ekoitzi, eta abar. *ES:* Glándula *FR:* Glande *EN:* Gland
- Guruin exokrino:** iz. Zuzenean zein hodi baten bidez kanpoaldera irekitzen den guruina. *ES:* Glándula exocrina *FR:* Glande exocrine *EN:* Exocrine gland *Adibideak:* Guruin exokrinoak dira izerdi-guruinak, listu-guruinak eta bilgor-guruinak.
- Guruin pituitario:** iz. Ikus 'hipofisi'. *ES:* Glándula pituitaria
- Gurutzamendu:** iz. Ikus 'gurutzatze'.

**Gurutzatze:** iz. Espezie edo arraza berekoak ez diren bi izaki batzea. *ES:* Cruzamiento *FR:* Croisement *EN:* Crossing *Arloa:* Biol.

**Gurutze-formako:** izlag. Gurutze-itxura edo -forma duena. *ES:* Cruciforme *FR:* Cruciforme *EN:* Cruciform

**Gutxiegitasun:** iz. Organo batek bere funtzioa betetzeko ahalmenaren murriztapena. *ES:* Insuficiencia *FR:* Insuffisance *EN:* Insufficiency *Adibideak:* Bihotz-gutxiegitasuna, arnas gutxiegitasuna, eta abar. *Arloa:* Med.



# H

.....

- Hagin:** iz. Letaginen ondoren dauden hortzetariko bakoitza. Janaria birrintzeko moldaturik daude.  
*ES:* Muela *FR:* Dent *EN:* Tooth
- Hagina atera:** ad. Hagin bat atxikita dagoen lekutik indarkeriaz kanporatu. *ES:* Arrancar una muela
- Haize eman:** ad. Hodi, barrunbe nahiz organo batean airea edo hauts bat sartu; hainbat helburu izan ditzake: barrua ikusi, buxadura bat kendu, sendagai bat eman, eta abar. *ES:* Insuflar *FR:* Insuffler *EN:* To insufflate *Arloa:* Med.
- Haize-emate:** iz. Organo nahiz barrunbe batean airea edo hauts-itxurako beste gai bat sartzea. *ES:* Insuflación *FR:* Insufflation *EN:* Insufflation *Arloa:* Med.
- Haize-min:** iz. Ikus 'flatulentzia'.
- Haizetsu:** 1. izond. Haizeak eragiten dituena. 2. izond. Digestio-hodian dagoen gasari edo aireari dagokiona. *ES:* Flatulento *EN:* Flatulent
- Halitosi:** iz. Arnas hats desatsegina. Hainbat eragileren ondorio izan daiteke: aho-hortzen garbitasun urria, aho-hortzetako gaizkoadurak, zenbait janari hartzea, tabakoa erretzea, edo zenbait gaixotasun sistemiko (diabetesa, gibelego gaixotasunak, eta abar). *ES:* Halitosis *FR:* Mauvaise haleine *EN:* Halitosis, bad breath *Oharrak:* Azetona-usaina ager daiteke diabetesean, eta amoniako-usaina gibelego gaixotasunetan. *Arloa:* Med.
- Haluzinazio:** iz. Irudipen hutsezko hautematea, benetako estimulurik gabea. *ES:* Alucinación *FR:* Hallucination *EN:* Hallucination *Arloa:* Psikiat.
- Haluzinogeno:** izond. (Gai bati buruz) Haluzinazioak eragiten dituena. *ES:* Alucinógeno *FR:* Psychodysleptique *EN:* Hallucinogen *Adibideak:* Haluzinogenoak dira, besteak beste, azido lisérgikoa (LSD), meskalina eta peiotea.
- Haluzinosi:** iz. Kontzientzian haluzinazioa nagusitzeak dakarren egoera mentala. Hautemate-asaldu bat gertatzen da; asaldua duenak badaki benetako ez dela egoera hori. *ES:* Alucinosis *FR:* Hallucinoze *EN:* Hallucinos *Oharrak:* Ager daiteke alkoholismoan, gai haluzinogenoak hartzean (marihuana, LSD, morfina, kokaina...) edo gorputzaren barruan intoxikazioa berez gertatzen denean (uremia, exikosia...). *Arloa:* Psikiat.
- Handi:** izond. Bolumen handikoa. *ES:* Voluminoso *FR:* Volumineux *EN:* Voluminous
- Handitu:** 1. ad. Hantura eragin. 2. ad. Organismoko guneren batean hantura gertatu. *ES:* Inflamar *FR:* Enflammer *EN:* To inflame *Arloa:* Med. 3. ad. Ikus 'hazi'. *ES:* Crecer
- Handitua:** iz. Ikus 'hantura'.
- Handitua beheratu:** ad. Ikus 'hertu'.
- Handitze:** iz. Ikus 'hazte'.
- Hanpatu:** izond. Puztua, betea, handitua; harrotua. *ES:* Tumefacto *EN:* Swollen *Arloa:* Med.
- Hantura:** iz. Narritadura edo lesio bat gertatzean, organismoko ehunek izaten duten erreakzioa. Akutua edo kronikoa izan daiteke. Haren ezaugarri dira: beroa, gorritasuna, mina, ezintasun funtzionala, eta abar. Histaminek, kininek eta beste hainbat gaik badute eraginik hantura-prozesuan. *ES:* Inflamación, hinchazón *FR:* Inflammation *EN:* Inflammation *Arloa:* Med.
- Hantura beheratu:** ad. Ikus 'hertu'.
- Hanturaren kontrako:** izlag. (Sendagaiei buruz) Hantura geldiarazten edo galarazten duena. *ES:* Antiinflamatorio *FR:* Anti-hypertensive agent *EN:* Antiinflammatory agent *Oharrak:* Esteroidoak —kortisonatik eratorriak— edo ez-esteroideoak —aspirina, ibuprofenoa eta abar— izan daitezke hanturaren kontrako gaiak. *Arloa:* Med.
- Hanturazko:** 1. izlag. Hantura eragiten duena. 2. izlag. Hantura bati dagokiona, edo haren itxura duena. *ES:* Inflamatorio *FR:* Inflammatoire *EN:* Inflammatory *Arloa:* Med.
- Haploide:** iz. Kromosoma-hornikuntza sinplea duen organismoa; kromosoma ez-homologoaren talde bakarra du. Kopuru haploidea 23 kromosomakoa da gizakian. *ES:* Haploide *FR:* Haploïde *EN:* Haploid
- Haragi multzo:** iz. Ikus 'haragigune'.
- Haragigune:** iz. Ez-ohiko goragune haragitsua. *ES:* Carnosidad *FR:* Excroissance de chair *EN:* Carnosity, flehiness
- Haragitsu:** 1. izond. Haragiaren antzekoa, edo haragiz osatua dagoena; haragi asko duena. 2. izond. Haragiaren ezaugarriak dituena. *ES:* Carnoso *EN:* Carneous
- Haragizko:** izlag. Ikus 'haragitsu'.
- Hari-formako:** izlag. Hari baten itxura duena, edo hari-itxura hartu arte luza daitekeena. *ES:* Filamentoso *FR:* Filamenteuse *EN:* Filamentous
- Hariizpi:** iz. Hari mehearen antzeko egitura malgu edo zurruna. Organismoko zelula gehienetan

- aurki daiteke, eta hainbat funtzio morfologiko eta fisiologiko ditu. *ES*: Filamento *FR*: Filament *EN*: Filament
- Hariizpi-formako**: izlag. Ikus 'hari-formako'.
- Harikara**: izond. Ikus 'filiforme'.
- Harrapatu**: ad. Gaixotasun baten mende geratu; aldarte edo sentsazio fisiko bat nozitzen hasi. *ES*: Contraer *Adibideak*: Hotzeria harrapatu.
- Harri**: iz. Gatz mineralen metaketaren ondorioz zelula-ehunetan eratzen den ohiz kanpoko konkrezioa. Batez ere giltzurrunetan, behazun-masurian eta gernu-aparatuan agertzen da. *ES*: Piedra, cálculo *FR*: Pierre, calcul *EN*: Stone, calculus *Arloa*: Med.
- Harro**: izond. Ikus 'arol'.
- Harrotasun**: iz. Ikus 'aroltasun'.
- Hartu**: ad. Ahotik gai bat barneratu. *ES*: Ingerir *FR*: Ingesta *EN*: To ingest
- Hartutako immuno-eskasiaren sindrome**: iz. Gaixotasun biriko kutsagarria; organismoaren immunitate-sistema suntsitzen du. Birusak T linfozitoak —globulu zuria— kutsatzen ditu; globulu horiek, orduan, organismoaren defentsak abiarazten dituzte, gorputzean agertu den gaizko adurari aurre egiteko. Birusaren transmisioa gorputzeko jariakinen —odola eta sexu-jariakina— batez ere— bidez gertatzen da; hau da, sexu-harremanen bidez edo kutsatutako odolarekin kontaktuan egotearen ondorioz, eskuarki. Hasierako sintomen artean daude: nekea, aldizkako sukarra, gauean izerditzea, hotzikarak, linfadenopatiak, esplenomegalia, anorexia, beherako akutua, apatia eta depresioa. Neoplasia gaiztoak izaten dituzte hiesaz kutsaturiko gehienek. Infekzio hori moteltzen duten sendagaiak aurkitu dira, baina ez aurkako txertorik. *ES*: Síndrome de inmunodeficiencia adquirida *FR*: Syndrome d'immunodéficience acquies *EN*: Acquired immunodeficiency syndrome *Obarrak*: Hiesaz kutsatzeko arriskua dute: hiesa dutenekin sexu-harremanak dituztenek, zain barnetik ziztatzeko xiringak partekatzen dituztenek, hiesa duten emakumeen umekiek, eta abar. *Arloa*: Med.
- Hartzaila**: iz. Ikus 'erzeptore'.
- Hartzidura**: iz. Konposatu organiko baten erreazioa edo deskonposizioa, hartzigarri batek eragina. Zenbait bizidunetan —legamietan bereziki— gertatzen den arnasketa anaerobio mota bat da. Bertan, gluzidoak deskonposatzen dira, eta beste konposatu sinpleago batzuk eta karbono dioxidoa ematen dituzte. *ES*: Fermentación *FR*: Fermentation *EN*: Fermentation *Obarrak*: Hartzidura oso garrantzitsua da ogia, ardoa eta beste hainbat produktu egiteko.
- Hartzigarri**: izond. (Gai bati buruz) Hartzidura eragiteko gaitasuna duena. Jatorri proteikoa du, eta hainbat erreakzio katalizatzen ditu. *ES*: Fermento *FR*: Ferment *EN*: Ferment
- Hartzitu**: ad. Gai batek hartzidura eragin. *ES*: Fermentar *FR*: Fermenter *EN*: To ferment
- Haserrekor**: izond. Erraz haserretzen dena. *ES*: Irritable *Arloa*: Psikol.
- Hasgorapen**: iz. Ikus 'arnasgora'.
- Hasikin**: iz. Ikus 'errudimentu'.
- Hats**: iz. Biriketarik kanporatzen den airea. *ES*: Hálito *FR*: Exhalaison *EN*: Halitus
- Hats-bahitze**: iz. Ikus 'asma'.
- Hats hartu**: ad. Ikus 'arnastu'.
- Hatz**: iz. Eskuaren bost luzakineteriko bakoitza. Hiru falangez osatuak daude guztiak, bat izan ezik: lehenengo hatzak —hatz lodiak— bi falange ditu. *ES*: Dedo *FR*: Doigt *EN*: Finger
- Hatz erakusle**: iz. Eskuko bigarren hatza. *ES*: Dedo índice *FR*: Index *EN*: Forefinger
- Hatz lodi**: iz. Eskuko lehen hatza, lodiena. *ES*: Pulgar *FR*: Pouce *EN*: Thumb *Arloa*: Anat.
- Hatz luze**: iz. Eskuko hirugarren hatza. *ES*: Dedo medio, dedo corazón *FR*: Médius *EN*: Middle finger
- Hatz nagia**: iz. Eskuko laugarren hatza. *ES*: Dedo anular *FR*: Annulaire *EN*: Annular
- Hatz txiki**: iz. Eskuko bosgarren hatza. *ES*: Meñique *FR*: Petit doigt, auriculaire *EN*: Little finger *Arloa*: Anat.
- Hatz-mami**: iz. Hatzen muturreko gunee haragitsua, azazkalaren kontrako aldean dagoena. *ES*: Yema *FR*: Bout du doigt *EN*: Finger tip
- Haur**: iz. Jaiotzatik nerabezarora bitarteko aroan dagoen pertsona. *ES*: Niño *FR*: Enfant *EN*: Child
- Haurdun**: izond. Bere barnean embrioa edo fetua daraman emakumea. *ES*: Embarazada, encinta *FR*: Gravide *EN*: Pregnant
- Haurdunaldi**: iz. Emakumearen sabelean gertatzen den gizabanako berri baten sorrera- eta garapen-prozesua. 38 aste irauten du gutxi gorabehera, azken hilekoaren lehen egunetik kontatzen hasita. Isuritako milioika espermatozoideetatik milakak lortzen dute emakumearen obulura iristea, Fallopioren tronpako kanpoko ertzean. Hala ere, oro har, espermatozoide bakarrak lortzen du obuluaren barruan nukleoraino iristea; hala, gizonaren eta emakumearen pronukleoak elkartu, eta ernalketa gertatzen da. *ES*: Embarazo, gestación *FR*: Grossesse *EN*: Pregnancy
- Haur-galtze**: iz. Ikus 'abortu'.
- Haurgintza**: iz. Ikus 'erditze'.
- Haurra galdu**: ad. Ikus 'abortatu'.
- Haurtzaro**: iz. Giza garapenaren aldia, jaiotzatik nerabezaroren hasiera arte irauten duena. *ES*: Infancia *FR*: Enfance *EN*: Childhood
- Hausketa**: iz. Ikus 'haustura'.
- Hauste**: iz. Ikus 'haustura'.

- Hautu:** ad. Gai solido bat eho edo txikitu, guztiz hauts bihurtu arte. *ES:* Porfirizar
- Hauztura:** iz. Hezur bateko lesio traumatikoa; hezur-ehunaren jarraitutasuna eteten da. Hauturak sailkatzeko, kontuan hartu behar dira lesioak erasandako hezurra, zauritutako hezurgunea, hauturaren jatorria, eta abar. *ES:* Fractura *FR:* Fracture *EN:* Fracture *Arloa:* Med.
- Hautatze:** iz. Hautespen-prozesua; populazio eta espezie bereko banakoen artean egiten da, eta ugalduko direnak hartzen dira, haiek baitira ondorengoei geneak emango dizkietenak. *ES:* Selección *FR:* Sélection *EN:* Selection *Oharrak:* Hautatze motak dira: artifiziala eta naturala. *Arloa:* Biol.
- Hautsi:** 1. ad. Gorputz-adar edo giltzadura baten hauztura gertatu. 2. ad. Zer baiten jarraitutasuna desegin edo eten. *ES:* Fracturar *FR:* Fracturer *EN:* To fracture, to break
- Haz-neke:** iz. Ikus 'desnutrizio'.
- Hazi-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'seminifero'.
- Hazi:** 1. ad. Handi edo handiago bihurtu. *ES:* Crecer *FR:* Croître, augmenter *EN:* To grow 2. ad. Mikroorganismo jakinen hazkuntza bideratu, ingurune egokitu batean. *ES:* Cultivar *Arloa:* Mikrob.
- Hazi:** iz. Ikus 'semen'.
- Hazi-jartze:** iz. Ikus 'intseminazio artifizial'.
- Hazizurri(ak):** iz. Ikus 'parotiditis'. *ES:* Paperas *FR:* Oreillons *EN:* Mumps
- Hazkunde:** iz. Ikus 'hazte'.
- Hazkuntza:** 1. iz. Laborategian mikroorganismoak edo ehunak hazteko prozesua. *ES:* Cultivo *FR:* Culture *EN:* Culture *Arloa:* Biol. 2. iz. Ikus 'hazte'.
- Hazte:** iz. Gorputzaren garapen fisiologiko, anatomiko, psikologiko, intelektual, sozial eta kultural mailakatu normala, haurtzarotik helduarora bitartean gertatzen dena. *ES:* Crecimiento *FR:* Croissance *EN:* Growth
- Hazteri:** iz. Gaixotasun kutsagarria, *Sarcoptes scabiei* akaroak eragina. Larrazaleko azkura, eta hazka egitearen ondoriozko lesioak ditu ezaugarri. *ES:* Sarna *FR:* Gale *EN:* Scab *Arloa:* Med.
- Hazteritsu:** izond. Hazteriak jo duena. *ES:* Sarnoso *EN:* Scabietic
- Hebaindu:** izond. Ikus 'zauritu'.
- Hebefrenia:** iz. Eskizofrenia mota; batik bat gazteengan agertzen da. Depresioa, ilusio zentzugabeak, gaitasun mentalen galera mailakatua eta moralaren lasaieria ditu ezaugarri. *ES:* Hebefrenia *FR:* Hébéphrénie *EN:* Hebephrenia *Arloa:* Psikiat.
- Hebefreniko:** izond. Hebefreniari dagokiona, edo hebefreniak jotakoa. *ES:* Hebefrénico *FR:* Hébéphrénique *EN:* Hebephrenic
- Hedapen:** iz. Ikus 'hedatze'.
- Hedatu:** ad. Hedadura handiagoa hartu edo eman. *ES:* Propagar *FR:* Propager *EN:* To propagate, to spread
- Hedatze:** 1. iz. Eskeletoaren hainbat giltzadurak ahalbidetzen duten mugimendua; elkarren ondoan dauden bi hezurren arteko angelua handitzen du. *ES:* Extensión *FR:* Extension *EN:* Extension 2. iz. Espezie baten iraupena, banakoen ugalketaren ondoriozkoa. 3. iz. Lesio edo gaixotasun baten hedadura areagotzea. *ES:* Propagación *FR:* Propagation *EN:* Propagation
- Hegal:** iz. Ikus 'albo'.
- Hegaleko:** izlag. Ikus 'saihetseko'.
- Heldu:** ad. Erabateko garapena lortu. *ES:* Madurar *FR:* Maturer *EN:* To mature
- Heldu:** izond. (Pertsonai buruz) Erabateko garapen fisiko, psikiko eta intelektualera iritsi dena. *ES:* Maduro *FR:* Mûr *EN:* Mature
- Helduleku:** iz. Tresna bati heltzeko gunea; metalezkoa izatea komeni da, aseptia-kontuengatik. *ES:* Mango *FR:* Manche *EN:* Handle
- Heldutasun:** iz. Izakiaren garapen biologikoa erabat osatu den garaia; organismoa ugaltzeko gai den aldiari dagokio. *ES:* Adulterez, madurez *FR:* Âge adulte *EN:* Adulthood
- Helio:** iz. He. Elementu kimiko gaseosoa; gas nobleen artean arinena, kologea eta usainik eta zaporerik gabea da. Oro har, ez da beste elementuekin konbinatzen. Helioren erabilera fisiologiko eta terapeutiko nagusiak arnasketari dagozkio: arnas terapia eta probak, narkosiaren prebentzioa, biriken hondar-edukieraren kalkulua, eta abar. Oso tenperatura baxuak lortzeko (kriogenia) eta globoak eta aerostatoak puzteko erabiltzen da. Beroaren eroale ona da. *ES:* Helio *FR:* Hélium *EN:* Helium *Arloa:* Kim.
- Helix:** iz. Tolesdura erdi zirkularra; belarri-pabiloiaren goi-alboko erza osatzen du. *ES:* Hélix *FR:* Hélix *EN:* Helix
- Heltari:** izond. Ikus 'sorosle'.
- Heltze:** 1. iz. Erabateko garapena lortzeko prozesua. Gizakietan, gaitasun fisiko, emozional eta intelektual guztiak lortzea da helburua. 2. iz. Hozizelulen eraketa meiotikoaren azken aldia; zelula bakoitzeko kromosoma kopuru diploidea murriztu egiten da, eta haploide bihurtu. *ES:* Maduración *FR:* Maturation *EN:* Maturation
- Hemati:** iz. Ikus 'eritrozito'. *ES:* Hematie *FR:* Hématie
- Hematokrito:** iz. Odolaren bolumen osoan, globulu gorrien batez besteko bolumena. *ES:* Hematocrito *FR:* Hématocrite *EN:* Hematocrit *Oharrak:* Hematokrito normala % 43-49 da gizonezkoetan, eta % 37-43 emakumezkoetan.

- Hematologia:** 1. iz. Medikuntzaren adarra; odolaren eta organo hematopoietikoen gaixotasunak aztertzen ditu. 2. iz. Biologiaren alorra; odol-azterketak (morfologiazkoak, fisiologiazkoak, genetikazkoak, kimikazkoak, eta abar) egiten ditu. *ES:* Hematología *FR:* Hématologie *EN:* Hematology
- Hematologo:** iz. Hematologian aditua. *ES:* Hematólogo *FR:* Hématologue *EN:* Hematologist
- Hematoma:** iz. Organo batean edo larruazaleko ehunetan pilatutako odol gainezkatua, odol-hodi bat hautsi edota odol-diskrasiaren baten ondorioz gertatua. Traumatismo batek edo kirurgia ondorengo hemostasia ez-oso batek eragin dezake. *ES:* Hematoma *FR:* Hématome *EN:* Hematoma
- Hematopoiesi:** iz. Globulu gorrien eraketa eta garapen normala, hezur-muinean. *ES:* Hematopoyesis *FR:* Hématopoïèse *EN:* Hematopoiesis *Obarrak:* Anemia bortitzean eta beste asaldu hematologiko batzuetan, hezur-muinaz kanpoko beste organo batzuetan sor daitezke zelula horiek. *Arloa:* Biol.
- Hematopoietiko:** izond. Odol-zelulen eraketaren eta garapenaren prozesuarekin erlazionatua dagoena. Hezur-muina, gongoil linfatikoak eta barea dira organo hematopoietiko nagusiak. *ES:* Hematopoyético *FR:* Hématopoiétique *EN:* Hematopoietic *Arloa:* Biol.
- Hematosi:** iz. Odolaren arterializazio edo aireztapena; biriketan gertatzen da, eta osmosi bidezko gas-trukea da, odolaren eta hartutako airearen artekoa. Odolak karbono dioxidoa utzi eta oxigenoa hartzen du biriketarik. *ES:* Hematosis *FR:* Hematopoesis *EN:* Aeration *Arloa:* Biol.
- Hematuria:** iz. Odolaren ohiz kanpoko presentzia, gernuan. Giltzurrunen, gernu-aparatuaren eta inguruko organoen eritasun baten ondorioz gertatzen da. *ES:* Hematuria *FR:* Hématurie *EN:* Hematuria *Arloa:* Med.
- Hemiplegia:** iz. Gorputzaren bi erdietako baten paralisia, eskuarki aurkako hemisferioko lesio batek eragina. Nahitazeko mugimenduguneetan gertatutako gaitzen ondorioz sortzen da: burmuineko odoljarioak, burmuineko arteriako tronbosia edo enbolia, eta abar. *ES:* Hemiplejía *FR:* Hémiplégie *EN:* Hemiplegia *Arloa:* Med.
- Hemiplejikiko:** izond. Hemiplegiari dagokiona, edo hemiplegiak joa. *ES:* Hemipléjico *FR:* Hémiplégique *EN:* Hemiplegic
- Hemisferio:** iz. Garunaren edo garuntxoaren bi erdietako bakoitza. *ES:* Hemisferio *FR:* Hémisphère *EN:* Hemisphere *Arloa:* Anat.
- Hemodialisi:** iz. Giltzurrunez kanpoko arazketa-prozedura, odoleko gehiegizko ura eta hondakin-gaiak kanporatzeko. Gaixoaren odola makina batetik pasatzen da, eta zirkulaziora itzultzen zaio. Giltzurrun-gutxiegitasunean eta hainbat prozesu toxikoren tratamenduan erabiltzen da. *ES:* Hemodiálisis *FR:* Hémodialyse *EN:* Hemodialysis *Arloa:* Med.
- Hemofilia:** iz. Hemostasiaren herentziako asaldua; odola oso geldiro gatzatzea du ezaugarri. Odolean gatzatze-faktore (*antihemofilikoa* edo *VIII. faktorea*) baten falta da eragilea. X sexukromosomari lotutako forma azpirakorren bidez transmititzen da, eta gizonzkoek bakarrik jasaten dute. *ES:* Hemofilia *FR:* Hémophilie *EN:* Hemophilia *Arloa:* Med.
- Hemofiliaren kontrako:** izlag. (Gai bati buruz) Odola gatzatzeko eragina duena; VIII. faktoreak egiten du hori, eta urri izaten dute hemofiliokoe. *ES:* Antihemofílica (Globulina, AHG) *FR:* Agent antihémophilique *EN:* Antihemophilic agent *Arloa:* Med.
- Hemofiliko:** izond. Hemofiliari dagokiona, edo hemofiliak joa. *ES:* Hemofilico *EN:* Haemophilic, haemophilic
- Hemoglobina:** iz. Kolore gorriko heteroproteina; hematietan aurki daitezke, eta biriketarik chunetara oxigenoa garraiatzea eta zeluletatik biriketara karbono dioxidoa garraiatzea dira haren funtzioak. Eritrozito bakoitzak 200-300 hemoglobina inguru ditu, eta hemoglobina molekula bakoitzak hemo molekula ugari ditu. Hemo molekula bakoitzak oxigeno molekula bat garraia dezake. Hemoglobina molekula batek globinazko lau kate polipeptidiko ditu: alfa (a), beta (b), gamma (g) eta delta (d). *ES:* Hemoglobina *FR:* Hémoglobine *EN:* Hemoglobin *Arloa:* Biokim.
- Hemopatia:** iz. Odoleko eta organo hematopoietikoetako gaixotasunen izen generikoa. *ES:* Hemopatia *FR:* Hémopathie *EN:* Hemopathy *Arloa:* Med.
- Hemopoiesi:** iz. Odoleko zelulen eraketa. Hil edo zahartu adina eritrozito, leukozito eta plaketa sortzen dira. *ES:* Hemopoyesis *FR:* Hémopoïèse *EN:* Hemopoiesis *Obarrak:* Hezur-muin gorrian, globulu gorriez gain leukozitoak eta plaketak sortzen dira; gongoil linfatikoetan eta baraan, beriz, linfozitoak eta monozitoak. *Arloa:* Biol.
- Hemorragia:** iz. Ikus 'odoljario'.
- Hemorragiko:** izond. Hemorragiari dagokiona. *ES:* Hemorrágico *FR:* Hémorragique *EN:* Hemorrhagic
- Hemorroide:** iz. Uzkiaren kanpoaldeko edo heste lodiaren muturreko zainetan eratzen den barizea. Barnekoak edo kanpokoak izan daitezke, eta mina, erredura, azkura eta odoljariora dituzte ezaugarri. Hemorroideen eragileak dira, besteak beste: idorreria, denbora luzean eserita egotea, jan-edan handiak egitea, hipertentsioa, uzkiro

- esfinterraren atonia, eta abar. *ES:* Hemorroide, almorrana *FR:* Hémorroïde *EN:* Hemorrhoid
- Hemorroideen kontrako:** izlag. (Gai bati buruz) Hemorroideen kontra eragiten duena. *ES:* Anti-hemorroïdal *FR:* Agent anti-hémorroïdal *EN:* Anti-hemorrhoidal agent *Arloa:* Med.
- Hemostasia:** iz. Odoljario bat gerarazteko, abian jartzen diren mekanismo fisiologikoen multzoa. Hiru faktorek eragiten dute: mindutako guneko hodi-uzkurdurak, plaketen atxikidurak eta agregazioak, eta odolaren gatzapenak. *ES:* Hemostasia, hemostasis *FR:* Hémostase *EN:* Hemostasis
- Hepatiko:** izond. Gibelari dagokiona. *ES:* Hepático *FR:* Hépatique *EN:* Hepatic
- Hepatitis:** iz. Gibelaren hantura. Hepatitisaren ezaugarri dira: ikterizia, hepatomegalia, anorexia, sabelaldeko eta urdaileko ondoeza, gibelaren ez-ohiko funtzioa, pigmentua galduriko gorozkiak eta gernua iluntzea. Hepatitis larria garatzeak zirrosia eta gibekeko disfuntzio kronikoa eragin ditzake, eta, ondorioz, heriotza. *ES:* Hepatitis *FR:* Hépatite *EN:* Hepatitis *Arloa:* Med.
- Hepatologia:** iz. Medikuntzaren adarra; gibelaz eta hari erasaten dioten gaixotasunaz arduratzen da. *ES:* Hepatología *FR:* Hépatologie *EN:* Hepatology *Arloa:* Med.
- Heptano:** iz. Hidrokarburo ase; likido kolorega, petrolioaren destilaziotik lortzen dena. Disolbatzaile gisa erabiltzeaz gain, eragin anestesikoa ere badu. *ES:* Heptano *FR:* Heptano *EN:* Heptano
- Herbal:** izond. Ikus 'paralitikoa'.
- Herbaldu:** ad. Ikus 'elbarritu'.
- Heredagarri:** izond. Hereda daitekeena; heredatzen dena. *ES:* Heredable *FR:* Héritable *EN:* Inheritable
- Heredatu:** ad. Izaki bizidunek beren gurasoen ezaugarri fisikoak eta psikologikoak jaso. *ES:* Heredar *FR:* Hériter *EN:* To inherit
- Hereditario:** izond. Ikus 'herentziako'.
- Herentzia:** iz. Belaunaldi batek ondorengoari ezaugarri genetiko normalak zein patologikoak igaroraztearen ondorioa. *ES:* Herencia *FR:* Hérité *EN:* Inheritance
- Herentziako:** izlag. Gurasoek ondorengoei igarorazitako ezaugarri, asaldu edo gaixotasunei dagokiena. *ES:* Hereditario *FR:* Héritable *EN:* Hereditary
- Heriotza:** iz. Biziazen erabateko etena; bihotz-taupadarik eta arnasketarik eza ditu ezaugarri. *ES:* Muerte, falcimiento, expiración *FR:* Mort *EN:* Death
- Heriotza multzo:** iz. Batez ere izurriteek, gerrateek eta hondamendiek eragindako heriotza kopurua. *ES:* Mortandad *FR:* Mortalité *EN:* Death toll
- Heriotza-tasa:** iz. Lurrealde batean denbora-tarte jakin batean gertatzen den heriotza kopurua; mila-
- kotan ematen da. *ES:* Tasa de mortalidad *FR:* Taux de mortalité *EN:* Death rate, mortality rate
- Heriotzaurreak:** izlag. Ikus 'terminal'.
- Hermafrodisimo:** iz. Gameto arrak eta emeak batera dituen bizidunaren sexu mota; gizakietan ez da maiz agertzen. Gizaki hermafroditek barrabil-ehuna eta obulutegi-ehuna izaten dituzte. Barrabil-ehunean, semen-tutuak edo espermatozoidak daude; obulutegi-ehunean, berriz, folikuluak eta gorputz luteoak. *ES:* Hermafrodisimo *FR:* Hermaphrodisme *EN:* Hermaphroditism *Arloa:* Biol.
- Hermafrodita:** izond. Bere gonadetan barrabil-ehuna eta obulutegi-ehuna dituena; gameto arrak zein emeak ekoizteko gai da. *ES:* Hermafrodita *FR:* Hermaphrodite *EN:* Hermaphrodite *Arloa:* Biol.
- Hermafroditiko:** izond. Ikus 'hermafrodita'. *ES:* Hermafroditico
- Hernia:** iz. Prozesu patologikoa; organo bat —edo haren atalen bat— kanpora ateratzen da inguratzen duen gihar-hormako ez-ohiko zulo batetik. *ES:* Hernia *FR:* Hernie *EN:* Hernia *Arloa:* Med.
- Heroína:** iz. Morfinaren eter diazetikoa; drogaikoa da. Zapore mingotseko hauts zuria da, oso toxikoa, eta morfinak baino mendekotasun handiagoa eragiten du. Sudurretik har daiteke hauts eran, edo odol-zainetik ziztatu urarekin nahastuta. *ES:* Heroína *FR:* Héroïne *EN:* Heroin
- Heroinazale:** izond. Heroinaren mende dagoena. *ES:* Heroínmano *FR:* Héroïnmane *EN:* Heroin addict
- Heroinazaletasun:** iz. Ikus 'heroinomania'.
- Heroinomania:** 1. iz. Heroinarekiko mendekotasuna. 2. iz. Heroinak eragindako intoxikazioa. *ES:* Heroïnomanía *FR:* Héroïnomanie *EN:* Heroin addiction
- Herpes:** iz. Gaixotasun akutua, birus batek eragina; larruazalari zein mukosei erasaten die. Herpesaren ezaugarri nagusi dira gorputzeko irekiguneen inguruan sortzen diren pikor txikiak. Sukarra, hesteetako gorabeherak, nekea, eta abar eragiten ditu. Hiru herpes mota nagusi bereizten dira: sinplea (sinplea 1), ugale-organoeetakoa (sinplea 2) eta herpes zoster-a. *ES:* Herpes *FR:* Herpés *EN:* Herpes simplex *Arloa:* Med.
- Herra:** iz. Zerbaiti edo norbaiti zaion ezinikusia, nazka edo higuina. *ES:* Aversión *FR:* Aversion *EN:* Aversion
- Herren:** izond. Zango nahiz oin bat falta duena, edo akatsen baten ondorioz gorputza alde batera bestera baino gehiago okertuz ibiltzen dena. *ES:* Cojo *FR:* Boiteux, euse *EN:* Lame, crippled
- Herren egin:** ad. Gorputza alde batera bestera baino gehiago okertuz ibili. *ES:* Cojear *FR:* Boïter, clocher *EN:* To limp, to hobble



**Herreneri:** iz. Herrentasuna eragiten duen gaixotasuna; herrena denaren gaitza. *ES:* Renquera

**Herrenka ibili:** ad. Ikus 'herren egin'.

**Herrentasun:** iz. Elbarritasuna, batez ere oineko edo zangoko lesio baten ondoriozkoa. Bizkarreko hainbat arazorekin ere harremana izan dezake. *ES:* Cojera *FR:* Boiterie *EN:* Lameness

**Herstura:** iz. Izu-, estutasun- eta beldur-sentsazioa, etorkizuneko, barneko edo zehaztu gabeko arrisku baten aurrean. *ES:* Ansiedad *FR:* Angoisse *EN:* Anxiety *Oharrak:* Angustiaren osagai psikologikotzat jotzen da. *Arloa:* Psikol.

**Hertsadura:** iz. Gorputzeko zulo edo hodi bat ez-ohiko eran estutzearen ondorioa; esate baterako, odol-hodien uzkurtzea edo basokonstriktzioa. *ES:* Constricción *FR:* Constriction *EN:* Constriction *Arloa:* Med.

**Hertsaketa:** iz. Ikus 'hertsadura'.

**Hertsatu:** 1. ad. Itxi eta estutu, zanpatuz. *ES:* Constricter *FR:* Resserrer *EN:* To constrict *Arloa:* Med. 2. ad. Ikus 'konprimitu'.

**Hertsatze:** iz. Ikus 'hertsadura'.

**Hertsatzaile:** 1. iz. Hainbat zuloren kanalak zirkular-ki ixteko funtzioa duen giharra. 2. iz. Konpresioa egiteko erabiltzen den tresna. 3. izond. (Sendagaiei buruz) Uzkurdura eragiten duena. *ES:* Constrictor *FR:* Constrictor *EN:* Constrictor *Arloa:* Med.

**Hertu:** ad. Gorputzeko atal baten hantura txikitu edo desagertu. *ES:* Deshinchar, desconar

**Heste(eta)ko:** izlag. Hesteetan dagoena, edo hestei dagokiena. *ES:* Intestinal *FR:* Intestinal *EN:* Intestinal

**Heste-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'heste(eta)ko'.

**Heste:** iz. Digestio-hodiaren zatia; urdaileko pilorotik uzkiraino doa. Heste lodiak eta heste meharrak osatzen dute. *ES:* Intestino *FR:* Intestin *EN:* Intestine *Arloa:* Anat.

**Heste itsu:** iz. Heste lodiaren lehen zatia eratzen duen zaku sakona. Heste meharrako ileonari lotua dago. *ES:* Intestino ciego *FR:* Cecum *EN:* Cecum *Arloa:* Anat.

**Heste lodi:** iz. Digestio-hodiaren zatietariko bat; hura eratzen duten atalak dira: heste itsua, apendizea, goranzko kolona, zeharkako kolona, behe-ranzko kolona eta ondostea. Digestio-hondakinak deshidratatu eta gorotz bihurtzen ditu. *ES:* Intestino grueso *FR:* Gros intestin *EN:* Large intestine *Arloa:* Anat.

**Heste mehar:** iz. Digestio-hodiko zatirik luzeena; 7 metro inguru ditu. Barne-azala muki-mintz glandular konplexu batez estalia du. Pilorotik heste itsuraino doa, eta hiru zati ditu: duodenoa, jejunoa eta ileona. Heste meharran egiten dira elikagaien hartxidura- eta xurgapen-prozesuak. *ES:* Intestino delgado *FR:* Intestin grêle *EN:* Small intestine *Arloa:* Anat.

**Heste-aringarri:** izond. Ikus 'laxante'.

**Heste-bilo:** iz. Heste meharraren barnealdeko azalera guztian zehar pilatutako luzakin txiki eta ugarietako bakoitza. Likidoak eta elikagaiak barreiatzen eta garraiatzen dituzte heste-biloek. Gantzak eta digestio-gaiak xurgatzea dute funtzioa. *ES:* Velloosidad intestinal *FR:* Villosité intestinale *EN:* Intestinal villi

**Heste-flora:** iz. Hesteetako bakterio multzoa; digestiorako lagungarria da. Garrantzi handikoa da belarjaleentzat, zelulosa desegin dezakeen bakarra baita. *ES:* Flora intestinal *FR:* Flore intestinale *EN:* Intestinal flora

**Hestegorri:** iz. Gihar-mintzeko hodia, 24-28 cm ingurukoa; faringetik urdaileraino doa. Digestio-hodiko zatirik estuena da, eta diafragma zeharkatzen duen puntua du gunerik estuena. *ES:* Esófago *FR:* Oesophage *EN:* Esophagus *Arloa:* Anat.

**Hestegorriko:** izlag. Hestegorriari dagokiona. *ES:* Esofágico *FR:* Oesophagienne *EN:* Oesophageal *Arloa:* Anat.

**Heste-hari:** iz. Hodi naturalak zabaltzeko edo artifizialak mantentzeko erabiltzen den haria. *ES:* Bordón

**Heste-min:** iz. Ikus 'sabeleko min'.

**Heste-sobre:** iz. Zizare-itxurako luzakina. Heste itsuaren behealdean dago, eta luzera aldakorra du (7-15 cm). *ES:* Apéndice cecal, apéndice vermiforme, apéndice ileocecal *FR:* Appendice vermiculaire *EN:* Vermiform appendix *Arloa:* Anat.

**Heste-zizare:** iz. Helminto biribildu handien generoa; esate baterako, gizakiaren heste meharran bizi den *Ascaris lumbricoides* bizkarroia. Askariaisia eragiten du, klima tropikal epela duten lurraldeetan batez ere. *ES:* Lombriz intestinal *FR:* Ver intestinal *EN:* Intestinal worm

**Heterogametiko:** izond. Bi gameto mota sortzen dituen; X eta Y kromosoma sexualak dituena. *ES:* Heterogamético *FR:* Hétérogamétique *Oharrak:* XY kromosomez eraturik dago gizonezkoen sexua; hots, heterogametikoa da. *Arloa:* Biol.

**Heterogamia:** 1. iz. Gameto desberdinak elkartuz gertatzen den ugalketa sexuala. Neurrian eta egituran izaten da, batez ere, gametoen arteko desberdintasuna. 2. iz. Belaunaldi sexual eta sexugabekoen txandakako ugalketa. *ES:* Heterogamia *FR:* Hétérogamie *EN:* Heterogamy *Arloa:* Biol.

**Heterokromosoma:** iz. Sexu-kromosoma; ezaugarri sexualak kudeatzen dituzten bi kromosometako bakoitza da (emakumezkoan XX, gizonezkoan XY). *ES:* Heterocromosoma *FR:* Hétérochromosome *EN:* Heterochromosome *Arloa:* Biol.

**Heteromorfismo:** iz. Ikus 'polimorfismo'. *ES:* Heteromorfismo



- Heterosexual:** izond. Beste sexukoenganako sexu-grina duena. *ES:* Heterosexual *FR:* Hétérosexuel *EN:* Heterosexual
- Heterosexualitate:** iz. Beste sexukoekiko sexu-erakarpena. *ES:* Heterosexualidad *FR:* Hétérosexualité *EN:* Heterosexuality
- Heterosi:** iz. Hibrido baten lehen belaunaldia aurrekoen edozein andui baino indartsuagoa den egoera. *ES:* Heterosis *FR:* Hétérosis *EN:* Heterosis *Arloa:* Biol.
- Heterozigosi:** iz. Zigoto baten eraketa; gene pare desberdina duten bi gameto elkartzeagatik gertatzen da. *ES:* Heterocigosis *FR:* Hétérozygosité *EN:* Heterozygosis *Arloa:* Biol.
- Heterozigoto:** iz. Karaktere jakin baterako, kromosometan bi alelo desberdin dituen organismoa. *ES:* Heterocigoto *FR:* Hétérozygote *EN:* Heterozygote *Arloa:* Biol.
- Hetika:** iz. Tuberkulosia. Eritasun kutsagarria da, Koch-en baziloak eragina. Biriketan (ezagunena) edo gorputzaren beste alderdi batzuetan eratzten diren pikor antzeko batzuk dira hetikaren ezugarri nagusiak. *ES:* Hética *Arloa:* Med.
- Hetiko:** 1. izond. Hetika duena. 2. izond. Tisikoa, argala. *ES:* Hético *Arloa:* Med.
- Hexosa:** iz. Sei karbono atomo dituen gluzidoa. Aldehidozkoak *aldohexosak* dira; zetonazkoak, berriz, *zetohexosak*. *Monosakarido* ere esaten zaie. *ES:* Hexosa *FR:* Hexose *EN:* Hexose *Adibideak:* Glukosa, galaktosa, fruktosa eta abar. *Arloa:* Biol.
- Hezueri (oinetakoa):** iz. Asaldu metabolikoa; organismoan azido uriko gehiegi pilatzearen ondoriozkoa izan ohi da. Hantura mingarriak eragiten ditu, bereziki oineko behatz lodian. *ES:* Podagra, gota *FR:* Podagre *EN:* Podagra *Arloa:* Med.
- Hezur-:** (Hitz elkartuetan) Hezurriari dagokiona, edo hezurrez osatua dagoena. *ES:* Óseo *FR:* Osseuse *EN:* Osseous
- Hezur:** iz. Ornodunen eskeletoa osatzen duten 206 elementuetako bakoitza. Giharren euskarri izatea, hainbat organo zein errai babestea eta mineralak metatzea dira hezurren funtzioak. Hezur luzeek hezur-muin horia eta hezur-muin gorria izaten dituzte; hematiak ekoizten dira hezur-muin gorrian. *ES:* Hueso *FR:* Os *EN:* Bone
- Hezur frontal:** iz. Garezurraren goialdean eta aurrealdean dagoen hezur bakoitia. Betzuloen gainaldetik hezur parietalen loturaraino hedatzen da. *ES:* Hueso frontal *FR:* Os frontal *EN:* Frontal bone *Arloa:* Anat.
- Hezur lakrimal:** iz. Ikus 'malko-hezur'.
- Hezur malar:** iz. Masailaren goragunea; betzuloa eta hobi tenporala eta infratenporala osatzen dituzten bi hezurretako bakoitza da. *ES:* Hueso malar *FR:* Os malaire *EN:* Malar bone
- Hezur palatino:** iz. Garezurreko hezur bikoitia; ahosabai gogorraren atzeko alde eratzten du, eta sudur-barrunbearen eta betzuloaren oinaren parte da. Bi zati edo segmentuz osaturiko hezurra da (bertikala bata eta horizontala bestea, angelu zuzenean lotuak). *ES:* Hueso palatino *FR:* Os palatin *EN:* Palatine bone *Arloa:* Anat.
- Hezur parietal:** iz. Garezurraren goiko eta alboko aldeak eratzten dituen hezur bikoitia, hezur frontalaren eta hezur okzipitalaren artekoa. *ES:* Hueso parietal *FR:* Os pariétal *EN:* Parietal bone *Arloa:* Anat.
- Hezur piramidal:** iz. Karpoko lehen lerroko hirugarren hezurra, triangelu-itxurakoa; eskumuturreko kubitoaren aldean dago. *ES:* Hueso piramidal
- Hezur sakro:** iz. Triangelu-itxurako hezur handia; pelbisaren atzeko aldean dago. Ziri moduan txertatzen da bi aldaka-hezurren artean. Sakroaren oinarria azken gerri-ornoarekin giltzatzen da; beheko erpina, berriz, kokzixarekin. *ES:* Hueso sacro *FR:* Os sacrum *EN:* Sacral bone *Arloa:* Anat.
- Hezur semilunar:** iz. Karpoko lehen ilarako bigarren hezurra. *ES:* Hueso semilunar *FR:* Semi-lunaire *EN:* Semilunar *Arloa:* Anat.
- Hezur tenporal:** iz. Garezurraren bi alboetako hezur konposatu irregularra. *ES:* Hueso temporal *FR:* Os temporal *EN:* Temporal bone *Oharrak:* Belarriarekin loturiko hainbat barrunbe ditu; esate baterako, barrunbe tinpanikoa eta Eustakioaren tronpa. *Arloa:* Anat.
- Hezur zigomatiko:** iz. Ikus 'hezur malar'. *ES:* Hueso cigomático
- Hezurdura:** iz. Egitura-euskarria, hezurrez osatua. Hainbat zatitan banatua dago: eskeleto axiala, 74 hezurrez osatua; eskeleto apendikularra, 126 hezur dituena, eta belarriko 6 hezurtxoak. Embrioiaren mesodermotik garatua da hezurdura, eta lau hezur motak osatzen dute: hezur luzeek, hezur motzek, hezur zapalek eta hezur irregularrak. Eskeletoaren funtzioak dira: egitura hauskorrek babestea, giharrek txertatzea, gorputzaren mugimendua ahalbidetzea, odol-gordailu izatea eta hematiak ekoiztea. *ES:* Esqueleto *FR:* Squelette *EN:* Skeleton *Arloa:* Anat.
- Hezur-muin:** iz. Hezurren barrunbeak betetzen dituen ehun bigun espezializatua. Ehun hemopoietikoz osatua dago, eta funtsezkoa da odol-zelulen sintesirako eta garapenerako. *ES:* Médula ósea *FR:* Bone marrow *EN:* Moelle osseuse
- Hezurra atera:** ad. Hezurra bere tokitik mugitu. *ES:* Descoyuntar
- Hezurrak sendatu:** ad. Hautsita edo lokatuta dauden hezurrak beren onera itzularazi. *ES:* Ensalmar
- Hezurrezko ahosabai:** iz. Ikus 'ahosabai gogor'. *ES:* Paladar óseo

**Hezurtu:** ad. Ikus 'osifikatu'.

**Hezurtze:** iz. Ikus 'osifikazio'.

**Hialino:** izond. Beira-itxurakoa, edo ia gardena dena. *ES:* Hialino *FR:* Hyaline *EN:* Hyaline

**Hiatu:** iz. Mintz bateko edo gorputzeko beste ehun bateko zulo normala. Hainbat egitura igaro daitezke handik. *ES:* Hiato *FR:* Hiatus *EN:* Hiatus *Arloa:* Anat.

**Hibridatu:** ad. Hibridoak sortu; bi espezie gurutzatu. *ES:* Hibridar *FR:* Hybrider *EN:* To hybridize

**Hibridazio:** iz. Hibridoen sorrera; bi arraza edo espezie elkartzu egiten da. *ES:* Hibridación *FR:* Hybridation *EN:* Hybridization *Arloa:* Biol.

**Hibridismo:** iz. Hibridoa denaren ezaugarria edo egoera. *ES:* Hibridismo *FR:* Hybridisme *EN:* Hybridism *Arloa:* Biol.

**Hibrido:** izond. (Izaki bati buruz) Bi espezie edo espezie bereko bi barietate gurutzatuz sortu dena. *ES:* Hibrido *FR:* Hybride *EN:* Hybrid *Arloa:* Biol.

**Hidatide:** iz. Kistea, edo kiste-itxurako egitura. Oro har, likidoz beterik egoten da. *ES:* Hidátide *FR:* Hydatide *EN:* Hydatid *Arloa:* Med.

**Hidatidiko:** izond. Hidatidearena, edo hari dago-kiona; hidatideak dituena. *ES:* Hidatídico *Arloa:* Med.

**Hidrargirismo:** iz. Merkurioak eragindako intoxikazioa. Akutua edo kronikoa izan daiteke. Hidrargirismo kronikoaren eragile dira merkurio-konposatuen lurruna edo hautsak ohiki arnastea, edo merkurio kantitate txikien irenste errepikatua. Haren ezaugarrien artean daude: narritagarritasuna, gehiegizko listu-jarioa, hortzen sendotasunaren galera, hortz-oien asalduak, dardarak, eta abar. Hidrargirismo akutuaren sintoma nagusiak dira: ahoko metal-zaporea, egarria, goragaleak, okadak, sabelaldeko min zorrotza, beheko odoltsua eta giltzurrun-gutxiegitasuna. Heriotza eragin dezake. *ES:* Hidrargirismo *FR:* Hydrargyrisme *EN:* Hydrargyrisism *Arloa:* Med.

**Hidrargirismoak joa gertatu:** ad. Merkurio-lurruna arnastuta gaixotu. Etengabeko dardara da sintomarik ikusgarriena. *ES:* Azogar *EN:* To suffer from mercurialism *Arloa:* Med.

**Hidrargirosi:** iz. Ikus 'hidrargirismo'.

**Hidartrosi:** iz. Serositate-metaketa, giltzadura baten barrunbean. *ES:* Hidartrosis *FR:* Hydrarthrose *EN:* Hydrarthrosis *Arloa:* Med.

**Hidratatu:** ad. Organismoa urez hornitu. *ES:* Hidratar *FR:* Hydrater *EN:* To hydrate *Arloa:* Kim.

**Hidratazio:** iz. Prozesu kimikoa; ura gehitzen da, jatorrizko molekula hautsi gabe. *ES:* Hidratación *FR:* Hydratation *EN:* Hydration *Arloa:* Kim.

**Hidrato:** iz. Ur molekula jakin bat duen konposatua. *ES:* Hidrato *FR:* Hydrate *EN:* Hydrate *Arloa:* Kim.

**Hidrodinamika:** iz. Mekanikaren adarra; mugimenduan dauden likidoak eta haiek gobernatzen dituzten legeak aztertzen ditu. *ES:* Hidrodinámica *FR:* Hydrodynamique *EN:* Hydrodynamic *Arloa:* Fis.-Kim.

**Hidrofilo:** 1. izond. Hezetasuna erraz xurgatzen duena. 2. izond. (Molekula taldeei buruz) Urarekiko afinitatea duena. 3. izond. (Edozein izakiri buruz) Hezetasunean bizi dena. *ES:* Hidrófilo *FR:* Hydrophile *EN:* Hydrophilic *Arloa:* Kim., Biol.

**Hidrofobia:** iz. Urari beldurra, neurritz gain. *ES:* Hidrofobia *FR:* Hydrophobie *EN:* Hydrophobia *Arloa:* Med.-Kim.

**Hidrofobo:** izond. (Molekula taldeei buruz) Urarekiko afinitaterik ez duena. *ES:* Hidrófobo *FR:* Hydrophobe *EN:* Hydrophobic *Arloa:* Kim.

**Hidrogenazio:** iz. Erreakzio kimikoa; konposatu organiko baten molekulari hidrogeno atomoak gehitzen zaizkio. *ES:* Hidrogenación *FR:* Hydrogénation *EN:* Hydrogenation *Arloa:* Kim.

**Hidrogeno:** iz. H. Elementu kimiko gaseosoa, usainik eta kolorerik gabea. Gas sukoia da, eta protoi batez eta elektroi batez osatua dago haren atomoa. Hidrogenoaren ioia azidoen elementu aktiboa da. Elementu guztietan arinena eta sinpleena da. Era puruan, oso kantitate txikitik aurki daiteke lurrian eta atmosferan, baina oso ugaria da eguzkian eta beste izar askotan. Konposatu askoren osagaia da; gorputzak berak sortzen ditu horietariko asko. Uraren osagai gisa, ezinbestekoa da gorputz barneko azidoen, baseen eta gatzen arteko eragin-trukean; ezinbestekoa da orobat bizirik irauteko behar den oreka hidrikoa lortzeko. *ES:* Hidrógeno *FR:* Hydrogène *EN:* Hydrogen *Arloa:* Kim.

**Hidrogeno-bomba:** iz. Bomba termonuklearra; hidrogenoaren isotopoen nukleoak fusionatzean edo bateratzean askatzen da haren energia. *ES:* Bomba de hidrógeno *FR:* Bombe à hydrogène *EN:* Hydrogen bomb

**Hidrokarburo:** iz. Karbonoz eta hidrogenoz soilik osaturiko konposatu organikoetariko bakoitza. Karburante, erregai eta olio gisa erabiltzen dira, besteak beste. *ES:* Hidrokarburo *FR:* Hydrocarbure *EN:* Hydrocarbon *Arloa:* Kim.

**Hidrokarburo aromatikoa:** iz. Konposatu organikoa; bentzeno-eratzun bat du, kate irekiko konposatu alifatikoetatik bereizteko. *ES:* Hidrokarburo aromático *FR:* Hydrocarbure aromatique *EN:* Aromatic hydrocarbon *Arloa:* Kim.

**Hidrolisi:** iz. Ura duen konposatu batek jasandako aldaketa edo deskonposizioa; sinpleago bihurtzen

- du hidrolisiak. *ES:* Hidrólisis *FR:* Hydrolyse *EN:* Hydrolysis *Arloa:* Kim.
- Hidrolizatu:** ad. Hidrolisia eragin; ura gehituz, gai baten osagaien banaketa eragin. *ES:* Hidrolizar *FR:* Hydrolyser *EN:* To hydrolyze *Arloa:* Kim.
- Hidropesia:** iz. Likido argi urtsuaren ez-ohiko pilaketa, gorputzeko ehun nahiz barrunbe batean; esate baterako, giltzadura batean, sabelaldean, erdiko belarrian, behazun-xixkuan, eta abar. *ES:* Hidropesía *FR:* Hydropisie *EN:* Hydrops *Arloa:* Med.
- Hidropiko:** izond. Hidropesiari dagokiona, edo hidropesiak jota dagoena. *ES:* Hídrico *FR:* Hydropique *EN:* Dropsical, dropsied *Arloa:* Med.
- Hidrosoluble:** izond. Uretan disolba daitekeena. *ES:* Hidrosoluble *EN:* Soluble in water *Adibideak:* Hidrosolubleak dira B, C eta P bitaminak. *Arloa:* Kim.
- Hidroterapia:** iz. Uraren bidezko terapia, hainbat gaixotasun eta asalduren tratamendurako. Uraren ezaugarri fisikoez eta kimikoez baliatzean datza. *ES:* Hidroterapia *FR:* Hydrothérapie *EN:* Hydrotherapy *Arloa:* Med.
- Hidroxilo:** iz. Erradikal monobalente negatiboa (-OH), oxigeno atomo batez eta hidrogeno atomo batez osatua. Alkoholen eta hidroxidoen ezaugarri da, eta azido organikoetan ere agertzen da. Erreakzio kimikoetan, atomo bakar bat balitz bezala jokatzen du. *ES:* Hidroxilo *FR:* Hydroxylé *EN:* Hydric *Arloa:* Kim.
- Hidrocefalia:** iz. Likido zefalorakideoaren ez-ohiko pilaketa ezaugarri duen asaldua. Garezur barneko presioa igoarazten du, eta bentrikuluak zabaltzen ditu. Hidrozefaliaren eragile izan daitezke: ohikoa baino likido gehiago jariatzea, bentrikulu-sistemaren buxadura, gune subarahnoidotik likidoa birxurgatzean akatsen bat gertatzea, eta abar. Hidrozefaliaren eragile dira: anomaliak, infekzioak, traumatismoak edo garuneko tumorak, besteak beste. *ES:* Hidrocefalia *FR:* Hydrocéphalie *EN:* Hydrocephalia *Arloa:* Med.
- Hidrocefalo:** izond. Hidrozefalia duena. *ES:* Hidrocéfalo *FR:* Hydrocéphale *EN:* Hydrocephalus *Arloa:* Med.
- Hidruro:** iz. Hidrogenoz eta elementu edo erradikal batez osaturiko konposatua. *ES:* Hidruro *FR:* Hydrure *EN:* Hydride *Arloa:* Kim.
- HIES:** iz. Ikus 'Hartutako Immuno-Eskasiaren Syndrome'. *ES:* SIDA *FR:* SIDA *EN:* AIDS *Arloa:* Med.
- Higiene:** iz. Osasunari eta hari dagozkion zainketei buruz diharduen zientzia. Gizakiaren garapena eta hura ingurura modu egokian moldatzea errazten eta bultzatzen duten prozedurak eta metodoak aztertzen ditu. *ES:* Higiene *FR:* Hygiène *EN:* Hygiene *Arloa:* Med.
- Higienearen kontrako:** izlag. (Jarrera eta ekintzei buruz) Garbitasun- edo higiene-printzipioen aurkakoa. *ES:* Antihigiénico *Arloa:* Med.
- Higieniko:** izond. Higieneari dagokiona. *ES:* Higiénico *FR:* Hygíenique *EN:* Hygienic
- Higienismo:** iz. Gorputzaren desintoxikazio naturalean oinarritzen den osasunbidea, gorputzaren beraren sendatze-indarra suspertzeko xedez. Baraua, elikadura zaintzea, eta norbera bere osasunaren arduradun bihurtzea ditu ezaugarri. *ES:* Higienismo *FR:* Hygíenisme *EN:* Hygienism
- Higienista:** 1. iz. Higienean aditua; higienismoaren jarraitzailea. 2. iz. Higienearen legetan eta printzipioetan oinarritzen dena. *ES:* Higienista *FR:* Hygíeniste *EN:* Hygienist *Arloa:* Med.
- Higikortasun:** iz. Ikus 'mugikortasun'.
- Hil:** ad. Bizia eten, berez edo zerbaitek eraginda. *ES:* Morir, fallecer, expirar *FR:* Mourir *EN:* To die
- Hil:** izond. Ikus 'hildako'.
- Hil ondoko:** izlag. Ikus 'hilondoko'.
- Hil osteko:** izlag. Ikus 'hilondoko'.
- Hilaur:** iz. Garaia baino lehen eta hilik jaiotzen den fetua. *ES:* Criatura abortiva
- Hilaurtu:** ad. Ikus 'abortatu'.
- Hilaurtze:** iz. Ikus 'abortu'.
- Hildako:** izlag. (Organismoei buruz) Bizi-funtzioak galdu dituen. *ES:* Muerto, fallecido *FR:* Mort *EN:* Dead
- Hildura:** iz. Ikus 'mortifikazio'.
- Hileko:** iz. Emakumeen odoljarri periodikoa; odola eta endometriko chunaren zatia kanporatzen dira baginatik. Lau astetik behin gertatzen da gutxi gorabehera (haurdunaldirik ez badago), eta 3-7 egun irauten du. Pubertarotik menopausiara bitarteko garaian izaten dute emakumeek. *ES:* Flujo menstrual, menstruación, regla *FR:* Menstruations *EN:* Menstruation, menstrual blood loss
- Hilekoa izan:** ad. Hilekoa jariatu. *ES:* Menstruar *FR:* Menstruer *EN:* To menstruate
- Hilekoaren aurreko:** izlag. Hilekoa hasi aurretiko aldiari dagokiona. *ES:* Premenstrual *FR:* Prémenstruelle *EN:* Premenstrual
- Hilgarri:** izond. Hiltzen duena, heriotza dakarrena. *ES:* Letal, mortal *FR:* Mortifère *EN:* Deadly, lethal
- Hil-hurren:** adlag. Hiltzeaz. *ES:* Agonizante
- Hilkor:** izond. Hil behar duena; bizi-denbora mugatua duena. *ES:* Mortal *FR:* Mortel *EN:* Mortal
- Hilkortasun:** iz. Hilkor izatearen ezaugarria. *ES:* Mortalidad
- Hilo:** iz. Parenkima-erri bateko arteka edo sakonunea; bereziki, barekoa, biriketako, giltzurrunetako eta obulutegietako. Odol-, nerbio- eta

- linfa-elementuak sartu eta irteten dira sakonune edo arteka horretatik. *ES:* Hilio *FR:* Hile *EN:* Hilus *Arloa:* Anat.
- Hilondoko:** izlag. Heriotzaren ondoren gertatzen dena. Esate baterako, aita hil ondoren jaiotzen den haurra. *ES:* Póstumo *FR:* Posthume *EN:* Posthumous
- Hilutz:** iz. Hilik dagoen gorputza. *ES:* Cadáver *FR:* Cadavre *EN:* Cadaver
- Hiltzeaz egon:** ad. Ikus 'azkenetan egon'.
- Hilurreneko:** izlag. Ikus 'terminal'.
- Hilzori:** iz. Ikus 'agonia'.
- Hilzoriar egon:** ad. Ikus 'azkenetan egon'.
- Hilzoriko:** izlag. Ikus 'hil-hurren'.
- Himen:** iz. Baginaren sarreran dagoen mintzezko tolestura. *ES:* Himen *FR:* Hymen *EN:* Hymen *Arloa:* Anat.
- Hioide:** iz. Hezur bakoiti simetrikoa. Lepoaren aurre-erdialdean dago, mihiaren oinaldearen eta laringearen artean. Mihiko giharrei eusten die. *ES:* Hioides *FR:* Hyoïde *EN:* Hyoid bone *Arloa:* Anat.
- Hiperbariko:** izond. Atmosferakoa (eguratsekoa) baino presio handiagoa duen barrunbe itxia. *ES:* Hiperbárico *FR:* Hyperbare *EN:* Hyperbaric *Arloa:* Med.
- Hiperemia:** iz. Ohi baino odol-fluxu handiagoa, gorputz atalen batean. Bi eratakia izan daiteke: aktiboa eta pasiboa. Hiperemia aktiboa arteriak lasaitzearen ondorioz odol-fluxua gehitzen denean gertatzen da; hiperemia pasiboa, berriz, odol zikina nahiz pozoitua kanporatu edo garbitu ezinaren ondoriozkoa da. Gune hiperemikoa estaltzen duen larruazala gorriturik eta bero egoten da. *ES:* Hiperemia *FR:* Hypérmie *EN:* Hyperemia *Arloa:* Med.
- Hiperestesia:** iz. Zentzumen-organo baten sentiberatasun muturrekoa; adibidez, minaren hartzaileena, larruazalaren ukimenarena, eta abar. *ES:* Hiperestesia *FR:* Hyperesthésie *EN:* Hyperesthesia *Arloa:* Med.
- Hipergluzemia:** iz. Ohi baino glukosa kantitate handiagoa odolean. Ezinbesteko baldintza da *Diabetes mellitus*a agertzeko. *ES:* Hiperglucemia *FR:* Hyperglycémie *EN:* Hyperglycemia *Arloa:* Med.
- Hipermetrope:** izond. Hipermetropia duena. *ES:* Hipermétrópe *FR:* Hypermétrope *EN:* Hypermetropic
- Hipersentibera:** izond. Gehiegizko sentiberatasuna duena, afektu- eta emozio-estimuluen aurrean. *ES:* Hipersensible *EN:* Tender
- Hipersentiberatasun:** iz. Organismo batek estimulu baten aurrean duen sentiberatasun gehiegizkoa; egoera anafaktiko edo alergikoa. *ES:* Hipersensibilidad *FR:* Hypersensibilité *EN:* Hypersensitivity
- Hipersomnia:** 1. iz. Gehiegizko sakontasuna edo ohiz kanpoko iraupena duen loa. Faktore psikologikoez eragiten dute gehienetan, eta nahaste-egoera izaten da esnatzean. 2. iz. Loaldi luze eta sakona ezaugarri duen asaldia. *ES:* Hipersomnia *FR:* Hypersomnie *EN:* Hypersomnia *Arloa:* Med.
- Hipertentsibo:** izond. Tentsio arterial altuari nahiz haren kausei eta eraginei dagokiena. *ES:* Hipertensivo *FR:* Hypertendu *EN:* Hypertensive *Arloa:* Med.
- Hipertentsio:** iz. Tentsioaren igoera —presio arterialarena, bereziki— ezaugarri duen gaixotasun arrunta. Sarritan, ez da sintomarik izaten. Hipertentsioa duten pertsonak izan ditzaketen sintomak dira: buruko mina —batez ere jaikitzean—, tinnitusa, nahasmena, erraz nekatzea, eta palpazioak. Hipertentsioaren ondorio izan daitezke arteriosklerosia, bihotzekoa, garuneko odoljarria, eta giltzurrunetako kalteak. *ES:* Hipertensión *FR:* Hypertension *EN:* Hypertension *Arloa:* Med.
- Hipertentsioaren kontrako:** izlag. (Gai bati buruz) Tentsioa jaisteko erabiltzen dena. *ES:* Antihipertensivo *FR:* Agent anti-hypertensif *EN:* Anti-hypertensive agent *Oharrak:* Hainbat eragin izan ditzakete hipertentsioaren aurkako gaiek organismoan: hodian uzkurdura eragiten duten kinadak ekiditea, katekolaminen erreserbak murriztea, basodilatazioa eragitea, eta abar. *Oharrak:* Odolaren bolumena murriztuz jaisten dute tentsioa tiazidek eta beste diuretiko batzuek. *Arloa:* Med.
- Hipertentsio:** izond. Hipertentsio arterialak joa. *ES:* Hipertenso *FR:* Hypertendu *EN:* Hypertensive *Arloa:* Med.
- Hipertermia:** 1. iz. Gorputzaren tenperaturaren ohiz kanpoko igoera. 2. iz. NANDAk onartutako erizaintza-diagnostikoa; gizabanako baten gorputz-tenperatura ohikoa baino altuagoa den egoera bat azaltzen du. *ES:* Hipertermia *FR:* Hyperthermie *EN:* Hyperthermia *Arloa:* Med.
- Hipertrofia:** iz. Organo edo ehun bateko elementuen garapen gehiegizkoa; organo edo ehun horren egitura ez da aldatzen, baina pisua eta neurria handitu egiten dira. *ES:* Hipertrofia *FR:* Hypertrophie *EN:* Hypertrophy *Arloa:* Med.
- Hipertrofiko:** izond. Hipertrofiari —zelulen neurriaren handitzeari— dagokiona, edo hipertrofia duena. *ES:* Hipertrófico *FR:* Hypertrophique *EN:* Hypertrophic *Arloa:* Med.
- Hipnologia:** iz. Fisiologiaren adarra; loa eta hipnotismoa aztertzen ditu. *ES:* Hipnología *FR:* Hypnologie *Arloa:* Med.
- Hipnosi:** iz. Loaren antzeko egoera artifiziala, beste pertsona batek sugestioaren bidez eragiten

- duena. Gaur egun, zenbait gaixotasun psikikoren (neurosia, gaixotasun psikosomatikoak) tratamenduan, eta anestesia arina lortzeko kirurgia txikian, erditzean, eta abar, erabiltzen da. Pertzepzioaren eta oroimenaren asaldua ematen du hipnosiak. *ES: Hipnosis FR: Hypnose EN: Hypnosis*
- Hipnotiko:** 1. izond. Loari edo hipnotismoari dagokiona. 2. iz. (Gai bati buruz) Loia eragiten duena; lasaigarri gisa erabiltzen da. Nerbio-sistema zentralako gune jakin batzuetan eragiten duen depresioaren araberakoa da botika baten hipnosi-gaitasuna. *ES: Hipnótico FR: Hypnotique EN: Hypnotic*
- Hipnotismo:** 1. iz. Hipnosiaren teoria eta praktika. 2. iz. Hipnosia eragiten duten teknikak aztertzen dituen jakintza. *ES: Hipnotismo FR: Hypnotisme EN: Hypnotism*
- Hipnotizatu:** ad. Norbaiti hipnosi-egoera eragin. *ES: Hipnotizar FR: Hypnotiser EN: To hypnotize*
- Hipnotizatzaile:** iz. Hipnotismoan aritzen den pertsona. *ES: Hipnotizador FR: Hypnotiseur EN: Hypnotist*
- Hipodermis:** iz. Dermisaren azpian dagoen gantze-huneko geruza. *ES: Hipodermis FR: Hypoderme EN: Hypoderm Arloa: Anat.*
- Hipofagia:** 1. iz. Elikagai gutxi irenstea. 2. iz. Elikagai gisa zaldi-haragia hartzea. *ES: Hipofagia*
- Hipofisi:** iz. Hipotalamoari loturiko guruin txikia; esfenoide hezuraren gainean dago. Barne-jarioko guruina da, eta hormona garrantzitsu asko jariatzen ditu. Bi zati ditu: adenohipofisia eta neurohipofisia. Adenohipofisiak jariatzen dituen hormonak dira: hazkuntzaren hormona (somatotropina), hormona tirotropikoa, hormona adrenikortikotropikoa (ACTH), bi hormona gonadotropiko (folikulu-estimulatuzailea —FSH— eta luteinizatuzailea —LH—) eta prolaktina (esnearen jarioa eragiten duena). Neurohipofisian, bi hormona pilatzen dira: oxitozina eta basopresina. *ES: Hipófisis FR: Glande pituitaire, hypophyse EN: Pituitary gland, hypophysis*
- Hipogeo:** izond. Lurrazalaren azpian hazten edo garatzen dena. *ES: Hipogeo FR: Hypogée EN: Hypogeum Arloa: Biol.*
- Hipogluzemia:** iz. Odoleko glukosa-kontzentrazioaren beheraldia; balio normalaren azpitik (<70mg/dl) egoten da. Haren ezaugarri klinikokoak dira: gosea, dardara, zurbiltasuna, izerdi ugaria, zefalea, ikusmen-asalduak, ataxia, antsietatea, ahultasuna, diplopia, asaldur psikikoak eta konbultsioak. Balio hori lehenbailehen zuzendu ezean, eldarnioa, koma edo heriotza gerta daiteke. Intsulina gehiegi emateagatik, intsulina gehiegi jariatzeagatik, ariketa fisiko gehiegi egiteagatik edo elikadura-urritasunagatik agertzen da hipogluzemia. *ES: Hipoglucemia FR: Hypoglycémie EN: Hypoglycemia Arloa: Med.*
- Hipokanpo:** iz. Garunaren zati kurbatu eta bihur-gunetsua; albo-bentrikuluko beheko adarraren ondoan dago. *ES: Hipocampo FR: Hippocampe EN: Hippocampus Arloa: Anat.*
- Hipokondria:** 1. iz. Osasun-egoerari buruzko kezka neurritz kanpokokoa. 2. iz. Asaldur psikikoa; ezaugarri ditu: antsietate handia, depresioa, eta sintoma fisiko errealean edo ustezkoen interpretazio irrealak. Gaixotasun larri baten adierazle dira ezaugarri horiek, nahiz eta gaixotasun horren froga medikorik ez izan. *ES: Hipocondría FR: Hypochondrie EN: Hypochondriasis Arloa: Psikiat.*
- Hipokondriako:** 1. izond. Hipokondriari dagokiona; hipokondria duena. 2. izond. Sabelaldearen gaineko aldeari —beheko saihetsen azpialdean dagoenari— dagokiona. *ES: Hipocondriaco FR: Hypochondriaque EN: Hypochondriac Arloa: Med.*
- Hipokondrio:** iz. Sabelaldearen goialdeko bi alboetako gune bakoitza; gune epigastrikoaren alde banatan dago. *ES: Hipocondrio FR: Hypochondre EN: Hypochondrium Arloa: Anat.*
- Hipokromiko:** izond. Normala baino kolore gutxiago duena. Hematiak deskribatzeko erabiltzen da termino hori, eta hemoglobina-sintesiaren gutxitzearekin lotutako anemiak bereizten ditu. *ES: Hipocrómico FR: Hypochromique EN: Hypochromic Arloa: Med.*
- Hipomania:** 1. iz. Maniaren antzekoa den eritasuna; hura baino gradu apalekoagoa da. Hipomaniak jotako gaixoak ez ditu aintzat hartzen izaera mugatzen dioten gizartearen arauak; sexu-grina indartsua eta neurritz gairako indarra izaten ditu. 2. iz. Zaldiraganako neurritz kanpoko grina. *ES: Hipomanía FR: Hypomanie EN: Hypomania Arloa: Psikiat.*
- Hipotalamiko:** izond. Hipotalamokoa, edo hari dagokiona. *ES: Hipotalámico FR: Hypothalamique EN: Hypothalamic Arloa: Anat.*
- Hipotalamo:** iz. Dientzefaloaren zatia; hirugarren bentrikularen zoru eta albo-paretaren atal bat osatzen ditu. Bizitzeko zenbait funtzio erregulatzea da hipotalamoaren eginkizuna: arteria-presioa, digestio-aparatuaren zenbait jarduerak, sexu-funtzioak, uraren, gluzidoen eta lipidoen metabolismoak, eta emozio-erreakzioak, besteak beste. *ES: Hipotálamo FR: Hypothalamus EN: Hypothalamus Arloa: Anat.*
- Hipotentsio:** iz. Tentsio edo presio baxua, bereziki odolarena; odol-presioa ehunen oxigenaziorako egokia ez izatearen ondorio da. Gorputzak isurkari ugari galtzen dituenean, edo bihotzekoa, bi-



- riketako enbolia, arritmia... izan dituenen gerta daiteke. *ES: Hipotensión FR: Hypotension EN: Hypotension Arloa: Med.*
- Hipotermia:** iz. Asaldu arriskutsua; 35 °C-z azpiko gorputz-temperatura du ezaugarri. Hipotermiaren eragile nagusiak dira anemia bortitzak, shock egoerak eta izozteak. Haren adierazgarri dira: arnasketa azalekoa eta geldoa, larruazal hotza, hotzikara ahulak, zurbiltasuna, kapilarrak mantso betetzea, takikardia, zianosia, hipertentsioa eta ileak tentetzea. Tratamenduan, poliki-poliki berotu behar da pertsona. *ES: Hipotermia FR: Hypothermie EN: Hypothermia Arloa: Med.*
- Hiro:** iz. Ikus 'zorne'.
- Hiruki:** iz. Haurdunaldi beretik jaiotako hiru jaioberrietako bakoitza. *ES: Trillizo FR: Triplés, triplets EN: Triplet*
- Histamina:** iz. Histidinaren metabolismoan sortzen den gaia; zelula guztietan dago. Hanturazko erreakzio alergikoetan askatzen da, eta maiz erabiltzen da sendagintzan, gorputzeko atal askotan dituen eraginengatik: kapilarrak zabaltzea, odolpresioa jaistea, urdail-urinarean jarioa areagotzea, eta bronkioetako eta umetokiko gihar lisoa uz-kurtzea. *ES: Histamina FR: Histamine EN: Histamine Arloa: Kim.*
- Histasun:** iz. Ikus 'zurbiltasun'.
- Histerektomia:** iz. Umetokiaren erauzketa kirurgikoa, hainbat gaixotasuni aurre egiteko: aldakako hanturazko gaixotasun kronikoa, umetokiko odoljarria, umetokiko minbizi-aurreko gaixotasunak, umetokiko minbizia, eta abar. Erabateko histerektomian, obulutegiak, tronpak, gongoil linfatikoak, hodi linfatikoak, umetokiko lepoa eta umetokia erauzten dira. Obulutegi bat edo biak eraz daitezke aldi berean. Ebakuntza horietariko edozein egin ostean, ez da hilekorik izaten. *ES: Histerectomía FR: Hystérectomie EN: Hysterectomy Arloa: Med.*
- Histeria:** iz. Neurosi mota bat; era askotako ezaugarri klinikoak izan ditzake. Histeria mota garrantzitsuenak dira: *konbertsio-histeria* eta *larrimin-histeria*. Horiek guztiak gatazka edipikoa dute ezaugarri, eta errepresioa dute babes-mekanismo nagusia. *ES: Histeria FR: Hystérie EN: Hysteria Obarrak:* Psikoneurosi bat da, eta neurosi historiko deritza gaur egun. *Arloa: Psikiat.*
- Histeriko:** 1. izond. Histeriari dagokiona. 2. izond. Histeria duena. *ES: Histórico FR: Hystérique EN: Hysteric*
- Histerismo:** iz. Ikus 'histeria'.
- Histiozito:** iz. Ehun konektiboko makrofagoa; eragina du organismoko immunitate-sisteman. *ES: Histiocito FR: Histiocyte EN: Histiocyte Arloa: Biol.*
- Histologia:** iz. Anatiomiaren adarra; ehunen eta organoen egituraz arduratzen da, baita zelulen osakeraz eta horiek gorputzeko ehunetan duten antolaeraz ere. *ES: Histología FR: Histologie EN: Histology Arloa: Biol.*
- Historia kliniko:** iz. Gaixo bati dagozkion datu guztiak —iraganeak, pertsonalak, familiakoak eta oraingoak— biltzen dituen zerrenda ordenatua; jasaten ari den gaixotasunari buruzko azterketarako oinarri gisa balio du. *ES: Historial clínico, historia clínica FR: Dossier personnel EN: Health history*
- Histu:** ad. Ikus 'zurbildu'.
- Hits:** izond. Ikus 'zurbil'.
- Hitz-motel:** izond. Ikus 'totel'.
- Hitz-motel-tasun:** iz. Ikus 'totel-tasun'.
- Hitzordu:** iz. Gaixoa eta medikua elkartzeko jarritako toki, eguna eta ordua. *ES: Cita FR: Rendez-vous EN: Appointment*
- Hobekuntza:** iz. Hobera egiteko ekintza, eta horren ondorioa. *ES: Mejora FR: Amélioration EN: Enhancement*
- Hobi:** iz. Gorputz atal baten hutsunea edo sakongunea. *ES: Fosa FR: Fosse EN: Fossa Arloa: Anat.*
- Hodi-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'baskular'.
- Hodi:** 1. iz. Tutu-itxurako egitura, gorputzean likidoak —odola, linfa, eta abar— garraiatzen dituena. Arteriak, zainak eta linfa-hodiak dira hodi mota nagusiak. *ES: Vaso FR: Vaisseau EN: Vessel Arloa: Biol.* 2. iz. Tutu-itxurako igarobidea, barnetik hutsa, nahiko estua; handik igarotzen dira odol-hodiak eta nerbioak, iraiketa-gaiak, jariakinak, eta abar. *ES: Conducto FR: Canal EN: Duct Arloa: Anat.*
- Hodi deferente:** iz. Barrabiletako epididimoaren jarraipena; barrabil-zorroitik gorantz semen-xixkuarekin elkartu eta hodi eiakulatzaila eratzen du. *ES: Conducto deferente FR: Canal déférent EN: Ductus deferens Arloa: Anat.*
- Hodi galaktoforo:** iz. Ugatz-guruineko hodia. Esnea garraiatzen du ugatz-lobuluetatik titiburura. *ES: Conducto galactóforo FR: Canal galactophore EN: Galactophorous duct Arloa: Anat.*
- Hodi irailze:** iz. Hodi eroalea; gaiak garraiatzen ditu, baina ez ditu jariatzen. *ES: Conducto excretor FR: Conduit excrétoire EN: Excretory duct*
- Hodi kapilar:** iz. Ikus 'kapilar'. *ES: Vaso capilar FR: Vaisseau capillaire, capillaire EN: Capillary vessel, capillary*
- Hodi seminifero:** iz. Barrabil-lobuluxketan dauden hodiak. Bihurriak dira hasieran, eta zuzenak ondoren. *ES: Conducto seminífero, túbulo seminífero FR: Conduit séminifère EN: Seminiferous duct*



- Hodia sartu:** ad. Ikus 'intubatu'.
- Hodia sartze:** iz. Ikus 'intubazio'.
- Hodi-sartze:** iz. Ikus 'intubazio'.
- Hodi-sistema:** iz. Ikus 'sistema baskular'.
- Hodi-uzkurdura:** iz. Edozein odol-hodiren barrunbea estutzea, nerbioen edo beste kinadaren baten eraginez. *ES:* Vasoconstricción *FR:* Vasoconstriction *EN:* Vasoconstriction *Arloa:* Med.
- Hodi-uzkurtzaile:** izond. Hodi-uzkurdura eragiten duena. Hodi-uzkurtzaileak exogeno arruntak dira: hotza, beldurra, estresa eta nikotina. Bestalde, adrenalinarean eta noradrenalinarean barne-jarioak ere odol-hodiak uzkurrazten ditu. *ES:* Vasoconstrictor *FR:* Vasoconstricteur *EN:* Vasoconstrictor *Arloa:* Med.
- Hodixka:** iz. Hodi txikia; bereziki, giltzurrunetako eta barrabiletako hodiak. *ES:* Túbulo *FR:* Tubule *EN:* Tubule *Arloa:* Anat.
- Hodi-zabaltzaile:** izond. Odol-hodien dilatazioa eragiten duena; nerbio bat edo gai bat izan daiteke. *ES:* Vasodilatador *FR:* Vasodilatateur *EN:* Vasodilator *Adibideak:* Nitratuak, Ca<sup>++</sup> antagonistak, eta abar. *Arloa:* Med.
- Hodi-zabaltze:** iz. Odol-hodiak zabaltzea, arteriolak bereziki; zabaltze horretan eragiten dute nerbio-kinadek edota gihar lisoa lasaitzen duten zenbait sendagaik. *ES:* Vasodilatación *FR:* Vasodilatation *EN:* Vasodilatation *Arloa:* Med.
- Holotipo:** iz. Espezie berri bat deskribatzeko eredu modura erabilitako alea. *ES:* Holotipo *FR:* Holotype *EN:* Holotype *Arloa:* Biol.
- Homeopata:** iz. Homeopatian diharduen medikua. *ES:* Homeópata *FR:* Homéopathe *EN:* Homeopathist *Arloa:* Med.
- Homeopatia:** iz. Sistema mediko-terapeutikoa; gaixoak dituen sintomen antzekoak sorrarazten dira gai jakin baten dosi txiki bat emanez, gaixotasuna sendatu ahal izateko. *Antzekoak antzekoa sendatzen du* teorian oinarritzen da. Alopatiari kontrajartzen zaio. *ES:* Homeopatía *FR:* Homéopathie *EN:* Homeopathy *Arloa:* Med.
- Homeopatikoa:** izond. Homeopatiari dagokiona. *ES:* Homeopático *EN:* Homeopathic
- Homeostasi:** iz. Ikus 'homeostasia'. *ES:* Homeostasis
- Homeostasia:** iz. Gorputzaren barne-oreka; modu naturalean mantentzen da, gorputzean osasunari eusteko gertatzen diren egokitzapenei esker. Mekanismo homeostatikoek kontrolatzen dituzten funtzioen artean daude: bihotz-taupadak, hematopoesia, tentsio arteriala, gorputzeko temperatura, oreka elektrolitikoak, arnasketa eta guruien jarioa. Hormonek ere parte hartzen dute homeostasia-prozesuetan, kanpoko eragin bakoitzari dagokion erantzuna bideratuz. *ES:* Ho-
- meostasia *FR:* Homéostasie *EN:* Homeostasis *Arloa:* Biol.
- Homogeneizagailu:** iz. Zenbait likidoren nahastura gai homogeneo bihurtzeko tresna. *ES:* Homogeneizador *FR:* Homogénéisateur *EN:* Homogenizer
- Homogeneizatu:** ad. Elementu-nahastura bat gai homogeneo bihurtu, bitarteko fisikoak edo kimikoak erabiliz. *ES:* Homogeneizar *FR:* Homogénéiser *EN:* To homogenize, to make homogeneous
- Homogeneizatze:** iz. Ikus 'homogeneizazio'.
- Homogeneizazio:** iz. Zerbait homogeneo bihurtzeko prozesua; disolbatzaile edo barreatze-ingurune batean dagoen gai bat bitarteko mekanikoen bidez zatituz egiten da. *ES:* Homogeneización *FR:* Homogénéisation *EN:* Homogenization
- Homogeneo:** izond. Antzeko elementuz edo atalez osatua. *ES:* Homogéneo *FR:* Homogène *EN:* Homogeneous
- Homogeneo bihurtu:** ad. Ikus 'homogeneizatu'.
- Homogeneotasun:** iz. Masaren puntu bakoitzean ezaugarri fisiko aldaezinak dituen gorputzaren ezaugarria. *ES:* Homogeneidad *FR:* Homogénéité *EN:* Homogeneity, uniformity
- Homosexual:** izond. Sexu bereko kideek erakartzen dutena. *ES:* Homosexual *FR:* Homosexuel *EN:* Homosexual
- Homosexualitate:** iz. Sexu bereko pertsonenganako sexu-erakarpena. *ES:* Homosexualidad *FR:* Homosexualité *EN:* Homosexuality
- Homozigosi:** iz. Zigoto baten eraketa, gene pare berdin bat edo gehiago dituzten bi gametoren arteko elkarretaz. Arraza-nahasketarik gabeko organismoak sortzen dira homozigosian, endogamia bidez. *ES:* Homocigosis *FR:* Homozygose *EN:* Homozygosis *Arloa:* Biol.
- Homozigoto:** iz. Organismo mota; kromosoma pare bateko leku berean gene berdin-berdinak dituzten zelula somatikoak ditu. *ES:* Homocigoto *FR:* Homozygote *EN:* Homozygote *Arloa:* Biol.
- Hondakin-ur:** iz. Etxeetako zein lantokietako estolderietan jasotzen den ura. *ES:* Agua residual *FR:* Eau résiduaire *EN:* Waste water
- Hordi:** izond. Ikus 'mozkor'.
- Hordikeria:** iz. Ikus 'mozkorkeria'.
- Horditasun:** iz. Ikus 'mozkortasun'.
- Hormona:** iz. Gai kimiko konplexua; gorputzeko organo edo atal bateanekoikoizten da, eta handik gorputzeko beste guneren bateko organo nahiz zelula talde baten jarduera aktibatzen edo erregulatzen du. Hipofisia, pankrea, epifisia, tiroidea eta gonadak dira, besteak beste, hormonak jariatzen dituzten guruiak. Hormonak jariatzen dituzten ehunen artean daude, berriz, karena eta duodenoko mukosa. Guruien endokrinok jaria-

- zten dituzten hormonak odol-zirkulazioak garraiatzen ditu eragin beharreko organora. Ezagarrki kimikoen arabera, hiru hormona mota bereizten dira: esteroideak (hormona sexualak), aminoazidoetatik eratorritakoak (tiroxina eta adrenalina), eta proteiko edo polipeptidikoak (intsulina, glukagoia eta hipofisiko hormonak). Hormonek garrantzi handia dute metabolismoan, odol-zirkulazioan, sexu-bizitzan, nerbio-sistemaren orekan, eta abar. *ES: Hormona FR: Hormone EN: Hormone Arloa: Kim.*
- Hormonal:** izond. Hormonei dagokiena. *ES: Hormonal FR: Hormonal EN: Hormonal*
- Hormonazko:** izlag. Ikus 'hormonal'.
- Hortz:** iz. Ahoan dagoen organo gogor, zuri eta leunetarikoa bakoitza; digestio-aparatuaren parte da. Elikagaiak irentsi aurretik murtxikatzea eta irensteko prestatzea dute eginkizun. Gizaki heldu batek 32 hortz ditu, baraila bakoitzeko 16. *ES: Diente FR: Dent EN: Tooth*
- Hortza/hagina atera:** ad. Hondatua dagoen hortza edo hagina erauzi.
- Hortza bete:** ad. Ikus 'enpastatu'.
- Hortzak atera:** ad. Zerbituen ertzean hortzak egin, sortu edo jarri. *ES: Dentar FR: Denté EN: To dentate*
- Hortzak jaio:** ad. Haurrei lehen hortzak edo bigarren aldikoak irteten hasi. *ES: Endentecer*
- Hortzaldi:** iz. Hortzen sorrera eta garapena. *ES: Dentición FR: Dentition EN: Dentition*
- Hortzak irten:** ad. Ikus 'hortzak jaio'.
- Hortz-betegarri:** iz. Ikus 'enpaste'.
- Hortzeria:** iz. Pertsona edo animalia batek ahoan dituen hortz, letagin eta haginaren multzoa. *ES: Dentadura FR: Denture EN: Dentition*
- Hortzetako:** izlag. Hortzei dagokiena. *ES: Dental, dentario FR: Dentaire EN: Dental*
- Hortzetako zementu:** iz. Hortz-albeoloetako hezur-ehuneko zati berezia, hortzen sustraia estaltzen duena. *ES: Cemento dental FR: Ciment dentaire EN: Dental cement Arloa: Odont.*
- Hortz-haginak:** iz. Ikus 'hortzeria'.
- Hortz-oi:** iz. Ikus 'oi'.
- Hortzun:** 1. izond. Hortz natural bat edo gehiago dituen. *ES: Dentado FR: Denté EN: Dentulous.* 2. Ikus 'koskadun'.
- Hots:** iz. Ikus 'soinu'.
- Hotzeri:** iz. Goiko arnasbideetako gaixotasuna; birus- edo alergia-jatorria izan dezake. Zenbaite-tan, hortzaren edo hezetasunaren ondorioz sortzen da. Errinitisa, malko-jarioa, sukar arina eta ondoez orokorra dakartza; tratamendu gisa, ohean atsedean hartzea, kongestioa kentzeko sendagaiak, analgesikoak eta likido ugari hartzea gomendatzen da. *ES: Resfriado, constipado, catarro FR: Rhume EN: Cold*
- Hotzeriak jo:** ad. Hotzeriak harrapatu. *ES: Constipar*
- Hotzikara:** iz. Dardara, zurbiltasunarekin eta hotz-sentipenarekin batera; gehienetan infekzio baten hasieran agertzen da, temperaturaren igoera azkarrekin batera. Gorabehera psikikoek eragina ere izan daiteke. *ES: Escalofrío FR: Frisson EN: Chill*
- Hozizelula:** iz. Gametogenesia jasandako edozein zelula; hau da, garapenaren edozein alditan dagoen sexu-zelula. *ES: Célula germinal FR: Cellule germinale EN: Germ cell*
- Hozka egin:** ad. Hortzekin heldu; hortzak sartu. *ES: Morder FR: Mordre EN: To bite*
- Hozkada:** iz. Hortzekin indarrez eustearen ondoriozko lesioa. *ES: Mordedura, mordida, mordisco FR: Morsure EN: Bite*
- Hozkatu:** izond. Hozka jaso duena. *ES: Mordido*
- Hozki:** iz. Hortzetan nahiz hortz-oietan sentitzen den ondoeza; gai azidoak dastatzeak, hots dastaseginak entzuteak, zenbait gorputz ukitzeak edo sentipen horiek oroitzeak eragin dezake. *ES: Dentera*
- Hozkirri:** iz. Ikus 'hotzikara'.
- Hozmindu:** ad. Gorputz atal baten mugimendua oztopatu. Hotzaren eraginez gertatzen da. *ES: Envarar FR: Taisant EN: To numb*
- Hoztu:** 1. ad. Hotzago bihurtu. 2. ad. Ikus 'hotzeriak jo'. *ES: Enfriar FR: Refroidir EN: To cool*
- Hoztura:** iz. Ikus 'hotzeri'.
- Humero:** iz. Besoko hezur luzea, sorbaldatik ukondoraino doana. *ES: Húmero FR: Húmero EN: Humerus Arloa: Anat.*
- Humore:** iz. Gorputzeko isurkariak izendatzeko termino orokorra. *ES: Humor FR: Humeur EN: Humor Oharrak: Medikuntzaren historian, lau izan dira humoreak: odola, pituita, behazuna eta atrabilisa. Osasunaren egoera haien orekaren baitan zegoela uste zen. Arloa: Anat.*
- Humore beirakara:** iz. Gai garden eta erdi gelatinakara; begiaren atzeko barrunbean dago, kristalinoaren atzean. *ES: Humor vitreo FR: Humeur vitreux EN: Vitreous humor Arloa: Anat.*
- Humore urtsu:** iz. Likido argia; kristalinoaren eta kornearen arteko gunean dago. *ES: Humor acuoso FR: Humeur aqueuse EN: Aqueous humor Arloa: Anat.*
- Hunkiberatasun:** iz. Pertsona bat hunki daitekeen maila. Jasotako kinaden arabera da. *ES: Emotividad FR: Emotivité EN: Emotivity*
- Hunkigarri:** izond. Zirrara eragiten duena; hunkitzen duena. *ES: Emocionante*
- Hunkitu:** ad. Barne-sentimendu batek ukitua gertatu. *ES: Emocionar FR: Emouvoir*
- Hurbil:** izond. Ikus 'gertu'.

---

**Hurrupatu:** ad. Likido edo erdi likido bat ahora erakarri, ezpainen eta mihiaren mugimenduaren laguntzaz. *ES:* Succionar *FR:* Aspirer *EN:* To suck *Oharrak:* Haurrak esnea hurrupatzen du biberotik edo amaren bularretik.

**Hurrupatze:** iz. Xurgatzeko ekintza eta horren ondorioa. *ES:* Succión *FR:* Succion *EN:* Suction

**Hutsune:** iz. Ikus 'barrunbe'.

# I

**Ibitu:** ad. Ikus 'hertu'.

**Ideiagintza:** 1. iz. Ideiak izan eta lantzeko prozesua. 2. iz. Ideia, objektu edo irudien sorrera gogamenean. *ES:* Ideación *FR:* Idéation *EN:* Ideation *Arloa:* Psikol.

**Identifikazio:** iz. Norbaitek beste norbaiten ezaugarriak —edota haren nortasun osoa— bereganatzea. *ES:* Identificación *FR:* Identification *EN:* Identification *Arloa:* Psikol.

**Idiopatia:** iz. Jatorri ezezaguna edo aurrekaririk gabea duen gaixotasun mota; ageriko arrazoirik gabe agertzen da. *ES:* Idiopatía *EN:* Idiopathy *Arloa:* Med.

**Idiota:** izond. (Pertsonen adimen mailari buruz) Adimen-urritasun larria duena; adimen-koizientea 20 azpitik izaten du, eta ez du gaitasunik 3 edo 4 urteko buru-adina gainditzeko. *ES:* Idiota *FR:* Idiot *EN:* Idiot *Arloa:* Med.

**Idiozia:** iz. Adimen-urritasun larria. Gaixoa ez da gai hizkuntza bereganatzeko, bere kabuz moldatzeko eta arrisku fisikoetatik babesteko. *ES:* Idiocia, idiotismo *FR:* Idiotie *EN:* Idiocy *Arloa:* Psikol.

**Idor:** izond. Idorria jasaten duena. *ES:* Estreñido *FR:* Constipé *EN:* Constipated

**Idorgarri:** izond. Ikus 'lehorgarri'. *ES:* Astringente

**Idorzeria:** 1. iz. Gorozkiak beren bidetik igarotzeko zailtasuna; arazo organikoen artean daude: hesteetako buxadura, dibertikulitisa eta tumorrak. 2. iz. NANDAren erizaintza-diagnostikoa. Haren ezaugarrien artean daude: sabel-hustearen maiztasuna murriztea, gorozki lehorrak, ondeste-ko masa, sabel-husteko ahalegina, hesteetako hotsak murriztea, presio- edo asetasun-sentsazioa sabelaldean nahiz uzkiari, gorozkien bolumenta murriztea eta goragalea. Sabelaldeko mina, apetituaren galera, bizkarreko mina, buruko mina eta eguneroko bizimoduaren asaldua ere ager daitezke. *ES:* Estreñimiento *FR:* Constipation *EN:* Constipation *Oharrak:* Kolonaren funtzioen nariadura gerta daiteke pertsona adinekoetan eta ohean dauden gaixoetan, eta sabel-husteko beharri erantzuteko zailtasunak eragin.

**Idortu:** ad. Idorria eragin. *ES:* Estreñir, astringir *EN:* To constipate, to make constipated

**Idun:** iz. Ikus 'lepo'.

**Igeltsu:** 1. iz. Kaltzio sulfato hidratatua. 2. iz. Batez ere kaltzio sulfato erdi hidratatuz osaturiko

minerala. Sarri erabiltzen da medikuntzan, gorputz atalen mugikortasuna mugatzeko edo hortzen moldeak egiteko. Igeltsu-hautsa narrigarria da arnasbideetako mukosarentzat eta konjuntibarentzat. *ES:* Yeso, escayola *FR:* Plâtre *EN:* Gypsum, plaster *Arloa:* Miner., Med.

**Igeltsua jarri:** ad. Gorputzeko atal bat igeltsuz estali, geldirik mantentzeko. *ES:* Escayolar, enyesar *FR:* Moulage *EN:* To put in plaster

**Igeltsutu:** ad. Ikus 'igeltsua jarri'.

**Igeltsuztatu:** ad. Ikus 'igeltsua jarri'.

**Igurtzi:** ad. Zerbaiti eragin, haren gainean behin eta berriz halako indarrez igaroarazten den beste zerbaiten laguntzaz. *ES:* Friccionar *FR:* Frictionner *EN:* To rub, to massage

**Igurtzi:** iz. Masaje mota; ehunik sakoneten eragiten da, eskuaren mugimendu zirkular indartsuz. *ES:* Fricción *FR:* Friction *EN:* Friction

**Igurtzaldi:** iz. Ikus 'igurtzi'.

**Igurzketa:** iz. Ikus 'igurtzi'.

**Ikara:** iz. Dardara, gutxi edo gehiago orokortua; hotzikararen aurretik edo harekin batera agertzen da. Hotzak, sukarrak eta, bereziki, beldurrak edo izualdiak eragin dezakete. *ES:* Estremecimiento *FR:* Frémissement *EN:* Thrill

**Ikertu:** ad. Zerbaiten kalitatea ezagutu. *ES:* Examinar

**Ikterizia:** iz. Kolore horia larruazalean, mukosetan eta jariakinetan; odoleko bilirrubina kantitatea igotzearen ondoriozkoa da. Hainbat prozesuren sintoma da; esate baterako: gibelego gaixotasunak, behazun-buxadura edo anemia hemolitikoa. Ikterizia duten pertsonak hainbat sintoma izan ditzakete: gorakoak, okadak, sabelaldeko mina, gerneraren kolore iluna, eta abar. *ES:* Ictericia *FR:* Ictère *EN:* Jaundice *Oharrak:* Ikterizia fisiologikoa izaten dute jaioberri askok, baina, arazorik izan ezean, egun gutxitan desagertzen da. *Arloa:* Med.

**Iktiosi:** iz. Larruazaleko gaixotasuna; larruazala lehortzea, zimurtzea eta ezkatatzea du ezaugarri. Jaiotzean edo jaio eta berehala gertatzen da. *ES:* Ictiosis *FR:* Ichthyose *EN:* Ichthyosis *Arloa:* Med.

**Iktus:** iz. Garuneko hodieta bat-bateko lesio akutua. *ES:* Ictus *FR:* Ictus *EN:* Ictus *Arloa:* Med.

- Ikuseremu:** iz. Begiak mugitu gabe ikusten den espazioa. *ES:* Campo visual *FR:* Champ visuel *EN:* Visual field
- Ikusi:** ad. Begien bidez objektuak eta haien ezaugarriak hauteman. *ES:* Ver *FR:* Voir *EN:* To see
- Ikusmen:** iz. Bost zentzumenetako bat. Begia da haren organoa; argia eta gauzen kolorea eta forma hauteman daitezke hari esker. *ES:* Vista *FR:* Vue *EN:* Sight
- Ildo:** iz. Beheragune zapal lineala, gorputzeko hainbat egituratan agertzen dena; esate baterako, oinazpian daudenak, hezurren gainean nerbioek eratzen dituztenak, hezurretan giharrak txertatzearen ondorioz daudenak, eta garuneko hainbat gunetan daudenak. *ES:* Surco *FR:* Sillon *EN:* Sulcus, crevice, groove
- Ildoxka:** iz. Larruazalean agertzen den lerro nahiz orbaina; eskuarki, larruazalaren garapen azkarren edo tentsioaren ondorioz agertzen da. *ES:* Estría *FR:* Strie *EN:* Stria *Oharrak:* Haurdunaldiaren ondoren, ildoxkak agertzen dira sabelean.
- Ildoxkatu:** izond. Ildoxka edo lerro paraleloak ezaugarri dituena. *ES:* Estriado *FR:* Strié *EN:* Striate
- Ile:** iz. Keratinazko harii zipi epidermikoa; ia gorputzeko azalera guztian hazten da. Epidermisko folikulu espezializatu batean sortzen diren sutraia eta gorputza ditu. *ES:* Pelo, vello *FR:* Poil *EN:* Hair
- Ileo:** iz. Hesteen funtzio mekanikoaren galera; hesteetako edukiak ez dira mugitzen. *ES:* Íleo *FR:* Íleus *EN:* Ileus *Oharrak:* Ileo paralitikoa hestelakioen mugikortasunik ezak eragiten du. Ileo mekanikoa, berriz, hestearen blokeo mekanikoak. *Arloa:* Med.
- Ileon:** iz. Heste meharraren hirugarren eta azken zatia, jejunotik heste itsura doana. Eskuineko hobi iliakoan bukatzen da, eta heste lodira irekitzen da. *ES:* Íleon *FR:* Íléon *EN:* Ileum *Arloa:* Anat.
- Ileozeakal:** izond. Aldi berean heste itsuari, ileonari eta biak elkartzen diren guneari dagokiona. *ES:* Ileocecal *FR:* Iléocaecal *EN:* Ileocecal *Arloa:* Anat.
- Iletsu:** izond. Ile asko duena. *ES:* Velloso, velludo, peludo *FR:* Villeux *EN:* Villous
- Iliako:** izond. Ilionekoa, edo hari dagokiona. *ES:* Ilíaco *FR:* Iliaque *EN:* Iliac
- Ilion:** iz. Pelbis-gerriko hezur zabala, beste bi hezurrekin batera (iskiona eta pubisa) hezur koxala osatzen duena. Azetabularen parte da, eta zenbait gihar finkatzeko balio du. *ES:* Ilión *FR:* Ilión *EN:* Ilium *Arloa:* Anat.
- Immobilizatu:** ad. Zerbait geldiarazi, mugiezin utzi. *ES:* Inmovilizar *FR:* Immobiliser *EN:* To immobilize
- Immobilizazio:** iz. Gorputz-adarrak edo beste edozein gorputz atal mugikor (hezur hautsiak eta giltzadurak bereziki) finkatzea; sendatzea errazteko egiten da. *ES:* Inmovilización *FR:* Immobilisation *EN:* Immobilization
- Immune:** izond. (Pertsona edo animalia bati buruz) Antigeno batekin kontaktua izan ondoren, harentzat espezifikoak diren antigorputzak eratzeko gaitasuna garatu duena; babes-egoera bati dagokio. *ES:* Inmune *FR:* Immun *EN:* Immune *Arloa:* Med.
- Immunitario:** izond. Immunitateari dagokiona. *ES:* Inmunitario *FR:* Immunitaire *EN:* Immune *Arloa:* Med.
- Immunitate:** iz. Erresistentzia-egoera, gaixotasun jakin baten aurrean. Gaixotasun horren eragile den mikroorganismoaren aurkako defentsak aldeztu aurretik garatzeko ahalmenari esker gertatzen da. Naturala edo txertoen bidez lortua izan daiteke. *ES:* Inmunidad *FR:* Immunité *EN:* Immunity *Oharrak:* Organismoarentzat arraroak diren infekzio-gaiekin elkartzeko gaitasuna dute odoleko globulinekin (antigorputzek), eta, era horretan, gaitzaren hedapena galarazten dute. *Arloa:* Med.
- Immunitatu:** ad. Immune egin. *ES:* Inmunizar *FR:* Immuniser *EN:* To immunize *Arloa:* Med.
- Immunitatzailer:** izond. Immunitatzeko gaitasuna duena. *ES:* Inmunizador, inmunizante *Arloa:* Med.
- Immunitazio:** iz. Immune egiteko edo bihurtzeko prozesua. *ES:* Inmunización *FR:* Immunisation *EN:* Immunization *Arloa:* Med.
- Immunodefizientzia:** iz. Ikus 'immunoeskasia'.
- Immunodepresibo:** izond. Immunodepresoreei dagokiena. *ES:* Inmunodepresivo *Arloa:* Med.
- Immunodepresore:** izond. (Sendagaiei edo tratamenduei buruz) Organismo batek antigeno baten aurrean dituen immunitate-erreakzioak gutxitu edo desagerraraz ditzakeena. *ES:* Immunodepresor *FR:* Immunodépresseur *EN:* Immunosuppressive *Oharrak:* Txertaketetan erabiltzen dira, arbuioa ekiditeko. *Arloa:* Med.
- Immunoeskasia:** iz. Organismoaren immunitate-erreakzioak gutxituta ageri diren prozesua. Infekzioak ohi baino errazago eta maizago gertatzea dakar. *ES:* Inmunodeficiencia *FR:* Immunodéficience *EN:* Immunodeficiency *Adibideak:* Hiesa, sortzetiko immunoeskasiak, eta abar. *Arloa:* Med.
- Immunoglobulina:** iz. Ornodun gehienen plasman eta beste isurkari organiko batzuetan ageri den glukoproteina. Antigorputzen ezaugarriak ditu, eta gaixotasunaren eragile den antigenoarekin konbinatzeko ahalmena du. Immunitate humerala sortzen du. *ES:* Inmunoglobulina *FR:* Immunoglobuline *EN:* Immunoglobulin *Arloa:* Med.

**Immunogutxitzaile:** izond. Ikus 'immunodepresore'.

**Immunologia:** iz. Organismoaren immunitate-sistemako ehunek estimulazio antigenikoaren aurrean duten erreakzioa aztertzen duen zientzia. *ES:* Inmunología *FR:* Immunologie *EN:* Immunology *Arloa:* Med.

**Immunologiko:** izond. Immunologiari dagokiona. *ES:* Inmunológico *FR:* Immunologique *EN:* Immunologic *Arloa:* Med.

**Immunologo:** iz. Immunologian aditua. *ES:* Inmunólogo *FR:* Immunologiste *EN:* Immunologist *Arloa:* Med.

**Immunoterapia:** iz. Erreakzio alergikoen kontrako tratamendu berezia; alergen-eragileen dosi gorakorrek ematean datza, haiekiko immunitatea apurka igotzeko helburuarekin. *ES:* Inmunoterapia *FR:* Immunothérapie *EN:* Immunotherapy *Oharrak:* Asma estrinsekoaren tratamendurako erabiltzen da. *Arloa:* Med.

**In vitro ernalkuntza:** iz. Ernalketa artifiziala; gorputzetik at egiten da. Zigotoaren garapeneko lehen urratsak igaro ostean, embrioia umetokian ezartzen da gainerako garapen-prozesua bertan gerta dadin. *ES:* Fecundación in vitro *FR:* fécondation in vitro *EN:* Fertilization in vitro

**Inarrosaldi:** iz. Ikus 'konbultsio'.

**Inbaditzaile:** izond. Inbaditzen duena. *ES:* Invasor *FR:* Envahisseur *EN:* Invading, invader

**Inbaginatu:** ad. Hodi-barrunbe edo puxika baten ertzak edo paretak tolestu, eta barnealdera sarrarazi. *ES:* Invaginar *Arloa:* Biol.

**Inbaginazio:** 1. iz. Errai huts bat barnealdera tolesteko eta itxeko prozesua; hesteetan gertatzen da batez ere. 2. iz. Prozedura kirurgikoa; hernia-zakuaren edukia berriz ere sabelaldeko barrunbera sartzen da. *ES:* Invaginación *FR:* Invagination *EN:* Invagination *Arloa:* Biol.

**Inbasio:** iz. Bakterioen sarrera organismoan; zelula gaiztoak ehunik sakonetara iristen dira, odol- eta linfa-hodietaraino, eta gaizkoadura heda daiteke. *ES:* Invasión *FR:* Invasión *EN:* Invasion

**Inbertsio:** 1. iz. Sakarosaren hidrolisia; hari glukosa eta lebulosa emanegiz egiten da. 2. iz. Kromosomen egitura-aldaketa; haustura jasan duten bi kromosoma gurutzatzean gertatzen da. 3. iz. Organo baten barnealdea kanporantz geratzen den asaldua. *ES:* Inversión *FR:* Inversion *EN:* Inversion *Arloa:* Kim.

**Inboluzio:** 1. iz. Organo baten eta haren zelulen neurria murriztea ezaugarri duen prozesu normala. Esate baterako, umetokiaren inboluzioa, erdi-tu ondoren. 2. iz. Enbriologian, garapen-prozesua. Zelula talde bat organo baten ertzean hazi, gero barnerantz joan, berriz organora itzuli, eta

hodi bat eratzen da. *ES:* Involución *FR:* Involution *EN:* Involution *Arloa:* Biol., Med.

**Inbutu:** iz. Kono-itxurako tresna barne-hutsa; hodi bat du alderik estuenean. Likidoak aho estuko ontzietara pasatzeko erabiltzen da. *ES:* Embudo *FR:* Entonnoir *EN:* Funnel

**Indar:** 1. iz. Gihar batek esfortzu bat egiteko edo jasateko duen gaitasuna. 2. iz. Mugimendua eragiten, eragozten nahiz aldaratzen duen ezaugarria edo arrazoa. *ES:* Fuerza *FR:* Force *EN:* Force

**Indarberritu:** ad. Indarra edo osasuna berreskuratzea. *ES:* Recuperar *FR:* Récupérer *EN:* To recuperate

**Indarberritze:** iz. Indarra edo osasuna berreskuratzea. *ES:* Recuperación

**Indargabe:** izond. Ikus 'ahul'.

**Indargabetu:** ad. Zerbaitek edo norbaitek duen indarra, garrantzia nahiz balioa galdu. *ES:* Decaer

**Indargabetze:** 1. iz. Zerbaitekin ekitza edo intentsitate murriztea; birus edo mikroorganismoen toxizitatea, batez ere. *ES:* Atenuación *FR:* Atténuation *EN:* Attenuation 2. iz. Beherakada, endekapena. *ES:* Decaimiento

**Indargarri:** izond. Ikus 'suspergarri'. *ES:* Reconstituyente

**Indigestio:** iz. Janondo gaiztoa. Digestio-funtzioen asaldu iragankorra; bat-batean agertzen da, hainbat arrazoiren ondorioz. *ES:* Indigestión *FR:* Indigestion *EN:* Indigestion *Arloa:* Med.

**Indize:** iz. Bi kopururen arteko harreman konstantea. *ES:* Índice *FR:* Indice, index *EN:* Index, reference

**Induktantzia:** iz. Zirkuitu baten ezaugarria; zirkuitua eremu magnetiko batekin batzen da, korronte batek zeharkatzen duenean. Induktantziaren unitatea henry da. *ES:* Inductancia *FR:* Inductance *EN:* Inductance

**Inerbatu:** ad. Nerbio batek gorputzaren gune bat nerbio-kinadaz hornitu. *ES:* Inervar *FR:* Innervar *Arloa:* Anat.

**Inerbazio:** iz. Nerbioen nahiz nerbio-energiaren banaketa, organo, eremu edo atal batean. *ES:* Inervación *FR:* Innervation *EN:* Innervation *Arloa:* Anat.

**Inerte:** izond. Ekintzarik edo mugimendurik gabea. *ES:* Inerte *FR:* Inerte *EN:* Inert *Oharrak:* Inerteak dira erreakzio kimikoetan parte hartzen ez duten eta katalizatzaile gisa eragiten ez duten gai kimikoak.

**Infantilismo:** iz. Pertsona baten garapenaren atzerapena nahiz etena. Infantilismoaren adierazle da nerabezaroan edo helduaroan haurtzaroko ezaugarri fisikoek eta mentalek irautea. Egoera psikologikoa da, organikoa baino gehiago. *ES:* Infantilismo *FR:* Infantilisation *EN:* Infantilism *Arloa:* Med.



- Infartu:** iz. Ehunetako lesio nekrotikoa; odol-fluxu gutxiegiaren ondorioz gertatzen da. Enbolien edo tronbosien ondoriozko buxadurak dira behar bezainbat odol ez iristearen arrazioia. Bihotzean, giltzurrunetan, biriketean, gibelean, barean eta garuneko odol-hodietan gertatzen dira infartuak, batez ere. *ES:* Infarto *FR:* Infarctus *EN:* Infarct
- Infektatu:** ad. Ikus 'gaizkoatu'.
- Infekzio:** iz. Ikus 'gaizkoadura'.
- Infekzioso:** 1. izond. Gaizkoadura bat eragin dezakeena. 2. izond. Gaizkoadura batek eragin duena. *ES:* Infectioso *FR:* Infectieux *EN:* Infectious *Arloa:* Med.
- Infiltratu:** izond. Infiltrazio bidez metatutako gaia. *ES:* Infiltrado *FR:* Infiltré *EN:* Infiltrate *Arloa:* Med.
- Infiltrazio:** iz. Ehun batean, ehunari berari arrotza zaion gai baten pilaketa, eta pilaketa horren ondoriozko egoera. *ES:* Infiltración *FR:* Infiltration *EN:* Infiltration *Adibideak:* Sendagaiak (kortikoidak), eta beste. *Arloa:* Med.
- Inflamatorio:** izond. Ikus 'hanturazko'.
- Inflamazio:** iz. Ikus 'hantura'.
- Infundibulu:** iz. Inbutu-itxura duen atala edo organoa. *ES:* Infundíbulo *FR:* Infundibulum *EN:* Infundibulum *Adibideak:* giltzurrun-pelbisaren zati bakoitza, entzumen-tronparen barrunbea eta koklea hodiaren goiko muturreko barrunbea, besteak beste. *Arloa:* Anat.
- Infusorio:** izond. Zilio dardarkariz eratua dagoen protozoo mota. *ES:* Infusorio *FR:* Ciliés *EN:* Ciliates, infusorios
- Ingestio:** iz. Ahotik gai bat hartzea. *ES:* Ingestión
- Ingresatu:** ad. Ikus 'ospitaleratu'. *ES:* Ingresar, internar
- Inguru:** iz. Zerbaiten edo norbaiten hurbileko guzueen multzoa. *ES:* Proximidad *FR:* Proximité *EN:* Proximity
- Inhalagailu:** iz. Lurrin edo prestakin sendagarriak inhalazioz emateko tresna. Gas anestesikoak emateko ere erabil daiteke inhalagailua. *ES:* Inhalador *FR:* Inhalateur *EN:* Inhaler
- Inhalatu:** ad. Gasak, isurkariak, hauts bihurtutako gaiak, sendabide lurrunkorrek, eta abar, arnasmorakoan hartu. *ES:* Inhalar *FR:* Inhaler *EN:* To inhale
- Inhalatze:** iz. Ikus 'inhalazio'.
- Inhalazio:** 1. iz. Aire edo lurrinak arnastea, sendagarriak bereziki. 2. iz. Inhalazioetan erabiltzen den gaia. *ES:* Inhalación *FR:* Inhalation *EN:* Inhalation
- Inhibitu:** ad. Organismoaren funtzioa edo jarduera moteldu, kinada egoki baten bidez. *ES:* Inhibir *FR:* Inhiber *EN:* To inhibit *Arloa:* Biol.
- Inhibitzaile:** izond. Erreakzio kimiko bat nahiz prozesu bat gelditzen edo moteltzen duena. *ES:* Inhibidor *FR:* Inhibiteur *EN:* Inhibitor
- Inhibizio:** 1. iz. Inhibitzaileen bitartez, erreakzio kimiko baten abiadura moteltzea edo organo edo ehun baten ohiko jarduera geldiaraztea. 2. iz. Organo baten funtzioa murriztea edo etetea, urrutiko estimulu baten nahiz nerbioen zein hormonen eraginez. 3. iz. Jokabide-prozesu bat oharkabean mugatzea; inguruko indar sozialek zein kulturek eragina da sarritan. *ES:* Inhibición *FR:* Inhibition *EN:* Inhibition
- Injektagarri:** izond. (Gai bati buruz) Injektatzeko prestatuta dagoena. *ES:* Inyectable *FR:* Injectable *EN:* Injectable *Arloa:* Med.
- Injektatu:** ad. Likido edo gas bat gorputzean sartu, presio baxuarekin eta tresna egokien bidez, xiringaz eskuarki. *ES:* Inyectar *FR:* Injecter *EN:* To inject
- Injekzio:** 1. iz. Likido nahiz gas bat zuzenean gorputzeko ehunetan edo odolean sartzea, xiringa baten bidez. 2. iz. Injektatzen den isurkaria. *ES:* Inyección *FR:* Injection *EN:* Injection *Arloa:* Med.
- Injekzio hipodermiko:** iz. Prestakin sendagarri baten edo serumaren injekzioa, larruazalpeko ehunetan. Oro har, besoaren goialdean, izterrean eta sabelaldean jartzen da. *ES:* Inyección hipodérmica, inyección subcutánea *FR:* Injection hypodermique *EN:* Hypodermic injection *Arloa:* Med.
- Injerto:** 1. iz. Ikus 'txertatze'. 2. iz. Ikus 'txerto-ehun'.
- Inkontinentzia:** iz. Gernu- edo gorotz-hustea kontrolatzeko ezintasuna. *ES:* Incontinencia *FR:* Incontinence *EN:* Incontinence *Arloa:* Med.
- Inkontziente:** iz. Psikiatrian, adimen-funtzioen atala; hartan, kontzientziatik at daude pentsamendu, ideia, emozio edo oroitzapenak, eta ezin dira une jakin batean gogoratu. *ES:* Inconsciente
- Inkubagailu:** iz. Giro kontrolatua —bereziki, tenperaturak jakin bat— sortzeko erabiltzen den tresna. Jaioberri goiztiarren zainketarako erabiltzen da. *ES:* Incubadora *FR:* Incubateur *EN:* Incubator
- Inkubatu:** ad. Inkubazioa egin. *ES:* Incubar *FR:* Incuber *EN:* To incubate
- Inkubazio:** iz. Gaixotasun infekzioso bat kutsatu denetik lehenengo sintomak azaleratzen diren arteko aldia. *ES:* Incubación *FR:* Incubation *EN:* Incubation *Arloa:* Med.
- Inokulatu:** ad. Gorputzean gai bat sartu, gaixotasun baten aurrean gorputzaren immunitatea eragiteko zein areagotzeko. *ES:* Inocular *EN:* To inoculate *Arloa:* Med.
- Inokulazio:** iz. Birus bat edo gaixotasun-eragile den materiaren bat sartzea, ehun baten zauri baretik; nahita edo istripuz gerta daiteke. *ES:* Ino-

- culación *FR*: Inoculation *EN*: Inoculation *Arloa*: Med.
- Inorganiko**: 1. izond. Bizidunen ezaugarriak ez dituen. 2. izond. (Kimika inorganikoa) Karbonorik ez duen konposatu kimikoa. *ES*: Inorgánico *FR*: Inorganique *EN*: Inorganic
- Inplantatu**: ad. Ikus 'ezarri'.
- Inplante**: iz. Ikus 'ezarpen'
- Impotente**: izond. Inpotentzia duena. *ES*: Impotente *FR*: Impuissant. *EN*: Impotent. *Arloa*: Med.
- Inpotentzia**: iz. Gizonezko helduaren ezintasuna zakila kila zutitzeko edo, noizbehinka, zakila zutitu ondoren isurketa gertatzeko. Zenbait eratakia izan daiteke: inpotentzia anatomikoa —ugal-organoen akats fisikoen ondoriozkoa—, inpotentzia atonikoa —funtzio neuro-muskularraren asaldu baten ondoriozkoa— eta ezintasun funtzionala —oinarri psikologikoa du—. *ES*: Impotencia *FR*: Impuissance *EN*: Impotence *Arloa*: Med.
- Insomnio**: iz. Loak hartzeko edo gau osoan lo egiteko ezintasun kronikoa. *ES*: Insomnio *FR*: Insomnie *EN*: Insomnia *Arloa*: Med.
- Insomniodun**: izond. Insomnioa duen pertsona. *ES*: Insomne *FR*: Insomniaque *EN*: Insomniac *Arloa*: Med.
- Interfase**: iz. Zelularen zikloaren egoera metabolikoa; egoera horretan, zelula ez da zatitzen, kromosomak ez dira bakarka bereizten, eta fenomeno biomekanikoak eta fisiologikoak gertatzen dira. *ES*: Interfase *FR*: Interphase *EN*: Interphase *Arloa*: Biol.
- Interferon**: iz. Proteina zelular naturala; zelula birus baten edo azido nukleikoizko gorputz baten aurrean egotean eratzen da. Beste zeluletan zabaldu ondoren, galarazi egiten du birus bera nahiz bestelakoak zeluletan sartzea eta ugaltzea. *ES*: Interferón *FR*: Interféron *EN*: Interferon *Obarrak*: Gamma-interferona erabiltzen da C hepatitisaren tratamenduan. *Arloa*: Med.
- Intolerante**: izond. Intolerantziak jokatzen duena. *ES*: Intolerante *FR*: Intolérant *EN*: Intolerant
- Intolerantzia**: iz. Elikagaiak nahiz sendagaiak xurgatzeko edo metabolizatzeke ezintasuna. *ES*: Intolerancia *FR*: Intolérance *EN*: Intolerance *Arloa*: Med.
- Intoxikatu**: ad. Gai toxikoak sartu edo metatu organismo bizidun batean, kalteak sortzeko adinako kantitatean. *ES*: Intoxicar *FR*: Intoxiquer *EN*: To poison *Arloa*: Med.
- Intoxikazio**: iz. Egoera patologikoa, barne- edo kanpo-jarioko toxiko baten xurgapen jarraituak eragina. *ES*: Intoxicación *FR*: Intoxication *EN*: Intoxication *Arloa*: Med.
- Intradermiko**: izond. Ikus 'dermis barneko'. *ES*: Intradérmico
- Introjekzio**: iz. Prozesu psikiko inkontzientea; beste norbaiten edo zerbaiten ezaugarriak barna-
- tzen dira konturatu gabe. *ES*: Introyección *FR*: Introjection *EN*: Introjection *Arloa*: Psikol.
- Introspektzio**: iz. Nork bere barrua aztertzeke ekingiza, pentsamenduei eta sentimenduei dago-kienez. *ES*: Introspección *FR*: Introspection *EN*: Introspection *Arloa*: Psikol.
- Intseminatu**: ad. Intseminazio artifiziala egin. *ES*: Inseminar *FR*: Inséminer *EN*: To inseminate *Arloa*: Med.
- Intseminazio**: iz. Arraren hazia emearen bide genitalean barneratzea, obuluaeren ernalketa lortzeko. *ES*: Inseminación *FR*: Insémination *EN*: Insemination *Arloa*: Med.
- Intseminazio artifizial**: iz. Intseminazio-teknika; arrarengandik aurrez hartutako hazia —sexu-harremanik izan gabe— emearen bide genitalean barneratu, eta emearen ernalketa ahalbidetzen du. Tresna mekanikoekin egiten da. *ES*: Inseminación artificial *FR*: Insémination artificielle *EN*: Artificial insemination *Arloa*: Med.
- Intsentsibilizatu**: ad. Gorputz atal bat sentigaitz egin. *ES*: Insensibilizar *FR*: Désensibiliser *EN*: To desensitize *Arloa*: Med.
- Intsentsibilizazio**: 1. iz. Desentsibilizazio iragankorra; antigenoak etengabe emanez lortzen da. 2. iz. Sorgortasuna lortzea, anestesikoekin edo nar-koitikoekin. *ES*: Insensibilización *FR*: Insensibilisation *Arloa*: Med.
- Intsolazio**: iz. Eguzkipean denbora luzeegi egoteak dakarren egoera patologikoa. Larruazaleko erre-durak, konjuntibitisa, erretinako asaldurak, sukar altua, konbultsioak eta koma-egoera eragin ditzake. *ES*: Insolación *FR*: Insolation *EN*: Insolation *Arloa*: Med.
- Intsulina**: iz. Hormona naturala; pankreako Langerhans-en guruintxoetako zelulek jariatzen dute odoleko glukosa maila igotzean. Glukosaren metabolismoa erregulatu du. Odoleko glukosa kantitatea murrizten du, eta proteinen, gantzen eta karbohidratoen metabolismorako beharrezkoak diren bitartekoetan eragiten du. Era berean, gihar-zeluletan eta beste zenbait ehunetan glukosaren sarrera errazten du. Diabetesaren tratamenduan erabiltzen da. *ES*: Insulina *FR*: Insuline *EN*: Insulin *Arloa*: Kim.
- Intubatu**: ad. Organo batean edo gorputzeko atalen batean hodi bat sartu. *ES*: Intubar *EN*: To intubate *Arloa*: Med.
- Intubazio**: iz. Gorputzeko irekigune batetik hodi bat igaroaraztea. Arnasbideetan hodi bat sartuz egiten da bereziki, arnasbidea oztoporik gabe egon dadin eta oxigenoa ematea posible izan dadin. *ES*: Intubación *FR*: Intubation *EN*: Intubation *Arloa*: Med.
- Inude**: iz. Beste emakume baten haurrari bularra ematen dion emakumea. *ES*: Madre de leche

- Inurridura:** iz. Azkura-sentsazioa, larruazalean edo gorputzeko atalen batean. Sentimen-nerbioek kitzikapenaren aurrean duten tentsibilitatea murritzarekin batera agertzen da. Gune inurritua lokartua sentitzen du inurridura duenak. *ES:* Hormigueo *FR:* Fourmillement *EN:* Formication
- Inurritu:** ad. Gorputzeko guneren batean sentsazio desatssegina izan, bertatik inurriak igaroko balira bezala. Ziztada txikien antzeko sentsazioa da, eta nerbioak edo odol-hodiak uzkuertzean gertatzen da. *ES:* Hormigear, adormecer *EN:* To itch, to tingle
- Iodatu:** izond. Iodoa duena, edo iodoz tratatu dena. *ES:* Yodado *FR:* Iodé *EN:* Iodine *Arloa:* Kim.
- Iodo:** iz. I. Elementu kimiko ez-metalikoa, halogeno taldekoa. Oinarritzko oligoelementua da organismoarentzat. Tiroide guruinean dago organismoan iodoaren % 80. Iodo-gutxiegitasunak bozioa eragin dezake. *ES:* Yodo *FR:* Iode *EN:* Iodine *Arloa:* Kim.
- Iodoformo:** iz. Gai kimikoa; iodoa azetonarekin ingurune basikoan erreakzionaraziz lortzen da. Ehunak edo mikrobioak ukitzen baditu, iodoa askatzen du; ahalmen antiseptikoa ematen dio horrek. Hori dela eta, zauriak garbitzeko erabiltzen da. *ES:* Yodoformo *FR:* Iodoforme *EN:* Iodoform *Arloa:* Kim.
- Iodometria:** iz. Konposatu edo disoluzio bateko iodo kantitatearen zenbatespena. *ES:* Yodometría *FR:* Iodométrie *EN:* Iodometry *Arloa:* Kim.
- Ioduro:** iz. Azido iodhidrikoaren gatzen izen orokorra. Iodoa elementu metaliko batekin edo erradikal batekin konbinatuz lortzen da. Sodio-eta potasio-ioduroak dira medikuntzan gehien erabiltzen diren gatzak. *ES:* Yoduro *FR:* Iodure *EN:* Iodide *Arloa:* Kim.
- Ioi:** iz. Karga elektriko duen edozein atomo edo molekula. Disoziazio elektrolitikoaren ondorioz eratzen da, eta, beraz, karga positiboa (katioia) nahiz negatiboa (anioia) izan dezake. *ES:* Ion *FR:* Ion *EN:* Ion *Arloa:* Kim.
- Ioniko:** 1. izond. Ioiéi dagokiena. 2. iz. (Lotura ioniko) Atomoen arteko lotura mota; atomo batek bestera elektroio bat edo gehiago transferitzen dira, eta biak ioi bihurtu (lehena positiboa, eta bigarrena negatiboa) eta, erakarpen elektrostatiokoaren ondorioz, atomoak lotuta mantentzen dira. *ES:* Iónico *FR:* Ionique *EN:* Ionic *Arloa:* Kim.
- Ipurdi:** iz. Bizkarraren bukaeraren eta izterren hasieraren arteko zatia; uzkia inguratzen duen zati mamitsua da. *ES:* Nalgas *FR:* Cul *EN:* Backside
- Ipurmasail:** iz. Bizkarraren beheko aldean dauden bi masa haragitsuetariko bakoitza. Gantzez eta gluteo-giharrez eratuak daude. *ES:* Nalga *FR:* Fesse *EN:* Buttock
- Ipurmasaileko gihar:** iz. Ipurmasaileko hiru giharretariko bakoitza. *ES:* Músculo glúteo *FR:* Muscle flessier *EN:* Muscle gluteus *Arloa:* Anat.
- Irabiagailu:** iz. Produktuak birrintzeko eta nahasteko erabiltzen den tresna. *ES:* Agitador *FR:* Agitateur *EN:* Agitator *Arloa:* Kim.
- Irabiatu:** ad. Osagaiéi mugimendu indartsuz eragin, nahaste likido bat lortzearen. *ES:* Agitar *FR:* Agiter *EN:* To agitate *Arloa:* Kim.
- Irabiatze:** iz. Nahaste likido bat lortzearen, osagaiéi mugimendu indartsuz eragitea. *ES:* Agitación *Arloa:* Kim.
- Iragankor:** izond. Iraupen laburrekoa; aldi baterako dena. *ES:* Transitorio *FR:* Transitoire *EN:* Transient
- Iragankortasun:** iz. Iragankorra denaren ezaugarria. *ES:* Transitividad *FR:* Transitivité *EN:* Transitivity
- Iragarri:** ad. Zerbait aurrez ikusi edo adierazi, gertakarietan nahiz zeinuetan oinarrituz. *ES:* Pronosticar *FR:* Pronostiquer *EN:* To prognosticate
- Iragazezintasun:** iz. Ikus 'iragazgaitasun'.
- Iragazgaitz:** izond. Bere baitatik isurkaririk edo erradiaziorik igarotzen uzten ez duen gorputza. *ES:* Impermeable *FR:* Imperméable *EN:* Impermeable
- Iragazgaitzasun:** izond. Iragazgaitza denaren ezaugarria. *ES:* Impermeabilidad *FR:* Imperméabilité *EN:* Impermeability
- Iragazgaitzu:** ad. Zerbait iragazgaitz egin. *ES:* Impermeabilizar *FR:* Imperméabiliser *EN:* To waterproof
- Iragazi:** ad. Solidoak edo partikulak likido batetik bereizi, iragazki batetik igaroaraziz. *ES:* Filtrar *FR:* Filtrer *EN:* To strain
- Iragazketa:** 1. iz. Iragazki bat erabiliz, disoluzio bati solutua kentzea; likido bat garbitzeko edo esterilizatzeko egiten da. 2. iz. Erradioterapian, X izpiak xafla batetik igarotzeko ekintza. Aluminioko, kobrezkoa, beruneko edo eztainuzkoa izan daiteke xafla hori. Izpi bigunak atzean utzi, eta gogorak edo sarkorak soilik igaro daitezten uzten du. *ES:* Filtración *FR:* Filtration *EN:* Filtration
- Iragazki:** iz. Oro har, bereizgailua; materia edo energia tarte bat igarotzen uzten du, eta beste tarte bat moteldu edo geldiarazi egiten du. *ES:* Filtro *FR:* Filtre *EN:* Filter
- Iragazkor:** izond. Likidoek edo gasek zeharka dezaketena. *ES:* Permeable *FR:* Perméable *EN:* Permeable
- Iragazkortasun:** iz. Gai batek beste batean zehar igarotzeko duen ahalmena. *ES:* Permeabilidad *FR:* Perméabilité *EN:* Permeability

**Iragazkortu:** ad. Iragazkor bihurtu. *ES:* Permeabilizar

**Iragazpen:** iz. Ikus 'iragazketa'.

**Iraitzi:** ad. Digestio-hondakinak eta bestelako toxikano organismotik kanporatu. *ES:* Excrementar, excretar *FR:* Excréter *EN:* To defecate, to excrete *Arloa:* Biol.

**Iraizle:** 1. izond. Iraizteko balio duen organoa; iraitze-prozesuari dagokiona. 2. izond. Iraiztegaiak kanporatzen dituen hodia. *ES:* Excretor *FR:* Excréteur *EN:* Excretory

**Iraizpen:** iz. Organismoko organoek nahiz ehunek metabolismoak ekoiztutako gaiak kanporatzeko edo askatzeko prozesua. *ES:* Excreción *FR:* Excrétion *EN:* Excretion *Arloa:* Biol.

**Iraun:** ad. Bizitzen jarraitu, oztopoak gaindituz. *ES:* Pervivir *FR:* Persévérer *EN:* To live on, to persist, to survive

**Iraunkor:** izond. Behin eta berriz agertzen dena, edo joaten ez dena. *ES:* Persistente *FR:* Persistant *EN:* Persistent *Adibideak:* Joaten ez den mina, behin eta berriz agertzen den sintoma (eztula, ez-tarriko, marranta...), eta abar.

**Irekiera:** iz. V formako ebakiera edo sakongunea, nagusiki hezurren nahiz organoen alboetan agertzen dena. *ES:* Escotadura *FR:* Encoche *EN:* Notch

**Iren:** izond. Ugal-organoak erauzi dizkioten pertsona. *ES:* Castrado *FR:* Châtré *EN:* Castrated

**Irendu:** ad. Ugal-organoak erauzi. *ES:* Castrar *FR:* Castrer *EN:* To castrate

**Irensketa:** iz. Elikagaiak ahotik urdailera igarotzea, hestegorritik barrena. Horretarako, beharrezkoa da gihar guztiak koordinatzea, mihitik hasi eta hestegorriko beheko esfintererraino. *ES:* Deglución *FR:* Déglutition *EN:* Swallowing

**Irenste:** iz. Ikus 'irensketa'.

**Irentsi:** ad. Zerbait aho-barrunbean sartu, hestegorritik igarorazi eta urdailera helarazi. *ES:* Deglutir

**Irentzaile:** izond. Irentzen duena; sinbolikoki erabiltzen da psikologian. *ES:* Castrador *FR:* Châtreur *EN:* Castrator *Arloa:* Psikol.

**Irentze:** iz. Ugal-organoak erauztea, hala gizonaren barrabilak nola emakumearen obulutegiak. Batez ere zenbait hormonaren ekoizpena eta jariora murrizteko egiten da, emakumeen bularreko minbizia edo gizonen prostatakoka ekiditeko. *ES:* Castración *FR:* Castration *EN:* Castration

**Iridologia:** iz. Osasun-egoera orokorra ezagutzeko edo gaixotasunak diagnostikatzeko metodoa; irisaren itxura aztertuz egiten da. *ES:* Iridología *FR:* Iridologie *EN:* Iridology

**Iris:** iz. Begi-mintz biribil, pigmentatu, uzkurgarri eta baskularra; kornearen atzean eta kristalinoaren aurrean dago. Begiaren aurreko eta atzeko

barrunbeak bereizten ditu, eta begiaren aurreko humore urtsuak bustitzen du. *ES:* Iris *FR:* Iris *EN:* Iris *Arloa:* Anat.

**Irradiatu:** 1. ad. Gorputz batek erradiazioak igorri. 2. ad. Gorputz bat edo material bat erradiaziopean jarri, diagnostikorako, tratamendurako, esterilizatorako; istripu baten eraginez ere gerta daiteke. *ES:* Irradier *FR:* Irradier *EN:* To irradiate *Arloa:* Fis. 3. ad. Izpiak igorri; bereziki, tumor batek erasandako ehunetara. *ES:* Radiar *FR:* Irradier *EN:* To radiate, to irradiate *Arloa:* Med.

**Irradiazio:** 1. iz. Edozein erradiazio mota hartzea. 2. iz. Izpien erabilera, helburu diagnostikoetarako eta terapeutikoetarako. *ES:* Irradiación *FR:* Irradiation *EN:* Irradiation *Oharrak:* Irradiazio-energiaren iturri erradioaktiboak, X izpiak eta iodo- edo kobalto-isotopoak erabiltzen dira, barne-egiturak aztertzeo nahiz minbizi-zelula bihurtu diren zelulak eta mikroorganismoak deuseztatzeko. *Arloa:* Fis.

**Irrigihar:** iz. Ikus 'gihar erisorio'.

**Irri sardoniko:** iz. Aurpegiko giharren uzkuradura tetanikoa, irriaren keinua gogorarazten duena. Tetanosean gertatzen da. *ES:* Risa sardónica *FR:* Rire sardonique *EN:* Risus sardonicus *Arloa:* Med.

**Irribarre sardoniko:** iz. Aurpegiko keinu berezia, irribarrearen antzekoa. Tetanosean agertzen da. *ES:* Sardónico *FR:* Sardonique *EN:* Sardoniac *Arloa:* Med.

**Irrigatu:** 1. ad. Odol-hodiek odola organismoaren ehunetara eraman. 2. ad. Gune bat likidoz garbitu; eskuarki xiringa baten enboloan modu jarraituan arinki sakatuz lortzen da. Zauri bat edo hodi bat garbitzeko egin daiteke. *ES:* Irrigar *EN:* To irrigate *Arloa:* Biol., Med.

**Irrigazio:** iz. Gorputz-barrunbe bat edo zauri bat garbitzeko egiten den ekintza; helburu terapeutikoa du. Ura nahiz sendagai likidoak erabil daitezke horretarako. *ES:* Irrigación *FR:* Irrigation *EN:* Irrigation *Arloa:* Biol., Med.

**Irrika:** iz. Prozesu dinamikoa; organismoa helburu baterantz eramaten duen bulkada bat da. Freuden arabera, gorputz-kitzikapenetan —tentsio-egoeretan— du jatorria irrika batek. Tentsio hori desagerraraztea du helburu. *ES:* Pulsión *FR:* Pulsion *EN:* Drive *Arloa:* Psikol.

**Irten:** izond. Ingerukoak baino kanporago dagoena. *ES:* Protuberante, prominente *EN:* Protuberant

**Irtengune:** iz. Koskorra; tumor batek nahiz gantz-pilaketa batek sortua izan daiteke, edota kolpe baten ondorioz gorputzeko gune batean egiten den handitu gogorra, besteak beste. *ES:* Abultamiento, prominencia, protuberancia *Arloa:* Med.

- Isipula:** iz. Larruazaleko gaixotasun kutsagarria; gorritasuna, tumefakzioa, puslak, babak, sukarra, mina eta adenopatia linfatikoak ditu ezaugarri. Larruazaleko urratu txiki bat edo mukosetako lesio bat izan daitezke gaizkoaduraren sarbide. 8-10 egun irauten du gaixotasunak. *ES:* Erisipela *FR:* Érysipèle *EN:* Erysipelas *Arloa:* Med.
- Iskemia:** iz. Gorputzeko organo edo atal batera doan odol-fluxuaren murriztapena; mina eta dis-funtzio organikoa dakartza sarritan. Bihotz-giharren iskemiak bular-angina eragin dezake. *ES:* Isquemia *FR:* Ischémie *EN:* Ischemia *Arloa:* Med.
- Iskiatiko:** izond. Iskionari dagokiona. *ES:* Isquiático *FR:* Sciatique *EN:* Sciatic *Arloa:* Anat.
- Iskion:** iz. Hezur koxalaren hiru zatietariko bat, ilionarekin eta pubisarekin batera. Hezur koxalaren atzeko aldea osatzen du, eta bi zatitan banatzen da: gorputza, azetabuluaren 2/5 dena, eta adarra, pubiseko beheko adarrarekin elkartzen dena. *ES:* Isquion *FR:* Ischion *EN:* Ischium *Arloa:* Anat.
- Isolatu:** ad. Gorputz bat kanpoko eraginetatik babestu. *ES:* Aislar *FR:* Isolier *EN:* To insulate
- Isolatu:** izond. Kanpoko eraginetatik babestua dagoena. *ES:* Aislado *FR:* Isolé(e) *EN:* Isolated
- Isomeria:** iz. Bi konposatu kimikoren edo gehiagoren arteko erlazioa. Konposatu horiek elementu berdinak dituzte, kopuru berean, gainera; hala ere, ezaugarri edo espazio-egitura desberdinak dituzte. *ES:* Isomería, isomerismo *FR:* Isomérie *EN:* Isomerism *Arloa:* Kim.
- Isomero:** iz. Formula molekular berdina baina egitura molekular desberdina duten konposatuak. Ondorioz, ezaugarri desberdinak dituzte. *ES:* Isómero *FR:* Isomère *EN:* Isomer *Arloa:* Kim.
- Isotoniko:** izond. (Disoluzioei buruz) Beste disoluzio baten solutu-kontzentrazio berdina duena. *ES:* Isotónico *FR:* Isotonique *EN:* Isotonic
- Istmo:** iz. Bi barrunbe elkartzen dituen igarobide estua, edo organo nahiz atal baten zati estuagoa. *ES:* Istmo *FR:* Isthme *EN:* Isthmus *Oharrak:* Ugari dira istmoa duten organoak: aorta, faringea, prostata, tiroidea, entzefaloa, eta abar. *Arloa:* Anat.
- Istripu:** iz. Ustekabeko gertaera; heriotza edo lesioak ekar ditzake. Eragilea gorputzetik kanpoko izan daiteke (auto-istripuak, lan-istripuak, eta abar) edo gorputzaren barrukoa (garuneko hodi-tako istripua, adibidez). *ES:* Accidente *FR:* Accident *EN:* Accident, attack
- Isuraldatu:** ad. Ikus 'transfusioa egin'.
- Isuraldatze:** iz. Ikus 'transfusio'.
- Isuri:** ad. Ikus 'eiakulatu'.
- Isuri:** iz. Odol-hodietatik gorputz-barrunberako likido-ihesa, hodian hausturaren edo iragazkorta-sunaren ondoriozkoa. Gehienetan, harreman zuzena izaten du zirkulazio-zein giltzurrun-eritasunekin. *ES:* Derrame *FR:* Épanchement *EN:* Effusion *Arloa:* Med.
- Isuria izan:** ad. Ikus 'jariatu'. *ES:* Segregar, chorrear
- Isurtze:** iz. Ikus 'eiakulazio'.
- Itaun sorta:** iz. Ikus 'galdeketa'.
- Ito:** ad. Ikus 'asfixiatu'.
- Itoaldi:** iz. Ikus 'asfixia'.
- Itobehar:** iz. Ikus 'asfixia'.
- Itobehar-sentsazio:** iz. Ikus 'beroaldi'.
- Itogarri:** izond. Arnasketa eragozten duena; itotzen duena. *ES:* Sofocador, sofocante *FR:* Suffocant *EN:* Suffocant *Adibideak:* Anginak, bronkio-kattarroak.
- Itolarri:** iz. Ikus 'asfixia'.
- Itolarria eragin:** ad. Itomena eragin; norbaiten arnasketa eragotzi. *ES:* Sofocar *FR:* Asphyxier *EN:* To suffocate
- Itomen:** iz. Arnasa hartzeko zailtasuna; arnasbi-deen buxadurak edo ingurune itxietan egoteak eragin ohi du. *ES:* Sofocación *FR:* Suffocation *EN:* Suffocation
- Itotako:** izond. Arnasa hartu ezinik hil dena. *ES:* Ahogado
- Itotasun:** iz. Ikus 'asfixia'.
- Itotzeko moduko:** izlag. Ikus 'itogarri'.
- Itsu:** izond. Ikusten ez duena. *ES:* Invidente, ciego *FR:* Aveugle *EN:* Blind *Oharrak:* Itsutasuna ez da beti erabatekoa izaten.
- Itsumen:** iz. Ikus 'itsutasun'.
- Itsutasun:** iz. Ikusmenaren galera edo ikusmenik eza; sortzetikoa nahiz hartutakoa izan daiteke. *ES:* Ceguera *FR:* Cécité *EN:* Blindness
- Itsutu:** ad. Ikusmena galdu, edo itsu utzi. *ES:* Cegar
- Itxi:** ad. Ikus 'buxatu'. *ES:* Taponar
- Itxura:** iz. Pertsona edo objektu baten irudia edo fisionomia. *ES:* Aspecto *FR:* Apparence *EN:* Appearance
- Itxuragabe:** izond. Ikus 'deformatu'.
- Itxuragabetasun:** iz. Gorputz osoak nahiz haren zati batek jasandako desitxuratzea, akatsa edo malformazioa. Gaixotasun edo lesio baten ondoriozkoa edo jaiotzetikoa izan daiteke. *ES:* Deformidad *FR:* Déformation *EN:* Deformity
- Itxuragabetu:** ad. Lehengo itxura ona galdu. *ES:* Desfigurar
- Itxuragabetze:** iz. Ikus 'deformazio'.
- Itzulezin:** 1. izond. (Egoerei edo gaixotasunei buruz) Atzera itzul ezin daitekeena. 2. izond. Norabide bakarrean doana; erreakzio kimikoei, koloidei, nerbio-kinadei eta abarrei dagokie. *ES:* Irreversible *FR:* Irréversible *EN:* Irreversible
- Itzulkor:** izond. Ikus 'atzerakari'.



**Itzulpen:** iz. Genetika molekularrean gertatzen den prozesua; polipeptido jakin baten sintesian, RNA mezulariko nukleotidoek garraiatutako informazio genetikoak aminoazidoen sekuentzia zuzentzen du. *ES:* Traducción *FR:* Traduction *EN:* Translation

**Itzultze:** iz. Ikus 'itzulpen'.

**Ixte:** iz. Ikus 'buxadura'. *ES:* Taponamiento

**Izaera:** iz. Gizaki baten osaera; ezaugarri fisiologikoen eta psikikoen emaitza da. *ES:* Temperamento *FR:* Tempérament *EN:* Temperament *Arloa:* Psikol., Psikiat.

**Izerdi-:** (Hitz elkartuetan) Izerdia jariatzen duena. *ES:* Sudoríparo *FR:* Sudoripare *EN:* Sudoriferous, sweat

**Izerdi:** iz. Izerdi-guruinekin jariatzen duten likido argi, gazi eta usaintsua; larruazalean tantak eratuz agertzen da. Hainbat osagai ditu: gatzak —sodio kloruroa nagusiki—, kolesterina, gantzak, gantzazidoak, albumina-arrastoak, urea eta abar. Gorputzeko tenperatura erregulatzeko balio du. *ES:* Sudor, perspiración *FR:* Sueur *EN:* Sweat, perspiration

**Izerdiarazle:** izond. Izerditzea eragiten duen gai bati edo gaixotasun bati dagokiona. *ES:* Sudorífico *FR:* Sudorifique *EN:* Sudorific *Arloa:* Med.

**Izerdiarazteko:** izlag. Ikus 'izerdiarazle'.

**Izerdi-guruin:** iz. Larruazaleko guruinak; glomerulu eran bildutako hodi batez eratutako daude. Dermisean daude, eta izerdia jariatzen dute. Izerdi-guruin bakoitza tutu bakarraz eratu dago; tutu horrek bi zati ditu: dermis sakonean dagoen gorputz biribilkatua eta azalean irekitzen den hodi zuzena. *ES:* Glándula sudorípara *FR:* Glande sudoripare *EN:* Sweat gland *Oharrak:* 24 orduan, 700-900 gramo izerdi jariatzen dira gutxi gorabehera.

**Izerditsu:** izond. Izerdiz blai dagoena; izerdikorra. *ES:* Sudoriento, sudoroso *EN:* Sweaty

**Izerditu:** ad. Izerdia bota, izerditan egon. *ES:* Sudar *FR:* Suer, transpirer *EN:* To sweat, to perspire

**Izozketa:** iz. Hotzak organismoan eragindako kaltea, gune batekoa edo orokorra; behin-behinekoa edota behin betikoa izan daiteke. Arteria txikiak estutzea eta ixtea da lehenbiziko ondorioa eta, horren eraginez, iskemia gertatzen da. Egoera

hori gehiegi luzatzen bada, ehunen heriotza (nekrosia) ekar dezake iskemiak. *ES:* Congelación *FR:* Congélation *EN:* Freezing *Arloa:* Med.

**Izoztu:** ad. Ehun organikoak kaltetu, hotzaren eraginez. *ES:* Congelar *FR:* Congeler *EN:* To freeze *Arloa:* Med.

**Izpi katodikoak:** iz. Elektroikorrantea; barnea hutsik daukan hodi bateko katodotik sortzen da. Lerro zuzenean higitzen da, eta X izpiak eragiten ditu hodiko antikatodoarekin talka eginda. *ES:* Rayos catódicos *FR:* Rayon cathodique *EN:* Cathode ray

**Iztai:** iz. Ikus 'iztarte'.

**Iztarte-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'iztarte'.

**Iztarte:** iz. Sabelalde eta izterra elkartzen diren zatietariko bakoitza. *ES:* Ingle *FR:* Aine, inguen *EN:* Geoin, inguen *Arloa:* Anat.

**Iztarteko:** izlag. Iztaikoa, edo hari dagokiona. *ES:* Inguinal *FR:* Inguinal *EN:* Inguinal *Arloa:* Anat.

**Izter-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'krural'.

**Izter:** iz. Beheko gorputz-adarraren goiko atala, aldakaren eta belauraren artekoa. *ES:* Muslo *FR:* Cuisse *EN:* Thigh *Arloa:* Anat.

**Izterrezur:** iz. Ikus 'femur'.

**Iztezain:** iz. Ikus 'belaunpe'.

**Iztondo:** iz. Ikus 'iztarte'.

**Izurri:** iz. *Pasteurella pestis* edo *Yersinia pestis* bazioloek eragindako gaixotasun kutsagarri eta oso larria. Arratoiak —eta gaitzak erasaten ez dien beste zenbait animalia— izaten dira izurriaren gordailu. Transmisioa arratoiaren arkakuso baten ondorioz gertatzen da, eta, zenbait kasutan, gizakiaren arkakusoaren ondorioz. *ES:* Peste *FR:* Peste *EN:* Plague

**Izurri buboniko:** iz. Izurriaren erarik arruntena. Ezaugarri ditu: besapeko, iztondoko nahiz lepoko zorne-zorro edo buboiak, sukarra (sarritan 41 °C-ra iristen da), pulsu ahul eta azkarra, hipotentsioa, eldarnioa eta larruazaleko odoljarria. *Yersinia pestis* bazioloak askatutako toxina bat izan ohi da sintomen eragilea. *ES:* Peste bubónica *FR:* Peste bubonique *EN:* Bubonic plague *Arloa:* Med.

**Izurrite:** iz. Ikus 'epidemia'.

**Izurritu:** ad. Bizkarroi batek ostalariaren ehunen aurka ekin. *ES:* Infestar *FR:* Attaquer *EN:* To infect



# J

**Jagole:** iz. Ikus 'zaintzaile'.

**Jago:** ad. Ikus 'zaindu'.

**Jaio:** ad. Mundura etorri, amaren sabeletik irten.  
*ES:* Nacer *FR:* Naître *EN:* To born

**Jaio aurreko:** 1. izlag. Jaiotza aurretik dagoena edo gertatzen dena. 2. izlag. Haurdunaldian zehar, emakumearen zainketei eta umekiaren hazkuntzari eta garapenari dagokiona. *ES:* Prenatal *FR:* Prénatal *EN:* Prenatal

**Jaioberri:** izond. (Haurrei buruz) Jaiotzatik lau asterrainokoa. *ES:* Recién nacido, neonato *FR:* Nouveau-né *EN:* Newborn

**Jaioberriko:** izlag. Ikus 'neonatal'.

**Jaiotza:** iz. Izaki berri baten etorrera, amaren umetokitik irtenda. *ES:* Nacimiento *FR:* Naissance *EN:* Birth

**Jaiotza ondoko:** izlag. Jaiotza ondoren gertatzen dena. *ES:* Posnatal *FR:* Postnatale *EN:* Postnatal

**Jaiotza osteko:** izlag. Ikus 'jaiotza ondoko'.

**Jaiotzetiko:** 1. izlag. Pertsona jaiotzearekin batera sortzen dena; jaiotze-une beretik edo lehenagotik badena; hartua ez dena. 2. iz. (Jaiotzetiko gaitza) Gorputzaren egiturako edo funtzioaren bateko akatsa, jaiotzean ere badena. *ES:* De nacimiento *FR:* Inné *EN:* Innate

**Jaki:** iz. Ikus 'bizigai'.

**Jakinarazi:** ad. Ikus 'komunikatu'.

**Jakinarazpen:** iz. Ikus 'komunikazio'.

**Jalki:** ad. Ikus 'sedimentatu'.

**Jalkin:** iz. Ikus 'sedimentu'.

**Jalkitze:** iz. Ikus 'sedimentazio'.

**Jan:** ad. Elikagai bat hartu, murtxikatu eta irentsi.  
*ES:* Comer *FR:* Manger *EN:* To eat

**Janari:** iz. Ikus 'bizigai'.

**Jangai:** iz. Jateko balio dezakeen gai oro. *ES:* Comestible *FR:* Comestible *EN:* Edible

**Jangurarik ez:** iz. Jateko gogorik eza; anorexia. *ES:* Inapetencia *FR:* Inappetence *EN:* Inappetence

**Jaraungarri:** izond. Ikus 'heredagarri'.

**Jarauntsi:** ad. Ikus 'heredatu'.

**Jarduera:** iz. Pertsona edo talde bati dagokion ekintzen multzoa. *ES:* Actividad *FR:* Tâche *EN:* Activity *Adibideak:* Erizaintzako jarduera.

**Jariakin:** iz. Guruin-organoetako zelulek ekoiztutako gai kimikoa. *ES:* Secreción *FR:* Sécrétion *EN:* Secretion *Arloa:* Biol.

**Jariakor:** izond. Jariakortasuna duena.

**Jariakortasun:** iz. Magnitueda; isurkari bateko partikulek beren artean labaintzeko duten erraztasuna azaltzen du. *ES:* Fluidez *FR:* Fluidité *EN:* Fluidity

**Jariatu:** 1. ad. Barrunbe, hodi, organo edo larruazalera iraitzi zelulek nahiz guruinek ekoiztutako gai bat. *ES:* Segregar, chorrear *FR:* Ségréger *EN:* To segregate, to secrete 2. ad. Isurkari edo gas bat to-kiren batetik kanpora irten. *ES:* Efluir *Arloa:* Biol.

**Jariatzaile:** izond. Jariatzeko gaitasuna duena. *ES:* Secretor, -a, secretorio *FR:* Sécréteur *EN:* Secretor, secretory *Arloa:* Biol.

**Jariatze:** iz. Guruin-organoetako zelulek ekoizten dituzten gai kimikoak askatzea. *ES:* Secreción

**Jario:** iz. Barrunbe batetik kanpora irtendako isurkaria edo gasa. *ES:* Secreción *FR:* Sécrétion *EN:* Secretion

**Jarioa izan:** ad. Ikus 'jariatu'.

**Jarraibide:** iz. Ikus 'prozedura'.

**Jarraipen:** iz. Informazio-iturriekin kontaktua berri-tzeko eta beharrezkoak diren datuak berrikus-terako ekintza; aurretiko txostena nahiz ekintza balioesteko edo sendotzeko egiten da. *ES:* Seguimiento *FR:* Suivi *EN:* Follow-up *Adibideak:* Diagnostiko baten edo aurreko pronostiko baten berrazterketa.

**Jarrera:** 1. iz. Gorputzaren kokaera. 2. iz. Pertsonak zerbaiti edo norbaiti erantzuteko duen joera. *ES:* Actitud *FR:* Attitude *EN:* Attitude *Oharrak:* Jokabidea nolakoa izango den iragartzen du; baina ez beti, hiru osagai baititu jarrerak: kognitiboa, afektiboa eta konatiboa. *Arloa:* Psikol.

**Jarri:** ad. Zerbait kokatu eragile baten ekintza jasan dezan. *ES:* Exponer *FR:* Exposer *EN:* To expose

**Jatorri:** iz. Zerbait hasten den denbora edo inguru-nea. *ES:* Proveniencia, procedencia *FR:* Provenance *EN:* Provenance 2. iz. Ikus 'kausa'. 3. iz. Ikus 'leinu'.

**Jatorrizko:** izlag. Primitiboa, sortzetikoa. *ES:* Primitivo *EN:* Original

**Jazarpen-mania:** iz. Ikus 'pertsokuzio-mania'.

**Jele:** iz. Gai bigun gardena; eskuarki, koloide-masa erdi solidoa da. *ES:* Jalea *FR:* Geleé *EN:* Jelly

**Jipoitu:** izond. Ikus 'zauritu'.

**Jite:** iz. Ikus 'izaera'.

**Jokabide:** iz. Pertsona baten jarduera bat edo guz-tiak. Zuzenean ikus daitezkeen ekintza fisikoak eta gogamenaren jarduera —ondorioztatua eta

interpretatua— biltzen ditu. *ES: Conducta FR: Conduite EN: Conduct*

**Jokaera:** iz. Ikus 'jokabide'.

**Josi:** ad. Etendako ehunen ertzak jostorrazaz eta hariaz elkartu. *ES: Suturar FR: Suture EN: To suture Oharrak:* Lehen mailako orbaintzea du helburu. *Arloa:* Med.

**Jostura:** iz. Ikus 'sutura'.

**Jostura sagital:** iz. Garezureko hezur parietalen arteko lerro horzduna. *ES: Sutura sagital FR: Suture sagittale EN: Sagittal suture Arloa:* Anat.

**Jugular:** 1. izond. Lepoari dagokiona, edo lepoan dagoena. 2. iz. Zain jugular: Lepoaren alde banatara dauden zain handietako bakoitza. Kanpoko zain jugularrak garezurraren kanpoaldeko eta aurpegiko ehun sakonetako odol gehiena biltzen du. Lepoan zehar jaisten da, eta subklabia zainarekin elkartu. Barnekoak entzefaloko, aurpegiko eta lepoko odola biltzen du, eta hura ere subklabia zainarekin elkartzen da. *ES: Yugular FR: Jugulaire EN: Jugular Arloa:* Anat.

# K

.....

- Kaba benoklisi:** iz. Tratamendu mota; anuria dakarren giltzurrunetako gutxiegitasuna sendatzeko erabiltzen da. Nilonezko bihotz-zunda erradiopako bat sartzen da giltzurrun-zainen irekiguneraino, zain femoraletik edo eskuineko aurikularen sarreratik. Horrela, likido hipertoni-koz osaturiko fluxu bat lortzen da. *ES:* Cava, venoclisis
- Kaba zain:** iz. Zirkulazio periferikotik bihozaren eskuin-aurikulara odola garraiatzen duten bi zain handietako bakoitza. Goiko kaba zainak diafragmaz gorako zainetako odol guztia biltzen du; beheko kaba zainak, berriz, diafragmaz beherako odola. *ES:* Vena cava *FR:* Veine cave *EN:* Vena cava *Arloa:* Anat.
- Kadmio:** iz. Cd. Elementu kimiko metalikoa, zilar kolorekoa. Beti zinkarekin batera aurki daiteke naturan. Haren gatzak toxikoak dira. Antiseptiko gisa eta hanturaren aurka erabili izan da begietan, belarrietan, uretran, gongoiletan eta larruazalean, besteak beste. *ES:* Cadmio *FR:* Cadmium *EN:* Cadmium *Arloa:* Kim.
- Kafeina:** iz. Kafearen alkaloidea; tean eta kolan ere agertzen da. Nerbio-sistema zentrala pizten du, eragin diuretiko du eta ehunak zahartzea atzeratzen du. *ES:* Caféina *FR:* Caféine *EN:* Caffeine *Oharrak:* Bihotzeko eritasunetan erabiltzen da toniko gisa, eta baita migrainaren, loguraren eta buru-nekearen tratamenduan ere. Eragin oso azkarrekoa da.
- Kailu:** iz. Ikus 'maskur'.
- Kailuen kontrako:** izlag. Ikus 'maskurren kontrako'.
- Kaka egin:** ad. Sabela hustu, gorozkia uzkitik kanporatuz. *ES:* Deponer, cagar, evacuar, defecar
- Kakahuete:** iz. Leguminosoen familiako landare belarkara, urterokoa; hosto konposatuak eta lore txiki horiak ditu. Haren fruitua —izen berekoa— aberatsa da gantzetan eta bitaminetan. Olio edo gurina lortzeko erabiltzen da, eta bai halaber xigorturik eta gaziturik hartzeko ere. *ES:* Maní, cacahuete *FR:* Arachide *EN:* Peanut
- Kaka-jario:** iz. Ikus 'beherako'.
- Kakektiko:** izond. Kakexiari dagokiona. *ES:* Caquéctico
- Kakeria:** iz. Ikus 'beherako'.
- Kakexia:** iz. Gaixotasun- eta malnutrizio-egoera orokorra; ahulezia eta argaltzea ditu ezaugarri. Gaixotasun larriekin —tuberkulosia, minbizia, eta abar— batera agertzen da, eskuarki. *ES:* Caquexia *FR:* Cachexie *EN:* Cachexia *Arloa:* Med.
- Kakosmia:** iz. Usain txarra —halakorik ez dagoenean ere— sumatzen duen asaldia. Jatorri psikologikoa du, gehienetan. *ES:* Cacosmia *FR:* Cacemie *EN:* Cacosmia *Arloa:* Med.
- Kalamu:** iz. Ikus 'cannabis indica'. *ES:* Cábamo
- Kalanbre:** iz. Gihar baten edo gehiagoren bat-bateko uzkurdua mingarria. Iragankorra izan ohi da. Bi motatakoa izan daiteke: atsedenean gertatzen dena —hotzaren ondorioz, gehienetan— eta ariketa fisikoaren ondorioz gertatzen dena —gorputz-adarretara behar hainbeste oxigeno iristen ez delako—. *ES:* Calambre *FR:* Crampe *EN:* Cramp
- Kalibragailu:** 1. iz. Zulo baten diametroa handitzeko erabiltzen den tresna. Esate baterako, uretaren estutasunari aurre egiteko dilatatzailea. 2. iz. Zulo bat neurtzeko erabiltzen den tresna. *ES:* Calibrador *FR:* Calibreteur *EN:* Calibrator
- Kaliza-itxurako zelula:** iz. Ikus 'zelula kaliziforme'.
- Kalkaneo:** iz. Orpoko hezurra, motza eta irregularra; oinaren atzealdean dago, eta tartsoa osatzen du. *ES:* Calcáneo *FR:* Calcaneum *EN:* Calcaneum *Arloa:* Anat.
- Kalkulu:** iz. Organismoan sortzen den konkrezioa; likidoak gordetzen dituzten barrunbetan eta hodi-etan —giltzurrunetan, behazun-maskurrian, gernubideetan, eta abar— sortzen dira, gatz mineralazko mukosaz estalitako barrunbetan batik bat. *ES:* Cálculo *FR:* Calcul *EN:* Calculus *Arloa:* Med.
- Kaloria:** iz. Kilogramo 1 uren temperatura 1 °C igozteko beharrezkoa den bero kantitatea. *ES:* Caloría *FR:* Calorie *EN:* Calorie
- Kaloriko:** 1. izond. Beroari edo kaloriari dagokiona. 2. izond. Beroa sortzen duena. *ES:* Calórico *FR:* Calorique *EN:* Caloric
- Kalte:** iz. Sentsazio desatsegina gorputzeko gun- batean; kolpeen, ebakien, zaurien, eta abarren ondorioz nahiz organismoaren funtzionamenduan oreka galtzearen edo bestelako arazoren baten ondorioz gertatzen da. *ES:* Daño *FR:* Dom- mage *EN:* Damage
- Kalte egin:** 1. ad. Desoreka edo galera bat eragin organismoaren atal nahiz funtzio batean. 2. ad.

- Min-sentsazioa eragin. *ES:* Dañar *FR:* Endomager *EN:* To damage
- Kaltegarri:** 1. izond. Ez-osasuntsua; osasunarentzat kaltegarria dena. *ES:* Insalubre, insano *FR:* Insalubre *EN:* Unhealthy 2. izond. Kalte egin dezakeena. *ES:* Perjudicial *FR:* Nuisible *EN:* Harmful 3. izond. Kaltea eragiten duena. *ES:* Dañino *FR:* Nuisible *EN:* Destructive
- Kalterako:** izlag. Ikus 'kaltegarri'.
- Kalterik gabe:** izond. Lesiorik gabea. *ES:* Ileso *FR:* Illésé *EN:* Unhurt
- Kaltetu:** izond. Ikus 'biktima'.
- Kaltziferol:** iz. D bitamina sintetikoa (edo D2 bitamina). Errakitismoaren, osteomalaziaren eta beste zenbait hipokaltzemia-asalduren prebentzioan eta tratamenduan erabiltzen da, elikaduraren osagarri gisa. Elementu garrantzitsua da, kaltzioa hezurretan behar bezala finkatzeko. Era naturalean egoten da esnean eta hainbat arrainen giblean. *ES:* Calciferol *FR:* Calciférol *EN:* Calciferol
- Kaltzifikazio:** iz. Kaltzio-gatzen pilaketa, ehunetan. Eskuarki, hezurretan eta hortzetan finkatzen da organismoan xurgatutako kaltzioaren % 99; gainerako % 1 gorputzeko likidoetan —adibidez, odolean— disolbatzen da. Batik bat hezurren osatze-prozesuan gertatzen da kaltzifikazioa, baina zenbait prozesu patologikotan ere gerta daiteke: hezurak haustean, tuberkulosiak kaltetutako ehunetan, zelulen metabolismoan aldaketak izan direnean, eta abar. *ES:* Calcificación *FR:* Calcification *EN:* Calcification *Arloa:* Med.
- Kaltzio:** iz. Ca. Elementu kimikoa; lurralkalinoen taldeko metal zuri biguna da. Naturan ez da egoera puruan agertzen. Ugariak eta garrantzi handikoak dira kaltzioak osatzen dituen konposatuak: sulfatoak (igeltsua), karbonatoak (kareharria, marmola), fluoruroak (fluorita) eta fosfatoak. Ornodunen hezurduaren osagaia da, eta guztiz funtsezkoa gizakien metabolismoan, nerbio-kinaden transmisiorako, giharrak uzkuartzeko, bihotzaren hainbat funtziotarako, eta abar. Zelulaz kanpoko likidoaren eta zelula-ehun bigunaren osagaia da. Zelulaz kanpoko likidoan kaltzio gehiegi izateak hainbat ondorio izan ditzake: giharrak ahultzea, karranpak, letargia eta koma. Kaltzioa gutxitzeak, berriz, konbultsio tetanikoak ekar ditzake. *ES:* Calcio *FR:* Calcium *EN:* Calcium *Arloa:* Kim.
- Kaltzitonina:** iz. Tiroide guruinak ekoizten duen hormona; odoleko kaltzio kantitatea murrizten du. Hezurren mineralizazioa bideratzen du. *ES:* Calcitonina *FR:* Calcitonine *EN:* Calcitonin *Arloa:* Biokim.
- Kamamila:** iz. Landare belarkaretako zenbait espeziaren izena. Ligula zuriz inguratutako lore ho-
- riak ditu, bitxiloreenen antzekoak. Digestio-asalduetan erabiltzen da, infusioan. *ES:* Manzanilla *FR:* Camomille *EN:* Camomille
- Kanal:** iz. Hodi-formako egitura; luzera aldakorra du. Haren funtzioen artean daude odol-hodien edo nerbioen pasagune izatea eta materia organikoak isurtzea. *ES:* Canal *FR:* Canal *EN:* Channel *Arloa:* Anat.
- Kanal erdi zirkular:** iz. Belarriko labirintoko hiru kanaletariko bakoitza: goikoa, atzekoa eta kanpoko edo albokoa. *ES:* Canal semicircular *FR:* Canal semi-circulaire *EN:* Semicircular canal *Arloa:* Anat.
- Kandida:** iz. Onddo mota; hariizpi-itxurako legamia antzeko zelula da, naturan oso zabaldua. Patogeno bihurtzen da egoera fisiologiko eta psikologiko batzuetan. Larruzaleko eta mukosetako hainbat gaixotasunen —adibidez, baginitisa— eragile da *Candida albicans* espeziea. *ES:* Cándida *FR:* Candida *EN:* Candida
- Kandidiasi:** iz. *Candida* espezieek, batez ere *Candida albicans*-ek, eragindako gaizkoadura. Azkura, exudatu zuria, ezkatatzea eta odoljarioetarako joera ditu ezaugarri nagusi. Gorputzeko gune hezeetan izaten da batik bat, eta eskuarki ez da hedatzen gorputzeko beste guneetara. *ES:* Candidiasis *FR:* Candidose *EN:* Candidiasis *Arloa:* Med.
- Kanela:** iz. *Cinnamomum* generoko zenbait espeziaren barruko azal lehorra; ezaugarri aromatikoak eta idorgarriak ditu, besteak beste. Beherakoari aurre egiteko erabiltzen da, kretarekin eta beste karminatiboekin batera. *ES:* Canela *FR:* Cannelle *EN:* Cinnamon
- Kanfor:** iz. Zenbait landaretatik ateratzen den gai organikoa, usain bizikoa; erredurak arintzeko erabil daiteke olio edo ukendu gisa, eta ez tula eta karkaxa kanporatzeko ere balio du. *ES:* Alcanfor *FR:* Camphre *EN:* Camphor *Arloa:* Kim.
- Kanpo(ti)ko:** izlag. Organismoaren egituraz kanpoko dena, edo kanpoan sortua dena. *ES:* Extrínseco *FR:* Extrinsèque *EN:* Extrinsic
- Kanpoaldeko:** izlag. Ikus 'kanpoko'.
- Kanpo-belarri:** iz. Belarriaren kanpoaldean dagoen egitura; belarri-pabiloia eta kanpoko entzunbidea ditu osagai. Kanpoko entzunbidea erdiko belarriaraino doa, eta barne-muturra mintz tinpanikoak ixten dio. *ES:* Oído externo *FR:* Oreille externe *EN:* External ear
- Kanpoko:** 1. izlag. Gorputzaren edo organo baten kanpoaldean dagoena. 2. izlag. Kanpoaldetik eragiten duena. *ES:* Exterior, externo *FR:* Extérieur *EN:* Exterior, outer, external
- Kanporakoi:** izond. (Pertsonen izaerari buruz) Ingurukoengana zabaltzeko joera duena. *ES:* Extravertido/a, extrovertido/a *FR:* Extraverti, extroverti *EN:* Extravert, extrovert *Arloa:* Psikol.

- Kanporakoitasun:** iz. Nortasun-ezaugarria; norberaren interesak, pentsamenduak eta indarrak kanporantz bideratzeko joera. *ES:* Extraversión, extroversión *FR:* Extraversion *EN:* Extroversion *Arloa:* Psikol.
- Kanporatu:** ad. Kanpora bota. *ES:* Expulsar *FR:* Expulser *EN:* To eject
- Kanporatze:** iz. Edukia —normala zein patologikoa— organo edo hodi batetik kanpora bota, azken horien uzkurtze-gaitasunaren laguntzaz. *ES:* Expulsión *FR:* Expulsion *EN:* Expulsion
- Kantzerizida:** iz. Minbizi-zelulak suntsitzen dituen edozein gai edo ekintza. *ES:* Cancericida *FR:* Cancéricide *EN:* Cancericidal
- Kantzerofobia:** iz. Beldur handia minbiziari. *ES:* Cancerofobia *FR:* Carcinophobie *EN:* Cancero-phobia
- Kanula:** iz. Neurri, forma eta materia askotariko hodia; bi aldeetatik irekia da. Organismoko zulo natural edo artifizial batean sartzen da, zuloa irekita mantentzeko, likidoren bat sartzeko, barrunbe bat husteko edo garbitzeko, eta abar. *ES:* Cánula *FR:* Canule *EN:* Cannula
- Kapilar:** 1. iz. Arteriolak eta benulak elkartzen dituzten odol-hodi txikietako edozein; 0,008 mm inguruko diametroa du. Kapilarren hormak endotelio-zelulazko geruza bakarrez eratuak daude; horma horietatik zehar egiten da odolaren eta zelula-ehunen arteko gai-trukea. *ES:* Vaso capilar *FR:* Vaisseau capillaire, capillaire *EN:* Capillary vessel, capillary 2. izond. Ileari dagokiona. *ES:* Capilar *FR:* Capillaire *EN:* Capillary
- Kapilar sinusoide:** iz. Muturreko odol-hodi mota, endotelio-tunika osoa duena. Hainbat organotan aurki daiteke: gibela, pankrea, giltzurrun gaineko guriak, eta abar. *ES:* Capilar sinusoide *FR:* Sinusoïde *EN:* Sinusoid
- Kapilaritate:** iz. Molekulen itsasgarritasunean eragina duen fenomeno; haren bidez, hodi bateko likido maila jaitsi edo igo egiten da, likido horren molekulen kohesioaren arabera. *ES:* Capilaridad *FR:* Capillarité *EN:* Capillarity
- Kapsula:** 1. iz. Zenbait sendagairen estalki disolbagarria. 2. iz. Organo bat —giltzurruna, gibela, pankrea, eta abar— edo masa likatsu bat inguratzen duen estalkia, zuntzekoa nahiz mintzekoa. *ES:* Cápsula *FR:* Capsule *EN:* Capsule *Arloa:* Med., Anat.
- Kapsulektomia:** iz. Kirurgia bidez kapsula eraztea; giltzadura bateko kapsula, edo begiko kristalinokoa, batik bat. *ES:* Capsulectomía *FR:* Capsulectomie *EN:* Capsulectomy *Arloa:* Med.
- Kapsulitis:** iz. Kapsula anatomiko bati erasaten dion hantura. *ES:* Capsulitis *FR:* Capsulite *EN:* Capsulitis *Arloa:* Med.
- Kapsulotomia:** iz. Kapsula bat ebakitzea; begiko gandua kentzeko ebakuntza kirurgikoan egiten da, batik bat. *ES:* Capsulotomía *FR:* Capsulotomie *EN:* Capsulotomy *Arloa:* Med.
- Karakterologia:** iz. Izaera moten azterketa eta sailkapena. *ES:* Caracterología *FR:* Caractérologie *EN:* Characterology
- Karbohidrato:** iz. Konposatu organikoa, karbonoz, hidrogenoz eta oxigenoz osatua. Azukrea, almidoia, zelulosa eta kautxua dira garrantzitsuenak. Molekulen egituraren arabera sailkatzen dira: mono-, di-, tri-, poli- eta heterosakaridoak. Funtzio organiko guztien energia-iturri nagusiak dira karbohidratoak, eta beharrezkoak dira beste elikagai batzuen metabolismorako. Gorputzean berehala xurga daitezke, edo glukogeno eran pilatu. Era berean, organismoak ekoitz ditzake, aminoazidoak eta gantzen glizerola erabiliz. *ES:* Carbohidrato, hidrato de carbono *FR:* Glucide *EN:* Carbohydrate *Arloa:* Biokim.
- Karbonatatu:** izond. Azido karbonikoa duena, edo karbonatu bihurtu dena. *ES:* Carbonatado
- Karbonatu:** iz. Azido karbonikoaren gantzen izen orokorra. Karbonatuak azidoak edo neutroak dira, metalak ordezkatzeko dituen azidoaren hidrogeno atomoen kopuruaren arabera. *ES:* Carbonato *FR:* Carbonate *EN:* Carbonate *Arloa:* Kim.
- Karboniko:** 1. iz. Azido karbonikoa; azido ahula, karbono dioxidoa uretan disolbatzean lortzen dena. 2. izond. (Edariei buruz) Karbono dioxidoa disolbatuta duena. *ES:* Carbónico
- Karbono:** iz. C. Elementu kimikoa; ez-metal, trinkoa, zaporerik eta usainik gabea. Gai elkartu organiko guztien osagarria da, eta konposatu ez-organiko ugarietan ere azaltzen da, karbonatu eran batez ere. *ES:* Carbono *FR:* Carbone *EN:* Carbon *Arloa:* Kim.
- Karbono dioxido:** iz. Karbonoaren oxidazioz sorturiko gasa; egoera puruan arnastuz gero, itota hiltzea eragin dezake. Arnasketaz zelularrean ekoiztatutako karbono dioxidoa biriketara eramaten du odolak, eta arnasa botatzean kanporatzen da. Gorputzeko likidoen eta ehunen azidobase orekan eragina duete karbono dioxidoak eta konposatu karbonatatuak. Karbono dioxidoa solidoa aurpegiko hainbat asalduren tratamenduan erabiltzen da. *ES:* Carbono dióxido *FR:* Dioxyde de carbone *EN:* Carbon dioxide *Arloa:* Kim.
- Karboxiliko:** izond. Karboxilo erradikala duen azidoa. *ES:* Carboxílico
- Karboxilo:** iz. Azido organikoetako erradikal monobalentea (-COOH). Gatzak eratzeko, erradikalaren hidrogenoa metalekin ordezkatu daiteke. *ES:* Carboxilo *FR:* Carboxyle *EN:* Carboxyl *Arloa:* Kim.

- Karbunko:** iz. Gaixotasun kutsagarria, *Bacillus anthracis* mikroorganismoak eragina. Larruazalekoa, biriketakoa edo hesteetakoa izan daiteke. Gizakia honako bide hauetatik kutsatzen da: urratutako larruazaletik, kutsatutako animaliekin kontaktua izatetik, edo bakterioaren esporak arnastetik. *ES:* Carbungo, carbúnculo *FR:* Charbon *EN:* Anthrax *Arloa:* Med.
- Karburu:** iz. Karbonoaren eta beste elementu baten arteko konposatua. *ES:* Carburu *FR:* Carbone *EN:* Carbide *Arloa:* Kim.
- Kardia:** iz. Urdaileko zatia; hestegorriaren eta urdailaren arteko irekigunea da. Azidoa ekoizten duten zelularik eza du ezaugarri. *ES:* Cardias *FR:* Secteur gastrique antérieur, cardia *EN:* Forestomach, cardia *Arloa:* Anat.
- Kardiako:** 1. izond. Bihotzari dagokiona. 2. izond. Bihotzeko patologiareen bat duena. *ES:* Córdico *FR:* Cardiaque *EN:* Cardiac
- Kardialgia:** iz. Urdaileko mina; min prekordiala. Maiz garrantzirik ez duen arren, bularreko anginaren adierazle izan daiteke batzuetan. *ES:* Cardialgia *FR:* Cardialgie *EN:* Cardialgia *Oharrak:* Bihotzerrea adierazteko erabiltzen da askotan. *Arloa:* Med.
- Kardiobaskular:** izond. Bihotzari eta odol-hodieiei dagokiena. *ES:* Cardiovascular *Arloa:* Med.
- Kardiobertsio:** iz. Bihotzaren ohiko erritmo sinusalaren berrezarpena. Bi metal-xafla ipintzen dira gaixoaren toraxaren gainean, eta, haiek igortzen duten talka elektriko sinkronizatuaren eroapenari esker, bihotzaren erritmoa bere onera etortzen da. Hainbat asalduren tratamenduan erabiltzen da: fibrilazio aurikularra, eta aurikular-, bentrikular- eta nodulu-arritmiak, adibidez. *ES:* Cardioversión *FR:* Cardioversion *EN:* Cardioversion *Oharrak:* Elektrikoa edo farmakologikoa izan daiteke. *Arloa:* Med.
- Kardiopasmo:** iz. Kardiaren bat-bateko uzkurdu-ra. Kardia erlaxatzeko gaitasunik eza du ezaugarri, eta urdaileko gaiak berriz ahoratzea eta disfagia eragiten ditu. *ES:* Cardiospasmo *FR:* Cardiospasm *EN:* Cardiospasm *Arloa:* Med.
- Kardiofono:** iz. Tresna berezia; bihotzeko soinuak entzutea ahalbidetzen du. *ES:* Córdífono *FR:* Cardiophone *EN:* Cardiophone
- Kardiogeno:** izond. Bihotzetik sortua; esate baterako, tronbosi koronarioan gertatzen den shocka. *ES:* Córdígeno *FR:* Cardiogène *EN:* Cardiogenic
- Kardiografia:** iz. Bihotz-jardueraren mugimenduak erregistratzen dituen teknika. Kardiografoaren bidez egiten da. *ES:* Cardiografía *FR:* Cardiographie *EN:* Cardiology *Arloa:* Med.
- Kardiografo:** iz. Bihotz-jarduera erregistratzeko balio duen tresna. Bihotzaren jarduera elektrikoa erregistratzeko eta ez-ohiko bulkaden transmisioa hautemateko erabiltzen da. *ES:* Córdígrafo *FR:* Cardiographe *EN:* Cardiograph *Arloa:* Med.
- Kardiograma:** iz. Bihotz-jardueraren adierazpen grafikoa. Kardiografoarekin egiten da. *ES:* Córdígrama *FR:* Cardiogramme *EN:* Cardiogram *Arloa:* Med.
- Kardiologia:** iz. Medikuntzaren adarra; bihotzaren anatomiaz, funtzioez eta patologiez arduratzen da. *ES:* Cardiología *FR:* Cardiologie *EN:* Cardiology *Arloa:* Med.
- Kardiologo:** iz. Kardiologian aditua; kardiopatiaren diagnostikoan eta tratamenduan dihardu. *ES:* Córdílogo *FR:* Cardiologue *EN:* Cardiologist *Arloa:* Med.
- Kardiomegalia:** iz. Bigarren mailako bihotz-hipertrofia kardiakoa. Bihotzaren tamaina handitzen da. *ES:* Córdíomegalia *FR:* Córdíomegalie *EN:* Córdíomegaly *Arloa:* Med.
- Kardiomiopatia:** iz. Bihotzeko gaixotasuna, gihar kardiakoari erasaten diona. Bihotz-gutxiegitasuna eragin dezake. *ES:* Córdíomiopatia *FR:* Myocardopathie *EN:* Cardiomyopathy *Arloa:* Med.
- Kardiomiotomia:** iz. Hestegorriaren beheko zatiko gihar-tunikaren ebakuntza. *ES:* Córdíomiotomía *FR:* Córdíomyotomie *EN:* Córdíomyotomy *Arloa:* Med.
- Kardiopatia:** iz. Bihotzeko gaixotasuna. Kardiopatiaren barnean daude: hanturazko asalduak, endekapenezkoak, toxikoen ondoriozkoak eta sortzetiko malformazioek eragindakoak. *ES:* Córdíopatía *FR:* Cardiopathie *EN:* Cardiopathy *Arloa:* Med.
- Kardioplastia:** iz. Kirurgia-ebakuntza; hestegorriko kardia-esfinterraren akatsa zuzentzeko egiten da, kardiopasmoa eragiten baitu akats horrek sarritan. *ES:* Córdíoplastia *FR:* Córdíoplastie *EN:* Esophagogastroplasty, cardioplasty *Arloa:* Med.
- Kardiografia:** iz. Kirurgia-ebakuntza; gihar kardiakoa josten da. *ES:* Córdíorrafía *FR:* Córdíorraphie *EN:* Córdíorrhaphy *Arloa:* Med.
- Kardioskopio:** iz. Tresna berezia; bihotzaren barne-egitura eta mugimenduak aztertzeko erabiltzen da. *ES:* Córdíoscopio *FR:* Córdíoscope *EN:* Córdíoscope *Arloa:* Med.
- Kardiotokografia:** iz. Umekiaren bihotz-taupaden neurketa. *ES:* Córdíotocografía *Arloa:* Med.
- Kardiotokografo:** iz. Kardiotokografiak egiteko erabiltzen den tresna. *ES:* Córdíotocógrafo *Arloa:* Med.
- Kardiotomia:** iz. Kirurgia-ebakuntza; hestegorriko estenosian kardia irekitzea du helburu. *ES:* Córdíotomía *FR:* Córdíotomie *EN:* Córdíotomy *Arloa:* Med.
- Kardiotomia-sindrome:** iz. Bihotzeko ebakuntza baten ondorengo sindromea. Pirexia, perikarditi-



- sa eta pleurako isuria agertu ohi dira. *ES*: Cardiotomía, síndrome de *Arloa*: Med.
- Karditis**: iz. Bihotzeko giharren hantura; gaizkoalduren ondorioz gertatzen da, oro har. Eskuarki, gihar-geruza bati baino gehiagori erasaten die. Karditisaren ondorioz ager daitezkeen sintomen artean daude: bularraldeko mina, bihotz-arritmia, odol-zirkulazioaren gutxiegitasuna, bihotzeko egituretako asaldak, eta abar. *ES*: Carditis *FR*: Cardite *EN*: Carditis *Adibideak*: Karditis motak dira: endokarditisa, miokarditisa eta perkarditisa. *Arloa*: Med.
- Kare-**: (Hitz elkartuetan) Kareari edo kaltzioari dagokiona. *ES*: Calcáreo
- Karedun**: izond. Kareia duena. *ES*: Calcáreo *FR*: Calcaire *EN*: Calcareous
- Karen**: iz. Ikus 'plazenta'.
- Karentze**: iz. Ikus 'plazentazio'.
- Karfologia**: iz. Eskuen nahi gabeko mugimendua; airetik edo maindireetatik objektu txikiak hartzeko mugimendua gogorarazten du. Larri dauden gaixoean ikusten da, eta agonia aurreko zeinu gisa hartzen da. *ES*: Carfología *FR*: Carphologie *EN*: Carphology
- Karina**: 1. iz. Zintzur-hestearen adarkadura. 2. iz. Ehun bateko irtegunetik txikia; adibidez, sudurra-aren bestibuluaren gaineko tolesdura. *ES*: Carina *FR*: Carène *EN*: Carina *Arloa*: Anat.
- Kariotipo**: iz. Banakoaren edo espezie baten kromosoma multzoa. Kopuruaren, tamainaren, itxuraren eta nukleoaren barruko antolaketa arabera deskribatzen da, mitosiaren metafasean hartutako mikrofotografia baten bidez. *ES*: Cariotipo *FR*: Caryotype *EN*: Karyotype
- Karkaxa**: iz. Jariakin likatsu lodia; arnasbideak estaltzen dituzten ehunek jariatzen dute. *ES*: Flema *FR*: Mucosité *EN*: Phlegm *Arloa*: Med.
- Karkaxa atera**: ad. Ikus 'espektoratu'.
- Karminatibo**: izond. (Gai bati buruz) Digestio-hodiko gasen eraketa eragozten edo horiek kanporatzea eragiten duena. *ES*: Carminativo *FR*: Carminatif *EN*: Carminative *Arloa*: Med.
- Karoteno**: iz. Pigmentu gorri edo laranja kolorekoa. Probitamina bat da, eta A bitamina bihurtzen da gorputzean, gibelaren eraginez. Landareetan (azena-rioan, patatan, tomatean, hosto berdeko barazkietan, eta abar) edo animalietan (obulutegietako gorputz horian) dagoen konposatu organikoa da. *ES*: Caroteno *FR*: Carotène *EN*: Carotene *Arloa*: Kim.
- Karotida**: iz. Buruko eta lepoko arteria nagusia; bi adarretan banatzen da. Lepoaren alde banatan daude adar horiek, eta odola burura eramaten dute. *ES*: Carótida *FR*: Carotide *EN*: Carotid *Arloa*: Anat.
- Karotina**: iz. Ikus 'karoteno'. *ES*: Carotina *FR*: Carotine *EN*: Carotin *Arloa*: Kim.
- Karpo**: iz. Eskumuturra osatzen duten hezurren multzoa; zortzi hezurrez osatua dago: ilargi-erdi itxurakoa, piramidala, pisiformea, eskafoidea, trapezioa, trapezoidea, hezur handia eta hezur gakoak. *ES*: Carpo *FR*: Carpe *EN*: Wrist *Arloa*: Anat.
- Karpo-metakarpoko**: izlag. Karpoko eta metakarpoko hezurrei, giltzadurei edo lotailuei dagokiena. *ES*: Carpo metacarpiano *FR*: Carpo-métacarpien *EN*: Carpometacarpal *Arloa*: Anat.
- Karranpa**: iz. Ikus 'kalanbre'.
- Karraskatu**: ad. Hozkada txikiz, zati txikiak kenduz, poliki-poliki jan edo higatu. *ES*: Mordisquear *EN*: To nibble
- Kartilaginoso**: izond. Kartilagoari dagokiona, edo kartilagoaren antzekoa dena. *ES*: Cartilaginoso *FR*: Cartilagineux *EN*: Cartilaginous
- Kartilago**: iz. Ehun konektibo berezia, hainbat zuntz eta zelulaz osatua. Gai malgua da, zuria edo grisaxka, eta gorputzeko hainbat gunetan dago: hezurren giltzadura-gunetan, laringean, zintzur-hestean, sudurrean, belarrian, eta abar. *ES*: Cartilago, ternilla *FR*: Cartilage *EN*: Cartilage *Arloa*: Anat.
- Kartzinogenesi**: iz. Minbiziaren sorrera eta garapena biltzen dituen prozesua. *ES*: Carcinogénese *FR*: Carcinogénèse *EN*: Carcinogenesis *Arloa*: Med.
- Kartzinogeno**: izond. (Gai bati buruz) Minbizia eragin dezakeena. *ES*: Carcinógeno *FR*: Cancérogène *EN*: Carcinogen *Arloa*: Med.
- Kartzinoide**: iz. Tumor txiki eta horixka. Heste meharrean, urdailean eta apendizetan sortzen da, batik batik. Gaiztotasun txikikoa da, eta oso gutxitan eragiten du metastasia. *ES*: Carcinoide *FR*: Carcinoid *EN*: Carcinoïde *Arloa*: Med.
- Kartzinoma**: iz. Tumor gaiztoa, epitelio-zelulaz osatua. Garapenaren edozein unetan heda daiteke, eta metastasia eragin. *ES*: Carcinoma *FR*: Carcinome *EN*: Carcinoma *Arloa*: Med.
- Kartzinomatosi**: iz. Minbizi-asaldua; kartzinomak gorputz osora hedatzen dira metastasi bidez. *ES*: Carcinomatosis *FR*: Carcinomatose *EN*: Carcinomatosis *Arloa*: Med.
- Karunkula**: iz. Irtengune txiki haragitsua. *ES*: Carúncula *FR*: Caroncule *EN*: Caruncle *Arloa*: Anat.
- Kaseina**: iz. Esnearen proteina; fosfoproteinen saillekoa da. Kaltzioarekin erreakzionatzean, kaltzio kaseinatoa eraten du. Garrantzia du elikaduran, oinarritzko aminoazido guztiak baititu. Medikuntzan erabiltzen dira kaseinaren gatzak edo kaseinatoak. *ES*: Caseína *FR*: Caséine *EN*: Casein *Arloa*: Kim.
- Kaseinogeno**: iz. Esnearen proteina; legarraren eraginez, kaseina sortzen du. *ES*: Caseínogéno *FR*: Caséinogène *EN*: Caseinogen

- Kaskarreko:** iz. Buruan emandako edo hartutako kolpea; mingarria da, baina ez du odolik isurazten. *ES:* Coscorrón *FR:* Coup sur la tête *EN:* Blow on the head, knock on the head
- Kasu:** iz. Gaixotasun edo izurrite baten agerraldietako bakoitza. *ES:* Caso *FR:* Cas *EN:* Case *Arloa:* Med.
- Katabolismo:** iz. Metabolismo suntsigarria, anabolismoaren aurkakoa. Egitura konplexuak sinpleago bihurtzen dituen prozesua da, eta funtzioen garapenerako beharrezkoa den energia askatu egiten da erreazio horretan. *ES:* Catabolismo *FR:* Catabolisme *EN:* Catabolism *Arloa:* Biokim.
- Katadioptriko:** iz. Tresna edo sistema optikoa. Argia islatzen duen ispilu batez eta hura errefraktatzen duten lentzez osatua dago. *ES:* Catadióptrico *FR:* Catadioptrique *EN:* Catadioptric
- Katalasa:** iz. Kromoproteinen saileko entzima. Animalien eta landareen ehunetan eta zenbait bakteriotan izaten da. Gai katalitikoa da; beharrezkoa da ura eta oxigenoa emanez ur oxigenatua deskonposatzeko. Oso ugaria da naturan. *ES:* Catalasa *FR:* Catalase *EN:* Catalase *Arloa:* Biokim.
- Katalepsia:** iz. Nerbio-asaldua; sentikortasunaren eta borondatezko uzkurduraren galera ditu ezaugarri. *ES:* Catalepsia *FR:* Catalepsie *EN:* Catalepsy *Oharrak:* Katalepsiak jotako gaixoak ez du gorputz-jarrera aldatzen, eta ez du erresistentziarik jartzen eragiten zaizkion mugimendu pasiboen aurrean. Egoera iragankorra da. *Arloa:* Med.
- Kataleptiko:** izond. Katalepsiari dagokiona; katalepsiak jota dagoena. *ES:* Cataléptico *FR:* Cataleptique *EN:* Cataleptic *Arloa:* Med.
- Katalisi:** iz. Erreakzio kimiko baten abiadura bizkortzea, erreakzioan parte hartzen ez duen gai batek eragina. *ES:* Catálisis *FR:* Catalyse *EN:* Catalysis *Arloa:* Kim.
- Katalitiko:** izond. Katalisari dagokiona. *ES:* Catalítico *FR:* Catalytique *EN:* Catalytic
- Katalizatu:** ad. Katalisia eragin; hau da, erreakzio kimiko bat edo prozesu fisiko bat bizkortu nahiz moteldu. *ES:* Catalizar *FR:* Catalyser *EN:* To catalyze
- Katalizatzaile:** izond. (Gai bati buruz) Katalisia eragiten duena. *ES:* Catalista, catalizador *FR:* Catalyseur *EN:* Catalyst *Arloa:* Kim.
- Kataplama:** iz. Ore moduko sendagaia, mindutako eremuaren gainean jartzen dena. Bero hezea ipintzen da gehienetan, baina hotza nahiz beroa jar daiteke. *ES:* Cataplasma *FR:* Cataplasme *EN:* Poultrice *Arloa:* Med.
- Kataplexia:** iz. Nerbio-asaldua; jatorri psikikoa du, eta emoziozko edo beldurrezko estimulu sendo batek eragina da. Asalduren ondorioz, giharrek tonua galtzen dute. *ES:* Cataplejía *FR:* Cataplexie *EN:* Cataplexy
- Katarata:** iz. Kristalinoaren asaldua, pixkanaka gerdentasuna galtzea ezaugarri duena. Zenbaitetan, herentziatzko gaixotasuna da, eta sortzetikoa, jaiostekoa edo zahartzarokoa izan daiteke. *ES:* Catarata *FR:* Cataracte *EN:* Cataract *Oharrak:* Opakotasun gris-zurixka atzematzen da kristalinoan, begi-niniaren atzean. Tratamendurik jarri ezean, ikusmena galtzeko arriskua dago. Zahartzaroon, kristalinoak kentzea eta betaurreko bereziak erabiltzea da tratamendurik ohikoena. *Arloa:* Med.
- Katarro:** iz. Ikus 'hotzeri'.
- Katarrotsu:** izond. Katarroa sarritan nozitzen duena, gehienetan katarro arina izan arren. *ES:* Catarroso
- Katarsi:** iz. Adierazten utzi ez zaien afektu ezkutuaren deskargak eragindako ondorio askatzailea. *ES:* Catarsis *FR:* Catharsis *EN:* Catharsis *Oharrak:* Gatazka inkontzienteei eta gertakizun traumatikoei loturik daude afektu ezkutu horiek.
- Katartiko:** izond. Katarsiari dagokiona *ES:* Catártico *FR:* Cathartique *EN:* Cathartic *Arloa:* Psikol.
- Katatonía:** iz. Egoera patologikoa; higitze-asaldu nabarmena du ezaugarri. Eskuarki, giharren ia erabateko zurruntasunak eragindako mugiezintasuna dakar, edo, ez hain sarritan, neurritz gaineko jarduera oldarkorra. *ES:* Catatónia *FR:* Catatonie *EN:* Catatony *Arloa:* Psikiat.
- Katatoniko:** 1. izond. Katatonari dagokiona. 2. iz. Katatoniak jotako pertsona. *ES:* Catatónico *FR:* Catatonique *EN:* Catatonic *Arloa:* Psikiat.
- Katekolamina:** iz. Gai sinpatiko-mimetikoa, katekoletik eratorritako aminen taldekoa. Katekolamina batzuk gorputzak era naturalean ekoizten ditu, eta neurotransmisore gisa jokatzen dute. Farmako gisa erabiltzeko ere sintetizatzen dira katekolaminak, zenbait asalduren tratamendurako: anfilaxia, asma, bihotz-gutxiegitasuna eta hipertentsioa. Katekolamina-endogeno garrantzitsuenak adrenalina, noradrenalina eta dopamina dira. *ES:* Catecolamina *FR:* Catecholamine *EN:* Catecholamine *Oharrak:* Katekolaminak gertu-nuan neurtzen dira, hipertentsioa eta desoreka psikologikoak aztertzeko. *Arloa:* Biokim.
- Kateter:** iz. Hodi malgua, barne-hutsa, gorputzeko hodi zein barrunbe batean likidoak sartu edo atera ahal izateko nahiz buxadurak gainditzeko erabiltzen dena. *ES:* Catéter *FR:* Cathéter *EN:* Catheter *Arloa:* Med.
- Kateterismo:** iz. Kateterra organismo hodi edo barrunbe batean sartzean datzan prozesua, aztergai den atalean akatsik ba ote den jakiteko, eta,

- izanez gero, hura osatu ahal izateko. *ES:* Cateterismo *FR:* Cathétérisme *EN:* Catheterization *Arloa:* Med.
- Katgut:** iz. Josturan erabiltzen den haria, lodiera, erresistentzia eta xurgapen aldakorrekoa; katuaren hesteetatik aterea da. Hala ere, gaur egun, gai sintetikoak egindakoak erabiltzen dira, tetanosa ekiditeko. Denborarekin, ehunek xurgatzen dute. Asepsia gehiago lortzeko eta malguago egon dadin, hainbat gairekin bustitzen da. *ES:* Catgut *FR:* Catgut *EN:* Catgut *Arloa:* Med.
- Katioi:** iz. Karga positiboa duen ioia; elektrolisian katodora doa. *ES:* Cati6n *FR:* Cation *EN:* Cation *Oharrak:* Metal guztiak eta hidrogenoak erraz ematen dituzte katioiak. Katioien positibotasuna adierazteko, elementuaren sinboloaren goi-eskuinean n+ idazten da; n hori karga adierazten duen zenbakia da. *Arloa:* Kim.
- Kationiko:** izond. Katodoari eta katodoan gertatzen diren fenomenoei dagokiena. *ES:* Cati6nico *FR:* Cationique *EN:* Cationic *Arloa:* Kim.
- Katodiko:** izond. Katodoari dagokiona. Izpi katodikoa: Barne-hutsa den hodi katodiko baten katodotik igortzen den deskarga, elektroiz osatua eta lerro zuzenean hedatuz gorputz askoren fluoreszentzia eragiten duena (telebista eta ordenagailuetako funtsezko elementuak dira hodi eta izpi katodikoak). *ES:* Cat6dico *FR:* Cathodique *EN:* Cathodic
- Katodo:** iz. Elektrodo negatiboa, piletan, gas-hodietan eta abarretan egoten dena. *ES:* C6todo *FR:* Cathode *EN:* Cathode
- Kausa:** iz. Asaldu edo ondorio bat eragiten duen edozein gai, prozesu edo organismo. *ES:* Causa *FR:* Cause *EN:* Cause
- Kausal:** izond. Kausari dagokiona. *ES:* Causal *FR:* Causal *EN:* Causal
- Kausazko:** izlag. Ikus 'kausal'.
- Kaustiko:** izond. (Gai bati buruz) Ehun biziak suntsitzen dituena. *ES:* C6ustico *FR:* Caustique *EN:* Caustic *Adibideak:* zilar nitratoa, azido nitrkoa, azido sulfurikoa, eta abar. *Arloa:* Med.
- Kauterio:** iz. Larruzala erre eta zarakarrak sortzen dituen gaia; ehun organikoak suntsitzeko erabiltzen da. *ES:* Cauterio *FR:* Cautère *EN:* Cautey *Arloa:* Med.
- Kauterizatu:** ad. Gaixorik edo minduta dauden ehunak erre. Hainbat gai erabil daitezke horretarako: lurrina, metal beroa, eguzkiaren erradiazioa, elektrizitatea, izotz lehorra, eta abar. *ES:* Cauterizar *FR:* Cauterize *Arloa:* Med.
- Kauterizazio:** iz. Kauterioak edo kaustikoak erabiltzea, ondorio terapeutikoak lortzeko. *ES:* Cauterizaci6n *FR:* Cautérisation *EN:* Cauteyization *Arloa:* Med.
- Kaxa toraziko:** iz. Hezurrezko egitura; torax barrunbean dauden organoak eta ehun bigunak inguratzen ditu. Bizkarraldeko 12 ornok, 12 saihets parek eta esternoiak eratzen dute. *ES:* Caja tor6cica *FR:* Cage thotacique *EN:* Thotacic cage *Arloa:* Anat.
- Kelato:** iz. Konposatu konplexu organikoa; ioi metaliko batez eta lotura koordinatuak egiteko gaitasuna duen molekula organiko batez osatua dago. Metalek eragindako intoxikazioen aurkako kimioterapia-tratamenduan erabiltzen da batik bat. *ES:* Quelato *FR:* Chélate *EN:* Chelate *Arloa:* Kim.
- Kementsu:** izond. Bizitasun handia duena. *ES:* Enérgico *FR:* Énergique *EN:* Aggressive
- Keratina:** iz. Kornea-egituren (epidermisa, azazkallak, ilea eta abar) osagai organikoa; sufre ugari du. Eskleroproteinen saileko zuntzeko proteina iraunkorra da. *ES:* Queratina *FR:* Kératine *EN:* Keratin *Oharrak:* Keratinaren amoniako-disoluzioa erabili ohi da hesteetan bakarrik eragin behar duten sendagaiak estaltzeko.
- Kilifero:** iz. Kiloa hesteetatik Peckquet-en zisternara garraiatzen duen linfa-hodietako bakoitza. *ES:* Quilifero *FR:* Chylifère *EN:* Chyliferous *Arloa:* Anat.
- Kilo:** iz. Digestioaren emaitza den isurkari alkalinoa, esne-itxurakoa, linfaz eta gantz-nahasketaz osatua. Hodi kiliferoek kilo hestetik jaso eta toraxeko hodian gora eramaten dute, subklabia zaineraino eta jugularrerraino, han odolarekin nahas dadin. Kiloa guztiz garrantzitsua da elikadura-prozesuetan. *ES:* Quilo *FR:* Chyle *EN:* Chyle *Arloa:* Biol.
- Kilokaloria:** 1. iz. Organismo baten bero-gastua eta elikagaien energia-balioa neurtzeko unitatea. 1000 kaloriaren baliokidea da. 2. iz. Kilogramo bat ur 1 °C igoarazteko beharrezkoa den bero kantitatea (energia). *ES:* Kilocaloría *FR:* Kilocalorie *EN:* Kilocalorie
- Kimika:** iz. Gaien osakeraz, egituraz, ezaugarrietan eta eraldaketaz diharduen zientzia. *ES:* Química *FR:* Chimie *EN:* Chemistry
- Kimika analitiko:** iz. Kimikaren adarra. Konposatu kimikoen analisisaz arduratzen da; konposatu horien osagaien identifikazio kualitatiboa eta kuantitatiboa hartzen ditu kontuan. *ES:* Química analítica *FR:* Chimie analytique *EN:* Analytical chemistry *Arloa:* Kim.
- Kimika ez-organiko:** iz. Ikus 'kimika inorganiko'.
- Kimika fisiko:** iz. Kimikaren adarra; materiaren ezaugarri fisikoen eta kimikoen arteko harremanaz arduratzen da. Hainbat alor hartzen ditu bere baitan: termodinamika, zinetika, elektrokimika, espektroskopia, kimika kuantitatiboa, eta

- abar. *ES:* Química física *FR:* Chimie physique *EN:* Physical chemistry *Arloa:* Kim.
- Kimika inorganiko:** iz. Kimikaren adarra; gai ez-organikoak aztertzen ditu. *ES:* Química inorgánica *FR:* Chimie inorganique *EN:* Inorganic chemistry *Arloa:* Kim.
- Kimika mineral:** iz. Ikus 'kimika inorganiko'. *ES:* Química mineral *FR:* Chimie minérale
- Kimika organiko:** iz. Kimikaren adarra; karbonoa duten konposatu kimikoen egituraz, ezaugarriez eta erreakzioez arduratzen da. *ES:* Química orgánica *FR:* Chimie organique *EN:* Organic chemistry *Arloa:* Kim.
- Kimikari:** iz. Produktu kimikoen eraginarene, egituraren eta ezaugarrien ezagutza duen pertsona, horretarako prestakuntza berezia hartu duena. *ES:* Químico *FR:* Chimique, pharmacien *EN:* Chemical, chemist
- Kimiorrezeptzio:** iz. Organo hartzailea; jatorri kimikoa duten kinadak hautematen ditu. *ES:* Quimiorrección *FR:* Chimioréception *EN:* Chemoreception *Arloa:* Biol.
- Kimiosintesi:** iz. Konposatu organikoen sintesia; erreakzio kimikoetatik ateratako energiaren bidez egiten da. *ES:* Quimiosíntesis *FR:* Chimiosynthèse *EN:* Chemosynthesis *Arloa:* Biol.
- Kimioterapia:** iz. Tratamendu mota; gai kimikoak erabiliz egiten da. Gaur egun, minbizi-zelulak suntsitzeko erabiltzen da. Minbiziaren kasuan, gai kimiko horiek ez dituzte zuzenean minbizi-zelulak suntsitzen, haien ugaltzeko gaitasuna baizik. *ES:* Quimioterapia *FR:* Chimiothérapie *EN:* Chemotherapy *Oharrak:* Sarritan, agente kimioterapikoak tratamendu erradioaktiboarekin batera erabiltzen dira, efektu sinergikoa baitu tratamenduak. *Arloa:* Med.
- Kimiotrofo:** izond. (Mikroorganismo bati buruz) Elikagaiak sintesi kimiko bidez lortzen dituen. *ES:* Quimiotrofo *FR:* Chimiotrophe *EN:* Chemotrophic *Arloa:* Biol.
- Kimiotropismo:** iz. Kitzikadura kimiko baten aurrean izandako erreakzioa, mugimendu positiboa (gerturatzea) edo negatiboa (urruntzea) eragiten dituen. *ES:* Quimiotropismo, quimiotáxis *FR:* Chimiotaxie *EN:* Chemotaxis *Arloa:* Biol.
- Kimo:** iz. Masa likido lodia, gris antzekoa; urdaillean eratzen da, elikagaien digestioan. Kimoari esker igarotzen dira elikagaiak urdailetik heste meharerera. *ES:* Quimo *FR:* Chyme *EN:* Chyme *Arloa:* Biol.
- Kinada:** iz. Ikus 'bulkada'.
- Kinina:** iz. Kristal erako alkaloidea, mikatza eta zuria. Erabilera terapeutiko ugari ditu; dosi txikitan hartuta, nerbio-sistema kitzikatzen du, eta pulstua moteltzen. Paludismoaren aurkako senda-
- gaitan erabiltzen da, besteak beste. *ES:* Quinina *FR:* Quinine *EN:* Quinine
- Kirasdun:** izond. Oso usain txarra, desatsegina duena. *ES:* Fétido *FR:* Fétide *EN:* Fetid
- Kirol-medikuntza:** iz. Medikuntzaren adarra; kirol-ekintzetan parte hartzearen eta haietarako prestakuntzaren ondoriozko lesioen prebentzioan eta tratamenduan espezializatua da. Kirol-lesio ohikoenen artean daude: izterren atzealdeko giharren distentsioa, Akilesen tendinitisa, orkatilaren bihurritua, tenisleriaren ukondoa deritzana, beisboleko jokariaren hatza deritzana, lokatzeak, gihar-karrapak eta burtsitisa. *ES:* Medicina deportiva *FR:* Médecine sportive *EN:* Sports medicine
- Kiromasaje:** iz. Eskuez ematen den masajea. *ES:* Quiromasaje *FR:* Chiropratique *EN:* Chiropractic
- Kirten:** iz. Ikus 'helduleku'.
- Kirurgia-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'kirurgiko'.
- Kirurgia:** iz. Medikuntzaren adarra; gaixotasunak eta istripuak ebakuntza bidez tratatzen ditu. Eskuz edo tresneria berezia erabiliz egin daiteke. *ES:* Cirugía *FR:* Chirurgie *EN:* Surgery *Arloa:* Med.
- Kirurgia plastiko:** iz. Kirurgia mota; gorputzeko itxuragabetasunak eta gaixotasunen edo traumatismoen ondorioz galdu nahiz kalte diren organismo atalak konpontzea du helburu. *ES:* Cirugía plástica *FR:* Chirurgie plastique *EN:* Plastic surgery *Arloa:* Med.
- Kirurgialari:** iz. Kirurgia egiten duen profesionala. *ES:* Cirujano
- Kirurgiko:** izond. Kirurgiari dagokiona. *ES:* Quirúrgico *FR:* Chirurgical *EN:* Surgical
- Kistatu:** ad. Ikus 'enkistatu'.
- Kiste:** iz. Larruzalean edo larruzalpean eratzen den zaku itxia, epitelióz estalia. Gai likidoa nahiz erdi solidoa izaten du barnean. *ES:* Quiste *FR:* Kyste *EN:* Cyst *Arloa:* Med.
- Kitina:** iz. Polisakarido nitrogenatua; molekula zuntzu gisa agertzen da, eta material oso erresistentea eratzen du. Intsektuetan —haien kutikula eratzen baitu— eta zenbait onddotan aurki daiteke. *ES:* Quitina *FR:* Chitine *EN:* Chitin *Arloa:* Biol.
- Kitinadun:** izond. Kitinaz osatua, edo kitina-jatorria duena. *ES:* Quitinoso *FR:* Chitineux *EN:* Chitinous
- Kitinatsu:** izond. Ikus 'kitinadun'.
- Kitinazko:** izlag. Ikus 'kitinadun'.
- Kitzikapen:** iz. Ikus 'eszitazio'.
- Kitzikatu:** ad. Ikus 'eszitatu'.
- Klaustrofobia:** iz. Gehiegizko beldurra leku itxietan nahiz estuetan egoteari, edo horietan harapatuta gelditzeari. *ES:* Claustrofobia *FR:* Claustrophobie *EN:* Claustrophobia *Arloa:* Med.

- Klaustrofobiko:** izond. Klaustrofobiari dagokiona, edo hark eragina. *ES:* Claustrofóbico *FR:* Claustrophobique *EN:* Claustrophobic
- Kleptomano:** izond. Kleptomania duena. *ES:* Cleptómano *FR:* Kleptomane *EN:* Kleptomaniac
- Kliska:** iz. Betazalen mugimendu azkar eta errepi-katua. *ES:* Pestañeo *EN:* Blinking
- Kliskatu:** ad. Betazalak itxi; begiak mugimendu azkarrez itxi eta ireki. *ES:* Pestañear *FR:* Ciller, cligner des yeux *EN:* To blink
- Klitori:** iz. Emakumearen organo txiki zutikorra, luzexka, bulbaren aurrealdeko angeluan dagoena. Bi gorputz leizetsuz osatua dago, eta organo erogeno garrantzitsua da. *ES:* Clitoris *FR:* Clitoris *EN:* Clitoris *Arloa:* Anat.
- Kloaka:** iz. Enbriologian, atzeko hestearen azken zatia; uzkia, maskuria eta egitura genitourinario primitiboak eratu aurretik agertzen da garapeanean. *ES:* Cloaca *FR:* Cloaque *EN:* Cloaca
- Klon:** iz. Genetikoki berdin-berdinak diren zelula edo organismo multzoa. Zelula edo organismo bakar baten mitositik eratorriak dira. *ES:* Clon *FR:* Clone *EN:* Clone *Arloa:* Biol.
- Klonatu:** ad. Klonak egin. *ES:* Clonar *FR:* Clonage *EN:* To clon *Arloa:* Biol.
- Kloniko:** izond. Klonari dagokiona. *ES:* Clónico *FR:* Clonique *EN:* Clonic
- Klonus:** iz. Jarduera neuromuskularraren ez-ohiko patroia; gihar eskeletikoaren nahi gabeko uzkur-dura eta erlaxazioa ditu ezaugarri. *ES:* Clonus *FR:* Clonus *EN:* Clonus
- Klorato:** iz. Azido klorikoaren anioia, eta azido klorotik eratorritako gatzen izen orokorra. Kloratoen osagaiak erraz deskonposatzen dira berotzen direnean, eta oxigenoa askatzen dute. *ES:* Clorato *FR:* Chlorate *EN:* Chlorate *Arloa:* Kim.
- Klorazio:** 1. iz. Molekula organiko batean kloro atomo batek hidrogeno atomo bat ordezkatzeta. 2. iz. Ura edo beste gai batzuk kloro askearekin tratatzea. *ES:* Cloración *FR:* Chloration *EN:* Chlorination *Arloa:* Kim.
- Kloriko:** izond. Kloroa duena, edo klorotik eratorria dena. Azido klorikoaren gatzak kloratoak dira. *ES:* Clórico *FR:* Chlorique *EN:* Chloric *Arloa:* Kim.
- Kloro:** iz. Cl. Elementu kimiko gaseosoa, halogenoen taldekoa; usain gogor berezia du, eta narritadura eragin dezake arnas aparatuan. Irentsi edo arnastu gero, pozoitsua da. Izadian, itsasoko uraren sodio kloruroaren osagai gisa eta gatz-deposituetan aurki daiteke batez ere. Edateko ura eta igerilekuetakoa desinfektatzeko erabiltzen da. *ES:* Cloro *FR:* Chlore *EN:* Chlorine *Arloa:* Kim.
- Klorofila:** iz. Landareei kolore berdea ematen dien pigmentua, fotosintesia egiteko ezinbestekoa; xurgatutako argia energia bihurtzeko ahalmena du. Energia hori karbohidratoen sintesirako erabiltzen da. Landareen kloroplastoetan dago klorofila, eta argia dagoenean soilik sintetizatzen da. *ES:* Clorofila *FR:* Chlorophylle *EN:* Chlorophyll *Arloa:* Biol.
- Klorofiliko:** izond. Klorofilari dagokiona. *ES:* Clorofilico *FR:* Chlorophyllien *EN:* Chlorophyllous
- Kloroformo:** iz. Likido dentso, kolorge eta lurrunkorra; metanoaren eratorria da. Kloroak metanoarekin erreakzionatzean lortzen da. Inhalazioz erabiltzen da anestesiko gisa, eta arriskutsua da. Sendagaiaren kontzentrazio plasmatikokoaren % 10eko gorabehera batek hipotentsioa, arnas eta miokardio-depresioa, shock kardiogenikoa, fibrilazio bentrikularra, koma eta heriotza ekar ditzake. *ES:* Cloroformo *FR:* Chloroforme *EN:* Chloroform
- Koadrizeps:** iz. Izterren aurrealdeko gihar luzatzaile handia. Zangoa luzatzea da haren funtzioa. *ES:* Cuádriceps *FR:* Quadriceps *EN:* Quadriceps *Arloa:* Anat.
- Koagulatu:** ad. Likido bat gel erdi solido bihurtu. *ES:* Coagular *FR:* Coaguler *EN:* To coagulate
- Koagulatzaile:** izond. Koagulazioa eragiten duena, edo likido organiko bat loditzen duena. *ES:* Coagulante *FR:* Coagulant *EN:* Coagulant
- Koagulazio:** iz. Koagulu bat eratzeko prozesua; likido bat gel erdi solido bihurtuz egiten da. *ES:* Coagulación *FR:* Coagulation *EN:* Coagulation
- Koagulazioaren kontrako:** izlag. (Gai bati buruz) Odolaren koagulazioa eragozten edo atzeratzen duena. *ES:* Anticoagulante *FR:* Anticoagulant *EN:* Anticoagulant *Oharrak:* Hodietako trombo-siaren sendagai gisa erabiltzen dira. *Adibideak:* Heparina eta beraren eratorriak. *Arloa:* Med.
- Koagulu:** iz. Masa bigun edo erdi solidoa, likido baten gatzapenetik sortua. *ES:* Coágulo *FR:* Caillot *EN:* Clot
- Koana:** iz. Sudur-zuloen atzealdeko irekigunea, sudur-barrunbeak eta faringea lotzen dituena. *ES:* Coana *FR:* Choane *EN:* Choana *Arloa:* Anat.
- Kobalto:** iz. Co. Elementu kimiko metalikoa; B12 bitaminaren osagaia da, eta elikagai gehienetan aurki daiteke. Erraz xurgatzen da. Kobalto kantidad jakinek eritropoietinaren ekoizpena suspertzen dute. Kobaltoaren 58 eta 60 isotopoak erradioaktiboak dira; 60a minbiziaren aurkako erradioterapiari erabiltzen da. *ES:* Cobalto *FR:* Cobalt *EN:* Cobalt *Arloa:* Kim.
- Kobalto-bonba:** iz. Bonba atomiko edo termonuklearra; hura estaltzen duten kobalto molekulen atomoak kobalto-60 isotopo bihurtzen dira ez-tanda egitean. Kobalto-60 isotopoak medikuntzan erabiltzen dira, minbiziaren aurkako trata-



- menduan. *ES*: Bomba de cobalto *FR*: Bombe au cobalt *EN*: Cobalt bomb
- Kobre**: iz. Cu. Elementu kimiko metalikoa, gorri-ka, distiratsua, malgua, hauskaitza eta —xafla mehetan— moldakorra. Haren gatzak toxikoak dira; gatz horietako batzuk, *azetatoa* eta *sulfatoa* adibidez, idorgarri gisa erabili izan dira. Organismoko zenbait entzima garrantzitsuren osagaia da, eta osasunerako ezinbestekoa. Ez-ohikoa da kobre-gutxiegitasuna, elikagai askotan ageri baita. *ES*: Cobre *FR*: Cuivre *EN*: Copper *Arloa*: Kim.
- Koch-en bazilo**: iz. *Mycobacterium tuberculosis* mikroorganismoaren izena. Tuberkulosiaren eragile da gizakietan. *ES*: Bacilo de Koch *FR*: Bacille de Koch *EN*: Koch's bacillus
- Kodeina**: iz. Kristal-itxurako alkaloide zuria, opiotik lortzen dena; morfinak baino eragin hipnotiko txikiagoa du. Analgesiko narkotiko gisa, minaren aurka, beharakoei aurre egiteko eta ezularen kontra erabiltzen da, besteak beste. *ES*: Codeína *FR*: Codéine *EN*: Codeine *Arloa*: Med.
- Koentzima**: iz. Kofaktore organiko eta ez-proteikoa, erreakzio entzimatikoa gertatzeko beharrezkoa. Koentzima gisa jokatzeko dute zenbait bitaminak. *ES*: Coenzima *FR*: Coenzyme *EN*: Coenzyme *Arloa*: Biol.
- Kognitibo**: izond. Ulermenaren, zentzuaren, memorizazioaren eta arrazoibidearen prozesu mentalari dagokiona. *ES*: Cognitivo *FR*: Cognitif *EN*: Cognitive *Arloa*: Psikol.
- Kognizio**: iz. Ezagutza. *ES*: Cognición *FR*: Cognition *EN*: Cognition *Arloa*: Psikol.
- Kohesio**: iz. Gorputz baten molekula baturik mantentzen dituen indarra. Molekulen arteko distantzia handitu ahala, gutxitu egiten da kohesioa. *ES*: Cohesión *FR*: Cohésion *EN*: Cohesion
- Kohesio-indar**: iz. Erakarpen-indarra, materia erazten duten partikulen arteko eragin-trukearen ondoriozkoa. *ES*: Fuerza de cohesión *FR*: Force de cohésion *EN*: Cohesive force
- Koipetsu**: izond. Gantza duena. *ES*: Crasiento, grasiento *FR*: Huileux *EN*: Greasy, oily
- Koito**: iz. Arraren eta emearen edo bi arron arteko sexu-elkarketa; zakila bikotekidearen gorputzeko zuloren batean sartu, eta elkarren kitzikapena eta orgasmoa eragiten dute, eskuarki. *ES*: Coito *FR*: Coït *EN*: Coitus
- Koka**: iz. Eritroxilazeoen familiako zuhaixka. Hainbat alkaloide ditu hostoetan; kokaina da horietan ezagunena. *ES*: Coca *FR*: Cocaïer *EN*: Coca shrub *Arloa*: Bot.
- Kokaina**: iz. Koka-landarearen hostoetatik ateratzen den alkaloide kristalinoa. *Klorhidratoa* erabiltzen da, batez ere, medikuntzan eta kirurgian, azaleko anestesiko gisa. Narkotiko gisa edo beginina zabalatzeko ere erabiltzen da. *ES*: Cocaïna *FR*: Cocaïne *EN*: Cocaine *Obarrak*: Gaur egun, droga pizgarri gisa hartzen da kokaina; zainetik eta batez ere sudurretik hartzen da. Hizketarako gogoa pizten du, psikismoa eta adimen-ahalmenak kitzikatzen ditu, eta neke-sentsazioa gutxitzen du. Dosi handiagoetara ohitzen da gorputza pixkanaka-pixkanaka, eta kokainarekiko mendekotasuna agertzen da luzarora.
- Kokainazale**: izond. Kokainarekiko gehiegizko zaletasuna edo mendekotasuna duena. *ES*: Cocaïnómano *FR*: Cocaïnomane *EN*: Cocaine addict
- Kokainazaletasun**: iz. Kokaina neurritz kanpo hartzeak dakarren mendekotasuna. *ES*: Cocainomanía *FR*: Cocaïnomanie *EN*: Cocaine addiction
- Kokainomania**: iz. Ikus 'kokainazaletasun'.
- Koka-landare**: iz. Ikus 'koka'.
- Koklea**: iz. Kono-itxurako barrunbea; barne-belarrian —barraskiloan— dago. Helize-itxurako hodi batez osatua dago. *ES*: Cóclea
- Koko**: iz. Esfera-itxurako bakterioa. Taldekatzeko moduaren arabera, hainbat sail egin daitezke: diplokoko (binaka), estafilokoko (mordoa), estreptokoko (kateetan), eta abar. *ES*: Coco *FR*: Coccus *EN*: Coccus *Arloa*: Biol.
- Kokots**: iz. Beheko ezpainaren azpian dagoen aurpegi zatia. Piramide-itxura du, eta behe-barailaren atala da. *ES*: Mentón, barbilla *FR*: Menton *EN*: Mentum *Arloa*: Anat.
- Kokzix**: iz. Hezur zorrotza, bizkarrezurraren behealdean kartilago-zuntzeko disko batez sakroarekin giltzatzen dena. Oinarrizko 3-5 ornoz osaturik dago, eta elkarri itsatsirik daude orno horiek. *ES*: Coxis, cóccix *FR*: Coccyx *EN*: Coccyx *Arloa*: Anat.
- Kolageno**: iz. Zuntz erretikular txikia duten hariizpiz osaturiko proteina. Ehun konektiboaren, hezurren eta kartilagoen gai organikoaren osagai nagusia da. Beroarekin, gelatina bihurtzen da. *ES*: Colágeno *FR*: Collagène *EN*: Collagen *Arloa*: Biokim.
- Kolapso**: 1. iz. Muturreko ahulezia eta bat-bateko depresioa ezaugarri dituen egoera; bihotz-funtzioak ahultzen ditu. Tratatu ezean, shock egoera eragin dezake. 2. iz. Organo nahiz hodi baten paretaren tonu-galera; haren lumena ixtea edo gutxitzea dakar. *ES*: Colapso *FR*: Collapsus *EN*: Collapse *Arloa*: Med.
- Kolateral**: izond. Hodi edo nerbio nagusi batetik irteten den adar txikia; esate baterako, arteriolak eta benulak. *ES*: Colateral *FR*: Collatéral *EN*: Collateral *Arloa*: Anat.
- Kolera**: iz. Heste meharreko gaixotasun kutsagarri akutua. *Vibrio cholerae* baziloak eragiten du.



- Koleraren ezaugarri dira: gorakoak, beherako ugariak, sabeleko mina, egarria, pisua galtzea, gorputzeko temperatura jaitea eta karranpak. Sendagai moduan, gatz-disoluzioak sartzen dira zainetan; antibiotikoak ere lagungarri dira, baina ez dute gaixotasuna sendatzen. Hilgarria izan daiteke, modu egokian tratatzen ez bada. *ES: Cólera FR: Choléra EN: Cholera Arloa: Med.*
- Kolesterol:** iz. Animalia-jatorria duen esterola; organismoak sintetizatzen du, eta hainbat organotan agertzen da: behazunean, odolean, garunehunean, gibelean, giltzurrunetan, giltzurrun gaineko guruinetan eta nerbio-zuntzen mielina-zorroan. Gantz-azidoen xurgapena eta garraioa errazten ditu, eta D bitaminaren eta hainbat hormona esteroideoren sintesiaren ekoizle da. Gorputzak behar ez duen kolesterola kanporatu egiten da, gerneruaren eta gorotzen bidez. *ES: Colesterol FR: Cholestérol EN: Cholesterol Arloa: Biokim.*
- Kolibazilo:** iz. Bakterio gramnegatiboa. Gizakien eta animalien hesteetan egoten da egoera normaletan ere, baina patogeno bihur daiteke. *ES: Colibacilo FR: Colibacille EN: Colibacillus Arloa: Mikrob.*
- Koligatibo:** izond. (Propietate bati buruz) Kimika fisikoan, gai baten partikulen kopuruaren mende dagoena, baina gai horren izaera kimikoaren mende egon gabe. *ES: Coligativo FR: Colligative EN: Colligative Arloa: Kim.*
- Koliko:** 1. iz. Erraietako min akutua; organo bane-hutsetako nahiz tutu-formakoetako —ureterra edo hesteak, adibidez— gihar lisoaren buxadurak, bihurdurak nahiz espasmoak eragina izan ohi da. 2. izond. Kolonari dagokiona. *ES: Cólico FR: Colique EN: Colic Arloa: Med., Anat.*
- Koliko nefritiko:** iz. Min zorrotza, ureteraren buxaduraren ondoriozkoa. Bizkarraren behealdean —giltzurrunen gainean— agertzen da mina. Eskuarki, kalkuluek eragina izaten da. *ES: Cólico nefrítico FR: Colique néphrétique EN: Nephritic colic*
- Kolitis:** iz. Heste lodiaren hantura; haren ezaugarri dira min kolikoa eta beherakoa edo idorrerria, eta, sarritan, tentsio emozionalaren ondorioz etortzen dira. *ES: Colitis FR: Colite EN: Colitis Arloa: Med.*
- Kolkizina:** iz. Azpelarraren osagai aktiboa; glukosido kristalizatu pozoitsua da, eta alkoholetan disolbagarria. Hezueriaren tratamenduan erabiltzen da, dosi txikitik. *ES: Colquicina, colchicina FR: Colchicine EN: Colchicine Arloa: Kim.*
- Koloidal:** 1. izond. Koloidearen izaera duena. 2. izond. Agregazio-egoeran dagoena, erabateko disoluzioaren eta esekiduraren artean. *ES: Coloidal FR: Colloïdale EN: Colloidal*
- Koloide:** iz. Materiaren egoera; molekula handiak edo prezipitatzen ez diren molekula multzoak beste ingurune batean daude barreiatuak. Ezin dituzte mintzak zeharkatu, koloideetako partikulen tamainagatik. *ES: Coloide FR: Colloïde EN: Colloid Arloa: Kim.*
- Kolon:** iz. Heste lodiaren zatia, heste itsutik ondeteraino doana. Lau atal ditu: goranzkoa, zeharkakoa, beheranzkoa eta sigmaidea. *ES: Colon FR: Côlon EN: Colon Arloa: Anat.*
- Kolon-arteria:** iz. Heste lodiko arteria. *ES: Arteria cólica FR: Artère colique EN: Colic artery Oharrak: Arteria kolikoa hiru dira: eskuineko arteria kolikoa, peritoneoaren atzetik goranzko kolonaren aldera hedatzen dena; erdiko arteria kolikoa, mesokolonean zeharkako kolonerantz hedatzen dena; eta ezkerreko arteria kolikoa, peritoneoaren atzetik beheranzko kolonaren aldera hedatzen dena. Arloa: Anat.*
- Kolonia:** iz. Espezie bereko zelula edo organismo multzoa; zelula bakar batetik eratorriak dira. Taldeak erazten dituzte beren garapen-zikloan. Itxurari dagokionez, leunak, zimurrak edo nanoak izan daitezke. *ES: Colonia FR: Colonie EN: Colony Arloa: Biol.*
- Kolonizatu:** ad. Hutsik dagoen leku batean, animalia- edo landare-espezie bat ezarri. *ES: Colonizar FR: Coloniser EN: To colonize Arloa: Biol.*
- Kolonizazio:** iz. Mikroorganismoen hazkundera bizi-dunetan; ez da kaltegarria organismoarentzat. *ES: Colonización FR: Colonisation EN: Colonisation Arloa: Biol., Med.*
- Koloregabe:** izond. Kolorerik ez duena. *ES: Incoloro FR: Incolore EN: Colourless*
- Kolorge:** izond. Ikus 'koloregabe'.
- Kolpatu:** ad. Ehun organiko batean makatua eragin —baina zauririk ez—, bortizki joz edo estutuz. *ES: Contusionar EN: To contuse, to bruise*
- Kolpatu:** izond. Ikus 'zauritu'.
- Kolpe:** iz. Ikus 'atake'.
- Kolutorio:** iz. Sendagaidun likidoa; ahoa garbitzeko eta ahoko muki-mintzak tratatzeko erabiltzen da. *ES: Colutorio FR: Collutoire EN: Collutory*
- Koma:** iz. Osasun-egoera larria; koma-egoeraren ezaugarri dira: begietako bat-bateko mugimendurik eza, estimulu mingarrien aurrean erantzunik eza, eta hitz egiteko gaitasunik eza. Koman dagoen gaixoa ezin da esnatu. Komaren eragile izan daitezke: traumatismoak, garuneko tumorrak, hematoma, intoxikazio-egoerak, entzefalitisa dakarten gaixotasun kutsagarri larriak, gaixotasun bascularrak, pozoidurak, eta azidosi diabetikoa. *ES: Coma FR: Coma EN: Coma Arloa: Med.*

- Komatoso:** izond. Koma-egoerari edo ez-ohiko loaldi sakonari dagokiona. *ES:* Comatoso *FR:* Marginalement conscient *EN:* Comatose *Arloa:* Anat.
- Komisura:** iz. Bi atal anatomikoren arteko lotunea. *ES:* Comisura *FR:* Commissure *EN:* Commissure *Adibideak:* Begiko angelua, ezpainetakoa, eta abar. *Arloa:* Anat.
- Komunikatu:** 1. ad. Seinaleak igorri, hartzaileak eta igorleak elkarrekin duten kodea erabiliz. 2. ad. Bi gune pasabide batez elkartuak egon. *ES:* Comunicar *FR:* Communiquer *EN:* To communicate
- Komunikatzaile:** 1. izond. Komunikatzen duena, edo komunikatzeko balio duena. 2. izond. Lotura bat osatzen duena. *ES:* Comunicante *FR:* Communicateur *EN:* Communicator
- Komunikazio:** iz. Informazioa duen mezu bat igortzean datzan prozesu oro; batez ere pertsonen artean igortzen den mezuari dagokio, edozein dela ere erabilitako bidea. *ES:* Comunicación *FR:* Communication *EN:* Communication
- Konbertsio:** iz. Babes-mekanismoa; histerian agertzen da, batez ere; gatazka psikiko bati aurre egin nahirik, hainbat sintoma —somatikoak, higidurazkoak edo sentimenezkoak— agertzen dira. *ES:* Conversión *FR:* Conversion *EN:* Conversion *Arloa:* Psikol.
- Konbultsibo:** izond. Konbultsioak eragiten dituen. *ES:* Convulsivo *FR:* Convulsif *EN:* Convulsive *Arloa:* Med
- Konbultsio-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'konbultsibo'.
- Konbultsio:** iz. Gihar-multzo baten bat-bateko eta nahi gabeko uzkurdura bortitza. Hainbat eragile izan ditzake: sukarra (haurretan batez ere), idorria, hesteetako bizkarroiak, epilepsia, pozoitzeak, histeria, garuneko kolpeak, eta abar. Jarraitua edo ez-jarraitua izan daiteke, eta, horren arabera, tonikoa edo klonikoa. *ES:* Convulsión *FR:* Convulsions *EN:* Convulsion *Arloa:* Med.
- Kondentsagarri:** izond. Kondentsa daitekeena. *ES:* Condensable *FR:* Condensable *EN:* Condensable
- Kondentsagarritasun:** iz. Zenbait gorputzek kondentsatzeko duten gaitasuna. *ES:* Condensabilidad
- Kondentsazio:** iz. Prozesu inkontzienteen funtzio-namendurako oinarriko moduetariko bat. Errealitatean inoiz ikusten ez diren multzotan biltzen dira errepresentazio, oroitzapen eta pentsamen-duak, eta sinbolo bakar batek ordezkatzeko ditu. Ametsetan nabarmentzen da, bereziki. *ES:* Condensación *FR:* Condensation *EN:* Condensation *Arloa:* Psikol.
- Kondilo:** iz. Hezuraren giltzadura-guneko irten-gune biribildua; han txertatzen dira lotailuak eta giharrak. *ES:* Cóndilo *FR:* Condyle *EN:* Condyle *Arloa:* Anat.
- Kondritis:** iz. Kartilagoaren hantura. *ES:* Condritis *FR:* Chondrite *EN:* Chondritis *Arloa:* Med.
- Kondroma:** iz. Kartilago-zelulaz osaturiko tumor onbera; sarritan sortzen da, eta kartilagoaren barnean (enkondroma) edo gainazalean (ekondroma) hazten da, astiro. *ES:* Condroma *FR:* Chondrome *EN:* Chondrome *Arloa:* Med.
- Konektibo:** izond. Ehun multzoa; organismo baten ehunak edo organoak elkarren artean lotzen ditu. Zuntzez eta zelula mota ugaziz osatua dago. *ES:* Conectivo *FR:* Connectif *EN:* Connective *Arloa:* Biol.
- Kongestio:** iz. Gorputzeko atal edo organo bateko likido-pilaketa, ez-ohikoa. Odola izaten da likido hori eskuarki, baina behazuna edo mukia ere izan daitezke. *ES:* Congestión *FR:* Congestion *EN:* Congestion *Arloa:* Med.
- Kongestionatu:** ad. Likido gehiegi pilatu, gorputzeko gune batean. *ES:* Congestionar *FR:* Congestionner *EN:* To congest *Arloa:* Med.
- Konjuntiba:** iz. Betazalen barne-azala eta esklerotikaren aurrealdea estaltzen dituen mintza. *ES:* Conjuntiva *FR:* Conjunctive *EN:* Conjunctiva *Arloa:* Anat.
- Konjuntibitis:** iz. Konjuntibaren hantura; bakterio- edo birus-infekzioek, alergiak nahiz ingurune faktoreek eragin dezakete. *ES:* Conjuntivitis *FR:* Conjonctivite *EN:* Conjunctivitis *Arloa:* Med.
- Konjuntibo:** izond. Ikus 'konektibo'. *ES:* Conjuntivo *FR:* Conjonctif, connectif *EN:* Connective *Arloa:* Biol.
- Konkor:** iz. Bizkarreko irtengunea, bizkarrezurreko deformazio baten ondoriozkoa. *ES:* Abultamiento
- Konkordun:** izond. Bizkarrean konkorra duena. *ES:* Cheposo
- Konkordura:** iz. Atal baten tolestura natural edo istripuzkoa, bereziki hezurrena. *ES:* Encorvadura
- Konkortu:** ad. Norbait edo zerbait okertu, gako-nahiz konkort-itxuran. *ES:* Corvar
- Konkortu:** izond. Ikus 'konkordun'.
- Konkrezio:** iz. Masa inorganikoa; zelula-ehunetan eratzen da, gatz-mineralak pilatzearen ondorioz. *ES:* Concreción *FR:* Concrétion *EN:* Concretion *Arloa:* Med.
- Konnatu:** izond. Ikus 'sortzekide'.
- Kono:** iz. Erretinako zelula foto-hartzailea; koloreen pertzepzioa ahalbidetzen du. Erretina-kono bana dago oinarriko kolore bakoitzarentzat. Gainerako koloreak, aldiz, kono mota bat baino gehiago kitzikatuz ikusten dira. *ES:* Cono *FR:* Cône *EN:* Cone *Arloa:* Anat.

- Konorterik gabe:** adlag. Sinkopeagatik, koma-egoe-ragatik eta abarregatik kordea une batez galdurik. *ES:* Inconsciente *FR:* Inconscient *EN:* Unconscious
- Konorte:** iz. Kontzientziaren egoera; norberari eta ingurumenari dagokio, horietan, berehalako kontuetara zuzentzen baita arreta. *ES:* Conocimiento *FR:* Conscience *EN:* Consciousness
- Konortea galdu:** ad. Zentzua eta konortea galdu. *ES:* Desmayar, desvanecer
- Konortegabetu:** ad. Ikus 'konortea galdu'.
- Konorte-galera:** iz. Ikus 'korde-galtze', 'sinkope'.
- Konorterik ez:** iz. Kontzientzia falta osoa nahiz neurri batekoa, edo sentimen-kitzikapenekiko erreazio falta. Hainbat arrazoiengatik gerta daiteke: arnas gutxiegitasuna edo shocka, garuneko depresore metabolikoak edo kimikoak —farmakoak, pozoiak, zetonak, desoreka elektrolitikoak—, garuneko lesioak —traumatismoa, konbulsioak, garuneko hodietako asaldak, tumorrak, garuneko infekzioak—, eta abar. *ES:* Inconsciencia *FR:* Inconscience *EN:* Unconsciousness
- Konplexu:** 1. izond. Hainbat elementuz osatua dagoena. 2. iz. Elektrokardiografian, aurikula baten edo bentrikulu baten sistolea adierazten duen atala. 3. iz. Gaixotasun baten sintoma multzoa. *ES:* Complejo *FR:* Complexe *EN:* Complex *Arloa:* Med.
- Konplexu:** iz. Balio afektibo sakona duten oroitzapenen eta errepresentazioen multzoa. Batzuetan, guztiz inkontzientea da; beste batzuetan, berriz, neurri batean bakarrik da inkontziente. Haurtzaroen izandako giza harremanen ondorioz eratzten dira konplexuak, eta maila psikologiko guztiak egituratu ditzakete: emozioak, jarre-ak eta jokabide egokituak. *ES:* Complejo *Arloa:* Psikol.
- Konplexu:** iz. Konposatu inorganikoen mota bat, *koordinazio-konposatu* ere esaten zaio. Ioi metaliko zentral bat molekular edo ioiez (*ligando* deritze) inguratua agertzen da. *ES:* Complejo *Arloa:* Kim.
- Konponbiderik gabe:** izond. Ikus 'konponezin'.
- Konponduezin:** izond. iz. Ikus 'konponezin'.
- Konponezin:** izond. Ezin konpon daitekeena, edo ezin senda daitekeena. *ES:* Irreparable *FR:* Irréparable *EN:* Non-repairable
- Konposatu:** izond. (Gai bati buruz) Proporzio jakinetan kimikoki konbinaturiko bi elementuz edo gehiagoz osatua; elementu horiek ezin daitezke baliabide fisikoen bidez bereizi. *ES:* Compuesto *FR:* Composé *EN:* Compound *Arloa:* Kim.
- Konpresa:** iz. Gazaz egina —gehienetan— dagoen zapi biguna; gorputzeko atal batean beroa, hotza edo sendagaiak jartzeko erabiltzen da. Odoljarioak kontrolatzeko ere erabil daiteke, zaurien gainean jarri. *ES:* Compresa *FR:* Compresse *EN:* Compress *Oharrak:* Konpresak erabiltzen dira hilekoan kanporatzen den odola xurgatzeko.
- Konprimitu:** ad. Gorputz baten bolumena txikiagotu, presio bidez. *ES:* Comprimir *FR:* Comprimer *EN:* To compress
- Konprimitu:** iz. Sendagai baten dosifikazio txiki eta solidoa. Ia edozein neurri, forma, pisu eta kolore izan dezake. Gehienak osorik irentsi ahal izateko eginak daude, baina batzuk ahoan nahiz likidotan disolba edo murtxika daitezke irentsi aurretik; zenbait konprimitu gorputzeko barrunberen batean jar daitezke. *ES:* Comprimido *FR:* Comprimé *EN:* Tablet *Arloa:* Med.
- Konpulsio:** iz. Barne-indar menderaezina, errepikakorra eta irrazionala; eskuarki, norberaren balio eta aburuen aurkakoa da. Indar hori ekintza batean gauzatu ezean, antsietate larria eragiten du. *ES:* Compulsión *FR:* Compulsion *EN:* Compulsion *Arloa:* Psikiat.
- Konstriksio:** iz. Ikus 'hertsadura'.
- Kontraindikatu:** ad. Tratamendu bat erabiltzea ez-komenigarritzat jo, kasu horretan berez erabiliko litzatekeen tratamendua bada ere. *ES:* Contraindicar *EN:* To contraindicate *Arloa:* Med.
- Kontraindikazio:** iz. Egoera edo baldintza patologikoa; desegoki bihurtzen du gaixotasun baten tratamendu jakin bat. *ES:* Contraindicación *FR:* Contre-indication *EN:* Contraindication *Arloa:* Med.
- Kontrako eztarrira joan:** ad. Edozein gaik arnasbidea oztopatu. Irentsitakoa hestegorritik joan beharrean trakean sartu delako gertatzen da gehienetan. *ES:* Atragantar
- Kontrako eztarririk sartu:** ad. Ikus 'kontrako eztarrira joan'.
- Kontraktura:** iz. Nahitaezkoa ez den uzkurdura iraukorra, gihar-talde batena edo gehiagorena; geldirik eta zurrin egonarazten dio erasaten dion atal horri. *ES:* Contractura *FR:* Contracture *EN:* Contracture *Arloa:* Med.
- Kontraste:** iz. Organismoan sartzen den gai erradiopakoak; X izpien bidez hainbat organo ikusi ahal izateko sartzen da. *ES:* Contraste *FR:* Contraste *EN:* Contrast *Arloa:* Med.
- Kontrazepzio:** iz. Haurdunaldia ekiditeko teknika edo prozedura; sendagaiak edo beste zenbait metodo erabiliz egiten da. *ES:* Contracepción *FR:* Contraception *EN:* Contraception *Adibideak:* Kontrazepzio-metodoak dira: pilula, preserbatiboa, diafragma, espermizida, umetoki barneko gailua (UBG), eta abar. *Arloa:* Med.

- Kontrazepziozko:** izlag. (Gai edo teknika bati buruz) Ernalketa ekiditen duena. *ES:* Contraceptivo *FR:* Contraceptif *EN:* Contraceptive
- Kontrol:** iz. Zerbait zaintzeko edo egiaztatzeko azterketa. *ES:* Control *FR:* Maîtreiser *EN:* Control
- Kontrolatu:** 1. ad. Zerbait modu egokian dagoela egiaztatzeko azterketa egin. 2. ad. Egoera batean eragina izan, bulkadak kontzienteki mugatuz. *ES:* Controlar *FR:* Contrôler *EN:* To control
- Kontrolatzaile:** izond. Kontrolatzen duena. *ES:* Controlador *FR:* Contrôleur *EN:* Controller
- Kontsulta:** iz. Medikuen arteko bilera, gaixotasun baten diagnostikoari eta tratamenduari buruz hitz egiteko. *ES:* Consulta *FR:* Consultation *EN:* Consultation
- Kontsulta-gela:** iz. Ikus 'kontsultategi'.
- Kontsultategi:** iz. Medikuak bisitak hartzen dituen gela. *ES:* Consultorio *FR:* Cabinet de consultation *EN:* Consulting room
- Kontusio:** iz. Lesio traumatikoa ehun organikoe-tan, kolpe batek eragindakoa. Eskuarki, ez du urradurarik eragiten. Hantura, kolore-aldaketa eta mina ditu ezaugarri. *ES:* Contusión *FR:* Contusion *EN:* Contusion *Oharrak:* Kontusioak aurrera ez egiteko, gune horretan berehala hotza jartzea komeni da.
- Kontzentrazio:** iz. Nahaste batean osagai batek nahaste osoarekiko duen proportzioa. *ES:* Concentración *FR:* Concentration *EN:* Concentration *Arloa:* Kim.
- Kontziente:** 1. iz. Gogamenaren atala; atal horretan, jakinaren gainean dago pertsona bere pentsamenduz, ideiez eta emozioez. *ES:* Consciente *Arloa:* Psikol. 2. izond. Zentzumen-kinada bati erantzuteko gai dena. *ES:* Consciente *FR:* Conscient *EN:* Conscious *Arloa:* Med.
- Kontzientzia:** iz. Gizabanakoak bere buruarekiko —eta jasandako aldaketekiko— edo inguruarekiko duen intuiziozko eta gogoetazko ezagutza. *ES:* Conciencia *FR:* Conscience *EN:* Consciousness
- Koordinatu:** ad. Ahalegin guztiak bateratu, helburu jakin bat lortu ahal izateko. *ES:* Coordinar *FR:* Coordonner *EN:* To coordinate
- Koordinazio:** iz. Funtzio batean elkarrekin parte hartzen duten atalen jarduera harmonikoa. *ES:* Coordinación *FR:* Coordination *EN:* Coordination *Arloa:* Med.
- Kopeta:** iz. Aurpegiaren goiko aldea, lokien artean dagoena; bekainetatik ilearen hasierako guneraino doa. *ES:* Frente *FR:* Front *EN:* Forehead *Arloa:* Anat.
- Kopeta-hezur:** iz. Ikus 'hezur frontal'.
- Kopetako gihar:** iz. Kopetan dagoen giharra. *ES:* Músculo frontal *FR:* Muscle frontal *EN:* Frontal muscle *Arloa:* Anat.
- Koprofilia:** iz. Zikinkeriekiko —eta, batez ere, gorrotekiko— erakarmena. *ES:* Coprofilia *FR:* Coprophilie *EN:* Coprophilia *Arloa:* Psikiat.
- Koprolito:** iz. Gorozki eraturako masa gogorra, hesteetan dagoena; batez ere, heste lodian ur gehiegi xurgatu delako gertatzen da. *ES:* Coprolito *FR:* Coprolithe *EN:* Coprolith *Arloa:* Med.
- Kopulatu:** ad. Arra eta emea sexuz elkartu; koitua egin. *ES:* Copular *EN:* To copulate
- Kopulazio:** iz. Ikus 'koito'. *ES:* Cópula, copulación *FR:* Copulation *EN:* Copulation
- Korakoide:** iz. Eskapulako apofisia; gako-itxura du sorbaldako irtengunerik nabarienean. *ES:* Coracoides *FR:* Coracoïde *EN:* Coracoid *Arloa:* Anat.
- Korda:** iz. Soka-itxurako organo edo atala. *ES:* Cuerda *FR:* Corde *EN:* Cord *Arloa:* Anat.
- Korde:** iz. Ikus 'konorte'.
- Kordea galdu:** ad. Ikus 'konortea galdu'.
- Kordegabetu:** ad. Ikus 'konortea galdu'.
- Korde-galtze:** iz. Zentzua eta konortea galtzea. *ES:* Desmayo
- Kordoi:** iz. Egitura luze, biribildu eta malgua. *ES:* Córdón *FR:* Corde *EN:* Cord *Arloa:* Anat.
- Kordoi espermático:** iz. Barriletatik izarteko eraztun sakonera doan egitura. *ES:* Córdón espermático *FR:* Cordon spermatique *EN:* Spermatic cord
- Korea:** iz. Nerbio-gaixotasuna. Nahi gabeko gihar-uzkurdura zakar irregularrak ditu ezaugarri. Hainbat egoeraren ondorioz agertzen da: suminkortasuna, depresioa, eta buru-asalduak —batez ere haurtzaroan—. *ES:* Corea *FR:* Chorée *EN:* Chorea *Arloa:* Med.
- Korion:** 1. iz. Enbrioia inguratzen duen mintza. Karena eratzen du. 2. iz. Epitelioaren eta larruazaleko dermisaren azpiko mukosetako geruza sakon baskularra. *ES:* Corion *FR:* Chorion *EN:* Chorion *Arloa:* Anat.
- Kornea:** iz. Begi-globoaren aurreko aldea, ganbila eta gardena. Bost geruza dituen egitura zuntzua da. Dentsitate handikoa, lodiera uniformekoa eta ez-baskularra da. Begira sartzen den argia errefraktatzen du korneak, eta irudiak erretinan egokitzen laguntzen du. *ES:* Córnea *FR:* Cornée *EN:* Cornea *Arloa:* Anat.
- Kornete:** iz. Sudur-zuloko hormetan dauden hezur-xafla txiki biribilduak. *ES:* Cornete, concha
- Koroa:** 1. iz. Esmaltez estalitako hortz zatia 2. iz. Koroa-itxuran antolatua dagoen gorputz-organoko edo atala. *ES:* Corona *FR:* Couronne *EN:* Corona *Arloa:* Med., Anat.
- Koroide:** iz. Begiko geruza baskular iluna, esklerotikaren eta erretinaren artean dagoena. Odol-hodi txiki askok eta pigmentudun zelulek osatzen dute. Koroidearen pigmentuak erretina ba-

- besten du, argi gehiegi denean kalterik izan ez dezan. *ES: Coroides FR: Choroïde EN: Choroïd*
- Koroka:** iz. Ikus 'estertore'.
- Koronario:** izond. Koroa-itxuran zerbait inguratzen duten egiturei dagokiena; esate baterako, bihotza inguratzen duten arteria koronarioak. *ES: Coronario FR: Infarctoïde EN: Coronary Oharrak: Arteria koronarioak (ezkerraldekoa eta eskuinaldekoa) aorta arterian jaiotzen dira, eta, bihotza inguratuz, bi adarretan banatzen dira. Odol garbia —oxigeno asko duena— garraiatzen dute bihotz-hormetara. Arloa: Anat.*
- Korpuskular:** 1. izond. Korpuskuluei dagokiena. 2. izond. Korpuskuluak dituen. *ES: Corpuscular FR: Corpusculaire EN: Corpuscular*
- Korpuskulu:** iz. Gorputz edo masa txikia. *ES: Corpúsculo FR: Corpuscle EN: Corpuscle Arloa: Biol.*
- Korrok egin:** ad. Urdaileko gasak zarata eginez ahotik atera. *ES: Eructar FR: Eructer EN: To belch*
- Korroka(da):** iz. Urdailean eratzen diren gasak ahotik zarataz ateratzearen emaitza. *ES: Eructo FR: Eructation EN: Belch, eructation*
- Korronte:** iz. Fluxu edo likido baten higidura; partikulak noranzko berean hitgizten dira. *ES: Corriente FR: Courant EN: Current*
- Korrosibo:** izond. Ehun bat edo beste edozein gai erretzeko gaitasuna duena. *ES: Corrosivo FR: Corrosive EN: Corrosive*
- Korrosio:** iz. Ehun baten suntsipen geldia; erregari baten eraginez gertatzen da. *ES: Corrosión FR: Corrosion EN: Corrosion*
- Kortex:** iz. Organo anatomiko baten kanpoaldeko geruza. *ES: Córtex FR: Cortex EN: Cortex Arloa: Anat.*
- Kortikal:** 1. izond. Kortexari dagokiona. 2. iz. Kortexak isurtzen duen gaia. *ES: Cortical FR: Cortical EN: Cortical Arloa: Anat.-Biol.*
- Kortikoide:** iz. Giltzurrun gaineko guruinen kortexak jariatzen dituen hormonak, naturalak edo sintetikoak. Eragina dute organismoaren oinarritzko prozesuetan. Glukokortikoideak eta mineralokortikoideak daude kortikoide sintetizatuen artean. Hanturaren kontra erabiltzen dira, bereziki. *ES: Corticoïde FR: Corticoïde EN: Corticosteroid Oharrak: Kortisola eta kortikosterona dira glukokortikoide nagusiak. Aldosterona da, berriz, gizakiaren fisiologian garrantzitsua den mineralokortikoide bakarra. Arloa: Biokim.-Biol.*
- Kortikosteroide:** iz. Ikus 'kortikoide'.
- Kortisona:** iz. Giltzurrun gaineko guruinean sintetizatzen den hormona glukokortikoidea; era sintetikoan ere lor daiteke. Hanturaren aurka erabiltzen da. *ES: Cortisona FR: Cortisone EN: Cortisone Oharrak: Artritisak eragiten dituen ondoezak sendatzen ditu, baina ez du eritasuna bera sendatzen. Begietako eritasunak, alergiak, eta abar sendatzeko erabiltzen da, baina kalteak ere eragin ditzake (urdaileko ultzera, hormoneta-ko eta nerbioetako gorabeherak, eta abar). Arloa: Biokim., Med.*
- Kortse:** iz. Mahukarik gabeko jantzia; bularraldea eta gerrialdea estu lotzen ditu. Gorputz-enborearren mugimenduak murrizteko eta tinko eusteko erabiltzen da. *ES: Corsé FR: Corset EN: Girdle*
- Koskadun:** izond. Ertzetan hortz-itxurako luzakinak dituen. *ES: Dentado*
- Kotilo:** iz. Hezur baten barrunbea, beste hezur baten burua jasotzen duena. *ES: Cotilo FR: Cotyle EN: Cotyle Arloa: Anat.*
- Koxal:** izond. Aldakari dagokiona. *ES: Coxal FR: Coxal EN: Coxal Arloa: Anat.*
- Kraska:** iz. Bat-bateko hots labur eta lehorra. Zerbait apurtzean, hezurren bat-edo, entzuten den hotsa da. *ES: Chasquido FR: Craquement EN: Click*
- Kretinismo:** iz. Adimen-urritasun sakona; tiroide guruinaren jarduera urriak (hipotiroidismoak) eragina da, eta endekapen fisikoarekin batera agertzen da. Jaiotzetiko asaldua da, eta garapen fisikoa eta mentala geratzea ditu ezaugarri. Kretinismoaren zeinuak dira: nanismoa, adimen-urritasuna, larruazal lehorra, zilborreko hernia, gihar-koordinaziorik eza, aurpegi-egitamu zakarrak, eta abar. Maiz agertzen da iodo urriko elikadura duten eta bozioa endemikoa den lurraldeetan. *ES: Cretinismo FR: Crétinisme EN: Cretinism Arloa: Med.*
- Kretino:** izond. Kretinismoa duena. *ES: Cretino FR: Crétin EN: Cretin Arloa: Med.*
- Kriokirurgia:** iz. Kirurgiaren adarra; ehunak suntsitzeko izozte-teknika lokalak erabiltzen ditu. *ES: Criocirugía FR: Cryochirurgie EN: Cryosurgery Arloa: Med.*
- Krisi:** 1. iz. Gaixotasun zikliko baten bilakaeran gertatzen den aldaketa azkarra; hobekuntza edo okerrera egitea ekar ditzake. 2. iz. Oreak psikikoaren haustura larri eta bat-batekoa. *ES: Crisis FR: Crise EN: Crisis Arloa: Med.-Psikol.*
- Krisialdi:** iz. Ikus 'krisi'.
- Kristal:** iz. Gai solido inorganiko gogorra. Haren atomoek edo molekulek hiru dimentsioko patroirregularra hartzen dute; patroir hori behin eta berriz errepikatzen da, eta kristalaren forma zehazten du. *ES: Cristal FR: Cristal EN: Crystal*
- Kristaldu:** ad. Zenbait gaik kristal-forma hartu. *ES: Cristalizar FR: Cristalliser EN: To crystallize Arloa: Kim.*



- Kristalino:** iz. Begiko egitura gardenia; kapsula batek inguratzen du, eta irisaren eta humore beirakarren artean dago. Argi izpiak erretinan fokatzen ditu. *ES:* Cristalino *FR:* Cristallin *EN:* Crystalline lens *Arloa:* Anat.-Biol.
- Kristalizazio:** iz. Kristalen eraketa; likido edo gas bat hoztuz egiten da, solido-egoerara iritsi arte; edo disoluzio bat hoztuz, solutua kristal-jalkin gisa prezipitatu arte. *ES:* Cristalización *FR:* Crystallisation *EN:* Crystallization *Arloa:* Kim
- Kristaltze:** iz. Ikus 'kristalizazio'.
- Kritiko:** izond. (Egoerei buruz) Kezka edo ondoez bizikoa, larria. *ES:* Crítico *FR:* Critique *EN:* Critical *Arloa:* Med.
- Kromatida:** iz. Hariizpi formako egitura; kromosometan eratzen da, zelularen zatiketako lehen faseetan. Kromosoma bakoitza bi kromatidatan banatzen da. Bi kromatidak gutziz banatzen dira zatiketaren azken faseetan. *ES:* Cromátida, cromátide *FR:* Chromatide *EN:* Chromatid *Arloa:* Biol.
- Kromatina:** iz. ADNz eta proteinazko zuntzez eratutako multzoa, interfasean eukariotoen nukleo-ko kromosomak eratzen dituena. *ES:* Cromatina *FR:* Chromatine *EN:* Chromatin *Arloa:* Biol.
- Kromatoforo:** iz. Pigmentudun egitura biologikoa, pigmentua ekoizten edo biltzen duena; zelula kromatoforoak epidermisaren geruza sakonetan eta koroidean daude. *ES:* Cromatóforo *FR:* Chromatophore *EN:* Chromatophore *Arloa:* Biol.
- Kromatografia:** iz. Bereizketa-prozesua; disoluzio bateko osagaien molekula-desberdintasunak maila makroskopikora eramateko aukera ematen du, baliabide fisikoen laguntzaz. *ES:* Cromatografía *FR:* Chromatographie *EN:* Chromatography *Arloa:* Biol.
- Kromo:** iz. Cr. Elementu kimiko metalikoa, gris-zurixka, oso distiratsua, gogorra eta herdoilgaitza. Izadian ez da bakarrik izaten, baina ugaria da beste gai batzuekin konbinatuta. Pigmentuak dira kromoaren zenbait gatz, eta guztiak dira toxikoak. Garrantzia du giza elikaduran; karbohidratoen metabolismoan, batez ere. Kromo-51 isotopoa azterketa hematologikoetan erabiltzen da. *ES:* Cromo *FR:* Chrome *EN:* Chromium *Arloa:* Kim.
- Kromoplasto:** iz. Kromatoforoa; kolore horia edo laranja du, karotenoaren, xantofilaren eta beste zenbait gairen eraginez. *ES:* Cromoplasto *FR:* Chromoplaste *EN:* Chromoplast *Arloa:* Biol.
- Kromosoma:** iz. Zelularen nukleoaren osagaia, geneak gordetzen dituena. ADNren informazio genetikoa mantentzea etaugaritzea dute eginkizun nagusi. Kromosoma bakoitza ADN nukleo-proteinarenean kate bikoitzez osatua dago; kate hori helize-itxuran bildua eta oinarrizko proteina bati —gehienetan histonari— lotua dago. Gizakiak 46 kromosoma ditu: 22 bikote homologo eta 2 kromosoma sexual. *ES:* Cromosoma *FR:* Chromosome *EN:* Chromosome *Arloa:* Biol.
- Kromosomiko:** izond. Kromosomei dagokiena. *ES:* Cromosómico *FR:* Chromosomique *EN:* Chromosomal *Arloa:* Biol.
- Kroniko:** izond. Denbora luzean astiro garatuz irauten duen gaixotasuna; bizitza osorako izaten da, sarritan. *ES:* Crónico *FR:* Chronique *EN:* Chronic *Arloa:* Med.
- Krural:** izond. Zangoari dagokiona. *ES:* Crural *FR:* Crural *EN:* Crural *Arloa:* Anat.
- Kubitu:** iz. Besaurreko bi hezurretatik luzeena; besaurrearen erdialdean dago. Olekranon apofisia du goialdean, eta apofisi horrek ukondoaren irtelegunea eratzen du. Besahezurrarekin eta erradioarekin giltzatua dago. *ES:* Cúbito *FR:* Cubitus, ulna *EN:* Cubitus, ulna *Arloa:* Anat.
- Kuboide:** iz. Tartsoaren kanpo-ertzeko hezur laburra. Kalkaneoarekin, hiruugarren hezur kuneiformearekin, eta laugarren eta bosgarren metatarsoko hezurrekin giltzatua dago. *ES:* Cuboides *FR:* Cuboïde *EN:* Cuboid bone *Arloa:* Anat.
- Kukurruku-etzul:** iz. Ikus 'kukutxetzul'.
- Kuku-sagar:** iz. Ikus 'kuskuilu'.
- Kukutxetzul:** iz. Arnas gaixotasun akutua eta oso kutsagarria. *Bordetella pertussis*-ek eragiten du. 2-5 urte bitarteko haurrek izaten dute batez ere. Haren ezaugarri dira etzulaldi paroxistikoak; horiek amaitzean, arnasoara zatatatsua izaten dira. Etzulaldien ondoren, aurpegia hazi eta gorritu egiten da. *ES:* Tos ferina, coqueluche *FR:* Coqueluche *EN:* Pertussis *Arloa:* Med.
- Kultura:** iz. Laborategian hazitako mikroorganismo edo ehunen multzoa (emaitza). *ES:* Cultivo *FR:* Culture *EN:* Culture *Arloa:* Biol.
- Kuneiforme:** izond. Tartsoko bigarren hezur ilarako falka-formako hiru hezurretako bakoitza. *ES:* Cuneiforme *FR:* Cunéiforme *EN:* Cuneiform *Arloa:* Anat.
- Kurare:** iz. *Stryknos* generoko landare tropikaletatik lortutako gaia. Gihar-lasaigarri eraginkorra da; nerbio-kinaden transmisioa ekiditen du lotura neuromuskularen bidez. Paralisi orokorra eragiten du dosi handitan, efektua gehienetan antikolinergikoen bidez itzulgarria den arren. Tetanosaren aurka erabiltzen da konbultsioak murrizteko, elektroshokean gihar-espasmoak txikiagotzeko eta anestesian gihar-erlaxazio orokorrago lortzeko. *ES:* Curare *FR:* Curare *EN:* Curare
- Kurba:** iz. Metodo grafiko gisa erabiltzen den lerro zuzen edo kurbatua; azterketa edo txosten batean jasotako datuak banatzeko eta agertzeko erabiltzen da. *ES:* Curva *FR:* Courbe *EN:* Curve



- Kurbadura:** iz. Norabide zuzena aldatzearen ondorioa. *ES:* Curvatura *FR:* Courbure *EN:* Curvature
- Kuretaje:** 1. iz. Barrunbe bateko edo azalera baten hormako materiala karrakatzea; tumorrak eta ezohiko ehunak kentzeko, zein azterketa mikroskopikorako ehunak lortzeko egiten da. 2. iz. Legra bidez egiten den erauzketa, endometrioarena, endozerbixarena, edo biena. *ES:* Legrado, raspado *FR:* Curettage *EN:* Curettage *Arloa:* Med.
- Kuretajea egin:** ad. Legra batez ehuna edo ehun-hondarrak kendu; zerbaiten azala indarrez igurtziz egiten da. *ES:* Legrar, raspar *FR:* Curette *EN:* To curet *Arloa:* Med.
- Kurruka-eztul:** iz. Ikus 'kukutxeztul'.
- Kurruska:** iz. Ikus 'kartilago'.
- Kuskuilu:** iz. Azido tanikoa sortzen duen konkorriribildua; intsektuen eraginez agertzen da *Quercus* generoko landareetan. *ES:* Agalla *Arloa:* Biol.
- Kutikula:** iz. Epidermisaren kanpoko geruza, kutinaz eratua eta urarekiko irazgaitza; hatz edo behatz bateko azakalaren alde proximala estaltzen du. *ES:* Cutícula *FR:* Cuticule *EN:* Cuticle *Arloa:* Biol.
- Kutikular:** izond. Kutikulari dagokiona. *ES:* Cuticular *FR:* Cuticulaire *EN:* Cuticular
- Kutsadura:** 1. iz. Mikroorganismoen hazkundera, ez-bizidunetan. *ES:* Contaminación *FR:* Contamination *EN:* Contamination *Arloa:* Med. 2. iz. Ingurumenean gai kutsatzaileak hedatzearen ondorioa. 3. iz. Ikus 'kutsatze'.
- Kutsagarri:** 1. izond. Bide zuzenetatik edo zeharkakoetatik igarotzen dena. Esate baterako, gaixotasun kutsagarri bat. *ES:* Transmissible *FR:* Transmissible, communicable *Arloa:* Med. 2. izond. Infekzio bat eragin dezakeena. *ES:* Infeccioso
- Kutsagarritasun:** iz. Infekzio bat kutsatzeko gaitasun maila. *ES:* Contagiosidad *FR:* Contagiosité *EN:* Contagiosity *Arloa:* Med.
- Kutsakor:** izond. Kontaktu zuzenaren edo zeharkakoaren bidez kutsatzen dena. *ES:* Contagioso *FR:* Contagieux *EN:* Contagious
- Kutsatu:** 1. ad. Pertsona edo animalia batek gaixotasuna beste norbaiti igorri. *ES:* Contagiar *FR:* Polluer *EN:* To pollute 2. ad. Gorputz batean edo ingurumenean osasunarentzako kaltegarriak diren gaiak sartu. *ES:* Contaminar *FR:* Contaminer *EN:* To contaminate *Arloa:* Med.
- Kutsatzaile:** 1. izond. Ikus 'kutsagarri'. 2. izond. Kutsatzen duena. 3. iz. Ingurumenean dagoen gaia; eskuarki, arriskutsua da osasunarentzat. Gas-egoeran edo partikula txikitari ager daitezke kutsatzaileak atmosferan, eta narritagarriak izan daitezke birikentzat, begientzat eta larruazalarentzat. *ES:* Contaminante *FR:* Contaminant *EN:* Contaminant *Arloa:* Med.
- Kutsatze:** iz. Gaixotasun bat duen pertsona batekin kontaktu zuzena izatearen ondorioz, edo gaixohorrek erabilitako arropak, ontziak edo beste zenbait tresna erabiltzearen ondorioz, gaitza harrapatzea. *ES:* Contagio *FR:* Contagion *EN:* Contagion

# L

.....

- Labirinto:** iz. Barne-belarria osatzen duten organoen multzoa. Bi zati ditu: hezur-labirintoa eta mintz-labirintoa. *ES:* Laberinto *FR:* Labyrinthe *EN:* Labyrinth *Arloa:* Anat.
- Laborategi:** iz. Bereziki egokitutako gela edo egoitza, ikerketa zientifikoak, analisiak, sendagaien prestateta, esperimentuak, eta abar egiteko. *ES:* Laboratorio *FR:* Laboratoire *EN:* Laboratory
- Labur:** 1. izond. Iraupen gutxikoa. 2. izond. Dagokion luzerara iristen ez dena, eta, bere espezietakoekin konparaturaz gero, txikia dena. *ES:* Corto *FR:* Court *EN:* Short
- Lagin:** iz. Osotasun bateko zati adierazgarria; osotasunari dagozkion emaitzak eta ondorioak lor daitezke haren ezaugarriak aztertuz. *ES:* Muestra *FR:* Échantillon *EN:* Sample
- Laktifero:** izond. Esnea daramana, edo esnea ekoizten duena. *ES:* Lactífero *FR:* Lactifère *EN:* Lactiferous
- Laktiko:** izond. Esnari eta haren eratorriei dago-kiena. *ES:* Láctico *FR:* Lactique *EN:* Lactic
- Laktona:** iz. Barne-ester zikliko jakin batzuen izen generikoa; zenbait azido-alkoholen edo azido-fenolen barne-esterifikazioaren ondorioz sortutakoak dira ester horiek. *ES:* Lactona *FR:* Lactone *EN:* Lactone *Arloa:* Biokim.
- Laktosa:** iz. Disakaridoa; ugaztun guztien esnean dago. Hidrolisiz deskonposatzen da, eta glukosa eta galaktosa monosakaridoak ematen ditu. Helburu askotarako erabiltzen da: haurrentzako elikagaiak egiteko, okintzan eta gozogintzan, margarina eta gurina egiteko, legamia egiteko, penizilina egiteko, eta abar. *ES:* Lactosa *FR:* Lactose *EN:* Lactose *Arloa:* Biokim.
- Lamina:** iz. Ikus 'xafla'.
- Lanbide-gaixotasun:** iz. Lan edo lanbide jakin baten ondoriozko gaixotasuna.
- Landarejale:** izond. Ikus 'begetariano'.
- Landatu:** ad. Ikus 'ezarri'.
- Landatze:** ad. Ikus 'ezarpen'.
- Landare-patologia:** iz. Botanikaren adarra; landare-organismo patogenoek, birusek, bakterioek eta onddoek landareetan eragindako gaixotasunak edo gaixotasun fisiologikoak aztertzen ditu. *ES:* Patología vegetal
- Lan-medikuntza:** iz. Prebentzio-medikuntzaren adarra; langileen osasunaz, ongizateaz eta segurtasunaz arduratzen da. *ES:* Medicina laboral, medicina del trabajo *FR:* Médecine du travail *EN:* Occupational medicine
- Larbatu:** izond. (Zenbait gaixotasun eta sintomari buruz) Ezkutukoa dena; erabat agerian ez dagoena. *ES:* Larvado *FR:* Larvé *EN:* Larvate *Arloa:* Med.
- Laringe:** iz. Ahotsaren organoa; arnasbideen zati bat da, eta faringea eta zintzur-hestea lotzen ditu. Hiru kartilago sinplez eta hiru kartilago bikoitzez eratua dago; kartilago horiek lotailu bidez lotuta daude elkarren artean, eta hainbat giharrek mugiarazten dituzte. Ahots-kordak ditu bere baitan. *ES:* Laringe *FR:* Larynx *EN:* Larynx *Arloa:* Anat.
- Laringeo:** izond. Laringekoa, edo hari dagokiona. *ES:* Laringeo *FR:* Laryngée *EN:* Laryngeal *Arloa:* Anat.
- Laringitis:** iz. Laringearen hantura; bereziki, laringearen barnealdea estaltzen duen mukosarena. Ahots-korden edemarekin batera gertatzen da; afonia edo ahots-galera dakar horrek. Laringitisaren eragile izan daitezke: hotza, ke narritagarriak, temperatura-aldaketa bortitzak, ahotsa gehiegi erabiltzea, tabako asko erretzea nahiz lurrun narritagarriak. Akutua zein kronikoa izan daiteke. Laringitis larrian, eztula izan daiteke, eta eztarria latza eta minberatua egoten da. *ES:* Laringitis *FR:* Laryngite *EN:* Laryngitis *Arloa:* Med.
- Laringologia:** iz. Medikuntzaren adarra; laringea eta hari erasaten dioten gaixotasunen arrazioak eta tratamenduak aztertzen ditu. *ES:* Laringología *FR:* Laryngologie *EN:* Laryngology *Arloa:* Med.
- Laringologo:** iz. Laringeko asalduen diagnostikoan eta tratamenduan aditua den medikua. *ES:* Laringólogo *FR:* Laryngologue *EN:* Laryngologist *Arloa:* Med.
- Laringoskopia:** iz. Laringearen barnealdearen azterketa, laringoskopiaren bidez egiten dena bati bat. *ES:* Laringoscopia *FR:* Laryngoscopie *EN:* Laryngoscopy *Arloa:* Med.
- Laringoskopia:** iz. Laringearen azterketarako erabiltzen den endoskopia. *ES:* Laringoscopia *FR:* Laryngoscope *EN:* Laryngoscope *Arloa:* Med.
- Larmintz:** iz. Gizakien aurpegia estaltzen duen mintz sendo eta malgua. *ES:* Tez *FR:* Teint *EN:* Complexion
- Larri:** izond. Ikus 'kritiko'.
- Larriagotu:** ad. Gaixotasunak okerrera egin. *ES:* Agravar

- Larrialdi:** iz. Larritasuneko une edo egoera; berehalako arreta eskatzen du. *ES:* Urgencia *FR:* Urgence *EN:* Urgency, emergency *Arloa:* Med.
- Larrialdi-zerbitzu:** iz. Berehalako arreta eskaintzen duen zerbitzua, bereziki prestaturiko jendearen eta lan-tresnen bidez. Osasun-arazo larrienez arduratzen da, batez ere. *ES:* Servicio de urgencias *FR:* Service d'urgence *EN:* Emergency department
- Larrimin:** iz. Atsekabe bizia; balizko zorigaitz baten beldurra eragiten du, eta sintoma neurobegetatibo zenbait ditu: espasmoak, disnea, takikardia, eta abar. *ES:* Angustia *FR:* Angoisse *EN:* Anxiety *Arloa:* Psikol.
- Larritasun:** 1. iz. Larri dagoenaren egoera. *ES:* Gravedad *FR:* Gravit  *EN:* Severity 2. iz. Ikus 'herstura'.
- Larru:** iz. Gorputza estaltzen duen azala. *ES:* Cuir *FR:* Cuir *EN:* Leather
- Larruazal-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'larruazaleko'.
- Larruazal:** iz. Gorputza kanpotik ia osorik estaltzen duen mintz lodi, sendo eta malgua. Gorputzeko organorik handiena da, eta elkarren gainean dauden hiru geruzaz osatua dago: dermisa, epidermisa eta hipodermisa. Larruazalaren kolorea aldakorra da, epidermisan dagoen melanina kantitatearen arabera; desberdintasun genetikok zehazten dute melanina kantitatea. *ES:* Piel *FR:* Peau *EN:* Skin *Arloa:* Anat.
- Larruazaleko:** izlag. Larruazalari dagokiona. *ES:* Cut neo *FR:* Cutan  *EN:* Cutaneous *Arloa:* Anat.
- Larruazalpeko:** izlag. Larruazalaren azpian egon, gertatu edo egiten dena. *ES:* Subcut neo *FR:* Sous-cutan  *EN:* Subcutaneous *Arloa:* Anat.
- Larruazpiko:** izlag. Ikus 'larruazalpeko'.
- Larrugorritu:** ad. Ikus 'biluzgorritu'.
- Larumin:** iz. Ikus 'ikterizia'.
- Lasai:** 1. izond. Fisikoki edo psikikoki bare dagoena; bereziki, tonuz bigunduta dagoen giharegitura. *ES:* Relajado *FR:* Relax  *EN:* Relaxed 2. izond. Ikus 'laxo'.
- Lasaigarri:** 1. izond. (Sendagai bati buruz) Antsietateari aurre egiteko balio duena; ez du konzientzia maila gutxitzen. Psikosien tratamenduan, lasaigarri gogorrak erabiltzen dira, batez ere. Lasaigarri arinak, aldiz, antsietatearen, narritagarritasunaren, tentsioaren edo psikoneurosien tratamenduan. Lasaigarriek logura ematen dute, eta mendekotasun fisikoa eta psikikoa ere eragin ditzakete. *ES:* Tranquilizante *FR:* Tranquillisant *EN:* Tranquilizer *Arloa:* Med. 2. izond. Lasaitzen duena. *ES:* Relajante
- Lasaigarriak eman:** ad. Lasaitzeko sendagaiak eman norbaiti. *ES:* Sedar
- Lasaitu:** ad. Larritasuna, kezka nahiz tentsioa galdu edo kendu. *ES:* Relajar *FR:* Rel cher *EN:* To relax
- Lasaitzaile:** izond. Ikus 'lasaigarri'.
- Lauki:** iz. Haurdunaldi beretik jaiotako lau ondo-rengoetako bakoitza. *ES:* Cuadrillizo, cuadr pleto *FR:* Quadruplet *EN:* Quadruplet
- Laxante:** izond. (Sendagai buruz) Hestea narritatu gabe husteko eragin arina duena. Dosi txikitari erabiltzen da eskuarki. *ES:* Purga, laxante *FR:* Purge, laxatif *EN:* Purge, laxative *Arloa:* Med.
- Laxo:** izond. Erlaxatua zein ahuldua; zuntzetan indarririk edo tentsiorik ez duena. *ES:* Laxo *EN:* Lax *Arloa:* Med.
- Legen:** iz. Ikus 'legendar'.
- Legen beltz:** iz. Ikus 'legendar'.
- Legenar:** iz. Hansen-en baziloak (*Mycobacterium leprae*) eragiten duen eritasun kroniko kutsagarria. Larruazaleko, mukosetako, nerbio-sistemako, hezurretako eta erraietako lesio larriak ditu ezaugarri. *ES:* Lepra *FR:* L pre *EN:* Leprosy *Arloa:* Med.
- Legenardun:** izond. Legenarrak erasandakoa. *ES:* Leproso *FR:* L preux *EN:* Leper *Arloa:* Med.
- Legenardun-etxe:** iz. Legenarrak jotako gaixoen-tzako ospitalea. *ES:* Lepros ria *FR:* L proserie *EN:* Leprosarium
- Legenartsu:** izond. Ikus 'legenardun'.
- Legionella:** iz. Bazilo aerobio txiki gramnegatiboa. Ez dira ohiko hazkuntza-guneetan hazten, eta gizakiari arnas arazo larriak eragiten dizkion horietako espezie batzuek. *ES:* Legionella *FR:* Legionella *EN:* Legionella *Arloa:* Med.
- Legionelosi:** iz. *Legionella pneumophila* generoko bakterioak eragindako infekzio akutua. Agerraldi epidemikoak izaten ditu, eta sintomatologia aldakorra izan dezake. Sukar handiko pneumonia-aren itxura izaten du. *ES:* Legionelosis *FR:* L gionellose *EN:* Legionellosis *Arloa:* Med.
- Legra:** iz. Kirurgian erabiltzen den tresna ebakitzailea, koilara- edo pala-itxurakoa. Ehunak edo bestelako gai batzuk organo, barrunbe nahiz azaletik kentzeko erabiltzen da. *ES:* Legra *FR:* Curette *EN:* Curet, curette *Obarrak:* Endometrioia umetokitik erauzteko erabiltzen da. *Arloa:* Med.
- Lehorgarri:** 1. izond. (Sendagai buruz) Ehunak uzkurrazteko edota jariakina gutxitzeko erabiltzen dena; era topikoan ematen da, oro har. 2. izond. Sabela idortzen duena; sabela husteko, irazkinak kanporatzeko zailtasunak eragiten dituena. *ES:* Astringente *FR:* Astringent *EN:* Astringent *Obarrak:* Beherakoaren kontra erabili ohi da. *Arloa:* Med.
- Lehortu:** 1. ad. Idorria sortu edo sorrarazi; irazkinak kanporatzeko zailtasuna edo ezintasuna eragin. 2. ad. Hezetasuna galdu edo kendu. *ES:* Astringir *Arloa:* Med.

**Leiar:** iz. Disko-formako pieza, bi aldeetatik edo alde batetik kurbatua, ahurra nahiz ganbila, kristalezkoa, edo bestelako gai garden batez egina. Argia era kontrolatuan desbideratzen du. Funtzio asko ditu: tamaina handiagoko irudiak sortu, argia norabide jakin batean zuzendu, ikusmen-arazoak zuzendu, eta abar. *ES:* Lente *FR:* Lentille *EN:* Lens

**Leinu:** iz. Familia bateko belaunaldien segida, edo herri baten jatorria. *ES:* Estirpe

**Lelotu:** ad. Buru-ahulezia izan. Oro har, adinaren ondorioz gertatu ohi da. *ES:* Chochear *FR:* Raddoter *EN:* To dodder

**Lente:** iz. Ikus 'leiar'.

**Lentilla:** iz. Ukipen-leiar mehe, kurbatu eta gardena, material plastiko zurrun edo malguzkoa. Kornearen gainean ezartzen eta mantentzen da, haren kurbadura ohiz kanpokoa denean edo errefrakzio-akatsak (astigmatismoa eta miopia handia) zuzentzeko. Betaurrekoen ordez erabiltzen da. *ES:* Lentilla *FR:* Lentille *EN:* Lens

**Lepagogor:** iz. Ikus 'tortikolis'.

**Lepazurrun:** iz. Ikus 'tortikolis'.

**Lepo:** iz. Toraxaren eta buruaren arteko gorputz zatia, burua eta enborra lotzen dituena. *ES:* Cuello *FR:* Cou *EN:* Neck *Arloa:* Anat.

**Lepoko:** 1. iz. Lepoaren inguruan jartzen den tresna ortopedikoa; lepo-ornoak ez mugitzeko erabiltzen da. *ES:* Collarín *FR:* Collarete, collier *EN:* Collarete 2. izlag. Ikus 'zerbikal'.

**Lepo-okar:** izond. Ikus 'konkordun'.

**Lepo-orno:** iz. Lepoko zazpi ornoetako bakoitza. *ES:* Vértebra cervical *FR:* Vertèbre cervicale *EN:* Cervical vertebra *Arloa:* Anat.

**Lertz:** iz. Gai horixka, lodia edo karetsua, hortzen koroa eta lepoa estaltzen dituena. Materia organikoz, fosfatoz eta karbonatoz osatua dago. *ES:* Sarro *FR:* Tartre *EN:* Tartar *Arloa:* Med.

**Lesio:** 1. iz. Gorputzeko chunen batean sortutako zauri, min edo aldaketa patologikoa nahiz traumatikoa. 2. iz. Larruazaleko ehunetako edozein anomalia ikusgarri. *ES:* Lesión *FR:* Lésion *EN:* Lesion *Arloa:* Med.

**Lesionatu:** ad. Lesioa izan edo eragin. *ES:* Lesionar *FR:* Léser *EN:* To injure *Arloa:* Med.

**Letagin:** iz. Ikus 'betortz'.

**Letargia:** iz. Lo sakon eta luzea ezaugarri duen egoera patologikoa. Gaixotasun batek edo hipnosiak eragiten du. *ES:* Letargo *FR:* Léthargie *EN:* Lethargy

**Letargiko:** izond. Letargiari dagokiona; letargia duena. *ES:* Letárgico *FR:* Léthargique *EN:* Lethargic *Arloa:* Med.

**Leukoblasto:** iz. Leukozito heldugabea. *ES:* Leucoblasto *FR:* Leucoblaste *EN:* Leukoblast *Arloa:* Med.

**Leukodermia:** iz. Larruazaleko gune bateko pigmentazio-gutxiegitasuna. *ES:* Leucodermia *FR:* Leucodermie *EN:* Leukoderma *Arloa:* Med.

**Leukodermiko:** 1. izond. Leukodermia agertzen duena. 2. izond. Arrazen ohiko sailkapenean, kolore zuriko larruazala duena. *ES:* Leucodérmico *Arloa:* Med.

**Leukoentzefalitis:** iz. Entzefaloko gai zuriaren hantura. Neurologia-asalduek eta narriadura intelektualak eragin ditzake. *ES:* Leucoencefalitis *FR:* Leuco-encéphalite *EN:* Leukencephalitis *Arloa:* Med.

**Leukoma:** iz. Kornean erazten den orban zuria; zauri, ultzerazio edo hantura-prozesuren baten ondoriozkoa da. Kirurgia bidez sendatu ohi da, kornea aldatuta. *ES:* Leucoma *FR:* Leucome *EN:* Leucoma *Arloa:* Med.

**Leukopenia:** iz. Leukozitoen ez-ohiko jaitsiera, mm<sup>3</sup>-ko 5000tik beherakoa. Hainbat eragile izan ditzake: aurkako erreakzio farmakologikoren bat, intoxikazio erradioaktiboa, edo beste zenbait prozesu patologiko. *ES:* Leucopenia *FR:* Leucopénie *EN:* Leucopenia *Arloa:* Med.

**Leukoplasia:** iz. Minbizi-aurreko asaldua, garapen motelekoa; mukosetako lesioak eragiten ditu. Haren ezaugarri dira ondo itsatsita agertzen diren plaka zurixka zapal latzak. *ES:* Leucoplasia *FR:* Leucoplasie *EN:* Leukoplakia *Arloa:* Med.

**Leukopoiiesi:** iz. Leukozitoak sortzean eta garatzean datzan prozesua. Neutrofiloak, basofiloak eta eosinofiloak hezur-muineko ehun mieloidean erazten dira. Linfozitoak eta monozitoak, berriz, ehun linfoideko hemozitoblastetatik eratorriak dira ia beti, nahiz eta batzuk hezur-muinean garatzen diren. *ES:* Leucopoyesis *FR:* Leucocytopoïèse *EN:* Leukopoiesis *Arloa:* Med

**Leukorrea:** iz. Baginako jario zuria. Haren kantitatea eta loditasuna aldatu egiten dira, eskuarki, hileko zikloan zehar. Jarria narritagarria, ugaria, usain txarrekoa eta kolore berdekoa edo horikoa denean, baginako nahiz umetokiko gaizkoadura adieraz dezake. *ES:* Leucorrea *FR:* Leucorrhée *EN:* Leukorrhoea *Arloa:* Med.

**Leukosi:** iz. Leuzemia-prozesua, oro har. Odol-zelulei erasaten dieten prozesu neoplasikoak izendatzeko termino orokorra da. *ES:* Leucosis *FR:* Leucose *EN:* Leukosis *Arloa:* Med.

**Leukozito:** iz. Odoleko zelula zuria; zirkulazioko odol-sistemaren osagaietako bat da. Antigoputzak ekoizteko gaitasuna du, eta mikroorganismoen aurkako defentsa-funtzioa betetzen du. *ES:* Leucocito *FR:* Leucocyte *EN:* Leukocyte *Arloa:* Med.

**Leukozitosi:** iz. Odoleko leukozito kopurua ohi ez bezala gehitzea ezaugarri duen asaldua. Bakte-

- rioen infekzioekin batera gertatu ohi da, baina ez birusek eragindako infekzioekin. *ES: Leucocytosis FR: Leucocytose EN: Leukocytosis Arloa: Med.*
- Leungarri:** izond. Ikus 'aringarri'.
- Leuzemia:** iz. Organo hematopoietikoetako (barea, gongoil linfatikoak, hezur-muina) neoplasia gaiztoa; odol-zelulak neurritz gaindi ekoiztea du ezaugarri. Leuzemia azkarraren sintoma nagusiak dira: nekea, zurbiltasuna, pisua galtzea, ubelduak izateko joera, sukarra, odoljarioak, hezurretako eta giltzaduretako mina, eta infekzioak. Leuzemia kronikoa poliki garatzen da; leuzemia akutuan gertatzen diren sintomen agerpena, berriz, hainbat urte atzeratu daiteke. *ES: Leucemia FR: Leucémie EN: Leukemia Arloa: Med.*
- Leuzemiko:** 1. izond. Leuzemiari dagokiona. 2. izond. Leuzemia duena. *ES: Leucémico FR: Leucémique EN: Leukemic Arloa: Med.*
- Lezitina:** iz. Gai organiko konplexua; glizerolez eraturiko fosfolipidoa da. Lezitina kantitate handia dago nerbio-sistemako egitura guztietan, gibelean, pankrean, bihotzean, eta abar, eta zelula-mintz guztien ohiko osagai da. Oinarrizkoa da gantzen metabolismorako. *ES: Lecitina FR: Lécithol, lécithine EN: Lecithin Arloa: Biokim.*
- Libragarri:** izond. Ikus 'laxante'.
- Libratu:** ad. Ikus 'kaka egin'.
- Libratze:** iz. Ikus 'sabel-huste'.
- Lifting:** iz. Kirurgia esterikoaren alorreko ebakuntza kirurgikoa. Aurpegiko zimurrak desagerraraztea da liftingaren helburua. *ES: Lifting FR: Lifting EN: Lifting*
- Likantropia:** iz. Eldarnio mota; hartan, otso bihurtu dela uste izaten du gaixoak. *ES: Licantropía FR: Lycanthropie EN: Lycanthopy Arloa: Med.*
- Likantropo:** iz. Likantropiak jotako pertsona. *ES: Licántropo Arloa: Med.*
- Likido amniotiko:** iz. Zaku amniotikoan, umekia inguratzen duen likidoa. *ES: Líquido amniótico FR: Amniotique EN: Amniotic Arloa: Biol.*
- Likido zefalorrakideo:** iz. Likido seroso; garunbentrikuluetan, gune subaraknoideoan eta bizkarrezur-muinaren barrunbean dago. Lagina lortzeko, hirugarren eta laugarren gerri-ornoen artean egiten da ziztakoa. *ES: Líquido cefalorraquídeo FR: Liquide céphalorachidien EN: Cerebrospinal fluid*
- Likido zerebrospinal:** iz. Ikus 'likido zefalorrakideo'.
- Linfa:** iz. Isurkari argi gardena, alkalinoa, zapore gazikoa; linfa-hodiak betetzen ditu. Gorputzeko hainbat organo eta ehunetan eratzen da. Odol-plasma eta linfozitoak ditu osagai. *ES: Linfa FR: Lymphe EN: Lymph Arloa: Anat.*
- Linfatiko:** 1. izond. Organismoko linfa-sistemari dagokiona, edo bertan dagoena. 2. izond. Linfa-sareko hodiatariko edozeini dagokiona. *ES: Linfático FR: Lymphatique EN: Lymphatic Arloa: Anat.*
- Linfoide:** izond. Linfari edo linfozitoei dagokiena. *ES: Linfoide, linfoideo FR: Lymphoïde EN: Lymphoid Arloa: Biol.*
- Linfozito:** iz. Nukleo bakarreko odol-zelula. Oinarrizko funtzioa betetzen du organismoaren immunitate-erreakzioan. Leukozitoen % 25 osatzen dute linfozitoei; nolanihi ere, gaizkoaduren aurrean, handitu egiten da kopurua. Hiru motatakoak dira: T linfozitoak, B linfozitoak eta ez T ez B ez diren linfozitoak. *ES: Linfocito FR: Lymphocyte EN: Lymphocyte Arloa: Biol.*
- Linimentu:** iz. Ukendu likidoa; olio bano lodia goa den prestakin farmazeutikoa da, eta larruzalean ematen da igurtzien bidez. Bi osagai izaten ditu funtsean: isurkaria (olioa, koipea, eta abar) eta isurkarian deseginiko gai eragilea. *ES: Linimento FR: Liniment EN: Liniment Arloa: Med.*
- Lipasa:** iz. Gantzen hidrolisia katalizatzen duen entzima. Gantzak hidrolizatzean, gantz-azidoak eta glizerina sorrarazten ditu. Digestio-aparatuko organoek sortzen dute. *ES: Lipasa FR: Lipase EN: Lipase Arloa: Biokim.*
- Lipido:** iz. Odolean aske dauden gantz-azidoen osagaietariko bakoitza. Disolbaezinak dira uretan, baina disolbagarriak konposatu organikotan. Gorputzean metatuz, energia-erreserba osatzen dute. Zenbait gaixotasunetan, arterioesklerosian, esate baterako, igo egiten da lipido kantitatea. *ES: Lípido FR: Lipide EN: Lipid Arloa: Biokim.*
- Lipoide:** iz. Lipido-itxura duen edozein gai. *ES: Lipoide, lipoideo FR: Lipoïde EN: Lipoid Arloa: Biokim.*
- Lipolisi:** iz. Gantzen hidrolisi entzimatikoa; digestioan gertatzen da. *ES: Lipólisis FR: Lipolyse EN: Lipolysis Arloa: Biokim.*
- Lipoma:** iz. Tumor onbera, gantz-zelula helduz eratua. *ES: Lipoma FR: Lipome EN: Lipoma Arloa: Biokim.*
- Liposoluble:** izond. Gantzetan disolbagarria dena. *ES: Liposoluble FR: Liposoluble EN: Liposoluble Adibideak: Liposolubleak dira A, B eta E bitaminak. Arloa: Biokim.*
- Liposukzio:** iz. Gantz-ehuna erauzteko teknika. Pertsona gizenetan erabiltzen da, gehiegizko gantza kentzeko, eta xurgatze-ponpa baten laguntzaz egiten da. Sabelaldean, ugartetan, hantketan, aurpegian eta besoetan egiten da, batik bat. *ES: Liposucción FR: Liposucción EN: Liposuction Arloa: Med.*

- Lipotimia:** iz. Bat-bateko konorte-galera; iraupen laburrekoa izan ohi da. Haren eragile dira hipotentsioa eta garunera behar adina odol ez iristea. Larritasun gutxikoa izaten da, gehienetan. *ES:* Lipotimia *FR:* Lipothymie *EN:* Lipothimia *Arloa:* Med.
- Lisi:** 1. iz. Zelulen eta bakterioen suntsipena; lisen eraginez gertatzen da. 2. iz. Gaixotasun baten sintomen gutxiagotze mailakatu. *ES:* Lisis *FR:* Lyse *EN:* Lysis *Arloa:* Biokim.
- Listu-:** (Hitz elkartuetan) Listuari edo listuaren eraketari dagokiona. *ES:* Salival *FR:* Salivaire *EN:* Salivary
- Listu:** iz. Likido likatsu argia; listu-guruinek eta ahoko mukosek jariatzen dute. Listuaren osagaiak dira: ura, muzina, gatz organikoak eta ptialina digestio-entzima. Aho-barrunbea hezetzeko, almidoen digestioa abiarazteko eta elikagaiak murtzikatzen eta irensten laguntzeko balio du. *ES:* Saliva *FR:* Salive *EN:* Saliva
- Listua bota:** ad. Ahotik listua edo karkaxa jaurti. *ES:* Escupir *FR:* Cracher *EN:* To spit
- Listu-guruin:** iz. Ahora listua askatzen duten guruinak. Lobulu ugariz eraturako egitura adarkatuak dira. Lobulu horiek lobuluxkatan banatzen dira, eta lobuluxka horiek azinotan. *ES:* Glándula salival *FR:* Glande salivaire *EN:* Salivary gland
- Listu-jariatze:** iz. Ikus 'listu-jario'.
- Listu-jario:** iz. Listu-guruinetatik listua jariatzea. *ES:* Salivación *FR:* Salivation *EN:* Salivation
- Listukatu:** ad. Janariaren digestioaren lehen pausoa; ahoko listu-guruinek jariatutako entzimen bidez hasten da. *ES:* Ensalivar *EN:* To moisten with saliva
- Listuztatu:** ad. Elikagaiak listuarekin nahastu. *ES:* Insalivar *FR:* Imprégner de salive
- Listuztatzte:** iz. Murtzikatzean, elikagaiak listuarekin nahastea. *ES:* Insalivación *FR:* Insalivation *EN:* Insalivation
- Litiasi:** iz. Kalkuluen eraketa, organismoko organo barne-hutsetan. Gatz mineralez eratuak daude kalkulua, eta narradura, hantura edo buxadura eragin ditzakete metatzen diren organoan. Behazun-xixkuan, giltzurrunean eta beheko gerubideetan gertatzen da, sarritan. Sintomarik gabea izan daiteke, baina askotan oso mingarria izaten da. *ES:* Litiasis *FR:* Lithiase *EN:* Lithiasis *Arloa:* Med.
- Lo:** iz. Ikus 'loaldi'.
- Lo arin:** iz. Sakontasunik gabeko loaldia. *ES:* Sueño ligero
- Lo suma:** iz. Ikus 'lo arin'.
- Loaldi:** iz. Organismoaren egoera; kontzientzia maila jaistea, gihar eskeletikoan jarduera motel-tzea eta metabolismoa murriztea ditu ezaugarri. Oro har, ondoz ondoko laualdi izaten ditu per-
- tsionaren loaldiak. Laualdi horiek loaldi normalaren hiru laurdenak betetzen dituzte; ez da begien mugimendu azkarrik gertatzen loaren aldi horietan. Gainerako denboran, begi-mugimendu bizkorrik gertatzen dira; REM aldia deritza horri. *ES:* Sueño *FR:* Sommeil, rêve *EN:* Sleep, dream
- Loarazle:** izond. Loa eragiteko gaitasuna duena. *ES:* Somnífero *FR:* Somnifère *EN:* Sleeping pill *Arloa:* Med.
- Lobektomia:** iz. Teknika kirurgikoa; lobulu bat —birika-lobulu bat bereziki— erauzten da. Tumor gaiztoak kentzeko edota bronkiektasiak, odoljario-dun traumatismoak eta zenbait tuberkulosi mota tratatzeko egiten da. *ES:* Lobectomía *FR:* Lobectomie *EN:* Lobectomy *Arloa:* Med.
- Lobotomia:** iz. Teknika neurokirurgikoa; garuneko lobulu frontalean dagoen gai zurizko balaren nerbio-zuntzak mozten dira, zenbait erantzun afektiboren transmisioa eteteko. Depresio akutua eta mina tratatzeko erabiltzen da, besteak beste. *ES:* Lobotomía *FR:* Lobotomie *EN:* Lobotomy *Arloa:* Med.
- Lobular:** 1. izond. Lobulari dagokiona. 2. izond. Lobuluz osaturik dagoena. *ES:* Lobular *FR:* Lobulaire *EN:* Lobular
- Lobulatu:** izond. Lobulutan edo egitura biribildutan antolatuta dagoena. *ES:* Lobulado *FR:* Lobé *EN:* Lobate *Arloa:* Biol.
- Lobulu:** iz. Edozein egituraren irtengune biribildua. Esate baterako, garuneko, gibekeko edo biriketako lobuluak. *ES:* Lóbulo *FR:* Lobe *EN:* Lobe
- Lobulu tenporal:** iz. Garunaren bi alboetako gunea; Silvioren artearen behealdean dago. *ES:* Lóbulo temporal *FR:* Lobe temporal *EN:* Temporal lobe *Arloa:* Anat.
- Lodi:** izond. Ikus 'gizen'.
- Loditasun:** iz. Ikus 'obesitate'.
- Loditu:** ad. Ikus 'gizendu'.
- Lo-eragile:** izond. Ikus 'loarazle'.
- Lo-eragingarri:** izond. Ikus 'loarazle'.
- Loezin:** iz. Ikus 'insomnio'.
- Logale:** iz. Kontzientzia maila gutxitua; lo egiteko gogoia eta adi egoteko zailtasuna ditu ezaugarri. Haren eragile izan daitezke: lorik ez egitea, garuneko asalduek, hainbat sendagai edota gai batzuk neurritz gain hartzea. *ES:* Somnolencia, sueño *FR:* Somnolence *EN:* Drowsiness, somnolence
- Logopeda:** iz. Logopedian aditua dena; hizkuntza-gaitasunak, entzumen-prozesuak, hizkuntzaren ekoizpena, eta abar neurtzen eta balioesten ditu. *ES:* Logopeda *FR:* Orthophoniste *EN:* Speech-language pathologist
- Logopedia:** iz. Hizkuntza-asalduen azterketa eta zuzenketa. Hizkuntza-arazoan diagnostikoa eta tra-



- tamendua egitea du jarduera nagusia; logopeda zein logoterapeuta baten lana izaten da hori. *ES: Logopedia FR: Logopédie EN: Logopedics*
- Logorrea:** iz. Gehiegizko hitz-jarioa. Sarritan agertzen da kitzikapen psikikoa ezaugarri duten egoeretan eta, batez ere, manian. *ES: Logorrea FR: Logorrhée EN: Logorrhoe Arloa: Psikiat.*
- Logura:** iz. Ikus 'logale'.
- Lokadura:** iz. Ikus 'luxazio'.
- Lokatu:** ad. Ikus 'luxatu'.
- Loki:** iz. Buruaren alboko alde; zigoma-arkuaren gainetik dago, alde tenporalaren aurrean. *ES: Sien FR: Tempe EN: Temple*
- Loki-hezur:** iz. Ikus 'hezur tenporal'.
- Lokio:** iz. Baginako jarioa; erditu ondoren hasten da. Lokioak gorriak izaten dira erditu ondorengo lehenengo 3-4 egunetan, eta odolez, endometrioko deziduaz eta, zenbaitetan, fetuaren mekonioz eratuak daude, besteak beste. Hirugarren egunetik aurrera, murriztu egiten da odol kantitatea, karena itsatsita egon den guneak material seroso eta linfa jariatzen ditu, eta ilunagoak bihurtzen dira lokioak, loditasuna galtzarekin batera. Bigarren astean, leukozito eta bakterio ugari izaten dituzte, deziduako muzinaz gainera. Kolore horixka ematen die horrek lokioei. Hirugarren astean, eta hortik aurrera, endometrioaren epiteli-zazioa gertatzean, asko murrizten da lokio kantitatea, eta itxura seromukosoa eta kolore gris zurixka hartzen dute. Eskuarki, seigarren aste aldera desagertzen dira. *ES: Loquios FR: Lochies EN: Lochia Arloa: Med.*
- Lokomotor:** 1. izond. Lokomoziorako balio duena. 2. izond. Lokomozioari dagokiona. *ES: Locomotor FR: Locomoteur EN: Locomotor*
- Lokomozio-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'lokomotor'.
- Lokomozio:** iz. Gorputz batek lekuz aldatzeko egiten duen mugimendua. *ES: Locomoción FR: Locomotion EN: Locomotion*
- Lokomozio-sistema:** iz. Lokomoziorako erabiltzen diren organo eta atalen multzoa. *ES: Sistema locomotor FR: Appareil locomoteur EN: Musculoskeletal system Arloa: Anat.*
- Lorbide:** iz. Konposatu kimiko bat sintesiz edo bestelako bidez lortzeko prozesuen multzoa. *ES: Método de obtención Arloa: Kim.*
- Lordosi:** iz. Hezurren kurbadura; bereziki, bizkarrezurrean aurreranzko ganbeltasuna. *ES: Lordosis FR: Lordose EN: Lordosis Arloa: Anat., Med.*
- Lotailu:** iz. Zuntz-ehun trinkozko zerrenda, faszikula nahiz mintza; hezurretan edo kartilagoetan txertatzen da. Giltzadurak elkartzen dituzte, eta hainbat hezur eta kartilago lotu. *ES: Ligamento FR: Ligament EN: Ligament Arloa: Anat.*
- Lotsati:** izond. Erraz lotsatzen dena. *ES: Retraído FR: Renfermé, timide EN: Shy, reserved*
- Lotu:** 1. ad. Ebakuntza kirurgikoaren bidez lotura egin. *ES: Ligar FR: Lier 2. ad. Gorputz atalen bat bendaz bildu. ES: Vendar FR: Bander EN: To bandage up*
- Lotura:** 1. iz. Zerbait lotzean datzan ebakuntza kirurgikoa. Odol-hodi bat nahiz hodi bat josten da, edozein jario saihesteko edo hodi horretatik materialik ez igarotzeko. *Adibideak:* Fallopioren tronpen lotura. *ES: Ligadura FR: Ligature EN: Ligation 2. iz. Gorputz atal bat biltzeko erabiltzen den ehun-zerrenda. ES: Venda, vendaje*
- Lotura peptidiko:** iz. Amida-lotura, aminoazido baten alfa-karboxilo taldearen eta beste aminoazido baten alfa-amino taldearen kondentsaziotik sorturikoa. Ur molekula bat askatzea bideratzen du. *ES: Enlace peptídico FR: Liaison peptidique EN: Peptidic bond Arloa: Kim.*
- Lozorro:** iz. Ikus 'letargia'.
- Lozorrotu:** ad. Lo sakon eta luzean erori, gaixotasunen baten ondorioz. *ES: Aletargar Arloa: Biol.*
- Lunbago:** iz. Gerrialdeko giharretako min bizia. Hainbat faktore eragile izan ditzake; besteak beste, hezueria eta traumatismoak. Ornoarteko disko baten herniak ere eragin dezake. Sendabideen artean daude: gerrialdean berotasuna jartzea, atsedean hartzea, uhin laburrak edo *roentgenterapia*, sendagai topikoak, masajea, ultrasoinuak, gai salizilikoak eta butazolidina. *ES: Lumbago, lumbalgia FR: Lumbago, lombalgie EN: Lumbago Arloa: Med.*
- Lunbalgia:** iz. Ikus 'lunbago'.
- Lunbar:** 1. iz. Bizkarreko gunea, azkeneko saihesten eta gandor iliakoaren artean dagoena. 2. izond. Gune horri dagokiona. *ES: Lumbar FR: Lombar EN: Lumbar*
- Lunula:** iz. Ilargi-erdi formako egitura; esate baterako, eskuetako eta oinetako azazkalen oinarrian dagoen ilargi-erdi itxurako gune zuria. *ES: Lúnula FR: Lunule EN: Lunula*
- Lupu:** iz. Azaleko kistea; gantza edukitzen du gehienetan. *ES: Lobanillo, lupia Arloa: Med.*
- Lupus:** iz. Larruazalari eta mukosei erasaten dien gaixotasuna. Tuberkuluak eraten dira, eta hedatzeko eta ultzeratzeko joera dute. *ES: Lupus FR: Lupus EN: Lupus Oharrak:* Hainbat sorburu izan ditzake: tuberkulosia, lupus eritematoso sistemikoa, eta abar. *Arloa: Med.*
- Lurralkalino:** iz. Elementuen taulako *IIa* taldeko metal bakoitza. *ES: Alcalinotérreo FR: Alcalino-terreux EN: Alkaline-earth Adibideak:* Berilioa, magnesioa, kaltzioa, estrontzioa, barioa eta erradioa. *Arloa: Kim.*
- Lurrun:** iz. Gai bat berotzean sortutako gasa; bereziki, likido batetik edo gorputz heze eta bero ba-

- tetik sortzen dena. *ES: Vapor FR: Vapeur EN: Vapour*
- Lurrundu:** ad. Likido bat lurrun bihurtu, beroaren eraginez. *ES: Evaporar FR: Vaporiser EN: To vaporize*
- Lurrungailu:** 1. iz. Lurruntzeko erabiltzen den tresna. Likido batetik lurruna bereizteko edo disoluzio bateko disolbatzailea lurrunduz disoluzio hori kontzentratuago bihurtzeko erabiltzen da. *ES: Evaporador FR: Évaporateur EN: Evaporator Arloa: Kim.* 2. iz. Sendagaia daramaten likidoak lurrun bihurtzen dituen tresna, lurrun hori arnas-tu ahal izateko. *ES: Vaporizador FR: Vaporisateur EN: Vaporizer Arloa: Med.*
- Lurrunketa:** iz. Elementu bat egoera solidotik edo likidotik gas izatera igarotzeko prozesua; aldaketa kimikorik gabe gertatzen da. *ES: Vaporización FR: Vaporisation EN: Vaporization*
- Luxatu:** ad. Atal bat dagokion tokitik atera; gorputzeko hezur bat, batez ere. *ES: Luxar, dislocar, descoyuntar Arloa: Med.*
- Luxazio:** iz. Gorputzeko edozein atal bere ohiko kokagunetik ateratzearen ondoriozko lokadura; hezur bat dagokion barrunbetik ateratzearen ondoriozkoa, batik bat. *ES: Luxación, dislocación FR: Luxation EN: Luxation Arloa: Med.*
- Luzakin:** iz. Ikus 'apendize'.
- Luzatze:** iz. Ebakuntza kirurgikoa; aurpegiko larruazaleko zimurrak eta zahartze-zeinuak ezabatzeke egiten da. *ES: Estiramiento EN: Stretch, acelift Arloa: Med.*

# M

**Mafrundi:** iz. Ikus 'hotzeri'.

**Magnesia:** iz. Magnesioaren oxidoa (MgO).

Hauts-itxurako gai zuria da, arina, usainik eta zaporerik gabea. Ia disolbaezina da uretan. Ezaugarri xurgatzaileak, antiazidoak eta libragarriak ditu. *ES:* Magnesia *FR:* Magnésie *EN:* Magnesia *Arloa:* Kim.

**Magnesio:** iz. Mg. Elementu kimiko metalikoa. Arina da, kolore zuri zilarkara duena. Oso ugaria da lurrazalean, baina ez da egoera puruan agertzen. Garrantzitsua da bizitzarako, klorofilaren molekularen gunea baita. Funtzio fisiologiko garrantzitsuak betetzen ditu: zenbait ekintza entzimatikiko, transmisio neurokimikoa, giharren kitzikadura, eta abar. Magnesio gehiegi izateak basodilatazioa eragin dezake. Oxigenoarekin afinitatea baitu, erreduktore gisa erabiltzen da. *ES:* Magnesio *FR:* Magnésium *EN:* Magnesium *Arloa:* Kim.

**Magnetoskopia:** iz. Soinua eta irudiak zinta magnetikoan erreproduzitzeko tresna. *ES:* Magnetoscopia *FR:* Magnétoscope *EN:* Magnetoscope

**Maila:** iz. Ikus 'estratu'.

**Mailatu:** ad. Gorputz batean ubelduak eragin, zauririk egin gabe. Estutzean edo bortizki jotzean gertatzen da. *ES:* Magullar

**Mailatu:** izond. Ikus 'kontusio'.

**Maingu:** iz. Ikus 'besomotz'.

**Maionesa:** iz. Saltsa mota; arrautza, olio gordina eta gatza irabiatuz lortzen da. Erraz txartzen da, eta, orduan hartuz gero, gastroenteritisak eragiten ditu, batik batik salmonelosi. *ES:* Mahonesa *FR:* Mayonnaise *EN:* Mayonnaise

**Maiztasun:** iz. Gertakari bat errepikatzen den aldi kopurua, denbora-tarte jakinetan. Esate baterako, minutu bateko taupada kopurua. *ES:* Frecuencia *FR:* Fréquence *EN:* Frequency

**Makadura:** iz. Ikus 'kontusio'.

**Makal:** izond. Ikus 'ahul'.

**Makalaldi:** iz. Ikus 'ahulaldi'.

**Makaldu:** ad. Ikus 'ahuldu'.

**Makaltasun:** iz. Ikus 'ahuldade'.

**Makaltze:** iz. Ikus 'ahultze'. *ES:* Debilitación, debilitamiento

**Makar:** iz. Betazal ertzetan pilatzen den gai likatsua horixka. Lo egin ondoren agertzen da, batik batik. Meibomio guruinek jariatzen dute. *ES:* Legaña *FR:* Chassie *EN:* Rheum

**Makartsu:** izond. Makar asko dituen. *ES:* Legañoso

**Makatu:** iz. Ikus 'kontusio'.

**Makatu:** ad. Ikus 'kolpatu'.

**Mako:** iz. Ikus 'arku'.

**Makotu:** ad. Ikus 'konkortu'.

**Makromolekula:** iz. Koloideen neurriko molekula; esate baterako, proteinak, azido nukleikoak eta polisakaridoak. Kimika-gai arruntan molekulak baino askoz handiagoak dira masaz eta neurriz. *ES:* Macromolécula *FR:* Macromolécule *EN:* Macromolecule *Arloa:* Kim.

**Makroskopiko:** izond. Begi hutsez ikusi ahal izateko moduko neurria duena. *ES:* Macroscópico *FR:* Macroscopique *EN:* Macroscopic *Arloa:* Bio., Fis.

**Makrozefalia:** iz. Sortzetiko anomalia; buruaren eta garezurraren gehiegizko neurria du ezaugarri. *ES:* Macrocefalia *FR:* Macrocéphalie *EN:* Macrocephaly *Arloa:* Med.

**Makrozefalo:** izond. Makrozefalia duena. *ES:* Macrocefalo *Arloa:* Med.

**Makula:** iz. Pigmentudun gunea txikia; kolorearengatik bereizten da inguratzen duen ehunetik. *ES:* Mácula *FR:* Macule *EN:* Macula

**Makulu:** iz. Egurrezko edo metalezko makila; lurretik besapera luzatzen da, gorputzaren pisuari eusteko. *ES:* Muleta *FR:* Béquille *EN:* Crutch

**Makur:** izond. Ikus 'oker'.

**Makurdura:** iz. Ikus 'flexio'.

**Makurtu:** ad. Ikus 'konkortu'.

**Makurtu (gorputza):** ad. Zuzen edo zutik dagoena giltzaduretatik tolestu. *ES:* Flexionar *FR:* Fléchir *EN:* To bend

**Malanodermia:** iz. Larruazalaren eta mukosen iluntze patologikoa, melaninaren eta zilar- eta burdin gatzaren gehiegizko metaketak eragina. *ES:* Melanodermia *FR:* Mélanodermie *EN:* Melanoderma *Arloa:* Med.

**Malaria:** iz. Eritasun kutsagarri endemiko akutua. *Plasmodium* generoko espezieek eragiten dute, eta *Anopheles* generoko eltxoek transmititu. Bi ezaugarri nagusi ditu: aldizkako sukarra eta odolean zenbait plasmodio espezie izatea. Hematozoarioen ugalketa galarazten duten botikak erabiltzen dira malariarik jotako eriak sendatzeko. *ES:* Malaria *FR:* Paludisme *EN:* Malaria *Oharrak:* Gehienbat, tropikoko eta tropiko inguruko lurral-

- deetako eritasuna da; hura desagerrarazteko, ur geldiak lehortzen utzi eta larbak intsektizidaz garbitzen dira. *Arloa:* Med.
- Maleolo:** iz. Orkatilan dauden hezur-afofisi birlibduetako bakoitza. Kanpokoa peronearen zatia da; barnekoa, berriz, tibiarena. *ES:* Maleolo *FR:* Malleole *EN:* Malleolus
- Malformazio:** iz. Organismoko atal baten sortzetik asaldu morfologikoa. *ES:* Malformación *FR:* Malformation *EN:* Malformation *Arloa:* Med.
- Malgu:** izond. Hautsi gabe oker daitekeena. *ES:* Flexible *FR:* Flexible *EN:* Flexible
- Malgutasun:** iz. Malgua denaren ezaugarria. *ES:* Flexibilidad *FR:* Flexibilité *EN:* Flexibility
- Malko-:** 1. (Hitz elkartuetan) Malkoei dagokiena. 2. (Hitz elkartuetan) Malkoak eratzen eta isurtzen dituzten organoei dagokiena. *ES:* Lacrimal, lagrimal *FR:* Lacrymale *EN:* Lacrimal, lachrymal
- Malko:** iz. Likido urtsu gazia eta alkalinoa; malko-guruinekin jariatzen dute, konjuntiba hezetzeko. Begi-globoaren eta betazalaren mugimenduetan errazten ditu. *ES:* Lágrima *FR:* Larme *EN:* Tear
- Malkoak isuri:** ad. Malkoak kanporatu. Oro har, malkoak isurtzen dira atsekabearen, minaren, eta abarren ondorioz, negar-zotinekkin batera. *ES:* Lagrimar, lagrimear *FR:* Larmoyer
- Malkobide:** iz. Malko-guruinetatik begiko alboangelura doazen hodi txikietako bakoitza. Handik igarotzen dira malkoak. *ES:* Conducto lacrimal, conducto lagrimal *FR:* Conduit lacrymal *EN:* Lacrimal duct *Arloa:* Anat.
- Malko-hezur:** iz. Aurpegiko hezur txiki hauskorra; orbitaren Erdiko aldean dago, hezur frontalaren, etmoides hezuraren eta masailezuraren artean. Malko-hobia osatzen du masailezurarekin batera. *ES:* Hueso lagrimal, unguis *FR:* Os lacrymal *EN:* Lachrymal bone *Arloa:* Anat.
- Malko-jario:** iz. Begietako malko-isuria; malko gehiegi eratu direlako gertatzen da gehienetan, neurritz kanpoko emozio-egoera baten, gaizkoadura baten edota narritaduraren ondorioz. Malko kantitate normala edatu arren, malkoak ohiko lekutik irtetzen ez badira, negar-jarioa gerta daiteke. *ES:* Lagrimeo *FR:* Larmoiment *EN:* Lacrimation
- Malko-zaku:** iz. Goiko eta beheko betileen artean eta begi-txoko bakoitzean dagoen poltsa. Malko-guruinekin jariatutako malkoz betetzen dira bi malko-zakuak, eta malko-hodien bidez kanporatzen dira malko horiek. *ES:* Saco lacrimal *FR:* Sac lacrymal *EN:* Lacrimal sac *Arloa:* Anat.
- Maltako sukar:** iz. Ikus 'bruzelosi'. *ES:* Fiebre de Malta *FR:* Brucellose *EN:* Brucellosis *Arloa:* Med.
- Maltosa:** iz. Bi glukosa molekulaz osatutako disakaridoa; maltaren azukrea da. Almdoiaren eta glukogenoaren osagaietako bat da, eta bi glukosa molekulatan bereizten da maltasa entzimaren eraginez. Umeentzako janarietan erabiltzen da bereziki. *ES:* Maltosa *FR:* Maltose *EN:* Maltose *Oharrak:* Hozitutako garagar aleetan agertzen da. *Arloa:* Kim.
- Mamario:** izond. Ugatz-guruinei dagokiena, edo haien itxura duena. *ES:* Mamario *FR:* Mammaire *EN:* Mammary
- Mami:** iz. Zati haragitsu biguna, batez ere hatz puntan barrualdekoa. *ES:* Pulpejo *FR:* Pulpe du doigt *EN:* Finger pad
- Mamitsu:** izond. Ikus 'haragitsu'.
- Mamografia:** iz. Ugatzetako ehun bigunen erradiografia. Hainbat prozesu neoplasiko gaizto edo onbera ikusteko aukera ematen du. *ES:* Mamografía *FR:* Mammographie *EN:* Mammography *Arloa:* Med.
- Mania:** iz. Gaixotasun edo egoera psikopatologikoa; haren ezaugarri dira: hiperaktibitatea, ideiak galtzea, logorra, egoera emozional aktiboa, neurritz gaundiko kitzikapena, nahasmena, euforia neurrigabea, norberaren gehiegizko balioespena, kitzikapen erotiko handia, portaera oldarkorra, eta abar. Psikosi maniako-depresiboen aldieterikoko bat da. *ES:* Manía *FR:* Manie *EN:* Mania *Arloa:* Psikiat.
- Maniako:** 1. izond. Maniari dagokiona. 2. izond. Maniak jota dagoena. *ES:* Maníaco *Arloa:* Psikiat.
- Mantenu:** 1. iz. Ikus 'bizigai'. *ES:* Sustento 2. iz. Ikus 'elikadura'. *ES:* Alimentación
- Marihuana:** iz. Kalamuaren lore eta hosto ihartuen nahasketa; droga moduan erabiltzen da, tabako gisa ere. Droga psikoaktiboa da. Hainbat gaixotasunen tratamenduan erabiltzen da: minbizian —kimioterapiak eragindako goitiken aurka—, glaukoman, eta abar. *ES:* Marihuana *FR:* Marihuana *EN:* Marihuana *Arloa:* Biol.
- Marranta:** 1. iz. Ikus 'hotzeri'. 2. iz. Ikus 'erlats'.
- Marrantatu:** 1. ad. Ikus 'hotzeriak jo'. 2. ad. Ikus 'erlastu'.
- Marruskadura:** iz. Gainazal batek beste baten kontra egindako igurzeta-mugimendua. Esate baterako, pleuraren hormen artean gertatzen dena. *ES:* Roce *FR:* Frottement *EN:* Rub *Arloa:* Med.
- Marruskadura-indar:** iz. Higitzeari aurka egiten dion indarra. Gorputz edo gainazal bat beste baten kontra higitzen denean sortzen da; ukitzen duen gainazalarekiko paraleloa da. Handitu zein txikitu egin daiteke zenbait faktoreren eraginez; esate baterako, hezetasunaren eraginez. *ES:* Fuerza de rozamiento, fuerza de fricción *FR:* Force de frottement *EN:* Frictional force *Arloa:* Fis.

- Masail:** iz. Aurpegiaren albo banatan dagoen irte-gune haragitsua, sudurraren eta belarrien artekoa. *ES:* Mejilla *FR:* Joue *EN:* Cheek
- Masailezur-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'matrailezur'.
- Masailezur:** iz. Ikus 'matrailezur'.
- Masaje:** iz. Prozedura terapeutikoa; eskuz zein tresnaz egin daiteke, igurtziz, zapalduz edo kolpetxoak emanez. Gorputzeko ehun bigunak manipulatzen dira. Masajearen helburuak dira zirkulazioa eta gihar-tonua hobetzea eta erlaxatzea, besteak beste. *ES:* Masaje *FR:* Massage *EN:* Massage *Arloa:* Med.
- Masaje-emaila:** iz. Ikus 'masajista'.
- Masajista:** iz. Masajeak emateko gaitua den pertsona. *ES:* Masajista *FR:* Masseur *EN:* Masseur *Arloa:* Med.
- Maskal:** izond. Ikus 'ahul'.
- Maskor:** 1. iz. Ikus 'kornete'. 2. iz. Oskol-itxura duen gorputz-egitura. *ES:* Concha *FR:* Conque *EN:* Concha
- Maskuilo:** iz. Ikus 'baba'.
- Maskur:** 1. iz. Epidermisiko ohiko gogorgunea. Kanpo-presioa edo igurtzia jasaten duten guneetan agertzen da batik bat. Mingarria izaten da eskuarki. 2. iz. Hezur-metaketa; hautsitako hezurren orbaintze-prozesuan eratzen da, hausturamuturren tartean eta inguruan. *ES:* Callo, callosidad *FR:* Cor *EN:* Corn *Arloa:* Med.
- Maskurren kontrako:** izlag. (Gai bati buruz) Maskurrak erazteko erabiltzen dena. *ES:* Callicida
- Masokismo:** iz. Sexu-perbertsioa; plazera lortzen da norberaren sufrimenduaren, tratu txar fisikoen, mentalen edo emozionalen bidez. *ES:* Masoquismo *FR:* Masochisme *EN:* Masochism *Arloa:* Psikiat.
- Masokista:** 1. izond. Masokismoari dagokiona. 2. izond. Masokismoa praktikatzen duena. *ES:* Masoquista *FR:* Masochiste *EN:* Masochistic *Arloa:* Psikiat.
- Mastekatu:** ad. Ikus 'murtzikatu'.
- Mastekatzaile:** iz. Ikus 'murtzikatzaile'.
- Mastektomia:** iz. Ugatzaren edo ugatz-guruinaren atal baten erazketa. Bi eratakia izan daiteke: simplea ala erabatekoa. Mastektomia simplean, ugatz-ehuna bakarrik erazutzen da; erabateko mastektomian, berriz, ugatzarekin batera, horma torazikoko zenbait gihar eta besapeko gongoil linfatiko guztiak erazutzen dira. *ES:* Mastectomia *FR:* Mastectomie *EN:* Mastectomy *Arloa:* Med.
- Mastitis:** iz. Ugatz-guruinaren hantura; estreptokokoek edo estafilokokoek eragindako gaizkoadura baten ondorio izaten da, oro har. Mastitis akutua nahiko ohikoa da edoskitzaroko lehenengo bi hilabeteetan; haren ezaugarri dira: mina, hantura, gorritasuna, besapeko linfadenopatia, sukarra eta ondoeza. Tratatu ezean edo gaizki tratatuz gero, zorne-zorroak era daitezke. Tuberkulosi-mastitis kronikoa, berriz, ez da oso arrunta; gertatzen denean, bularren azpiko saihetsetako eta biriketako tuberkulosia hedatzearen ondorio izan ohi da. *ES:* Mastitis *FR:* Mastite *EN:* Mastitis *Arloa:* Med.
- Mastoide:** iz. Hezur tenporaleko apofisia; barrunbe txiki asko dituen masa barne-hutsa da, eta erdiko belarriari lotua dago. *ES:* Mastoide, mastoides *FR:* Mastoïde *EN:* Mastoid bone, mastoid *Arloa:* Anat.
- Mastoideo:** izond. Hezur tenporaleko apofisi mastoideari dagokiona. *ES:* Mastoideo *FR:* Mastoïdien *EN:* Mastoid *Arloa:* Anat.
- Masturbatu:** ad. Plazera lortu, sexu-organoak kitzikatuz. *ES:* Masturbarse
- Masturbazio:** iz. Sexu-jarduera; hartan, plazera lortzen da sexu-organoak kitzikatuz. *ES:* Masturbación *FR:* Masturbation *EN:* Masturbation
- Materia:** iz. Masa duen eta espazio bat betetzen duen edozein elementu; gorputz fisiko ororen osagaia da. *ES:* Materia *FR:* Matière *EN:* Matter
- Materia organiko:** iz. Animalia- eta landare-gaien multzoa. Osorik edota neurri batean deskonposaturik egon ohi da, lurzoruko mikroorganismoen eraginez. Karbono-konposatu gehienak hartzen ditu bere baitan, eta sukoiak eta lurrunkorak dira konposatu horiek. *ES:* Materia orgánica *FR:* Matière organique *EN:* Organic matter *Arloa:* Biol.
- Material:** 1. izond. Materialzkoa; materiari dagokiona. 2. iz. Jarduera baterako behar diren gaien, tresnen edo baliabideen multzoa. *ES:* Material
- Matrailezur-:** (Hitz elkartuetan) Matrailezurrari dagokiona. *ES:* Maxilar *FR:* Maxillaire *EN:* Maxillary *Arloa:* Anat.
- Matrailezur:** iz. Ahoa inguratuz hortzei eusten dieten goiko eta beheko hezurretako bakoitza. *ES:* Hueso maxilar *FR:* Os maxillaire *EN:* Maxillary bone *Arloa:* Anat.
- Matraz aforatu:** iz. Kimikan erabiltzen den beirazko ontzia. Hondoa zapala du; lepoa, berriz, estua eta luzea. Ontziaren edukiera adierazten duen marratxo bat izaten du lepoan. *ES:* Matraz aforado *FR:* Fiole de jaugeé *EN:* Volumetric flask *Arloa:* Kim.
- Matraz bolometriko:** iz. Ikus 'matraz aforatu'.
- Mediastino:** iz. Toraxaren erdialdeko zatia. Birrikak gordetzen dituzten bi pleura-zakuen artean dago. Bularrezurretik bizkarrezurreraino hedatzen da, eta beraren barnean daude torax barrunbeko errai guztiak, birrikak izan ezik. *ES:* Mediastino *FR:* Médiastin *EN:* Mediastinum *Arloa:* Anat.
- Medikamentu:** iz. Ikus 'sendagai'.

**Medikatu:** ad. Gaixotasunak tratatu, sendagaiak emanaz. *ES:* Mediar *EN:* To medicate *Arloa:* Med.

**Medikazio:** iz. Sendagai moduan erabiltzen den gai multzoa. *ES:* Medicación *FR:* Médication *EN:* Medication *Arloa:* Med.

**Mediku:** iz. Ikasketa bereziak egin ondoren, medikuntzan jarduteko baimena duen profesionala. *ES:* Médico, facultativo *FR:* Médecin *EN:* Physician *Arloa:* Med.

**Mediku-azterketa:** iz. Medikuek egiten dituen proba tekniko eta klinikoan multzoa; pertsona baten osasun-egoera ezagutzeko edo gaixotasun baten diagnostikoa oinarritu ahal izateko egiten da. *ES:* Reconocimiento médico *FR:* Examen de santé *EN:* Check-up

**Medikuaren errezeta:** iz. Sendagai bat nola prestatu edo nola hartu adierazteko ohar idatzia. Sendagilearen sinadurak eta datak agertu behar dute errezetan. *ES:* Receta médica *FR:* Ordonnance *EN:* Prescription

**Medikuntza:** iz. Gaixotasunen diagnostikoaren, tratamenduaren eta prebentzioaren artea eta zientzia. Osasun-egoera egokia mantentzeaz arduratzen da. *ES:* Medicina *FR:* Médecine *EN:* Medicine *Arloa:* Med.

**Medikuntza legal:** iz. Medikuek egiten dituzten erabilera zuzenbide zibileko eta kriminaleko arazoetan. *ES:* Medicina legal *FR:* Médecine légale *EN:* Legal medicine

**Medikuntza prebentibo:** iz. Ikus 'prebentzio-medikuntza'.

**Medikuntza sozial:** iz. Gaixotasunen prebentziorako eta tratamendurako ikuspuntua; giza ondorioztasunean, ingurumenean, gizarte-egituretan eta kultura-balioetan oinarritzen da. *ES:* Medicina social *FR:* Médecine sociale *EN:* Social medicine

**Mehaka-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'ziatiko'.

**Mehaka:** iz. Ikus 'aldaka'.

**Mehartzte:** iz. Ikus 'argaltze'.

**Mehe:** izond. Ikus 'argal'.

**Mehetu:** ad. Ikus 'argaldu'.

**Mehetze:** iz. Ikus 'argaltze'.

**Meiosi:** iz. Zelulen heltze sexualeko prozesua. Zebakari kromosomikoa diploidetik haploidera murrizten da, eta, hala, irauan egiten du espezie bakoitzaren kromosoma kopuruak. *ES:* Meiosis *FR:* Méiose *EN:* Meiosis *Oharrak:* Bi banaketa gertatzen dira zelularen gunean, eta lau gameto berri sortu. *Arloa:* Biol.

**Mekonio:** iz. Umekiaren hesteetan pilatzen den gaia; haur jaioberriaren lehen egunetan kanporatzen da. Likatsua da, eta kolore berdexka arrea du. Mekonioaren osagaiak dira: hesteetako gurruin jariakinak, likido amniotikoa eta umetoki

barneko hondakinak (behazun-pigmentuak, gantz-azidoak, epitelio-zelulak, mukia eta odola). *ES:* Meconio *FR:* Méconium *EN:* Meconium *Arloa:* Biol.

**Melanina:** iz. Tirosinatik eratorritako pigmentu organikoa, beltza nahiz marroi iluna; kolorea ematen die ileari, erretinari, eta larruazalari. *ES:* Melanina *FR:* Mélanine *EN:* Melanin *Oharrak:* Arraza beltzeko pertsonak melanina ugari dute. *Arloa:* Biol.

**Melanismo:** iz. Ohi baino kolore ilunagoa azalean, ilean nahiz beste ehun batzuetan; melaninaren gehiegizko metaketaren ondoriozkoa da. *ES:* Melanismo, melánosis *FR:* Mélanisme *EN:* Melanism *Arloa:* Biol.

**Melanoma:** iz. Pigmentudun tumorra, melanozitotako minbizi-zelula bihurtzean sorturikoa. Epidermisan eta dermisan sortzen dira, eta onberak nahiz gaiztoak izan daitezke. *ES:* Melanoma *FR:* Mélanome *EN:* Melanoma *Oharrak:* Batez ere azal eta begi argiak dituzten pertsonetan azaltzen dira. *Arloa:* Med.

**Melanozito:** iz. Melanina ekoizten eta gordetzen duen zelula pigmentuduna. Epidermisan oinarritako geruzan zehar banatzen dira melanozitotako. *ES:* Melanocito *FR:* Mélanocyte *EN:* Melanocyte *Arloa:* Biol.

**Mende(ko)tasun:** Gai, ohitura nahiz jardute batekiko dependentzia konpulsibo eta kontrolaezina. Erreakzio mental, fisiologikoa nahiz emoziozko larriak gerta daitezke mendekotasuna eragiten duen haren faltan. *ES:* Adicción *FR:* Assuétude *EN:* Addiction

**Mende(ko)tasun-sortzaile:** izond. (Gai bati buruz) Mendean erorarazten duena; drogaren bat, gehienetan. *ES:* Adictivo *FR:* Addictif *EN:* Addicting *Adibideak:* Mendekotasun-sortzaile dira kafearen kafeina edo txokolataren teobromina.

**Mendelismo:** iz. Herentziaren kontzeptu bat, Mendelen legeetan oinarriturikoa. Karaktereen transmisioaren teoria azaltzen du. *ES:* Mendelismo *EN:* Mendelism *Arloa:* Biol.

**Mendi-gaitz:** iz. Garaiera handiko igoeretan gertatzen den ondoeza, presio atmosferikoaren jaitzierak eragina. Bertigoa, buruko mina, lokuma, disnea, zirkulazio-asaldurak hipertentsiboak, gorakoak, zianosia, eta abar ditu ezaugarri. *ES:* Mal de altura *FR:* Mal de l'altitude *EN:* Altitude sickness

**Meninge-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'meningeo'.

**Meninge:** iz. Entzefalora eta bizkarrezur-muina inguratzen dituzten hiru mintzetariko bakoitza: duramaterra, araknoidea eta piamaterra. *ES:* Meninge *FR:* Méninges *EN:* Meninges

**Meningeo:** izond. Meningeena, edo haiei dagokiena. *ES:* Meningeo *Arloa:* Anat.



- Meningitis:** iz. Meningeen hantura, araknoidearena eta piamaterrarena bereziki. Akutua nahiz kronikoa izan daiteke. Infekzio-bakterio baten ondorio izaten da gehienetan, *Streptococcus pneumoniae*-k, *Neisseria meningitidis*-ek zein *Haemophilus influenzae*-k eragina. Meningitis akutua hainbat eragileren ondorio izan daiteke: traumatismoak, gaizko adurak, prozesu orokorrak, gertuko hanturazko prozesu baten hedadura, eta abar. Sukarra, buruko mina, okadak, konbultsioak, eldarnioa, idorreria, estrabismoa eta lepoko zurruntasuna agertzen dira lehendabizi; geroago agertzen dira logura, anestesia, paralisia, taupadak moteltzea, tenperaturaren igoera eta koma-egoera. *ES:* Meningitis *FR:* Méningite *EN:* Meningitis *Arloa:* Med.
- Meningokoko:** iz. *Neisseria meningitidis* generoko bakterio gramnegatibo higigaitza. Septizemia nahiz meningitis zerebrospinal epidemikoa eragin ditzake. Arnasbideetatik sartzen da, eta, handik, odolera eta meningeetara iristen da. *ES:* Meningococo *FR:* Méningocoque *EN:* Meningococcus *Arloa:* Med.
- Menisko:** iz. Giltzadura arteko ilargi-erdi itxurako fibrokartilagoa, belaukekoa bereziki. *ES:* Menisco *FR:* Ménisque *EN:* Meniscus *Oharrak:* Bazueta, meniskoa apurtu edo pitzatu egiten da, eta kirurgia-ebakuntza baten bidez kendu behar izaten da. *Arloa:* Anat.
- Menopausia:** 1. iz. Hilekoen berezko etetea. Hormonen funtzio ziklikoa pixkanaka murrizten da; estrogenoen eta gonadotropinen ekoizpena urritu, eta, ondorioz, obulazioaren eta hilekoen maiztasuna jaisten dira, erabat desagertu arte. Asaldu fisikoak (estrogenorik ezaren ondorioz) eta psikologikoak dakartza. 2. iz. Delako etena gertatzen den garaia, 45-55 urte bitartekoa. *ES:* Menopausia *FR:* Ménopause *EN:* Menopause *Oharrak:* Beroaldiak dira menopausiaren sintoma unibertsal bakarra.
- Menopausiko:** 1. izond. Menopausiari dagokiona. 2. izond. Menopausia-garaian dagoen emakumea. *ES:* Menopáusico *FR:* Ménopausique *EN:* Menopausal
- Menorragia:** iz. Ohikoa baino hileko luzeagoa edo odol-isuri handiagoa. Odolaren presio gariaren, hormonen gorabeheren, anemiaren eta beste zenbait ondoreen ondorioz gertatzen da. *ES:* Menorragia *FR:* Ménorragie *EN:* Menorrhagia *Oharrak:* Ugaltze-garaian dauden emakume gehienetan agertzen da noiz edo noiz. Prozesua kroniko bihurtzen bada, anemia ager daiteke, galdutako odol kantitatearen ondorioz. *Arloa:* Med.
- Menpeko:** izlag. Ohitura morboso baten mende bizi dena; alkoholaren edo drogen mende, esate baterako. *ES:* Adicto *FR:* Addicte *EN:* Addict
- Menstruazio:** iz. Ikus 'hileko'.
- Mental:** 1. izond. Funtzio intelektualei edo psikismoari dagokiona. 2. izond. Buruan dagoena; buruan gertatzen edo egiten dena. 3. izond. Buruko asaldu bati dagokiona, edo asaldu hori ezagarriz duena. *ES:* Mental *FR:* Mental *EN:* Mental *Adibideak:* Kalkulu mental.
- Mentol:** iz. Gai kristalino kologea; mendaren alkanforra da. Analgesikoa eta antipruriginosoa da; antiseptiko gisa eta goiko arnasbideetako hotzerien kontra erabiltzen da. Mentaren gisako usaina eta zaporea ditu. Ukendu eta krema askoren osagai izan ohi da. *ES:* Mentol *FR:* Menthol *EN:* Menthol *Arloa:* Kim.
- Mentoldun:** izond. Mentola duena. *ES:* Mentoldo *Arloa:* Kim.
- Merkurio:** iz. Hg. Elementu kimiko metalikoa; likidoa da ohiko giroko tenperaturaren. Metal gehienak disolbatzen ditu, eta amalgamak eratu. Toxikoa da; neurriak hartu behar dira, pozoidura gerta baitaiteke haren lurrina arnastuz gero, konposatu disolbagarriak ahoratuz gero edo ukipenez larruazalean zehar barneratuz gero. Elektrizitatearen eroale oso ona da. Termometro, kontagailu, barometro eta manometroetan erabiltzen da, besteak beste. Ukenduak, pilulak, eta abar egiteko erabiltzen dira merkurioaren konposatuak. Medikuntzan, batez ere libragarri, diuretiko, kolagogo eta antisisfilitiko gisa erabiltzen dira konposatu horiek. *ES:* Mercurio *FR:* Mercure *EN:* Mercury *Arloa:* Kim.
- Merkurio-termometro:** iz. Merkurioa tenperatura-aldaketen adierazgarri duen termometroa. *ES:* Termómetro de mercurio *FR:* Thermomètre à mercure *EN:* Mercury thermometer
- Merkurokromo:** iz. Merkuriozko konposatu organikoa. Kolore gorriko disoluzioa da, eta antiseptiko gisa erabiltzen da medikuntzan. *ES:* Mercurocromo
- Mesedegarri:** izond. Norbaiten nahiz zerbaiten alde dagoena, edo haren alde egiten dena. *ES:* Favorable *FR:* Favorable *EN:* Favourable
- Mesenterio:** iz. Peritoneoko tolestura zabala; jejunoa eta ileona lotzen ditu sabelaldeko atzeko hormarekin. *ES:* Mesenterio *FR:* Mésentère *EN:* Mesentery *Arloa:* Anat.
- Mesoblasto:** iz. Embrioiak garapenean dituen hiru geruzetatik erdikoa, ektodermoaren eta endodermoaren artean dagoena. Hortik sortuak dira ehun konektiboa, giharra, odolaren zirkulaziosistema, sexu-organok, ornodunen hezurdura eta iraitz-apatua. *ES:* Mesoblasto *FR:* Mésoblaste, mésoderme *EN:* Mesoblast, mesoderm *Arloa:* Zool.

**Mesodermo:** iz. Ikus 'mesoblasto'.

**Mesomeria:** iz. Konposatu mesomeroen ezaugarria, erresonantzia kimiko izenez ere ezagutzen dena. *ES:* Mesomería *FR:* Mésomérie *EN:* Mesomerism *Arloa:* Kim.

**Mesomero:** iz. Egitura-formula ugariren bitartez adieraz daitekeen konposatu organikoa. Konposatuaren ezaugarri jakin batzuk bakarrik zehazten ditu horietariko bakoitzak. *ES:* Mesomero *FR:* Mésomère *EN:* Mesomeric *Adibideak:* Bentzenoa. *Arloa:* Kim.

**Mesomorfo:** iz. Gizakume mota bat, giza gorpuzkeraren sailkapen biologikoaren araberakoa; giharrak, hezurak eta ehun konektiboa dira nagusi halako gizakietan. *ES:* Mesomorfo

**Mesozefalo:** izond. (Pertsona buruz) 77-80 bitarteko indize zefalikoa duena. *ES:* Mesocéfalo

**Mestizaje:** iz. Bi arrazaren arteko gurutzaketa. *ES:* Mestizaje *FR:* Hybridation *EN:* Crossbreeding

**Mestizo:** 1. izond. Arraza desberdineko aita-amak dituen; bereziki guraso indiar-zurietatik jaiotakoa. 2. izond. Espezie bereko bi bariatetatik lortutako hibridoa. *ES:* Mestizo *FR:* Métis *EN:* Mestizo

**Metaboliko:** izond. Metabolismoari dagokiona. *ES:* Metabólico *FR:* Métabolique *EN:* Metabolic *Arloa:* Biol.

**Metabolismo:** iz. Bizidunetan gertatzen diren prozesu kimiko guztien multzoa; bizidunetan bertan eraturako nahiz haien barrura sartutako gaiek jasaten dute. Bi fasetan gertatzen da metabolismoa: anabolismoa edo sintesia lehenik, eta katabolismoa edo deskonposaketa ondoren. *ES:* Metabolismo *FR:* Métabolisme *EN:* Metabolism *Arloa:* Biol.

**Metabolismo basal:** iz. Funtzio begetatiboak mantentzeko beharrezkoa den energia-gastu minimoa; gorputz-azalerako metro karratu bakoitzeko eta orduko bero maila da, kaloriatan emana. Pertsona esna dagoela, guztiz atsedenean, baraurik 14 edo 18 ordu lehenagotik, eta giro atsegin eta epelean egiten da. Kolorimetroaz neurtzen da. *ES:* Metabolismo basal *FR:* Métabolisme basal *EN:* Basal metabolism *Arloa:* Biol.

**Metadona:** iz. Opiotik ateratzen den analgesiko narkotiko sintetikoa. Min bortitza baretzeko, desintoxikazioaren tratamendurako, eta heroinaren menpekoentzako tratamendu-programetan erabiltzen da. *ES:* Metadona *FR:* Méthadone *EN:* Methadone *Oharrak:* Ahotik har daiteke, eta iraupen luzea du. *Arloa:* Med.

**Metafase:** iz. Mitosiaren fasea, profasearen ondorengoa eta anafasearen aurrekoa; kromosomak plano ekuatorialan kokatzen dira, zirkulu bat eratuz, eta banaketarako prestatzen dira. *ES:* Metafase *FR:* Métaphase *EN:* Metaphase *Arloa:* Biol.

**Metakarpo-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'metakarpoko'.

**Metakarpo:** iz. Eskuaren erdiko atala, karpoaren eta hatzen artekoa, bost hezur luzez osatua. Metakarpo-hezur bakoitza gorputzaz eta bi adarrez osatuta dago. *ES:* Metacarpo *FR:* Métacarpe *EN:* Metacarpus *Arloa:* Anat.

**Metakarpoko:** 1. izlag. Metakarpokoa, edo hari dagokiona. 2. izlag. Metakarporeen eskeletoa osatzen duten hezur zilindrikoetako bakoitzari dagokiona. *ES:* Metacarpiano *FR:* Métacarpien *EN:* Metacarpal *Arloa:* Anat.

**Metaketa:** iz. Hainbat gairen pilaketa, zelula-ehunean zein beste atal batzuetan. *ES:* Dépósito *FR:* Site tissulaire de stockage *EN:* Depot

**Metameria:** 1. iz. Segmentu berdinetan zatituta dagoen gorputzaren izaera. 2. iz. Isomeria kimikoa. *ES:* Metamería *FR:* Métamérie *EN:* Metamerism

**Metamerismo:** iz. Ikus 'metameria'. *ES:* Metamerismo *FR:* Métamérisme *EN:* Metamerism

**Metamero:** iz. Organismo baten gorputza zatitu daitekeen antzeko segmentuetako bakoitza. *ES:* Métamero *FR:* Métamère *EN:* Metamerous

**Metamorfiko:** 1. izond. Metamorfismoari dagokiona. 2. izond. Metamorfismo prozesu bat edo gehiago jasan duena. *ES:* Metamórfico *FR:* Métamorphique *EN:* Metamorphic

**Metamorfosi:** iz. Organismo baten garapen-faseko forma- eta egitura-aldaketen multzoa. *ES:* Metamorfosis *FR:* Métamorphose *EN:* Metamorphosis *Arloa:* Biol.

**Metanal:** izond. Ikus 'formaldehido'. *ES:* Metanal *FR:* Méthanal *EN:* Methanal *Arloa:* Kim.

**Metastasi:** iz. Tumor-zelulak organismoan beste gune batzuetara hedatzean datzan prozesua. Tumor gaiztoak kapsula barnean ez daudenez, haien zelulek ihes egin dezakete, eta linfa- nahiz odol-hodien bidez organismoan beste hainbat guneetara hedatu. *ES:* Métástasis *FR:* Métastase *EN:* Metastasis *Arloa:* Med.

**Metatartso-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'metatartsooko'.

**Metatartso:** iz. Tartsoaren eta behatzen arteko oin atala, bost hezurtxo paraleloz osatua. Hezur luzezka horiek orkatilako hezurrekin eta behatze-tako lehen falangearekin giltzatzen dira. *ES:* Metatarso *FR:* Métatarse *EN:* Metatarsus *Arloa:* Anat.

**Metatartso-hezur:** iz. Oinaren erdialdean paraleloki kokatuta dauden bost hezurretariko bakoitza; zilindro-itxurakoak izaten dira. Tartsoaren bigarren lerroarekin eta behatze-tako lehenengo falangearekin giltzatzen dira. *ES:* Hueso metatarsiano *FR:* Os metatarsale *EN:* Metatarsal *Arloa:* Anat.

- Metatartsoko:** izlag. Metatartsuari dagokiona, edo metatartsosan dagoena. *ES:* Metatarsiano *FR:* Métatarsien *EN:* Metatarsal *Arloa:* Anat.
- Metatze:** iz. Ikus 'gordetze'.
- Metazentro:** iz. Indar jakin batzuen aplikazio-puntua; ur-azalean albo baterantz makurturik dagoen gorputz trinko baten gainean eragiten dute, eta bi dira indar horiek: bultzada hidrostatikoa- ren indarren erresultantea eta pisua. *ES:* Metacentro *FR:* Métacentre *EN:* Metacenter *Arloa:* Fis.
- Metazoo:** iz. Animalien erreinuko taldea; arrautza- ren banaketak bereizten du. Arrautza banatzean, ehunetan multzokatutako zelulak erazten dira. Ehunen jarduera koordinaturik dago, organismoaren funtzio guztiak gara daitezten. Protozooak ez beste guztiak sartzen dira metazooen taldean. *ES:* Metazoo *FR:* Métazoaire *EN:* Metazoa *Arloa:* Zool.
- Meteorismo:** iz. Gas-metaketa sabelaldean nahiz hesteetan; sabelaldea handitzen da. Orokortua nahiz hesteko gune batekoa izan daiteke. *ES:* Meteorismo *FR:* Météorisme *EN:* Meteorism *Arloa:* Med.
- Meteorizatu:** ad. Meteorismoa gertatu edo eragin. *ES:* Meteorizar *Arloa:* Med.
- Metileno:** iz. Erradikal organiko dibalentea. Metanotik eratorria da. Alkohol metiliko ez-puruari ematen zaion izen komertziala da. *ES:* Metileno *FR:* Méthylène *EN:* Methylene *Arloa:* Kim.
- Metiliko:** izond. Metilo taldea duena, edo alkohol metilikotik eratorria. *ES:* Metílico *FR:* Méthylique *EN:* Methylic *Arloa:* Kim.
- Metionina:** iz. Aminoazido naturala, garapenerako ezinbestekoa. Oinarrizko aminoazidoa da. Proteina guztietan ageri da, protaminetan eta histona sinpleenetan izan ezik. *ES:* Metionina *FR:* Méthionine *EN:* Methionine *Arloa:* Kim.
- Metodiko:** izond. Metodo baten arabera egina. *ES:* Metódico *FR:* Méthodique *EN:* Methodical
- Metodo:** iz. Ikus 'prozedura'.
- Metodologia:** iz. Edozein diziplinatan jarduteko printzipioen nahiz metodoen multzoa. *ES:* Metodología *FR:* Méthodologie *EN:* Methodology
- Metritis:** iz. Umetokiko paretan hantura; akutua nahiz kronikoa izan daiteke. *ES:* Metritis *FR:* Métrite *EN:* Metritis *Adibideak:* Metritis motak dira endometritisa eta parametritisa. *Arloa:* Med.
- Miaketa:** iz. Ikus 'azterketa'. *ES:* Exploración
- Mialgia:** iz. Giharretako min zehaztugabea; sarritan, ondoez orokorrarekin batera agertzen da, gaixotasun infektzioso askotan. Zenbait botikak —hipolipemiantek— eragina izan daiteke. *ES:* Mialgia *FR:* Myalgie *EN:* Myalgia *Arloa:* Med.
- Miasma:** iz. Lurraren, airearen nahiz uraren jario kaltegarriak. *ES:* Miasma *FR:* Miasme *EN:* Miasma
- Miatu:** ad. Ikus 'aztertu'. *ES:* Explorar
- Midriasi:** iz. Begi-niniaren dilatazioa; hainbat eratakoa izan daiteke: fisiologikoa, sendagaiek (atropina, sorgin-belarra, kokaina) eragina, edo patologikoa. *ES:* Midriasis *FR:* Mydriase *EN:* Mydriasis *Arloa:* Med.
- Mielina:** iz. Fosfolipidoz eta proteinaz osatutako gai zuria; organismo osoko nerbio-zuntz askoren zorroa erazten du. *ES:* Mielina *FR:* Myéline *EN:* Myelin *Arloa:* Biol.
- Mielitis:** iz. Orno-muinaren hantura; gai zuritari, gai grisari edota bieie erasan diezaieke. *ES:* Mielitis *FR:* Myélite *EN:* Myelitis *Arloa:* Med.
- Migraina:** iz. Buruko min mota; garezurreko odol- hodian asaldu paroxistiko eta periodiko baten ondoriozkoa da. Haren etiologia ez da oso ezaguna. Hautzarroan, nerabezarroan nahiz helduaroaren hasieran agertu ohi da, eta alde bakarreko buruko mina du ezaugarri. Krisiaren berehalakotasunaren adierazgarri dira: ikusmen-asalduak (etenkako argiak, larri uhinduak), zapore zein usain arrotza, zorabioa, tinnitusa, gorputz atal baten itxuraldaketa-sentsazioa, eta abar. Fase akutuan, goragaleak, goitikak, hotzikarak, poliuria, izerdia, aurpegiko edema, narritagarratasuna eta neurritz kanpoko nekea ager daitezke. Emakumei erasaten die gizonen baino maizago, eta herentziazkoa izan daiteke. *ES:* Migraña *FR:* Migraine *EN:* Migraine *Arloa:* Med.
- Mihi-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'mihiko'.
- Mihi:** iz. Aho-barrunbeko organo haragitsu, gihartsu, luzaran eta mugikorra. Dastamenaren organo nagusia da; elikagaiak murtzikatzen eta irensten laguntzen du, eta ahots-soinuak artikulatzea du funtzio. *ES:* Lengua *FR:* Langue *EN:* Tongue *Arloa:* Anat.
- Mihiko:** izlag. Mihiari dagokiona, edo mihian dagoena. *ES:* Lingual *FR:* Lingual *EN:* Lingual
- Mihipeko:** izlag. Mihiaren azpian dagoena, edo mihiaren azpian gertatzen dena. *ES:* Sublingual *FR:* Sublingual *EN:* Sublingual *Arloa:* Anat.
- Mikatz:** izond. Ikus 'mingots'.
- Mikosi:** iz. Onddoek eragindako edozein gaixotasun. Hiru mikosi mota bereiz daitezke: onddoek eragindako mikosiak, legamiek eragindakoak eta legamien antzeko onddoek eragindakoak. *ES:* Micosis *FR:* Mycose *EN:* Mycosis *Arloa:* Med.
- Mikrobio-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'mikrobiozko'.
- Mikrobio:** iz. Mikroorganismoa. Izaki zelulabakarrak dira mikrobioak, mikroskopioaren laguntzaz bakarrik ikus daitezkeen organismo, animalia edo landareak. *ES:* Microbio *FR:* Microbe *EN:* Microbe *Adibideak:* Mikrobioak dira proto-

- zoak, onddo batzuk, bakterioak eta birusak. *Arloa*: Biol.
- Mikrobio patogeno**: iz. Gaixotasuna eragiteko gai den mikroorganismoa. *ES*: Microbio patógeno *FR*: Microbe pathogène *EN*: Pathogen microbe *Arloa*: Biol.
- Mikrobioen kontrako**: izlag. (Gai bati buruz) Mikrobioen garapena eragotzen duena. *ES*: Antimicrobiano *FR*: Agent antimicrobien *EN*: Antimicrobial agent *Arloa*: Med.
- Mikrobio-flora**: iz. Organismoko zenbait ehun nahiz barrunbetan bizi den mikrobio multzoa. *ES*: Flora microbiana *FR*: Flore microbienne *EN*: Microflora
- Mikrobiologia**: iz. Biologiaren adarra; mikroorganismoak eta horiek beste organismoekin eta inguruarekin duten eragin-trukea aztertzen ditu. *ES*: Microbiología *FR*: Microbiologie *EN*: Microbiology
- Mikrobiozko**: izond. Mikrobioei nahiz mikroorganismoiei dagokiena. *ES*: Microbiano *FR*: Microbienne *EN*: Microbic
- Mikrokirurgia**: iz. Kirurgia-teknika; mikroskopia baten laguntzaz egiten da, ebakuntza-gunea ondo ikusi ahal izateko. *ES*: Microcirugía *FR*: Microchirurgie *EN*: Microsurgery *Arloa*: Med.
- Mikrokristal**: iz. Mikroskopioz bakarrik ikus daitekeen kristala. *ES*: Microcristal *FR*: Microcristal *EN*: microcrystal *Arloa*: Kim.
- Mikrometro**: 1. iz. Sistema metrikoko luzera-unitatea; metroaren milioirena da ( $\mu\text{m}$ ). 2. iz. Tamaina aski txikiak neurtzeko tresna. *ES*: Micrómetro *FR*: Micromètre *EN*: Micrometre
- Mikroorganismo**: iz. Mikroskopioz bakarrik ikus daitekeen animalia nahiz landarea; bizi-prozesuak garatzeko gai da. *ES*: Microorganismo *FR*: Micro-organisme *EN*: Micro-organism *Adibideak*: Mikroorganismoak dira bakterioak, onddo batzuk, protozoak eta birusak. *Arloa*: Biol.
- Mikroskopioa**: iz. Material oso txikiak mikroskopia bidez aztertzeko teknika. *ES*: Microscopía *FR*: Microscopie *EN*: Microscopy
- Mikroskopiko**: izond. Oso txikia; mikroskopia bidez soilik ikus daitekeena. *ES*: Microscópico *FR*: Microscopique *EN*: Microscopique
- Mikroskopia**: iz. Optika-tresna; lentzez osatua dago, eta begi hutsez ikusi ezin daitezkeen gauzak ikusteko erabiltzen da. *ES*: Microscopio *FR*: Microscope *EN*: Microscope *Arloa*: Fis.-Kim.
- Mikrouhin**: iz. Uhin elektromagnetikoa; maiztasun handia du —300-2450 MHz artekoa—, eta uhin-luzera laburra. *ES*: Microonda *FR*: Microondes *EN*: Microwaves *Arloa*: Fis.
- Mikrozefalia**: iz. Garunaren ohiz kanpoko txikitasuna; sortzetiko anomalia da. Gorputzarekin konparatuz gero, behar baino txikiagoa da bu-
- ruaren neurria, eta garuna ez dago behar adina garatua. Atzerapena eragiten du. *ES*: Microcefalia *FR*: Microcéphalie *EN*: Microcephaly *Arloa*: Med.
- Mikrozefalo**: izond. Mikrozefaliak erasana. *ES*: Microcéfalo-a *FR*: Microcéphale
- Miliar**: 1. izond. Artatxiki-ale edo -hazi baten itxura edo neurria duena. 2. izond. Artatxiki-hazien itxurako lesioen sorrera ezaugarri duena. *ES*: Miliar *FR*: Miliare *EN*: Miliary *Oharrak*: Organismo guztian zehar banaturiko tuberkulu txikiak agertzen dira tuberkulosi miliarrean. *Arloa*: Med.
- Min**: 1. iz. Sentsazio desatsegina; nerbio-bukaera sentsitiboan kitzikapen kaltegarriak eragiten du. Hanturaren oinarriko sintoma da, eta oso baliagarria da hainbat asaldu eta eritasun diagnostikatzeke. 2. iz. NANDAK onartutako diagnostikoa: ondorez larri nahiz sentsazio deserosoen agerpena. *ES*: Dolor *FR*: Douleur *EN*: Pain
- Min egin**: ad. Ikus 'lesionatu'.
- Min eman**: ad. Gorputzeko gune batean min izan, kanpo- nahiz barne-eragileen ondorioz. *ES*: Doler
- Min hartu**: ad. Ikus 'lesionatu'.
- Min hori**: iz. Ikus 'ikterizia'.
- Minbera**: izond. Mina sentitzen duena. *ES*: Dolorido
- Minberatsu**: izond. Ikus 'minbera'.
- Minbizi**: iz. Tumor txarra; batik bat, epitelio-zelulaz osatutakoa. Inguruko ehunetara hedatzeko joera du. Zelulen anormaltasuna du ezaugarri nagusia. Ondorengo zelulei transmititzen zaie anormaltasun hori, eta murriztu egiten dira zelulen hazkuntza eta funtzioak. Ondorioz, gaixoa- ren immunitate-mekanismoari erasaten dio. *ES*: Cáncer *FR*: Cancer *EN*: Cancer *Arloa*: Med.
- Minbiziaren kontrako**: izlag. (Gai bati buruz) Minbiziaren aurkako tratamenduan erabiltzen dena; minbizi-zelulen ugalketa eragotzen du. *ES*: Anticanceroso *FR*: Agent anticancéreux *EN*: Anticancer agent *Arloa*: Med.
- Mindu**: ad. Ikus 'kalte egin'.
- Mindu**: 1. izond. Ikus 'garratzu'. 2. izond. Ikus 'minbera'.
- Mingain**: iz. Ikus 'mih'.
- Mingarri**: izond. Min fisiko nahiz morala eragiten duena. *ES*: Doloroso *FR*: Douloureuse *EN*: Painful
- Mingorri**: iz. Ikus 'isipula'.
- Mingots**: 1. izond. Zapore mota bati dagokiona. 2. iz. Jateko gogoa piztu eta digestioan laguntzen duten gaiak. *ES*: Amargo *FR*: Amer *EN*: Bitter *Adibideak*: Txikoria, kamamila...
- Minik gabeko**: izlag. (Gaixotasunei edo eintza terapeutikoei buruz) Minik ematen ez duena. *ES*: Indoloro *FR*: Indolore *EN*: Painless *Oharrak*:

- Zenbait minbizi mota minik gabekoak dira, oso aurreraturik egon arte.
- Minik gabeko erditze:** iz. Lasaiarazteko eta erdiminak baretzeko erabiltzen den teknika multzoa. *ES:* Parto sin dolor *Adibideak:* Arnasketa-ariketak, anestesia epidurala, eta abar.
- Mintz:** iz. Azalera bat nahiz barrunbe bat estaltzen duen ehunezko geruza mehea. *ES:* Membrana *FR:* Membrane *EN:* Membrane *Arloa:* Biol.
- Mintz erdi iragazkor:** iz. Neurri nahiz pisu jakin batetik gorako gaiçi pasatzen uzten ez dien mintzezko hesia. Iragazkorra da disolbatzaileekiko, baina solutuei ez die pasatzen uzten. *ES:* Membrana semipermeable *FR:* Membrane semi-perméable *EN:* Semipermeable membrane
- Mintz nuklear:** iz. Ikus 'nukleo-mintz'.
- Mintz plasmático:** iz. Ikus 'zelula-mintz'. *ES:* Membrana plasmática *FR:* Membrane cellulaire *EN:* Cell membrane
- Mintz seroso:** iz. Gorputzeko barrunbe itxiak estaltzen dituen mintz mehea; batez ere endotelioz eta ehun konektiboz eratua dago. Erraiak estaltzen ditu; esate baterako, pleura, peritoneoa eta perikardioa. *ES:* Membrana serosa *FR:* Membrane séreuse *EN:* Serous membrane
- Mintz sinobial:** iz. Kapsula artikular baten geruzarik barnekoena; mugikortasun askeko giltzadura bat inguratzen du. Giltzadura lubrifikatzen duen isurkari likatsu bat (sinobia) jariatzen du. Giltzadura horretan lesioaren bat izaten denean sinobia gehiegi pilatuz gero, mina eragin dezake. *ES:* Membrana sinovial *FR:* Membrane synoviale *EN:* Synovial membrane
- Mintz tinpaniko:** iz. Zuntzeko mintz mehe gardena; kanpo-belarria eta erdikoa bereizten ditu. Soinu-uhinak transmititzen ditu barneko belarriara, hezurtxoen bidez. Barrunbe tinpanikoa eta kanpo-belarriko zuloa bereizten ditu. *ES:* Membrana timpánica *FR:* Membrane tympanique *EN:* Tympanic membrane
- Mintz zelular:** iz. Ikus 'zelula-mintz'.
- Mintzezko:** 1. izlag. Mintzez osatua dagoena. 2. izlag. Mintzaren antzekoa. *ES:* Membranoso *Arloa:* Biol.
- Mintzezko hezurtze:** iz. Ikus 'mintzezko osifikazio'.
- Mintzezko osifikazio:** iz. Mintz batean hasten den hezurtzea; esate baterako, garezurraren ganga eta alboak. *ES:* Osificación membranosa *Arloa:* Biol.
- Miokardio:** iz. Bihotzaren paretaren lodiera eratzten duen geruza. Lodia eta uzkurgarria da, eta gihar-zelulez osatua dago. Zuntz kardiako gehienek bihotzaren uzkurduran eragiten dute. *ES:* Miocardio *FR:* Myocarde *EN:* Myocardium *Arloa:* Anat.
- Miokarditis:** iz. Miokardioaren hantura. Birusek, bakterioek eta protozoek eragindako zenbait gaizkoaduraren ondorioz gertatzen da. Miokarditisaren sintoma dira arritmia, takikardia, bularreko mina, eta abar. *ES:* Miocarditis *FR:* Myocardite *EN:* Myocarditis *Arloa:* Med.
- Mioma:** iz. Gihar-elementuz eratutako tumor onbera. Oro har, umetoki-giharrean agertzen dira, eta kirurgia bidez eraz daitezke. *ES:* Mioma *FR:* Myome *EN:* Myoma *Arloa:* Med.
- Miopatía:** iz. Gihar-sistemako eritasunak izendatzeko hitz orokorra. Ahultasuna, gihar-masa galteza eta gihar-ehunaren asaldurak histologikoak ditu ezaugarri. *ES:* Miopatía *FR:* Myopathie *EN:* Myopathy *Arloa:* Med.
- Miope:** izond. (Begi nahiz pertsonaz) Miopiak erasandakoa; ikusmen txarrekoa. *ES:* Miope *FR:* Myope *EN:* Myope
- Miopia:** iz. Ikusmen-asaldua, urrun dagoena argi ikusteko zailtasuna eragiten duena. Begi-globoaren elongazioatik edo errefrakzio-akatsen batengatik gertatzen da. Kristalinoak konbergentzia handiegia duenez, erretina baino aurrerago fokatzen da irudia. *ES:* Miopía *FR:* Myopie *EN:* Myopia *Oharrak:* Betaurreko dibergenteak jarri edo kirurgia bidez zuzentzen da.
- Miosis:** iz. Begi-niniaren uzkurdura handiegi eta iraunkorra. Argitasun handiagatik, arrazoi patologikoren batengatik edota zenbait botikaren eraginez —opiaceoak— gerta daiteke. *ES:* Miosis *FR:* Myosis *EN:* Miosis *Arloa:* Med.
- Mitokondrio:** iz. Zitoplasmako mintzezko organulua, mintz bikoitza duena. Zelularen metabolismoan eta arnasketan parte hartzen du; zelulen energia-bideratzailea da. Ia zelula bizi guztietan ageri da, baina ez bakterioetan, birusetan, zenbait algatan eta eritrozito helduetan. *ES:* Mitochondria *FR:* Mitochondrie *EN:* Mitochondrion *Arloa:* Biol.
- Mitosi:** iz. Zelula somatikoetan gertatzen den zatiketa; zelularen gunea bi zelula berritan zatitzen da. Mitosiaren bidez, zelula berriak sortzen ditu organismoak, bai hazkuntzarako, bai lesionatutako ehunak konpontzeko. Lau aldi bereizten dira: profasea, metafasea, anafasea eta telofasea. *ES:* Mitosis *FR:* Mitose *EN:* Mitosis *Arloa:* Biol.
- Mitral:** izond. Bihotzeko balbula mitralari dago-kiona, edo bihotzeko balbula mitralean dagoena. *ES:* Mitral *FR:* Mitral *EN:* Mitral *Arloa:* Anat.
- Mixedema:** iz. Tiroide guruinaren gutxiegitasuna. Mixedemaren sintomak dira: larruzala lehortzea eta gogortzea, ilea eta azazkalak lehortzea eta hauskor bihurtzea, hortzak erortzea, ahotsa erlastea, hipotermia eta libidoa gutxitzea. Tiroidetik erazutako gaiak ematen zaizkio gaixoari mixedema sendatzeko. *ES:* Mixedema *FR:* Myxoedème



- EN: Myxedema Oharrak:* Eragin handiagoa du emakumeengan, batez ere berrogei eta hirurogei urte bitartean. *Arloa:* Med.
- Mixomatosis:** 1. iz. Muki-endeikapena. 2. iz. Untxiei erasaten dien birus batek eragindako eritasun kutsagarria; heriotza dakar sarritan. Zuzenean nahiz eltxo baten bidez zabaltzen da. *ES: Mixomatosis FR: Myxomatose EN: Myxomatosis*
- Mizela:** iz. Koloide-disoluzio baten atala; ingurutik bereizten da egituraren arabera, inguratzen duen geruza egonkortzaile bati esker. Mizelak elementu garrantzitsuak dira hesteetan lipidoak xurga daitezten. *ES: Micela FR: Micelle EN: Micelle Arloa:* Kim.
- Moko-azal:** iz. Ikus 'prepuzio'.
- Mokor:** iz. Ikus 'aldaka'.
- Moldagarritasun:** iz. Era askotako gertaeretara moldatzeko ahalmena, hala gorputzez, nola buruz. *ES: Adaptabilidad FR: Adaptabilité EN: Adaptability*
- Molde:** iz. Ikus 'eredu'.
- Molekula:** iz. Elementu edo konposatu baten ezaugarriak azaltzen dituen unitaterik txikiena. Kimikoki konbinaturiko bi atomoz edo gehiagoz osatua dago molekula. *ES: Molécula FR: Molécule EN: Molecule Arloa:* Kim.
- Molekular:** izond. Molekulakoa, edo molekulari dagokiona. *ES: Molecular FR: Moléculaire EN: Molecular*
- Mongoliar:** izond. Ikus 'mongoliko'.
- Mongoliko:** 1. izond. Mongolismoari dagokiona. 2. izond. Mongolismoak erasandakoa. 3. izond. Arraza horiaren karaktereen antzekoa, edo haiei dagokiena. *ES: Mongólico FR: Mongolique EN: Mongolian Arloa:* Med.
- Mongolismo:** iz. Ikus 'Down-en sindrome'. *ES: Mongolismo FR: Mongolisme EN: Mongolism*
- Mongoloide:** izond. Arraza mongolikoak gogorazten dituzten ezaugarri fisikoak dituen. *ES: Mongoloide FR: Mongoloïde EN: Mongoloid*
- Monoklonal:** izond. Zelula bakar batetik eratorritako zelula edo organismo multzo erabat berdinari dagokiona. *ES: Monoclonal FR: Monoclonal EN: Monoclonal Arloa:* Biol.
- Monomero:** iz. Polimeroak emateko, bera bezalako beste molekula batzuekin erreakziona dezakeen molekula. *ES: Monómero FR: Monomère EN: Monomer Oharrak:* Fibrina monomeroaren molekulak polimerizatu egiten dira, odolaren gatzapenean fibrina eratzekeo. *Arloa:* Kim.
- Mononuklear:** izond. Ikus 'nukleobakar'.
- Monorkidia:** iz. Eskrototan barrabil bakarra izatea ezaugarri duen asaldua. *ES: Monorquidia FR: Monorchidie EN: Monorchism Arloa:* Med.
- Monorkidiko:** izond. Barrabil-zorroan barrabil bakarra duena. *ES: Monorquídico Arloa:* Med.
- Monosakarido:** iz. Oinarrizko unitate bakarrez osaturik dagoen karbohidratoa; ezin daiteke hidrolisi bidez unitate sinpleagoetan deskonposatu. Oso erraz urtzen dira monosakaridoak uretan, eta batzuk gozoak dira. Ezagunenak glukosa, fruktosa eta galaktosa dira. *ES: Monosacárido FR: Monosaccharide EN: Monosaccharide Arloa:* Kim.
- Monozigotiko:** iz. Obuluernaldu edo zigoto bakarretik garatua. *ES: Monocigótico FR: Monozygote EN: Monozygotic Oharrak:* Monozigotikoak dira berdin-berdinak diren bikiak. *Arloa:* Biol.
- Monozito:** iz. Leukozito nukleobakar handia. Hezur-muinetan erazten da, eta fagozitosia da haren funtzio nagusia. *ES: Monocito FR: Monocyte EN: Monocyte Arloa:* Biol.
- Morbido:** 1. izond. Gaixotasun bat duena, edo gaixotasuna eragiten duena. 2. izond. Egoera patologiko nahiz anormal bati dagokiona. *ES: Mórbito FR: Morbide EN: Morbid Arloa:* Med.
- Morbilitate:** 1. iz. Gaixotasun, prozesu edota ezaugarri anormala. 2. iz. Lurralde batean gaixotasun baten agerrera adierazten duen tasa. *ES: Morbilidad, morbilidad FR: Morbidité EN: Morbidity Arloa:* Med.
- Morboso:** izond. Gaixotasunari dagokiona, edo gaixotasuna eragiten duena. *ES: Morboso FR: Morbide EN: Morbid Arloa:* Med.
- Morfina:** iz. Alkaloide kristalino zuria, opioaren baiatik lortzen dena. Nerbio-sistema zentralari eragiten dio batez ere. Minaren aurkakoa da morfina erabileratzaile terapeutiko nagusia; gutxitan kentzen du erabat mina, baina sufrimendua murrizten du, gehienetan. *ES: Morfina FR: Morphine EN: Morphine Arloa:* Kim.
- Morfinazale:** izond. Ikus 'morfinomano'.
- Morfinomania:** iz. Morfina hartzeko joera, eta egoera horren ondoriozko mendekotasuna. *ES: Morfinomanía FR: Morphinomanie EN: Morphinomania*
- Morfinomano:** izond. Morfinaren mende dagoena. *ES: Morfinómano FR: Morphinomane EN: Morphine addict*
- Morfologia:** iz. Lagin, landare edota animalia baten forma fisikoaren eta neurriaren azterketa. *ES: Morfología FR: Morphologie EN: Morphology Arloa:* Biol.
- Mortifikazio:** iz. Nork bere buruari —bereziki gorputzari— ematen dion atsegin-ukatzte edo nekea, bertutea erdiesteko. *ES: Mortificación FR: Mortification EN: Mortification*
- Morula:** iz. Masa solido esferikoa; blastomeroz eratua dago. Ernardutako obulua zatitzetik sortzen da, enbrioaren garapenean hasierako al-dian. *ES: Mórula FR: Morula EN: Morula Arloa:* Biol.



- Mosaiko:** iz. Zigoto bakarretik eratorritako gizabana edo organismoa; genetikoki desberdinak diren bi zelula-lerro edo gehiago ditu. *ES:* Mosaico *FR:* Mosaïque *EN:* Mosaic
- Motel:** izond. Ikus 'ahul'.
- Motibazio:** iz. Portaeraren barne-eragilea; organismoaren jarduera abiarazten du, eta haren norabidea zuzendu. *ES:* Motivación *FR:* Motivation *EN:* Motivation *Arloa:* Psikol.
- Motz:** izond. Ikus 'labur'.
- Motzondo:** iz. Ikus 'muinoi'.
- Moxa:** iz. Jarduera terapeutikoa; ekialdeko antzinako medikuntzan —Txinan eta Japonian— erabiltzen zen. Material bigunezko kono edo zilindroen bidez egiten zen; *Artemisia* hostoekin prestatzen ziren konoak, baina edozein erregairekin egin zitezkeen. Larruzalaren gainean erretzen ziren, eta eskara bat sortzen zen larruzalean.
- Mozketa:** iz. Ikus 'ebaki'.
- Mozkor:** izond. Edari alkoholikoak hartzeagatik burua nahasturik duena. *ES:* Ebrío
- Mozkorkeria:** iz. Edari alkoholdu gehiegi hartzeak dakarren egoera maiz errepikatzeko ohitura. *ES:* Embriaguez *FR:* Ivresse *EN:* Ebriety
- Mozkorraldi:** iz. Mozkorturik iragaten den denbora. *ES:* Borrachera
- Mozkortasun:** iz. Intoxicazio alkoholikoa; bereziki, maiz horditzea grina edo joera gaiztoa. *ES:* Ebriedad *FR:* Ivresse *EN:* Drunkenness
- Mozkortu:** ad. Alkoholdu edariren bat hartu, zentzumenak eta ahalmenak asaldata arte. *ES:* Emborrachar, embriagar
- Mozte:** iz. Ikus 'ebaki'.
- Moztu:** ad. Ikus 'ebaki'.
- Mugikortasun:** iz. Berez mugitzeko ahalmena. *ES:* Movilidad *FR:* Mobilité *EN:* Mobility *Arloa:* Med.
- Muin:** 1. iz. Hezur luzeetako barrunbeak betetzen dituen ehun konektiboa, gantzetan aberatsa. Gaztaroan gorria izaten da, eta odol-zelulak sintetizatzen ditu; gero, gantz-zelulez betetzen da eta hori kolorekoa bilakatzen da. 2. iz. Organo baten barnealdeko zatia, azaletik bereizten dena. *ES:* Médula *FR:* Medulla *EN:* Medulla *Arloa:* Med.
- Muin adrenal:** iz. Giltzurrun adrenalaren atalik barnekoena. Muin adrenaleko zelulek erreazio kromafinoa dute, epinefrina (adrenalina) eta norepinefrina (noradrenalina) izaten eta jariatzen baita horien pikorretan. *ES:* Médula adrenal *FR:* Médullosurrénale *EN:* Adrenal medulla *Arloa:* Med.
- Muin oblongatu:** iz. Bizkarrezur-erraboila; bizkarrezur-muinaren hurrengoa den entzefaloaren atala da. Arnasketan, bihotz-taupadak eta borondatezkoak ez diren beste hainbat funtzio kontrolatzen ditu. *ES:* Médula oblongada *FR:* Bulbe rachidien *EN:* Medula oblongata
- Muineko:** 1. izlag. Bizkarrezur-muinari eta nerbio-sistema zentralari dagokiona. 2. izlag. Hezur-muinari dagokiona. 3. izlag. Organo baten muinari dagokiona. *ES:* Medular *FR:* Médullaire *EN:* Medullar, medullary *Arloa:* Anat.
- Muino:** iz. Ikus 'gailur'.
- Muinoi:** iz. Moztutako gorputz-adar baten zatia, moztutako atalaren eta gertuen dagoen giltzaduraren artekoa. *ES:* Muñón *FR:* Moignon *EN:* Stump
- Muki:** iz. Muki-mintzek eta -guruinek jariatzen duten gai likatsu irristakorra. Ura, muzina, gatz inorganikoak eta leukozitoak ditu osagai. Muki-mintza babestea du eginkizun nagusia; bakterioak, partikula pozoitsuak eta kanpoko beste gai arriskutsu batzuk harrapatzen ditu, gorputz barnera sar ez daitezen. *ES:* Moco *FR:* Mucus *EN:* Mucus
- Mukieri:** iz. Animaliei erasaten dien gaixotasun biriko kutsagarria; hilgarria izan daiteke. Errinitisa, sukarra eta jateko gogorik eza ditu ezaugarri. Txakur eta katu gazteei eragiten die batez ere. *ES:* Moquillo *FR:* Rhume des chiens *EN:* Distemper
- Muki-mintz:** iz. Ikus 'mukosa'.
- Mukitsu:** izond. Mukia dariona. *ES:* Mucoso *FR:* Muqueuse *EN:* Mucous
- Mukosa:** iz. Gorputzeko hainbat atal estaltzen dituen ehun-geruza fina. Epitelio-ehuneko azaleko geruza bat dauka muki-mintzak, ehun konektibozko beste geruza sakonago baten gainean. Mukosak azpiko egitura babesten du, eta orobat mukia jariatzen, eta ura, gatzak eta beste zenbait solutu xurgatu. *ES:* Mucosa *FR:* Muqueuse *EN:* Mucosa *Arloa:* Anat.
- Mukoso:** izond. Mukiaren antzekoa. *ES:* Mucoso
- Multizelular:** izond. Zelula batez baino gehiagoz osatua dagoena. *ES:* Multicelular *FR:* Multicellulaire *EN:* Multicellular
- Murmurio:** iz. Ohiz kanpoko hotsa; auskultatzean entzuten da. *ES:* Soplo *FR:* Souffle *EN:* Murmur
- Oharrak:** Esate baterako, bihotz-balbulen akatsetan agertzen da. *Arloa:* Med.
- Murtzikatu:** ad. Janariak ahoan birrindu; elikagaiak hortzen artean hartuz egiten da, beheko masailezurra eta goikoa elkartzean. *ES:* Masticar
- Murtzikatzaile:** iz. Tresna berezia; elikagaiak txikituz berezko murtzikatzea ordezkatzeko erabiltzen da. *ES:* Masticador *FR:* Masticateur *EN:* Muncher
- Muskular:** izond. Giharrari dagokiona, edo giharrean dagoena. *ES:* Muscular *FR:* Musculaire *EN:* Muscular
- Muskulatura:** iz. Gorputz osoko edo zati bateko giharren multzoa eta antolaketa. *ES:* Musculatura *FR:* Musculature *EN:* Musculature

**Muskulazio:** iz. Giharren garapena, hainbat ariketa metodikoren bidezkoa. *ES:* Musculación *FR:* Musculation *EN:* Body-building

**Muskulu barneko:** izlag. Ikus 'gihar barneko'.

**Muskulu barneko injekzio:** iz. Ikus 'gihar barneko injekzio'.

**Muskulu-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'muskular'.

**Muskulu:** iz. Ehun mota; uzkuertzeko gai diren zuntzez eraturik dago. Gorputzeko hainbat atal eta organoren mugimendua ahalbidetzen eta eragiten du. Gihar-zuntzak oso baskularizaturik daude, eta oso kitzikakorrek, eroaleak eta malguak dira. Bi gihar mota oinarritzko bereizten dira: gihar ildaxkatua eta gihar lisoa edo leuna. Gihar ildaxkatua luzea eta borondatezkoa da, berehalako erantzuna du kinaden aurrean, eta tonua erabat galtzen du inerbazioa etetean. Miokardia ez da borondatez uzkuertzen; gainera, ez da erabat gelditzen nerbio-kitzikapena eteten denean. Gihar lisoaren barnean daude, aldiz, errai-gihar guztiak. Gihar lisoa motza eta ez-borondatezkoa da, poliki erreazionatzen du kinaden aurrean, eta ez du tonua erabat galtzen inerbazioa etetean. *ES:* Músculo *FR:* Muscle *EN:* Muscle *Arloa:* Anat.

**Muskulu-ehun:** iz. Ikus 'gihar-ehun'.

**Muskuluko:** izlag. Ikus 'muskular'.

**Musu:** iz. Ikus 'aurpegi'.

**Mutante:** izond. (Gene, kromosoma edota genoma berri bati buruz) Lehendik zegoen baten mutazioz sortua. *ES:* Mutante *FR:* Mutant *EN:* Mutant *Arloa:* Biol.

**Mutazio:** iz. Material genetikoaren ez-ohiko aldaketa. Geneak unitate egonkorrek dira; baina, mutazio bat gertatzen denean, ondorengo belaunaldiei transmititzen zaie aldaketa hori. *ES:* Mutación *FR:* Mutation *EN:* Mutation *Arloa:* Biol.

**Mutilatu:** ad. Gorputz atal baten jarraitutasuna eten, lanabes zorrotz baten bidez. *ES:* Mutilar *FR:* Mutiler *EN:* To mutilate

**Mutilazio:** iz. Gorputzeko atal edo zati garrantzitsu bat ebakitzea. *ES:* Mutilación *FR:* Mutilation *EN:* Mutilation

**Mutur:** iz. Ikus 'punta'.

**Mututu:** ad. Hitzik gabe geratu. *ES:* Enmudecer *FR:* Rester muet *EN:* To say nothing

**Muxarradura:** iz. Ikus 'irekiera'.

# N

.....

- Nafarri:** iz. Ikus 'bartzanga'.
- Nafarri zuri:** iz. Ikus 'barizela'.
- Nagusitasun:** iz. Ikus 'heldutasun'.
- Nahasi:** ad. Ikus 'erotu'.
- Nahasi:** izond. Ikus 'ero'.
- Nahaskor:** izond. (Gorputzei buruz) Beste gorputz batzuekin nahasteko gai dena. *ES:* Miscible *FR:* Miscible *EN:* Miscible *Arloa:* Kim.
- Nahaskortasun:** iz. Likido edo gas batek beste likido edo gas batekin uniformeki disolbatzeko duen ahalmena. *ES:* Miscibilidad *FR:* Miscibilité *EN:* Miscibility *Arloa:* Kim.
- Nahastezin:** izond. Nahastu ezin daitekeena. *ES:* Inmiscible *FR:* Inmiscible *EN:* Immiscible *Arloa:* Kim.
- Nahi gabeko:** izlag. Norabide edo kontrol kontzienterik gabe edo borondaterik gabe gertatzen dena. Erreflexu-mugimenduen eta zuntz leunezko giharrei dagokie bereziki. *ES:* Involuntario *FR:* Involontaire *EN:* Involuntary
- NANDA:** iz. *North American Nursing Diagnosis Association* adierazteko siglak. Erizainen erakunde profesionala da, 1982an sortua. Erizaintzadiagnostikoen terminologiaren taxonomia garatzea eta sustatzea du helburu, profesional guztiak erabili ahal izan dezaten. *ES:* NANDA *FR:* NANDA *EN:* NANDA
- Nano:** izond. Ohikoa baino txikiagoa dena; bereziki, gorputzeko atalak egoki proportzionatuta ez dituen. *ES:* Enano *FR:* Nain *EN:* Dwarf
- Narkolepsia:** iz. Loaldi sakonetarako joera; haren ezaugarri dira: bat-bateko logalea dakarten krisialdiak, kataplexia, loaldiko paralisia eta ikusmen-nahiz entzumen-haluzinazioak loak hartzean. Krisiak iraupen aldakorra izan dezake. *ES:* Narcolepsia *FR:* Narcolepsie *EN:* Narcolepsy *Arloa:* Med.
- Narkoleptiko:** izond. (Gai bati buruz) Narkolepsia eragiten duena. *ES:* Narcoléptico *FR:* Narcoleptique *EN:* Narcelptic *Arloa:* Med.
- Narkosi:** iz. Sentikortasunik eza, gai sorgarrien eraginez lortua. *ES:* Narcosis *FR:* Narcose *EN:* Narcosis *Arloa:* Med.
- Narkosi basal:** iz. Konorterik gabeko egoera orokorra; kirurgian, anestesia orokorra eman aurretik eragiten da. Ez da anestesia orokorra bezain sakona. *ES:* Narcosis basal *FR:* Narcose de base *EN:* Basal narcosis *Arloa:* Med.
- Narritadura:** iz. Neurritz kanpoko sentikortasuna gune batean. *ES:* Irritación *FR:* Irritation *EN:* Irritation *Arloa:* Med.
- Narritagarri:** izond. (Gai bati buruz) Hantura edo narritadura eragiten duena. *ES:* Irritante *FR:* Irritant *EN:* Irritant *Arloa:* Med.
- Narritakor:** izond. Kinaden aurrean neurritz kanpoko sentikortasuna duena. *ES:* Irritable *FR:* Irritable *EN:* Irritable *Arloa:* Med.
- Narritakortasun:** iz. Ez-ohiko sentikortasuna eta kitzikagarritasuna ezaugarri dituen egoera. *ES:* Irritabilidad *FR:* Irritabilité *EN:* Irritability
- Narritatu:** ad. Gaixotasun-kitzikadura eragin organo batean edo gorputz atal batean; gunea arinki handitu, eta mina edo erreakzioen bat gertarazi. *ES:* Irritar *FR:* Irriter *EN:* To irritate *Arloa:* Med.
- Narritatzte:** iz. Ikus 'narritadura'.
- Nasai:** izond. Ikus 'laxo'.
- Nefrektomia:** iz. Giltzurrun baten erauzketa. Tumorrak erauzteko, abzesuak drainatzeko edota hidronefrosiak tratatzeko egiten da. *ES:* Nefrectomía *FR:* Néphrectomie *EN:* Nephrectomy *Arloa:* Med.
- Nefritiko:** izond. Giltzurrunari dagokiona. *ES:* Nefrítico *FR:* Néphrétique *EN:* Nephritic *Arloa:* Med.
- Nefritis:** iz. Giltzurrunari erasaten dioten gaixotasunen multzo handietariko bat; hipertentsioa, edema, hematuria, hantura eta ez-ohiko funtzioa ditu ezaugarri. Kronikoa edo akutua izan daiteke. Nefritis moten artean daude: nefritis akutua, herentziazko nefritisa, nefritis jariatkorra, eta abar. *ES:* Nefritis *FR:* Néphrite *EN:* Nephritis *Arloa:* Med.
- Nefrologia:** iz. Giltzurrunaren anatomiaren, fisiologiaren eta patologien azterketa. *ES:* Nefrología *FR:* Néphrologie *EN:* Nephrology *Arloa:* Med.
- Nefrologo:** iz. Giltzurruneko gaixotasunetan aditua. *ES:* Nefrólogo *FR:* Néphrologue *EN:* Nephrologist *Arloa:* Med.
- Nefrosi:** iz. Giltzurrunetako asaldua; proteinuria, hipoalbuminemia eta edema ditu ezaugarri. Glomeruluko gaixotasunetan, giltzurrun-zaineko tronbosietan eta gaixotasun orokortu askoren komplikazioetan gertatzen da. *ES:* Nefrosis *FR:* Néphrose *EN:* Nephrosis *Arloa:* Med.
- Nefrotiko:** izond. Nefrosiari dagokiona. *ES:* Nefrótico *FR:* Néphrotique *EN:* Nephrotic *Arloa:* Med.

- Negar egin:** ad. Begietatik malkoak isuri; atseka-bearen, minaren, eta besteren ondorioz, bereziki. *ES:* Llorar *EN:* To cry
- Negar-eragile:** izond. (Gai bati buruz) Malkoen jarioa eragiten duena. *ES:* Lacrimógeno *FR:* Lacrymogène *EN:* Lacrimator
- Negargarri:** izond. Negarra eragiten duena. *ES:* Lacrimógeno
- Negarti:** izond. Askotan edo erraz negar egiten duena. *ES:* Lagrimoso *EN:* Tearful
- Negartsu:** izond. Ikus 'negarti'.
- Negel:** 1. iz. Ikus 'herpes'. 2. iz. Ikus 'erupzio'.
- Nekatu:** 1. ad. Indarra gutxitu, lanaren edo ahaleginaren ondorioz. 2. ad. Gogaitu edo gogaitarazi, gauzak gehiegi errepikatzearen ondorioz. *ES:* Cansar, fatigar *FR:* Fatiguer *EN:* To tire
- Neke:** iz. Gehiegizko jardueraren ondorioz sortutako egoera eta sentsazioa gorputzean. Ehunen gaitasunaren galera dakar; egoera normalean giharren uzkurdua edo beste jardueraren bat eragiten duten kinadek ez dute halako eraginik, nekearen ondorioz. Neke jarraituak abaildura-egoerara eramaten du. Abailduraren ezaugarri dira: eguneroko jardueretarako gaitasunik eza, kexa fisikoak gehitzea, kontzentratzeko gaitasunaren narriadura eta libidoa gutxitzea. *ES:* Fatiga *FR:* Fatigue *EN:* Fatigue
- Nekrosi:** iz. Ehunen heriotza; gaixotasun edo lesioen erreakzio moduan gertatzen da. Hainbat motatakoa izan daiteke: nekrosi koagulatzailean, odol-fluxua blokeatzen dute odol-koaguluek, eta ehunen iskemia eragin; nekrosi gangrenatsuan, ehunak usteltzea eragiten du iskemiak, bakterioen lanarekin. *ES:* Necrosis *FR:* Nécrose *EN:* Necrosis *Arloa:* Med.
- Nematozisto:** iz. Luzakin filiformea; zenbait zelenteraturen azalera agertzen da, pozoiz-zakuari loturik. Esate baterako, *Physalia* generoko ordezkariek eta zenbait marmoka motak duten eztena; giza azalean sar daiteke, eta lesio mingarri nahiz hilgarria eragin dezake. *ES:* Nematocisto *FR:* Nématocyste *EN:* Nematocyst *Arloa:* Biol.
- Neonatal:** izond. (Aro bati buruz) Jaiotza-ondorengo lehenengo 28 egunak betetzen dituena. *ES:* Neonatal *FR:* Néonatal *EN:* Neonatal
- Neoplasia:** iz. Organismo bateko ehunetan agertzen den egitura berria; ehun normalak ordezkatzen ditu, eta gaiztoa edo onbera izan daiteke. *ES:* Neoplasia *FR:* Néoplasie *EN:* Neoplasia *Arloa:* Biol.
- Neoplasma:** iz. Ehunaren hazkuntza berria. *ES:* Neoplasma *FR:* Néoplasme *EN:* Neoplasm *Oharrak:* Organismoko sistema erregulatzaileek ez dute guztiz kontrolatzen zelulen ugalketa, eta, batzuetan, jarrera progresiboa du. *Arloa:* Biol.
- Neoplastia:** iz. Kirurgia plastiko mota; zerbait berrezartzen edo eransten da. *ES:* Neoplastia *EN:* Neoplasty *Arloa:* Med.
- Neotenia:** iz. Heldu gabeko larbaren itxura izatea heldutasunean ere. Behin-behinekoa izaten da, ingurunearen eraginez gertatzen denean, eta enbrioia behar baino geroago garatzea du ezaugarri; arrazoiak genetikoak direnean, berriz, behin betikoa da, eta animaliak larbaldian egiten du bizitza osoa. *ES:* Neotenia *FR:* Néoténie *EN:* Neoteny *Arloa:* Biol.
- Nerabezaro:** iz. Ikus 'adoleszentzia'.
- Nerbio-:** (Hitz elkartuetan) Nerbioeci dagokiena. *ES:* Nervioso *FR:* Nerveux *EN:* nervous
- Nerbio:** iz. Lokarri-itxurako organoa; sentipenen eta bulkaden eroale eta igorlea da. Bulkada aferenteak igortzen ditu organoetatik entzefalora eta bizkarrezur-muñera, eta bulkada eferenteak, al-diz, kanpoaldera. Faszikulutan bilduriko nerbiozuntzez eraturik daude nerbioak. *ES:* Nervio *FR:* Nerf *EN:* Nerve *Arloa:* Anat.
- Nerbio bago:** iz. X. garezur bikotea; oinarrizkoa da hizketarako, irensetarako eta hainbat gorputz atalen sentimenerako, eta bai halaber beste funtzio asko betetzeko ere. *ES:* Nervio vago *FR:* Nerf vague *EN:* Vagus nerve *Arloa:* Anat.
- Nerbio pneumogastriko:** iz. Ikus 'nerbio bago'. *ES:* Nervio pneumogástrico
- Nerbio trigemino:** iz. V. garezur bikotea, denetan luzeena. Oinarrizkoa da murtzikatzeko, aurpegiko sentiberatasun orokorrerako eta goiko gihar lapraren sentiberatasunerako. *ES:* Nervio trigémino *FR:* Trijumeau *EN:* Trigeminal *Arloa:* Anat.
- Nerbio-sistema sinpatiko:** iz. Nerbio-sistema autonomoa osatzen duten bi zatietako bat. Betetzen dituen funtzioak dira: erraiak eta odol-hodiak inerbatzea, digestioa moteltzea, bihotz-taupadak bizkortzea, odol-hodiak uzurtzea, eta abar; hala, gorputza estres-egoerei aurre egiteko prestatzen du. Oro har, nerbio-sistema parasinpatikoaren aurkako eragina du. *ES:* Sistema nervioso simpático *FR:* Système nerveux sympathique *EN:* Sympathetic nervous system
- Neuralgia:** iz. Nerbio-sisteman eragina duten prozesuen ondoriozko asaldua; min sakona du ezaugarri. *ES:* Neuralgia *FR:* Névralgie *EN:* Neuralgia *Arloa:* Med.
- Neuralgiko:** izond. Neuralgiari dagokiona. *ES:* Neurálgico *FR:* Névralgique *EN:* Neuralgic *Arloa:* Med.
- Neurastenia:** iz. Astenia fisikoa eta psikikoa ezaugarri dituen egoera. Nekea, buruko mina, kontzentratzeko zailtasuna, ahulezia, eta abar ditu ezaugarri nagusi. Sarritan depresioen ondoren agertzen den asaldua da. *ES:* Neurastenia *FR:* Neurasthénie *EN:* Neurasthenia *Arloa:* Med.

- Neurasteniko:** 1. izond. Neurasteniari dagokiona. 2. izond. Neurastenia duena. *ES:* Neurasténico *FR:* Neurasthénique *EN:* Neurasthenic
- Neurita:** Nerbio-zelula baten zilindro-itxurako luzakina; neuronaren zelularen gorputzetik datozen bulkadak garraiatzen ditu. Mielinaz estaliak edota mielinarik gabeak izan daitezke. *ES:* Neurita *FR:* Neurite, axone *EN:* Neurite, axon *Arloa:* Biol.
- Neuritiko:** izond. Neuritisari dagokiona. *ES:* Neurítico *Arloa:* Med.
- Neuritis:** iz. Nerbio baten edo gehiagoren hantura. Gaizkoادرak eta pozoiak dira neuritisaren eragile nagusiak. Prozesu horren zeinu bereizgarriak dira: neuralgia, hiperestesia, anestesia, paralisia, gihar-atrofia eta erreflexu falta. *ES:* Neuritis *FR:* Névrite *EN:* Neuritis *Arloa:* Med.
- Neurobegetatibo:** 1. izond. Nerbio-sistema begetatiboari dagokiona. 2. izond. (Nerbio multzo bati buruz) Borondatearen eta kontzientziaren mende ez dauden organoen funtzioak bateratzen eta erregulatzen dituena. *ES:* Neurovegetativo *FR:* Névrogégétatif *EN:* Neurovegetative *Arloa:* Anat.
- Neurobiologia:** iz. Biologiaren adarra; nerbio-sistemaren anatomiaz eta fisiologiaz arduratzen da. *ES:* Neurobiología *FR:* Neurobiologie *EN:* Neurobiology *Arloa:* Biol.
- Neuroendokrinologia:** iz. Nerbio-sistemaren eta sistema endokrinaren arteko harremanaz arduratzen den zientzia. *ES:* Neuroendocrinología *Arloa:* Med.
- Neurofisiologia:** iz. Nerbio-sistemaren fisiologiaz arduratzen den zientzia. *ES:* Neurofisiología *FR:* Neurophysiologie *EN:* Neurophysiology
- Neuroglia:** iz. Nerbio-sistema zentralaren euskarri diren zelulak. Euskarri izateaz gain, metabolismo-funtzioak ere badituzte. *ES:* Neuroglia *FR:* Névroglie *EN:* Neuroglia *Oharrak:* Neuroglia motak dira astrozitoak, mikroglia eta oligodendroglia. *Arloa:* Anat.
- Neurokirurgia:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'neurokirurgiko'.
- Neurokirurgia:** iz. Kirurgia mota; nerbio-sistemako eritasunak sendatzeko ebakuntzak egiten dira neurokirurgian. Entzefaloko, bizkarrezur-muineko edo nerbio periferikoetako ebakuntza multzoa da. *ES:* Neurocirugía *FR:* Neurochirurgie *EN:* Neurosurgery *Arloa:* Med.
- Neurokirurgialari:** iz. Neurokirurgian aditua den kirurgialaria. *ES:* Neurocirujano *EN:* neurosurgeon *Arloa:* Med.
- Neurokirurgiko:** izond. Neurokirurgiari dagokiona. *ES:* Neuroquirúrgico *Arloa:* Med.
- Neurolepsia:** iz. Kontzientziaren asaldua; haren ezaugarri dira: jardueraren murrizketa, antsietatea eta ingurukoarekiko axolagabekeria, besteak beste. Gaixoa lo gera daiteke, baina erraz esnatzen da, eta agindu errazak betetzen ditu. *ES:* Neurolepsia *FR:* Neurolepsie *EN:* Neurolepsis *Arloa:* Med.
- Neuroleptiko:** izond. (Gai bati buruz) Neurolepsia eragiten duena. *ES:* Neuroléptico *FR:* Neuroleptique *EN:* Neuroleptic *Arloa:* Med.
- Neurologia:** iz. Medikuntzaren adarra; nerbio-sistemaz eta hari erasaten dioten asalduez arduratzen da. *ES:* Neurología *FR:* Neurologie *EN:* Neurology *Arloa:* Med.
- Neurologo:** iz. Neurologian aditua. *ES:* Neurólogo *FR:* Neurologue *EN:* Neurologist *Arloa:* Med.
- Neuromuskular:** izond. Aldi berean nerbioei eta giharrei dagokiena. *ES:* Neuromuscular *FR:* Neuromusculaire *EN:* Neuromuscular
- Neurona-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'neuronako'.
- Neurona:** iz. Nerbio-sistemako oinarrizko nerbio-zelula. Gorputz zelular batek eta gorputz horretatik irteten diren luzakinek osatzen dute. Nerbio-bulkadak eroateko ahalmena du. *ES:* Neurona *FR:* Neurone *EN:* Neuron *Arloa:* Biol.
- Neuronako:** izlag. Neuronari dagokiona, edo neuronetan dagoena. *ES:* Neuronal *FR:* Neuronal *EN:* Neuronal
- Neuronaren:** izlag. Ikus 'neuronako'.
- Neuropatia:** iz. Nerbio-asalduak —endekapenezko asalduak bereziki— izendatzeko termino orokorra. Zentzu hertsian hanturazkoak ez diren prozesuetarako soilik erabiltzen den arren, kasu guztietarako erabiltzen da zentzu zabalean. *ES:* Neuropatía *FR:* Neuropathie *EN:* Neuropathy *Arloa:* Med.
- Neuropsikiatria:** iz. Medikuntzaren adarra; aldi berean psikiatrikoak eta neurologikoak diren kasuak aztertzen ditu. *ES:* Neuropsiquiatría *FR:* Neuropsychiatrie *EN:* Neuropsychiatry *Arloa:* Med.
- Neuropsikologia:** iz. Goi mailako nerbio-funtzioen eta garuneko egituren arteko erlazioez arduratzen den zientzia. *ES:* Neuropsicología *FR:* Neuropsychologie *EN:* Neuropsychology *Arloa:* Med.
- Neurosi-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'neurotikoko'.
- Neurosi:** iz. Gaitz psikogenoa; haurtarotik datozten gatazka psikiko baten espresio simbolikoa da haren sintoma nagusia. Antsietatearen nahiz barge-gatazkaren aurrean jokatzeko era desegoki edo ez-eraginkorra da. *ES:* Neurosis *FR:* Névrose *EN:* Neurosis *Arloa:* Psikol.
- Neurotikoko:** 1. izond. Neurosiari dagokiona. 2. izond. Neurosia duena. *ES:* Neurótico *FR:* Névrotique *EN:* Neurotic *Arloa:* Psikol.

- Neurriz gaineko urduritasun:** iz. Gehiegizko kitzikapena. *ES:* Sobreexcitación, sobreexcitación *FR:* Surexcitation *EN:* Superexcitation
- Nikotina:** iz. Tabako-landaretik ateratzen den alkaloide kolge, disolbagarri, lurrunkor eta toxikoa. Oso erraz disolbatzen da uretan, eta niazina lortzeko eta intsektizidak egiteko erabiltzen da. Nikotina asko hartzeak listu-jarioa, okadak, goitikak, beherakoa, zefalea, zorabioa, erritmo kardiala moteltzea eta, kasu larrietan, arnas giharren paralisia eragin ditzake. *ES:* Nicotina *FR:* Nicotine *EN:* Nicotine *Arloa:* Kim.
- Niktalopia:** 1. iz. Argi ahula dagoenean edo ilunpean hobeto ikusteko gaitasuna; zenbait animaliak eta ikusmen-arazoak dituzten hainbat pertsonak izaten dute. Nerbio optikoaren hanturak eta erretnaren edo koroidearen eritasunek eragiten dute. 2. iz. Gaueko itsutasuna, edo argi gutxi dagoenean ikusteko ahalmen murriztua. *ES:* Nictalopía *FR:* Nyctalopie *EN:* Nyctalopia *Arloa:* Med.
- Nitrogenatu:** izond. Nitrogenoa duena. *ES:* Nitrogenado *FR:* Azoté *EN:* Nitrogenous
- Nitrogeno:** iz. N. Elementu gaseoso kolge eta usaingabea. Atmosferako airearen osagaririk ugariena da (% 78ko bolumena), eta, toxikoa ez den arren, ez da egokia arnasteko. Proteinen eta azido nukleikoen osagai nagusietako bat da. Organismo bizidunentzat ezinbestekoak dira nitrogenoaren konposatuak; proteinak eta azido nukleikoak, berriz, oinarritzkoak. *ES:* Nitrógeno *FR:* Nitrogène *EN:* Nitrogen *Arloa:* Kim.
- Nitroglicerina:** iz. Glizerinaren ester trinitrikoa; likido koipetsu horixka da. Toxikoa da, eta erraz egiten du eztanda. Hodi zabalzaille koronarioa da ur-disoluzio diluituetan; bularreko angina, asma, arteriosklerosia, eta abar tratatzeko erabiltzen da. *ES:* Nitroglicerina *FR:* Nitroglycérine *EN:* Nitroglycerin *Arloa:* Kim.
- Nodo:** iz. Masa txiki gogor eta biribildua. *ES:* Nodo *FR:* Noeud *EN:* Node *Oharrak:* Nodo sinusala dago bihotzaren eskuineko aurikulan. *Arloa:* Anat.
- Nodo aurikulobentrikular:** iz. Bihotzeko kitzikadura- eta eroapen-sistemen atala; bihotz-sinuaren ahoan kokatua dago. *ES:* Nodo auriculoventricular *FR:* Noeud auriculo-ventriculaire *EN:* Atrioventricular node
- Nodo sinusal:** iz. Bihotzeko kitzikadura- eta eroapen-sistemen sorburua; goiko kaba zainaren ahoan kokatua dago. Bihotzaren erritmoa erregulatzen du. *ES:* Nodo sinusal *FR:* Noeud sinusal *EN:* Sinus node
- Nodular:** izond. Noduluei dagokiena; masa edo egitura txikia, gogorra eta korapilatsua osatzen dute noduluek. *ES:* Nodular *FR:* Nodulaire *EN:* Nodular
- Nodulu-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'nodular'.
- Nodulu:** iz. Dermisean edo hipodermisean eratzen den goragune txikia, nodo-itxurakoa. *ES:* Nódulo *FR:* Nodule *EN:* Nodule *Arloa:* Biol.
- Nodulu linfatiko:** iz. Ikus 'gongoilo linfatiko'. *ES:* Nódulo linfático
- Noizbehinkako:** izlag. Gaixotasunari dagokionez, hedatu gabe dagoena; gizabanako bakar batzuei erasaten die, eta ez du inolako loturarik lekudenborarekin. *ES:* Esporádico *FR:* Sporadique *EN:* Sporadic
- Noizean behingo:** izlag. Ikus 'noizbehinkako'.
- Nosografia:** iz. Gaixotasunen deskribapena; gaixotasunak sistemaka eta ordenan sailkatuz egiten da. *ES:* Nosografía *FR:* Nosographie *EN:* Nosography *Arloa:* Med.
- Nosologia:** iz. Gaixotasunen sailkapen sistemati-koaz arduratzen den zientzia. *ES:* Nosología *FR:* Nosologie *EN:* Nosology *Arloa:* Med.
- Notokorda:** iz. Ehun mesodermikoz osatutako lerro luzea; gorputzaren euskarria da. Nodo primitiboan sortu eta garatzen ari den enbrioaren bizkarraldeko azalean zehar hedatzen da. *ES:* Notocorda *FR:* Notocorde *EN:* Notochord *Arloa:* Embriolog.
- Nozitu:** ad. Ikus 'sufritu'.
- Nudositate:** iz. Ez-ohiko hantura edo gogortasuna; ehun edo organo batean eratu ohi da, eta biribildua izaten da sarritan. *ES:* Nudosidad *FR:* Nodosité *EN:* Nodosity *Arloa:* Med.
- Nukleo:** 1. iz. Edozein gauza nahiz gorputzen erdiko edo barneko gunea. 2. iz. Zelula bizien erdiguneko organela esferikoa, ertz zehaztuak dituena. Protoplasma inguratua dago, eta zelularen oinarritzko osagaia da; orobat, bere baitan du kode genetikoa, organismoaren bizi-sistemak mantentzeko eta haien garapenerako eta hazkuntzarako aginduak emateko ezinbestekoa. 3. iz. Atomo baten erdiko gunea; elektroikortikalak haren inguruan banatzen dira. 4. iz. Gauza jakinen atal zehatza. *ES:* Núcleo *FR:* Noyau *EN:* Nucleus
- Nukleoaniztun:** izond. Nukleo bat baino gehiago dituena; polinuklearra edo multinuklearra. *ES:* Plurinuclear *FR:* Plurinucléaire *Arloa:* Biol.
- Nukleobakar:** izond. Nukleo bakarra duena. *ES:* Mononuclear *EN:* Mononuclear *Adibideak:* Monozitua. *Arloa:* Biol.
- Nukleofilo:** 1. iz. Partikula kimikoa; haren konfigurazio elektronikoak elektroikortikalak ahalmena du. 2. iz. Partikula horiek parte hartzen duten erreakzio kimikoa. *ES:* Nucleófilo *Arloa:* Kim.
- Nukleolo:** iz. Zelularen nukleoko gorputz esferiko biribila, bakarra edo anizkuna. Proteinaz, ADNz eta RNAz osatua dago, eta ezinbestekoa da erri-



bosomak eratzeko, horien proteina zelularrak sintetizatzen baititu. *ES:* Nuclóolo *FR:* Nucléole *EN:* Nucleolus *Arloa:* Biol.

**Nukleo-mintz:** iz. Zelula barneko estalki bikoitza, genomak eta nukleoplasma biltzen duena. *ES:* Membrana nuclear *FR:* Membrane nucléaire *EN:* Nuclear membrane

**Nukleotido:** iz. Molekula organikoa. Haren osagai dira: fosfato talde bat, pentosa bat —erribosa zein desoxirribosa—, nukleotido bat eta base nitrogenatu bat. Gai hori azido nukleikoen hidrolisitik lortzen da, eta, beraz, azido nukleikoen

osagaia da. *ES:* Nucleótido *FR:* Nucléotide *EN:* Nucleotide *Arloa:* Biokim.

**Nuliparo:** izond. Ikus 'erdigabe'.

**Nutrizio:** iz. Izaki bizidunen ezaugarria; oinarrikoa eta orokorra da. Osasunak irauteko eta organismoak behar bezala funtzionatzeko, ezinbestekoa da elikagaiak hartzea eta asimilatzea, eta elikagai horiek behar bezala erabiltzea. Hainbat funtzio hartzen ditu bere baitan: digestioa, arnas-keta, zirkulazioa, iraiketa eta sistema endokrinua. *ES:* Nutrición *FR:* Nutrition *EN:* Nutrition *Arloa:* Biol.

# O

- Obariko:** izond. Obulutegikoa, edo hari dagokiona. *ES:* Ovárico *FR:* Ovarien *EN:* Ovarian *Arloa:* Anat.
- Obario:** iz. Ikus 'obulutegi'.
- Obesitate:** iz. Gehiegizko gantz-metaketa gorputzean. Batez ere erraietan eta larruazalpeko ehunetan gertatzen da. *ES:* Obesidad *FR:* Obésité *EN:* Obesity *Arloa:* Med.
- Obeso:** izond. Normala baino pisu handiagoa duena. *ES:* Obeso *FR:* Obèse *EN:* Obese
- Obliteratu:** ad. Hodi nahiz barrunbe bat itxi edo buxatu. *ES:* Obliterar *FR:* Oblitérer *EN:* To obliterate *Arloa:* Med.
- Obozelula:** iz. Ikus 'obulu'. *ES:* Ovocélula
- Obozito:** iz. Obuluaen jatorrizko zelula. *ES:* Ovocito, oocito
- Obratu:** ad. Ikus 'kaka egin'.
- Obratze:** iz. Ikus 'sabel-huste'.
- Obsesibo:** 1. izond. Obsesioari dagokiona. 2. izond. Obsesioak jotakoa. *ES:* Obsesivo, obsesioante *FR:* Obsessivo *EN:* Obsessive *Arloa:* Psikiat.
- Obsesio:** iz. Ideia, afektu, irudi edo irrika; behin eta berriz agertzen da, eta obsesioak jotakoak ezin du burutik kendu. *ES:* Obsesión *FR:* Obsession *EN:* Obsession *Arloa:* Psikiat.
- Obstetra:** iz. Obstetrizian aditua den medikua. *ES:* Obstetra *FR:* Obstétricien *EN:* Obstetrician *Arloa:* Med.
- Obstetrikiko:** izond. Obstetriziar dagokiona. *ES:* Obstétrico *FR:* Obstétrical *EN:* Obstetrical *Arloa:* Med.
- Obstetriziaz:** iz. Medikuntzaren adarra; haurdunaldiaz, erditzeaz eta erditu-ondorenaz arduratzen da. *ES:* Obstetricia *FR:* Obstétrique *EN:* Obstetrics *Arloa:* Med.
- Obulatu:** ad. Obulazioa gertatu. *ES:* Ovular *EN:* To ovulate *Arloa:* Biol.
- Obulazio:** iz. Obulua eratzeke eta hartatik askatzeke prozesua, De Graaf-en folikuluan; folikulu helduaren bat-bateko hausturaren ondorioz gertatzen da askatze hori. Askatu ondoren, obulua umetokiraino iristen da Fallopioren hodieta zehar. Obulutegiaren eta hipofisiaren funtzio zikliko endokrinoek eragiten dute obulazioa. *ES:* Ovulación *FR:* Ovulation *EN:* Ovulation *Oharrik:* Oro har, azken hilekoaren lehen egunetik hamalau egunera gertatzen da, eta, sarritan, mina eragiten du sabelaldeko behealdean, min labur eta gogorra, obulatzen ari den obulutegiaren aldean. *Arloa:* Biol.
- Obulaziorik ez:** iz. Ikus 'anobulazio'.
- Obulu:** iz. Emakumearen ernal-zelula; obulaziora, obulutegitik irretzen da. *ES:* Óvulo *FR:* Ovule *EN:* Ovum *Arloa:* Biol.
- Obulutegi-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'obariko'.
- Obulutegi:** iz. Emearen ugaltze-guruin nagusia, ume-tokiaren alde banatan kokatua. Almendra baten itxura du, eta zurixka eta leuna da. Obulazioan, obulu bat askatzen da obulutegiaren azalean dagoen folikulu batetik, hormona gonadotropikoek eraginez. Hileko zikloa erregulatzen duten estrogenoak eta progesterona jariatzen ditu obulutegiko folikulu helduak. *ES:* Ovario *FR:* Ovaire *EN:* Ovary *Arloa:* Anat.
- Odol-:** (Hitz elkartuetan) Odolari dagokiona, edo odola duena. *ES:* Sanguíneo *FR:* Sanguin *EN:* Sanguineous
- Odol:** iz. Organismoaren oinarriko likido; bihotzak ponpatzen du arterietan, zainetan eta kapilarretan zehar. Odolaren osagai dira: likido argi horixka bat —plasma— eta hainbat zelula mota. Zenbait gairen ur-disoluzioa da plasma (gatzak, bitaminak, hormonak, entzimak, gluzidoak, lipidoak, proteinak eta metabolismoaren hondakinak). Globulu gorriak, globulu zurriak eta plaketak dira plasman esekiduran dauden zelula nagusiak. Oxigenoa eta elikagaiak zeluletara garraiatzea eta karbono dioxidoa eta beste zenbait hondakin-gai kanpora bideratzea da odolaren funtziorik garrantzitsuenak. *ES:* Sangre *FR:* Sang *EN:* Blood
- Odol arterial:** iz. Bihotzeko ezker-aurikulara eta bentrikulura igarotzen den odola, biriketara aireztatutako odoren. Oxigenoa eta elikagaiak eramaten dizkio organismo guztiari bihotzetik arterietan barrena. *ES:* Sangre arterial *FR:* Sang artériel *EN:* Arterial blood
- Odola darion:** izond. Odola dariona, edo haren jarioa eragiten duena. *ES:* Sangrante, sanguinolento *FR:* Sanglant *EN:* Bloody, bleeding
- Odola gatzatu:** ad. Ikus 'koagulatu'. *ES:* Coagularse la sangre
- Odolaren gatzapen:** iz. Ikus 'odolaren koagulazio'.
- Odolaren koagulazio:** iz. Odola likido izatetik gel erdi solido bihurtzerainoko prozesua. Ehunetako

- lesio baten ondorioz hasten da, odolak eta aireak elkar ukitzean. Hodiaren hormako lesioa gertatu eta segundo gutxira plaketak pilatzen dira gune horretan. Kaltzioaren, plaketen eta ehun-faktoreen kantitatea normala baldin bada, tronbina bihurtzen da protofibrina; tronbinak katalizatzaile eginkizuna du, fibrina solugaitz bihur dadin fibrinogenoa. *ES:* Coagulación de la sangre *FR:* Coagulation sanguine *EN:* Blood coagulation
- Odol-baso:** iz. Ikus 'odol-hodi'.
- Odolbatu:** iz. Ikus 'koagulu'.
- Odolbildu:** iz. Ikus 'koagulu'.
- Odoldu:** ad. Odolez estali, orbandu, zikindu. *ES:* Ensangrentar *FR:* Ensanglanter *EN:* To stain with blood, to cover in blood
- Odoleko:** iz. Ikus 'odolkide'.
- Odol-emaile:** iz. Bere odola ematen duena, odolbanku bati edo beste pertsona bati zuzenean. *ES:* Donante de sangre *FR:* Donneur de sang *EN:* Blood donor
- Odoleztatu:** ad. Ikus 'odoldu'.
- Odol-fluxu:** iz. Organo edo ehunetara doan odol kantitate normala. *ES:* Flujo sanguíneo
- Odolgabetu:** ad. Ikus 'odolustu'.
- Odol-hodi:** iz. Odola garraiatzen duten tutu-itxurako egitura-sareko osagaietako edozein. Haien artean daude: arteriak, arteriolak, kapilarrak, zainak eta benulak. *ES:* Vaso sanguíneo *FR:* Vaisseau sanguin *EN:* Blood vessel
- Odoljario:** iz. Gorputzeko odol-hodiren bat apurtzean gertatzen den odol-galtzea; gorputzaren kanpoaldean zein barnealdean gerta daiteke. Arterietakoa, zainetakoa edo kapilarretakoa izan daiteke. *ES:* Hemorragia *FR:* Hémorragie *EN:* Hemorrhage *Arloa:* Med.
- Odoljarioaren kontrako:** izlag. (Eragile bati buruz) Odoljarioa gatzatzen duena. K bitaminak eragin handia du horretan. *ES:* Antihemorrágico, hemostático, hemostíptico *FR:* Agent antihémorrhagique *EN:* Anthemorrhagic agent *Arloa:* Med.
- Odolkide:** iz. Beste pertsona batekin ahaidetutako pertsona; arbaso beraren bitartez, material genetikoa zati bat elkarrekin dute. Bikote odolki-deen ondorengoek arrisku handiagoa dute gaixotasun genetikoak pairatzeko. *ES:* Consanguíneo *FR:* Consanguin *EN:* Consanguineous
- Odolkidetasun:** iz. Enbor beretik datozen gizabakoen ahaidetasun naturala. *ES:* Consanguinidad *FR:* Consanguinité *EN:* Consanguinity
- Odol-koagulu:** iz. Masa erdi solidoa, gelatinatsua; odolaren gatzapen-prozesuaren emaitza da. Fibrina solugaitzeko sare batean harrapatuak dauden eritrozitoz, leukozitoz eta plaketaz osatua dago gehienetan. *ES:* Coágulo de sangre *FR:* Caillot sanguine *EN:* Blood clot
- Odol-kolpe:** iz. Ikus 'apoplexia'.
- Odol-piko:** iz. Ikus 'hemorroide'.
- Odol-plasma:** iz. Odolaren osagai likidoa; isurkari argi likatsua da, zelularik eta partikularik ez duena. Odolaren bolumen osoaren % 50 plasma da. Plasman daude: glukosa, proteinak, aminoazidoak eta beste zenbait gai elikagarri, urea eta beste irazketa-produktu batzuk, hormonak, entzimak, bitaminak eta mineralak. Haren funtzio nagusiak dira: elikatzea, iraztea, immunitatea ziurtatzea, isurkariaren orekari eustea, gatzen eta uraren orekari eustea, presio osmotikoari eustea, tenperatura erregulatzea, azido-base orekari eustea eta hemodinamika erregulatzea. *ES:* Plasma sanguíneo *FR:* Plasma sanguin *EN:* Blood plasma
- Odol-talde:** iz. Odola sailkatzeko mota bakoitza; hematien azaleran genetikari dagokionez zehatzak diren antigenoen arabera da sailkapena. Lau odol-talde bereizi dira gizakiengan: A, B, AB eta 0. *ES:* Grupo sanguíneo *FR:* Groupe sanguin *EN:* Blood group
- Odoluste:** 1. iz. Arteria edo zain bat artifizialki irekitzea, gune jakin batetik odola atera ahal izateko. *ES:* Sangría, flebotomía *FR:* Effusion de sang, saignée, phlébotomie *EN:* Bloodletting, phlebotomy 2. iz. Neurritz kanpoko odoljarioa. *ES:* Desangramiento *FR:* Saignement *EN:* Bleeding
- Odolustu:** ad. Odol asko —edo guztia— galdu. *ES:* Desangrar
- Odoluzki:** iz. Ikus 'hemorroide'.
- Odol-zirkulazio:** iz. Odolaren ibilbidea; odola bihotzetik abiatu eta arterietara, arterioletara, kapilarretara, benuletara eta zainetara iristen da, berriz bihotzera itzultzeko. Bi zirkulazio mota daude: zirkulazio nagusia (bihotzetik gorputz osora hedatzen da biriketan oxigenatu den odola) eta zirkulazio txikia (odola bihotzetik biriketara joaten da, oxigenatzeko). *ES:* Circulación sanguínea *FR:* Circulation sanguine *EN:* Bloodstream
- Odontologia:** iz. Hortz-haginen eta haiei erasaten dieten gaixotasunen eta gaixotasun horien tratamenduen azterketan. *ES:* Odontología *FR:* Odontologie *EN:* Odontology *Arloa:* Med.
- Odontologo:** iz. Odontologian aditua. *ES:* Odontólogo *FR:* Odontologiste, dentiste *EN:* Odontologist, dentist *Arloa:* Med.
- Ofizinal:** iz. Farmakoparen arauetan oinarrituz prestatutako sendagaia; farmazietan edukitzen dute, emateko edo beste prestakin batzuetan erabiltzeko. *ES:* Oficinal *FR:* Officinal *Arloa:* Med.
- Oftalmia:** iz. Begiaren edo begiko konjuntibaren hantura akutua. *ES:* Oftalmía *FR:* Ophtalmie *EN:* Ophthalmia *Arloa:* Med.

- Oftalmiko:** izond. Oftalmiari dagokiona. *ES:* Oftálmico *FR:* Ophtalmique *EN:* Ophthalmic *Arloa:* Med.
- Oftalmologia:** iz. Medikuntzaren adarra; begiaren anatomia, fisiologia eta histologia aztertu, eta begi-asalduen diagnostikoa eta tratamendua egiten ditu. *ES:* Oftalmología *FR:* Ophtalmologie *EN:* Ophthalmology *Arloa:* Med.
- Oftalmologiko:** izond. Oftalmologiari dagokiona. *ES:* Oftalmológico *FR:* Ophtalmologique *EN:* Ophthalmological *Arloa:* Med.
- Oftalmologo:** iz. Oftalmologian aditua. *ES:* Oftalmólogo *FR:* Ophtalmologiste *EN:* Ophthalmologist *Arloa:* Med.
- Oftalmoskopia:** iz. Begiaren barnealdea aztertzea helburu duen teknika. Oftalmoskopia erabiliz egiten da. *ES:* Oftalmoscopia *FR:* Ophtalmoscope *EN:* Ophthalmoscope *Arloa:* Med.
- Oftalmoskopia:** iz. Tresna optikoa; begiaren barnealdea aztertzeko erabiltzen da. Ispilu zapal edota ahur bat du, erdigunean zulotxo bat duena. Begiari argia igortzen zaio ispilu horren bidez, argia erretinan islatzen da, eta ispiluaren erdiguneko zulotxotik itzultzen da atzera. Horrela, begi-globoaren barne-egiturak azter ditzake oftalmologoak. *ES:* Oftalmoscopia *FR:* Ophtalmoscopie *EN:* Ophthalmoscopy *Arloa:* Med.
- Ohatu:** ad. Ikus 'oheratu'.
- Ohe gehigarri:** iz. Behar berezietarako ipintzen den ohea. *ES:* Cama supletoria *FR:* Lit supplémentaire *EN:* Extra bed
- Oheratu:** ad. Ohean sartu edo etzan. *ES:* Encamar
- Ohitura:** iz. Joera organikoa; ekintza jarraitu baten eraginaren emaitza da. *ES:* Hábito *FR:* Habitude *EN:* Habit
- Oholez bermatu (hezurra):** iz. Gorputz atal kolpatu bat euskarri batekin mugikortasunik gabe utzi, egonkortu nahiz babestu. *ES:* Entablillar *FR:* Attitude antalgique *EN:* Splinting
- Oi:** iz. Aho-mukosaren atal gorrixka, loditua eta egokitua. Hartz-haginen euskarri da, eta irten ez diren koroak gainetik estali edota irten diren lepoa inguratzen du. *ES:* Encía *FR:* Gencive *EN:* Gingiva
- Oin:** iz. Beheko gorputz-adarraren behe-muturreko zatia; gorputzaren pisuaren euskarri da. Tartsuak, metatartsuak eta falangeek osatzen dute. *ES:* Pie *FR:* Pied *EN:* Foot
- Oinaldeko gongoil:** iz. Ikus 'gongoil basal'.
- Oinarri:** iz. Ikus 'base'.
- Oinaze:** iz. Ikus 'sufrimendu'.
- Oinazpi:** iz. Ikus 'oinzola'.
- Oinbular:** iz. Oinaren gainaldea; orkatilatik behatzetaraino doa. *ES:* Empeine *FR:* Cou-de-pied *EN:* Instep *Arloa:* Anat.
- Oinzola:** iz. Oinaren azpiko aldea, orpotik behatzetarainokoa. *ES:* Planta *FR:* Plante du pied *EN:* Sole *Arloa:* Anat.
- Oinzolako:** izlag. Oinzolan dagoena, edo hari dagokiona. *ES:* Plantar *FR:* Plantaire *EN:* Plantar *Arloa:* Anat.
- Oka:** iz. Ikus 'goitika'.
- Oka egin:** ad. Urdaileko edukia ahotik indarrez kanporatu; nahita edo nahi gabe gerta daiteke. *ES:* Vomitar *FR:* Vomir *EN:* To vomit
- Okada:** iz. Ikus 'goitika'.
- Okagarri:** izond. Ikus 'emetiko'.
- Okaztagarri:** izond. Ikus 'emetiko'.
- Oker:** izond. Kurba-forma duena; zuzena ez dena. *ES:* Curvo,-a
- Okergun:** iz. Ikus 'kurbadura'.
- Okerra kendu:** ad. Oker dagoena zuzendu. *ES:* Desencorvar
- Okerragotu:** ad. Lehendik gaizki zegoena okerrago jarri. *ES:* Empeorar
- Okerragotze:** iz. Okerrera jotzean datzan prozesua. *ES:* Empeoramamiento *FR:* Aggravation *EN:* Worsening
- Okerrera egin:** ad. Ikus 'okerragotu'.
- Okerrera egite:** iz. Ikus 'okerragotze'.
- Okular:** 1. izond. Begian dagoena, edo begiari dagokiona. 2. iz. Optikan, tresna optiko baten leierra edo leiari-sistema; ikuslearen begian ipintzen da. *ES:* Ocular *FR:* Oculaire *EN:* Ocular
- Okulista:** iz. Begiei erasaten dieten gaixotasunetan aditua. *ES:* Oculista *FR:* Oculiste *EN:* Oculist *Arloa:* Med.
- Okzipital:** 1. izond. Garezurraren atzean, behealdean eta erdian dagoena. 2. iz. Garezurraren atzean, behealdean eta erdian dagoen hezur laua, simetrikoa; bi alde ditu, eta kondiloz hornitua dago, atlas hezurarekin giltzatu ahal izateko. *ES:* Occipital *FR:* Occipital *EN:* Occipital *Arloa:* Anat.
- Okzipuzio:** iz. Buruaren atze-behealdea. *ES:* Occipucio *FR:* Occiput *EN:* Occiput *Arloa:* Anat.
- Oldarkor:** izond. Ikus 'agresibo'.
- Oligoelementu:** iz. Elikadurarako eta prozesu fisiologikoetarako ezinbestekoa den elementua. Oso kantitate txikian agertzen da organismoan. Ezinbestekoa da animalien eta landareen hazkuntzarako eta ugalketarako. *ES:* Oligoelemento *FR:* Oligo-élément *EN:* Trace element *Adibideak:* Oligoelementuak dira burdina, zinka, manganesoa, kobrea, magnesioa, iodoa eta fluorra. *Arloa:* Biol.
- Oligofrenia:** iz. Adimen-urritasuna; garapen intelektualaren atzerapena eragiten du, sortzetik edo oso goiz. Adimen-urritasun maila guztiak dira oligofrenia. Herentziazkoa, defizitarioa nahiz eritasun kutsagarri baten ondoriozkoa izan daiteke, besteak beste. *ES:* Oligofrenia *FR:* Oligophrénie *EN:* Oligophrenia *Arloa:* Psikol.

- Oligofreniko:** 1. izond. Oligofreniari dagokiona. 2. izond. Oligofrenia duena. *ES:* Oligofrénico *EN:* Mentally retarded *Arloa:* Psikol.
- Oligomero:** iz. Kate motzeko polimeroa. Proteina konplexua da, monomeroz osatua. Makromolekulak baino askoz ere molekula-pisu apalagoa du. *ES:* Oligómero *FR:* Oligomère *EN:* Oligomer *Arloa:* Kim.
- OLT (Osasun Laguntzaile Teknikoa):** iz. Erizaintzako unibertsitate-diplomatua. *ES:* ATS (Asistente Técnico Sanitario) *FR:* Infirmière autorisée *EN:* Registered nurse
- OME (Osasunerako Mundu Erakundea):** iz. Nazio Batuen erakunde espezializatua. Munduko edo eskualde zebaitetako osasun-arazoez arduratzen da nagusiki. Betetzen dituen funtzioen artean daude: laguntza tekniko ematea, gaixotasunen ikerkuntza epidemiologikoa bultzatzea eta laguntzea, osasun-neurriak gomendatzea, zientzialarien eta osasun-profesionalen taldeen artean elkarlana bultzatzea, eta osasunaren inguruko informazioa eta aholkuak ematea. *ES:* OMS (Organización Mundial de la Salud) *FR:* OMS (Organisation Mondiale de la Santé) *EN:* WHO (World Health Organization)
- Omoplato:** iz. Triangelu-itxurako hezur zapala, sorbaldaren atzealdean dagoena. *ES:* Omóplato, escápula *FR:* Omoplate, scapula *EN:* Shoulder blade, scapula *Arloa:* Anat.
- Onbera:** izond. Osasunarentzat arriskurik ez dakarren tumorra edo gaizkoadura. *ES:* Benigno *FR:* Bénin *EN:* Benign *Arloa:* Med.
- Onddo:** iz. Mikroorganismo eukariotikoa, zelula bakarrekoa edo zelula anitzekoa. Haren zelulek horma zurrina dute, eta ez dute klorofilarik. Landare-erreinuan sailkatzen dira. Zenbait onddo gaizkoak eragiten dituzte gizaki eta animalietan. *ES:* Hongo *FR:* Fongus *EN:* Fungus
- Onddoen kontrako:** izond. (Gai bati buruz) Onddoak suntsitzen dituena, edo haien hazkundera eta ugalketa eragozten duena. *ES:* Antimicótico *FR:* Antimycotique *EN:* Antimycotic *Arloa:* Med.
- Ondeste:** iz. Heste lodia azken zatia, kolon sigmoidetik uzkiraino doana. Pelbisaren atzeko eta ezkerreko aldean dago. Zilindro-itxura du, beheko aldean izan ezik, eta 12 cm inguruko luzera du. *ES:* Recto *FR:* Rectum *EN:* Rectum *Arloa:* Anat.
- Ondesteko:** izlag. Ondesteari dagokiona, edo ondestean dagoena. *ES:* Rectal *FR:* Rectal *EN:* Rectal *Arloa:* Anat.
- Ondoez:** iz. Osasun-asaldu arina; gorputz osoko mina du ezaugarri, eta sarritan gaixotasun baten hasiera adierazten du. *ES:* Malestar, indisposición *FR:* Malaise, indisposition *EN:* Malaise, annoyance
- Ondoezik:** adlag. Osasunez ondo ez. *ES:* Indispuerto *EN:* Indisposed, unwell
- Ondoezik jarri:** ad. Ikus 'ondoeztu'.
- Ondoeztu:** ad. Ondoeza edo osasun falta jasan. *ES:* Indisponer *FR:* Indisposer *EN:* To upset, to make unwell
- Ondorengo:** izlag. Beheranzko lerroan, seme-alaben, biloben eta gainerako belaunaldien multzoari dagokiona. *ES:* Descendencia *FR:* Descendance *EN:* Progeny
- Ondoretasun:** iz. Ikus 'herentzia'.
- Ondoretasunezko:** izlag. Ikus 'herentziatzko'.
- Onera egin:** ad. Ikus 'erreakzionatu'.
- Onfalozele:** iz. Ikus 'zilbor-hernia'.
- Onikofagia:** iz. Azazkalak eta haien inguruko azala hozkatzeko ohitura; sarritan larruzaleko lesioak eragiten ditu. Barneko tentsioa kanporatzeko modua da zebaitetzat. Lesioak dituzten hatzak egunero bendatzea eta zapore desatseginetako gairen bat ematea da onikofagiaren aurkako tratamendua. *ES:* Onicofagia *FR:* Onychophagie *EN:* Onychophagia *Arloa:* Med.
- Oniriko:** izond. Ametsei dagokiena. *ES:* Onírico *FR:* Onirique *EN:* Oneiric *Arloa:* Psikol.
- Onirismo:** iz. Eldarnio larria; gaixoa esna dagoelarik ere, ametsetako hautemateak izaten ditu. *ES:* Onirismo *FR:* Onirisme *EN:* Oneirism *Arloa:* Psikol.
- Onkogene:** iz. Minbizia eragin dezakeen genea edo gene taldea. Egoera normalean, zelulen hazkuntzan eta ugalketan parte hartzen dute gene horiek. Baina, asalduen bat gertatzen denean, zelula baten eraldatze kaltegarria eragin dezakete. *ES:* Oncogén *FR:* Oncogène *EN:* Oncogene *Arloa:* Med.
- Onkogeno:** izond. (Gai, organismo edo ingurune bati buruz) Tumorren sorrera eragiteko ahalmena duena. *ES:* Oncogénico *FR:* Oncogénique *EN:* Oncogenic *Arloa:* Med.
- Onkologia:** iz. Medikuntzaren adarra; tumorren azterketaz eta tratamenduz arduratzen da. *ES:* Oncología *FR:* Oncologie *EN:* Oncology *Arloa:* Med.
- Onkologiko:** izond. Onkologiari dagokiona. *ES:* Oncológico *FR:* Oncologique *EN:* Oncological
- Onkologo:** iz. Onkologian aditua; gaixotasun neoplasikoen eta, bereziki, minbiziaren azterketan eta tratamenduan dihardu. *ES:* Oncólogo *FR:* Oncologue *EN:* Oncologist *Arloa:* Med.
- Ontogenesi:** iz. Organismo baten bizitzaren historia, obulua zelula bat besterik ez den unetik jaiotza-unera arte; bitarte horretako desberdintze- eta hazkuntza-fase guztiak hartzen dira kon-

- tuan. *ES:* Ontogénesis *FR:* Ontogénèse, ontogénie *EN:* Ontogenesis, ontogeny *Arloa:* Biol.
- Ontogenetiko:** izond. Ontogenesiari edo ontogeniari dagokiona. *ES:* Ontogénico *FR:* Ontogénétique *EN:* Ontogenetic *Arloa:* Biol.
- Oozito:** iz. Ikus 'obozito'.
- Operatu:** ad. Ikus 'ebakuntza egin'.
- Organo:** iz. Hainbat ehunek osatzen duten egitura, funtzio jakin bat betetzeko. *Adibideak:* Entzumen-organoa, ikusmen-organoa, gibela, giltzurrunak, eta abar. *ES:* Órgano *FR:* Organe *EN:* Organ
- Organo genital:** iz. Ikus 'sexu-organo'.
- Osasun:** iz. Organismoak bere funtzioak modu normalean betetzen dituen egoera, gaixotasunik gabekoa. *ES:* Salud *FR:* Santé *EN:* Health
- Osasuntsu:** izond. Osasun oneko. *ES:* Sano *FR:* Sain *EN:* Healthy
- Osifikatu:** ad. Hezur-ehuna eratu. *ES:* Osificarse
- Osifikazio:** iz. Hezur-ehuna eratzeko prozesua. *ES:* Osificación *FR:* Ossification *EN:* Ossification
- Osmometro:** iz. Presio osmotikoa neurtzeko erabiltzen den tresna. *ES:* Osmómetro *FR:* Osmomètre *EN:* Osmometer *Arloa:* Kim.
- Osmosi:** iz. Disolbatzaile bat —ura, adibidez— solutu-kontzentrazio txikieneko disoluziotik handienekora igarotzeko prozesua; mintz erdi iragazkor batean zehar gertatzen da, harik eta bi aldeetan kontzentrazioak berdintzen diren arte. *ES:* Ósmosis *FR:* Osmose *EN:* Osmosis *Arloa:* Fis.
- Osmotiko:** izond. Osmosiari dagokiona. *ES:* Osmótico *FR:* Osmotique *EN:* Osmotic *Arloa:* Kim.
- Oso gizen:** izond. Ikus 'obeso'.
- Oso lodi:** izond. Ikus 'obeso'.
- Ospitale:** iz. Osasun-laguntza eskaintzen duen erakunde; oheak, etengabeko erizaintza-zerbitzuak eta sendagile taldea eskaintzen ditu modu antolatuan. Ospitalean egiten dira, besteak beste, gaixotasunen diagnostikoa eta tratamendua. *ES:* Hospital *FR:* Hôpital *EN:* Hospital
- Ospitale psikiatriko:** iz. Osasun-erakunde; buruasalduak dituzten gaixoez arduratzen da. *ES:* Hospital psiquiátrico *FR:* Hôpital psychiatrique *EN:* Psychiatric hospital
- Ospitaleratu:** ad. Gaixo bat erakunde batera joan edo eraman, tratamendu psikologikoa nahiz fisikoa jaso dezan. Gaixoa bera edo gizartea babesteko egiten da. *ES:* Hospitalizar *FR:* Hospitaliser *EN:* To hospitalize
- Ospitaleratze:** iz. Ikus 'ospitalizazio'.
- Ospitalizazio:** iz. Gaixoak ospitalean egiten duen egonaldia, tratamendu egokia jaso dezan. *ES:* Hospitalización *FR:* Hospitalisation *EN:* Hospitalization
- Osteoblasto:** iz. Hezur-ehuneko zelula; hezur-ehuna sortzen du. Osteoplastoetan egon ohi da. *ES:* Osteoblasto *FR:* Ostéoblaste *EN:* Osteoblast *Arloa:* Anat.
- Osteoklasto:** iz. Hezur-ehuneko zelula handia, nukleo ugari dituena; hezurren hazkuntza- eta osatze-prozesuetan parte hartzen du. *ES:* Osteoclasto *FR:* Ostéoclaste *EN:* Osteoclast
- Osteomalazia:** iz. Hezurretako asalduraren metabolikoa; hezur-matrizearen mineralizazio-urruntasuna du ezaugarri. Hezurrak bigundu egiten dira, eta, hauskortasuna eta malgutasuna hainbesterainoak izanik, hezurrak ezin ditu dagozkion funtzioak bete. Fosforo, kaltzio nahiz D bitamina gutxiegi duen dieta baten edo eguzki-argia ez hartzearen ondorio izan daiteke; D bitamina hartuz sendatzen da. *ES:* Osteomalacia *FR:* Ostéomalacie *EN:* Osteomalacia *Arloa:* Med.
- Osteopata:** iz. Hezurretako gaixotasunetan aditua. *ES:* Osteópata *FR:* Ostéopathe *EN:* Osteopath *Arloa:* Med.
- Osteopatia:** iz. Hezurretako asalduren izen orokorra. Ohiko forma guztiak erabiltzen dira haren tratamendurako eta diagnostikorako, sendagaiak, kirurgia eta erradiazioa barne, baina arreta berezia eskaintzen zaio organoen eta gihar-hezurdura sistemaren arteko harremanari. Osteopatek manipulazio bidez aztertzen eta zuzentzen dituzte egitura-arazoak. Metodo garrantzitsua da osasun-arazoan diagnostikoa eta tratamenduan. *ES:* Osteopatía *FR:* Ostéopathie *EN:* Osteopathy *Arloa:* Med.
- Osteoplastia:** iz. Hezur-ehunean egindako kirurgia plastikoa. *ES:* Osteoplastia *FR:* Ostéoplastic *EN:* Osteoplasty *Arloa:* Med.
- Osteoporosi:** iz. Hezurren barnean ohikoak baino tarte handiagoak eratzea, deskaltzifikaziorik gabe. Osteoporosiak eragin ditzake: mina (berezi bizkarraren beheko aldean), haustura patologikoak, altuera gutxitzea eta hainbat itxuragabatasun. Idiopatikoa izan daiteke, baina baita beste zenbait asalduren ondoriozkoa ere. *ES:* Osteoporosis *FR:* Ostéoporose *EN:* Osteoporosis *Oharrak:* Ohikoagoa da menopausia ostean dauden emakumeetan, gutxi mugitzen diren pertsonetan eta luzaroan tratamendu esteroideoa jaso duten giza-banakoetan. *Arloa:* Med.
- Oszilakor:** izond. Oszilazioa duena. *ES:* Oscilatorio *FR:* Oscillatoire *EN:* Oscillator *Arloa:* Fis.
- Oszilazio-:** (Hitz elkartuetan) Oszilazioei dagokiena, edo haiek eragina. *ES:* Oscilatorio *FR:* Oscillatoire *EN:* Oscillatory *Arloa:* Fis.
- Oszilazio:** iz. Alde batetik besterako txandakako mugimendua; lerro berean egiten den mugimendua da, alde batera eta bestera. *ES:* Oscilación *FR:* Oscillation *EN:* Oscillation *Arloa:* Fis.



- Oszilografo:** iz. Oszilazio elektrikoak erregistratzeko tresna; bihotz-jarduera ikusteko erabiltzen da, galbanometro bati egokiturik. *ES:* Oscilógrafo *FR:* Oscillographe *EN:* Oscillograph *Arloa:* Fis.
- Osziloskopia:** iz. Denborarekin aldatzen den magnitude fisiko baten gorabeherak adierazten dituen tresna; korronte elektrikoak irudika daiteke tresna horren bidez. *ES:* Osciloscopio *FR:* Oscilloscope *EN:* Oscilloscope *Arloa:* Elektrom.
- Otalgia:** iz. Belarriko mina, sarritan hantura baten ondoriozkoa; akutua, minsorra, sumingarria, aldizkakoa edo etengabea izaten da. Ez du zertan belarriko gaixotasun batek eragina izan. Izan ere, belarriko mina eragin dezakete sudurreko, ahobarrunbeko, laringeko nahiz tenporalaren eta matrailezurraren arteko giltzadurako gaizko adurrek eta beste zenbait prozesuk. *ES:* Otalgia *FR:* Otalgie *EN:* Otalgia *Arloa:* Med.
- Otitis:** iz. Belarriaren hantura —kronikoa zein akutua— edo gaizkoadura. Kaltetutako atalaren arabera, kanpo-otitisa, barne-otitisa eta erdiko otitisa bereizten dira. *ES:* Otitis *FR:* Otite *EN:* Otitis *Arloa:* Med.
- Otologia:** iz. Medikuntzaren adarra; belarriaren azterketa du helburu, belarriko gaixotasunen eta asalduen diagnostikoa eta tratamendua barne. *ES:* Otología *FR:* Otologie *EN:* Otology *Arloa:* Med.
- Otorrinolaringologia:** iz. Medikuntzaren adarra; belarriko, sudurreko eta eztarriko, eta buruaren eta lepoaren alboko egituretako asalduen diagnostikoaz eta tratamenduaz arduratzen da. Hiru azpiadar ditu: otologia, errinologia eta laringologia. *ES:* Otorrinolaringología *FR:* Oto-rhino-laryngologie *EN:* Otorhinolaryngology *Arloa:* Med.
- Otorrinolaringologo:** iz. Belarriko, sudurreko eta eztarriko gaixotasun eta lesioen diagnostikoan eta tratamenduan aditua den sendagilea. *ES:* Otorrinolaringólogo *FR:* Oto-rhino-laryngologiste *EN:* Otorhinolaryngologist *Arloa:* Med.
- Otoskopia:** iz. Kanpo-belarria, belarri-mintza edota erdiko belarria aztertzeko egokia den tresna. Argi batez eta leiari handitzailez osatua dago. *ES:* Otoscopio *FR:* Oscope *EN:* Oscope *Arloa:* Med.
- Oxhidrilo:** iz. Hidroxiloa; —OH talde monovalentea da. *ES:* Oxhidrilo *Arloa:* Kim.
- Oxiazetileniko:** izond. Oxigenoaren eta azetilenoren arteko nahasteari dagokiona. *ES:* Oxiacetilénico *FR:* Oxyacétylénique *EN:* Oxyacetylene *Arloa:* Kim.
- Oxidakor:** izond. Oxida daitekeena, herdoil daitekeena. *ES:* Oxidable *FR:* Oxydable *EN:* Oxidable *Arloa:* Kim.
- Oxidatu:** 1. ad. Elementu bat oxigenoarekin konbinatu, hidrogenoa kanporatuz edo elementu baten balentzia —elektroiak galtzean— handituz. 2. ad. Gai baten oxidazioa eragin. *ES:* Oxidar *FR:* Oxyder *EN:* To oxidize *Arloa:* Kim.
- Oxidatzaile:** izond. Beste gai baten elektroiak hartuz, hura oxidatzeko gaitasuna duena. *ES:* Oxidante *FR:* Oxydant *EN:* Oxidant *Arloa:* Kim.
- Oxidazio:** iz. Elementu edo gai bat oxigenoarekin konbinatzea; konposatu baten oxigeno-edia areagotzea. Kimikan, elementu edo gai bati elektroi galera eragitea. *ES:* Oxidación *FR:* Oxydation *EN:* Oxidation *Oharrak:* Erredukzioaren kontrako fenomeno da. *Arloa:* Kim.
- Oxidazioaren kontrako:** izlag. Ikus 'antioxidante'.
- Oxido:** iz. Oxigenoa elementu batekin nahiz erradikal batekin elkartzean sortzen den konposatua. *ES:* Óxido *FR:* Oxyde *EN:* Oxide *Arloa:* Kim.
- Oxigenatu:** 1. ad. Gai bat oxigenoarekin konbinatu, oxido bat eratzeko. 2. ad. Odolari dago-kionez, hemoglobina oxigeno atomoa finkatu. 3. ad. Aireztatu, aire freskoa arnastu. *ES:* Oxigenar *FR:* Oxygéner *EN:* To oxygenate *Arloa:* Med., Kim.
- Oxigenatu:** izond. Oxigenoa duena; oxigenoarekin konbinatua edo nahastua dagoena. *ES:* Oxigenado *FR:* Oxygéné *EN:* Oxygenated *Arloa:* Med., Kim.
- Oxigenazio:** iz. Gorputz edo nahaste bat oxigenoarekin konbinatzeko prozesua. *ES:* Oxigenación *FR:* Oxygénation *EN:* Oxygenation *Arloa:* Kim.
- Oxigeno:** iz. O. Elementu kimiko gaseosoa, kolore, usain eta zaporerik gabea; ezinbestekoa da giza arnasketarako. Oinarrizko gaia da suarentzat eta arnasketarako, baina hilgarria da egoera puruan edo kontzentrazio altuegian. Anestesian, arnastu terapiari, eta abarretan erabiltzen da. *ES:* Oxígeno *FR:* Oxygène *EN:* Oxygen *Oharrak:* Biriketako anormaltasunak dituzten pertsonetan, betiko intoxikazioa eragin dezake oxigeno-gaindosiak. *Arloa:* Kim.
- Oxigeno-baloi:** iz. Oxigenoz beteriko poltsa; batez ere inalazioetarako erabiltzen da. *ES:* Balón de oxígeno *FR:* Ballon *EN:* Balloon

# P

.....

**Pairamen:** iz. Ikus 'sufrimendu'.

**Pairatu:** ad. Ikus 'sufritu'.

**Palatino:** izond. Ikus 'ahosabaiko'.

**Palio:** iz. Ikus 'garun-kortex'. *ES:* Palio

**Pallium:** iz. Ikus 'garun-kortex'. *ES:* Pallium *FR:* Pallium *EN:* Pallium *Arloa:* Biol.

**Palpitazio:** iz. Pertsonak zuzenean atzematen duen bihotz-taupada azkarra; emozio-erreakzioei nahiz zenbait bihotz-asalduri egozten zaie. *ES:* Palpitación *FR:* Palpitation *EN:* Palpitation *Arloa:* Med.

**Paludiko:** 1. izond. Paludismoari dagokiona. 2. izond. Paludismoak eragindako edozein asalduri eta hura jasaten duen pertsonari dagokiona. *ES:* Palúdico *FR:* Paludique *EN:* Malarial *Arloa:* Med.

**Paludismo:** iz. *Plasmodium* generoko espezieek eragindako gaixotasun infekzioso akutu endemikoa; *Anopheles* generoko eltxoek transmititzen dute. Paludismoaren ezaugarri dira: hotzikarak, aldizkako sukarra, anemia, esplenomegalia eta odolean zenbait plasmodio-espezie izatea. Malariai jotako eriak sendatzeko, hematooarioen ugalketa galarazten duten botikak erabiltzen dira. Hainbat izen hartzen ditu, agente eragilearen nahiz kaltetutako organoaren arabera. Gehienbat tropikoko eta tropiko inguruko lurraldeetako eritasuna da, eta ur geldiak lehortzen uztea eta larbak intsektu-hiltzailez hiltzea da hura desagerrarazteko modua. *ES:* Paludismo *FR:* Paludisme *EN:* Paludism *Oharrak:* Odol-isuraldatzeetan ere kutsa daiteke, emailearen odola kutsaturik egonez gero. *Arloa:* Med.

**Pandemia:** iz. Intentsitate handiko epidemia larria, lurralde askotara zabaldua edo eskualde bateko ia biztanle guztiei erasaten diena. *ES:* Pandemia *FR:* Pandémie *EN:* Pandemia *Arloa:* Med.

**Pandemiko:** izond. Pandemiari dagokiona; lurralde bateko, herri bateko nahiz munduko biztanle guztiei erasaten dien gaixotasuna. *ES:* Pandémico *FR:* Pandémique *EN:* Pandemic *Arloa:* Med.

**Pankrea:** iz. Hosto-formako guruina, urdailaren atzean dagoena; funtzio exokrino eta endokrinoak ditu. Digestio-entzimak, intsulina eta glukagoia jariatzen ditu. *ES:* Páncreas *FR:* Pancréas *EN:* Pancreas *Oharrak:* Intsulina gutxiegi denean, diabetesa agertzen da. *Arloa:* Anat.

**Pankreako:** izlag. Ikus 'pankreatiko'.

**Pankreako urin:** iz. Pankrearen jariatzen diren likidoa, likatsua, gardena eta alkalinoa; elikagaiek duodeanoan eragindako kitzikaduraren ondorioz sortzen da. Haren osagaiak dira: gai albuminoideak, hartzigarriak, leuzina, xaboiak, gantzak eta gatzak. Ezinbestekoa da proteinak aminoazido bihurtzeko, irentsitako gantzak glizerol eta gantz-azido bihurtzeko, eta almidoia azukre sinple bihurtzeko. *ES:* Jugo pancreático *FR:* Suc pancréatique *EN:* Pancreatic juice

**Pankreatiko:** izond. Pankreari dagokiona, edo pankrean dagoena. *ES:* Pancreático *FR:* Pancréatique *EN:* Pancreatic *Arloa:* Anat.

**Papila:** iz. Irtengune koniko txikia; larruzalekoa eta mukosetako bereziki. *ES:* Papila *FR:* Papille *EN:* Papilla *Arloa:* Biol.

**Papiloma:** iz. Larruzaleko nahiz mukosetako neoplasia epitelial onbera; hipertrofiatutako papila eran garatzen da. *ES:* Papiloma *FR:* Papillome *EN:* Papilloma *Oharrak:* Garatxoak dira papilomarik arruntak. *Arloa:* Med.

**Papula:** iz. Lesio solido eta txikia, larruzaleko irtengune erakoa. *ES:* Pápula *FR:* Papule *EN:* Papule *Arloa:* Med.

**Parabiosi:** iz. Leku berean bizi diren espezie bereko bi animalia talderen arteko harremana, ez baterentzat ez bestearentzat kaltegarria ez dena. *ES:* Parabiosis *FR:* Parabiose *EN:* Parabiosis *Arloa:* Biol.

**Parafina:** iz. Pisu handiko molekulak dituzten hidrokarburoen nahastea, solidoa nahiz likidoa. Histologian erabiltzen da, inklusio-materia gisa eta sendagaiak barneratzeko. *ES:* Parafina *FR:* Paraffine *EN:* Paraffin *Adibideak:* Metano gasa, kerosenoa eta parafina-argizaria. *Arloa:* Kim.

**Paralisi:** iz. Gorputzeko atal baten edo gehiagoren sentikortasuna edo mugimendua gutxitzea nahiz galtzea ezaugarri duen asaldua. Traumatismoak, tumorak, intoxikazioak, nerbio-sistemako gaixotasunak, garuneko zirkulazio-arazoak eta gaixotasun kutsagarriak izaten dira haren eragile garrantzitsuenak. *ES:* Parálisis *FR:* Paralyse *EN:* Paralysis *Oharrak:* Gorputz-adar bakar bati (monoplegia), beheko gorputz-adarrei (paraplegia), lau gorputz-adarrei (tetraplegia) nahiz gorputzaren alderdi bati (hemiplegia) eragin diezaieke paralisia.

- Paralitiko:** izond. Paralisisari dagokiona, edo paralisia duena. *ES:* Parálítico *FR:* Paralytique *EN:* Paralytic
- Paralizatu:** ad. Paralisis-egoera bat eragin, edo paralisis-egoera batean sartu. *ES:* Paralizar *FR:* Paralyser *EN:* To paralyze *Arloa:* Med.
- Paralizatze:** iz. Mugikortasuna duen zerbait gelditzea. *ES:* Paralización *FR:* Paralyse *EN:* Paralysis *Arloa:* Med.
- Paramnesia:** iz. Oroimenaren asaldu kualitatiboa; benetakoak ez diren gertaerak gogoratzea du ezaugarri. *ES:* Paramnesia *FR:* Paramnésie *EN:* Paramnesia *Arloa:* Psikiat.
- Paranoia:** iz. Asaldu psikotikoa; etengabeko oldarkortasuna eragiten du. Pentsamendu landua eta mesfidatia ditu ezaugarri; eseste- eta handitasun-eldarnioak agertzen dira. Eldarnioa, oro har, gai baten ingurukoa izaten da. *ES:* Paranoia *FR:* Paranoïa *EN:* Paranoia *Arloa:* Psikiat.
- Paranoide:** 1. izond. Paranoiarekin erlazioan dagoena, edo haren antzeko ezaugarriak dituena. 2. iz. Nortasun-asaldua. *ES:* Paranoïde *FR:* Paranoïde *EN:* Paranoid *Arloa:* Psikiat.
- Paranoiko:** 1. izond. Paranoiari dagokiona. 2. izond. Paranoia duena. *ES:* Paranoico *FR:* Paranoïaque *EN:* Paranoïac *Arloa:* Psikiat.
- Paraplegia-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'paraplegiko'.
- Paraplegia:** iz. Beheko gorputz-adarren paralisia (sentikortasun- edo mugimendu-galera) ezaugarri duen asaldua, oro har orno-muineko lesioaren batek eragina. Lesio horien eragile izaten dira, besteak beste: istripuak, erorikoak, su-armek eragindako zauriak, eskoliosia, bizkarrezur bifidoa eta alkoholismoa. *ES:* Paraplejía *FR:* Paraplégie *EN:* Paraplegia *Arloa:* Med.
- Paraplegiadun:** izond. Ikus 'paraplegiko'.
- Paraplegiko:** izond. Paraplegiari dagokiona, edo paraplegia duena. *ES:* Parapléjico *FR:* Paraplégique *EN:* Paraplegic
- Parapsikologia:** iz. Psikologiaren adarra; egungo zientziak azaltzen ez dituen eta oinarri jakinik ez duten prozesu fisiko-psikikoak (iragarmena, psikokinesia, telepatia, eta abar) aztertzen ditu. *ES:* Parapsicología *FR:* Parapsychologie *EN:* Parapsychology
- Parapsikologiko:** izond. Parapsikologiari dagokiona. *ES:* Parapsicológico *FR:* Parapsychologique *EN:* Parapsychological
- Parapsikologo:** iz. Parapsikologiaren ikerketan diharduena; ohiko pentsamendu zientifikoak azaltzen ez dituen fenomeno psikologikoak aztertzen ditu. *ES:* Parapsicólogo *EN:* Psychic, parapsychologist
- Parasimpatiko:** iz. Nerbio-sistema begetatiboaren zati bat. Erraiak eta odol-hodiak inerbatzen ditu. Nerbio-sistema sinpatikoaren alderantzizko eragina du organismoan: digestioa bizkortzen du, bihotz-taupadak moteltzen ditu, odol-hodiak zabaltzen ditu, eta abar. *ES:* Parasimpático *FR:* Parasympathique *EN:* Parasympathetic *Arloa:* Anat.
- Parasito-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'bizkarroi-'.  
**Parasito:** iz. Ikus 'bizkarroi'.
- Parasitoak hil:** ad. Parasitoak deuseztatu. *ES:* Desparasitar
- Parasitoen kontrako:** izlag. Ikus 'antiparasitario'.
- Parasitologia:** iz. Bizkarroiak aztertzen dituen zientzia alorra. *ES:* Parasitología *FR:* Parasitologie *EN:* Parasitology *Arloa:* Biol.
- Parasitosis:** iz. Bizkarroiek eragindako gaixotasuna edo gaizkoadura. *ES:* Parasitosis *FR:* Parasitose *EN:* Parasitosis *Arloa:* Med.
- Paratifoide:** iz. Gaixotasun kutsagarria; *Salmonella paratyphi* baziloak eragiten du. Sukar paratifoide izenez ere ezagutzen da. *ES:* Paratifoïde/a *FR:* Paratyphoïde *EN:* Paratyphoid *Arloa:* Med.
- Paratipo:** iz. Tipo berekoa izan gabe, egilearen berrezko deskribapenarekin bat datorren aleatariko edozein. *ES:* Paratipo *FR:* Paratype *EN:* Paratype *Arloa:* Biol.
- Parentkima:** 1. iz. Landareen oinarritzko ehuna; hainbat funtzio betetzen ditu: gaiak metatzea, ehunak berregitea, eta abar. 2. iz. Organo baten oinarritzko elementu berezgarri edo funtzionala. Batez ere guruinei dagokie. *ES:* Parénquima *FR:* Parenchyme *EN:* Parenchyma *Arloa:* Biol., Anat.
- Paresia:** iz. Paralisis arina, erabatekoa ez dena. *ES:* Paresia, paresis *FR:* Parésie *EN:* Paresis *Arloa:* Med.
- Parestesia:** iz. Sentikortasun subjektiboaren bat-bateko asaldua; esate baterako, inurritzea. Nerbio-sistema zentralerako nahiz periferikoko edozein eritasunek eragin dezake parestesia. *ES:* Parestesia *FR:* Paresthésie *EN:* Paresthesia *Arloa:* Med.
- Pareta:** iz. Barrunbe edo organo bat ixten edo mugatzen duen atala. *ES:* Pared *FR:* Paroi *EN:* Wall *Arloa:* Anat.
- Parietal:** 1. iz. Garezurreko hezur bikoitia, frontalaren eta okzipitalaren artekoa. Gizakiaren garezurreko gainaldearen eta alboen zati handi bat hartzen du. 2. izond. Organo edo barrunbe baten kanpoko paretari dagokiona. 3. iz. Urdaileko mukosako zelula, azido klorhidrikoa jariatzen duena. *ES:* Parietal *FR:* Pariétal *EN:* Parietal *Arloa:* Anat.
- Parodonto:** iz. Egitura anatomiko eta funtzionala; ertz albeolarrek, perizementuak eta hortz-oiek osatzen dute. *ES:* Parodoncio *FR:* Parodonte *EN:* Periodontium *Arloa:* Anat.
- Parodontosi:** iz. Hortzen inguruko ehunetako asaldua; ez du hanturarik eragiten. Paradontoa dese-

- gitea dakar. *ES*: Parodontosis *FR*: Parodontose *EN*: Parodontosis *Arloa*: Med.
- Parotida**: iz. Listu-guruinetan handiena. Kanpoko entzunbidearen azpialdean eta barailaren goranzko adarraren artean dago, alde bietan. Haren jariakinak ahora isurtzen dira, Stenon-en hodiaren bidez. *ES*: Parótida *FR*: Parotide *EN*: Parotid *Arloa*: Anat.
- Parotiditis**: iz. Parotida-guruinaren hantura; gaixotasun akutu kutsagarria da, paramixobirus batek eragina. Paramixobirusak gaixoaren listuan egoten dira, eta tanta bidez edo kontaktu zuzenez transmititzen dira. Edozein adinetan ager daitekeen arren, batez ere 5-15 urte bitartean eragiten du. Anorexia, buruko mina, ondoez orokorra eta febríkula dira haren sintoma nagusiak, eta horien ondoren agertzen dira belarriko mina, parotida-guruinaren hantura eta 38,3-40 °C arteko sukarra. *ES*: Parotiditis *FR*: Parotidite *EN*: Parotitis *Oharrak*: Barrabilak kaltetuz gero, antzutasuna eragin dezake. *Arloa*: Med.
- Paroxismo**: iz. Gaixotasun batean, sintomen intentsitatearik altuena. *ES*: Paroxismo *FR*: Paroxysme *EN*: Paroxysm *Arloa*: Med.
- Partenogenesi**: iz. Sexu gabeko ugalketa mota; organismo berria ernaldutako gabea obulu bategatik gertatzen da. *ES*: Partenogénesis *FR*: Parthénogénèse *EN*: Parthenogenesis *Arloa*: Biol.
- Pasmo**: iz. Ikus 'gangrena'.
- Pasmotu**: ad. Ikus 'gangrenatu'.
- Patogenia**: iz. 1. Organismo patogeno baten garapen-prozesu osoa, hura beste organismo batean sartzen denetik kanporatu artekoa. 2. iz. Organismo patogenoak eragiten duen kalte oro. *ES*: Patogenia *FR*: Pathogénie, pathogénèse *EN*: Pathogeny, pathogenesis *Arloa*: Med.
- Patogeno**: izond. (Mikroorganismo berruz) Gaixotasun bat eragiteko gai dena. *ES*: Patógeno *FR*: Pathogène *EN*: Pathogen *Arloa*: Med.
- Patologia**: iz. Medikuntzaren adarra; organismoan gertatzen diren gaixotasunak eta asaldak aztertzen ditu. *ES*: Patología *FR*: Pathologie *EN*: Pathology *Arloa*: Med.
- Patologiko**: izond. Gaixotasun batek eragindako asaldu bati dagokiona. *ES*: Patológico *FR*: Pathologique *EN*: Pathologic *Arloa*: Med.
- Pausaldi**: iz. Ikus 'atseten'.
- Paziente**: 1. iz. Gaixotasunen bat duen pertsona. 2. iz. Osasun-laguntzako zerbitzu baten hartzailea. *ES*: Paciente *FR*: Patient *EN*: Patient
- Pedagogia**-(Hitz elkartuetan) Ikus 'pedagogiko'.
- Pedagogia**: iz. Haurrak hezteko artea eta zientzia. Pertsona du helburu, osotasunean: gorputza, sentimenduak, jakintza, portaera, sormena, eta abar. *ES*: Pedagogía *FR*: Pédagogie *EN*: Pedagogy *Oharrak*: Osasun-pedagogia da, esate baterako, osasuna zaintzeko eta gaixotasunen prebentziorako heziketa.
- Pedagogiaren**: izlag. Ikus 'pedagogiko'.
- Pedagogiko**: izond. Pedagogiari dagokiona. *ES*: Pedagógico *FR*: Pédagogique *EN*: Pedagogic, pedagogical
- Pedagogo**: iz. Pedagogian aditua. *ES*: Pedagogo *FR*: Pédagogue *EN*: Educator
- Pediatra**: iz. Pediatrian aditua den medikua. *ES*: Pediatra *FR*: Pédiatre *EN*: Pediatrician *Arloa*: Med.
- Pediatria**-(Hitz elkartuetan) Ikus 'pediatriko'.
- Pediatria**: iz. Medikuntzaren adarra; haurren garapenaz eta zaintzaz arduratzen da. Haurri erasaten dioten gaixotasunetan eta gaixotasun horien tratamenduan eta prebentzioan espezializaturik dago. *ES*: Pediatría *FR*: Pédiatrie *EN*: Pediatrics *Arloa*: Med.
- Pediatriko**: izond. Pediatriari dagokiona; haurrei erasaten dieten gaixotasunen azterketari eta tratamenduari, osasun-laguntza prebentiboari eta lehen mailako osasun-laguntzari dagokio. *ES*: Pediátrico *FR*: Pédiatrique *EN*: Pediatric
- Pedikulu**: iz. Tumor, azal zintzilikari edo organo baten ehunezko hodi estua; euskarri-funtzioa du. *ES*: Pédiculo *FR*: Pédicule *EN*: Pedicle
- Pedikuro**: iz. Oinetako larruazaleko asalduen tratamenduan diharduen espezialista. *ES*: Pedicuro *FR*: Pédicure *EN*: Pedicure *Arloa*: Med.
- Pedofilia**: iz. Asaldu psikosexuala. *ES*: Pedofilia *FR*: Pédophilie *EN*: Pedophilia *Oharrak*: Haurrekin sexu-harremanak izatea du pedofiloak plazera lortzeko biderik gogokoena edo bide bakarra. *Arloa*: Psikiat.
- Pedunkulatu**: izond. Pedunkulua duena; pedunkulu baten gainean hazten dena, edo pedunkulu baten bidez lotua dagoena. *ES*: Pediculado, pedunculado *FR*: Pédiculé *Arloa*: Biol.
- Pedunkulu**: iz. Zurtoin-itxurako atala; egituraren bati lotzen zaio. *ES*: Pedúnculo *Arloa*: Biol.
- Pektinatu**: izond. Orrazi baten itxura duena. Bihotzeko aurikula-hormetako gihar-zutabeei dagokie. *ES*: Pectinado, pectiniforme *FR*: Pectiné *EN*: Pectinate *Arloa*: Biol.
- Pelagra**: iz. Elikaduran azido nikotiniko (PP bitamina) gutxiegi hartzearen ondoriozko gaixotasuna. Ahulezia eta larruazal-, nerbio- eta digestio-asalduak ditu ezaugarri. *ES*: Pelagra *FR*: Pellagre *EN*: Pellagra *Arloa*: Med.
- Pelbiano**: izond. Pelbisekoa, edo pelbisari dagokiona. *ES*: Pelviano *EN*: Pelvic *Arloa*: Anat.
- Pelbis**: iz. Gorputz-enborrari eusten dion hezur multzoa; beheko gorputz-adarren goiko aldean dago. Lau hezurrek osatzen dute: uzorkoak, errain-hezurak eta bi hezur koxalek. *ES*: Pelvis *FR*: Bassin *EN*: Pelvis *Arloa*: Anat.

- Penfigo:** iz. Larruazaleko eta mukosetako gaixotasun akutua, bolumen aldakorra eta horma mehea duten serosa-puslen agerpena ezaugarri duena. Pusla horiek erraz hausten dira, gunea haragi bizitan uzten dute, eta, gerora, pigmentudun or-bainak gelditzen dira. Gaixoak pisua galtzen du, ahuldu egiten da, eta gaizkoadura handiak jasaten ditu. *ES:* Pénfigo *FR:* Pemphigus *EN:* Pemphigus *Arloa:* Med.
- Penizilina:** iz. *Penicillium* onddoaren espezieetako hazkuntzetatik ateratako antibiotiko taldea. Bakterioek eragindako gaixotasun kutsagarriak tratatzeko erabiltzen da. Alergia-erreakzio indartsuak eragin ditzake. *ES:* Penicilina *FR:* Pénicilline *EN:* Penicillin *Oharrak:* Antibiotikorik ezagunena eta erabiliena da. *Arloa:* Med.
- Pentamero:** izond. Bost zati dituen. *ES:* Pentámero *FR:* Pentamère *EN:* Pentameros *Arloa:* Biol.
- Pepsina:** iz. Urdailean jariatzen den entzima; proteinen hidrolisia katalizatzen du. *ES:* Pepsina *FR:* Pepsine *EN:* Pepsin
- Peptidiko:** izond. Peptidoei dagokiena. Lotura peptidikoak: aminoazido baten karboxilo taldea beste aminoazido baten amino taldearekin kondentsatuz eratzen den lotura. *ES:* Peptídico *FR:* Peptidique *EN:* Peptidic
- Peptido:** iz. Lotura peptidiko bidez elkarturiko bi aminoazidok edo gehiagok eratutako kate molekularra. *ES:* Péptido *FR:* Peptide *EN:* Peptide
- Perbertitu:** izond. Perbertsioren bat duena. *ES:* Pervertido *FR:* Invertir *EN:* Pervert
- Perbertsio:** iz. Normaltzat edo naturaltzat jotzen denetik desbideratzen den portaera oro. *ES:* Perversión *FR:* Perversion *EN:* Perversion *Arloa:* Psikol.
- Perfusio:** 1. iz. Neurri terapeutikoa; organismoko gune bakartu batera bideratuta dagoen isurkari bat sartzen da odol-zirkulazioan zehar, bolemiari eta isurkariaren eta elektrolitoen orekari eusteko, eta orobat sendagaiak eta elikagaiak sartzeko. 2. iz. Gorputz atal baten zirkulazio-egoera. *ES:* Perfusión *FR:* Perfusion *EN:* Perfusion *Arloa:* Med.
- Perikardiko:** izond. Perikardioari dagokiona. *ES:* Pericárdico *FR:* Péricardique *EN:* Pericardiac *Arloa:* Anat.
- Perikardio:** iz. Bihotza eta odol-hodi handien erroak inguratzen dituen zaku seroso haritsua. Pareta-perikardioak eta errai-perikardioak osatzen dute. Bi geruza horien artean dago likido perikardikoa; hark perikardio-barrunbea lubrikatzen du, eta bihotz-uzkurdurak errazten ditu. *ES:* Pericardio *FR:* Péricarde *EN:* Pericardium *Arloa:* Anat.
- Perikarditis:** iz. Perikardioaren hantura; hainbat eragile izan ditzake: traumatismoak, neoplasia-
- gaixotasun gaiztoak, gaizkoadurak, uremia, miokardioko infartua, kolagenoaren eritasunak, kausa idiopatikoa duten eritasunak, eta abar. Bialdi bereizten dira: lehenengoan, sukarra, lepora eta sorbaldara hedatzen den min torazikoa, disnea eta ez-tul lehor eta ez-emankorra agertzen dira, eta gaixoari antsietatea, nekea eta ortopnea mailakatu nabaritzen zaizkio; bigarrenaldian, berriz, isuri serum-zunztua jariatzen da perikardioan, bihotzaren jarduera mugatzen da, eta hots kardioak ahulagoak eta urrunagoak dira. *ES:* Pericarditis *FR:* Péricardite *EN:* Pericarditis *Arloa:* Med.
- Perimetro:** 1. iz. Ikuseremua neurtzeko tresna; puntu baten inguruan biratzen den zirkuluerdi batez osatuta dago. 2. iz. Hortzen zirkunferentzia neurtzeko tresna. *ES:* Perímetro *FR:* Périmètre *EN:* Perimeter *Arloa:* Med.
- Perinatal:** izond. Haurdunaldiaren 28. astetik haurra jaio ondorengo 7. eguna arteko aldiari dagokiona; erditze-uneari eta -prozesuari —eta jaiozari, oro har— dagokiona. *ES:* Perinatal *FR:* Périnatal *EN:* Perinatal *Arloa:* Med.
- Perineo:** iz. Uzkiaren eta kanpoko sexu-organoen arteko zati anatomikoa, erronbo-formakoa. *ES:* Periné *FR:* Périnée *EN:* Perineum *Arloa:* Anat.
- Periodiko:** 1. izond. Denbora-tarte berdinetan eta erregularitasunez gertatzen dena. 2. izond. (Osagai fisiko edo kimiko bati buruz) Sistema periodikoan duen kokaguneagatik, hainbat elementutan errepikatzen dena. *ES:* Periódico *FR:* Périodique *EN:* Periodic
- Periodo:** 1. iz. Taula periodikoan, elkarren segidako bi gas geldoren arteko elementuen multzoa. 2. iz. Aldizkako sukarretan, bi krisiren arteko denbora. *ES:* Período *FR:* Période *EN:* Period, stadium *Arloa:* Kim., Med.
- Periostio:** iz. Hezurra biltzen duen zuntzeko mintz zuria; hezurra guztiz inguratzen du, kartilagoak eta zurdak txertatzen diren guneetan izan ezik. Odol-hodiak hezur-ehunera helarazten ditu. *ES:* Periostio *FR:* Périoste *EN:* Periosteum *Arloa:* Anat.
- Peripneumonia:** iz. Pneumonia kortikala edo pleuropneumonia. *ES:* Perineumonía *Arloa:* Med.
- Peristaltiko:** izond. Peristaltismoari dagokiona. *ES:* Peristáltico *FR:* Péristaltique *EN:* Peristaltic *Arloa:* Biol.
- Peristaltismo:** iz. Gihar lisoaren uzkurdura koordinatu eritmikoa; elikagaiak digestio-hodian zehar mugiarazten ditu, behazuna behazun-hodian zehar, eta gernua, berriz, ureterretan barrena. *ES:* Peristaltismo, perístalsis *FR:* Péristaltisme *EN:* Peristalsis *Arloa:* Biol.
- Peritoneo:** iz. Mintz serosoa; sabelalde-barrunbea estaltzen du, eta erraiak biltzen ditu. Bi zatitan



- banatzen da: horma-peritoneoa eta errai-peritoneoa. Mesotelio leuna da peritoneoaren azal askea, eta likido seroso batek hezeten du, erraiak sabelalde-hormaren kontra eta beren artean erraz mugitu daitezten. Peritoneoa osatzen duten atalak dira: zeharkako mesokolona, epiploi handia eta epiploi txikia. *ES: Peritoneo FR: Péritoine EN: Peritoneum*
- Peritonitis:** iz. Peritoneoaren hantura. Akutua edo kronikoa izan daiteke, bakterioek eragina edo aseptikoa. Peritonitisean agertzen diren ohiko seinaleak eta sintomak dira: sabelaldearen disentsioa, zurruntasuna eta mina, hesteetako hostsik eza, goitikak, takikardia, sukarra, arnasketa azkarra eta azalekoa, antsietatea, deshidratazioa, iraitzeko ezintasuna, eta abar. Peritonitisa gertatzean, ohikoak dira leukozitosia, elektrolito-desorekak eta hipobolemia. *ES: Peritonitis FR: Péritonite EN: Peritonitis Arloa: Med.*
- Perizikliko:** izond. Atomo ziklo batean gertatzen den elektroik bikoteen transferentzia. *ES: Pericliclo*
- Perletxe:** iz. Ezpain-ertzetako urradura ezaugarri duen asaldua. Hainbat eragile izan ditzake: erriboflaminaren edo B2 bitaminaren gabezia, *Candida albicans* onddoa, eta abar. Ezpain-ertzak lotitu egiten dira, eta, ondoren, ezkatatu. Zenbait kasutan, gaizko adurak eta larruazaleko eta mukosetako pitzadurak ere ager daitezke. *ES: Perleche, boquera FR: Perlèche EN: Perlèche Arloa: Med.*
- Perone-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'peroneo'.
- Perone hezur:** iz. Zangoko hezurra, luzea eta mehea; tibiarren kanpoaldean dago, eta hura baino txikiagoa da. *ES: Peroné FR: Péroné EN: Fibula Arloa: Anat.*
- Perone-gihar:** iz. Zangoaren alboaldean dauden giharretako bakoitza. *ES: Músculo peroneo FR: Muscle péronier EN: Peroneal muscle Arloa: Anat.*
- Peroneko gihar:** iz. Ikus 'perone-gihar'.
- Peroneo:** 1. izond. Peroneari dagokiona. 2. iz. Perone hezurretik metatartsoa osatzen duten hezurretara doazen hiru giharretako bakoitza. 3. iz. Zangoko arterietako bat; orkatilaren kanpo-atzealdera eta zangarrera hedatzen da. *ES: Peroneo FR: Péronier EN: Fibular Arloa: Anat.*
- Peroxido:** iz. Molekulan —O—O— taldea duen edozein gai. Oxigenoa erraz askatzen dutenez, oxidatzaile onak dira. Organikoak edo inorganikoak izan daitezke. Inorganikoen artean, hidrogeno peroxidoa da ezagunena; antiséptiko gisa erabiltzen da terapeutikan, zauri irekiak garbitzeko; orobat, kolutorio gisa eta kanpo-belarritik ezkoa ateratzen laguntzeko. *ES: Peróxido FR: Peroxyde EN: Peroxyde*
- Pertsekuzio-delirio:** iz. Sineste patologikoa; gaixoak uste du identifikatu gabeko etsaiek jarraitzen diotela eta tratu txarrak jasango dituela haiengandik. Paranoian eta eskizofrenia paranoidean gertatzen da. *ES: Delirio de persecución FR: Délire de persécution EN: Delusion of persecution*
- Pertsekuzio-mania:** iz. Pertsona baten edo gehiagoren gaiztakeriak jasateko kezka ezaugarri duen asaldua. *ES: Manía persecutoria*
- Pertsona:** iz. Giza espezieko banakoa; gizon-emakumeak biltzen ditu. Eskubideak eta betebeharrak izateko gaitasun juridikoa du. *ES: Persona FR: Personne EN: Person*
- Pertsona-bilagailu:** iz. Mezuak urrutitik jasotzeko erabiltzen den tresna txikia. *ES: Busca (-personas) Oharrak: Ospitaletako medikuek sarri erabiltzen dute.*
- Petekia:** iz. Larruazalean agertzen den orbain txiki gorrixka; dermisesko edo azpimukosako odoljario txiki baten ondoriozkoa da, eta ez da kentzen hatzaz egindako presioarekin. *ES: Petequia FR: Pétéchies EN: Petechiae Arloa: Med.*
- Petrikilo:** iz. Medikuntza enpirikotan diharduena, medikua izan gabe. Herri xehearengandik jasotako ezagutzetan oinarritzen da, gehienetan. *ES: Matasanos, curandero FR: Guérisseur EN: Curandero*
- Petrokimika:** iz. Kimika industrialaren adarra; petroliotik zein gas naturaletik eratorritako produktu organikoak lortzeko prozesuez arduratzen da. *ES: Petroquímica FR: Pétrochimie EN: Petrochemistry*
- pH-aren adierazle:** iz. Disoluzio baten azidotasuna eta basikotasuna adierazten duen gai kimikoa; pH-aren adierazle kantitate txikitik erabiltzen da, eta kolorearen arabera adierazten du azidoaren eta basearen kontzentrazioa. Ondorioz, erreakzio kimiko baten azidotasunaren bilakaera ikus daiteke, besteak beste. *ES: Indicador de pH FR: Indicateur de pH EN: PH indicator Arloa: Kim.*
- Piamater:** iz. Entzefaloa eta bizkarrezur-muina biltzen dituzten hiru meningeatatik barnekoena. *ES: Piamadre FR: Pie-mère EN: Pia mater Arloa: Anat.*
- Pikatzte:** iz. Ikus 'anputazio'.
- Pikor:** 1. iz. Partikula txikia. 2. iz. Zelula barneko partikula, koloratzaile jakinekin bakarrik tindatzen dena. *ES: Gránulo FR: Granule EN: Granule*
- Pikortatze:** 1. iz. Masa edo gorputz bat neurritz txikitu eta partikula txiki edo granulu bihurtzea. 2. iz. Zauri edo ultzera batean, masa txiki haragitsu biribilezko ehun baten sorrera. *ES: Granulación FR: Granulation EN: Granulation*
- Pikortatze-ehun:** iz. Ehun konjuntibo gaztea; ultzera edo zauri baten orbantze-prozesuan eratzen



- da. Kapilar ugari ditu, kolageno-zuntzez inguratuak. *ES:* Tejido de granulación *FR:* Tissu de granulation *EN:* Granulation tissue
- Pilaketa:** iz. Ikus 'metaketa'.
- Pilpirakari:** izond. Ikus 'taupakari'.
- Pilula:** iz. Masa txikiko sendagaia. Ahotik hartzeko prestatua dago. *ES:* Pastilla *FR:* Pastille *EN:* Pastille
- Pintz:** iz. Ikus 'baba'.
- Piorrea:** iz. Zorne-jarioa edo -isuria. *ES:* Piorrea *FR:* Pyorrhée *EN:* Pyorrhrea *Arloa:* Med.
- Piorrea alveolar:** iz. Hortzak inguratzen dituzten ehunen hantura zornetsua; nekrosirako eta hortzak galtzeko joera dakar. *ES:* Piorrea alveolar *FR:* Pyorrhée alvéolo-dentaire *EN:* Pyorrhrea alveolaris
- Pipeta:** iz. Laborategiko tresna; bolumen jakinak toki batetik bestera eramateko eta likido edo gas kantitate txikiak neurtzeko erabiltzen da. *ES:* Pipeta *FR:* Pipette *EN:* Pipette *Arloa:* Kim.
- Piretiko:** izond. Sukarrari dagokiona, edo hartatik eratorria. *ES:* Pirético *FR:* Pyrétique *EN:* Pyretic *Arloa:* Med.
- Piretologia:** iz. Sukarrari buruzko ezagutza multzoa. *ES:* Piretología *FR:* Pyrétologie *Arloa:* Med.
- Pirexia:** iz. Ikus 'sukar'. *ES:* Pirexia *FR:* Pyrexie *EN:* Pyrexia *Arloa:* Med.
- Piridina:** iz. Konposatu heterozikliko aromatiko organikoa. Likido kolore eta basikoa da, oso toxikoa. Bitaminak eta drogak sintetizatzeke, disolbatzaile gisa, antiseptiko gisa, espasmoen kontra eta bihotz-kitzikatzaile gisa erabiltzen da. *ES:* Piridina *FR:* Pyridine *EN:* Pyridine *Oharrak:* Nagusiki asmaren tratamenduan erabiltzen da. *Arloa:* Kim.
- Pirimidiko:** izond. Pirimidinari dagokiona. *ES:* Pirimidico *Arloa:* Biokim.
- Pirimidina:** iz. Konposatu nitrogenatu, aromatiko, heterozikliko organikoa. Eratzun hexagonal bat du bere egituran. Pirimidinaren eratorriak dira tiamina, zitosina eta uraziloa (azido nukleikoen oinarrizko osagaiak). Sintesi bidez lorturiko eratorri pirimidiniko askok garrantzia dute gai farmakologiko eta kimioterapiko gisa. *ES:* Pirimidina *FR:* Pyrimidine *EN:* Pyrimidine *Oharrak:* Pirimidinatik eratorritako sendagaiak dira Aciclovir, Ribavirina eta Trifluridina, besteak beste. *Arloa:* Biokim.
- Pirogeno:** izond. Gorputzeko tenperatura igoarazten duena. Esate baterako, zenbait bakterio-toxina. *ES:* Pirógeno *FR:* Pyrogène *EN:* Pyrogen *Arloa:* Med.
- Pirosi:** iz. Hestegorrian nabaritzen den sentsazio sumingarri, mingots eta garratza. Urdaileko edukia hestegorriara igarotzearen ondoriozkoa izaten da eskuarki, baina urdaileko gehiegizko azidota-
- sunak edo ultzera peptikoak eragina ere izan daiteke. *ES:* Pirosis *FR:* Pyrosis *EN:* Pyrosis *Arloa:* Med.
- Pisatu:** ad. Gorputz baten pisua edo masa zehaztu, balantza edo antzeko tresnaren bat erabiliz. *ES:* Pesar *FR:* Peser *EN:* To weigh
- Pisiforme:** iz. Ilar-itxurako hezur txikia, karporearen lehen lerrokoa; piramidalarekin giltzatzen da. *ES:* Pisiforme *FR:* Pisiforme *EN:* Pisiform *Arloa:* Anat.
- Pisu:** iz. Lurraren grabitateak gorputz bati eragindako indarra. Zenbaitetan, indar-unitatetan neurtzen da, newton-etan edo poundal-etan, baina, oro har, kilogramotan zein libratan adierazten da, masa bati baitagokio. *ES:* Peso *FR:* Poids *EN:* Weight
- Pisu atomiko:** iz. Hidrogeno atomo bat unitatetzat harturik, harekin alderatuz atomo batek duen batez besteko masa. *ES:* Peso atómico *FR:* Poids atomique *EN:* Atomic weight
- Pisu molekular:** iz. Molekula bat osatzen duten atomoen pisu atomikoaren batura. *ES:* Peso molecular *FR:* Poids moléculaire *EN:* Molecular weight
- Pisua izan:** 1. ad. Astuntasuna izan. 2. ad. Pisu zehatza izan. 3. ad. Pisu handia izan. *ES:* Pesar
- Pisutasun:** iz. Gune bateko ondoeza —urdailekoa edo burukoa bereziki—; pisu-sentsazioa eragiten du. *ES:* Pesadez
- Pitiriasi:** iz. Zahi-itxurako ezkatat agertzea ezaugarri duten larruazaleko lesioen multzoa. Ez da hantura-seinale nabarmenik izaten. *ES:* Pitiriasis *FR:* Pityriasis *EN:* Pityriasis *Oharrak:* Onddoek eraginak dira gehienak. *Arloa:* Med.
- Pituita:** 1. iz. Muki likatsuz eratutako gorakoa; espektorazior kanporatzen da. 2. iz. Antzinako medikuntzaren lau humoreetako bat. 3. iz. Sudurreko mukosa; usaimen-nerbio ugari izaten du. *ES:* Pituita *FR:* Pituite *EN:* Pituita *Oharrak:* Goizetan sarri izaten dute alkoholikoek, gastritisaren dutenek eta erretzaileek. *Arloa:* Anat.
- Pitzadura:** iz. Azal baten gainean egiten den irekidura. *ES:* Agrietamiento *FR:* Craquelure *EN:* Cracking
- Pitzatu:** ad. Azal batean ebakiak agertu. *ES:* Agrietar *FR:* Crevasser *EN:* To crack
- Pixa egin:** ad. Gernua kanporatu. *ES:* Mear
- Pixa-egite:** iz. Ikus 'gernu-egite'.
- Pixoihal:** iz. Zelulosaz edo beste materialen batez eginiko oihala. Haur txikiei eta gernu-inkontinentzia duten pertsona helduei jartzen zaie hankartean, irazkinak xurgatzeko. *ES:* Bragapañal
- Plaka:** 1. iz. Sarritan agertzen den xafla mehea; larruazalean edo gorputzeko beste edozein organotan eratzen da. 2. iz. Hortzetan eratzen den geruza mehea; listuko muzinaz eta material ko-

- loidalez osatua dago. *ES: Placa FR: Plaque EN: Plaque Arloa: Med.*
- Plaketa:** iz. Odolaren osagai nagusietako bat. Zelula handiagoen zatiketaz sortzen da hezur-muinan. Plaketen eduki nagusiak dira: sodioa, potasioa eta kaltzioa. Ezinbestekoak dira odolaren gatzapenerako. *ES: Plaqueta FR: Plaquette EN: Platelet Arloa: Biol.*
- Plantar:** izond. Ikus 'oinzolako'.
- Plasma-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'plasmatico'.
- Plasma:** 1. iz. Zeluletako eta ehunetako oinarrizko gai organikoa. Plasmak berak ez du zelularik, baina odoleko zelulak —globulu gorriak, zuriak eta plaketak— plasman daude esekiduran. Plasmaren osagaien artean daude: proteinak, gluzidoak, gatzak eta hormonak. 2. iz. Erabat ionizaturiko gas-fluidoak; elektroioi eta ioi positiboaren nahaste heterogeneo batek osatzen du. *ES: Plasma FR: Plasma EN: Plasma Arloa: Biol., Fis.*
- Plasmatico:** izond. Plasmari dagokiona. *ES: Plasmático FR: Plasmatique EN: Plasmatic Arloa: Biol.*
- Plasmodio:** iz. Ikus 'plasmodium'. *ES: Plasmodio FR: Plasmode*
- Plasmodium:** 1. iz. Protoplasma-masa, hainbat zelularen elkarketaz eratua. Zelula horien nukleok era askean irauten dute. 2. iz. Protozooen genero bat; *Plasmodium* generoko edozein protozoo, bereziki. Bizkarroi mikroskopikoak dira. Plasmodioen bizileku dira: etxeke edo basoko ugaztuen eta gizakiaren globulu gorriak, eta zenbait artropodo odol-xurgatzaileen digestio-aparatu. Zenbait espeziek paludismoa eragiten dute; *Anopheles* eltxoaren zitzadaren bidez kutsatzen da paludismo hori. *ES: Plasmodium FR: Plasmodium EN: Plasmodium Arloa: Biol.*
- Plastia:** iz. Kirurgia-ebakuntza; desitxuraturik dagoen gorputz atalen bat berrosatzen edo itxuraldatzen da ebakuntza mota horren bidez. *ES: Plastia Oharrak: Baskularizazio zuzena du plastia batek; txertatzeak, berriz, ez. Arloa: Med.*
- Plasto:** iz. Landare-zelulen organulua; hainbat funtzio betetzen ditu. Almidoia eta pigmentuak izaten ditu. Pigmentuaren arabera, hiru motatako plastoak bereizten dira: kloroplastoak (klorofiladun pigmentu berdeak dituztenak), kromoplastoak (pigmentu karotenoideak ere badituztenak) eta leukoplastoak (inolako pigmenturik gabeak). *ES: Plasto Arloa: Biol.*
- Platino:** iz. Pt. Elementu kimiko metalikoa. Zilar kolorekoa, xaflakorra eta harikorra da. Gaitasun handia du gasak xurgatzeko, eta azidoek, kloroak eta oxigenoak ez dute erasotzen. Erabilera ugari ditu; injekzioetarako orratzak egiteko eta odontologian erabili izan da, besteak beste. *ES: Platino FR: Platine EN: Platinum Arloa: Kim.*
- Plazebo:** iz. Gai eraginkorrik gabeko prestakina; beharrezko sendagai baten dosi egokia balitz bezala ematen da. *ES: Placebo FR: Placebo EN: Placebo Oharrak: Gaur egun, sendagai baten eraginkortasuna neurtzeko, plazeboaren aurka neurtzen da saio klinikoetan. Plazebo gisa erabiltzen dira serum fisiologikoa, ur destilatua, azukrea eta zenbait bitamina hidrosoluble, besteak beste. Arloa: Med.*
- Plazenta:** iz. Emeen umetokian eratzen den organo baskularra; ernalketa gertatu eta gutxi gorabehera zortzigarren egunean hasten da eratzen, blastozistoko umetokiaren hormari itsasten zaizkionean. Umekiak plazentaren bidez jasotzen ditu beharrezko oxigenoa eta elikagaiak, eta karbono dioxidoa eta beste zenbait hondakin kanporatu. Erditzean kanporatzen da, haurra jaio ondoren. *ES: Placenta FR: Placenta EN: Placenta Arloa: Anat.*
- Plazentazio:** iz. Karena eratzen eta txertatzen den modua. *ES: Placentación FR: Placentation EN: Placentation Arloa: Biol.*
- Pletora:** iz. Neurritz gaindiko odol kantitatea gorputzean, globulu gorriena, batez ere. *ES: Plétora FR: Pléthore EN: Plethora Arloa: Med.*
- Pletoriko:** 1. izond. Pletorari dagokiona; humoreen bat neurritz gain duena. 2. izond. Gorputz-egitura mota bati dagokiona; haren ezaugarri dira: itxura fisiko ona, aurpegi gorria, neurritz gaineko pisua eta tentsio arterial altua. *ES: Plétórico FR: Pléthorique EN: Euphoric, jubilant, full Arloa: Med.*
- Pleura:** iz. Mintz edo zaku serosoa; birrikak eta barrunbe torazikoa estaltzen ditu. Ehun konektiboak geruza mehe batez eta haren gainean dagoen zelula mesotelial zapalezko geruza batez eratua dago. Bi atal ditu: saihets-pleura (toraxeko barrunbearen barnealdea estaltzen du) eta birika-pleura (birika estaltzen du). Bi geruzen artean, gazur antzeko isurkari pixka bat dago, arnaske-tan labaingarri gisa diharduena. *ES: Pleura FR: Plèvre EN: Pleura Arloa: Anat.*
- Pleuresia:** iz. Birika-hormetako pleuraren hantura; arnasa hartzeko zailtasuna eta min zorrotza ditu ezaugarri. Haren eragile nagusiak dira: bronkieotako kartzinoma, biriketako edo horma torazikoko zorne-zorroak, pneumoniak, biriketako infartuak eta tuberkulosiak. *ES: Pleuresía FR: Pleurésie EN: Pleuritis Arloa: Med.*
- Pleuritiko:** 1. izond. Pleuresiari dagokiona. 2. izond. Pleuresia duena. *ES: Pleurítico FR: Pleurétique EN: Pleuritic Arloa: Med.*
- Pleuritis:** iz. Ikus 'pleuresia'. *ES: Pleuritis*
- Plexo:** iz. Gurutzatzen diren nerbioz, odol-hodiz, linfa-hodiz, zuntzez, eta abarrez osatutako sarea. *ES: Plexo FR: Plexus EN: Plexus Arloa: Anat.*

- Plurizelular:** izond. Zelula batez baino gehiagoz osatua dagoena. *ES:* Pluricelular *FR:* Multicellulaire *EN:* Multicellular *Arloa:* Biol.
- Plutonio:** iz. Pu. Elementu kimiko erradioaktiboa; metal transuranidoa da. Ez da naturan agertzen, eta artifizialki lortzen da, uranioa neutroiekin bonbardatuz. Oso arriskutsua da, igortzen duen erradioaktibitatea dela eta. Hezurretako chunetan itsatsi ohi da, eta osasun-arazo larriak eragin ditzake. Lehergailu atomiko mota baten osagai nagusia da. *ES:* Plutonio *FR:* Plutonium *EN:* Plutonium *Arloa:* Kim.
- Pneumogastro:** iz. Nerbio bagoa. Garuneko erraboilan du sorrera; lepotik jaitsi, eta toraxean sartzen da; han bi adarretan bereizi, eta laringera, faringera, bihotzera, urdailera, gibelera eta hestetara hedatzen da. *ES:* Neumogástrico *FR:* Pneumogastrique *EN:* Pneumogastric
- Pneumokoko:** iz. Bakterio diplokoziko grampositiboa, *Diplococcus pneumoniae* espeziekoa. Pneumonia bakteriarraren eragile nagusia da. *ES:* Neumococo *FR:* Pneumocoque *EN:* Pneumococcus *Arloa:* Mikrob.
- Pneumologia:** iz. Medikuntzaren adarra; biriketako eta arnasbideetako gaixotasunen azterketaz arduratzen da. *ES:* Neumología *FR:* Pneumologie *EN:* Pneumology *Arloa:* Med.
- Pneumologo:** iz. Birika-gaixotasunetan espezializaturiko sendagilea. *ES:* Neumólogo *FR:* Pneumologue *EN:* Pneumologist *Arloa:* Med.
- Pneumonia:** iz. Birika-ehunaren hantura akutua; *Diplococcus pneumoniae* espezieko pneumokokoak arnastearen ondorio izaten da, eskuarki. Jariakin zuntzu batek buxatzen ditu biriketako albeoloak eta bronkioloak. Pneumoniaren sintomak dira: hotzikarak, sukar altua, buruko mina, eztula eta bularreko mina. *ES:* Neumonía, pulmonía *FR:* Pneumonie *EN:* Pneumonia *Arloa:* Med.
- Pneumopatia:** iz. Birikei erasaten dieten gaixotasunen izen generikoa. *ES:* Neumopatía *FR:* Pneumopathie *EN:* Pneumonopathy *Arloa:* Med.
- Pneumotorax:** iz. Aire- edo gas-metaketa pleuraren gunean; biriken kolapsoa eragiten du. Bularreko traumatismo ireki baten edo burbuila baten hausturaren ondorio izan daiteke, baina baita arrazoi jakinik gabea —idiopatikoa— ere. Arnastua nahiz asfíxia eragin ditzake. *ES:* Neumotórax *FR:* Pneumothorax *EN:* Pneumothorax *Arloa:* Med.
- Pneumozistosi:** iz. *Pneumocystis jiravensi* bizkarroiak eragindako infekzioa; hiesa duten gaixotetan, bularreko haurretan, immunoeskasia edo ahulezia duten gizabanakoetan (bereziki linfometan), eta abarretan agertzen da. Haren ezaugarri dira: sukarrara, eztula, takipnea eta, sarritan, zianosia. Ez da erraza izaten diagnostikoa zehaztea, eta, gehiengotan, beharrezkoak izaten dira bronkoskopia eta tindaketa-teknika bereziak. Ia % 100ekoa da tratamendurik jasotzen ez duten gaixoen hilkortsuna. *ES:* Neumocistosis *EN:* Pneumocystosis *Arloa:* Med.
- Podologia:** iz. Medikuntzaren adarra; oinetako gaixotasunez eta asalduez arduratzen da. *ES:* Podología *FR:* Podologie *EN:* Podology *Arloa:* Med.
- Podologo:** iz. Podologian edo oinetako eritasunetan aditua. *ES:* Podólogo *FR:* Podologue *EN:* Chiropodist *Arloa:* Med.
- Polialkohol:** iz. Molekulan alkohol-funtzio ugari dituen talde organikoa. *ES:* Polialcohol *FR:* Polyalcool *EN:* Polyalcohol *Arloa:* Kim.
- Poliamida:** iz. Pisu handiko polimeroa; amida-loturak ditu molekula-katean zehar. Nylona da ezagunena. *ES:* Poliamida *FR:* Polyamide *EN:* Polyamide *Arloa:* Kim.
- Poliartritis:** iz. Giltzadura bati edo gehiagori erasaten dien hantura; giltzadura batetik bestera heda daiteke, edo aldi berean giltzadura batean baino gehiagotan agertu. *ES:* Poliartritis *FR:* Polyarthrite *EN:* Polyarthritus *Adibideak:* Erreuma-artritis, lupus eritematoso sistemikoa, espondilitis anki-lopoietikoa. *Arloa:* Med.
- Polidipsia:** iz. Gehiegizko egarria; hainbat asalduren ezaugarri da; *diabetes mellitus*arena, adibidez. *ES:* Polidipsia *FR:* Polydipsie *EN:* Polydipsia *Arloa:* Med.
- Polietileno:** iz. Polimero sintetiko gogor baina malgua; etilenoaren polimerizazioz sortzen da. Kirurgia-tresnak egiteko erabiltzen da, besteak beste. *ES:* Polietileno *FR:* Polyéthylène *EN:* Polyethylene *Arloa:* Kim.
- Polifagia:** iz. Neurritz kanpoko gose-sentsazioa. *ES:* Polifagia *FR:* Polyphagie *EN:* Polyphagia *Arloa:* Med.
- Polifago:** 1. izond. Hainbat motatako animaliak edo landareak jaten dituen. 2. izond. Polifagia duena. *ES:* Polífago *FR:* Polyphage *EN:* Polyphagous *Arloa:* Med.-Biol.
- Poliklinika:** iz. Era guztietako gaixotasunak tratatzen dituen osagunee. *ES:* Policlínica *FR:* Polyclinique *EN:* Polyclinic *Arloa:* Med.
- Polimerizatu:** ad. Polimerizazioaren erreakzio kimikoa gertatu edo gertarazi. *ES:* Polimerizar *FR:* Polymériser *EN:* To polymerize *Arloa:* Kim.
- Polimerizazio:** iz. Gai baten molekula txiki askoren arteko erreakzio kimikoa, molekula handiagoak —polimeroak— emateko. *ES:* Polimerización *FR:* Polymérisation *EN:* Polymerization *Arloa:* Kim.
- Polimero:** iz. Monomero molekula txiki ugariaren konbinazioaz eratutako konposatua. Naturalak —kautxua, zura, larrua, artilea, zeta, kotoia, eta

- abar— edo sintetikoak —elastomero, zuntz eta plastikoa artifizialak— izan daitezke polimeroak. Polimero sintetikoek erabilera ugari dituzte industrian. *ES: Polímero FR: Polymère EN: Polymer Arloa: Kim.*
- Polimorfismo:** 1. iz. Zenbait gorputz trinkoren ezaugarria; izaera eta egitura kimikoa aldatu gabe, itxura aldatzeko gaitasuna dute. 2. iz. Genetikan, bi genotiporen edo gehiagoren txandakako agerpena, lurralde berean; haien ezaugarri genetikoaren maiztasuna handiegia da mutazio berrakaren laguntzaz mantendu ahal izateko. Ondorioz, espezie bereko banakoek itxura desberdina dute funtzioaren, sexuaren eta garapenaren arabera. *ES: Polimorfismo FR: Polymorphisme EN: Polymorphism Arloa: Kim.-Biol.*
- Polinosi:** iz. Alergia-erreakzioa polenari. *ES: Polinosis FR: Pollinosis EN: Pollinosis Arloa: Med.*
- Poliomielitiko:** izond. Poliomieltisari dagokiona; poliomieltis duena. *ES: Poliomieltico Arloa: Med.*
- Poliomielitis:** iz. Gaixotasun kutsagarria; hiru motatakoa izan daiteke: sintomarik gabea, arina edo elbarritasun-eragilea. Gorotzen edota aho-faringeko jariakinen bidez kutsatzen da pertsona batetik beste batera. Sintomarik gabeko infekzioak ez dauka seinale klinikorik, eta immunitatea ematen du. Arinak, berriz, ordu batzuetako iraupena baino ez du, eta sukarra, ondoeza, buruko mina, okadak, goitikak eta sabelaldeko ondoez arina ditu ezaugarri. Arinarenaren antzekoa da poliomieltis elbarritasun-eragilearen hasiera; ondoren, sintomak desagertu egiten dira, eta pertsona ondo sentitzen da zenbait egunetan. Egun batzuen buruan, aldiz, ondoeza, buruko mina eta sukarra itzultzen dira, eta berehala hasten dira garatzen mina, ahulezia eta elbarritasuna. Lehenbiziko astekoa da elbarritasunik larriena. *ES: Poliomieltis FR: Poliomyélite EN: Poliomyelitis Arloa: Med.*
- Poliploide:** iz. Haploidearen multiploa den kromosoma kopurua duen zelula edo organismoa. *ES: Poliploide FR: Polyploide EN: Polyploid Arloa: Biol.*
- Poliploidia:** iz. Bi kromosoma sorta oso baino gehiago izatea ezaugarri duen asaldu edo egoera. *ES: Poliploidía FR: Polyplóidie EN: Polyploidy Arloa: Biol.*
- Polipo:** iz. Masa biguna, tumor antzekoa; mukimintzean sortzen da, hantura kronikoaren ondorioz. Polipoaren gainaldea laua, konkorduna edota gingilduna izan daiteke. Gehienetan ez dira kaltegarriak izaten, baina, badaezpada, kirurgia bidez kendu, eta aztertu egiten dira. *ES: Pólipo FR: Polype EN: Polyp Oharrak: Zenbaitetan, minbi-ziaren lehen urratsa izan daiteke. Arloa: Med.*
- Polisakarido:** iz. Hiru karbohidrato molekula sinple edo gehiago dituen karbohidratoa. Pisu molekular handia izaten dute. Almidoia, zelulosa eta glukogenoa dira polisakarido garrantzitsuenak. *ES: Polisacárido FR: Polysaccharide EN: Polysaccharide Arloa: Kim.*
- Poliuria:** iz. Ohikoa baino ugariagoa den gernerarioa. Poliuriaren eragileen artean daude: diabetes gatzgabea, *diabetes mellitus*, diuretikoak, neurritz likido gehiegi hartzea eta hiperkaltzemia. *ES: Poliuria FR: Polyurie EN: Polyuria Arloa: Med.*
- Polo:** iz. Gorputz, organo nahiz atal esferiko edo obal baten ardatzaren alde banatako muturra. *ES: Polo FR: Pôle EN: Pole Arloa: Anat.*
- Poltza:** 1. iz. Zaku-itxurako edozein egitura, gorputzaren barruan. 2. iz. Zenbait tendoiaren eta hezurren arteko zaku haritsua. Likido sinobiala jariatzen duen mintz sinobialak babesturik, poltsak kuxin-funtzioa betetzen du, tendoia hezur-raren gainean mugi dadin. Igurzketak ekiditea da poltsaren funtzioa. *ES: Bolsa FR: Bourse EN: Pouch Arloa: Anat.*
- Pomada:** iz. Sendagai-prestakin biguna, kanpo-erabilerrako egina. Koipeari edo baselinari droga aktiboak gehituz prestatzen da. Pomaden funtzioen artean daude: gune bateko analgesia-eragile izatea, anestesiko gisa jokatzea, desinfektatzailea izatea, eta orobat idorgarria, despigmentagarria eta keratolitikoa izatea. *ES: Pomada FR: Onguent EN: Ointment Arloa: Med.*
- Poro:** iz. Pasagune edo irekigune txikia, oro har begiz ikusi ezin daitekeena; esate baterako, larruazaleko poroak. *ES: Poro FR: Pore EN: Pore Arloa: Biol.*
- Porta zain:** iz. Gibelean adarkatzen den zaina; kapilar antzeko sinusoidetan bukatzen da. *ES: Vena porta FR: Veine porte EN: Portal vein Arloa: Anat.*
- Portaera:** iz. Pertsona baten jokabidea, bizitzako epe labur edo luzeagoetan nahiz gertaera jakinen aurrean. *ES: Comportamiento FR: Comportement EN: Conduct Arloa: Psikol.*
- Positroi:** iz. Ikus 'antielektroi'. *ES: Positrón FR: Positron EN: Positron*
- Posologia:** iz. Terapeutikaren atala; dosiez eta dositez arduratzen da, adina, sexua, pisua, eta abar kontuan harturik. *ES: Posología FR: Dosa-ge EN: Dosage Arloa: Med.*
- Potasio zianuro:** iz. Azido zianhidrikoak eta potasio hidroxidoak erreakzionatzean sortzen den gatza. *ES: Cianuro potásico FR: Cyanure de potassium, cyanure potassique EN: Potassium cyanide*
- Pozoi:** iz. Organismoan eragin kaltegarria duen gai oro. Gai toxikoa da, eta heriotza edo asaldu la-

- riak eragiten ditu. *ES:* Veneno *FR:* Venin *EN:* Venom
- Pozoidun:** izond. Ikus 'pozoitsu'.
- Pozoidura:** iz. Pozoitzearen ondorioa. *ES:* Emponzoñamiento
- Pozoitsu:** izond. Pozoia duena. *ES:* Venenoso *FR:* Vénéneux *EN:* Poisonous
- Pozoitu:** 1. ad. Norbaiti pozoia eman edo sartu. 2. ad. Pozoiaren eraginez hil. *ES:* Envenenar *FR:* Empoisonner, envenimer *EN:* To poison
- Praktika:** iz. Begirale baten zuzendaritzapean arte bat ikasten pasatzen den denbora jakina. *ES:* Práctica *FR:* Pratique *EN:* Practice
- Praktikante:** iz. Sendagilearen laguntzaile tekniko; medikuntzako ikaslea edo osasun-laguntzaile teknikoak izan daiteke. Gaixoari injekzioak jar-teaz eta zauriak sendatzeaz arduratzen da. *ES:* Practicante
- Prebenitu:** ad. Prebentzio-neurriak hartu, gaitz bat ekiditeko edo osasun-helburu bat lortzeko. *ES:* Prevenir *FR:* Prévenir *EN:* To prevent
- Prebentibo:** 1. izond. Aurrez zaintzen, saihesten edota prestatzen dena; prebentzioari dagokiona. 2. izond. Gaixotasun baten bilakaera moteltzen, gelditzen edo eteten duen zeharkako neurriari dagokiona, edo gaixotasunen eragina gutxitzeko hartzen den neurria. *ES:* Preventivo *FR:* Préventif *EN:* Preventive
- Prebentzio:** 1. iz. Arriku-egoerak eragiten dituzten edo eragin ditzaketan kausak saihesteko edo kausa horiei aurre egiteko neurrien multzoa. 2. iz. Gaixotasunari aurre egiteko eta osasunari mesede egiteko edozein ekintza. Beharrezkoa da lehen mailako, bigarren mailako eta hirugarren mailako osasun-laguntzaren beharra saihesteko. *ES:* Prevención *FR:* Prévention *EN:* Prevention
- Prebentzio-medikuntza:** iz. Medikuntzaren adarra; gaixotasunen prebentzioaz arduratzen da. Giza-banako batek eta erkidego osoak gaixotasunen aurrean sendo irauteko eta bizitza luzatzeko gaitasuna gehitzeaz ere arduratzen da. *ES:* Medicina preventiva *FR:* Médecine préventive *EN:* Preventive medicine
- Prepuzio:** iz. Zakileko larruazalaren tolesdura, glandea estaltzen duena. *ES:* Prepuccio *FR:* Prépuce *EN:* Prepuce *Arloa:* Anat.
- Presbiope:** izond. Ikus 'presbita'.
- Presbiopia:** iz. Adinaren ondorioz hartutako hipermetropia; gertutik ikusteko gaitasuna gutxitzea du ezaugarri. Gihar ziliarraren ahultasunagatik eta kristalinoaren malgutasun-galeragatik gertatzen da. 40 urtetik gorakoek izaten dute eskuarki, eta leiar konbergenteak erabili behar izaten dira akatsa zuzentzeko. *ES:* Presbiopía *EN:* Long-sightedness *Arloa:* Med.
- Presbita:** izond. Presbisia duena; presbiopiak erasandakoa. *ES:* Présbita *FR:* Presbyte *EN:* Presbyope *Arloa:* Med.
- Presbisia:** iz. Ikus 'presbiopia'.
- Preserbatibo:** iz. Zorro malgu eta biguna; zakila estaltzen du, eta, koitoan, semena baginan sartzea ekiditen du. Gaixotasunak edo haurdunaldia saihesteko erabiltzen da. *ES:* Preservativo *FR:* Préservatif *EN:* Condom
- Presio arterial:** iz. Odol zirkulatuak arterien paretetan eragiten duen tentsioa. Zenbait faktoreen arabera da: bihotz-jardueraren indarra, arteria-pareten malgutasuna, erresistentzia kapilarra, zainetatik itzultzen den odolak eragindako tentsioa, odolaren biskositatea eta odol bolumena. *ES:* Presión arterial *FR:* Pression artérielle *EN:* Arterial pressure *Arloa:* Med.
- Prestakin:** 1. iz. Erabili ahal izateko prestatuta dagoena. 2. iz. Azterketarako eta konterbaziorako prest dagoen matxarda edo ale anatomiko, histologiko zein patologikoa. 3. iz. Lagina. *ES:* Preparación *FR:* Préparation *EN:* Preparation *Arloa:* Biol.
- Priapismo:** iz. Zakilaren egoera tente, iraunkor eta mingarria, sexu-irrikarekin zerikusirik ez duena. Gernu-kalkuluen, nerbio-sistema zentralako lesioen, edo uretraren nahiz maskuriaren hanturaren ondoriozkoa izaten da. *ES:* Priapismo *FR:* Priapisme *EN:* Priapism *Arloa:* Med.
- Primario:** 1. izond. Denborari, espazioari, garapenari eta garrantziari dagokionez lehenengoa dena. 2. izond. Beste iturri batetik eratorria ez dena. 3. izond. Atomo baten edo gehiagoren ordezkapenez sortutako ziklo batean, lehenengo konposatua eta sinpleena dena. Kimika organikoan, bi hidrogeno atomori lotutako karbono nahiz nitrogeno atomo aseari (amina edo amida) dagokiona. *ES:* Primario *FR:* Primaire *EN:* Primary *Arloa:* Biol., Psikol., Kim.
- Primordio:** iz. Lehen aldia enbrioaren garapenean eta organo, ehun edo egitura jakin baten desberdintze-prozesuan. *ES:* Primordio *FR:* Primordium *EN:* Primordium *Arloa:* Biol.
- Probabilitate:** iz. Gertaera jakin bat gertatzeko aukeraren neurria. Zerbait gertatzen den aldi kopurua eta gertaera posible guztien kopuruaren arteko zatidura matematikoa da. *ES:* Probabilidad *FR:* Probabilité *EN:* Probability
- Probatu:** ad. Zerbaiten edo norbaiten ezaugarriak aztertu; praktikan nolokoa den ikusi. *ES:* Probar
- Probeta:** iz. Bolumenak neurtzeko erabiltzen den beirazko hodia; mutur batetik itxia da. Laborategietan erabiltzen da, eta eskala metrikoduna edo gabea izan daiteke. *ES:* Probeta *FR:* Éprouvette *EN:* Testglass *Oharrak:* Ez du balio bolumen-neurketa oso zehatzak egiteko. *Arloa:* Kim.
- Problema:** iz. Ikus 'arazo'.



- Probokatu:** ad. Ikus 'eragin'.
- Prodromo:** iz. Gaixotasun baten hasiera edo hurbiltasuna adierazten duen seinale, sintoma edo egoera. Gaixotasun infekzioosen hasiera izendatzeko erabiltzen da, batez ere. *ES:* Pródromo *FR:* Prodrome *EN:* Prodrome *Arloa:* Med.
- Profase:** iz. Zelulen zatiketaren (mitosiaren edo meiosiaren) lehen fasea. Zentromeroaren bidez elkarri lotuta dauden bi kromatidetan zatitzen dira kromosomak, eta ikusgai bihurtzen dira. *ES:* Profase *FR:* Prophase *EN:* Prophase *Arloa:* Biol.
- Profil:** iz. Pertsona edo gauza bati buruzko laburpen, diagrama edo zirriborro laburra. *ES:* Perfil *FR:* Profil *EN:* Profile
- Profilaktiko:** izond. Gaixotasun baten hedapena galarazten duena. *ES:* Profiláctico *FR:* Prophylactique *EN:* Prophylactic *Arloa:* Med.
- Profilaxi:** iz. Gizabanakoa eritasunetatik babesteko, hain hedapena mugatzeko eta eritasunen indarra gutxitzeko baliagarriak diren neurrien multzoa. *ES:* Profilaxis *FR:* Prophylaxie *EN:* Prophylaxis *Arloa:* Med.
- Progesterona:** iz. Sexu-hormona, obulutegiko gorputz horiak eta karenak jariatzen dutena. Haren funtzioak dira: zigotoa ezartzeko prestatzea ume-tokiaren endometria, eta haurdunaldiari eustea. Hainbat asalduren tratamenduan erabiltzen da: hilekoaren zenbait asaldu, aldi luteinikoaren dis-funtzioari loturiko antzutasuna, eta behin eta berri gertatzen diren bat-bateko hilaurteak. *ES:* Progesterona *FR:* Progestérone *EN:* Progesterone *Oharrak:* Obulazioa eragozten du; hori dela eta, antisorgailu gisa erabiltzen da. *Arloa:* Biol.
- Prognatismo:** iz. Goiko edo beheko barailen edo bien gehiegizko garapena; aurpegia saiheska ikusita, aurrera okertua ageri da. *ES:* Prognatismo *FR:* Prognathisme *EN:* Prognathism *Arloa:* Anat.
- Prognatu:** izond. Prognatismoa duena; barailak irtenak dituen. *ES:* Prognato *FR:* Prognathe *EN:* Prognathic *Arloa:* Anat.
- Prokariotiko:** izond. (Zelulei buruz) Material genetikoa (ADN) zitoplasman barrena barreiatua duena. *ES:* Procariótico *FR:* Procaryote *EN:* Procaryotic *Arloa:* Biol.
- Prokarioto:** iz. ADNn nukleoan bilduta ez duen organismoa. Zitoplasmatik bereizi gabe dagoen kromosoma du, eta zatiketaren bidez ugaltzen da. *ES:* Procariota *FR:* Procaryote *EN:* Procaryote *Adibideak:* Prokariotoak dira bakterioak eta zianobakterioak. *Arloa:* Biol.
- Prolapso:** iz. Organo baten erortze edo hondortzea; organismoan dagokion kokapen normaletik aldentzen da organo eroria. *ES:* Prolapso *FR:* Prolapsus *EN:* Prolapse *Arloa:* Med.
- Prolepsis:** iz. Behar baino lehenagoko garapena, edozein organotan; kausa natural edo artifizialak direla medio gertatzen da. *ES:* Prolepsis *FR:* Prolepsis *EN:* Prolepsis *Arloa:* Biol.
- Pronatzaile:** iz. Pronazio-mugimendua eragiten duen giharra. *ES:* Pronador *FR:* Pronateur *EN:* Pronator *Arloa:* Anat.
- Pronazio:** iz. Besaurrearen eta eskuaren mugimendua; aurreko edo azpiko alde atzera begira jartzean datza. *ES:* Pronación *FR:* Pronation *Arloa:* Anat.
- Pronostiko:** iz. Gaixotasun batek izan dezakeen garapenaren iragarpena; gaixotasun horrek pertsona horren egoeran eta antzeko egoeretan izaten duen garapenean oinarrituta egiten da. *ES:* Pronóstico *FR:* Pronostic *EN:* Prognosis *Arloa:* Med.
- Pronostiko zehaztugabe:** iz. Zalantzazko emaitza edo bukaera arriskutsua izateko aukera adierazten duen pronostikoa. *ES:* Pronóstico reservado *Arloa:* Med.
- Propietate:** iz. Zerbaiten ezaugarria edo bereizgarritasuna. *ES:* Propiedad *FR:* Propriété *EN:* property *Arloa:* Kim.
- Proporzional:** izond. Bi kantitateren arteko harremanari dagokiona; horietako baten zati bat aldatzen denean, proportzio berean aldatzen da beste-ari dagokion zatia ere. *ES:* Proporcional *FR:* Proportionnel *EN:* Proportional
- Prospektu:** iz. Sendagai-kaxaren barnean etortzen den liburuxka. Sendagaiaren egileak hainbat datu adierazi behar ditu prospektuan: sendagaiaren izen generikoa, erabilerak, kontraindikazioak, ohartarazpenak, arreta, aurkako eragina, dosia, eta abar. *ES:* Prospecto *FR:* Prospectus *EN:* Package insert
- Prostata:** iz. Gizonezkoen maskuriaren lepoa eta uretra inguratzen dituen guruina. Egitura sendoa du, gaztaina baten neurrikoa, eta gihar- eta guruin-ehunez eratua dago. Prostataren jariatzearen osagaiak dira: fosfatasa alkalinoa, azido zitrikoa eta zenbait entzima proteolitiko. Semen gatzatua likido bihurtzen du prostatak jariaturiko isurkariak. *ES:* Próstata *FR:* Prostate, prostata *EN:* Prostate, prostata *Arloa:* Anat.
- Proteido:** iz. Ikus 'proteina'.
- Proteiko:** izond. Proteinei dagokiena, edo proteina-jatorria duena. *ES:* Proteico *FR:* Protéique *EN:* Proteinaceous
- Proteina:** iz. Gai organiko konplexua; lotura peptidikoz konbinaturiko aminoazidoz osatutako molekula da. Ezinbesteko aminoazidoak 22 dira hazkuntzarako, hala garapenerako nola osasuna behar bezala mantentzeko. Organismoa gai da haietariko 14 (nahitaezkoak ez direnak) sintetizatzen, baina besteak (nahitaezkoak) kanpotik hartu behar ditu. Proteinak dira organismoko hainbat egitura eratze osoagai nagusiak: gih-



- rrak, odola, larruzala, ilea, azazkalak eta barne-organoak. Beharrezkoak dira hormonak, entzimak eta antigorputzak egoizteko. Karbonoa, oxigenoa, hidrogenoa eta nitrogenoa dute proteina guztiek, eta, zenbaitetan, burdina, fosforoa eta iodoa. Proteina-eskasiak gaixotasunak eragiten ditu; gehiegi hartzeak, berriz, likido-desoreka ekar dezake, zenbait kasutan. *ES: Proteína FR: Protéine EN: Protein Arloa: Biokim.*
- Proteiniko:** izond. Ikus 'proteiko'.
- Protesi:** 1. iz. Kirurgia-terapeutikaren adarra; organo bat edo organo baten atal bat ordezteko helburu. 2. iz. Gorputzeko atal bat ordezteko erabiltzen den tresna edo pieza; plastikozkoa, metalezkoa nahiz ehun sintetikoz egina izan daiteke. *ES: Prótesis FR: Prothèse EN: Prosthesis Arloa: Med.*
- Protido:** iz. Ikus 'proteina'.
- Protisto:** iz. *Protista* erreinuko izaki bizidun zelulabakarra. *ES: Protisto FR: Protiste EN: Protist Adibideak: Protistoak dira bakterioak, algak, onddoak eta protozoak, besteak beste. Arloa: Biol.*
- Protoi:** iz. Karga positiboa duen partikula; atomo guztien nukleoaren oinarritzko osagaia da. Elektroiak baino masa handiagoa du. Atomo baten nukleoko protoi kopurua elementu horren zenbaki atomikoaren berdina da. *ES: Protón FR: Proton EN: Proton Arloa: Kim.*
- Protoniko:** izond. Protoiari dagokiona. *ES: Protónico FR: Protonique EN: Protonic Arloa: Kim.*
- Protoplasma:** iz. Zelula baten zatia, egitura kimiko konplexukoa. Ur asko du, eta gai organikoak eta gatz inorganikoak dauzka. *ES: Protoplasma FR: Protoplasme EN: Protoplasm Arloa: Biol.*
- Protozoo:** iz. *Protista* erreinuko mikroorganismo zelulabakarra; nukleo bakarra edo gehiago izan ditzake. Bakterioak baino konplexuagoak dira. Gutxi gorabehera 30 protozoo dira gizakiarentzat patogenoak. *ES: Protozoo FR: Protozoaire EN: Protozoa Arloa: Mikrob.*
- Protuberantzia:** iz. Ikus 'irtengune'.
- Prozedura:** iz. Ekintza bat aurrera eraman ahal izateko eman beharreko urratsen multzoa. *ES: Procedimiento, método FR: Procédure EN: Procedure*
- Prozesu:** iz. Elkarren artean harremana duten gertakarien multzoa; bata bestearen segidan gertatzen dira, egoera jakin batetik bukaera arte. *ES: Proceso FR: Procès EN: Process Arloa: Biol.*
- Pruriginoso:** izond. Prurigoaren izaera duena, edo prurigoa eragiten duena. *ES: Pruriginoso FR: Prurigineux EN: Pruriginous Arloa: Med.*
- Prurigo:** iz. Larruzaleko hanturazko gaixotasun kronikoaren multzoa. Haren ezaugarri dira prurito sakona eta papula txikiak. Prurigoaren zenbait eragile dira: alergiak, sendagaiak, asaldur endokrinokoak, gaixotasun gaiztoak eta bizkarroiak. *ES: Prurigo FR: Prurigo EN: Prurigo Arloa: Med.*
- Prurito:** iz. Larruzalean eta mukosetan nabaritzen den sentsazioa; hazka egiteko gogoia eragiten du. Bigarren mailako infekzioak ekartzen ditu sarritan. Pruritoaren eragile izan daitezke: alergiak, infekzioak, ikerizia, limfomak eta larruzaleko narritadura. *ES: Prurito FR: Prurit EN: Pruritus, itching Arloa: Med.*
- Pseudopodo:** iz. Zelula higikor, ameba edota leuzokito baten luzakin protoplasmatikoko iragan-korra; mugimendurako eta fagozitosirako erabiltzen dira. *ES: Seudópodo FR: Pseudopode EN: Pseudopod Arloa: Biol.*
- Psikastenia:** iz. Neurosi mota; haren ezaugarri dira: gauzak erabakitzeko ezintasuna, zalantzak, alferrikako kezak, eta munduari aurre egiteko indar falta, besteak beste. Errealitatearen funtzioaren ahultasunean oinarritzen da. *ES: Psicastenia FR: Psychasthénie EN: Psychasthenia Arloa: Psikol.*
- Psikasteniko:** 1. izond. Psikasteniarri dagokiona. 2. izond. Psikastenia duena. *ES: Psicasténico FR: Psychasthénique EN: Psychoasthenics Arloa: Psikol.*
- Psike:** iz. Pertsona baten gogo-ahalmena; prozesu kontzienteak eta inkontzienteak biltzen ditu. *ES: Pique FR: Psyché EN: Psyche*
- Psikiatra:** iz. Psikiatrian aditua den medikua; buruasalduen diagnostikoan, prebentzioan eta tratamenduan dihardu. *ES: Psiquiatra FR: Psychiatre EN: Psychiatrist*
- Psikiatria-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'psikiatriko'.
- Psikiatria:** iz. Medikuntzaren adarra; gogo-, emozio- edota portaera-asalduen zergatiaz, tratamenduz eta prebentzioaz arduratzen da. *ES: Psiquiatría*
- Psikiatriko:** izond. Psikiatriari dagokiona. *ES: Psiquiátrico FR: Psychiatrique EN: Psychiatric*
- Psikiko:** izond. Psikeari edo buru-jarduerari dagokiona. *ES: Psíquico FR: Psychique EN: Psychic*
- Psicoanalisi:** iz. Freudek sorturiko diziplina. Garapen psikologikoaz eta giza jarreraz arduratzen da. Asaldur psikikoaren tratamendurako erabiltzen den metodo psikoterapeutikoa da; metodo gisa erabiltzen ditu: asoziazio askea, ametsen interpretazioa eta babes-mekanismoen eta transferentziaren analisisa. Mekanismo horien bidez, kontziente bihurtzen dira inkontzientearen baitan gordetako kinaden ondoriozko emozioak eta jarrerak. *ES: Psicoanálisis FR: Psychanalyse EN: Psychoanalysis*
- Psicoanalista:** iz. Psicoanalisian heziketa berezia duen psikoterapeuta; teoria psikoanalitikoaren

- teknikak erabiltzen ditu. *ES:* Psicoanalista *FR:* Psychanalyste *EN:* Psychoanalyst
- Psikoanalitiko:** 1. izond. Psikoanalisiari dagokiona. 2. izond. Psikoanalisiaren teknikak erabiltzen dituen. *ES:* Psicoanalítico *FR:* Psychanalytique *EN:* Psychoanalytic
- Psikoanalizatu:** ad. Tratamendu psikoanalitikoaren edo jaso. *ES:* Psicoanalizar *EN:* To psychoanalyse
- Psikofisiologia:** iz. Psikologia experimentalaren adarra; jarduera mentalaren ikerketa egiten da, azterketa fisikoaren eta behaketaren bidez. *ES:* Psicofisiología *FR:* Psychophysiologie *EN:* Psychophysiology *Arloa:* Psikol.
- Psikoleptiko:** izond. (Gai bati buruz) Jarduera psikikoan eragin lasaigarria duena. *ES:* Psicoléptico *Arloa:* Med.
- Psikologia-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'psikologiko'.
- Psikologia:** iz. Zientziaren adarra; gizabanako baten edo giza talde baten portaera, gogamena eta horien prozesuak aztertzen ditu. *ES:* Psicología *FR:* Psychologie *EN:* Psychology
- Psikologiko:** izond. Psikologiari dagokiona. *ES:* Psicológico *FR:* Psychologique *EN:* Psychological
- Psikologo:** iz. Psikologian aditua; psikologiako prestakuntza eta titulua dituen. *ES:* Psicólogo *FR:* Psychologue *EN:* Psychologist
- Psicometría:** iz. Psikologiaren adarra; proba psikologikoak eta adimen-probak garatu, gauzatu eta interpretatzen ditu, besteak beste. Psikologiaren edukiak zenbakien bidez adieraztea du helburu psikometrikoa. *ES:* Psicometría *FR:* Psychométrie *EN:* Psychometry *Arloa:* Psikol.
- Psikomotor:** 1. izond. Aldi berean mugimenduari eta jarduera psikikoari dagokiena. 2. izond. Jarduera psikikoaren higidurazko ondorio multzoa. *ES:* Psicomotor *FR:* Psychomoteur *EN:* Psychomotor
- Psikomotrizitate:** iz. Mugimendu-jarduera, jardura psikikoarekin harreman estuan. Gizabanakoaren gizarteratze psikobiologikoa zehaztea ahalbidetzen du. *ES:* Psicomotricidad *FR:* Psychomotricité *EN:* Psychomotility *Arloa:* Psikol.
- Psikopatologia:** iz. Asaldu mentalen adierazpenen, prozesuen eta zergatien azterketa. *ES:* Psicopatología *FR:* Psychopathologie *EN:* Psychopathology
- Psikopatologiko:** izond. Psikopatologiari dagokiona. *ES:* Psicopatológico *FR:* Psychopathologique *EN:* Psychopathological *Arloa:* Med.
- Psikosi:** iz. Adimenaren goi mailako asaldua; jatorri organikoa edo emozionala du. Psikosian, errealitatearen zentzua galtzen da, eta gaixoaren nortasuna aldatzen. *ES:* Psicosis *FR:* Psychose *EN:* Psychosis
- Psikosi maniako-depresibo:** iz. Psikosi mota bat; gaixo berean, tartekatuta egiten dira maniari dagozkionaldiak eta malenkoniari dagozkionak. Egonkortasun psikikoa ezaugarri duten aldiek bereizten dituzte mania- eta malenkonia-aldie horiek. *ES:* Psicosis maniaco-depresiva
- Psikoterapeuta:** iz. Psikoterapiari diharduen profesionala; esate baterako: psikiatrak, psikologoak, erizain psikiatrikoak, gizarte-langile psikiatrikoak, eta abar. *ES:* Psicoterapeuta *FR:* Psychothérapeute *EN:* Psychotherapist
- Psikoterapeutiko:** izond. Psikoterapiari dagokiona. *ES:* Psicoterapéutico *FR:* Psychothérapeutique *EN:* Psychotherapeutic *Arloa:* Med.
- Psikoterapia:** iz. Metodo terapeutikoa; eritasun edo gatazka psikikoen tratamendurako erabiltzen den metodo psikologikoa da. Hitzeko tratamendua da batik bat, terapeutaren eta gaixoaren arteko harremanean oinarritzen dena. Banakakoa edo taldekakoa izan daiteke. *ES:* Psicoterapia *FR:* Psychothérapie *EN:* Psychotherapy
- Psikotiko:** 1. izond. Psikosiari dagokiona. 2. izond. Psikosia duena. *ES:* Psicótico *FR:* Psychotique *EN:* Psychotic
- Psikotropo:** izond. (Gai bati buruz) Bizitza psikikoan eragiten duena, edo haren jardura aldarazten duena. Era askotakoak izan daitezke, baina hiru mota nagusi bereizten dira: pizgarriak, lasaigarriak eta jarrera-aldaketak eragiten dituztenak. *ES:* Psicotropo, psicotrópico *FR:* Psychotrope *EN:* Psychotropic *Arloa:* Med.
- Psoas:** iz. Pelbiseko giharra; bi dira, eta gerri-onoen eta izterrezurreko tronkanter txikiaren gainean daude. Aldakaren eta gorputz-enborraren arteko flexioa ahalbidetzen dute. *ES:* Psoas *FR:* Psoas *EN:* Psoas *Arloa:* Anat.
- Psoriasis:** iz. Larruazaleko gaixotasun kronikoa; ondoretasunezkoa da. Plaka gorriak ditu ezaugarri; plaka horiek epitelio-zelulen gehiegizko garapeneren ondorioz eratutako ezkata lodia, lehor eta itsaskorrez estaliak daude. Edozein gunetan ager daitezke lesioak, baina maizago gorputzeko azalerarik handienetan, hezurren irtenguneetan, buru-azalean, belarrietan, sexu-organoetan eta ipurdi inguruko gunetan. *ES:* Psoriasis *FR:* Psoriasis *EN:* Psoriasis *Arloa:* Med.
- Pstalismo:** iz. Ikus 'sialorrea'.
- Pubertaro:** iz. Bizitzako aldieta bat, 12-14 urte bitartekoa; pubertaroan abiatzen da ugaltzaren funtzioa. Hainbat aldaketa fisiologiko eta morfologikoa gertatzen dira pubertaroan: ilea irteten da sexu-organoen inguruan, gizezko ahotsa aldatzen hasten zaie, emakumei bularrak garatzen zaizkie, gizezkoen lehen semen-isorketak eta emakumezkoen hilekoa gertatzen dira, eta abar. *ES:* Pubertad *FR:* Puberté *EN:* Puberty
- Pubis-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'pubiseko'.

- Pubis:** 1. iz. Gizakian, sabelaren behe-erdiko atala. 2. iz. Iskionarekin eta ilionarekin batera hezur koxala eratzen duen hezurra. *ES:* Pubis *FR:* Pubis *EN:* Pubis *Arloa:* Anat.
- Pubiseko:** izlag. Pubisaren guneari dagokiona. *ES:* Púbico *FR:* Pubien *EN:* Pubic *Arloa:* Anat.
- Puerperal:** iz. Erditze-ondoko berehalako aldiari dagokiona. *ES:* Puerperal *FR:* Puerpèral *EN:* Puerperal *Arloa:* Med.
- Puerperio:** iz. Erditze-ondoa; 6 asteko iraupena du gutxi gorabehera. Haurdunaldiak eragindako aldaketa fisiologiko eta anatomikoak bere onera etortzen dira, eta emakumea egoera berrira moldatzen da. *ES:* Puerperio, sobrepardo *FR:* Couches *EN:* Puerperium, postnatal confinement *Arloa:* Med.
- Puerperioko:** izlag. Ikus 'puerperal'.
- Puja:** iz. Edozein egitura bizidunen hasierako aldia; esate baterako, hanka bat edo beso bat sortzen hasten denekoa. *ES:* Brote
- Pultsazio:** iz. Organo baten zabaltze-mugimendu erritmikoa; bereziki, bihotzarena. *ES:* Pulsación *FR:* Pulsation *EN:* Pulsation
- Pultsu:** iz. Arterien uzkurtze- eta zabaltze-mugimendua, sistolea eta diastolea, hurrenez hurren; arteria baten gainean jarritako hatzek nabaritu dezakete. Bihotzaren ezker-bentrikuluak odola aortara bultzatzean eragindako odol-kolpearen ondoriozkoa da. *ES:* Pulso *FR:* Pouls *EN:* Pulse
- Pultsua hartu:** ad. Arteria-taupaden maiztasuna aztertu. *ES:* Pulsar *FR:* Tâter le pouls *EN:* To pulsate
- Punta:** iz. Zerbaiten alderik estuena edo zorrotzena. *ES:* Punta *FR:* Pointe *EN:* Point
- Puntu:** 1. iz. Leku edo gune fisiologiko txikia. 2. iz. Hari berezi batez emandako puntada, ebaki edo zauri baten bi aldeak elkartzeko eta sendatzeko. *ES:* Punto *FR:* Point *EN:* Punctum *Arloa:* Med.
- Purgazio:** iz. Katarsia; libragarri batek eragindako garbiketa. *ES:* Purgación *FR:* Catharsie *EN:* Purgation
- Puriko:** izond. (Molekulei buruz) Purinatik eratorria. Azido nukleikoan eta jarduera biokimiko handiko koentzimen eraketan parte hartzen dute base purikoeak (guanina eta adenina). *ES:* Púrico *Arloa:* Kim.
- Purina:** iz. Base nitrogenatu aromatikoa; pirimidinaren eratorria da. Hartutako proteinen digestioaren emaitza izan daitezke, edo, bestela, organismoak sintetizatuak. Gai natural askotan (adeninan, guaninan, xantinan, kafeinan eta azido urikoan, adibidez) konbinaturik agertzen da, eta izaera anfoterioa du. Sintesi organikoetan eta ikerketa biokimikoan erabiltzen da. *ES:* Purina *FR:* Purine *EN:* Purine *Oharrak:* Sendagai askotan eta hainbat gaitan egon daitezke purinak: kafeinan, teofilinan, bihotz-bizkorgarrietan, eta abar. *Arloa:* Biokim.
- Pusla:** iz. Ikus 'baba'.
- Putz:** iz. Ikus 'puzker'.
- Puzker:** iz. Uzkitik kanporatzen den gasa. *ES:* Pedo, ventosidad *FR:* Pet *EN:* Fart
- Puztu:** izond. Betea, mardula; odol-hodietan edo zelula arteko interstizioan likido gehiegi izatearen ondorioz handitua dagoena. *ES:* Turgente *FR:* Turgescence *EN:* Turgid

# R

.....

**Radio:** iz. Ra. Elementu kimiko metaliko eta erradioaktiboa, lurralkalinoen taldekoa. Curie senar-emazteek eta Bémont haien lankideak aurkitu zuten 1898an. Egun, radioaren 25 bat isotopo ezagutzen dira; erradioaktiboak dira guztiak. Naturan, uranioaren eta torioaren desintegrazio erradioaktiboaren ondorioz agertzen da. Gammagrafian eta curieterapian erabiltzen da, erradiazio-iturri modura. *ES:* Radio *FR:* Radium *EN:* Radium *Arloa:* Kim.

**Radon:** iz. Rn. Elementu gaseoso ez-metalikoa, erradioaktiboa, gas geldoen taldekoa. Minbizia-  
ren aurkako erradioterapian erabiltzen da. *ES:* Radón *FR:* Radon *EN:* Radon *Arloa:* Kim.

**Rictus:** iz. Ezpainen uzurdura, ahoari barre behartu itxura ematen diona. Nerbio-espasmo batzue-

tan ikusten da. *ES:* Rictus *FR:* Rictus *EN:* Rictus *Arloa:* Med.

**Rol:** iz. Talde batek taldeko kide bakoitzarengandik espero duen jarrera eta jokabidea; taldeko kideak duen parte-hartzearen arabera da. Parte-hartze sozialerako bitartekoak dira rolak. *ES:* Rol *FR:* Rôle *EN:* Role *Arloa:* Psicol.

**Rubidio:** iz. Rb. Elementu kimiko metalikoa. Alkalinoen taldekoa da, zuria eta biguna. Potasioaren oso antzekoa da, eta oso hedatua dago naturan, kantitate txikitik bada ere. Zertxobait erradioaktiboa denez, isotopo bidezko gammagrafietan erabiltzen da; zelula fotoelektrikoetan ere erabil daiteke. *ES:* Rubidio *FR:* Rubidium *EN:* Rubidium *Arloa:* Kim.

# S

- Sabel-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'abdominal'.
- Sabel:** iz. Gorputz-barrunbearen zatia; digestio-organoak, iraitz-organoak eta genitalak dauzka bere baitan. *ES:* Barriga *FR:* Ventre *EN:* Belly
- Sabel-huskin:** iz. Hondakina; digestio-hodian eratu eta uzkitik kanporatzen den gorotza. Urez, elikagaien hondakinez, bakterioz eta hestearen eta gibelaren jariakinez osatuta daude gorotzak. *ES:* Deposición, excremento *FR:* Fèces *EN:* Feces
- Sabela hustu:** ad. Ikus 'kaka egin'.
- Sabelalde:** iz. Ikus 'abdomen'.
- Sabelaldeko:** 1. izlag. Ikus 'abdominal'. 2. izlag. Sabelaldera dagoen jarrera bati dagokiona; aurreantz jarrita dagoena, edo aurrekoa. *ES:* Ventral *FR:* Ventral *EN:* Ventral *Arloa:* Anat.
- Sabelaldi:** iz. Ikus 'haurdunaldi'.
- Sabelean hazi:** 1. ad. Garatzen ari den umekia umetokian eraman. 2. ad. Heldutasunerantz astiro hazi eta garatu, fetua umetokian hazten den bezala. *ES:* Gestar *EN:* To gestate
- Sabeleko min:** iz. Espasmozko min labur eta bortitza hesteetan. Hesteetako asalduren batek eragina izan ohi da. *ES:* Retortijón *FR:* Congestion intestinale *EN:* Gripes
- Sabel-huste:** iz. Uzkitik gorozkiak kanporatzean datzan ekintza. *ES:* Deposition, defecación *FR:* Déposition, défécation *EN:* Defecation
- Sabelondo:** iz. Ikus 'puerperio'.
- Saburra:** iz. Zikintasan edo hondakina; bereziki, sukar-egoeretan hortzetan eta ezpainetan pilatzen da, elikagaien, mikroorganismoen edo epitelio-zelulen metaketaz. Urdail-saburra eratzen dute digeritu gabeko elikagaiak eta urdaileko mukiak. *ES:* Saburra *FR:* Saburre *EN:* Saburra *Arloa:* Med.
- Safena zain:** iz. Beheko gorputz-adarretako zain luzeak. Zango bakoitzean bi daude: erdialdeko safena eta albokoa; azaleko zainek jasotako odola biltzea da haien betebeharra. *ES:* Vena safena *FR:* Saphène *EN:* Saphena *Arloa:* Anat.
- Sagar:** iz. Sagarrondoaren fruitua; lagungarria da digestio-arazoetan. *ES:* Manzana *FR:* Pomme *EN:* Apple
- Sagital:** izond. Irudizko lerro bati dagokiona. Lerro hori gorputzaren edo atal baten erdiguneko aurreal-detik atzealdera doa zuzen. *ES:* Sagital *FR:* Sagittal *EN:* Sagittal *Arloa:* Anat.
- Saiakuntza:** iz. Ikus 'esperimentu'.
- Saiakuntzak egin:** ad. Ikus 'esperimentatu'.
- Saihespe:** iz. Ikus 'hipokondrio'.
- Saihestezin:** izond. Ezin saiheks daitekeena, eta ondorio txarrak dakartzana. *ES:* Fatal *FR:* Fatal *EN:* Fatal
- Saihets:** iz. Ikus 'albo'.
- Saihets arteko:** izlag. Bi saiheks-hezurren artean dagoena. *ES:* Intercostal *FR:* Intercostal *EN:* Intercostal *Arloa:* Anat.
- Saihets-azpi:** iz. Ikus 'hipokondrio'.
- Saihetseko:** 1. izlag. Saihetsari dagokiona. 2. izlag. Saihets batetik gertu dagoena. *ES:* Costal *FR:* Costal *EN:* Costal
- Saihets-hezur:** iz. Bular-eskeletoaren zati zabala osatzen duten 12 hezur zapaletariko bakoitza. Bizkar-ornoetan hasten dira, eta bular-kaiola osatzen dute. Egiazko saiheksak alde bakoitzeko lehen zazpi saiheksak dira, giltzadura zuzena baitute ornoekin eta bularrezurrarekin. Gainerako bost saiheksak saiheks faltsuak dira. *ES:* Costilla *FR:* Côte *EN:* Rib *Arloa:* Anat.
- Saio:** 1. iz. Eginbehar batean egiten den aldi edo ahalegina. *ES:* Sesión *FR:* Séance *EN:* Session 2. iz. Ikus 'esperimentu'.
- Saio-hodi:** iz. Beirazko hodia; mutur ireki bat du. Erreakzio kimikoak egiteko erabiltzen da, beroa jasateko duen ahalmenari esker. *ES:* Tubo de ensayo *FR:* Tube à essais *EN:* Test tube *Arloa:* Kim.
- Sakabanatze:** iz. Ikus 'barreiadura'.
- Sakarido:** iz. Karbohidratoen talde handiko osagaietako edozein, azukreak eta almidoiak barne. Ia karbohidrato guztiak sakaridoak dira. Molekulak dituen sakarido multzo kopuruaren arabera, monosakaridoak, disakaridoak, trisakaridoak eta polisakaridoak izan daitezke. *ES:* Sacárido *FR:* Saccharide *EN:* Saccharide *Arloa:* Kim.
- Sakarimetro:** iz. Disoluzio bateko azukre kantitatea zehazteko erabiltzen den tresna. *ES:* Sacárimetro *FR:* Saccharimètre *EN:* Sacchiremeter *Arloa:* Kim.
- Sakarina:** iz. Gai kristalinoa, oso gozoa. Hainbat helburutarako erabiltzen da: zapore txarreko sendagaiak estaltzeko, diabetesa duten gaixoetan azukrea ordezkatzeko, sosa-bikarbonatoarekin konbinatuta hesteetako antiseptiko gisa, eta abar. *ES:* Sacarina *FR:* Saccharine *EN:* Saccharin *Arloa:* Kim.
- Sakarometro:** iz. Ikus 'sakarimetro'.

- Sakarosa:** iz. Azukre mota; azukre-kanaberatik, azukre-erremolatxatik edota basartotik ateratzen da. Elikagaien industrian gozagarri gisa gehien erabiltzen den azukrea da. Glukosa batez eta fruktosa batez osatutako molekula da. Energia-iturri garrantzitsua da giza metabolismoan. *ES:* Sacarosa *FR:* Saccharose *EN:* Sucrose *Arloa:* Kim.
- Sakon:** izond. Barnerantz dagoena; azalekoa ez dena. *ES:* Profundo *FR:* Profonde *EN:* Deep
- Sakongune:** iz. Ikus 'beheragune'.
- Sakro-orno:** iz. Bizkarrezurreko bost segmentuetako bat; sakroa osatzen dute bostek elkaturik. *ES:* Vértebra sacra *FR:* Vertèbre sacrée *EN:* Sacral vertebra *Arloa:* Anat.
- Sakulu:** iz. Zaku edo poltsa txikia; bereziki, be-larriaren bestibuluan dagoen mintzeko labirinto-ko bi zatietan txikiena. Koklea hodira iristen da, barne-belarriko Hensen-en hodiaren bidez. *ES:* Sáculo *FR:* Sacculle *EN:* Sacculus *Arloa:* Anat.
- Salbatu:** ad. Arrisku larri batetik onik atera edo aterarazi. *ES:* Salvar *FR:* Sauveter *EN:* To rescue
- Salmonella:** iz. Salmonellosia eragiten duten bakterio gramnegatiboen generoa. Bakterio mugikorak dira, makila-formakoak. Salmonellosien artean sailkatzen dira: sukar paratifoidea, sukar tifoidea eta zenbait gastroenteritis mota. *ES:* Salmonella *FR:* Salmonella *EN:* Salmonella *Arloa:* Mikrob.
- Salmonellosi:** iz. Gastroenteritis mota; *Salmonella* generoko espezieek kutsatutako elikagaiak irenste-aren ondoriozkoa da. Haren ezaugarri dira: 6-48 orduko inkubazioaldia, sabelaldeko bat-bateko mina (koliko-itxurakoa), sukarra eta beherako urtsu eta odoltsua. Maiz agertzen dira goragalea eta okadak ere, eta sabelaldeko sintomak apendizitisean eta kolezistitis akutuan agertzen direnen modukoak dira. Sintomek 2-5 egun inguru irauten dute, baina 2 aste iraun dezakete beherakoak eta sukarrak. Deshidratazioa ere gerta daiteke. *ES:* Salmonelosis *FR:* Salmonellose *EN:* Salmonellosis *Arloa:* Med.
- Sama:** iz. Ikus 'lepo'.
- Samingarri:** izond. Ikus 'mingarri'.
- Saneamendu:** iz. Hiri, herri, eta hainbat guneren higiene-baldintzen hobekuntza. *ES:* Saneamiento *FR:* Assainissement *EN:* Sanitation
- Sanitario:** 1. izond. Osasunari dagokiona, edo osasuna mantentzen nahiz sustatzen duena. 2. izond. Osasun talde batean diharduen gazabanakoa. *ES:* Sanitario *FR:* Sanitaire *EN:* Sanitary
- Saponifikatu:** ad. Gantzak xaboi bihurtu. *ES:* Saponificar *EN:* To saponify *Arloa:* Kim.
- Saponifikazio:** iz. Gantzak xaboi bihurtzeko ekin-tza edo prozesua. *ES:* Saponificación *FR:* Saponification *EN:* Saponification *Arloa:* Kim.
- Sarbide:** 1. iz. Kirurgiagunera iristeko modua. 2. iz. Hemodialisian, odol-zirkulaziora iristea. *ES:* Acceso
- Sare-ehun:** iz. Nodulu linfatikoak eratzen dituen ehuna. Ehun konjuntibo mota bat da, zuntzeko sare batez osatua, eta zelula linfoideak daude han. Faringeko amigdalak eratzen ditu. *ES:* Tejido reticular *EN:* Adenoid tissue
- Saretu:** izond. Ikus 'erretikulatu'.
- Sarkoma:** iz. Ehun bigunetako neoplasia gaiztoa. Zuntz-, gantz- eta gihar-ehunetan, nahiz ehun sinobialean, baskularrean edo neuralean du jatorria, eta mingarria ez den hanturazko prozesu gisa agertzen da. Eskuarki, oso erasokorra izaten da tumor hori. *ES:* Sarcoma *FR:* Sarcome *EN:* Sarcoma *Arloa:* Med.
- Sarraski:** iz. Hilketa izugarria; gizaki askori bizia kentzea. *ES:* Exterminio *FR:* Extermination *EN:* Extermination
- Sartu:** ad. Ikus 'barneratu'.
- Sartze:** iz. Ikus 'barneratze'.
- Sasimediku:** iz. Ikus 'petrikilo'.
- Sasoi aurreko:** izlag. Ikus 'garaiz aurreko'.
- Sastada:** iz. Ikus 'ziztada'.
- Satelite:** iz. Arteria baten bidea jarraitzen duen zain, gihar edo nerbioa. *ES:* Satélite *FR:* Satellite *EN:* Satellite
- Seborrea:** iz. Larruazalean maiz gertatzen den asaldua; azalean koipe gehiegi pilatzen da bilgor gehiegi jariatzearen ondorioz, eta ezkata lehorrak agertzen dira. *ES:* Seborrea *FR:* Séborrhée *EN:* Seborrhea *Arloa:* Med.
- Sedimentatu:** ad. Isurkari batean esekiduran dau-den gaiak hondoan pilatu, eta sedimentua eratu. *ES:* Sedimentarse *FR:* Se précipiter *EN:* To settle *Arloa:* Med.
- Sedimentazio:** iz. Material disolbaezinen metaketa, isurkari baten hondoan. Prozesua zentrifugazioaren bidez azkartu daiteke. *ES:* Sedimentación *FR:* Sédimentation *EN:* Sedimentation *Arloa:* Med.
- Sedimentu:** iz. Material disolbaezinen metaketa, likido-edukiontzi baten hondoan. *ES:* Sedimento *FR:* Sédiment *EN:* Sediment *Arloa:* Med.
- Segida:** iz. Ikus 'sekuentzia'.
- Segmentatu:** ad. Segmentutan banatu. *ES:* Segmentar *FR:* Segmenter *EN:* To segment *Arloa:* Biol.
- Segmentatu:** izond. Segmentutan banatua dagoena. *ES:* Segmentado *Arloa:* Zool.
- Segmentazio:** iz. Banatzeko edo zatitzeko prozesua. Ernaldutako obuluan eta behe mailako organismoetan gertatzen da gehienbat. *ES:* Segmentación *FR:* Segmentation *EN:* Segmentation *Arloa:* Biol.
- Segmentu:** iz. Organo edo egitura baten osagaia nahiz zatia. *ES:* Segmento *FR:* Segment *EN:* Seg-



- ment *Adibideak*: Segmentuak dira gibelaren lobuluak eta hesteen atalak. *Arloa*: Biol.
- Segregazio**: iz. Genetikan, meiosiari dagokion printzipioa; bi gurasoen geneak daramatzaten kromosoma bikote eramaileak meiosian banatzen direla ziurtatzen du. Zoriak erabakitzen du zein gene —aitarena ala amarena— joango den gameto bakoitzera. *ES*: Segregación *FR*: Ségrégation *EN*: Segregation
- Seinale**: iz. Zerbait adierazgarria; zerbait adierazteko erabiltzen den ikurra. *ES*: Señal *FR*: Signal *EN*: Signal
- Sekrezio**: iz. Ikus 'jariakin'.
- Sektore**:- (Hitz elkartuetan) Ikus 'sektorial'.
- Sektore**: iz. Osotasun baten zatia, modu jakin batean mugatua. *ES*: Sector *FR*: Secteur *EN*: Sector
- Sektorial**: izond. Sektore bati dagokiona. *ES*: Sectorial *EN*: Sectorial
- Sekuentzia**: iz. Objektu eta gertakarien banaketaren ordena. *ES*: Secuencia *FR*: Séquence *EN*: Sequence *Oharrak*: Proteinetan, aminoazidoek sekuentzia jakina dute.
- Sekundario**: izond. Bigarren mailakoa; ordenan, denboran eta lekuan bigarrena, edo beste baten mendekoa. *ES*: Secundario *FR*: Secondaire *EN*: Secondary *Arloa*: Biol. *Oharrak*: 'Albo-ondorio' erabiltzen da efektu sekundarioa adierazteko.
- Selektibo**: izond. Bere baitan hautespen-joera duena. *ES*: Selectivo *FR*: Sélective *EN*: Sélectif, selective
- Semen**:- (Hitz elkartuetan) Ikus 'seminifero'.
- Semen**: iz. Isurkari zurixka eta lodia, ugal-organoren artean eiaikulazioan uretratik jariatua. Barrabilek, epididimoak, semen-xixkuek, prostatak eta Cowper-en guruinekin hartzen dute parte espermaren eraketan. Espermatozoideak dira semenaren osagai nagusiak, eta prostataren semen-xixkuen eta beste hainbat guruinen jariakinak ere baditu; 2 eta 5 cm<sup>3</sup> bitartekoa izaten da eiaikulazio bakoitzeko isurkari kantitatea, eta 60-120 bat miloi espermatozoide kanporatzen dira esperma-isurialdi bakoitzeko. *ES*: Semen *FR*: Sperme *EN*: Semen *Arloa*: Biol.
- Semen-xixku**: iz. Gizonezkoen gernu-maskuriaren atzealdean dauden bi guruin-egituretako bakoitza; hodi eiakulatzaileak osatzen dituzte hodi deferenteekin batera, eta uretrara iristen dira. Ugal-sisteman parte hartzen dute. Semen-xixkuek likido bat ekoizten dute; likido hori barrabilen eta beste zenbait guruinen jariakinari gehitzen zaio, eta denen artean semena osatzen dute. *ES*: Vesícula seminal *FR*: Vésicule séminale *EN*: Seminal vesicle *Arloa*: Anat.
- Seminal**: izond. Espermari edo haziarri dagokiona. *ES*: Seminal, espermático *FR*: Seminal *EN*: Seminal *Arloa*: Biol.
- Seminifero**: izond. Semena garraiatzen edo sortzen duena; esate baterako, barrabil-hodiak. *ES*: Seminífero *FR*: Séminifères *EN*: Seminiferous *Arloa*: Biol.
- Senda**(-): (Hitz elkartuetan) Ikus 'sendagarri'. *ES*: Curativo, -a *FR*: Curatif *EN*: Curative
- Sendabelar**: iz. Sendagintzan erabiltzen den belarra edo landarea. *ES*: Hierba medicinal *FR*: Plante médicinale *EN*: Medicinal plant
- Sendabide**: iz. Gaixotasun edo asalduren bat duen pertsona batek osasuna berreskuratzeko prozesua. *ES*: Curación *FR*: Guérison *EN*: Healing
- Sendaezin**: izond. Mediku-tratamenduaren edo tratamendu kirurgikoaren aurrean erreakzionatzen ez duena. *ES*: Incurable *FR*: Incurable *EN*: Incurable
- Sendagai**:- (Hitz elkartuetan) Medikamentu bati dagokiona, hark eragindako aurkako erreakzioei bereziki. *ES*: Medicamentoso *EN*: Medicamentous *Arloa*: Med.
- Sendagai**: iz. Helburu terapeutikoetarako ematen den gaia. Gaixotasunak sendatzea, diagnostikatzeara edota haiei aurrea hartzea du helburu nagusi. *ES*: Medicamento, fármaco *FR*: Médicament *EN*: Drug *Arloa*: Med.
- Sendagaitz**: izond. Ikus 'sendaezin'.
- Sendagarri**: 1. izond. Gaixotasun edo sintoma bat senda dezakeena. *ES*: Curativo, -a *FR*: Curatif *EN*: Curative 2. izond. Senda daitekeen gaixotasuna. *ES*: Curable *FR*: Réparable *EN*: Curable
- Sendagile**: iz. Ikus 'mediku'.
- Sendagilearen bulego**: iz. Ikus 'kontsultategi'.
- Sendagor**: izond. Tratamenduen aurrean lehen-goan jarraitzen duena. *ES*: Refractario *Arloa*: Med.
- Sendaketa**: iz. Osasun-arazo baten tratamendurako sendagaia, tratamendua edota neurri terapeutikoa erabiltzea. *ES*: Cura *FR*: Cure *EN*: Cure
- Sendakuntza**: iz. Ikus 'sendabide'.
- Sendatu**: 1. ad. Gaixo bati bere gaixotasunari dagokion sendabideak jarri. *ES*: Curar *FR*: Guérir *EN*: To cure, to heal 2. ad. Galdutako osasuna berreskuratu. *ES*: Sanar *FR*: Guérir *EN*: To heal, to cure
- Sendatzaile**: izond. Ikus 'sendagarri'.
- Sendatze**: iz. Ikus 'sendabide'.
- Sendo**: izond. Ikus 'osasuntsu'.
- Sendo**: izond. Ikus 'osasuntsu'.
- Senil**: izond. Zahartzarokoa, zahartzaroarekin zerkusia duena, edo haren ezaugarriak dituena; bereziki, zahartzaroarekin batera agertzen diren endekapen fisiko nahiz mentalak. *ES*: Senil *FR*: Sénile *EN*: Senile *Arloa*: Med.
- Sentibera**: izond. Sentipenak jasotzen dituena. *ES*: Sensible *FR*: Sensible *EN*: Sensitive

- Sentiberatasun:** iz. Ikus 'sentimen'.
- Sentikor:** izond. (Mikroorganismo mota bati buruz) Mikrobioen kontrako sendagaien dosi txikien aurrean ere asaldatzen dena. *ES:* Sensible
- Sentikortasun:** iz. Ikus 'sentimen'.
- Sentikortze:** iz. Ikus 'sentsibilizazio'.
- Sentimen-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'sentimenezko'.
- Sentimen:** iz. Sentsazioak —fisikoak zein psikologikoak— hautemateko ahalmena. *ES:* Sensibilidad *FR:* Sensibilité *EN:* Sensitivity
- Sentimenezko:** izlag. Organismoko zentzumen-nerbioen sare osoari edo haren zati bati dagokiona. *ES:* Sensitivo *FR:* Sensitif, sensoriel *EN:* Sensitive, sensory *Arloa:* Biol.
- Sentimen-organo:** iz. Ikus 'zentzumen-organo'.
- Sentipen:** iz. Egoera mental edo emozional baten pertzepzioa; ez du zertan kanpo-kinada batek eragina izan. *ES:* Sensación *FR:* Sensation *EN:* Sensation *Arloa:* Biol.
- Sentipenezko:** izlag. Sentipenak jasotzeko gai dena. *ES:* Sensorial
- Sentsazio:** iz. Ikus 'sentipen'.
- Sentsibilitate:** iz. Ikus 'sentimen'.
- Sentsibilizatu:** ad. Gai antigenoekiko kontaktuan sentikor bihurtu. *ES:* Sensibilizar *FR:* Sensibiliser *EN:* To sensitize
- Sentsibilizatu:** izond. Gai antigenoekiko kontaktuan sentikor bihurtu dena. *ES:* Sensibilizado *FR:* Sensibilisé *EN:* Sensibilized
- Sentsibilizazio:** iz. Hartutako erreakzioa; erreakzio horren bidez, antigeno baten aurrean erreakzionatzeko antigorputzak garatzen dira. Txertaketan, aurrez pentsatuta egiten da, organismo patogeno bat injektatuz. Organismo patogenoa aldatua egoten da infekzioa sortzeko gaitasunik izan ez dezan, baina, hala ere, gaixotasunari aurka egiteko antigorputzak sorraraz ditzake. *ES:* Sensibilización *FR:* Sensibilisation *EN:* Sensitization
- Sentsore:** iz. Kinada fisikoen aurrean erreakzionatzeko prestatutako tresna; esate baterako, tenperaturaren, argiaren edo mugimenduaren eraginez funtzionatzen duen tresna. *ES:* Sensor *FR:* Capteur, détecteur *EN:* Sensor
- Septiko:** izond. Ustelteza eragiten duena, edo usteltezak eragina dena. *ES:* Séptico *FR:* Septique *EN:* Septic *Arloa:* Med.
- Septizemia:** iz. Infekzio orokorra; odol-zirkulazioan bakterio patogenoak daudenean gertatzen da. Septizemiaren ezaugarri dira: sukarra, hotzikarak, ahulezia, mina, buruko mina, eta okadak nahiz beherakoak. *ES:* Septicemia *FR:* Septicémie *EN:* Septicemia *Oharrak:* Hipotentsioarekin batera agertzen bada, gaixoak shock septikoa duela esaten da. *Arloa:* Med.
- Septu:** iz. Organo baten edo organismoko beste edozein egituraren barrunbea banatzen duen horma. *ES:* Septo, septum, tabique *FR:* Septum, cloison *EN:* Septum *Arloa:* Anat.
- Serodiagnostiko:** iz. Serologia-proba multzoa gaixotasun bat diagnostikatzeko. Odolean detektatzen dira antigenoaren aurkako antigorputzak. Antigorputzik agertzen ez bada, pertsona seronegati-boa da; antigorputzak agertzen badira, berri-zein, seropositiboa. *ES:* Serodiagnóstico *FR:* Sérodiagnostique *EN:* Serodiagnosis *Oharrak:* GIBA edo hepatitisak (A, B, C eta D) diagnostikatzeko erabiltzen da. *Arloa:* Med.
- Serologia:** iz. Biokimika medikoaren adarra; gazura aztertzen da gaizko adurak aurkitzeko, *in vitro* antigeno-antigorputz erreakzioen balioesperekin bidez. *ES:* Serología *FR:* Sérologie *EN:* Serology *Arloa:* Med.
- Seronegati-boa:** izond. Proba serologikoan emaitza negati-boa izan duena. *ES:* Seronegativo *FR:* Séronégatif *EN:* Seronegative *Arloa:* Med.
- Seropositiboa:** izond. Proba serologikoan emaitza positiboa izan duena. *ES:* Seropositivo *FR:* Séropositif *EN:* Seropositive *Arloa:* Med.
- Serosa:** iz. Ehun konektibozko mintz mehea; gorputz-barrunbeak estaltzen ditu, eta jario urtsua du. *ES:* Serosa *FR:* Séreuse *EN:* Serosa *Arloa:* Biol.
- Serositate:** iz. Likido serosoan ezaugarria. *ES:* Serosidad *FR:* Sérosité *EN:* Serosity *Arloa:* Med.
- Seroso:** izond. Gazuraren antzekoa dena, edo hari dagokiona. *ES:* Seroso *FR:* Séreux *EN:* Serous *Arloa:* Biol.
- Seroterapia:** iz. Metodo terapeutikoa; gizakiaren edo animalia baten gazur immunizatzailea erabiltzeko erabiltzen da, intoxikazioak, pozoiketak edo gaizko adurak sendatzeko nahiz haiei aurre egiteko. *ES:* Serumterapia, seroterapia *FR:* Sérothérapie *EN:* Serum therapy, serotherapy *Arloa:* Med.
- Serum-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'seroso'.
- Serum:** iz. Txerto edo toxoidea; emaitza hiperimmune baten gazura hartuz prestatzen da, gaizko adura jakinei aurre egiteko. *ES:* Serum *FR:* Sérum *EN:* Serum *Arloa:* Med., Biol.
- Sesil:** izond. Oinaldetik lotua dagoena, zurtoin edo pedunkulu batetik egon beharrean. *ES:* Sésil *FR:* Sessile *EN:* Sessile
- Sexologia:** iz. Sexuaren eta haren inguruko arazoaren ikerketaz arduratzen den zientzia. *ES:* Sexología *FR:* Sexologie *EN:* Sexology
- Sexologo:** iz. Sexologian aditua. *ES:* Sexólogo *FR:* Sexologue *EN:* Sexologist
- Sexu-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'sexual'.
- Sexu:** iz. Arraren eta emearen arteko bereizketa ahalbidetzen duen ezaugarri organikoaren multzoa; kontuan hartzen dira, besteak beste, ezaugarri anatomikoak eta kromosomikoak. *ES:* Sexo *FR:* Sexe *EN:* Sex

**Sexu bidezko:** izlag. Ikus 'sexual'.

**Sexu bidezko ugalketa:** iz. Ugalketa mota; gameto arra —espermatozoidea— eta emea —obulua— elkartuz gertatzen da. *ES:* Reproducción sexual *FR:* Reproduction sexuée *EN:* Sexual reproduction *Arloa:* Biol.

**Sexu bietako:** izlag. Ikus 'bisexual'.

**Sexual:** izond. Sexuari edo sexualitateari dagokiona. *ES:* Sexual *FR:* Sexuel *EN:* Sexual

**Sexualitate:** iz. Ezaugarri fisiko, funtzional eta psikologikoen multzoa; sexuaren beraren identitateak eta sexu-jokabideak azaltzen ditu. Ez dago beti sexu-organoekin lotua. *ES:* Sexualidad *FR:* Sexualité *EN:* Sexuality

**Sexuatu:** izond. Ikus 'sexudun'.

**Sexu-batze:** iz. Ikus 'koito'.

**Sexudun:** izond. Sexua duena, sexugabeari kontrajarria. *ES:* Sexuado *FR:* Sexué *EN:* Sexed *Arloa:* Biol.

**Sexu-ezaugarriak:** iz. Ondoretasun-bereizgarria; norbanako arrak eta emeak bereizten dituen anatomia- eta funtzio-ezaugarriak hartzen ditu bere baitan. *ES:* Caracteres sexuales

**Sexu-ezintasun:** iz. Ikus 'inpotentzia'.

**Sexugabe:** izond. Ikus 'asexual'.

**Sexu gabeko:** izlag. Ikus 'asexual'.

**Sexu bidezko gaixotasun:** iz. Ikus 'gaixotasun bereño'.

**Sexu-harreman:** iz. Bi pertsonaren arteko bateratze sexuala. Horren ondorioz, oro har, elkarrenganako kitzikapena eta, gehienetan, orgasmoa lortzen da. *ES:* Relación sexual *FR:* Rapports sexuels *EN:* Sexual intercourse

**Sexu-organo:** iz. Gorputzak ugalketarako duen organoa; kanpokoak (emakumeetan, bulba eta ingurukoak; gizonezkoetan, zakila eta eskrotoa) edo barnekoak (emakumeetan, bagina, umetokia, tronpak eta obulutegiak; gizonezkoetan, barrabilak, epididimioa, hodi deferenteak, semen-xixkuak, prostata eta uretrako guruinak) bereizten dira. *ES:* Órgano genital *FR:* Organe génital *EN:* Genital organ

**Sexu-perbertsio:** iz. Pertsona helduaren portaera normalizat hartzen denetik urruntzen den sexu-jokabidea. *ES:* Perversión sexual *FR:* Perversion sexuelle *EN:* Sex deviant, sexual perversion

**Shock:** iz. Organismoko ehunetara odol gutxiegi iristeak eragiten duen asaldua. Ondorioz, zelulen disfunczioa, hipotentsioa eta oliguria gertatzen dira, eta bizitza arriskuan jartzen da. Oro har, zirkulazio-gutxiegitasunarekin du zerikusia asaldu horrek. *ES:* Shock *FR:* Choc *EN:* Shock *Oharrak:* Shock motak dira: hipobolemiakoa (odoljarioak, beherakoak...), kardiogenikoa (bihotz-arazoek eragina), distributiboa (septikoa, anafolaktikoa edo neurogenikoa). *Arloa:* Med.

**Shunt:** iz. Ikus 'deribazio'.

**Sialorra:** iz. Gehiegizko listu-jarioa. Hainbat asaldura izan ditzake eragile: ahoko hantura akutua, adimen-atzerapena, merkuralismoa, haurdunaldia, hortzeriaren agerrera, alkoholismoa eta elikadura okerra. *ES:* Sialorra *FR:* Sialorrhée, ptyalisme *EN:* Sialorrhea, ptyalism *Arloa:* Med.

**Sifili:** iz. Gaixotasun kutsagarria; endemikoa eta kronikoa da. *Treponema pallidum* protozoook eragiten du, eta sexu-harremanen bidez kutsatzen da ia beti. Urte asko irauten duten hainbat alditan garatzen da. Edozein sistema organikori erasan diezaiokie. Lesioak —ultzerak— gorputzeko edozein gunetan ager daitezkeen arren, uzkiaren eta kanpoko sexu-organoen inguruan agertzea da ohikoa. Maiz nerbio-sistemari erasaten dio, eta gaixotasun larriak eragin ditzake —erabateko paralisia, besteak beste—. Ondorengoei transmititzen zaie. Tratamendurako, penizilina erabiltzen da. *ES:* Sífilis *FR:* Syphilis *EN:* Syphilis *Arloa:* Med.

**Sifilitiko:** izond. Sifiliari dagokiona, sifiliaren antza duena, nahiz sifiliz kutsatuta dagoena. *ES:* Sifilitico *FR:* Syphilitic *EN:* Syphilitique *Arloa:* Med.

**Silikona:** iz. Silizioaren konposatu polimeriko organiko bat; isolatzaile elektriko moduan erabil daiteke, eta baita material iragaztezinak egiteko eta pieza elektrikoak gordetzeko ere. Medikuntzan ere erabiltzen da, protesi-tresnak egiteko. *ES:* Silicona *FR:* Silicone *EN:* Silicone *Arloa:* Kim.

**Silikosi:** iz. Biriketako gaixotasuna, silizio dioxidoaren hautsa denbora luzez era jarraituan arnas-tearen ondoriozkoa. Biriketako fibrosi nodularren garapena du ezaugarri. Kasu aurreratuetan, disnea larria ager daiteke. Hainbat lanbidetan —hargintzan, meatzaritzan eta abarretan— dihardutenei erasaten die, batez ere. *ES:* Silicosis *FR:* Silicose *EN:* Silicosis *Arloa:* Med.

**Sinapismo:** iz. Ziape beltzaren haziekin egiten den ukendua. *ES:* Sinapismo *FR:* Sinapisme *EN:* Sinapism *Arloa:* Med.

**Sinapsi-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'sinaptiko'.

**Sinapsi:** 1. iz. Neurona baten axoiaren eta beste baten dendriten edo gorputzaren arteko gunea; nerbio-bulkadaren transmisioa gertatzen da gune horretan. Nerbio-bulkadaren transmisioa bitartekari kimikoen —adrenalina, noradrenalina, eta abar— bidez gertatzen da. Sinapsiak polarizatuak daudenez, norantza berean joaten dira beti nerbio-bulkadak. 2. iz. Kromosoma homologoak binaka antolatzea; gametogenesiaren hasierako meiosisaldian gertatzen da, kromosoma bikoitzak eratzeko. *ES:* Sinapsis *FR:* Synapse *EN:* Synapse *Arloa:* Biol.

**Sinaptiko:** izond. Sinapsiari dagokiona. *ES:* Sináptico *FR:* Synaptique *EN:* Synaptic

- Sinartrosi:** iz. Giltzadura mota berezia; mugikortasunik eza du ezaugarri. Hezurrak bata besteari lotzen zaizkio, ehun konektiboaren edo kartilagoaren bitartez. *ES:* Sinartrosis *FR:* Synarthrose *EN:* Synarthrosis *Arloa:* Anat.
- Sinbiosi-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'sinbiotiko'.
- Sinbiosi:** iz. Bi organismoren edo gehiagoren arteko bizimodua; elkarri kalterik ez egitea edo batak bestea bere onurarako erabiltzea du ezaugarri. *ES:* Simbiosis *FR:* Symbiose *EN:* Symbiosis *Arloa:* Biol.
- Sinbiotiko:** izond. Sinbiosiari dagokiona. *ES:* Simbiótico *FR:* Symbiotique *EN:* Symbiotic *Arloa:* Biol.
- Sindrome kartzinoide:** iz. Serotonina jariatzen duten tumor kartzinoideen adierazpen sistemikoa; serotonina eta prostaglandina gehiegi jariatzearen ondorioz gertatzen da. Gorritasuna, beherakoa, karranpak, larruazaleko lesioak, arnasteko zailtasuna, palpitazioak eta balbulopatiak eragiten ditu. Tumorra erauziz sendatzen da. *ES:* Carcinóide, síndrome *FR:* Syndrome carcinoïde *EN:* Carcinoid syndrome *Arloa:* Med.
- Sindrome:** iz. Zeinu eta sintoma multzoa; gaixotasun-egoera jakin bat klinikoki zehazten du. *ES:* Síndrome *FR:* Syndrome *EN:* Syndrome *Adibideak:* Bihotz-gutxiegitasuna, shocka, arnas gutxiegitasuna, eta abar. *Arloa:* Med.
- Sindrome nefrotiko:** iz. Ikus 'nefrosi'. *ES:* Síndrome nefrótico *FR:* Syndrome néphrotique *EN:* Nephrotic syndrome
- Sindrome tifiko:** iz. Hainbat gaixotasun kutsagarriren sintoma multzoa. Síndrome tifikoaren ezaugarri dira: nerbio-asalduak (buruko mina, eldarnioa, ataxia, eta abar), digestio-asalduak (goitikak, anorexia, beherakoak eta abar), sukarra eta esplenomegalia. *ES:* Síndrome tifico *FR:* Syndrome typhique *EN:* Typhous syndrome
- Sinergia:** iz. Bi gaik edo bi organok batera hasten duten prozesua, batak bestearen funtzioa eragin dezan. *ES:* Sinergia *FR:* Synergie *EN:* Synergy *Arloa:* Biol.
- Sinestesia:** iz. Bi motatako nahiz gehiagoko sententzioak elkarrekin azaltzen diren fenomenoak; esate baterako, hots jakin batek dakarren ikusmen-sententzioa. *ES:* Sinestesia *FR:* Synesthésie *EN:* Synesthesia *Arloa:* Med.
- Sinfisi:** 1. iz. Loturagunea. Bereziki kartilago-giltzadura, aldameneko hezur-azalerak fibrokartilagoz sendo lotuak dituena. 2. iz. Bi mintz serosoren arteko atxikidura patologikoa, gehienetan hantura ostekoa. *ES:* Sínfisis *FR:* Symphyse *EN:* Symphysis *Arloa:* Biol.-Med.
- Sinkope:** iz. Korde-galera laburra; garuneko hipoxia iragankorrak eragina da. Garuneko hipoxia horren eragile izan daitezke: oinaze bizia, odol-jarioak, traumatismo eta zirrara bortitzak, bihotzekoa, bradikardia, eta abar. Sinkopearen aurretik, zorabioa agertzen da eskuarki. Sinkopeari aurre egin dakioke eseriz nahiz etzanez, eta burua belaun artean jarriz. Berehala suspertu ezean, atropina eta analeptikoak erabil daitezke. *ES:* Síncope *FR:* Syncope *EN:* Syncope *Arloa:* Med.
- Sinkronia:** iz. Gertakariak edo fenomenoak aldi berean gertatzearen ezaugarria. *ES:* Sincronía, sincronismo *FR:* Synchronie *EN:* Synchrony
- Sinkroniko:** izond. Aldi berean gertatzen dena. *ES:* Sincrónico *FR:* Synchrone *EN:* Synchronic
- Sinkronizatu:** ad. Bi gertaera nahiz gehiago aldi berean gertarazi. *ES:* Sincronizar *FR:* Synchroniser *EN:* To synchronize
- Sinkronizazio:** iz. Sinkronizatzeo ekintza eta haren ondorioa. *ES:* Sincronización *FR:* Synchronisation *EN:* Synchronization
- Sinobia:** iz. Hezur-giltzaduren barrunbeetako isurkari garden likatsua; giltzadurak, lotailuak eta poltsak labainarazten ditu. Mintz sinobialek jariatzen dute, eta muzinaz, gantzez, albuminaz eta gatz mineralaz osatua dago. *ES:* Sinovia *FR:* Synovie *EN:* Synovia *Arloa:* Anat.
- Sinobial:** izond. Sinobiari dagokiona. *ES:* Sinovial *FR:* Synoviale *EN:* Synovial *Arloa:* Anat.
- Sinpatiko:** izond. Nerbio-sistema autonomoa osatzen duten bi zatietako bati dagokiona. Haren funtzioak dira: erraiak eta odol-hodiak inerbatzea, digestioa moteltzea, bihotz-taupadak bizkortzea, odol-hodiak uzurtzea, eta abar; era horretan, gorputza estres-egoerei aurre egiteko prestatzen du. Oro har, nerbio-sistema parasinpatikoaren aurkako eragina du. *ES:* Simpático *FR:* Sympathique *EN:* Sympathetic *Arloa:* Anat.
- Sintomarikgabe:** izond. Ikus 'asintomatiko'.
- Sintoma:** iz. Asaldu organiko nahiz funtzional baten adierazpena; gaixoak bakarrik atzematen du, subjektiboa baita. *ES:* Síntoma *FR:* Symptôme *EN:* Symptom *Adibideak:* Mina, esate baterako, sintoma bat da. *Arloa:* Med.
- Sintomatiko:** 1. izond. Sintomei dagokiena. 2. izond. Sintomak ematen dituena. *ES:* Sintomático *FR:* Symptomatique *EN:* Symptomatic *Arloa:* Med.
- Sintomatologia:** iz. Gaixotasunaren sintomak orokorrean nahiz gaixotasun jakin baten sintomak aztertzen dituen zientzia. *ES:* Sintomatología *FR:* Symptomatologie *EN:* Symptomatology *Arloa:* Med.
- Sinu:** 1. iz. Organismoko espazio edo barrunbe hutsa. 2. iz. Garezur barneko zain-hodia. *ES:* Seno *FR:* Sinus *EN:* Sinus
- Sinusitis:** iz. Aurpegiko hezur-sinuetako mukosaren hantura. Birusak eta zornea dira haren eragi-

- le nagusiak, baina beste zenbait patologiaren ondorio ere izan daiteke: goiko arnasbideetako infekzioa, hortzetako gaizkoadura, alergia, atmosferako aldaketak, eta abar. Sudur-mukosaren hanturaren ondorioz, sinuen irekiguneak buxatu egin daitezke, eta jariaकिनak pilatu. Buxaketa horrek presio-sentsazioa, mina, zefalea, sukarra eta gune horretako hipersentsibilitatea eragiten ditu. *ES: Sinusitis FR: Sinusite EN: Sinusitis Arloa: Med.*
- Sinusoidal:** izond. Sinusoideari dagokiona. *ES: Sinusoidal FR: Sinusoïdal EN: Sinusoidal*
- Sinusoid-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'sinusoidal'.
- Sinusoid:** iz. Odol-hodia; kapilarrak baino zertxobait handiagoa da, eta zelula erretikular-endotelialez estalia dago. Hainbat organotan aurki daiteke: gibelean, pankrean, giltzurrun gaineko gururinetan, eta abar. *ES: Sinusoide FR: Sinusoïde EN: Sinusoid*
- Sistema:** iz. Hainbat atalen multzoa, elkartzean osotasun bat eratzen duena. Sistema fisiologikoak organismoaren bizi-funtzioetarako bereziki prestaturiko egituraz osatuak daude; esate baterako, sistema kardiobaskularra edo ugal-sistema *ES: Sistema FR: Système EN: System*
- Sistema baskular:** iz. Gorputzeko hodi guztien multzoa; hau da, odol-hodiena eta linfa-hodiena. *ES: Sistema vascular FR: Système vasculaire EN: Vascular system*
- Sistema genital:** iz. Ugalketan parte hartzen duten organoen multzoa. *ES: Sistema genital FR: Appareil génital EN: Genital system Oharrak: Gizezkoen aparatu genitala barrabilek, epididimoak, hodi deferenteek, hodi eiakulatzailcek, prostatak, semen-xixkuek eta zakilak osatzen dute. Emakumezkoena, berriz, obulutegiek, tronpek, umetokiak, baginak eta bulbak. Arloa: Anat.*
- Sistema muskuloeskeletiko:** iz. Giharrek eta hezurrek osatzen duten sistema. *ES: Sistema musculo-esquelético*
- Sistole-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'sistoliko'.
- Sistole:** iz. Bihotzaren uzkurtze-aldia, bereziki bentrikuluen. Aurikuletatik jasotako odola birika-arterietara eta aortara zabaltzea du helburu. Bihotzaren lehen eta bigarren hotsaren arteko epea da. *ES: Sístole FR: Systole EN: Systole Arloa: Med.*
- Sistoliko:** izond. Sistoleari dagokiona. *ES: Sistólico FR: Systolique EN: Systolic*
- Sodiko:** 1. izond. Sodioari dagokiona. 2. izond. Sodioa duena. *ES: Sódico FR: Sodium EN: Sodium Arloa: Kim.*
- Sodio-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'sodiko'.
- Sodio:** iz. Na. Elementu kimiko metalikoa. Alkali-na da, zuria eta biguna. Oso elementu ugaria da naturan; sodio kloruro (gatz arrunta) moduan aurki daiteke, nagusiki. Organismoko elementurik garrantzitsuenetarikoa bat da. Sodio ioiek hainbat prozesutan parte hartzen dute: azidobase orekan, oreka hidrikoan, nerbio-kinaden transmisioan, gihar-uzkurduran, eta abar. Horretarako, sodio kloruro eran hartzen dira sodio ioiak. *ES: Sodio FR: Sodium EN: Sodium Arloa: Kim.*
- Sodio bikarbonato:** iz. Gai arrunta; azidosiaren, urdaileko azidotasunaren, urdaileko ultzeraren, bihotzerrearen eta indigestioaren aurkako tratamenduan erabiltzen da. *ES: Bicarbonato de sodio FR: Bicarbonate de sodium EN: Sodium bicarbonate Arloa: Kim.*
- Sodio hidrogenokarbonato:** iz. Ikus 'sodio bikarbonato'.
- Soildu:** ad. Ikus 'burusoildu'.
- Soinu:** iz. Eragile fisikoa; bibrazio-energia gisa agertzen da, eta entzumen-sentsazioa eragiten du, bibrazioak muga jakinen barruan baldin badaude betiere. *ES: Sonido FR: Son EN: Sound*
- Soleo gihar:** iz. Gihar zabal eta zapala; zangoaren atzean, peronearen goialdean eta Akilesten tendoiaeren artean dago, gihar bikien aurrean. Trizept surala eratzen du gihar bikiekin batera. *ES: Músculo sóleo FR: Muscle soléaire EN: Soleus Arloa: Anat.*
- Solido:** 1. iz. Gorputz dentsoa. Gorputz hori osatzen duten molekulek egoera berean irauten dute beren artean eltingabe, eta erresistentzia handia egiten dute elkarrengandik bereizteko. Ez da ez likidua ez gaseosoa, eta ez du hutsune-barrunbe nabaririk, hausturarik nahiz irekigunerik. 2. izond. Itxura horretako gorputz, egitura, irudi edota gaia deskribatzen duena. *ES: Sólido FR: Solide EN: Solid Arloa: Fis.*
- Solidotu:** ad. Solido bihurtu. *ES: Solidificar FR: Solidifier EN: To solidify Arloa: Fis.*
- Solidotze:** iz. Isurkari edo gas bat solido bihurtzea. *ES: Solidificación FR: Solidification EN: Solidification Arloa: Fis.*
- Soluble:** izond. Ikus 'disolbagarri'.
- Solutu:** iz. Disoluzio batean disolbatzen den gaia. *ES: Solutu FR: Soluté EN: Solute Arloa: Kim.*
- Soma:** iz. Ugal-organoei ez dagokien gorputz atala. Banakoaren masa nagusia izaten da atal somatiko espezie gehienetan. *ES: Soma FR: Soma EN: Soma Oharrak: Soman gertatzen diren mutazioek ez dute gorabehera larririk sortzen banakoaren garapenean. Arloa: Biol.*
- Somatiko:** izond. Gorputzari dagokiona; alde psikikoari eta funtzionalari kontrajarria dena bereziki. *ES: Somático FR: Somatique EN: Somatic Arloa: Biol., Med.*



- Somatizatu:** ad. Gatazka psikiko bat asaldu organikoan bidez adierazi. *ES:* Somatizar *Arloa:* Psikol.
- Somatizazio:** iz. Gertaera psikiko bat gorputzeko asaldu edo sintoma fisiko gisa adierazten duen prozesua. Psikoanalisiaren arabera, energia psikikoa somarantz desbideratzearen ondorioz gertatzen da. *ES:* Somatización *FR:* Somatisation *EN:* Somatization *Arloa:* Psikol.
- Somatotipo:** iz. Giza gorputzaren itxura. Gizakiak ezaugarri fisikoan arabera sailkatzen dira: ekto-morfoak, endomorfoak eta mesomorfoak. *ES:* Somatotipo
- Somnifero:** izond. Ikus 'loarazle'.
- Sonambulismo:** iz. Loaldiaren 3. edo 4. fasean gertatzen den asaldua. Higitze-jarduera ez-konplexu, inkontziente eta automatikoa gertatzen da, eta, gehienetan, lo dagoena ohetik jaiki eta oinez hasten da. Esnatzean, ez da ezertaz gogoratzen. Minutu gutxi batzuetatik ordu erdi arte iraun dezake. *ES:* Sonambulismo *FR:* Somnambulisme *EN:* Somnambulism, sleepwalking
- Sonanbulu:** iz. Lo dagoela, automatismoz eta inkontzienteki zenbait jarduera egiten dituen pertsona. *ES:* Sonámbulo *FR:* Somnambule *EN:* Somnambulist, sleepwalker
- Sor:** izond. Ikusten ez den arren, izan badena. *ES:* Latente *FR:* Latent *EN:* Latent *Arloa:* Med.
- Sorbaldia:** iz. Besoa gorputzari lotzen zaion gunea; lepauztaiaren eta eskapularren arteko elkarketa da. *ES:* Hombro *FR:* Épaule *EN:* Shoulder *Arloa:* Anat.
- Sorgarri:** izond. Sortzea ahalbidetzen duena. *ES:* Conceptivo
- Sorgin-belar:** iz. Ikus 'belladona'.
- Sorginkeria:** iz. Superstizio modua; otoiitzen eta sendagai-prestakinen bidez sendatzea du helburu. *ES:* Ensalmos *FR:* Manière, supersticieuse de guérir *EN:* Spell, incantation, charm
- Sorgor geratu:** ad. Ikus 'gogortu'.
- Sorgortu:** 1. ad. Ikus 'inurritu'. 2. ad. Ikus 'inurritu'. 3. ad. Ikus 'intsentsibilizatu'.
- Sorkuntza:** iz. Ikus 'sortze'.
- Sorosle:** iz. Bereziki prestaturiko pertsona; sorospena eskaintzen du istripuetan eta larrialdi-egoeretan. *ES:* Socorredor, socorrista *FR:* Secouriste *EN:* First aid personnel
- Sorospen:** iz. Arrisku- edo larrialdi-egoeran dagoenari eskaintzen zaion babesa edo laguntza. *ES:* Socorro, socorrismo *FR:* Secours *EN:* Life-saving
- Sorostexte:** iz. Larrialdietan jendea laguntzeko prestaturiko egoitza; etengabeko sorospen-zerbitzua eskaintzen du. *ES:* Casa de socorro *FR:* Poste de secours *EN:* First-aid station *Arloa:* Med.
- Sorotsi:** ad. Norbaiten beharrak edo premiak asezteko zerbitzu egin. *ES:* Socorrer *FR:* Assister *EN:* To help, to assist
- Sorrazazi:** 1. ad. Ikus 'eragin'. 2. ad. Ikus 'ernalarazi'.
- Sorta:** iz. Ikus 'faszikulu'.
- Sortakatu:** izond. Ikus 'faszikulatu'.
- Sortasun:** 1. iz. Kinada baten eta haren aurrean gertatutako erreakzioaren artean dagoen denbora, jarduerarik gabea. 2. iz. Gaixotasun baten inkubazioaldia. *ES:* Latencia *FR:* Latence *EN:* Latency *Arloa:* Med.
- Sortu:** 1. ad. Haurra izateko prozesua abiatu. 2. ad. Adimenez edo artistikoki zerbitzu berria egin, asmatu. *ES:* Concebir *FR:* Concevoir *EN:* To conceive 3. ad. Ikus 'jaio'.
- Sortu:** ad. Ikus 'inurritu'. *ES:* Adormecer
- Sortze:** 1. iz. Haurdunaldiaren hasiera; espermatozoidea obuluan sartu eta zigotoa eratzen den unea hartzen da hasieratzen. *ES:* Concepción *FR:* Conception *EN:* Conception 2. iz. Ikus 'jaiotza'. *ES:* Nacimiento
- Sortzekide:** izond. Sortzetik gutxi-asko elkarri lotuak dauden organoei edo egitura anatomikoei dagokiena. *ES:* Connato *FR:* Conné *EN:* Connette *Arloa:* Biol.
- Sortzetiko:** izlag. Jaio ondoren garatutakoa ez dena; jaiotzerako badena. *ES:* Congénito *FR:* Congénital *EN:* Congenital
- Sortzetiko gaixotasun:** iz. Haurrak jaio aurretik dakarren gaixotasuna. *ES:* Enfermedad congénita *FR:* Maladie congénitale *EN:* Congenital disease *Arloa:* Med.
- Soslai:** iz. Zerbitzen inguru-lerroa, bereziki albotik ikusten dena. *ES:* Perfil
- Subespezie:** iz. Bizidunen sailkapenean, espezie baten baitan dagoen taldea; ezaugarri berdinak dituzten banakoak biltzen ditu. *ES:* Subespecie *FR:* Sous-espèce *EN:* Subspecies *Arloa:* Biol.
- Subfamilia:** iz. Bizidunen sailkapenean, familia baino maila baxuagoko taldea; hainbat genero biltzen ditu bere baitan. *ES:* Subfamilia *FR:* Sous-famille *EN:* Subfamily *Arloa:* Biol.
- Subfilum:** iz. Bizidunen sailkapenean, filuma baino maila baxuagoko taxonomia taldea; hainbat klase hartzen ditu bere baitan. *ES:* Subfilum, subtipo *FR:* Embranchement *EN:* Subphylum *Arloa:* Biol.
- Subgenero:** iz. Bizidunen sailkapenean, generoa baino maila baxuagoko taldea; hainbat espezie hartzen ditu bere baitan. *ES:* Subgénero *FR:* Sous-genre *EN:* Subgenus *Arloa:* Biol.
- Subklabio:** izond. Lepauztaiaren azpian dagoena; esate baterako, subklabia zaina. *ES:* Subclavio *FR:* Sous-clavier *EN:* Subclavian *Arloa:* Anat.
- Subklase:** iz. Bizidunen sailkapenean, klasearen eta ordenaren artean dagoen taxonomia maila. *ES:* Subclase *FR:* Sous-classe *EN:* Subclass *Arloa:* Biol.



- Subkontziente:** iz. Psikologiako terminoa. Subkontzienteko fenomenoek prozesu psikikoen multzo bat edo nortasun maila bat eratzen dute; kontzientearen azpitik dago jarduera maila hori. Haren zeinuek, sarritan, erabat kontzienteak direnek baino karga eta tentsio handiagoak azaltzen dituzte. *ES:* Subconsciente *FR:* Subconscient *EN:* Subconscious *Arloa:* Psikol.
- Subkontzientzia:** iz. Kontzientziaren eta inkontzientziaren arteko maila; subkontzientziaren edukia inkontzientea da, baina kontzientziara igaro daiteke estimulu baten ondorioz. *ES:* Subconsciencia *FR:* Subconscience *EN:* Subconsciousness *Arloa:* Psikol.
- Sublimatu:** ad. Sen-bulkadak eta haien berehalako helburuaren energia desbideratu, pertsonak berak eta gizarteak onartuko dituen eran azal daitezten. *ES:* Sublimar *FR:* Sublimier *EN:* To sublimate *Arloa:* Psikol.
- Sublimazio:** 1. iz. Gai bat solido-egoeratik gas-egoerara pasatzeko prozesua, likido-egoeratik igaro gabe. Aurkako prozesua izendatzeko ere erabiltzen da. 2. iz. Babes-mekanismoa; gizartearen onartezina den sen-bulkada bat inkontzienteki desbideratzen da, eta gizarteak onartzen duen beste eraren batean adierazten da. *ES:* Sublimación *FR:* Sublimation *EN:* Sublimation *Arloa:* Fis.-Psikol.
- Subordena:** iz. Izaki bizidunen sailkapenean, ordenak baino maila baxuagoa duen taxonomia taldea; hainbat familia biltzen ditu. *ES:* Suborden *FR:* Sous-ordre *EN:* Suborder *Arloa:* Biol.
- Substantzia:** iz. Zerbaitekin ezinbestekoa duen osagaia; osagai horren beharra du elikatze eta hazteko, eta, hori gabe, bukatu edo hil egiten da. *ES:* Substancia, sustancia *FR:* Substance *EN:* Substance
- Substantzia gris:** iz. Ikus 'gai gris'.
- Substantzia zuri:** iz. Ikus 'gai zuri'.
- Substratu:** 1. iz. Beheko geruza. 2. iz. Entzima baten eragina jasotzen duen gaia; entzimak gaia eraldatu egiten du, erreakzio kimiko batean. *ES:* Sustrato *FR:* Substratum, substrat *EN:* Substratum, substrate *Arloa:* Biol., Geol., Kim.
- Sudur-hezur:** iz. Ikus 'sudur-trenkada'.
- Sudur-hobi:** iz. Sudurreko bi barrunbeetako bakoitza; sudur-trenkadak banatzen ditu. Kanpoaldera irekitzen dira sudur-leihoen bidez; eta, barnealdetik, nasofaringera, koanen bidez. *ES:* Fosasa nasales *FR:* Fosse nasale *EN:* Nasal fossa *Arloa:* Anat.
- Sudur-trenkada:** iz. Sudur-barrunbeak bereizten dituen horma. Hezurrez eta kartilagoz eratuta dago, eta mukosaz estalia. *ES:* Tabique nasal *FR:* Cloison nasale *EN:* Nasal septum *Arloa:* Anat.
- Sudur-zulo:** iz. Ikus 'sudur-hobi'.
- Sufre:** iz. S. Elementu kimiko ez-metalikoa; hainbat forma alotropikotan agertzen da. Libragarria eta izerdiarazlea da. Larruazaleko eta arnas organoetako gaixotasunak eta orobat hemorroideak, ohiko idorreria, eta abar sendatzeko erabiltzen da. *ES:* Azufre *FR:* Soufre *EN:* Sulfur *Arloa:* Kim.
- Sufrimendu:** iz. Egoera emozional edo fisikoa; mina, tristura nahiz ondoeza sentitzea du ezaugarri. *ES:* Sufrimiento *FR:* Souffrance *EN:* Ailment
- Sufritu:** ad. Min fisiko edo emozionala izan. *ES:* Sufrir *FR:* Souffrir *EN:* To suffer
- Suizida:** izond. Bere burua hiltzen saiatzen dena. *ES:* Suicida *FR:* Suicide *EN:* Suicide
- Sukar-:** (Hitz elkartuetan) Gorputz-tenperatura altua ezaugarri duena. *ES:* Febril *EN:* Feverish
- Sukar:** iz. Gorputzeko tenperaturaren goera patologikoa; sukarra izanez gero, 37 °C baino altuagoa da tenperatura. Gorputzak ekoitzitako beroaren eta kanporatutakoaren arteko desorekak eragiten du. Ariketa fisikoak, antsietateak eta deshidratazioak gorputzeko tenperatura igo dezakete. Gaizkoadurek, gaixotasun neurologikoez, traumatismo larriek, zenbait sendagaiek, eta abar, berriz, sukarra eragin dezakete. *ES:* Calentura, fiebre *FR:* Fièvre *EN:* Fever *Oharrak:* Sukarrak ez du funtzio ezagunik, gaizkoaduretan izan ezik; jarduera metabolikoa gehitzen du (% 7 gradu bakoitzeko), eta elikadura-beharrak areagotzen ditu. *Arloa:* Med.
- Sukar aftoso:** iz. Birus batek eragindako infekzio akutua, oso kutsagarria; hausnarkariaren eta txerriaren rinovirusak eragiten du. Kontakutu zuzenez kutsatzen da gizakia. Sukar aftosoaren arrastoen eta sintomen artean daude: buruko mina, sukarra, ondoez orokorra, eta besikulak, bai mihian, bai aho-mukosan, bai eskuetan, bai oinetan. *ES:* Fiebre aftosa *FR:* Fièvre aphteuse *EN:* Foot-and-mouth disease, aphthous fever
- Sukar hektiko:** iz. Iraupen luzeko sukarrak etengabea; hotzikarak, izerdia, pultsua ahultzea, behekoak, eta abar eragiten ditu. *ES:* Fiebre héctica *FR:* Fièvre hectique *EN:* Hectic fever *Arloa:* Med.
- Sukar hori:** iz. Gaixotasun infekzioso epidemikoa; gibeledako gantz-ehunaren endekapena eta urdaileko eta hesteetako mukosaren kongestioa ditu ezaugarri. Hotzikarak, hotza, zefalalgia frontala, ikterizia, sukarra eta, batez ere, gerrialdeko mina eta goitikak agertzen dira sukarraren inkubazioaldiaren ondoren; 2-15 egun irauten du inkubazioaldiak. Ez du tratamendu zehatzik, eta % 5 inguruko hilkortasuna du. Sendatzean, immunitazio iraunkorra ematen du. *ES:* Fiebre amarilla *FR:* Fièvre jaune *EN:* Yellow fever

- Sukar tifoide:** iz. *Salmonella typhi* baziloak eragindako infekzioa; elikagaien eta uraren bidez kutsatzen da. Haren ezaugarri dira: buruko mina, eldarnioa, ezula, beherako urtsua, larruazaleko negela, sukar altua, Peyer-en plaken hantura eta ulterazioa, barearen eta gongoil mesenterikoen kongestioa eta urdail-hesteetako muki-geruzako hotzeria. Gaixotasuna oso larria da, eta heriotza ekar dezake. Sendatuta ere, pertsonaren barruan gera daiteke mikroorganismoa. *ES:* Fiebre tifoidea *FR:* Fièvre typhoïde *EN:* Typhoid fever *Arloa:* Med.
- Sukardun:** izond. Gorputzeko temperatura 37 °C-tik gora daukana. *ES:* Calenturiento
- Sukarraren kontrako:** izlag. (Sendagaiei buruz) Sukarra jaitzarazten duena. *ES:* Antipirético, anti-térmico, febrífugo *FR:* Agent antipyrétique *EN:* Antipyretic agent, febrifuge *Adibideak:* Aspirina, paracetamola. *Arloa:* Med.
- Sukarraldi:** iz. Sukar jauzialdia; pertsonak sukarra izaten duen aldia. *ES:* Proceso febril *EN:* Feverish process *Arloa:* Med.
- Sulfamida:** iz. Konposatu organikoa, sulfanilamidatik lortua; azido folikoaren biosintesia eragozten du. Sulfamidek ez dituzte mikrobioak suntsitzen, baina ugaltzea galarazten diete. Hainbat eritasunen kontra erabiltzen dira. Gaizkoaduren eta diabetesaren kontrako sendagaien eta diuretikoaren osagai nagusi dira sulfamidak. *ES:* Sulfamida *FR:* Sulfamide *EN:* Sulfa drugs, sulphonamide *Arloa:* Kim.
- Sulfato:** iz. Azido sulfurikoaren gatzen izen orokorra. Ugari dira sulfato naturalak —sodio sulfatoa, kalcio sulfatoa eta potasio sulfatoa— organismoan. *ES:* Sulfato *FR:* Sulfate *EN:* Sulfate
- Sumin:** iz. Erresumina. Erredura batek edo gai erregarri batek sorrarazitako oinaze-sentsazioa. *ES:* Quemazón *FR:* Brûlure *EN:* Burning
- Sumindu:** ad. Ikus 'narritatu'.
- Sumindura:** iz. Ikus 'sumin'.
- Sumingarri:** izond. Ikus 'narritagarri'.
- Suminkor:** 1. izond. Ikus 'narritakor'. 2. izond. Ikus 'haserrekor'.
- Suminkortasun:** iz. Ikus 'narritakortasun'.
- Superfamilia:** iz. Izaki bizidunen sailkapenean, zenbait familia biltzen dituen taxonomia taldea, ordena baino txikiagoa. *ES:* Superfamilia *FR:* Superfamille *EN:* Superfamily *Arloa:* Biol.
- Supinatzaile:** iz. Ukondoa eta eskumuturra supinazio-egoeran jartzen dituen giharra. *ES:* Supinador *FR:* Supinateur *EN:* Supinator *Arloa:* Anat.
- Supinazio:** 1. iz. Hainbat giltzadurak dituzten bi errotazio-mugimenduetariko bat; esate baterako, ukondoaren edo eskumuturaren errotazioa, esku-ahurra aurrera begira uzten duena. 2. iz. Ahoz gorako etzanera. *ES:* Supinación *FR:* Supination *EN:* Supination
- Supositorio:** iz. Sendagai solidoa; gorputzeko tenperaturarekin urtzen den gai batez egiten da, eta gorputzeko barrunberen batean sartuz (uzkia, bagina, eta abar) eragiten du. Ahotik hartutakoek baino eragin lasterragoa dute, ez baitute gibelaren bahetik igaro beharrik. *ES:* Supositorio *FR:* Suppositoire *EN:* Suppository *Arloa:* Med.
- Suprarrenal:** izond. Ikus 'giltzurrun gaineko'.
- Sural:** iz. Zangarreko trizeps giharra; bikiek eta soleoak erazten dute. Akilosen tendoia edo orporzurda da suralaren tendoia, kalkaneoan txertatua. *ES:* Sural *FR:* Sural *Arloa:* Anat.
- Suspergarri:** 1. izond. (Gai bati buruz) Pertsona bati osasun- edo kontzientzia-egoera normalera itzultzen laguntzen diona. *ES:* Reconstituyente *EN:* Restorative, tonic *Arloa:* Med. 2. izond. Ikus 'bizigarri'. *ES:* Estimulante
- Susperraldi:** iz. Gaixotasunaren eta osasun-egoeraren arteko aldia. Susperraldian, organismoak gaixo zegoen artean jasandako galerak konpontzen ditu, eta funtzio guztiak normaltasunera itzultzen dira. *ES:* Convalecencia *FR:* Convalescence *EN:* Convalescence
- Suspertu:** ad. Oinarrizko bizi-funtzioak bere onera ekarri. *ES:* Reanimar
- Suspertzte:** iz. Larrialdi batean, pertsona baten oinarrizko bizi-funtzioak —arnasketa, zirkulazioa, elikadura, irazketa, oreka hidroelektrikoa, eta abar— mantentzeko prozesua. Hainbat teknika erabiltzen dira horretarako: arnasketa artifiziala, bihotz-masajea, desoreka azido-basikoa orekatzea, eta abar. *ES:* Reanimación *FR:* Réanimation *EN:* Resuscitation *Arloa:* Med.
- Sustrai-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'erradikular'.
- Sustrai:** iz. Organo edo egitura baten atalik behekoena. Haren bidez finkatzen da organoa bere oinarrian. *ES:* Raíz *FR:* Racine *EN:* Root
- Suszeptibilitate:** iz. Irudikortasuna, gaitzikortasuna; edozein txikikeriagatik asaldatzeko joera. *ES:* Susceptibilidad *FR:* Susceptibilité *EN:* Susceptibility
- Sutura:** 1. iz. Giltzadura zuntzua, mugikortasunik gabea; suturan, garezurreko zenbait hezur elkar-tzen ditu ehun zuntzuzko geruza batek. 2. iz. Puntada-segida; ebaki edo zauri bat ixteko egiten da, bereizitako ehunak elkarrengana hurbilduz. *ES:* Sutura *FR:* Suture *EN:* Suture
- Suzko botoi:** iz. Azaleko kauterizazioa, burdina gori-goriatz eginga. Errebultsibo gisa erabiltzen den lehen. *ES:* Botón de fuego

# T

.....

- Takikardia:** iz. Bihotzaren asaldua; bihotza modu erregularrean uzkuratzen da, baina minutuko 100 taupadatik gora emanaz. Normala da bihotz-maiztasuna areagotzea, hainbat prozesuren ondorioz: sukarra, kitzikapena, ariketa fisikoa, eta abar. *ES:* Taquicardia *FR:* Tachycardie *EN:* Tachycardia *Oharrak:* Takikardiak bi multzotan sailka daitezke: suprabentrikularrak eta bentrikularrak. Takikardia bentrikularrak dira larrienak. *Arloa:* Med.
- Taktismo:** iz. Hainbat eragilek protoplasman duten eragin fisikoa edo kimikoa. Animalietan, behe mailako landareetan eta zenbait gameto arretan gertatzen da. Eragin horren ondorioz, kinada sortzen den lekura hurbiltzen da organismoa, edo handik urrundu. *ES:* Tactismo *FR:* Tactisme *EN:* Tactism *Arloa:* Biol.
- Talamiko:** izond. Talamoari dagokiona. *ES:* Talámico *FR:* Thalamique *EN:* Thalamic
- Talamo:** iz. Garuneko hirugarren bentrikuluaren albo banatan dauden bi nukleo handietariko bakoitza. Sentimen-kinadak transmititzen ditu garun-azalera. Nagusiki, gai grisez osatua dago, eta hartzaileek igorritako kinadak eraldatzen ditu, min-, ukimen- nahiz temperatura-sentsazio bihurtzeko. *ES:* Tálamo *FR:* Thalamus *EN:* Thalamus *Arloa:* Anat.
- Talasoterapia:** iz. Tratamendu-sistema; itsasoko ura eta haizea ditu oinarri. *ES:* Talasoterapia *FR:* Thalassothérapie *EN:* Thalassotherapy *Arloa:* Med.
- Talde:** iz. Analogia jakinak dituzten objektu, atomo, zelula, mikroorganismo edota norbanakoen multzoa. *ES:* Grupo *FR:* Groupe *EN:* Group
- Talio:** iz. Tl. Elementu kimiko metalikoa. Biguna da, eta kolore zuri-urdinxka du. Oso gatz toxikoak eratzen ditu; tisikoetan, izerdiari aurre egiteko erabiltzen dira gatz horietariko batzuk, aze-tatoa adibidez, baina oso arriskutsua da halakoak erabiltzea. *ES:* Talio *FR:* Thallium *EN:* Thallium *Arloa:* Kim.
- Talko:** iz. Mineral biguna, xaflatan edo masa trinkotan hausten dena. Magnesio silikatoz osatua dago. Hauts bihurtzen erraza da talkoa, eta gorpuzteko gune hezeak hautseztezeko erabiltzen da, hezetasun hori xurga dezan. *ES:* Talco *FR:* Talc *EN:* Talc *Arloa:* Kim.
- Tamaina handiko:** izlag. Ikus 'handi'.
- Tanatologia:** iz. Biologiaren adarra; heriotzaren eta hiltzearen dagoen gizabanakoaren azterketaz arduratzen da. *ES:* Tanatología *FR:* Thanatologie *EN:* Thanatology *Arloa:* Biol.
- Tanatos:** iz. Heriotza-sena adierazteko terminoa, Freudek asmatua eta jende askok erabiltzen duena. *ES:* Tánatos, thánatos *FR:* Pulsion de mort *EN:* Thanatos *Arloa:* Psikol.
- Tanino:** iz. Landareetatik ateratzen diren konposatu fenolikoetako edozein. Pisu molekularra nahiko txikia dute taninoek, eta bi multzotan sailkatzen dira: hidrolizatzen ez diren tanino kondentsatuak eta hidrolizatzen diren taninoak. Proteinak prezipitatzeko ahalmena da haien ezaugarri nagusietako bat. Batzuk oso toxikoak dira, eta zenbait tanino minbiziaren eragile direla uste da. Hainbat erabilera dituzte: medikuntzan, idorgarri eta homeostasiko gisa eta erreduren tratamenduan erabiltzen dira; industrian, tinduak egiteko, arropen tinduak finkatzen laguntzeko eta, batez ere, larrua lantzeko. *ES:* Tanino *FR:* Tanin *EN:* Tanin *Arloa:* Kim.
- Tankera:** iz. Ikus 'itxura'.
- Tanpoi:** 1. iz. Ikus 'disoluzio indargetzaile'. 2. iz. Kotoiz edo beste material xurgatzaile batez egindako tapoia; odoljarriok xurgatzeko erabiltzen da. *ES:* Tampón
- Tanta-kontagailu:** iz. Likidoak tanta isurtzeko tresna; beiraz edo beste materialen batez egina izan daiteke. *ES:* Cuentagotas *FR:* Comptegouzztes *EN:* Dropper
- Tantalo:** iz. Ta. Elementu kimiko metalikoa. Kolorez gris zilarkara du, eta oso gogorra eta dentsitate handikoa da. Jarduera kimikoan geldoa baita, hainbat protesi-tresnatan erabiltzen da; esate baterako, garezurreko plakak eta jostura metalikoak egiteko. *ES:* Tantalio *FR:* Tantale *EN:* Tantalum *Arloa:* Kim.
- Tantaz tanta:** adlag. Uzkiean, zainetan edo larrualpeko ehunetan serum artifiziala nahiz beste likidoren bat sartzeko modua, instilazio jarraitu baten bidezkoa. *ES:* Gota a gota *FR:* Goutte à goutte *EN:* Drop by drop
- Tantaz tantako:** iz. Likido bat tantaz tanta sartzeko erabiltzen den tresna. *ES:* Gotero *FR:* Comptegouttes *EN:* Dropper
- Tapatu:** ad. Ikus 'estali'.

**Tapoi:** iz. Zelula-chunez, mukiz edo beste gairen batez eratutako masa, gorputzeko zulo nahiz hodi bat buxatzen duena. Kirurgian erabiltzen da, likidoak edo jariakinak xurgatzeko nahiz buxatzeko. *ES:* Tapón *FR:* Tampon, bouchon *EN:* Tampon, plug *Arloa:* Med.

**Tara:** iz. Gaixotasun epidemiko kutsagarria; Sibiariako Tara hirian ikusi izan da. Haren ezaugarri dira gorputzeko hainbat gunetan tumorrak agertzea eta sintoma orokor larriak. *ES:* Tara *FR:* Tare *EN:* Defect *Arloa:* Med.

**Tarratatu:** ad. Latza edo zorrotza den zerbaitek beste baten kontra higituz haren gainazala urratu, eta arrastoa utzi. *ES:* Rasgar *FR:* Déchirer *EN:* To tear

**Tartso-:** (Hitz elkartuetan) Tartsoari dagokiona. *ES:* Tarsiano *FR:* Tarsien *EN:* Tarsal *Arloa:* Anat.

**Tartso:** iz. Oinaren atzeko aldea, zangoaren eta metatarsoko hezurren artean dagoena. Zazpi hezurrez osatua dago: kalkaneo, astragaloa —zangoarekin giltzatua—, eskafoidea, hiru hezur kuneiforme, eta aurrealdeko kubo-itxurako hezurra. *ES:* Tarso *FR:* Tarse *EN:* Tarsus *Arloa:* Anat.

**Tartso-hezur:** iz. Oinaren atzekaldeko hezur multzoa; tartsoa eratzen duten hezurretako bakoitza. Tartsoa zazpi hezurrez osatua dago, eta horietako bat (astragaloa) zangoarekin giltzatzen da; beste batzuk, berriz, metatarso-hezurrekin. *ES:* Hueso tarsiano *Arloa:* Anat.

**Taula periodiko:** iz. Elementu kimikoen sailkapena. Elementuak pisu atomikoaren arabera sailkatzen dira, *periodo* izeneko errenkadetan eta *talde* izeneko zutabeetan banaturik. *ES:* Tabla periódica *FR:* Tableau périodique *EN:* Periodic table

**Taupada:** iz. Bihotza uzkuertzeko eta zabaltzeko indarra, pultsu eran neur daitekeena. *ES:* Latido *FR:* Battement *EN:* Beat *Arloa:* Med.

**Taupadak egin:** ad. Bihotzak, arteriek, eta zenbaitetan kapilarrek eta zain batzuek taupadak eman. *ES:* Latir *Arloa:* Med.

**Taupada-markagailu:** iz. Tresna elektrikoa; miokardio-uzkurduraren erritmo normala mantentzeko erabiltzen da. Gihar kardiakoa elektrifikoki kitzikatuz betetzen du bere egitekoa. Bi eratakoa izan daiteke: iraunkorra —kinadak frekuentzia konstante eta finkoan bidaltzen ditu— edo eskaeraren arabera —bihotza maiztasun minimo batean berez uzkuertzen ez denean—. *ES:* Marcapasos *FR:* Pacemaker *EN:* Pacemaker *Arloa:* Med.

**Taupadatu:** ad. Ikus 'taupadak egin'.

**Taupakari (bihotzaz):** izond. Taupadak ematen dituen, edo uzkuertzen dena. *ES:* Palpitante *FR:* Pulsatile *EN:* Palpitating, throbbing

**Taxoi:** iz. Bizidunen sailkapeneko unitate taxonomikoetako bakoitza. Taxoiak hierarkia baten ara-

bera antolatzen dira, erreinutik hasi eta azpiespezietaraino. Taxoi bakoitzak hainbat azpitaxoi ditu. *ES:* Taxón *FR:* Taxon *EN:* Taxon *Adibideak:* Taxoiak dira, besteak beste, espeziea eta familia. *Arloa:* Biol.

**Taxonomia-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'taxonomiko'.

**Taxonomia:** iz. Sailkapen-zientzia; mikrobiologian, zoologian eta botanikan erabiltzen da. Bizidunak taldekatzen ditu, bizidun horiek dituzten ezaugarrien arabera. Taxoia da taxonomiaren oinarriko atala. *ES:* Taxonomía *FR:* Taxonomie *EN:* Taxonomy *Arloa:* Biol.

**Taxonomiko:** izond. Taxonomiari dagokiona. *ES:* Taxonómico *FR:* Taxonomique *EN:* Taxonomic *Arloa:* Biol.

**Taxonomista:** iz. Taxonomian aditua edo taxonomian diharduen pertsona. *ES:* Taxonomista *FR:* Taxonomiste *EN:* Taxonomist *Arloa:* Biol.

**Taxonomo:** iz. Ikus 'taxonomista'.

**Teka:** iz. Organo nahiz organismo bat estaltzen duen zorroa edo kapsula; esate baterako, perikardioa. *ES:* Teca *FR:* Thèque *EN:* Theca *Arloa:* Biol.

**Teknezio:** iz. Tc. Elementu kimiko erradioaktibo artifiziala. Manganesoaren taldeko metala da, eta kolore gris zilarkara du. Isotopo ugari ditu; horietako bat —teknezio 99m isotopo, gamma-grafian erabiliena— medikuntzan erabiltzen da, diagnostikoa egiteko. Magnetiko samarra da. Teknezioa eta haren alezioak eroale biziak dira, eta temperatura baxuetan lan egiten duten eremu magnetiko handiko eremuak sortzeko erabil daitezke. *ES:* Tecnecio *FR:* Technétium *EN:* Technetium *Arloa:* Kim.

**Telofase:** iz. Mitosiaren azken aldia; kromosomek nukleo-bilkaria berriz eratzen dute. *ES:* Telofase *FR:* Telophase *EN:* Telophase *Arloa:* Biol.

**Tendinitis:** iz. Tendo baten hantura, gehienetan zaintiratu batek eragina. *ES:* Tendinitis *FR:* Tendinite *EN:* Tendinitis *Arloa:* Med.

**Tendinoso:** izond. Tendoie dagokiena, edo haien izaera duena. *ES:* Tendinoso *FR:* Tendineux *EN:* Tendinous *Arloa:* Med.

**Tendoi-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'tendinoso'.

**Tendoi:** iz. Zuzteko ehun distiratsuzko zurda; giharrak hezurretan lotzen ditu. Tendoiak ehun konektibo elastikozko zorro batean bilduta daude, txertaketaren gunean izan ezik. Oso gogorrak eta malguak dira. *ES:* Tendón *FR:* Tendon *EN:* Tendon *Arloa:* Anat.

**Tenkatze:** iz. Ikus 'luzatze'.

**Temperatura:** 1. iz. Beroaren edo hotzaren neurri erlatiboa. 2. iz. Beroaren neurria; giza gorputzaren metabolismoari lotua aztertzen da, eta 37 °C-koa izan ohi da. *ES:* Temperatura

**Temperatura-kurba:** iz. Grafiko bateko lerro gorabeheratsua; gaixotasun batean, gaixoaren tenpe-

- ratura-aldaketak jasotzen ditu. *ES*: Curva de temperatura
- Tente**: izond. Trinkoa, mardula; zailtasunez toles-ten edo puskatzen dena. *ES*: Tieso *FR*: Raide, rigid *EN*: Stiff, rigid
- Tentekor**: izond. Ikus 'zutikor'.
- Tentetze**: iz. Ikus 'ereizio'.
- Tentsio**: iz. Estres-egoera baten aurrean izandako erreakzioak dakarren asaldur fisiologiko eta psikologikoa. Egoera horren ezaugarri dira: gihar-tonua, bihotz-maiztasuna, arnas maiztasuna eta arreta areagotzea. Psikologiari dagokionez, arte-gatasun-, narritadura- eta antsietate-sentimenduak agertzen dira. *ES*: Tensión *FR*: Tension *EN*: Tension *Arloa*: Med.
- Tentsio arterial**: iz. Ikus 'presio arterial'.
- Tentsio muskular**: iz. Ikus 'gihar-tentsio'.
- Teoria korpuskular**: iz. Argia gorputz argitsu batek norabide guztietan askatutako partikula txikiz osatuta dagoela dioen teoria. *ES*: Teoría corpuscular *FR*: Théorie corpusculaire *EN*: Corpuscular theory *Arloa*: Fis.
- Terapeuta**: iz. Trebetasun bereziak dituen pertsona, osasun-arretan jasotako heziketaren eta esperientziaren ondorioz. Terapeutikan aditua da. *ES*: Terapeuta *FR*: Thérapeute *EN*: Therapist *Arloa*: Med.
- Terapeutika**: iz. Osasun-zientzien adarra; gaixotasunen tratamenduaz arduratzen da, eta sintomak baretzeko edo gaixotasuna sendatzeko helburua du. *ES*: Terapéutica *FR*: Thérapeutique *EN*: Therapeutics *Arloa*: Med.
- Terapeutiko**: izond. 1. Tratamenduari dagokiona. 2. izond. Onuragarria dena. *ES*: Terapéutico *FR*: Thérapeutique *EN*: Therapeutic *Arloa*: Med.
- Terapia**: iz. Edozein gaixotasunen edo asalduren tratamendua. Esate baterako, arnasketa bidezko terapia; terapia horretan, hainbat sendagai ematen dira, arnabideetako gaixotasunei aurre egiteko. *ES*: Terapia *FR*: Thérapie, thérapeutique *EN*: Therapy *Arloa*: Med., Psikol.
- Teratologia**: iz. Sortzetiko malformazioen zergatien eta ondorioen azterketa, baita garapenean gertatzen diren anomaliaren ere. *ES*: Teratología *FR*: Tératologie *EN*: Teratology *Arloa*: Biol.
- Terebrante**: izond. Zulatzen duena; ulterak edo gune mindu bat zulatzeko eragin dezakeenaren antzeko mina izendatzeko terminoa da bereziki. *ES*: Terebrante *FR*: Térébrant *EN*: Terebrant *Arloa*: Med.
- Terminal**: izond. Bukaeratik gertu dagoena; esate baterako, heriotzatik gertu dagoen gaixoa. *ES*: Terminal *FR*: Terminal *EN*: Terminal *Arloa*: Med.
- Termoegonkor**: izond. Tenperaturaren igoeraren eraginik jasaten ez duena, edo tenperatura-aldaketan aurrean bereari eusten diona. *ES*: Ter-
- moestable *FR*: Thermostable *EN*: Thermostable *Arloa*: Kim.
- Termokimika**: iz. Kimikaren adarra; erreakzio kimikoen bero-aldaketaz arduratzen da. *ES*: Termoquímica *FR*: Thermochimie *EN*: Thermochemistry *Arloa*: Kim.
- Termolabil**: izond. Beroaren eraginez erraz deskonposatzen edo asaldatzen dena. *ES*: Termolábil *FR*: Thermolabile *EN*: Thermolabile *Arloa*: Biokim.
- Termolisi**: iz. Tenperatura altuen ondorioz gertatzen den lisia. *ES*: Termólisis *FR*: Thermolyse *EN*: Thermolysis *Arloa*: Biol.
- Termometro**: iz. Gorputzen tenperatura neurtzeko erabiltzen den tresna. Oro har, kristalezko hodi itxi bat izaten da, Celsius edo Fahrenheit graduz markatua, eta barruan isurkari bat daramana —alkohola edo merkurioa, adibidez—. Likidoak gora eta behera egiten du tenperaturaren arabera, beroarekin zabaldu eta hotzarekin uzurtzen delako. *ES*: Termómetro *FR*: Thermomètre *EN*: Thermometer
- Termometro kliniko**: iz. Giza gorputzeko tenperatura neurtzeko erabiltzen den termometroa. *ES*: Termómetro clínico *FR*: Thermomètre médical *EN*: Clinical thermometer
- Termorregulazio**: iz. Bero-ekoizpenaren eta -galeraren kontrola; bereziki, gorputzaren tenperatura mantentzeko mekanismo fisiologikoen bidez. Ezinbestekoa da bizi-funtzioen orekari eusteko. Hotzari edo beroari aurre egiteko izan daiteke termorregulazioa. Hotzari aurre egiteko mekanismo fisikoen artean daude: azalaren koipea pilatzea, odol-hodiak uzurtzea, izerdia gutxitzea, eta abar. Beroari aurre egiteko mekanismoen artean, berriz: odol-hodiak zabaltzea, izerdi-ekoizpena areagotzea, arnasketa bizkortzea, eta abar. *ES*: Termorregulación *FR*: Thermorégulation *EN*: Thermoregulation *Arloa*: Biol.
- Test**: iz. Funtzio jakin bat era objektiboan aztertze-ko proba. *ES*: Test *FR*: Test *EN*: Test *Adibideak*: Test organikoak (gaixotasunen diagnostikorako), izerdiaren testa (fibrosi kistikoaren tratamendurako), eta abar. *Arloa*: Med., Psikol.
- Test psikologiko**: iz. Gaitasunak, ezagutzak, nortasuna edo beste edozein ezaugarri psikiko neurtzeko proba. Emaizak erreferentzia talde batekin konparatzen dira. Bi test mota daude: pertsonaren eraginkortasuna neurtzen dutenak eta nortasuna ezagutu nahi dutenak. *ES*: Test psicológico
- Test psikotekniko**: iz. Pertsona baten ezaugarri psikikoak eta jarrerak neurtzea helburu duen testa. *ES*: Test psicotécnico *FR*: Test psychotechnique *EN*: Psychological test *Oharrak*: Lanbide jakin baterako pertsonak hautatzeko erabiltzen da sarritan.



**Testikulu:** iz. Ikus 'barrabil'.

**Testosterona:** iz. Barrabilek ekoizten duten sexu-hormona; bigarren mailako ezaugarriak eragiten eta mantentzen ditu. Espermaren ekoizpena eta organo genitalen garapena kontrolatzen ditu. *ES:* Testosterona *FR:* Testostérone *EN:* Testosterone *Arloa:* Biokim.

**Tetanos:** iz. Gaixotasun infekzioso larria; *Necolaier* bazilo anaerobioak (*Bacillus* edo *Clostridium tetani* delakoak) eragiten du, eta gorputzeko gihar guztietara zabaltzen diren uzkurdura mingarriak ditu ezaugarri. Zauri zorrotz, urradura edo erre-dura batetik sar daiteke baziloa gorputzean; mugimendu-nerbioek nerbio-sistema zentraletik giharretara igortzen dute, eta nahita mugitzen diren giharrak tetanizatzen dira. Tetanosaren ezaugarri dira: narritagarritasuna, zefalea, sukarra eta giharretako espasmo mingarriak. Bada tetanosaren aurkako txertorik, baita serum berezi bat ere (kasu horretan, betiere eritasunari aurrea hartu behar zaio, kutsatu ondoren oso zaila izaten baita sendatzea). *ES:* Tétanos *FR:* Tétanos *EN:* Tetanus *Arloa:* Med.

**Tetanosaren kontrako:** izlag. (Gai bati buruz) Tetanosa sendatzen edo saihesten duena. *ES:* Anti-tetánico *FR:* Agent antitétanique *EN:* Antitetanic agent *Arloa:* Med.

**Tetrada:** 1. iz. Lau kromatidaren multzoa; kromosoma homologoen zatiketaren eta zati horiek paretatzaren emaitza da; gametogenesiaren lehenengo profase meiotikoan, sinapsia loturik egoten da. 2. iz. Lau gorputz, lau elementu, lau sintoma, eta halako multzoak. *ES:* Tétrada *FR:* Tétrade *EN:* Tetrad *Arloa:* Biol.

**Tetramero:** 1. izond. (Egiturei buruz) Lau atalez osatua edo lau ataletan zatitua dagoena. 2. iz. Lau monomeroz osatuta dagoen makromolekula. *ES:* Tetramero *FR:* Tétramère *EN:* Tetramer *Adibideak:* Lau azpiunitate polipeptidiko osatutako proteina. *Arloa:* Biol.

**Tetraplegia-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'tetraplegiko'.

**Tetraplegia:** iz. Besoen, hanken eta enborraren paralisia ezaugarri duen asaldua. Bizkarrezur-muinaren lesio batek eragina izan daiteke, bereziki bosgarren eta zazpigarren lepo-ornoaren gunean. Auto- eta kirol-istripuak dira eragile ohikoena. *ES:* Tetraplejía *FR:* Quadruplégie, tétraplégie *EN:* Quadriplegia, tetraplegia *Arloa:* Med.

**Tetraplegiko:** izond. Tetraplegiak jota dagoena, edo tetraplegiari dagokiona. *ES:* Tetrapléjico *FR:* Quadruplégique *EN:* Quadriplegic *Arloa:* Med.

**Tifiko:** izond. Tifusari dagokiona, edo tifusak jota dagoena. *ES:* Tífico *FR:* Typhique *EN:* Typhous

**Tifus:** iz. Gaixotasun kutsagarri akutuen multzoa, hainbat *Rickettsia* espeziek eragina. Oro har,

karraskari kutsatuetatik igarotzen da gizakietara, zorrien, arkakusoen, akaroen eta kaparren ziztadaren ondorioz. Haren ezaugarri dira: buruko mina, hotzikarak, sukarra, sorgortasuna, ondoeza eta exantema makulopapularra. *ES:* Tifus *FR:* Typhus *EN:* Typhus *Arloa:* Med.

**Tifus exantematiko:** iz. Eritasun epidemikoa, oso kutsagarria; *Rickettsia prowazeki* mikroorganismoak eragina da, eta gorputzeko zorriek transmititzen dute. Bat-batean agertzen da (12 bat eguneko inkubazio-aldiaren ondotik), eta hauek dira haren sintomak: hotzikarak, sukarra, sorgortasuna, pulstu azkarra, laborria, petekia txikiak gorputz-adarretan eta enborrean, eldarnioa, dardaldiak eta egoera orokor txarra. Heriotza edozein alditan ager daiteke, eta nahikoa sarri gertatzen da. Antibiotikoak erabiltzen dira sendagai gisa. *ES:* Tifus exantemático *FR:* Typhus exanthématique *EN:* Epidemic typhus *Arloa:* Med.

**Tik:** iz. Bat-bateko eta nahi gabeko mugimendu errepikatuak gihar talde batean, bereziki aurpegiaren. Psikogenoak izan ohi dira, eta, tentsioaren eta antsietatearen ondorioz, larriagotu egin daitezke. Bestelako gaitz batzuekin batera (koprolalia, ekolalia, eta abar) agertuz gero, tiken gaitza edo Gilles de la Tourette-ren eritasuna osatzen dute keinu horiek. *ES:* Tic *FR:* Tic *EN:* Tic, mimic spasm

**Timina:** iz. Base nitrogenatua, pirimidinatik eratorria, eta azido nukleikoek osagaia. Kristal erako hauts zuria da, eta ADNren hidrolisi bidez lortzen da. *ES:* Timina *FR:* Thymine *EN:* Thymine *Arloa:* Biokim.

**Timo:** iz. Organo linfoidea; aurreko mediastinoaren goialdean dago, bularrezurraren atzean. Gorputzaren immunitate-erreakzio gehienak kontrolatzen ditu. Timoan garatzen dira T zelulak; immunitate-erreakzioaren arduradun dira horiek. *ES:* Timo *FR:* Thymus *EN:* Thymus *Oharrak:* Terapeutikan erabili izan da animalien timoa, bozio exoftalmikoaren aurka. *Arloa:* Anat.

**Tindalizazio:** iz. Esterilizazio-metodoa; beroa al-dizka erabiltzearen ondorioz, esporak heltzea eragiten da, errazago suntsitzen baitira hala. *ES:* Tindalización *FR:* Tyndallisation *EN:* Tyndallization *Arloa:* Med.

**Tindatu:** ad. Gai edo ehun bati pigmentuak ezarri, mikroskopioan aztertu ahal izateko. *ES:* Teñir *FR:* Teindre *EN:* To stain

**Tinkotasun:** iz. Ikus 'finkotasun'.

**Tinpano:** iz. Belarri-mintza; erdiko belarria eta kanpoko entzunbidea bereizten ditu. Soinu-uhinen bibrazioak jaso eta hezurtxoetara transmititzen ditu. *ES:* Tímpano, membrana timpánica *FR:* Tympan, membrane du tympan, membrane tym-



- panique *EN*: Eardrum, tympanic membrane *Arloa*: Anat.
- Tinpano-kaxa**: iz. Erdiko belarriaren barrunbea. *ES*: Caja del tímpano *Arloa*: Anat.
- Tintaroi**: iz. Gai koloratzaile urdin-bioleta. Azido eta alkali askerik ba ote dagoen azertzeko erabiltzen da. *ES*: Tornasol *FR*: Tournesol *EN*: Turnsole *Arloa*: Kim.
- Tintaroi-paper**: iz. Tintaroi ez estalitako paper xurgatzailea; pHa zehazteko erabiltzen da. Azidoekin gorritu egiten da; baseekin, urdinu. *ES*: Papel de tornasol *FR*: Papier de tournesol *EN*: Turnsole paper *Arloa*: Kim.
- Tipo**: 1. iz. Elkarren artean kohesioaren bat duten berezitasun somatiko nahiz psikikoen multzoa. 2. iz. Gaixotasun baten forma klinikoak. 3. iz. Taxonomia unitate bat (espezie, mota, genero, eta abar) deskribatzeko erabiltzen den ezaugarri multzoa. Eredu gisa hartzen da, taldeko ezaugarri bereizgarri ugari dituelako. *ES*: Tipo *FR*: Type *EN*: Type *Arloa*: Biol., Psikol.
- Tiratzte**: iz. Ikus 'luzatze'.
- Tiroide**: iz. Laringearen aurrealdean eta behealdean dagoen barne-jarioko guriin gorrixka. Iodoa duten bi hormona sintetizatzen ditu (tiroxina eta triiodotiroxina), eta, haien bidez, oinarriko metabolismoa, hazkuntza eta ehunen bereizketa erregulatu. Emeena handiagoa da, eta aldatu egiten da sexu-zikloan, haurdunaldian, bularra ematean eta menopausian, bai neurritz, bai egin-kizunez. Bozioa, hipotiroidismoa eta tiroiditisa dira tiroidearen gaiztik ohikoena. *ES*: Tiroides *FR*: Thyroïde *EN*: Thyroid *Oharrak*: Kaltzitonina hormona jariatzen du. *Arloa*: Anat.
- Tiroideo**: izond. Tiroide-guruinari nahiz -kartilagoari dagokiona. *ES*: Tiroideo *EN*: Thyroid *Arloa*: Anat.
- Tirosina**: iz. Aminoazido aromatikoa; gorputzean sintetizatzen da fenilalanina aminoazido oinarrikozik. Proteina gehienetan aurki daiteke, eta melaninaren eta zenbait hormonaren —adrenalina eta tiroxina, adibidez— aitzindari da. Proteinen hidrolisi bidez eta sintesi organiko bidez lortzen da. *ES*: Tirosina *FR*: Tyrosine *EN*: Tyrosine *Arloa*: Biokim.
- Tiroxina**: iz. Tiroide guruinak ekoizten duen hormona. Tirosinaren eratorria da, eta metabolismoaren eritimoa bizkortu eta ehunen oxigeno-beharra handiagotu egiten du. *ES*: Tiroxina *FR*: Thyroxine *EN*: Thyroxine *Arloa*: Biokim.
- Tisi**: iz. Kakexia eragiten duen gaixotasuna. Gorputz osoari edo haren atal bati erasan diezaiokie. *ES*: Tisis *FR*: Phtisie *EN*: Phthisis *Arloa*: Med.
- Tisiko**: 1. izond. Tisiari dagokiona. 2. izond. Tisiak jota dagoena. *ES*: Tísico *FR*: Phtisique *EN*: Tubercular, consumptive *Arloa*: Med.
- Tisiologia**: iz. Medikuntzaren adarra; tuberkulosia eta haren sendabideak aztertzen ditu. *ES*: Tisiología *FR*: Phtisiologie *EN*: Phthisiology *Arloa*: Med.
- Titanio**: iz. Ti. Elementu kimiko metaliko hauskorra, kolore grisekoa. Hauts eran nahiz era trinkoan ager daiteke. Arintasuna da titanioaren ezaugarri bikaina; altzairuaren pareko erresistentzia du, baina hura baino % 45 arinagoa da. Titanioaren aleazio bat erabiltzen da protesi ortopedikoak egiteko. *ES*: Titanio *FR*: Titane *EN*: Titanium *Arloa*: Kim.
- Titi-**: (Hitz elkartuetan) Ikus 'mamario'.
- Titi**: iz. Ikus 'bular'.
- Titia hartu**: ad. Ikus 'bularra hartu'.
- Titia kendu**: ad. Ikus 'bularra kendu'.
- Titiburu**: iz. Bularraren erdigunean dagoen irteguneko koniko edo zilindrikoa, zutikorra, mamitsua eta gorri antzekoa. Titiburura iristen dira hodi galaktoforoak. *ES*: Pezón *FR*: Mamelon *EN*: Nipple
- Titiko haur**: iz. Ikus 'bularreko haur'.
- Tokologia**: iz. Ikus 'obstetria'. *ES*: Tocología *EN*: Tocology
- Tokologo**: iz. Ikus 'obstetra'.
- Tolestaldi**: iz. Ikus 'flexio'.
- Tolueno**: iz. Hidrokarburo aromatiko koloregabe; sukoia da. Petroliotik eta mundrunetik ateratzen da, batez ere. Disolbatzaile modura erabiltzeaz gain, koloratzaileak, leherkariak, gomak, eta abar egiteko ere erabiltzen da. Sendagaiak egiteko eta landareetatik gai kimiko organikoak ateratzeko ere balio du. *ES*: Tolueno *FR*: Toluène *EN*: Toluene *Arloa*: Kim.
- Tomografia**: iz. Teknika erradiologikoa; ehun-egitura baten zati bat ikustea ahalbidetzen du, zehazturiko sakontasunean. Hainbat plano paralelotan agertzen den erradiografia da. Hari esker, posible da zenbait lesio aurkitzea eta ezagutzea. *ES*: Tomografía *FR*: Tomographie *EN*: Tomography *Arloa*: Med.
- Tonizitate**: iz. Tentsio- edo tonu-egoera normala. *ES*: Tonicidad *FR*: Tonocité *EN*: Tonicity *Arloa*: Med.
- Tonometria**: 1. iz. Gai baten pisu molekularren neurketa; gai horren presio osmotikoa edo lurrun-presioa neurtuz balioesten da. 2. iz. Tonuaren edo tentsioaren neurketa. 3. iz. Begi barneko presioaren erregistroa; begi-globoak indar jakin baten aurrean azaltzen duen erresistentziak zehazten du. *ES*: Tonometría *FR*: Tonométrie *EN*: Tonometry *Arloa*: Med., Kim.
- Tontor**: iz. Ikus 'gailur'.
- Tontordun**: izond. Ikus 'konkordun'.
- Tontortu**: ad. Ikus 'konkortu'.
- Tonu**: iz. Gorputzeko ehunek —giharrek, bereziki— tentsio orekatuan duten egoera normala. *ES*: Tono *FR*: Tonus *EN*: Tone *Arloa*: Med.

- Topiko:** izond. (Sendagaiei buruz) Atal edo gune jakin baten gainaldean ematen dena. *ES:* Tópico *FR:* Topique *EN:* Topical *Arloa:* Med.
- Torax:** iz. Lepoaren eta sabelaren arteko gorputz zatia. Hezurrez eta kartilagoz osatutako kaxa da; barnean arnas eta zirkulazio-organo nagusiak ditu, eta sabeleko zenbait organo estaltzen ditu. Aurrealdeak bularrezurrak eta 12 saihtsen aurrealdeek osatzen dute; atzealdeak, berriz, 12 bizkar-ornoek eta 12 saihtsen bizkar atalek. Beheko aldean, diafragma giharrak mugatzen du. *ES:* Tórax *FR:* Thorax *EN:* Thorax *Arloa:* Anat.
- Toraziko:** izond. Toraxekoa, edo hari dagokiona. *ES:* Torácico *FR:* Thoracique *EN:* Thoracic *Arloa:* Anat.
- Torio:** iz. Th. Elementu kimiko erradioaktiboa. Aktinidoen taldeko metala da. Haren emanazioak antiseptikoak eta hartziduraren aurkakoak dira. Torioaren gatz batzuk medikuntzan erabili izan dira, eta beste batzuk, dioxidoa adibidez, erradiografietan, barne-organoak ikusi ahal izateko. *ES:* Torio *FR:* Thorium *EN:* Thorium *Arloa:* Kim.
- Tornasol:** iz. Ikus 'tintaroi'.
- Tornikete:** iz. Odoljarioak gelditzeko erabiltzen den tresna; gorputz-adar batean ezartzen den lotura hertsatzaile zabal bat du, odoljarioa datorren gunearen gainetik ipintzen dena. Odoljarioak bizia arriskuan jartzen duenean erabili behar da torniketea, beste neurri segururago batzuk eragin-korrek ez direnean. *ES:* Tourniquete *FR:* Tourniquet *EN:* Tourniquet *Arloa:* Med.
- Tortikolis:** iz. Lepoko asaldua; lepoa mugitzea eragozten du, eta burua alde batera okertuta eramatera behartzen. Lepoko gune bateko giharren uzkurduraren ondoriozkoa izan ohi da. Sortzetikoa edo hartutakoa izan daiteke. *ES:* Tortícolis *FR:* Torticolis *EN:* Torticollis *Arloa:* Med.
- Totel:** izond. Totelka hitz egiten duena. *ES:* Tartamudo *FR:* Bègue *EN:* Stutterer, stammerer
- Totelka hitz egin:** ad. Modu etenean hitz egin, silabak errepikatuz. *ES:* Tartamudear *FR:* Bégayer *EN:* To stutter, to stammer
- Toteltasun:** iz. Hitzak ondo ahoskatzeko zailtasuna; hitzak etetea eta silabak errepikatzea du ezaugarri. *ES:* Tartamudez *FR:* Bégaiement *EN:* Stuttering, stammering
- Toxemia:** iz. Pozoia edo toxinak odolean, eta haren ondoriozko gaixotasun-egoera. *ES:* Toxemia *FR:* Toxémie *EN:* Toxemia *Arloa:* Med.
- Toxiko:** izond. (Gaiei buruz) Bizidunentzat kaltegarria dena. Organismoan sartuz gero, asaldu organiko nahiz funtzional larriak edo heriotza eragin ditzake. *ES:* Tóxico *FR:* Toxique *EN:* Toxic
- Toxikologia-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'toxikologiko'.
- Toxikologia:** iz. Pozoien, toxikoen, eta haiek organismoan duten eraginaren edo haien ondoriozko egoeraren tratamenduari azterketa zientifikoa. *ES:* Toxicología *FR:* Toxicologie *EN:* Toxicology *Arloa:* Med.
- Toxikologiko:** izond. Toxikologiari dagokiona. *ES:* Toxicológico *FR:* Toxicologique *EN:* Toxicological
- Toxikomania:** iz. Gai toxikoak —narkotikoak batak batak— hartzeko behar ezinbestekoa. *ES:* Toxicomanía *FR:* Toxicomanie *EN:* Toxicomania
- Toxikomano:** izond. Gai toxikoen mende dagoena. *ES:* Toxicómano *FR:* Toxicomane *EN:* Addict
- Toxikotasun:** iz. Gai baten kaltegarritasun maila. *ES:* Toxicidad *FR:* Toxicité *EN:* Toxicity
- Toxina:** iz. Eragin toxikoak dituen molekula; landare-, animalia- edota bakterio-jatorria duten proteinak, bereziki. Toxinen ezaugarri nagusien artean dago antigeno izatea. *ES:* Toxina *FR:* Toxine *EN:* Toxin *Arloa:* Biol.
- Toxinen kontrako:** izlag. Ikus 'antitoxina'.
- Toxoplasma:** iz. Hainbat animalien bizkarroia. Gizakiaren eta beste hainbat ornodunen zeluletan bizi da. Bizitzeko ziklo osoa animalia beraren zeluletan betetzen du. Katuaren hesteetan bakterik gertatzen da toxoplasmaren sexu bidezko ugalketa. Toxoplasmosi izeneko infekzioa eragiten du. *ES:* Toxoplasma *FR:* Toxoplasma *EN:* Toxoplasma *Arloa:* Biol.
- Toxoplasmosi:** iz. Infekzio arrunta; sortzetikoa nahiz hartutakoa izan daiteke. Sortzetikoa denean, gibelesko eta garuneko asalduak ditu ezaugarri. Hartutakoa denean, ezaugarri hauek ditu: eritema, linfadenopatia, sukarra, ondoeza, nerbio-sistema zentralerako asalduak, miokarditisa eta pneumonitisa. Haurdun dagoen emakume bat kutsatuz gero, arriskutsua izan daiteke umekiarrentzat. *ES:* Toxoplasmosis *FR:* Toxoplasmose *EN:* Toxoplasmosis *Arloa:* Med.
- Trabeska:** adlag. Ikus 'zeharka'.
- Trago:** iz. Kartilago-irtengunea; kanpoko entzunbidearen irekiduraren aurrean dago. *ES:* Trago *FR:* Tragus *EN:* Tragus *Arloa:* Anat.
- Trakea-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'trakeal'.
- Trakea:** iz. Kartilagozko hodi zilindriko malgu eta zuntzua; lepoaren aurrealdean eta toraxaren goialdean dago. Arnas sistemaren osagaia da, eta laringearen eta bronkioen arteko airearen pasagunea eratzen du. Trakearen barneko horma arnas sistemak berezkoa duen muki-ehunez estalia dago. *ES:* Tráquea *FR:* Trachée *EN:* Trachea *Arloa:* Anat.
- Trakeako:** izlag. Ikus 'trakeal'.
- Trakeal:** izond. Trakeari edo zintzur-hesteari dagokiona. *ES:* Traqueal *FR:* Trachéal *EN:* Tracheal

- Trakeotomia:** iz. Trakean —laringearen azpialdean— egiten den irekigunea; gorputz arrotz batek eragindako buxadura gaudituz airea arnasbideetara sartzea ahalbidetzeko egiten da, eta baita intubazio batzuetan nahiz zenbait ebakuntzatan ere. Goiko arnasbideetan airea igarotzen uzten ez duen oztopo bat dagoenean eta itotzeko arriskua dagoenean egiten da. *ES:* Traqueotomía *FR:* Trachéotomie *EN:* Tracheotomy *Oharrak:* Istripua gertatu den leku berean egin daiteke, larrialdi gisa, eta bai halaber ospitalean ere. *Arloa:* Med.
- Trakoma:** iz. Betazaleako konjuntibako asaldu kutsagarria. Haren ezaugarri dira: goragune txikiak, erresumina, fotofobia, malako-jarioa eta jario muki-zornetsua, egoera akutuan; eta, egoera kronikoan, atrofia, orbaintze-atzerapena eta betazalak makertzea. Tratatu ezean, folikulua eraten dira goiko betazalean, eta kornearaino iristen dira pikortadurak; ondorioz, gaixoa itsu geratzen da. *ES:* Tracoma *FR:* Trachome *EN:* Trachoma *Arloa:* Med.
- Transaminasa:** iz. Animalia-ehunen metabolismoan funtzio garrantzitsuak betetzen dituen enzima. Amino taldeen transferentzia katalizatzen du konposatu organiko batetik beste batera. Koentzima gisa, berriz, piridoxal fosfatoak eta piridoxamina fosfatoak aritzen dira. *ES:* Transaminasa *FR:* Transaminase *EN:* Transaminase *Arloa:* Biokim.
- Transdukzio:** iz. Genetika molekularrean, material genetikoaren trukea. Zelula baten ADN beste zelula batera igarotzen da, birus baten eraginez. *ES:* Transducción *FR:* Transduction *EN:* Transduction *Arloa:* Biol.
- Transferentzia:** iz. Babes-mekanismo inkontzientea; haren bidez, norberarentzat iraganean garrantzitsua izan zen pertsona batenganako sentimenduak eta jarrerak beste norbaitengan eguneratzen dira. *ES:* Transferencia *FR:* Transfert *EN:* Transference *Arloa:* Psicol.
- Transferigarri:** izond. Transferi daitekeena. *ES:* Transferible *FR:* Transférable *EN:* Transferable
- Transferitu:** ad. Zerbait edo norbait leku batetik bestera aldatu. *ES:* Transferir *FR:* Transférer *EN:* To transfer
- Transfixio:** iz. Ehun bigunak aldi bakarrean barnealdetik kanporantz moztzeko eta igarotzeko ekingintza. Transfixioa gertatzen da, esate baterako, tumorrak nahiz gorputzeko beste zenbait atal eraztean. *ES:* Transfixión *FR:* Transfixion *EN:* Transfixion *Arloa:* Med.
- Transformatu:** ad. Zerbait edo norbait itxuraz aldatu. *ES:* Transformar
- Transformazio:** iz. Genetika molekularrean, gene exogenoak kromosoman sartzeko prozesua. Gene horiek ezagutu egiten ditu zelula ostalariaren bikoizte- eta transkripzio-aparatuak. *ES:* Transformación *FR:* Transformation *EN:* Transformation
- Transfusio:** iz. Odol-zirkulazioan, odola nahiz haren osagaiak —plasma, plaketa-kontzentratuak zein hematikak— zainetan zehar sartzea. Emailearen eta hartzailearen odol-taldea eta Rh-a hartu behar dira kontuan transfusioak egiterakoan. *ES:* Transfusión *FR:* Transfusion *EN:* Transfusion *Arloa:* Med.
- Transfusioa egin:** ad. Odola nahiz haren osagaiak pertsona batetik beste batera igaro. *ES:* Transfundir *EN:* To transfuse *Arloa:* Med.
- Transgeniko:** izond. (Organismo bati buruz) Beste espezie baten gene bat edo gehiago sartu diotena. *ES:* Transgénico *FR:* Transgénique *EN:* Transgenic *Arloa:* Biol.
- Transkripzio:** iz. Genetika molekularrean, RNA mezularia eratzeko prozesua; proteina baten sintesian ADN eredu gisa erabiliz egiten da. *ES:* Transcripción *FR:* Transcription *EN:* Transcription
- Transmisio:** 1. iz. Gauza baten nahiz asaldu baten transferentzia edo komunikazioa; esate baterako, pertsona edo leku batetik beste batera igarotzen den gaixotasuna, ezaugarri genetiko bat, eta abar. 2. iz. Nerbio-bulkaden eroankortasuna. *ES:* Transmisión *FR:* Transmission *EN:* Transmission
- Transmutatu:** ad. Gauza bat beste zerbait bihurtu. *ES:* Transmutar *EN:* To transmute
- Transmutazio:** iz. Espezie nahiz molekula kimiko bat beste espezie nahiz molekula kimiko bat bihurtu, erreakzio nuklear baten ondorioz. Bonbardaketa erradioaktiboaren bidez gertatzen da aldaketa hori. *ES:* Transmutación *FR:* Transmutation *EN:* Transmutation
- Transpiratu:** ad. Gorputz batek bere poroetatik hezetasuna, gatz mineralak eta beste zenbait hondakin (izerdia) kanporatu, tanta txiki nahiz lurrun modura. *ES:* Transpirar *FR:* Transpirer *EN:* To perspire, to transpire *Arloa:* Biol.
- Transpirazio:** iz. Larruazaletik izerdia edo lurruna kanporatzea. *ES:* Transpiración *FR:* Transpiration *EN:* Transpiration *Arloa:* Biol.
- Transplantatu:** ad. Organo edo ehun bat pertsona batetik beste batera nahiz gorputzeko gune batetik beste batera aldatu. Gaixorik dagoen egitura bat ordezkatzeko, zerbaiten itxura aldatzeko edo funtzioaren bat berrezartzeko egiten da. *ES:* Trasplantar *EN:* To transplant *Oharrak:* Larruazala eta giltzurrunak dira gehien transplantatzen diren egiturak. *Arloa:* Med.
- Transplante:** 1. iz. Ebakuntza mota; organo bat jartzen da organismo hartzaile batean. Organoarekin batera, arteria- eta zain-loturak berrezar-

- zten dira. 2. iz. Transplantatutako edozein ehun edo organo. *ES:* Trasplante *FR:* Transplant *EN:* Transplant *Arloa:* Med.
- Transposizio:** 1. iz. Kimika organikoan, molekula barnean gertatzen den erreakzio kimikoa; erradikal edo atomo bat(zuk) molekulan lekualdatzen dira. 2. iz. Enbrioiaren garapenean gertatzen den anomalia; gorputzeko alde batean agertu beharreko atalak beste aldean agertzen dira. 3. iz. Material genetiko lekualdatzea kromosoma batetik beste batera. Ugal-prozesuaren unerren batean gertatzen da. *ES:* Transposición *FR:* Transposition *EN:* Transposition
- Trantsizio:** iz. Erditze-unearren lehen estadioko azken aldia; zenbaitetan, umetoki-lepoa 8-10 cm-raino zabaltzeak adierazten du. *ES:* Transición *FR:* Transition *EN:* Transition
- Trapezio gihar:** 1. iz. Triangelu-itxurako gihar zapal handia; sorbaldetan eta bizkarraren goiko aldean dago. Sorbalda jasotzeko, besoa tolesteko eta urruntzeko, eta burua biratzeko funtzioa du. 2. iz. Karpoko bigarren ilarako lehenengo hezurra. Eskafoide hezurarekin giltzatzen da alde proximalen, lehenengo metakarpo hezurarekin alde distalean, eta trapezoidearekin eta bigarren metakarpo hezurarekin barnealdetik. *ES:* Músculo trapecio *FR:* Trapèze *EN:* Trapezium, trapezius *Arloa:* Anat.
- Trapezoidal:** izond. Trapezoideari dagokiona; trapezoide-itxurakoa. *ES:* Trapezoidal *FR:* Trapézoidal *EN:* Trapezoidal
- Trapezoide:** iz. Karpoko bigarren ilarako bigarren hezurra; trapezioaren eta hezur handiaren artean dago. *ES:* Trapezoide *FR:* Trapézoïde *EN:* Trapezoid *Arloa:* Anat.
- Tratamendu:** iz. Gaixotasun, asaldu edo lesio bat sendatzeko, arintzeko nahiz hari aurre egiteko eskainitako arreta eta zainketak. Hainbat tratamendu mota daude: tratamendu aktiboa, sendatzeko; tratamendu aringarria, mina eta angustia baretzeko; tratamendu profilaktikoa, gaixotasun edo asalduraren bati aurrea hartzeko; tratamendu kausala, gaixotasunaren kausa edo zergatia argitzea. Era berean, sendagai bidezkoa, kirurgikoa edota laguntzazkoa izan daiteke tratamendua. *ES:* Tratamiento *FR:* Traitement *EN:* Treatment *Arloa:* Med.
- Tratamendua eman:** ad. Ikus 'tratatu'.
- Tratamendua jarri:** ad. Ikus 'tratatu'.
- Tratatu:** ad. Gaixo bat nahiz eritasun bat sendatzeko, hainbat bide edo metodo erabili. *ES:* Tratar *FR:* Traiter *EN:* To treat *Arloa:* Med.
- Trauma:** iz. Bizitako esperientzia gogor baten —emozio-shock handi bat— ondoriozko lesio psikikoa; aldaketa psikopatologiko iraunkorra dakar. *ES:* Trauma *Arloa:* Psikol.
- Traumatiko:** izond. Traumatismoari dagokiona. *ES:* Traumático *FR:* Traumatique *EN:* Traumatic
- Traumatismo:** iz. Kanpo-eragileek, agente mekani-koek, fisikoek edo kimikoek eragindako barne-nahiz kanpo-lesioa. *ES:* Traumatismo *FR:* Trauma *EN:* Trauma *Arloa:* Med.
- Traumatologia:** 1. iz. Medikuntzaren adarra; traumatismoen azterketaz eta tratamenduaz arduratzen da. 2. iz. Kirurgia-espezialitatea; zaurien, lesioen eta haien ondoriozko ezintasunen tratamenduaz arduratzen da. *ES:* Traumatología *FR:* Traumatologie *EN:* Traumatology *Arloa:* Med.
- Traumatologo:** iz. Traumatologian aditua den sendagilea. *ES:* Traumatólogo *FR:* Traumatologue *EN:* Traumatologist *Arloa:* Med.
- Trebakuntza:** iz. Ikus 'gaikuntza'.
- Trenkada:** iz. Ikus 'septu'.
- Trepanatu:** ad. Garezurra zein beste hezur bat zulatu, helburu diagnostiko nahiz sendagarriekin. *ES:* Trepanar *FR:* Trépaner *EN:* To trepan *Arloa:* Med.
- Trepanazio:** iz. Garezur-pareta zulatzeko ebakuntza. Trepano izeneko kirurgia-tresnaz (zilindro-itxurako zerraz) egiten da, burezuraren barneko presioa gehiegizkoa denean. *ES:* Trepanación *FR:* Trépanation *EN:* Trephination *Oharrak:* Gaur egun, ebakuntza kirurgikoetan egiten da, baina, antzina, errito-zeremonietan egiten zen. *Arloa:* Med.
- Trepano:** iz. Kirurgia-tresna; zilindro-itxurako zerra da, eta hezurak zulatzeko eta haien zatiren bat mozteko erabiltzen da. *ES:* Trépano *FR:* Trépan *EN:* Rephine *Arloa:* Med.
- Tresneria:** iz. Ekintza jakin baterako beharrezkoa den tresna multzoa. *ES:* Instrumental *FR:* Instrumental *EN:* Instrumental
- Trigono:** 1. iz. Triangelua. 2. iz. Gernu-maskuriaren behealdeko eta barrualdeko gunea, triangelu-itxurakoa; ureterren sarreran eta maskuri-lepoaren artean dago. 3. iz. Nerbio-ehun zurizko xafla, triangelu-itxurakoa. Garuneko gorputz kailukararen azpian eta hirugarren bentrikularen azpian dago. *ES:* Trígono *FR:* Trigone *EN:* Trigone *Arloa:* Anat.
- Trikinosi:** iz. *Trichinella spiralis* espezieko bel-darrek organismoan eragindako bizkarroi-gaixotasuna. Kutsatutako haragia, bereziki txerriarena, jatean hartzen da. Harrak linfa-hodietara eta zainetara igarotzen dira, eta horietatik giharretara, giharretan finkatu eta beldar berriak eratzen. Gaitz larria da; hasieran goragalea, oinazea eta beherakoa ditu ezaugarri, baina, trikinak giharretaraino iritsi ahala, sukarra, akidura, giharretako oinaze saminak, eosinofilia, edemak, artegasuena eta lorik eza agertzen dira. *ES:* Triquinosis *FR:* Trichinose *EN:* Trichinosis *Arloa:* Med.

- Trikoma:** 1. iz. Ile baten antzeko egitura harikara. 2. iz. Ilez, gantz-isurkinez, hautsez eta zikinkeriaz osatutako multzoa; ileko hainbat bizkarroiren hazkundera ahalbidetzen du. *ES:* Tricoma *FR:* Trichome *EN:* Trichome
- Trikotomia:** iz. Hirutan banatzea; prozesu bat, azalpen bat edo irudi bat, esate baterako. Kirurgian, ebakuntza egin behar den inguruko bizarra kentzea. *ES:* Tricotomía *FR:* Trichotomie *EN:* Tricotomy
- Trikromia:** iz. Teknika fotomekanikoa; koloredun irudiak lortzeko erabiltzen da, kolore primarioak modu egokian konbinatuz. *ES:* Tricromía *FR:* Trichromie
- Trikuspide:** 1. izond. (Bihotzeko balbuletariko bati nahiz hagin bati buruz) Hiru punta dituen. 2. iz. Balbula trikuspidia: bihotzaren eskuinaldeko aurikularen eta bentrikuluaren artean dagoen balbula. *ES:* Tricúspide *FR:* Tricuspidie *EN:* Tricuspid *Arloa:* Anat.
- Trimero:** 1. izond. Hiru zatiz osatua dagoena. 2. izond. (Organo edo organismoei buruz) Antzeko hiru osagaiz osatuta dagoena. 3. iz. Hiru molekula osatuta dagoen oligomeroa. *ES:* Trímero *FR:* Trimère *EN:* Trimer *Arloa:* Biol., Kim.
- Trinko:** izond. (Solido bati buruz) Barnean hutsunerik ez duena. Hezur-chunari dagokionez, zati harroaren aurkakoa; arola ez dena. *ES:* Compacto *FR:* Compact *EN:* Compact
- Tripa:** iz. Ikus 'sabel'.
- Trisomia:** iz. Zelula edo organismo diploide baten egoera genetiko patologikoa, kromosoma gehigarri bat izaten baitu dagokion kromosoma-bikotean. *ES:* Trisomía *FR:* Trisomie *EN:* Trisomy
- Triceps gihar:** iz. Hiru buru edo faszikulu dituen giharra; besoan eta izterrean dago. *ES:* Músculo tríceps *FR:* Triceps *EN:* Triceps *Arloa:* Anat.
- Trokante:** iz. Femur hezuraren lepoaren azpialdeko goraguneetariko bakoitza. Nagusia kanpoko aldean dago; txikia, berriz, barnekoan. Zebait gihar txertatzeko funtzioa du. *ES:* Trocánter *FR:* Trochanter *EN:* Trochanter *Arloa:* Anat.
- Tronbinaren kontrako:** izlag. Ikus 'antitronbina'.
- Tronbo:** iz. Odol-hodi baten barruan sortu eta sorreragune berean geratzen den koagulua. Plaketak, fibrina, gatzapen-faktoreak eta odol-zelulak pilatzearen ondorioz eratzen da. Hodien bidea erabat buxatuta gera daiteke zenbaitetan, tronboaren ondorioz. *ES:* Trombo *FR:* Thrombus *EN:* Thrombus *Oharrak:* Zangoetan nahiz bihotzean ager daiteke; bihotzean agertuz gero, bihotzekoa eragin dezake. *Arloa:* Med.
- Tronboflebitis:** iz. Zain baten hantura; koagulu bat eratzearekin batera agertzen da sarritan. Hainbat prozesuren ondorioz gerta daiteke: odol-hodi baten hormak jasandako traumatismoa, odolaren gehiegizko gatzapena, gaizko adurak, narritadura kimikoa, kirurgia osteko odol-estasia, eserita edo zutik edota geldirik denbora luzez egotea, zain barneko kateter bat denbora gehiegiz jarrita izatea, eta abar. Azaleko zainen bateko tronboflebitisa erraz atzematen da; hodi gogorra —lokarrri antzekoa— ukitzen da, eta, presioa eginez gero, oso sentibera da. Gorritua eta beroa egon daiteke haren inguruko gunea, eta azala zurbildua, hotza eta handitua. Zain sakon-tan gertatzen denean, berriz, mina eta karranpak dira tronboflebitisaren ezaugarri nagusiak. *ES:* Tromboflebitis *FR:* Thrombophlébite *EN:* Thrombophlebitis *Arloa:* Med.
- Tronbosi:** iz. Asaldu baskularra; tronbo bat eratzen da gorputzeko odol-hodiren baten barnean, eta hodia buxatu egiten da. Hiru dira tronbosiarene eragile nagusiak: odol-hodiaren aldaketak, odol-abiadaren aldaketak eta odolaren osagaien aldaketak. Iskemia da tronbosiarene eragin zuzena. *ES:* Trombosis *FR:* Thrombose *EN:* Thrombosis *Arloa:* Med.
- Tronbozito:** iz. Ikus 'plaketa'.
- Tropismo:** iz. Organismoaren nahiz haren zati baten mugimendua; inguruko kinadene eraginez (argia, grabitatea, indarra, eta abar) gertatzen da. Positiboa ala negatiboa izan daiteke tropismoa, kinadak materia hori erakartzearen edo urruntzearen arabera. *ES:* Tropismo *FR:* Tropisme *EN:* Tropism
- Troxa:** iz. Material egokiz eginiko hersgailua, gorputzeko gunee zehatz bat egokitzeko eta berari eusteko. *ES:* Faja *FR:* Liant *EN:* Binder
- Tu egin:** ad. Ikus 'listua bota'.
- Tuberkulosi-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'tuberkuloso'.
- Tuberkulosi:** iz. Gaixotasun kutsagarria, Koch-en baziloak eragina. Gizakiari eta hainbat animalari erasaten die. Baziloa arnasbideetan nahiz digestio-hodian sartu ondoren kutsatzen da tuberkulosia. Kutsadura gertatu eta gero, ageriko sintomarik gabeko aldi bat iragan ohi da. Aldi horretan, biriketako lesioak agertzen dira, eta X izpien bidez soilik ikus daitezke horiek; gainera, nodulu linfatikoak handitu egiten dira, eta tumorrak sortzen dira. Tuberkulosiarene sintoma nagusiak dira: bularreko mina, disnea, eztula, espektorazio zornetsua, arnas hotsak, biriketako odoljarioak, sukarra, nekea, ahultasuna eta argaltzea. Bi modutara ager daiteke: era kronikoan eta era akutuan. Tratatu ezean, handitu egiten dira tuberkuluak, eta, batzuk besteekin elkartuz, tuberkulu handiak eratzen dituzte. Tuberkulu horiek birika-barrunbera askatzen dira. Tuberkulosiarene tratamendurako, hainbat antibiotiko eta kimioterapiko erabiltzen dira: azido nikotinikoaren isoniazida, estreptomizina, etanbutola, rifanpizina, eta abar. *ES:* Tuberculosis *FR:* Tuberculose *EN:* Tuberculosis *Arloa:* Med.



- Tuberkulosiaren kontrako:** izlag. (Sendagaiei buruz) Tuberkulosiaren aurka erabiltzen dena. *ES:* Antituberculoso *FR:* Agent antituberculeux *EN:* Antitubercular agent *Obarrak:* Gutxienez bi, eta gehienetan hiru medikamentu behar izaten dira biriketako tuberkulosiaren aurkako tratamenduan, eta hainbat konbinaziotan erabiltzen dira. *Adibideak:* Isoniazida, pirazinamida, rifanpizina, etambutola. *Arloa:* Med.
- Tuberkuloso:** 1. izond. Tuberkulosiari dagokiona. 2. izond. Tuberkulosia duena. *ES:* Tuberculoso *FR:* Tuberculeuse *EN:* Tuberculous
- Tuberkulu:** 1. iz. Irtengune natural txikia, hezur batean edo beste atalen batean agertzen dena. 2. iz. Tuberkulosiaren ezaugarri den lesioa. Koch-en baziloak eragiten duen masa gris-horixka eta gogorra da, gardena edo opakua; hainbat tuberkulosi-folikuluren elkarketaz eratzen da. *ES:* Tubérculo *FR:* Tubercule *EN:* Tubercle *Arloa:* Med.
- Tuberkuludun:** izond. Tuberkulu baten itxura duena, edo tuberkuluak dituena. *ES:* Tuberoso *FR:* Tubéreux *EN:* Tuberosus
- Tuberositate:** iz. Hezur bako goragune zabala; giharrak eta lotailuak txertatzeko balio du. *ES:* Tuberosidad *FR:* Tubérosité *EN:* Tuberosity *Arloa:* Anat.
- Tubulu:** iz. Ikus 'hodixka'.
- Tumefakzio:** iz. Atal baten bolumena handitzearen ondoriozko edema; tumor edo infiltrazio baten ondoriozkoa izan ohi da. *ES:* Tumefacción, tumoración *FR:* Tuméfaction *EN:* Swelling *Arloa:* Med.
- Tumor:** iz. Ehunen hazkuntza; zelulen hazkuntza etengabea eta kontrolik gabeta du ezaugarri. Gune batekoa edota inguruko egituretara hedatutakoa izan daiteke tumorra. Halaber, onbera zein gaiztoa izan daiteke. *ES:* Tumor *FR:* Tumeur *EN:* Tumor *Arloa:* Med.
- Tunika:** iz. Geruza edo mintza; organismoko hainbat egitura estaltzen ditu. *ES:* Túnica *FR:* Tunique *EN:* Tunic *Arloa:* Anat.
- Turrusta:** iz. Ikus 'zorrotada'.
- Txantilo:** iz. Ikus 'kalibragailu'.
- Txantxar:** 1. iz. Hortzetako dentinari eta esmalteari erasaten dien asaldia. Mamia usteltzea dakar, eta gune hori desegitea eragiten du. Azidoa ekoizten duten bakterioen eraginez gertatzen da. 2. iz. Hezurretako molekula-nekrosia; hezurra bigundu eta kolorgetu egiten da, eta porotsu bihurtzen. Periostioko eta inguruko ehunetako hantura kronikoa gertatzen da, eta likidoz betetako zorne-zorro bat eratzen. *ES:* Caries *FR:* Carie *EN:* Caries *Arloa:* Med.
- Txantxartu:** ad. Txantxarra sortu, txantxarrak jo. *ES:* Cariar
- Txartu:** ad. Ikus 'okerragotu'.
- Txartze:** iz. Ikus 'okerragotze'.
- Txegoste:** iz. Ikus 'digestio'.
- Txepeltasun:** iz. Ikus 'ahuldade'.
- Txertaketa:** iz. Txertoa jartzea; pertsonaren immunitatea lortzeko egiten da. *ES:* Vacunación *FR:* Vaccination *EN:* Vaccination
- Txertatu:** 1. ad. Ehun bizi bat nahiz haren zati bat ezarri lesionatuta edo gaixo dagoen gorputz atal batean; helburu terapeutikoa du. *ES:* Injertar *FR:* Greffer *EN:* To graft *Arloa:* Med. 2. ad. Landatu, implantatu. Pertsona nahiz animalia bati gai organiko zein ez-organiko bat ezarri. Esate baterako, organo bat edo taupada-markagailu bat. *ES:* Implantar *FR:* Implanter *EN:* To implant *Arloa:* Med. 3. ad. Txertoa jarri. Norbaiti immunitatea eman gaixotasun baten aurrean, indargabetutako mikroorganismoak organismoan sartuz. *ES:* Vacunar *FR:* Vacciner *EN:* To vaccinate *Arloa:* Med.
- Txertatzaile:** 1. iz. Txertatzen duen pertsona. *ES:* Injertador 2. iz. Txertoa jartzen duen pertsona. *ES:* Vacunador
- Txertatze:** 1. iz. Gihar, lotailu eta tendoi baten atxikidura estua, bereziki hezurrarekikoa. 2. iz. Anatomian, finkatze-lekua; esate baterako, mugitzen den hezur batean gihar bat finkatzen den gunea. *ES:* Inserción *FR:* Insertion *EN:* Insertion *Arloa:* Anat. 3. iz. Ebakuntza kirurgikoa; ehun edo organo zati bat gorputzeko beste ehun batean ipintzea. Egitura-akats bat konpontzeko egiten da. Aldi baterako (erredura handietan) zein betiko izan daiteke txertatzea. Norberaren gorputzetik (autoinjertoa), egitura genetikoko bereko beste banako batengandik (homoinjertoa), edo beste espezie bateko banako batengandik (heteroinjertoa) erauzia izan daiteke ehun edo organo hori. *ES:* Injerto *FR:* Greffe *EN:* Graft *Arloa:* Med.
- Txerto:** iz. Indargabeturiko mikroorganismoak erabiliz egindako prestakina; immunitatea ematen du hainbat gaixotasunen aurrean. Dermis barnekoa, larruazalpekoa, aho bidezkoa edo gihar barnekoa izan daiteke. *ES:* Vacuna *FR:* Vaccin *EN:* Vaccine *Arloa:* Med.
- Txerto-ehun:** iz. Txertatzen den ehun edo organo zatia. *ES:* Injerto *FR:* Greffe *EN:* Graft *Adibideak:* Larruazala, hezurra, kartilagoa, odol-hodiak, nerbioa, giharra, kornea eta organo osoak (bihotza, giltzurruna, eta abar) ipin daitezke txerto-ehun gisa. *Arloa:* Med.
- Txertoa jarri:** ad. Ikus 'txertatu'.
- Txikitu:** ad. Txiki edo txikiago bihurtu. *ES:* Decrecer
- Txiza egin:** ad. Ikus 'pixa egin'.
- Txori:** iz. Ikus 'lupu'.
- Txorten:** iz. Ikus 'pedunkulu'.



# U

.....

- Ubeldu:** iz. Kolore iluneko gunea, larruazalean agertzen dena. Larruazalpeko zelula-ehunera odola igarotzearen ondorioz edo larruazalpeko kapilarrak haustearen ondorioz gertatzen da. Hainbat eragile izan ditzake: kolpeak, hotza, eta abar. *ES:* Moradura, moratón *FR:* Echimose, bleu *EN:* Bruise
- Ubeldura:** iz. Ikus 'ubeldu'.
- Ubelune:** iz. Ikus 'ubeldu'.
- Ubula:** iz. Ahosabai bigunetik zintzilik dagoen masa haragitsu txikia. Ubula-giharrez, ehun konjuntiboz eta mukosaz eratua dago. *ES:* Úvula *FR:* Uvule, lnette *EN:* Ubula, staphyle *Arloa:* Anat.
- Ubular:** izond. Ubulari dagokiona, edo ubulan dagoena. *ES:* Uvular *FR:* Úvulaire *EN:* Uvular *Arloa:* Anat.
- Udare-formako:** izlag. Udarearen forma duena. *ES:* Piriforme *FR:* Piriforme *EN:* Piriform
- Ugaldu:** ad. Ernaldtu eta sortu; espezie baten kopurua handitu. *ES:* Procrear *FR:* Procréer *EN:* To procreate
- Ugaldu:** ad. Ugaritu. Zelulen, atalen edo organismoen biderketaz hazi. *ES:* Proliferar *FR:* Proliférer *EN:* To proliferate
- Ugalketa:** iz. Bizidun antolatuek beren antzeko beste zenbait izaki sortzeko prozesua. Espeziearen iraupena ziurtatzea du helburu. *ES:* Reproducción *FR:* Reproduction *EN:* Reproduction *Arloa:* Biol.
- Ugalketa asexual:** iz. Landareetan eta behe mailako animalietan gertatzen den ugaritze mota; organismo berriak sortzen dira gametoak elkartu gabe. *ES:* Reproducción asexual *FR:* Reproducción asexuée *EN:* Asexual reproduction *Adibideak:* Ugalketa asexualak dira: gemazioa, segmentazioa eta esporen eraketa. *Arloa:* Biol.
- Ugalkor:** izond. Ikus 'emankor'.
- Ugal-sistema:** iz. Ugalketan parte hartzen duten organoen multzoa. Emakumezkoen eta gizonezkoen gonadek, konduktuek eta guruinek, eta kanpoko genitalek osatzen dute. *ES:* Sistema reproductor *FR:* Appareil génital *EN:* Reproductive system *Arloa:* Anat.
- Ugaltze:** iz. Ondorengoak sortzea helburu duen ugalketa-prozesua. *ES:* Procreación *FR:* Procréation *EN:* Procreation
- Ugatz-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'mamarío'.
- Ugatz:** iz. Ikus 'bular'.
- Ugatz kendu:** ad. Ikus 'bularra kendu'.
- Ugatz-guruin:** iz. Esnea jaria dezakeen guruina. Bi izaten dira, gorputz-enborraren goi-aurrealdean kokatuak. Larruazala eta larruazalpeko gantz-ehunak osatzen dituzte; titiburua eta areola nabarmentzen dira larruazalean. Gizonezkoetan, erabat garatu gabeak dira; emakumezkoetan, berriz, garatuak dira, baina edoskitzaroan lortzen dute garapen osoa. Azino ugariz osatuak daude ugatz-guruinak, eta lobuluxkatan biltzen dira azino horiek; lobuluxka horiek, aldi berean, lobulutan biltzen dira, eta lobuluetatik irteten dira titibururaino iristen diren hodi galaktoforoak. *ES:* Glándula mamaria
- Ugatzun:** iz. Animalia ornodun klasea; ugatzak izaitea du ezaugarri. Umeak esnea edoskiz elikatzen dira. Larruazala ilez estalia dute, homeotermoak dira, eta amaren umetokian garatu ondoren jaiozten dira umeak. *ES:* Mamífero *FR:* Mammifère *EN:* Mammal
- Uhindura:** iz. Uhin erako mugimendua. *ES:* Ondulación *FR:* Ondulation *EN:* Ondulation
- Ukabil:** iz. Esku itxia. *ES:* Puño *FR:* Poing *EN:* Fist
- Ukendu:** iz. Ikus 'pomada'.
- Ukimen-:** (Hitz elkartuetan) Ukimen-zentzumeneri dagokiona. *ES:* Táctil *FR:* Tactile *EN:* Tactile, tactual
- Ukimen:** iz. Objektuen ezaugarri ukigarriak haute-matea ahalbidetzen duen zentzumena. Larruazala da ukimenaren organoa; eskuia, bereziki. *ES:* Tacto *FR:* Toucher *EN:* Touch
- Ukipen-leiar:** iz. Ikus 'lentilla'.
- Ulna:** iz. Ikus 'kubitu'.
- Ultrasoinu:** iz. Segundoko 20.000 bibrazio baino gehiago dituen soinu. Mediku-erabilera ugari dituzte ultrasoinuek: fetuaren monitorizazioa, barne-organoen irudiak lortzea, eta kirurgia- eta hortz-tresnen garbiketa, besteak beste. Gehiegizko dosiek erredurak eragin ditzakete. *ES:* Ultrasonido *FR:* Ultrason *EN:* Ultrasound
- Ultzera:** iz. Larruazaleko edo mukosetako lesioa. Hantura- nahiz gaizkoadura-prozesuen ondoriozkoa izan ohi da. Ugariak dira ultzera-eragileak: traumatismoak (zauriak, marruskadurak, eta abar), eragile fisikoak (beroa, hotza, X izpiak edo bestelako irrada motak), odol-zirkulazioko asalduek, nerbio-asalduek, eritasun kutsagarriak,

- eta abar. *ES:* Úlcera, llaga *FR:* Ulcère *EN:* Ulcer *Arloa:* Med.
- Ultzeraren kontrako:** izlag. (Sendagaiei buruz) Ultzerari aurre egiteko erabiltzen dena. *ES:* Antiulceroso *FR:* Agent antiulcéreux *EN:* Antiulcerous agent *Adibideak:* Omeprazola, famotidina. *Arloa:* Med.
- Ultzeratsu:** 1. izond. Ultzerari dagokiona; ultzera duena. 2. izond. Ultzerazioak eragina. *ES:* Ulceroso *FR:* Ulcéreux *EN:* Ulcerous
- Ultzeratu:** ad. Ultzera bat eratu. *ES:* Ulcerar
- Ultzerazio:** iz. Ultzera bat eratzeko prozesua. *ES:* Ulceración *FR:* Ulcération *EN:* Ulceration *Arloa:* Med.
- Ultzeroso:** izond. Ikus 'ultzeratsu'.
- Ume:** iz. Ikus 'haur'.
- Umea izan:** ad. Ikus 'erditu'.
- Umedun:** izond. Ikus 'haurdun'.
- Umeki:** iz. Ikus 'fetu'.
- Umetoki barneko:** izlag. Umetoki barnean dagoena, edo umetoki barnean garatzen dena. *ES:* Intrauterino *FR:* Intrautérine *EN:* Intrauterine *Arloa:* Med.
- Umetoki barneko gailu:** iz. Antisorgailu mota; plastikoa erradiopakuzko tresna bat da, filamentu bakarreko buztan mehea duena, eta umetokiaren barrunbean ezartzen dena. Horrela, umetokiaren eta Fallopioren tronpen fisiologia aldatzen da, eta haurdunaldia eragozten du. 1-3 urte iraun dezake umetoki barnean. *ES:* Dispositivo intrauterino *FR:* Dispositif intra-utérin *EN:* Intrauterine device *Arloa:* Med.
- Umetoki:** iz. Emakumearen ugal-organoa. Umekia gordetzen du, obulua ernaldu denetik jaio arte. Horma gihartsuak ditu. Hainbat irtegunetik ditu umetoki-barrunbeak: beheko aldean, lepoan, bagina; goiko aldean, alde banatara kokatuak, Fallopioren tronpak. Hiru geruzaz osatua dago: endometria, miometria eta parametria. Endometria umetokiaren hormaren barneko geruza da, eta loditu eta baskularizatu egiten da haurdunaldian eta hileko zikloaren bigarren erdian, progesteronaren eraginez. Miometria umetokiaren giharrezko geruza da. Parametria, berriz, umetokiaren kanpoko geruza da. Umetokia handitu egiten da haurdunaldian; emakumea haurdun egon ezean, berriz, umetokiaren gorputzeko hormek elkar ukitzen dute. *ES:* Útero, matriz *FR:* Utérus *EN:* Uterus *Arloa:* Anat.
- Umetokiko:** izlag. Umetokiari dagokiona. *ES:* Uterino *FR:* Utérin *EN:* Uterine *Arloa:* Anat.
- Unadura:** iz. Ikus 'neke'.
- Unatu:** ad. Ikus 'nekatu'.
- Ungis:** iz. Ikus 'malko-hezur'.
- Unibitelino:** izond. Obulu bakarrari dagokiona, edo obulu bakarretik eratorria dena. *ES:* Univi-
- telino *FR:* Univitellin *EN:* Univitelline *Arloa:* Biol.
- Uniparo:** iz. Behin bakarrik erditu den emakumea. *ES:* Uníparo *FR:* Unipare *EN:* Uniparous
- Unitate higikor:** iz. Erraz garraiatzen den unitate erradiografikoa, erradiologia sailetik kanpora erabiltzeko diseinatua. *ES:* Unidad móvil *FR:* Unité mobile *EN:* Mobile unit
- Untziforme:** izond. Gako-itxura duena. *ES:* Unciforme *FR:* Unciforme *EN:* Unciform *Arloa:* Biol.
- Ur zikin:** iz. Ikus 'hondakin-ur'.
- Ur:** iz. Oxigeno atomo batez eta bi hidrogeno atomoz osaturik dagoen konposatu kimikoa. Ezinbesteko gaia da bizitzeko. *ES:* Agua *FR:* Eau *EN:* Water *Arloa:* Kim.
- Ur beltz:** iz. Biztanleriaren eta industriaren hondakinak biltzen dituen ura. *ES:* Agua fecal *FR:* Eau fécale *EN:* Black water
- Ur bigun:** iz. Kaltzio- eta magnesio-gatz gutxi (edo batere ez) dituen ura. *ES:* Agua blanda *FR:* Eau douce *EN:* Soft water *Arloa:* Kim.
- Ur desionizatu:** iz. Ioiak kendu eta gero anioirik eta katioirik gabe geratu den ura. *ES:* Agua desionizada *FR:* Eau désionisée *EN:* Deionized water *Arloa:* Kim.
- Ur destilatu:** iz. Lurrundu arte berotu eta gero beste ontzi batean kondentsatutako ura, lurrunkorrek ez diren solutuz aske dagoen ur likidoa lortzeko. *ES:* Agua destilada *FR:* Eau distillée *EN:* Distilled water *Arloa:* Kim.
- Ur oxigenatu:** iz. Hidrogeno-peroxidoa; antiseptiko modura erabil daiteke. *ES:* Agua oxigenada *FR:* Eau oxygénée *EN:* Hydrogen peroxide solution *Arloa:* Kim.
- Ur sendagarri:** iz. Helburu terapeutikoetarako erabiltzen den ur natural edo artifiziala. *ES:* Agua medicinal *FR:* Eau médicinale *EN:* Medicinal water
- Urbatu:** iz. Ikus 'baba'.
- Urdail-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'urdaileko'.
- Urdail:** iz. Digestio-hodiko organoa; hestegorriaren eta heste meharraren artean dago. Ahotik sartutako elikagaiak hestegorrian zehar igarota iristen dira urdailera, eta urdailaren hasten da digestioa; han osatutako elikadura-masa hestetara lekualdatzen da. Zenbait geruza ditu urdailak: mukosa-, azpimukosa-, gihar- eta serosa-geruzak. Odol-hodiak eta nerbioak dituzte geruza horiek. *ES:* Estómago *FR:* Stomac *EN:* Stomach
- Urdaileko:** 1. izlag. Urdailari dagokiona. 2. izlag. (Erremedioei buruz) Urdailaren onerako dena. *ES:* Estomacal, gástrico *FR:* Stomachique *EN:* Stomachic
- Urdaileko ultzera:** iz. Ikus 'urdail-ultzera'.
- Urdail-pisutasun:** iz. Urdaileko gune bateko ondoeza, pisu-sentsazio eran agertzen dena. *ES:* Pe-

- sadez de estómago *FR:* Lourdeur *EN:* Indigestion
- Urdail-ultzera:** iz. Urdaileko mukosako lesioa; gihar-geruza iragan eta urdailaren pareta zula dezake. Urdaileko ultzeraren sintomak dira: bat-bateko mina, erremina, goitikak, hematemesia eta ahulezia. Estresarekin, berragertzeko joera du. Berehala baretzen dute mina azidoen kontrako gaiek eta esneak. *ES:* Úlcera gástrica, úlcera de estómago *FR:* Ulcère gastrique *EN:* Gastric ulcer *Oharrak:* Gaur egun, ultzera *Helicobacter pylori* bakterioak eragina denean, antibiotikoak ere erabiltzen dira tratamendurako. *Arloa:* Med.
- Urduri:** izond. Nerbio-kitzikadurarako joera duena. *ES:* Nervioso
- Urduritasun:** 1. iz. Lasaitasunik eza eta ezinegona sentitzen dituenaren egoera. *ES:* Nerviosismo, excitación *FR:* Agitation *EN:* Jitters 2. iz. Psikiatrian, egoera patologikoa; emozio-intentsitatea, jarrera oldarkorra, aurrea hartzea eta suspertzea ditu ezaugarri. *ES:* Excitación
- Urea:** iz. Gai organiko ez-toxikoa; konposatu kristalino kologea da. Batez ere gernuan, eta kantidadetxikiagoan odolean, kiloan, linfan eta abarretan agertzen da. Urea gibelean sintetizatzen da, odolera pasatu, eta berehala kanporatzen da gernuaren bidez. Begi barneko likidoaren eta likido zefalorrakideoaren presioa txikitzeko erabiltzen da. Gai keratolitiko moduan ere erabiltzen da, bide topikotik. *ES:* Urea *FR:* Urée *EN:* Urea *Oharrak:* *Arloa:* Biokim.
- Uremia:** iz. Odolean urea eta beste hainbat gai nitrogenatu gehitzea ezaugarri duen gaixotasuna. Giltzurrun-gutxiegitasunak eragina izan ohi da. Uremiaren sintomak dira: goragalea, oka egitea, buruko mina, azkura, logalea, gernu-usaina hasean eta izerdian, eta abar. Zenbait kasutan, gaixoa koma-egoerara eramán dezake. Uremia sendatzeko, giltzurrunaren jarduera bere onera ekarri beharra dago (hemodialisia, giltzurrun-transplantea, eta abar eginez). *ES:* Uremia *FR:* Urémie *EN:* Uremia *Arloa:* Med.
- Ureter:** iz. Gernua giltzurrunetik maskurira darmaten gihar-zuntzeko bi hodietako bakoitza. Mugimendu peristaltikoak egiten ditu, gernua hodian barrena maskuriraino eramán ahal izateko. *ES:* Uréter *FR:* Uretère *EN:* Ureter *Arloa:* Anat.
- Uretra:** iz. Gernua maskuritik kanpora isurtzen duen hodia. Gizonezkoaren uretra maskuriaren lepotik zakilerainokoa da —16 cm inguru—. Emakumezkoarena, berriz, maskuriaren lepotik gernu-meaturainokoa —4 cm inguru—. Gizonezkoetan, uretratik esperma isurtzen da eiakulazioan, eta, maskuria hustean, gernua. *ES:* Uretra *FR:* Urètre *EN:* Urethra *Arloa:* Anat.
- Uretra-erraboila:** iz. Zakileko erraboila; uretra arolaren atal dilatatua da. *ES:* Bulbo uretral
- Urgentzia:** iz. Ikus 'larrialdi'.
- Urin:** iz. Jariakin likido fisiologikoa. Landarenahiz animalia-ehunek jariatzen dute. *ES:* Jugo *FR:* Jus *EN:* Juice *Arloa:* Biol.
- Urinario:** izond. Gernuari edo gernuaren sorrerari dagokiona. *ES:* Urinario *FR:* Urinaire *EN:* Urinary
- Urkatu:** izond. Soka batez lepotik zintzilikaturik hil dena. *ES:* Ahorcado *EN:* Hanged
- Urogenital:** izond. Ikus 'genitourinario'.
- Urologia:** iz. Medikuntzaren adarra; gizon-emakumeen gernubidearen eta gizonezkoen ugal-aparatuaren anatomiaz, fisiologiak, gaixotasunez eta tratamenduaz arduratzen da. *ES:* Urología *FR:* Urologie *EN:* Urology *Arloa:* Med.
- Urologo:** iz. Urologian aditua. *ES:* Urólogo *FR:* Urologue *EN:* Urologist *Arloa:* Med.
- Urradura:** 1. iz. Gihar-zuntz ugari bortizki haustearen ondorioa. *ES:* Desgarramiento 2. iz. Larruazaleko edo mukosetako lesioa. *ES:* Abrasión *FR:* Abrasion *EN:* Abrasion *Arloa:* Med.
- Urratu:** 1. iz. Larruazaleko narritadura, igurzketaren ondoriozkoa. *ES:* Rozadura *FR:* Irritation *EN:* Chafing 2. ad. Trinkotasun gutxiko zerbait hautsi. *ES:* Desgarrar 3. iz. Ikus 'urradura'.
- Urritasun:** iz. Akatsa edo gabezia; gizabanakoari jarduera arrunta eragozten dioten anormaltasun anatomiko, fisiologiko edo psikologikoen ondoriozkoa da. *ES:* Deficiencia *FR:* Déficience *EN:* Impairment
- Urtikaria:** iz. Larruazaleko asaldua; neurri eta forma aldakorreko pusla iragankorrak ditu ezaugarri, eta azkura ematen du. Gune batekoa edo orokortua izan daiteke. Gehienetan, ez da larria izaten, baina itomena eragin dezake laringeari erasanez gero. Oro har elikagai edo sendagairen batek eragina izan ohi den arren, intsekturen baten ziztadak ere eragin dezake urtikaria. *ES:* Urticaria *FR:* Urticaire *EN:* Urticaria *Arloa:* Med.
- Urtsu:** izond. Konposizioan ur asko duena, edo urez osatua dagoena. *ES:* Acuoso *FR:* Aqueux *EN:* Aqueous *Arloa:* Kim.
- Usaimen-:** (Hitz elkartuetan) Usaimenari dagokiona. *ES:* Olfativo *FR:* Olfactif *EN:* Olfactory
- Usaimen:** iz. Usainak hautemanarazten dituen zentzumenak; usaimen-nerbioen kitzikapenari esker betetzen du bere egitekoa. *ES:* Olfato *FR:* Odorat *EN:* Smell, olfaction
- Usaimen-nerbio:** iz. Usaimenarekin loturiko nerbio pare. Lehenengo gazezur bikotea da; hariizpi fin askok osatzen dute, usaimen-guneko mukosan adarkaturik. *ES:* Nervio olfativo, nervio olfatorio *FR:* Nerf olfactif *EN:* Olfactory nerve *Arloa:* Anat.

**Usain:** iz. Usaimena kitzikatzen duen lurruna edo emanazioa. *ES:* Olor *FR:* Odeur *EN:* Odor

**Usain egin:** ad. Ikus 'usaindu'.

**Usaindu:** ad. Usaina hauteman. *ES:* Oler *FR:* Sentir *EN:* To smell

**Usaintsu:** izond. (Edozein gairi buruz) Usaina duena. *ES:* Oloroso *FR:* Odorant *EN:* Odorous

**Usin:** iz. Ikus 'doministiku'.

**Usin egin:** ad. Ikus 'doministiku egin'.

**Usteldu:** ad. Ikus 'deskonposatu'.

**Ustelezin:** izond. Hondatzen edo deskonposatzen ez dena. *ES:* Incorruptible *FR:* Incorruptible *EN:* Untouchable

**Ustelgaitz:** izond. Usteltzen ez dena. *ES:* Imputrescible *FR:* Imputrescible *EN:* Imputrescible

**Utero:** iz. Ikus 'umetoki'.

**Uteroko:** izlag. Ikus 'umetokiko'.

**Utrikulu:** iz. Belarriko labirintoko bestibuluan dauden mintzeko bi poltsetan handiena. Egitura luzexka da; hodi erdi zirkularrekin komunikatua dago, bost zulo txoren bidez. *ES:* Utrículo *FR:* Utricule *EN:* Utricle *Arloa:* Anat.

**Uzki-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'uzkiko'.

**Uzki:** iz. Digestio-hodia amaitzen den irekigunea, ipurdiaren erdian dagoena; uzkitik kanporatzen da digeritu gabeko janaria. Uzki inguratzen duten barneko eta kanpoko esfinterrek itxiarazten dute. *ES:* Ano *FR:* Orifice cloacal *EN:* Cloacal aperture *Arloa:* Anat.

**Uzkialdeko:** izlag. Ikus 'uzkiko'.

**Uzkiko:** izlag. Uzkiari dagokiona. *ES:* Anal *FR:* Anal *EN:* Anal

**Uzkorno:** iz. Ikus 'kokzix'.

**Uzkurdura:** 1. iz. Neurri-murrizketa; bereziki, gihar-zuntzen neurriarena. *ES:* Contracción *FR:* Contraction *EN:* Contraction 2. iz. Ikus 'kontraktura'.

**Uzkurkor:** izond. Luzeraz zein neurritz laburtzeko edo zenbait kinadaren aurrean biltzeko gai dena. *ES:* Contráctil *FR:* Contractile *EN:* Contractile *Arloa:* Biol.

**Uzkurkortasun:** iz. Uz Kurtzeko ahalmena. Bizitzeko, oinarrizko ezaugarria da. Atal anatomiko bat noranzko batean laburtu eta bestean luzatu egiten da. *ES:* Contractilidad *FR:* Contractilité *EN:* Contractility *Arloa:* Biol.

**Uzkurraldi:** iz. Ikus 'uzkurtze'.

**Uzkurtu:** 1. ad. Gihar-ehunetan bat-bateko uz-kurdura eragin. *ES:* Crispar *FR:* Crisper *EN:* To contract, to tense *Arloa:* Med. 2. ad. Zerbaiten bolumena edo luzera murriztu. *ES:* Contraer *FR:* Contracter *EN:* To contract *Arloa:* Biol.

**Uzkurtze:** 1. iz. Arrisku fisiko baten edo estres handiaren aurrean izaten den erreakzio arrunta. Haren ezaugarri dira: apatia, letargia, depresioa, norberarenganako atzerapena eta, kasu larrietan, katatonia eta laborria. *ES:* Retraimiento *FR:* Comportement den retrait *EN:* Withdrawal *Arloa:* Psicol. 2. iz. Zenbait giharren bat-bateko uzurdura ahul edo nahi gabekoa. *ES:* Crispación *FR:* Crispation *EN:* Crispation *Arloa:* Med.

**Uztaitu:** ad. Ikus 'konkurtu'.

# X

- Xafla:** iz. Geruza mehea; esate baterako, hezurrezkoa. *ES:* Laminilla *FR:* Lamelle *EN:* Lamella *Arloa:* Med.
- Xantokromia:** iz. Likido zerebrospinalaren osagaia, hari kolore horia ematen diona. *ES:* Xantocromía *FR:* Xanthochromie *EN:* Xanthochromia *Oharrak:* Likido zerebrospinalaren kolore horiak nerbioguneetako odoljario zaharra adierazten du. *Arloa:* Med.
- Xantoma:** iz. Goragune edo tumor onbera; larruzalpeko geruzan garatzen da. Gehienetan, gibelaren jardueraren nahiz lipidoen metabolismoaren akatsen batek eragina izaten da. *ES:* Xantoma *FR:* Xanthome *EN:* Xanthoma *Arloa:* Med.
- Xantona:** iz. Konposatu organiko heteroziklikoa, azido salizilikoa anhidrido azetikoarekin berotuz lortzen dena. Hauts kristalino gisa edo orratz zuri gisa agertzen da. Koloreztatzaileak, lurrinak eta sendagaiak egiteko erabiltzen da. *ES:* Xantona *FR:* Xanthone *EN:* Xanthone *Arloa:* Kim.
- Xarabe:** iz. Ikus 'ziropa'.
- Xehakatu:** ad. Ikus 'xehatu'.
- Xehakatzte:** iz. Ikus 'xehatze'.
- Xehatu:** 1. ad. Ikus 'birrindu'. 2. ad. Mastekatu; janaria haginekin txikitu. *ES:* Triturar *FR:* Triturer *EN:* To triturate
- Xehatze:** iz. Gai bat hauts bihurtzea, etengabeko igurzketa bidez. *ES:* Trituración *FR:* Trituration *EN:* Trituration
- Xeroftalmia:** iz. Begiko asaldua; kornea eta konjuntiba lehorrak ditu ezaugarri. Oro har, A bitamina faltak eragiten du. *ES:* Xeroftalmía *FR:* Xérophtalmie *EN:* Xerophthalmia *Arloa:* Med.
- Xerosi:** iz. Larruzalaren lehortasunak eragindako egoera; hezetasun- edo gantz-gabezia izaten du epidermisak, eta azkura ematen du sarritan. Xerosiaren eragile izan daitezke: bainuak ohiz kanpoko maiztasunez hartzea, airearen hezetasun erlatibo baxua, iktosia, gantz-ekoizpena murriztea, eta, haren ondorioz, larruzala zahartzea. *ES:* Xerosis *FR:* Xérosis *EN:* Xerosis *Arloa:* Med.
- Xifoide:** iz. Bularrezurraren atzealdeko eta behealdeko apendizeta. *ES:* Xifoide *FR:* Xiphode *EN:* Xiphoid *Arloa:* Anat.
- Xingola:** iz. Haurrei irtetzen zaien negela, lehen hortzak jaiotzearekin batera. *ES:* Usagre *Arloa:* Med.
- Xiringa:** iz. Likidoak xurgatzeko edo likidoak presioz norabait sartzeko tresna. Zilindro-itxurako hodi batez —plastikozkoa zein beirazkoa—, enbuloaz eta orratz barne-huts batez osatua dago. *ES:* Jeringa, jeringuilla *FR:* Seringue *EN:* Syringe
- Xiringa hipodermiko:** iz. Orratz mehe barne-hutsa daraman xiringa txikia. Larruzalpean —larruzalpeko zelula-ehunean— likidoak injektatzeko prestatu dago. *ES:* Jeringa hipodérmica *FR:* Seringue hypodermique *EN:* Hypodermic syringe
- Xiringa-orratz:** iz. Xiringaren muturrean jartzen den orratza. *ES:* Aguja de jeringuilla
- Xiringatu:** ad. Xiringaz injektatzea. *ES:* Jeringar *FR:* Seringuer *EN:* To syringe
- Xiringaz sartu:** ad. Ikus 'xiringatu'.
- Xixku-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'besikular'.
- Xixku:** iz. Zaku- edo poltsa-itxura duen organoa; airez nahiz likidoz bete egoten da. *ES:* Vesícula *FR:* Vésicule *EN:* Vesicle *Arloa:* Anat.
- Xurgagailu:** iz. Gorputzeko barrunbeetatik gaiak xurgapen bidez ateratzen dituen tresna. Presio negatiboa izan ohi du. *ES:* Aspirador *FR:* Aspirateur *EN:* Aspirator *Adibideak:* Xurgagailuak dira xiringa hipodermikoak, xiringa garbitzaileak eta enbulo-ponpak.
- Xurgatu:** 1. ad. Gaiak barneratu. 2. ad. Ehun bati igorri zaion energia erradiatzailea gehitu; xurgatutako erradioaktibitate-dosiak baldintzatzen du ekintza hori. *ES:* Absorber *FR:* Absorber *EN:* To absorb *Oharrak:* Sendagai batzuk hesteetan xurgatzen dira.
- Xurgatzaile:** izond. (Batez ere odol-hodiei eta linfa-hodiei buruz) Xurgatzeko gaitasuna duena. *ES:* Absorbente *FR:* Absorbant *EN:* Absorbent
- Xurgatze:** iz. Ikus 'aspirazio'.

# Z

**Zabaldu:** 1. ad. Ikus 'hedatu'. 2. ad. Ikus 'dilatatu'.  
**Zabalgailu:** iz. Ikus 'espekulu'.

**Zabalkuntza:** 1. iz. Ikus 'dilatazio'. 2. iz. Ikus 'hedatze'.

**Zabaltze:** iz. Ikus 'hedatze'.

**Zaharkitu:** ad. Ikus 'zahartu'.

**Zahartu:** ad. Zahar bihurtu; zahar-itxura hartu edo eman. *ES:* Envejecer *FR:* Vieillir *EN:* To get old

**Zahartzaro:** iz. Giza bizitzaren azken zatia, heldutasunaren ondokoa; gutxi gorabehera 60 urte bete ondoren hasten da. Zahartzaroaren ezaugarri nagusiak dira: funtzio fisiologikoak eta psikologikoak ahultzea, ehunetako eta organoetako aldaketa atropikoak, eta, oro har, gizakiarengan eragina duten kanpoko faktoreetara egokitzeko gaitasuna gutxitzea. Gizakiari zahartzaroak eragiten dizkion ondorioen artean daude: azala zimurtzea, hezurak hauskor bihurtzea, giltzaduren malgutasuna galtzea, ikusmenaren eta entzumenaren galera, zainak gogortzea, oroimena galtzea eta, horrenbestez, adimen-bizkortasuna zurruntzea. *ES:* Senectud *FR:* Vieillesse *EN:* Old age

**Zahartzaroko inboluzio:** iz. Adinaren eraginez organoek jasaten dituzten aldaketan multzoa; ehunak eta organoak pixkanaka endekatzea dakar. *ES:* Involución senil *FR:* Involution sénile *EN:* Senile involution *Arloa:* Med.

**Zahartzte:** iz. Denborak bizidunengan eragiten duen aldaketa multzoa. Zelulek normal funtzionatzeko duten ezintasunagatik nahiz hiltzen diren edo desegoki funtzionatzen duten zelulak ordezkatzeko dituzten zelula berriak eratzeko ezintasunagatik gertatzen da. *ES:* Envejecimiento *FR:* Vieillesse *EN:* Aging

**Zahi:** iz. Epitelio hilez osatutako material ezkatatsua; buruko larruazalean edo ilearen jaioguneetan sortzen da. Dermatitis seboreikoaren ageraldi arina izan daiteke; xanpu keratolitikoa gomendatzen da tratamenduan. *ES:* Caspa *FR:* Pellicule *EN:* Dandruff

**Zain-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'zainetako'.

**-zain:** (Hitz eratorrietan) Ikus 'zaintzaile'.

**Zain:** iz. Odola kapilarretatik bihotzera bideratzen duen odol-hodia. Hiru geruzaz osatuta daude zainak: barnekoa edo endoteliala, erdikoa eta kanpokoak. Odola itzultzea oztopatzen duten bal-

bulak daude zainen barruan. Zainek arteriek baino geruza finagoak dituzte, eta arteriak baino elastikoagoak dira. *ES:* Vena *FR:* Veine *EN:* Vein *Arloa:* Anat.

**Zain barneko:** izlag. Zainaren barnealdeari dago-kiona, edo zainaren barnean dagoena; esate bate-rako, tronbo bat, injekzio bat, kateter bat, eta abar. *ES:* Endovenoso, intravenoso *FR:* Intravei-neux *EN:* Intravenous

**Zain barneko injekzio:** iz. Zain batean ipintzen den injekzio hipobolemikoa; sendagai-dosi bakar bat emateko egiten da. *ES:* Inyección intravenosa *FR:* Injection intraveineuse *EN:* Intravenous injection *Arloa:* Med.

**Zain basiliko:** iz. Besoan dauden bi zain azalekoe-tariko bat; besaurrearen alde kubitalean hasi, eta atzeko azaletik igarotzen da norabide proxima-lean. Zain humeralarekin batu, eta besapeko zai-na osatzen du. *ES:* Basilica *FR:* Veine basilique *EN:* Basilic vein *Arloa:* Anat.

**Zainartatu:** iz. Ikus 'luxazio'.

**Zainbildu:** iz. Ikus 'barize'.

**Zaindu:** ad. Norbaitez edo zerbaitez arduratu, kal-terik edo ezbeharririk gerta ez dakion. *ES:* Cuidar

**Zainetako:** izlag. Zain bati dagokiona. *ES:* Venoso-a *FR:* Veineux *EN:* Venous *Arloa:* Anat.

**Zainketa intentsiboko unitate:** iz. (ZIU) Ospitale-unitatea; han ospitaleratzten dira zaintza estua behar duten gaixoak, beharrezkoa duten denboran. Arreta intentsiboko unitateak zainketarako tresna sofistikuak ditu, eta zainketa bereziak eskaintze-ko prestatuak daude hango langileak. *ES:* Unidad de cuidados intensivos *FR:* Service de soins intensifs *EN:* Intensive care unit *Arloa:* Med.

**Zain-odol:** iz. Kolore gorri iluneko odola, ezker-bentrikulutik irten eta eskuin-aurikulara itzuli bitartean desoxigenatutakoa. Gorputzeko organo guztietatik biriketara doan odola da; hondakinak eta karbono dioxidoa dauzka. *ES:* Sangre venal, sangre venosa *FR:* Sang veineux *EN:* Venous blood

**Zaintiratu:** iz. Ikus 'bihurritu'.

**Zaintzaile:** iz. Zerbait edo norbait zaintzen duen pertsona. *ES:* Cuidador

**Zakil:** iz. Gizonezkoen ugal-organo zutikorra, pu-biseko sinfisiaren aurreko eta kanpoko aldean dagoena. Gernua kanporatzea eta esperma baginara edo umetoki-lepora eramatea da zakilaren



- funtzioa. *ES:* Pene, falo *FR:* Pénis *EN:* Penis *Arloa:* Anat.
- Zakil-moko:** iz. Ikus 'glande'.
- Zaku:** iz. Poltsa-itxura duen organo nahiz barrunbea; horma bigunez inguratua egon ohi da. Liki-doz betea egoten da sarritan, eta irekigunez hornitua zein irekigunerik gabea izan daiteke. *ES:* Saco *FR:* Sac *EN:* Sac *Arloa:* Anat.
- Zaldar:** iz. Ikus 'gurintxo', 'furunkulu'.
- Zale:** izond. Ikus 'menpeko'.
- Zalu:** izond. Ikus 'malgu'.
- Zalutasun:** iz. Ikus 'malgutasan'.
- Zango:** iz. Beheko gorputz-adarraren zatia, belau-naren eta oinaren artekoa. Tibia edo berna-hezurra eta peronea dira zangoaren eskeletoa osatzen duten hezurak. *ES:* Pierna *FR:* Jambe *EN:* Leg *Arloa:* Anat.
- Zango-bizkar:** iz. Ikus 'bernazaki'.
- Zango-sagar:** iz. Zangoaren atzeko zatia; bereziki, gune popliteoaren beheko aldean dagoen zati mamitsua. Bikieki eta soleoak osatzen dute. *ES:* Pantorrilla *FR:* Mollet *EN:* Calf *Arloa:* Anat.
- Zapaldu:** izond. (Gorputz-eskualde bati buruz) Gorputz-egitura bat inguratzen duten azalen azpitik zanpatua gelditu dena. *ES:* Deprimido *FR:* Déprimé *EN:* Depressed
- Zapore:** iz. Gorputz batek dastamen-organoan eragiten duen sentsazioa. *ES:* Sabor *FR:* Saveur *EN:* Taste
- Zaragar:** iz. Ikus 'hazteri'.
- Zarakar:** iz. Kanpoko geruza gogorra, jariakin lehorrez (odola, zornea, serositatea) osatutako materia solidoa, batez ere. *ES:* Costra *FR:* Croûte *EN:* Crust
- Zarakardun:** izond. Zarakarrak dituen. *ES:* Costroso *EN:* Scabby
- Zarakartsu:** izond. Ikus 'zarakardun'.
- Zarrastatu:** ad. Ikus 'tarratatu'.
- Zartatu:** ad. Ikus 'pitzatu'.
- Zati:** iz. Hezur hautsi baten puska bakoitza. *ES:* Fragmento *FR:* Fragment *EN:* Fragment
- Zatiketa:** iz. Ikus 'eszisio'.
- Zauri:** iz. Larrazala haustea eragiten duen edozein lesio fisiko. Istripuz gertatzen da, gehienetan. *ES:* Herida *FR:* Plaie *EN:* Wound
- Zauririk gabe:** adlag. Ikus 'kalterik gabe'.
- Zauritu:** izond. Tratu txarrak jaso dituen; egoera fisiko edo moral txarrean dagoena. *ES:* Maltrecho
- Zefalalgia:** iz. Buruko mina; zefalea. *ES:* Cefalalgia *FR:* Céphalalgie *EN:* Cephalalgia *Arloa:* Med.
- Zefalea:** iz. Buruko mina; hainbat jatorri izan ditzake. *ES:* Cefalea *FR:* Céphalée *EN:* Headache *Arloa:* Med.
- Zefaliko:** izond. Burukoa, edo buruari dagokiona. *ES:* Cefálico *FR:* Céphalique *EN:* Cephalic
- Zefalorrakideo:** 1. izond. Entzefaloari eta bizkarrezurmuinari dagokiena. 2. iz. Likido zefalorrakideo: Garunaren eta orno-muinaren barrunbea nahiz piamaterraren eta espazio araknoideoaren arteko gunea betetzen dituen likidoa. 100-150 ml-koa izaten da kantitatea, egoera normalean. *ES:* Cefalorraquídeo *FR:* Céphalo-rachidien *EN:* Cefalorrhachidian *Arloa:* Anat.
- Zehar-:** (Hitz elkartuetan) Gorputz bat alde batek bestera igarotzen duena, edo gorputz baten luzetarako ardatza gurutzatzen duena. *ES:* Transversal *FR:* Transversal *EN:* Transversal
- Zeharka:** adlag. Ardatz baten norabidetik alden-duz. *ES:* Transversalmente *FR:* Transversalement *EN:* Transversally
- Zeharkako:** izlag. Ikus 'zehar'.
- Zeinu:** 1. iz. Gaixotasun edo egoera baten ezaugarri objektiboa; medikuak atzematzen du. Zeinu asko sintomekin batera agertzen dira. *ES:* Signo *FR:* Signe *EN:* Sign *Oharrak:* Sukarra da hainbat prozesutan agertzen den zeinu bat. 2. iz. Ikus 'seinale', 'arrasto'.
- Zeloma:** iz. Enbrioiaren gorputzean dagoen barrunbea, somatopleuraren eta esplaknopleuraren artekoa. Zelomatik sortzen dira enborreko barrunberik garrantzitsuenak. *ES:* Celoma *FR:* Coelome *EN:* Coelom *Arloa:* Zool.
- Zelula-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'zelular'.
- Zelula:** iz. Ehun bizien oinarriko osagaia. Zelula eukariotoak nukleo batez, zitoplasma eta mintz zitoplasmikoak inguratzen dituen organuluz osatuak daude. *ES:* Célula *FR:* Cellule *EN:* Cell *Arloa:* Biol., Biokim.
- Zelula arteko:** izlag. Bi zelularen edo gehiagoren artean dagoena. *ES:* Intercelular *FR:* Intercellulaire *EN:* Intercellular *Arloa:* Biol.
- Zelula biko:** izlag. Ikus 'bizelular'.
- Zelula kalizakara:** iz. Ikus 'zelula kaliziforme'.
- Zelula kaliziforme:** iz. Kaliza-itxurako epitelio-zelula; mukia izaten du. *ES:* Célula caliciforme *FR:* Caliciforme *EN:* Calyciform
- Zelulabakar:** izond. (Organismoei buruz) Zelula bakar batez osatua dagoena. *ES:* Unicelular *FR:* Unicellulaire *EN:* Unicellular *Arloa:* Biol.
- Zelula-mintz:** iz. Zelula guztiek duten —bai eukariotoek, bai prokariotoek— estalki erdi iragazkor zitoplasmikoa. Zelulak bizirik irauteko oinarriko funtzioak betetzen ditu zelula-mintzak, eta zelularen eta haren ingurunearen arteko gai-trukea kontrolatzen du. *ES:* Membrana celular *FR:* Membrane cellulaire *EN:* Cell membrane
- Zelulaniztun:** izond. Ikus 'plurizelular'.
- Zelular:** izond. Zelulei dagokiena, edo zelulaz osatua dagoena. *ES:* Celular *FR:* Cellulaire *EN:* Cellular *Arloa:* Biol.

- Zelulitis:** iz. Larruazaleko infekzioa; gorritzea, mina eta hantura, eta batzuetan sukarra, ondoeza, hotzikara eta zefalea ditu ezaugarri. Antibiotikorik eman ezean, zorne-zorroak agertu eta ehunak suntsitzen dira. *ES:* Celulitis *FR:* Cellulite *EN:* Cellulitis *Arloa:* Med.
- Zeluloide:** iz. Gai plastiko sintetikoa; batik bat piroxilina eta alkanforrez osaturik dago. Odontologian eta kirurgian erabiltzen da. *ES:* Celuloide *FR:* Celluloïd *EN:* Celluloid
- Zelulosa:** iz. Landareen polisakarido nagusia. Landareen zelula-pareten egitura osatzen du, eta izadjan aurki daitekeen gai organiko ugariena da. Gizakiak ezin du digeritu, baina bai animalia belarjaleek. *ES:* Celulosa *FR:* Cellulose *EN:* Cellulose *Arloa:* Biokim.
- Zementatu:** ad. Zerbitangan zementazio-prozesua eragin. *ES:* Cementar
- Zementazio:** iz. Zementatzea, hortzetako zuloak zementoz estaltzea. *ES:* Cementación *FR:* Cimentation *EN:* Cementation
- Zementu:** 1. iz. Hortz baten sustraia estaltzen duen hezur-ehunezko egitura. 2. iz. Hortzetako zuloak estaltzeko erabiltzen den gaia. *ES:* Cemento *FR:* Ciment *EN:* Cement *Arloa:* Anat.
- Zenestesia:** iz. Hainbat organotatik datozen barne-sentsazioen multzoa. *ES:* Cenestesia *FR:* Cénesthésie *EN:* Cenesthesia *Arloa:* Med.
- Zentigradu:** iz. Temperatura-eskala; 0 °C da uraren izozte-puntua, eta 100 °C uraren irakite-puntua, itsas mailan. *ES:* Centígrado *FR:* Centigrade *EN:* Centigrade
- Zentigramo:** iz. Gramo-ehunenaren pisua; *cg* da haren sinboloa. *ES:* Centígramo *FR:* Centigramme *EN:* Centigram
- Zentimetro:** iz. Luzera-unitatea; metro-ehunenari edo 0,3937 hazbeteri dagokio. *ES:* Centímetro *FR:* Centimètre *EN:* Centimeter
- Zentrifugagailu:** iz. Ikus 'zentrifugatzaile'.
- Zentrifugatu:** ad. Konposatuaren osagaiak bereizi. Horretarako, indar zentrifugoaren eraginpean jartzen da konposatua, eta abiadura handiz birarazi. *ES:* Centrifugar *FR:* Centrifuger *EN:* To centrifuge
- Zentrifugatzaile:** iz. Laborategiko tresna; zentrifugaziorako erabiltzen da. Beirazko edo metalezko bi hodi ditu; hodi horietan, aztertu beharreko likidoa jartzen da, eta mugimendu zirkular azkarrez eragiten zaio, osagaiak banatzeko. *ES:* Centrifugador *FR:* Centrifugeuse, centrifugeur *EN:* Centrifuge
- Zentrifugatze:** iz. Ikus 'zentrifugazio'.
- Zentrifugazio:** iz. Konposatuaren osagaiak bereiztea. Horretarako, indar zentrifugoaren eraginpean jartzen da konposatua, eta abiadura handian birarazi. *ES:* Centrifugación *FR:* Centrifugation *EN:* Centrifugation
- Zentrifugazio:** iz. Nahaste nahiz isurkari baten osagaiak bereizteko prozesua; nahasturari edo disoluzioari indar zentrifugo eraginez egiten da. Zentrifugazioaren bidez, osagaiak dentsitatearen arabera bereizten dira. *ES:* Centrifugado *FR:* Centrifugation, centrifugeage *EN:* Centrifugation, spinning *Arloa:* Kim.
- Zentrifugo:** izond. (Indar bati buruz) Higikariari kanporantz —ardatzetik urrun— eragiten diona. *ES:* Centrifugo *FR:* Centrifuge *EN:* Centrifugal *Adibideak:* Mugimendu-nerbioak.
- Zentriolo:** iz. Zelula barneko organulua. Zitoplasmaren edo zelularen nukleoan egoten da. Eragina du zelularen zatiketan. *ES:* Centriolo, centrosoma *FR:* Centriole *EN:* Centriole *Arloa:* Biol.
- Zentripetu:** izond. (Indar bati buruz) Biraketa-sistema batean, higikaria biraketa-zentrorantz, ardatzerantz, bultzatzen duena; zentrifugoaren kontrakoa. *ES:* Centripeto *FR:* Centripète *EN:* Centripetal
- Zentzudun:** izond. Ikus 'zuhur'.
- Zentzumen:** iz. Gorputzen ezaugarriak hautemateko gaitasuna. Ikusmena, usaimena, entzumena, dastamena, ukimena eta grabitatearekiko sentikortasuna (oreka) dira zentzumen nagusiak. *ES:* Sentido *FR:* Sens *EN:* Sense *Arloa:* Biol.
- Zentzumen-organo:** iz. Ingurunearen ezaugarri zenbait (usaina, itxura eta kolorea, hotsa, hotz-beroa, zaporea, egitura) hautematen dituen organoa. *ES:* Organo sensorial *FR:* Organe des sens *EN:* Sensory organ
- Zentzuzko:** izlag. Ikus 'argi'.
- Zerbikal:** 1. izond. Lepokoa, edo hari dagokiona; garondokoa, edo hari dagokiona. 2. izond. Lepoaren antzeko egitura duen gune estua; esate baterako, hortz baten lepoa edo umetokiko lepoa. *ES:* Cervical *FR:* Cervical *EN:* Cervical *Arloa:* Anat.
- Zerbitzu:** iz. Erakunde edo taldea; jendearen beharrik asetzeko du helburu. *ES:* Servicio *FR:* Service *EN:* Service
- Zerebelo:** iz. Atzeko garezur-hobian dagoen entzefalo zatia; entzefalo-enborraren atzean, hain zuzen. Alboko bi hemisferioek eta *vermis* izeneko erdiko goraguneak osatzen dute. Hiru pedunkulu parek entzefalo-enborraren lotzen dute. Garuntxoaren funtzioak nahita egiten den giharekintzarekin edo -mugimendurekin lotuak daude. *ES:* Cerebelo *FR:* Cervelet *EN:* Cerebellum *Arloa:* Anat.
- Zerebral:** izond. Garunari dagokiona, edo garunaren dagoena. *ES:* Cerebral *FR:* Cérébral *EN:* Cerebral
- Zerebro:** iz. Ikus 'garun'.
- Zergati:** iz. Ikus 'kausa'.
- Zerio:** iz. Ce. Elementu kimikoa, metalikoa, lur arraroen taldekoa. Erreaktibitate handia du. Ze-

- rioren konposatu batek, oxalatoak, hainbat erabilera ditu medikuntzan: lasaigarria da, eztularen kontrakoa eta antiemetikoa. *ES: Cerio FR: Cérium EN: Cerium Arloa: Kim.*
- Zesarea:** iz. Ebakuntza mota; sabelaldeko paretan eta umetoki-paretan ebaki bana eginez fetua, plazenta eta obulu-mintzak amaren sabeletik ateratzean datza. *ES: Cesárea FR: Césarienne EN: Cesarean Oharrak:* Amaren edo fetuaren aldetik anomaliaren bat dagoenean egiten da, erditze baginala arrisksua izan daitekeen kasuetan. *Arloa: Med.*
- Zesareaz jaio:** izond. Modu naturalean jaio ez dena; amaren sabelean ebaki bat eginez ateratuko haurra. *ES: Nonato EN: Born by Caesarean*
- Zesio:** iz. Cs. Elementu kimikoa, metalikoa, alkalien taldekoa, oso biguna eta zilar kolorekoa. Izadiko gairik elektropositiboena eta erreaktiboena da. Gatz eta konposatu ugari (bromuroa, karbonatoa, sulfatoa, eta alunbreak) eratzen ditu. *ES: Cesio FR: Césium EN: Cesium Arloa: Kim.*
- Zeta:** iz. Zeta-kuskutik ateratzen den hari-formako gaia. Kirurgian erabiltzen da, zauriak josteko. *ES: Seda*
- Zetazko hari:** iz. Harizipi, gaza, kotoi zein beste materialen batez eginiko lokarri mehea; larrualzapeko ehunean edo kiste batean zehar igaroarazten da, zabalguneko edo fistula bat egiteko. *ES: Sedal FR: Séton EN: Seton Arloa: Med.*
- Zetona:** iz. Konposatu kimiko organikoa; karbonilo edo zeto talde bat du bere egituran (=CO), bi alkilo talderi lotua. Bigarren mailako alkoholen oxidazioz lortzen da. *ES: Cetona FR: Cétone EN: Ketone Arloa: Kim.*
- Zianogeno:** iz. (CN) Konposatu nitrogenatua. Gas kolorgea da, oso pozoitsua. Uretan disolbatzen da, eta azido zianhidrikoa eta azido zianikoa ematen ditu. Erabilera berezirik ez du, baina oso erabilia da ikerkuntzan, gai konposatu organiko eta ez-organikoen ezaugarriak baititu. *ES: Cianógeno FR: Cyanogène EN: Cyanogen Arloa: Kim.*
- Zianosi:** iz. Larruazalaren eta mukosen kolore urdina; bihotzeko eta biriketako gaixotasunen eraginez agertzen da batez ere, odolaren gutxiegiako oxigenazioaren ondorioz. *ES: Cianosis FR: Cyanose EN: Cyanosis Arloa: Med.*
- Zianuro:** iz. Azido zianhidrikoaren anioia, eta azido zianhidrikotik eratorritako gatzen izen orokorra. Zianuro alkalinoak oso pozoitsuak dira. Potasio eta sodio zianuroak dira gehien erabiltzen direnak. *ES: Cianuro FR: Cyanure EN: Cyanide Arloa: Kim.*
- Ziatika:** iz. Nerbio ziatikoaren hantura mingarria. Izterreko eta zangoko hipersentiberatasuna eragiten ditu, eta zangoaren beheko giharretako atrofia ere eragin dezake. Pertsona helduek nozitzen dute, batez ere. *ES: Ciática FR: Sciatalgie EN: Sciatica Arloa: Med.*
- Ziatiko:** 1. izond. Aldakari dagokiona. 2. iz. Nerbio ziatiko: Beheko gorputz-adarretako bi nerbio luzeetariko bakoitza. Sakro-plexoan du jatorria, eta izterretako, zangoetako eta oinetako giharretan zehar luzatzen da, hainbat adarkadura osatuz. Aldakako eta zangoko hainbat gihar mugiarazten ditu, eta zangoko larruazalaren sentipenak jasotzen ditu. *ES: Ciático FR: Sciatique EN: Sciatic Arloa: Anat.*
- Zientifikotasun:** iz. Zientifiko izatearen ezaugarria. *ES: Cientificidad FR: Scientificté EN: Scientificity*
- Zientzia:** iz. Behatutako fenomeno jakinei buruzko teoriak ezartzeko saiakera sistematikoa, eta ahalegin horren ondorioz lortutako ezagutza. *ES: Ciencia FR: Science EN: Science*
- Zientzialari:** iz. Zientzia edo jakintza batean diharduena. *ES: Científico FR: Scientifique EN: Scientist*
- Zifosi:** iz. Bizkarrezurraren gehiegiako kurbadura; irtengunea eratzen du bizkarrezurraren atzeko aldean. *ES: Cifosis FR: Cyphose EN: Kyphosis Oharrak:* Zifosiaren soztzaile izan daitezke, besteak beste, errakitismoa eta orno-tuberkulosia. *Arloa: Med.*
- Zigoma:** iz. Ikus 'hezur malar'.
- Zigomatiko:** izond. Zigomari dagokiona. *ES: Cigomático FR: Du malaire EN: Zygomatic Arloa: Anat.*
- Zigomorfo:** iz. Landare mota; haren ardatzetik igarotzen den plano bakarrak bi alde simetrikotan bereizten du. *ES: Cigomorfo FR: Zygomorphic EN: Zygomorphe*
- Zigoto:** iz. Bi gametoren arteko elkarketatik sortutako izaki berria. *ES: Cigoto, zigoto FR: Zygote EN: Zygote Arloa: Biol.*
- Zikin:** izond. Ikus 'ez-puru'.
- Zikintasun:** iz. Ikus 'ez-purutasun'.
- Ziklazio:** iz. Kate ireki bat ziklo bihurtzeko prozesua. *ES: Ciclación FR: Cyclisation EN: Cyclization*
- Zikliko:** izond. (Gai osatu organikoek buruz) Zikloka gertatzen dena; kate itxia duena. *ES: Cíclico FR: Cyclique EN: Cyclic*
- Ziklo:** iz. Denbora-tarte zehatzen ondoren, beti ordena berean errepikatzen den gertakari multzoa. *ES: Ciclo FR: Cycle EN: Cycle*
- Ziklotimia:** iz. Psikosi mota; mania eta depresioa txandaka agertzen dira. *Psikosi maniako-depresiboa* gisa ere ezagutzen da, aldi maniakoak eta malenkoniatsuak tartekatzen baitira. *ES: Ciclotimia FR: Cyclothymie EN: Cyclothymia Arloa: Psikiat.*
- Zilarbizi:** iz. Ikus 'merkurio'.

**Zilbor-:** 1. (Hitz elkartuetan) Zilborrari dagokiona. 2. (Hitz elkartuetan) Zilbor-hesteari dagokiona. *ES:* Umbilical *FR:* Ombilical *EN:* Umbilical *Arloa:* Anat

**Zilbor:** iz. Sabelaldeko gunea; hor elkartzen da zilbor-hestea fetuaren sabelaldearekin. Pertsona gehienetan, gune hondoratua izaten da, baina irtegunegisa ageri da zenbait kasutan. *ES:* Ombligo *FR:* Ombligo *EN:* Umbilicus

**Zilbor-eten:** iz. Ikus 'zilbor-hernia'.

**Zilbor-hernia:** iz. Sabelaldeko errai bat edo haren zati bat zilbor-eraztunetik irtetea egiten den etadura. *ES:* Hernia umbilical *FR:* Hernie ombilicale, omphalocèle *EN:* Umbilical hernia, omphalocele *Arloa:* Med.

**Zilbor-heste:** iz. Organo luze eta malgua; karena eta fetua lotzen ditu, eta fetuaren elikadurarako ezinbestekoak diren bi arteria eta zain bat ditu. *ES:* Cerdón umbilical *FR:* Cordon ombilical *EN:* Umbilical cord

**Zilborreko:** iz. Haur jaioberrietan, zilborreko sendaketa estaltzen duen lotura. *ES:* Ombligüero

**Ziliar:** 1. izond. Betileei edo zelulen zilioei dagokiena. 2. iz. Gorputz ziliar: Begiko geruza bas-kular loditua ezaugarri duen gorputza; irisa ko-roidearen aurreko aldearekin elkartzen du. *ES:* Ciliar *FR:* Ciliaire *EN:* Ciliary *Arloa:* Anat., Biol.

**Ziliatu:** izond. Zilioak dituen organo edo organismoa. Esate baterako, zenbait protozoo eta organismo hainbat epitelio-zelula. Protozoo horiek ugalketa sexuala nahiz asexuala izan dezakete. *ES:* Ciliado *FR:* Cilié *EN:* Ciliate *Arloa:* Biol.

**Zilio:** iz. Ile-itxurako luzakin txikiak; zenbait zelularen kanpo-azalean egoten dira. Lagungarri dira zelularen mugimenduan. *ES:* Cilio *FR:* Soies *EN:* Cilia *Arloa:* Biol.

**Ziliodun:** izond. Ikus 'ziliatu'.

**Zimurtasun:** iz. Zimurra denaren ezaugarria. *ES:* Rugosidad *FR:* Rugosité *EN:* Rugosity

**Zimurtsu:** izond. Zimur asko duena, edo zimurrak ezaugarri dituena. *ES:* Rugoso *FR:* Rugueux *EN:* Rugose

**Zinetika:** iz. Fisiologian, gorputzeko mugimenduak eragiten, geldiarazten edo aldarazten dituzten indarren azterketa. Giltzaduretan eragiten duten gihar-indarrek Newtonen legeak jarraitzen dituzte. Giharren erreakzio-indarrek eragina dute orekan eta gorputzaren mugimenduan. *ES:* Cinética *FR:* Cinétique *EN:* Kinetic *Arloa:* Kim., Fis.

**Zinetiko:** izond. Higidurari dagokiona; higiduran oinarritzen dena. *ES:* Cinético *FR:* Cinétique *EN:* Kinetic *Arloa:* Kim.

**Zink:** iz. Zn. Elementu kimiko metalikoa, zuri-urdinxka. Atmosferako hezetasunak oxidatu egiten du, eta azalean eratzen zaion geruzak babesten

du oxidazio sakonagoetatik. Oinarritzko oligoelementua da gorputzerako, eta prestakin farmazeutiko asko egiteko erabiltzen da. Proteinak prezipitatze duen gaitasunari zor dizkio zinkak bere ezaugarrietariko asko. Haren gatz asko sendagarriak edota toxikoak dira. Zinkaren gatzak lehorgarri eta antiseptiko arin gisa erabiltzen dira, besteak beste; ahotik hartuz gero, urdaileko mukosa narritatzen dute eta okadak eragiten dituzte. *ES:* Zinc, cinc *FR:* Zinc *EN:* Zinc *Arloa:* Kim.

**Zintzur:** iz. Ikus 'eztarr'.

**Zintzur-heste:** iz. Ikus 'trakea'.

**Zintzur-heste:** izlag. Ikus 'trakeal'.

**Zintzur-korapilo:** iz. Laringeko tiroide-kartilagoak lepoan eratzen duen irtegunegisa; irtenagoa izan ohi da gizonekoengan. *ES:* Nuez (de Adán) *FR:* Pomme d'Adam *EN:* Adam's apple *Arloa:* Anat.

**Zintzur-sagar:** iz. Ikus 'zintzur-korapilo'.

**Zirineri-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'beherako'.

**Zirkulatorio:** izond. Zirkulazioari dagokiona. *ES:* Circulatorio *FR:* Circulatoire *EN:* Circulatory

**Zirkulatu:** ad. Zirkuitu baten barruan mugitu. *ES:* Circular *FR:* Rouler

**Zirkulatzaile:** izond. Zirkuitu baten barruan mugitzen dena. *ES:* Circulante *FR:* Circulant *EN:* Circulating

**Zirkulazio-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'zirkulatorio'.

**Zirkulazio:** iz. Objektu edo gai baten mugimendua, ibilbide zirkular batean zehar; mugimenduan dagoen gaia berriz bere abiapuntura itzultzea ahalbidetzen du. Esate baterako, odolaren eta linfaren mugimendua organismoan. *ES:* Circulación *FR:* Circulation *EN:* Circulation

**Zirkulazio-sistema:** iz. Organismoko likido elikagarriak garraiatzen dituzten kanalen sarea. *ES:* Sistema circulatorio *FR:* Appareil circulatoire *EN:* Circulatory system *Oharrak:* Bi zati nagusi ditu: birika-zirkulazioa eta zirkulazio sistemikoa. *Arloa:* Anat.

**Zirkuluerti-:** (Hitz elkartuetan) Ikus 'zirkuluerti-formako'.

**Zirkuluerti-formako:** izlag. Zirkuluerti baten itxura duena. *ES:* Semicircular *FR:* Demi-circulaire *EN:* Semicircular

**Zirkunboluzio:** iz. Garunaren azaleko goragune bihurrietako bakoitza; ildo inguratuak daude. *ES:* Circunvolución *FR:* Circonvolution *EN:* Gyrus *Arloa:* Anat.

**Zirkunflexu:** izond. Arku-itxura duena. Bereziki, gorputzeko hainbat egitura inguratzen dituzten odol-hodi eta nerbioak. *ES:* Circunflexo, circunflejo *FR:* Circonflexe *EN:* Circumplex

**Zirkunzidatu:** ad. Ikus 'erdaindu'.

**Zirkunzizio:** iz. Ikus 'erdainkuntza'.

**Ziropa:** iz. Azukrezko disoluzio urtsu kontzentratua. Medikuntzan erabiltzen diren ziropok sen-

- dagaiak daramatzate, eta haien izena hartzen dute: kodeina-ziropa, ipekakuana-ziropa, eta abar. *ES: Jarabe FR: Sirop EN: Syrup*
- Zirrara eragin:** ad. Ikus 'hunkitu'.
- Zirraragarri:** izond. Ikus 'hunkigarri'.
- Zirrarazko:** izlag. Ikus 'emoziozko'.
- Zirrikituko:** izlag. Ehunen arteko espazioetakoa, edo haiei dagokiena. *ES: Interstitial FR: Interstitiel EN: Interstitial*
- Zirrituko:** izlag. Ikus 'zirrikituko'.
- Zirrosi:** iz. Gibelari erasaten dion endekapenezko gaixotasun kronikoa. Gibeledko lobuluak ehun zuntzuz estaliak egoten dira; parenkima, berriz, endekatu; lobuluxkak, gantzez beteak. Hainbat asaldu agertzen dira: glukogenesiarena, sendagaien eta alkoholaren metabolismoarena, bilirrubinarena, bitaminen xurgapenarena, funtzio gastrointestinalarena, hormonen metabolismoarena, eta gibelaren beste zenbait funtzioarena. Alkoholaren abusu kronikoaren ondorio izan ohi da, baina beste zenbait prozesuren ondoriozkoa ere izan daiteke; besteak beste, elikadura-gabezia, hepatitisa, eta beste zenbait infekzio. Zirrosiaren sintomak dira: goragalea, haize-mina, anorexia, pisugalera, aszitisa, kolore gutxiko gorotzak, ahulezia, sabelaldeko mina, barizeak eta angiomak. *ES: Cirrosis FR: Cirrhose EN: Cirrhosis Oharrak:* Ugari dira zirrosia eragiten duten gaitzak, baina alkoholismoa da ohikoena. *Arloa: Med.*
- Zirrotiko:** 1. izond. Zirrosiari dagokiona. 2. izond. Zirrosiak jotakoa. *ES: Cirrótico*
- Zistitis:** iz. Gernu-maskuriari eta ureterrei erasaten dien hanturazko asaldua. Mina, pixa egiteko larritasuna, maiz pixa egin beharra eta hematuria ditu ezaugarri. Zistitisaren eragile izan daitezke: bakterio-infekzioak, kalkulak eta tumorrak. *ES: Cistitis FR: Cystite EN: Cystite Arloa: Med.*
- Zisura:** 1. iz. Organo baten azaleko ildo, ez oso sakona; esate baterako, garun-hemisferioetako zirkunboluzioak banatzen dituena. 2. iz. Hemisferioarteko zisura: Garuneko bi hemisferioak banatzen dituen ildo sakona. *ES: Cisura, hendidura FR: Sillon EN: Sulcus Arloa: Anat.*
- Zita:** iz. Ikus 'hitzordu'.
- Zitazio:** iz. Norbaitekin hitzordua zehaztea. *ES: Citación FR: Citation, subpoena EN: Subpoena*
- Zitologia:** iz. Zelulen azterketa; zelulen sorrera, jatorria, egitura, funtzioak, jarduera biokimikoa eta asalduak aztertzen dira. *ES: Citología FR: Cytologie EN: Cytology Arloa: Biol.*
- Zitoplasma:** iz. Zelula bat osatzen duen gai oro, nukleoa izan ezik. Zelularen bizitzarako ezinbesteko prozesuetan parte hartzen duten zenbait organulu daude *zitosol* izeneko gaian bilduta: mitokondrioak, diktiomak, kromoplastoak, Golgi-ren aparatua eta zentrioloak. *ES: Citoplasma FR: Cytoplasme EN: Cytoplasm Arloa: Biol.*
- Zitoplasmiko:** izond. Zitoplasmakoa, edo zitoplasmari dagokiona. *ES: Citoplásmico FR: Cytoplasmique EN: Cytoplasmic*
- Zitosina:** iz. ADNren eta RNAn osagai diren lau base nitrogenatuetako bat. Pirimidinatik eratorritako molekula organikoa da. Zelula gehienetan agertzen da, era askean, kantitate txikitant bada ere. *ES: Citosina FR: Cytosine EN: Cytosine Arloa: Biokim.*
- Zitrina:** iz. *Flavonoide* kristalino kontzentratua; adrenalinarekin jarduerari laguntzen dio. Hosto berdeetan egoten da. *ES: Citrina EN: Citrin Arloa: Kim.*
- Ziurtagiri:** iz. Agiri publiko edo pribatua, gertakari baten egiazkotasuna ziurtatzen duena. *ES: Certificado FR: Certificat EN: Certificate*
- Ziurtapen:** iz. Erizaintzan, elkartean profesional baten prozedura; gizabanako tituludun batek lanbide espezializatu jakin bat egiteko beharrezko baldintzak betetzen dituela ziurtatzea. *ES: Certificación FR: Certification EN: Certification*
- Ziurtatu:** ad. Zerbait egiazkotzat jo; ziurtagiri baten bidez, gertakari baten egiazkotasuna baieztatu. *ES: Certificar FR: Certifier EN: To certify*
- Zizipaza:** iz. Mintzairaren akatsa; zazeatzea, zizoa, *s* fonema *z* ahoskatzea. *ES: Ceceo FR: Zézaïement EN: Lisp, lisping*
- Zizipaza egin:** ad. Zazeatu, *s* fonema *z* ahoskatu. *ES: Cecear*
- Ziztada:** 1. iz. Helburu jakinetarako, atal edo barrunbe batean trokar, bisturi nahiz orratz mehe bat sartzea. 2. iz. Ziztatu ondoren, larruazalean geratzen den zauria edo zuloa. *ES: Punción FR: Ponction EN: Puncture Arloa: Med.* 3. iz. Orratz edo ezten batez larruazalean egindako zauri sakon txikia. *ES: Picadura FR: Piqûre EN: Prick*
- Ziztatu:** ad. Larruazalean zauri arina egin, eztena edo punta zorrotza duen zerbaitekin. *ES: Piquer FR: Piquer EN: To bite, to itch*
- Zoldura:** iz. Ikus 'gaizkoadura'.
- Zolitasun:** iz. Ikus 'zorroztasun'.
- Zona:** iz. Hanturazko gaixotasun akutua; larruazalari erasaten dio. *Varicela-zoster* birusak eragiten du. Haren ezaugarri dira larruazaleko puslak, multzoka bilduak; eskuarki, larruazaleko nerbioaren baten ibilbidea jarraitzen dute. Saihetsen artean, begi inguruan eta lepoan agertzen dira gehienbat. *ES: Zona FR: Zona, herpès zoster EN: Zona, herpes zoster Arloa: Med.*
- Zoofilia:** iz. Asaldu psikosexuala; animaliekin lortzen da sexu-kitzikapena, eta sexu-harremanak izaten dira haiekin. *ES: Zoofilia FR: Zoophilie EN: Zoophilia Arloa: Psikiat.*



- Zoofobia:** iz. Antsietate-asaldua; animalien gaineko beldur iraunkor eta irrazionala du ezaugarri. Batez ere txakurren, sugeen, intsektuen eta saguen aurrean gertatzen da. *ES:* Zoofobia *FR:* Zoophobie *EN:* Zoophobia *Arloa:* Psikiat.
- Zorabiatu:** ad. Zorabioa izan edo eragin. *ES:* Marear *Arloa:* Med.
- Zorabio:** iz. Ondoez orokorra; gorakoak, bertigoak eta sinkoperako joera ditu ezaugarri. *ES:* Mareo *FR:* Mal de mer *EN:* Light-headedness, sea sickness *Arloa:* Med.
- Zoraldi:** iz. Ikus 'eromen'.
- Zoratu:** ad. Ikus 'erotu'.
- Zorigaitzoko:** izlag. Ikus 'saihestezin'.
- Zoritxarreko:** izlag. Ikus 'saihestezin'.
- Zornadura:** iz. Zauri edo lesio baten egoera zornetsua; zornea eratzen edo jariatzen du. *ES:* Purulencia *FR:* Purulence *EN:* Purulence *Arloa:* Med.
- Zornatu:** ad. Zauri nahiz zaldar batean zornea eratu edo kanporatu. *ES:* Supurar *EN:* To suppurate *Arloa:* Med.
- Zorne:** iz. Zolduta dauden zaurietan eratzen den likido lodi hori-zurixka, mikroorganismo eta leukozitoen hondakinez osatua. *ES:* Apostema, pus *Oharrak:* Bi osagai nagusi ditu zorneak: isurkaria (gazura) eta gai trinkoak (piozitoak, leukozito endekatuak, gantzak, gantz-azidoak eta mikroorganismoak). *Arloa:* Med.
- Zornedun:** izond. Zornea eratzen edo isurtzen duena. *ES:* Purulento *FR:* Purulent *EN:* Purulent *Arloa:* Med.
- Zorne-isuri:** iz. Ikus 'piorrea'.
- Zorne-jario:** iz. Zornea eratu eta kanporatzea; askotan gertatzen da hanturazko prozesuetan. *ES:* Supuración *FR:* Suppuration *EN:* Suppuration *Arloa:* Med.
- Zornetsu:** izond. Ikus 'zornedun'.
- Zorne-zorro:** iz. Ikus 'abzesu'.
- Zoro:** izond. Ikus 'ero'.
- Zoroetxe:** iz. Buru-eritasunak dituzten gaixoentzako egoitza; ospitale psikiatrikoa. *ES:* Casa de locos, manicomio
- Zorotasun:** iz. Ikus 'erotasun'.
- Zorri:** iz. Egun bakarrean gorputz osoa estal dezakeen bizkarroia; gunerik zikinenei erasaten die, bereziki. *ES:* Piojo *FR:* Pou du corps *EN:* Body louse
- Zorriak kendu:** ad. Pertsona edo objektu bat zorritz garbi utzi. *ES:* Despiojar *EN:* To delouse
